

30 URTE MIHIGINTZAN

Euskara elkarteek
euskararen biziberritzean
izan duten eragina
1987 — 2017

30 URTE MIHIGINTZAN

Euskara elkarteek
euskararen biziberritzean
izan duten eragina
1987 — 2017

Egilea: TXERRA RODRIGUEZ GOMEZ

Tesi zuzendaria: PATXI JUARISTI LARRINAGA

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

2020ko martxoa

Egilea: Txerra Rodriguez Gomez
Tesi zuzendaria: Patxi Juaristi Larrinaga
Maketatzailea: Alejo Moreno Sainz
Azaleko argazkia: Aitor Zabala

Derion, 2020ko martxoan

Testu hau Creative Commons lizentziapean dago



Aitortu - Partekatu berdin 3.0 Espainia (CC BY-SA 3.0 ES)

Lizentzia osatua: <https://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/es/deed.eu>

Inprimategia: Ardines Impresores, Larrauri Kalea, 1 C Behea, 48160 Derio – Bizkaia

Aurkibidea

Esker ona	9
0. Atarikoa	11
1. Ainguratze teorikoa: arlo kontzeptuala	15
1.1 Sarrera	15
1.2 Soziolinguistikaren aterkipean	17
1.3 Hizkuntzen biziberritzea	21
1.3.1 Hizkuntza plangintzak	25
1.4 Ekintza kolektiboa	32
1.4.1 Mugimendu sozialak	34
1.4.2 Mugimendu sozialak eta interes taldeen arteko elkarguneak eta aldeak	39
1.4.3 Mugimendu sozialen emaitzak	42
1.5 Hizkuntzen aldeko mugimendu sozialak	46
1.5.1 Hizkuntza gutxituen aldeko mugimendu sozialak han eta hor	54
1.5.2 Euskararen aldeko mugimendu sozialak	62
1.5.2.1 Euskaingintza	62
1.5.2.2 Euskararen aldeko mugimendu sozialak	66
1.6 Euskara elkarteen definizio operatiboa	72
2. Galderak	77
2.1 Helburuak	77
2.2 Hipotesiak	78
2.3 Azterbideak	79
3. Galderei erantzuna emateko metodologia	83
3.1 Ikuspegi epistemologikoa	83
3.2 Mugatze lana	88
3.3 Ikerketa tresnak	90
3.3.1 Testuen azterketa	91
3.3.2 Sakoneko elkarrizketak	94
3.3.3 Delphi teknika	99
3.3.4 Iturri ez-zuzenen azterketa	102

4. Azterketa: galderei emandako erantzunak	105
4.1 Sarrera	105
4.2 Euskara elkarten historia.	106
4.2.1 Protohistoria: "Satorren garaia"	107
4.2.2 80ko hamarkada: Arrakalak eta hurrengo aroko lehen zantzuak	114
4.2.3 1987: Mugarri teorikoa, Txepetxen lana	121
4.2.4 90eko hamarkada: euskara elkarten loraldia.	124
4.2.5 00ko hamarkada: Sendotzea, profesionalizazioa gainbeheraren lehen zantzuak	129
4.2.6 10eko hamarkada: Topagunearen kongresuak eta berritze estrategikoa	134
4.3 Euskara elkarten taxonomia	141
4.3.1 Zenbat euskara elkarte egon da?	141
4.3.2 Non errotu dira elkarteak?	143
4.3.3 Zelan sortu ziren?	148
4.3.4 Nortzuk izan dira elkarteetan aktibo?.	152
4.4 Euskara elkarten zutabe filosofikoak	162
4.5 Euskara elkarten helburuak.	178
4.6 Euskara elkarten praktikak	183
4.6.1 Zelan egin dituzte gauzak euskara elkarteek?	184
4.6.1.1 Egiteko moduak.	185
4.6.1.2 Funtzionamendua	195
4.6.2 Zer arlotan jardun dute euskara elkarteek?	205
4.6.2.1 Tokiko hedabideak.	209
4.6.2.1.1 Zergatik jardun dute alor honetan elkarteek?	210
4.6.2.1.2 Ezaugarriak.	211
4.6.2.1.3 Jardunbideak.	214
4.6.2.1.4 Beste hedabide batzuk	221
4.6.2.2 Kulturgintza.	224
4.6.2.2.1 Zergatik jardun dute alor honetan elkarteek?	225
4.6.2.2.2 Jardunbidea.	226
4.6.2.3 Haur eta gazteak	232
4.6.2.3.1 Zergatik jardun dute alor honetan elkarteek?	232
4.6.2.3.2 Jardunbidea.	233
4.6.2.4 Erabilera programak.	239
4.6.2.4.1 Zergatik jardun dute alor honetan elkarteek?	239
4.6.2.4.2 Jardunbidea.	240
4.6.2.4.2.1 Mintzapraktika programak	240
4.6.2.4.2.2 Aktibazio programak	243
4.6.2.5 (G)uneak	245
4.6.2.5.1 Zergatik jardun dute alor honetan elkarteek?	245

4.6.2.5.2 Jardunbidea	246
4.6.2.6 Eragite lanak	249
4.6.2.6.1 Zergatik jardun dute alor honetan elkarateek?	249
4.6.2.6.2 Jardunbidea	249
4.6.2.7 Jakintza eta diskurtsoaren sozializazioa	255
4.6.2.7.1 Zergatik jardun dute alor honetan elkarateek?	255
4.6.2.7.2 Jardunbidea	256
4.6.2.8 Bestelakoak	263
4.7 Euskara elkarten emaitzak	265
4.7.1 Balorazio orokorra	266
4.7.2 Euskaldunon komunitatea trinkotu	271
4.7.3 Euskararen erabilera sustatu	278
4.7.3.1 Tokiko hedabideak	280
4.7.3.2 Kulturgintza	284
4.7.3.3 Haur eta gazteak	286
4.7.3.4 Erabilera programak	289
4.7.3.5 (G)uneak	293
4.7.3.6 Eragite lanak	295
4.7.3.7 Jakintza eta diskurtsoaren sozializazioa	299
4.7.4 Beste eragin batzuk	301
4.8 Aurrera begirako ekarpenak	303
4.8.1 Funtzionamendua	303
4.8.2 Egiteko moduak	305
4.8.3 Diskurtsoa	307
4.8.4 Jardunbidea	308
5. Ondorioak	311
5.1 Fenomeno poliedrikoa	311
5.2 Komunitategintza eginkizun	313
5.3 Komunitatea trinkotu	315
5.4 Ekarpn teoriko bat praktikan	316
5.5 Performatibo jokatu dute	318
5.6 Berrikuntza soziala	320
5.7 Erresonantzia jendartean	324
5.8 Azken ondorioa: amets guztiak ez dira bete, baina	325
6. Etorkizunari begirako proposamen praktikoak	331
6.1 Norberari dagozkionak	333
6.2 Taldeari dagozkionak	335

6.3 Proiektuari dagozkionak	338
7. Azken berbak	343
8. Bibliografia	345
9. Eranskinak	379
9.1 Eduki-azterketan erabilitako liburuen gaineko fitxa (egileak, data, luzera, izaera eta laburpena).	379
9.2 Eduki-azterketaren fitxa orokorra	383
9.3 Sakoneko elkarrizketetan erabilitako gidoia	384
9.4 Delphi galdetegirako bidalitako testua	385
9.5 Sakoneko elkarrizketak eta transkripzioak	392
<hr/>	
Taulen aurkibidea	
1. Testu azterketan erabilitako testuen zerrenda eta aukeratzeko irizpideak	93
2. Sakoneko elkarrizketen matrizea	98
3. Delphi galdetegian parte hartu dutenen matrizea	102
4. Euskara elkarteetan langile kopurua 2017an	159
5. Tokikom-era federatutako tokiko euskarazko hedabideak 2017an	218
Irudien aurkibidea	
1. Topagunera federatutako elkarteak urtetik urtera	143
2. Boluntarioen kopurua euskara elkarteetan 2017an	154
3. Euskara elkarteetako boluntario eta langileak 2017an, 30 urtetik beherakoak eta emakumeak	159
4. Euskara elkarteek jorratzen dituzten lan arloak 2017an	208
5. Euskara elkarteetan aurrekontuak 2017an	209
Mapen aurkibidea	
1. Inoiz euskara elkarteak izan duten herrien mapa	144
2. Inoiz euskara elkarteak izan duten herrien mapa, hedabideen alorra bakarrik landu duten elkarteak kenduta	145

Esker ona

Lau urteren ostean, hainbat jenderi eman behar dizkiot eskerrak. Batetik, ikerketaren zati bat edo beste irakurri eta iruzkindu didaten horiei: Olatz Olatso, Ainize Madariaga, Abel Irizar eta Elias Zumalderi. Ikerketa batean itzelezko garrantzia du bibliografiak eta langintza horretan nire ondoan izan ditut beti Habe liburutegiko beharginak eta, batez ere, Imanol Irizar. Soziolinguistika eta hizkuntza aplikatuaren inguruan, gurean den liburutegirik osatuena eta interesgarriena da, baina, horrez gain, bertako langileen hurbiltasuna eta laguntzeko duten prestutasuna askoz interesgarriago egiten du. Bibliografian ere izan dut bestelako lagunik. Eneko Borja, Imanol Miner eta Mikel Ozaita bereziki. Zuek zarate zuek!

Honen tankerako ikerketa egiteko kontaktuak ezinbestekoak dira. Eta lan horretan alboan izan ditut Topaguneko kideak, batez ere, Iker Martinez de Lagos, Sonia Perez, Oskar Zapata eta Manuel Moreno. Aipamen berezia merezi du, hala ere, Jasone Mendizabalek. Berarekin batuta abiatu nuen ikerketa hau (gutxi asko) eta berak ireki zizkidan Topaguneko ateak eta Topaguneko funts bibliografikoak ere. Eskerrik asko!

Doktoretza tesi batek, ikerketaz gain, bestelako burokraziak ere eskatzen ditu. Eta bidezidor horietan ezinbesteko makulu izan ditut lagun handi bi, biak ala biak doktoregai neure sasoi beretsuan: Lide Totorikaguena eta Ane Leniz.

Tesian ere mapa bi egin behar izan ditut, nire bizitzan lehendabiziko aldiz. Eta horretan lagun, zelan ez, Joxe Rojas izan dut, biba zu! Eta tesiari itxura txukunago emateko lanean eskerrak Aitor Suarezzi eta Alejo Morenori.

Baina, tira, eskerrak, batez ere, eman behar dizkiet ikerketan parte hartu duten guztiei, elkarrizketatuei eta galdetegia bete dutenei. Ikerketa zuei esker egin ahal izan dut. Kasu guztietan, tesiari buruz galderak egin dizkidazue, giro ona sortu duzue eta ekarpen ezin ordainduzkoak egin. Horrez gain, euskara elkartean euren lana, gogoia, ilusioa eta grina jarri duten ehunka emakume eta gizonei ere eskertu nahi diet. Izan ere, mugimendu horretan aritutakoei esker, egin ahal izan dut nik ikerketa hau, bere argi eta bere ilunekin. Txikigintza aukeratu zuten guztiei mila esker!

Ikerketa honetan bideratzaile nagusia izan dut: Patxi Juaristi zuzendaria. Bideratu nau gidatu barik eta gidatu nau bideratu barik. Eztabaida antologikoak izan ditugu, baina azkenean ia beti bat etorri gara. Plazer bat izan da. Ikaragarri ikasi dut eta ikaragarri aberastu da ikerketa zure iruzkinekin.

Eta, azkenik, eskerrak eman nahi dizkiet modu batera edo bestera lagundu eta babestu nauten lagunei (Martin, Josu, Ibai, Lore, Mendi, Zior, Ixone, ...) eta tesian zehar musika jarri didaten errimaren nazioarteko alberdaniako kideei. Zaindu, babestu eta jasan nauen amari (aita gogoan!). Eta Eiderri, zuk badakizu zergatik. ■

0. Atarikoa

Ikerketa honek Euskal Herriko historia hurbilean (azken hiru hamarkadetan, 1987tik 2017ra hain zuzen ere) euskara elkarteek zer ekarpen egin dioten euskararen biziberritzeari argitzea izan du helburu. Azken hamarkadetan ahalegin indibidual eta kolektibo asko egon dira euskara biziberritzeko, 6oko hamarkadatik aurrera batez ere. Ahalegin horiek guztiak mugimendu baten barruan kokatu daitezkeen arren, mugimendu horren parte bati baino ez dio begiratzen ikerketa honek: euskara elkarteek eta haren inguruan sortutako ekinbide eta jardueri dagokion parteari, hain zuzen ere.

Ahalegin kolektibo horietan garrantzi berezia izan du autoeratzek, ikastolatatik hasita komunikabideetaraino. Euskara elkarten kasuan, autoeratzek ere itzelezko garrantzia izan du eta du. Tokian-tokian sortu, garatu eta gidatu diren jardunbideak jarri dituzte martxan herrietako elkarteek. Hortaz, toki mailako fenomenoak izan dira eta dira elkarteak, herri bakoitzaren nortasunean eta egiteko moduetan zeharo txirikordatuak eta sustraituak egon dira. Beraz, zeharo poliedrikoa da fenomenoak, zeharo polikromatikoa, nahiz eta parte hartu duten kide gehienek, modu batera edo bestera, mugimendu baten parte irudikatu euren burua.

Baina ez hori bakarrik. Euskara elkarteek zer ekarpen egin duten gutxi iker-tua izan da (baita euskararen aldeko mugimendu sozialen ekarpenak ere). Eta,

gainera, mundu mailan oso bakanak dira tankera honetako ezaugarriak dituzten mugimenduak. Izan ere, gutxi dira tokian toki garatu eta behetik gora eraturako mugimenduak. Baina dauden gutxi horiek ez dute inola ere euskara elkarteen mugimenduak duen indar, hedadura, sendotasun eta esperientziarik.

Mila ertzetako fenomeno da, esan dudan bezala, euskara elkarteena. Hortaz, honi hurreratzeko, ahotsen polifonia aukeratu egin dut. Euskara elkarteen mugimenduan aritutakoen eta mugimenduaren inguruan proposamenak eta ikerketak egin dituztenen ahotsetan oinarritzen da, hein handi batean, ikerketa hau. Ahots horiek esandakoetatik eraiki dut ikerketaren oreka, ikerketaren gatzagia. Polifonia hori bideratzen aritu naiz ikerketan zehar, hurrenkera logiko bati jarraituz. Izan ere, iruditzen zait horren mugimendu lokalari tankera hartzeko beharrezkoa zela protagonistei ahotsa eman, eragileen berbak kontuan hartu. Euren eraiki, gidatu, pentsatu eta egin dutze elkartearen zelakotasuna, euren mamitu dituzte praxian elkartearen ekintzak eta helburuak. Beraz, logikoa da protagonista horien esperientzietatik abiatuta mugimenduaren ekarpenak balioestea, beti ere, ahots horiek dakartena bestelako ikerketa, testu eta abarrekin kontrastatuz.

Tokian tokiko ahots eta pertsona hauetatik abiatu banaiz ere, ahalegindu egin naiz fenomenoaren modu ahalik eta holistikoagoan azaltzen, ahalegindu naiz fenomenoaren modu globalean aztertzen, tokian tokiko berezitasun eta ezaugarrietatik abiatuta, baina herririk herri egon diren ezaugarri komuneki jaramon egiten: tokikotasuna dakarte elkarteek, baina ahalegindu naiz tokikokerian ez erortzen. Beraz, ahalegindu naiz mugimenduaren ahalik eta argazkirik osatuena egiten.

Ikerketan, baina, hainbat hautu egin behar izan dut. Batetik, protagonisten ahotsen indarra ematea, esan dudan bezala. Baina, era berean, mugimenduak berak ekoitzi duen material idatzia ere aztertu dut, baita gai horren inguruan han eta hemen argitaratu diren ikerketak eta hausnarketak ere. Bestetik, jakintza beti da kokatua eta, hortaz, erabaki behar izan dut zelan hurbildu ikerketara. Eta betaurreko aktibistak jantzita egin dut hurbilketa. Izan ere, ni neu izan naiz eta banaiz mugimenduaren honen kide, Deriotik eta Deriora. Baina, horrez gain, ikerketa eta jakintza ulertzeko nire moduek ere zeresana dute. Nik ikerketa ulertzen dut ezagutzak zabaltzeko bide bezala, jakintzak handitzeko bide bezala eta fenomeno baten ertzak eta bazterrak azalera ekartzeko bide bezala. Bai. Eta hori gutzia dakar ikerketa honek. Baina eraldatzeko bide bezala ere ulertzen dut ikerketa eta ahalegina egin dut hori ere ikerketan islatzen, bai erabilitako moduei dagokienez bai eta azken emaitzari dagokienez ere.

Ikerketa abiatzeko, beraz, ainguratze teoriko bat eraiki egin dut lehendabiziko atalean. Ainguratze teoriko horrek bi iturri nagusietatik edaten du: hizkuntzen biziberritzeari buruz han eta hemen egindako eraikuntza kontzeptualetatik eta mugimendu sozialek lortu dituzten edo lor ditzaketen emaitzen inguruko gogoe-ta eta ikerketetatik. Bi ezagutza iturri nagusi horiek nahastu, irabiatu eta horretan ainguratu dut ikerketaren gorpuzta bera, soziolinguistika eta mugimendu sozialen inguruko teoriak harremanetan eta elkarriketan jarriz.

Bigarren atalean, berriz, ikerketa bera gidatu eta hezurmamitu dituzten galde-ra nagusiak ekarri ditut azalera: ikerketaren helburuak definitu, galdera eta kezka horiei erantzuteko hipotesiak ezarri eta horiei begiratzeko azterbideak zehaztu.

Hirugarren atalean galdera horiei erantzuna emateko metodologia finkatu dut. Horretarako, lehenik, ikuspegi epistemologikoari egin diot kasu, non kokatzen naizen eta zer modutara hurbildu naizen ikerketara esplikatzeko. Ondoren, ikerketaren mugatze lana zer irizpideren arabera egin dudan azaldu dut. Eta, azkenik, ikerketa bera zelan egin dudan azaldu dut, baita horretara bultzatu nauten hautuak ere. Hori dela eta, azaldu ditut ikerketan zehar erabilitako lau tresna nagusiak: edukien azterketa, sakoneko elkarriketak, delphi galdetegiak eta iturri ez-zuzenen azterketa.

Laugarren atalean, aitzitik, azterketa dator, hau da, galdera nagusi horiei alde-z edo moldez emandako erantzunak. Azterketaren muinera heltzeko testuinguratzeko handi bat egitera behartuta ikusi dut neure burua. Hori dela eta, lehenik eta behin, euskara elkartearen inguruko genealogietan arakatu dut eta, hortaz, haien historia taxutu, euskararen aldeko mugimendu sozialen inguruan taxutu ere. Horren ostean, ahalegindu naiz euskara elkartearen taxonomia egiten (zenbat elkarte izan diren, non errotu diren, zelan sortu diren, zeintzuk izan diren protagonista eta abar aipatuz). Gero elkartearen jarduna bideratu duten zutabe filosofikoak aletu ditut eta, horren ondoren, euskara elkarteek euren buruei ezarritako helburuak aipatu ere aipatu ditut. Azterketaren bosgarren puntuan, baina, elkartearen praxia miatu dut. Euskara elkarteak, batik bat, ekintzaileak izan dira eta, hortaz, nire us-tez, garrantzia berezia du praktikan elkarteek egindakoak, batez ere, egitekoetan eta egiteko moduetan izan duelako ezaugarritze nagusiena mugimenduak. Horretarako, lehenengo eta behin, egiteko moduak eta funtzionamendua aztertu ditut eta, gero, elkarteek landu dituzten ekintza edo lan ildo nagusienak banaka arakatu ditut: tokiko hedabideak, kulturgintza, haur eta gazteak, erabilera programak, (g)uneak, eragite lana eta jakintza eta diskurtsoaren sozializazioa. Hori guztia, jakina, tokian tokiko praktiketarik eta haren garapenetarik abiatuta.

Testuinguratzeko zabal hori egin ostean, azterketaren troinu nagusira iritsi naiz: euskara elkarteek zer emaitza lortu duten euskararen biziberritzeari dagokionez. Elkarteek lortutako emaitzen inguruko balorazio orokorretik abiatu naiz euskaldunon komunitatea trinkotzeko eta euskararen erabilera sustatzeko lortu dituzten emaitzetara heltzeko. Azterketa arloarekin amaitzeko, ikerketan parte hartu dutenek aurrera begira egindako ekarpenak jasotutako funtzionamendu, egiteko modu, diskurtso eta jardunbideari dagokionez.

Azterketaren ostean, bosgarren atalean, ondorioak ekarri ditut orriotara. Ondorio horiek azterketatik erauzi ditut, baina, horretarako, elkarrizketan jarri ditut azterketaren emaitza nagusienak hasieran egindako galdera, kezka eta hipotesiekin. Zortzi ondorio nagusi ateratu ditut, zortziak ere euskararen biziberritzeari loturikoak.

Hor amaitu zitekeen ikerketa hau. Baina ez. Ikerketa aktibistaren printzipioek akuilatuta, elkarten jarduna eta diskurtsoa hobetzeko proposamen batzuk ere egin ditut seigarren atalean. Proposamenak apal egiten ahalegindu naiz. Izan ere, nire ustez, mugimendu honek badu nahikoa heldutasuna beren baitatik proposamenak eta aurrerabideak zehazteko. Hala ere, ikerketak hori ere behar zuela iruditzen zait. Ez dut ikerketa ulertzen bakarrik iragana ulertzeko: etorkizuna igarri eta, ahal den neurrian, ondo prestatuta harrapa gaitzan.

Euskara elkarteak eta elkarteetan jardundako pertsonak izan ditut aztergai ikerketan, esan dudana bezala. Baina ez dira, nire ustez, izan horiek guztiak ikerketaren objektu, ezpada ikerketaren subjektu. Hortaz, lan honetan nire eskua eta nire bihotza nabariak diren arren, zentzu batean, euskara elkarteetan ibili diren pentsamenduen eta iritzien katalizatzaile sentitzen naiz, euren iritzi, porrot, kritika eta asmoen lekuko apala, gurago bada. Horrek ez du esan gura inondik ere ikerketa honen emaitzak ez direnik nireak. Erabat neureak dira eta erabateko ardura eta erantzukizuna dut ikerketa honetan. ■

1. Ainguratze teorikoa: arlotu kontzeptuala

1.1 Sarrera

Orain arte, euskaldunon historia atzeraka kontatu izan da. Atzerakadaren historia izan da euskaldunon komunitatearena¹: “Euskararen eta herri hizkuntzen historiografian ere ikerkuntza-programa edo paradigma moduko bat egon da indarrean hamarkada askotan. Programa hau atzerakadaren ideiarenguruan eratu zen eta ikerketa gehienak arazo hori azaltzera bideratu ditu orain arte. Gure artean finkatu zuena Arturo Campion izan zen batez ere²” (Erize, 1997: 524). Orduan, Xabier Erizek bere doktoretza-tesian frogatu egin zuen ezetz, euskaldunon iraupen baten historia dela, ezer izatekotan³: “Euskararen historiatik nabarmenena ez da bere atzerakada -oso garrantzitsua bada ere-, bere biziraupena eta mundu modernoko erronkei erantzuteko izan duen ahalmena baizik” (Erize, 1997: 30). Eta iraupen horretan hizkuntza komunitateak agentzia izan du, hau da, bere munduan irauteko ahalmena izan du, zeresana izan du, eragin izan du; azken finean, iraupenaren subjektu izan da: “... euskararen historiaren subjektu

1 Bibliografia oparua dago euskaldunon atzerakada adierazteko, orokorra zein herri edo eskualde zehatz bati lotuta. Orokorrerik arteko adibide esanguratsu batzuk (zerrenda ez da inondik ere erabat zehatza) honako hauek izan daitezke: Campion (1911), Mitxelena (1964), Sanchez Carrion (1972), Irigarai (1973), Irigaray (1974), Intxausti (1990), Larrea (1994), Jimeno Jurio (1997), ... Aipamen berezia merezi du Dabid Anautek egin zuen obra momumentala. Kasu horretan, Dabidek atzerakada ez ezik, euskararen aldeko mugimendu sozialari ere egiten dio erreferentzia (ikusi Anaut, 2013).

2 Ikerlan honetan erabili ditudan aipu guztiak euskaraz eman ditut. Jatorriz euskaraz emanak daudenak bere horretan utzi ditut, askotan akats eta guzti. Beste hizkuntzetakoak, berriz, nik neuk ekarri ditut euskarara, kontrakoa adierazi ezean.

3 Xabier Erize baino lehen, Koldo Mitxelenak honakoa aipatu zuen: “Egiazko misterioa euskararen iraupena da, ez jatorria” (Mitxelena, 1964).

edo protagonistatzat euskaldunak, euskal hizkuntz komunitatea hartzea, hizkuntz komunitatea bere bizitza garatzen duen gizarte-unitate bezala aztertuz” (Erize, 1997: 525).

Xabier Erizek, baina, XIX. eta XX. mendeen arteko historia aztertu zuen. Eta gaur egun zer? Gaur egun zer ari da gertatzen? Orain dela 50 bat urte⁴ abiatu zen euskararen⁵ biziberritzearen sasoi garaikidea. Eta, biziberritze horretan, hizkuntza komunitatearen agentziak, batez ere, mugimendu sozialen tankera hartu du (hasiera batean, mugimendu sozialak bakarrik, geroxeago herri administrazioek ere). Jacqueline Urlak honakoa dio adibidez: “Euskararen biziberritzea da gaur egun Franco osteko Espainian dagoen mugimendu sozial iraunkor eta indartsuenetako bat: hainbat bizimodutako jendea dago inplikaturik eta giza-energia, denbora eta baliabide asko inbertitzen ditu, horietako asko boluntarioak” (Urla, 2012: 4).

Jakina, erakundeek paper garrantzitsua bete dute, hizkuntza komunitateak bere autorregulazio mekanismoen bidez ere subjektua izan da hein batean, baina berritasun historikoa mugimendua izan da, eta, batez ere, mugimendu horrek izan duen eragina (eta eragin horren bidez lortu dituen emaitzak eta aldaketak).

Eta mugimendu horretan berritasunik garrantzitsuena eta nazioartean bereizgarriena hein handi batean, nire ustez, euskara elkarteak izan dira, hau da, herri-tarrek eratu eta hauspotu duten toki mailako erakunde burujabe eta zabalak. Hori dela eta, aztertu nahi ditut azken 30 urte hauetan zeintzuk izan diren euskara elkarte hauek lortu dituzten emaitzak (mugimendu sozialen teorien argitara). Eta, hortik abiatuta, etorkizunari begira zeintzuk izan litezkeen euskara elkarteek lantzen beharko lituzketen ildoak proposatzea.

Ikerketarekin hasi orduko, komeni da lanean zehar egin diren hautu teorikoak nondik nora egin diren aipatzea, komeni da ikerketa zer marko teorikoan eraiki den azaltzea. Izan ere, kokatu behar da ikerketa (eta, horrekin batera, ikertzaileak ere kokatu egin du bere burua unibertso teoriko-metodologikoetan). Beraz, hautu hauen zertzeladak eta sakontasunak hurrengo orrietan agertuko dira ahalik eta zehatzen eta ahalik eta sendoen.

4 Garabide elkarteak argitaratutako liburuxka honetan 1968an jartzen du euskararen biziberritze garaikidearen sorrera data (Garabide, 2010). Beste batzuek 1956an jartzen dute hasiera data eta beste batzuek 1958an. Datoren inguruan txolopote ederra dago, bainan honen ondorioetarako ez du zentzu handirik datatze hori zehatz-mehatz ezartzeak. Kontraesanak kontraesan, nik 50 urteko prozesua deitzeko erabakia hartu dut (Agirre, Eskisabel, 2017).

5 Euskara eta, oro har, hizkuntza erabiliko badut ere, kontuz hala ere: izan ere, hizkuntza erabili arren, ez dut hizkuntza, bere horretan, esan gura. Hizkuntzak ez baitira hezur-haragizkoak. Beraz, horrelakoetan euskara edo hizkuntza baino, euskaldunak (edo euskaldungoa) eta hitzunik uker bedi. Konbentzio nahiko zabaldua da bai literatura zientifikoko zein hizkera arruntean hizkuntza entzetzat hartzea eta horregatik erabili nahi izan dut, ikerlana hobeto ulertuko delakoan.

1.2 Soziolinguistikaren aterkipean

Ikerlan hau soziolinguistikaren eragin-esparruan kokatu gura izan dut. “Soziolinguistika kontzeptua 1952. urtean agertu zen lehenengoz, Haver C. Currie-ren artikulu baten izenburuan. Dena dela, diziplina honen ibilbidea 1964. urtean hasi zen, jatorri desberdineko ikerlariak (linguistak, soziologoak eta antropologoak, nagusiki) elkartu zirenean, Kalifornian, nazioarteko kongresu batean” (Juaristi, 2013).

1964tik berrogeita hamar urte baino gehiago joan dira eta jakintza-arloa, orduetik hona, izugarri garatu egin da. Hizkuntzaren eta jendartearen arteko harremanaz arduratzen da soziolinguistika, azken finean, baina garapena ikaragarria izan da. “Soziolinguistika ikerketa-paradigma bakarra, itxia, ongi ezarria eta erabat koherentea duen diziplina bakartzat hartzeko aukera urrunduz joan da” (Vila, 2013). Zentzu berean, “... izugarri dibertsifikatu dira soziolinguistikotzat hartu beharreko ikuspegiak” (Vila, 2013). Beraz, mila zedarritze-saio, mila mugapen-saio eta mila eztabaida izan da soziolinguistikaren izaera definitzeko. Mila erpin ukitzen duen jakintza-arloa baita soziolinguistika. Egile batzuek, gainera, ez dute sinesten teoria soziolinguistikoko orokor eta bateratuan. Esate baterako, Ralph Fasold-en arabera, “soziolinguistika elkarren artean lotuta dauden gai edo arazo multzoen azterketa da, teoria oso bat baino” (Fasold, 1993).

Hori dela eta, hasi aurretik, nik soziolinguistikaz zer ulertzen dudan azaltzen hasi beharko naiz. Izan ere, esan dudan bezala, soziolinguistikaren eremuan eztabaida bat badabil airean, hori berori da diziplinaren definizioaren eta zokomokoen ingurukoa. “Soziolinguistika definitzea ez da lan erraza. Asko idatzi eta eztabaidatu da zientzia honen zereginen eta ikerketen helburuen inguruan. Erratu gabe esan daiteke gizartearen eta hizkuntzaren arteko elkarreagina aztertzen duela. Arazoa aztertzailearen kokalekuan eta azterketaren ikuspegiari dago: gizarteari, hiztunari ala hizkuntzari begira egiten den” (Zarraga, 2012: 21).

Diziplina konplexua da soziolinguistika eta luze-zabal handia duena (eta, hortaz, zedarritzeko zaila). Gainera, soziolinguistikaren erpin zorrotzek beste hainbat diziplina jotzen dute zuzenean zein zeharka (soziologia, psikologia, antropologia, filosofia, zientzia politikoak, pedagogia, historia, etnografia, ...) eta, sarritan, gaitza da ikerketa bat soziolinguistika den edo beste diziplina batekoa den ebaztea. Eta, hori gutxi balitz, nazioarteko eta bertako egileak ez datoz bat diziplinaren zedarritzean. Peter Trudgill-ek, adibidez, honela definitzen du soziolinguistika: “Hizkuntza eta gizartearen arteko harremana aztergai duten iker-eremu guztiak izendatzeko erabiltzen den terminoa (...). Ikerketa soziolinguistikokoak, alta, giza

hizkuntzaren izaera hobeto ulertzeraz iritsi nahi du. Horretarako, hizkuntza bere inguru sozialean ikertuz, edo/eta hizkuntza eta gizartearen arteko interakzioaren izaera hobeto ulertuz” (Trudgill, 1992: 68). Emili Boixek, osteraz, honela definitzen du: “Hizkuntza erabilerak une eta leku jakin batean jendarteko arazo, gatazka eta baliabideek nola zeharkatzen eta gurutzatzen duten aztertzen du soziolinguistikak” (Boix, 2000). Topaguneak ere definizio zabalari oratzen dio soziolinguistikari buruz berba egiteko: “Hizkuntza eta berau bizi den eta biziarazten duten jendartearen, hiztunen eta beste aldagaien (familia, hezkuntza, kultura, politika, ...) arteko harremana ikertzen duen jakintza-arloa da soziolinguistikoa” (Topagunea, 2006).

Hala ere, nazioarteko literaturari jaramon eginez, lau jakintza-alor nagusi leudeke zientzia honen barruan: soziolinguistika (adiera hertsian), hizkuntza(ren) soziologia, hizkuntza antropologia eta gizarte-psikolinguistika. Lehenengoak hizkuntzari begiratu egiten dio, bigarrenak jendarteari eta azken biak hiztunari, labur zurrean. Hala ere, azalean geratu beharrean, apur bat arakaturaz gero, konturatu gara beste hainbat adar badirela soziolinguistikaren atarki terminologikoaren azpian: hizkuntza-zuzenbidea, hizkuntza plangintza, diskurtsoaren azterketa, soziopragmatika linguistikoa, etnolinguistika, lexikologia soziala, dialektologia soziala, kreolistika, hizkuntzalaritza soziala, ... Labur zurrean, lau adar nagusiei oratuko diet, txiri-txiri.

Nazioartean soziolinguistika, adiera hertsian ulertuta, sarritan bariazionista abizenarekin joan ohi da. Hizkuntzari berari (edo hizkuntzaren corpusari) egiten diote erreferentzia soziolinguistikako ikerketek. Hau da, hiztunen ahotan hizkuntzek izaten dituzten aldaerak aztertu eta horien arrazoiak jendartearen aurkitzea dute helburu nagusi. “Gizartea dute arretagune beronek hizkuntzaren egitura eta aldaketa ulertzen laguntzen duen neurrian” (Boix, 2000). Hortaz, hizkuntzaren aldaera bat edo beste aukeratzean hiztunaren ezaugarriek (eta hiztun hori kokatuta dagoen esparru sozialak) duten eragina aztertu ohi dute bariazionistek. Hortaz, esan daiteke soziolinguistikak, batez ere, ikuspegi linguozentrikoaren alde egiten duela, hau da, bere ikerketen eta interesen erdigunean hizkuntza bera jartzen du diziplinaren adar honek. Izan ere, hizkuntza aztertzen du horrek jendartearekin duen harremana aintzat hartuz. Hori dela eta, behin baino gehiagotan linguistikaren adar moduan hartua izan da soziolinguistika adiera hertsian.

Hizkuntza(ren) soziologia, osteraz, soziologiaren adar moduan ulertzen dute egile batzuek. “Soziologiari zuzenago lotutako ikusmoldeetatik aritzen diren iker-tzaileei, berriz, elebitasuna, hizkuntzen ordezkapena, funtzioen banaketa, hizkuntza-leialtasuna eta planifikazioa bezalako arazoak interesatzen zaizkie” (Zarraga,

2012: 35). Hortaz, hizkuntzaren erabileraren eta jendarte antolaketaren arteko loturak aztertu ohi dituzte hizkuntzaren soziologoek. Izan ere, hizkuntza(ren) soziologia da hizkuntzaz arduratzen den soziologiaren adarra. Beraz, aurrekoa ez bezala, hizkuntza(ren) soziologiak ikuspegi soziozentrikoaren alde egiten du, hau da, diziplina honen erdigunea, ikergaiei dagokienez, jendarteak (eta norbanakoen portaera sozialak) betetzen du. Azken finean, hizkuntza(ren) soziologiak jendartea aztertu egiten du, hizkuntzarekin duen harremana aintzat hartuz.

Mikel Zalbidetik hizkuntza-soziologiaren alorrean sei azterbide bereizi egiten ditu. Lehenengoa azterbide deskriptiboa da. “Gauzak nola dauden begiratzen du, batez ere, hizkuntza bat edo beste erabiltzeari dagokionez gauzak nola dauden” (Zalbide, 2007c). Bigarren azterbidea, ostera, zinetikoa da. “Gauzak nola aldatzen ari diren begiratzen du; gauzak aldatzen ari diren ala ez eta, hala baldin bada, aldaketa hori zer-nolakoa eta zenbatekoa den” (Zalbide, M., 2007c). Hirugarren azterbidea dinamikoa da: “Gauzak zergatik aldatzen (ari) diren begiratzen du, nagusiki, hirugarren azterbideak. Zergatik indartzen edo ahultzen da hizkuntza baten erabilera? Zergatik ahazten edo atzentzen zaio zenbait hiztuni bere lehen hizkuntza, eta beste bat nagusitzen?”. Laugarrenari azterbide prospektiboa deitu ohi zaio: “Goazen bidetik goazela, non bukatu behar dugu? Hori kalkulatu nahi izaten du, batez ere, laugarren azterbideak. Epe jakinean hizkuntzaren erabilerak aurrera edo atzera egitea espero izatekoa den, zein lekutan, zer funtziotan eta zer neurritan”. Bosgarrenik, azterbide teleologiko-ebaluatiboa dakar: “Hiztun batzuek edo besteek etorkizuneko gizartean hizkuntza kontuak nola izatea nahi luketen, eta beraz egungo egoera (eta aurrera begirako proiektzioa) gogoko duten ala ez analizatu ohi du bosgarren azterbideak”. Seigarrenik eta, azkenik, azterbide preskriptiboa dakar Zalbidek: “Egungo egoera desegokia dela uste bada, bestelako egoera lortu nahi bada hortaz, zer egin behar da? Iritsi nahi den helburura iristeko zer egin litekeen analizatzen du seigarren azterbideak” (Zalbide, M., 1997c).

Hizkuntza antropologia, berriz, antropologiaren adar moduan ulertzen dute egileek. Hortaz, Alessandro Durantiren berbetan, “... hizkuntza antropologiak hizkuntza aztertzen du kulturaren baliabide modura eta hizketa aztertzen du kultur praktika modura” (Duranti, 1997). Hori dela eta, hizkuntza antropologoentzat ikerketaren subjektuak hiztunak dira, “eragile sozial modura ulertuta” (Duranti, 1997). Hiztunek, baina, jendartearen tatamian jokatzeko dute derrigorrez. Beraz, hizkuntza antropologiak hiztun komunitateak ere izaten ditu ikerketagai, baita hizketak berak zer eragin duen jendartearen eratzeko ere. Komunikazioaren etnografia da hizkuntza antropologiaren joera nabarmenetako da nazioartean: “... bere helburu nagusia gizabanakoek errealitateaz duten ikuspegi subjektiboa, barne lo-

gika, zein den ezagutzea da, eta hori behaketa parte-hartzailearen bidez egiten dute (iraupen luzekoa eta sakona beronen datuak gutxieneko balioa izatea nahi baldin bada)” (Boix, 2000). Era berean, berbetak kulturaren interpretazioan duen eragina ere izaten dute aztergai hizkuntza antropologoek.

Azkenik, gizarte-psikolinguistikak ere hiztunari begiratzen dio, hiztunak ere bereganatzen du begiradaren erdigunea jakintza-adar honetan. Baina, antropologian ez bezala, alor honetan kokatzen diren ikertzaileek “hiztunek hizkuntza baten aurrean edo hizkuntza-aldaera baten aurrean erakusten dituzten jarrerren inguruko azterketa hauen eragina eta dimentsioak zehaztea bilatzen dute” (Zarrazaga, 2012:35). Beraz, psikolinguistikak hizkuntzen gainean norbanakoek dituzten jarrera, iritzi, ideologia, sinesmen edo motibazioak izan ditu eta ditu ikerketagai nagusi. “Arreta berezia jartzen du jarrerren azterketa esperimentalean (aurreiritziak, estereotipoak), bai talde txikietan (nola egokitzen eta koordinatzen diren elkarrizketa batean parte hartzen dutenen hitz egiteko moduak: zein erantzun ematen den hizkuntza, aldaera eta doinu desberdinen aurrean), bai populazio multzoetatik abiatuz” (Boix, 2000). Psikologia sozialaren betaurrekoetatik aztertzen ditu fenomeno linguistikoak soziolinguistikaren adar honek, beraz.

Hortaz, lau diziplina zientzia-adar beraren barrunbeetan sigi-saga. Baina, hala ere, diziplina horiek guztiek soziolinguistika deitura jasotzen dute han eta hemen. Apur bat nahaspila badirudi ere, soziolinguistika berba erabiltzen da soziolinguistikaren beraren diziplina bati deitzeko. Nazioartean horri konponbide erraz ematen diote: soziolinguistika erabiltzen da, batez ere, alor linguistikoari deitzeko eta hizkuntza(ren) soziologia, ostera, beste diziplinei deitzeko. Tokian tokiko zenbait bibliografiatan hizkuntzaren aldagarritasunari lotutako lanak baino ez dira soziolinguistikatzat hartzen. Adiera hertsia honen abaroan ari diren askok uste baitute euren delat soziolinguistika deitu beharko litzatekeen bakarra: “joera honetako askorentzat beren espezialitatea da soziolinguistika izena merezi duen bakarra” (Boix, 2000). Beste eremu geografiko batzuetan, berriz, soziolinguistikak askoz eremu zabalagoa du, adibidez, Katalunian, Okzitania edo Quebecen (ikus, adibidez, Kataluniarako Boix, 2000, Okzitaniarako Urteaga, 2007 eta Quebec-erako Boyer, 1996).

Gurean ere soziolinguistika terminoak tradizio handia du eta, Katalunian eta Quebecen legez, adiera zabala hobetsi egiten da, hau da, lehen aipatutako lau adarrak batera ulertzen duen ikuskera. Esate baterako, bost urterik behin, gure lurralde guztietan hizkuntzaren gaineko ikerketa orokorrak egiten dira, gaitasunak, praktikak eta jarrerak neurtuz. Eta horiei, gurean, inkesta soziolinguistiko deitu

egiten zaie. Bestetik, Soziolinguistika Klusterra izeneko erakundeak ere adiera zabaleko soziolinguistika hartzen du aintzat (baita Kluster horrek argitara ematen duen *Bat* aldizkari zientifikoak ere⁶). Bi adibide baino ez dira: hala ere, soziolinguistikaren gaineko edozein bilaketa euskaraz eginez gero, adiera hau nagusi dela gauza erabat nabarmena da.

Hortaz, nik ere neure burua kokatuko dut euskal herrietako tradizio horren aterkipean. Izan ere, lan hau kokatzen da hizkuntza(ren) soziologian, batez ere, baina lan honetan soziolinguistika erabiliko da oro har; hori bai, beti ere, adiera zabalean, euskal tradizioari fidel. Eta, hizkuntza(ren) soziologiaren azterbideen artean, batez ere azterbide preskriptiboan kokatu egingo da.

1.3 Hizkuntzen biziberritzea

Duela hogeita hamar urtera arte, soziolinguistikaren (eta, batez ere, hizkuntzaren soziologiaren) inguruko ikerketek eta lan teorikoek hizkuntza komunitateen gainbeheran jarri ohi zuten arreta, ez hizkuntza komunitateen biziberritzean. “Gizartean ordezkapen linguistikoa gertatzearen arrazoiak eta moduak aztertzea izan da hizkuntza soziologiaren lana” (Zarraga, 2012: 36). Julia Sallabank-ek ere antzekoa dio: “90. hamarkadaren amaiera arte hizkuntza gutxituen inguruko literaturaren gehiengoa hizkuntza galerarekin tematu da” (Sallabank, 2010: 159). Paula Kasaresek ederto azaltzen duenez, “... ikertzaileek hizkuntzen gutxitze edo ordezkatzeko prozesu hori erruz deskribatu eta dokumentatu dute” (Kasares, 2014: 26). Eta honako hau gaineratzen du: “Literatura soziolinguistikoan, gizaldirik gizaldiko segida kaskaildurik edo etenik egonda hura berrestekatu eta mintzairaren erabilera belaunaldi berrietan sendotu duten hizkuntzen ereduak hagitz bakanak dira” (Kasares, 2014: 29). Asko ikertu da, hortaz, hizkuntza ordezkatzeko bilakaera eta hobetu ezagutzen dugu hiztun talde baten hizkuntzaren jarraipenaren etena eta ordezkapena. Baina, era berean, gutxi dakigu zergatik hizkuntzek eusten dioten eta zergatik suspertzen diren. “Desoreka handia dago hizkuntza ordezkapen bilakabideei eskaintzen zaien arretaren eta iraupena bermatzea biltzen duten saioen ahaztearen artean” (Erize, 1997: 115). “Askoz gehiago dakigu hizkuntza ordezkatzeari buruzko arrazoiengatik inguruan hizkuntzak mantentzeko buruz baino, are gehiago hizkuntza ordezkapenari buelta emateari buruz baino” (Flores, 2011). “Mehatxatutako hizkuntzak mantendu, sendotu eta egonkortzea

6 Hasiera batean, soziolinguistika eta glotopolitika zuen abizentzat *Bat* aldizkariak. Gaur egun, ostera, soziolinguistika aldizkari soiltzat du bere burua.

ez dugu ikertu eta, hortaz, ez gaude prestatuta hizkuntza ordezkatzeari buelta emateko” (Flores, 2011).

Irakurle azkarra ohartu zen, dagoeneko, biziberritze⁷ berba darabilela testu honek eta ez normalizazioa (agian, gure tradizio soziolinguistikoa sonarik handiena duen kontzeptua⁸, nahiz eta, egia esateko, azken urteotan badirudi apur bat ostenduta geratzen ari dela). Normalizazio berba nagusi izan da gurean orain gutxi arte eta kontzeptua eta berba bera katalan herrietatik⁹ etorri zitzaizkigun guri. Kontzeptua lehendabizi Lluís Aracil valentziarrak erabili zuen 1965ean (Aracil, 1965) eta, ordutik, bide luzea egin du, batez ere, Katalunia, Galizia, Quebec, Okziantia eta Euskal Herrian. Aracil-en arabera, “ordezkapen linguistikoari emandako erantzuna edo alternatiba da normalizazioa” (Aracil, 1965). Hortaz, normalizazioa, gutxi asko, ordezkapenaren ifrentzua litzateke.

Kontzeptuak, hala ere, bere eboluzioa izan du; era berean, ñabartu da eta, hein batean, jendarteratu¹⁰ egin da. Horren seinale da Jordi Solé egiten duen terminoaren definizioa: “Normalkuntzaren helburua hizkuntza baten erabilera ‘normal’ bihurtzea da, gizarte bizitzako esparru eta funtzio guztietan normalki erabiltzea: etxean, kalean, komunikabideetan, irakaskuntzan, erakunde publiko eta politikoe-tan, edozein motatako giza harremanetan, nonahi eta noiznahi, eta abar” (Solé, 1991). Bide beretik jotzen du Albert Bastardasek: “Kulturalki eta politikoki menderaturik egotearen ondorioz hizkuntza-ordezkapena jasaten ari den komunitate batek bere mintzairaren erabilera berpiztea, zabaltzea eta etorkizunean normal eta egonkor egitea ...” (Bastardas, 1996) da normalizazioa, bere ustez.

Termino nahasgarria da normalizazioa¹¹. Mikel Zalbidek, esate baterako, honako hau dio: “... hizkuntza-normalkuntza definizioz eta irismenez zehaz-

7 Euskarak abantaila nagusi bat du berba honi dagokionez. Nazioarteko literaturan, *revitalization* da barbarik erabiliena (bestelakoak ere erabili arren, *revival*, *regeneration*, *revernacularisation*, *reversing language shift* eta abar, argibide gehiagorako begiratu Costa, 2016: 31). Euskaraz asko izan dira orain arte erabilitakoak: normalizazioa, berreskuratzea, indarberritzea, berreskalduntzea, ... Biziberritu berba ere asko erabiltzen da gurean (esate baterako, Eusko Jaurlaritzak 1999an onartu zuen euskara suspertzeko lehen plana eta Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia zuen izena, edo Soziolinguistika Klusterrak bere burua euskara biziberritzeko ikergunetzat du) eta bere aldeko hautua egin dut. Izan ere, nire ustez, hizkuntzaren aldeko mugimendu sozialek bizi(tza) berri bat eman nahi diote hizkuntzari, hizkuntza komunitateari, biziberritu berbak izenean bertan dakarren bezala. Izan ere, biziberritzeak, hitzez hitz, hizkuntza baten bizitasuna zaharberritzeko ahalegina adierazten du.

8 Adibide simple bat ematearren, Euskal Autonomia Erkidegoan euskararen sustapeneko lege nagusiak ere kontzeptu hau barneratzen du izenburuan bertan: 10/1982ko azaroaren 24ko Euskararen erabilera normalizatzeke onaritzeko legea da lege horren izen ofiziala.

9 Katalunia aldean ere erabili izan da, antzeko esangurarako, autozentramendu kontzeptua. Bernat Joanek honela definitzen du: “Autozentramendua prozesu bat da eta, haren bidez, bere burua satellite edo baldintzatua ikusi duen komunitate bat bere ikuspuntu propioetik bere burua ikustera pasatzen da. Prozesu honekin batera, ohi denez, bere autoestimua ere berreskuratzen du komunitate horrek” (Joan, 2012).

10 Erraz ulertzen den terminoa da, erraza delako kolpe batean normala zer den eta zer ez den irudikatzea, nahiz eta gero definitzeko oztopo latzak izan.

11 Zentzu horretan adierazgarria da Iñaki Lasak artikulu honetan egiten duen ibilbidea: “Izan ere, normalizazio hitza askotan erabiltzen badugu ere, erabiltzaile bakoitzarentzat adiera desberdinak izan ohi ditu. Batzuentzat, Nafarroako Presidente ohi den Miguel Sanz jau-

teak lana eman ohi du” (Zalbide, 2007b). Benjamin Tejerina, oster, harago doa: “Zalantza potoloa dut terminoarekin. Posible al da ezartzea ikuspegi zientifiko huts batetik normala zer den? Nire ustez, ez” (Tejerina, 2006). Mário Herrero-ren arabera ere, “... normalizazioa ez da kontzeptu zientifikoa, helburu politiko bat markatzen duen ametsa baizik” (Herrero, 2015: 137). Normalizazioa, izan ere, imajinatutako normaltasun bati lotzen zaio eta, beraz, bakarrik deskribatu daiteke beste hizkuntza komunitate batzuekin alderatuta. Beraz, ezin da finkoa izan, dinamikoa baizik, ezin da une bat izan, prozesu bat baizik. Eta, horrez gain, lekurik leku aldatzen den terminoa da, hizkuntza komunitaterik komunitate.

Gainera, esangura asko izan ditzake normalizazioak berak. Batetik, “... kode-tzea, estandarizazioa, normatibizazioa” (Mollá, 2002). Hau da, gutxi gorabehera helburu linguistikoei dagozkienak lirateke lehen adiera honen azpian leudekeenak. Bigarrenik, alderdi sozialei lotutakoak leudeke ere normalizazioaren azpian. Izan ere, normalizazioa litzateke “oinarrizko funtzio instrumental, sinboliko eta diskriminatorioak betetzen duen hizkuntza komunitatearen egoera” (Mollá, 2002).

Eta, azkenik, nazioarteko literaturan azken urteotan oso gutxi erabili den terminoa da. Soziolinguistikako egile nagusienek (Fishman, Weinreich, Cooper, Falsold, Grenoble, Hinton, Kloss, McKKey, Sanchez Carrion, Spolsky eta abarrek) ez darabilte berba hau. Horregatik guztiagatik erabaki dut lan honetan biziberritzeari oratzea eta ez normalizazioari. Uste dut badela sasoia berba horren erabilera murrizteko eta biziberritzeari leku handiagoa egiteko gure literatura zientifikoan zein dibulгатiboan.

Lehen esan bezala, biziberritzea baino ordezkapena izan da aztertua soziolinguistikan nagusiki. Hala ere, badira han eta hemen biziberritzea zedarrizteko lanak eta saiakerak. Nazioarteko egileen artean, hizkuntzen biziberritzea soziolinguistikaren kezken erdigunera ekarri zuen lehena Joshua Fishman izan zen, 1991an soziolinguistikaren ibilbidean mugarri izan zen “Reversing language shift” liburuarekin (Fishman, 1991). Hala ere, gurean, Jose Maria Sanchez Carrion “Txepetx”-ek Fishman baino lehenago ezarri zuen mugarri nagusi bat hizkuntzen biziberritzeari dagokionez “Un futuro para nuestro pasado” liburuarekin (Sanchez Carrion, 1987). Izan ere, liburu horren azpi-izenburuak honako hau zioen: euskara berreskuratzerako gakoak.

narentzat, esate baterako, euskara normalizatu dago jada Nafarroan, beste batzuk ordea, elebitasun desorekatuari deitzen diote normalizazioa, ez inposatu ez eragotzi kontzeptuaren atzean horixe ezkuta liteke, azkenik, elebitasun orekatua ere izan da normalizaziotzat joa hainbaten aldetik. Gure kasuan, azken urteotan honako definizio hau erabili dugu euskararen normalizazioa definitzeko: Euskal Herriko herritar guztiontzat beren eguneroko eta mota guztietako jardunean ohiko eta lehentasunezko hizkuntza euskara izatea da euskararen normalizazioa” (Lasa, 2012).

Ralph Fasold-en arabera, ostera, galera zein iraupena, ordezkapena zein biziberritzea, txanpon beraren aurkia eta ifrentzua dira. “Hizkuntzaren iraupena zein galera hizkuntza hautu kolektiboaren epe luzeko emaitza dira eta biak gertakari edo bilakabide mota beraren parte” (Fasold, 1995). Izan ere, Fasold-ek dioenez, “... hizkuntzen bilakabideen erdigunean hiztunek, banaka nahiz taldeka, egiten dituzten hautapenak daude” (Fasold, 1995). Txanpon beraren aldeak izan arren, egile gehienek ez dituzte prozesu biak batera aztertu.

Eta zer da, bada, hizkuntza biziberritzea? Leanne Hinton-en arabera, honakoa litzateke hizkuntza biziberritzea: “Hizkuntzen biziberritzea litzateke, muturreko adiera batean, bizitzako alor guztietan hizkuntza berreskuratzeko garatzen den programa. Beste kasu batzuetan, aldiz, hizkuntza komunitate batek daraman hiztun eta espazioen galbidea geraraztea luke helburu biziberritzeak” (Hinton, 2001: 5). Leena Huss-ek, ostera, honela dakar hizkuntza biziberritzearen definizioa: “Biziberritzea normalean ulertu egiten da bere erabilera galtzen ari den hizkuntzari bizitza berria eta indarra ematea bezala” (Huss, 2008: 12). Muiris O’Laire-k ere antzeko bidetik jotzen du: “Biziberritzea litzateke hiztun berriak gehitzea, funtzio berriak eskuraztea, hizkuntza prestigioa areagotzea eta ekintza positiboa garatzea” (O’Laire, 2008: 204).

James Costak, berriz, biziberritzearen gaineko definizioa ere badakar, aurrekoen aldean apur bat ezberdina. Haren arabera, “... biziberritzea aldaketa soziala gauzatzeko berariazko esfortzua da, maiz mugimendu sozialen tankera hartzen duena. Biziberritzea, hortaz, ez da prozesu indibiduala, kolektiboa baizik. Eta bere helburu nagusia kategorizazio berriak sortzean datza, irudikatutako talde sozialarenak ez ezik, bere historiari buruzkoak eta okupatzen duen espazioari buruzkoak ere” (Costa, 2016). James Costak elementu interesgarriak ekartzen ditu definiziora. Lehenik, aldaketa soziala bilatzen duela biziberritzeak. Bigarrenik, kategoria berriak sortu nahi dituela biziberritzeak, kategoria berriak non hizkuntza zaharrak bere oraina ez ezik, bere iragana eta etorkizuna “imajinatzeko”¹² eskumena lortzen duen. Eta, hirugarrenik, biziberritzea maiz mugimendu soziala dela ere esaten du hitzez hitz.

Mikel Zalbidek ere biziberritzea definitu egiten du, Joshua Fishman-en teorian oinarrituta (berak biziberritzea baino indarberitzea berba darabil). Indarberitzearen prozesu horrek esan nahi du, gutxienezko lehen maila batean, “...

12 Imajinatu Benedict Anderson-en nazionalismoari buruz esaten zuen esangura berberekin darabil James Costak, baita neuk ere (ikusi Anderson, 1983).

ahuldutako hizkuntza horrek egungo hitzun-taldeetan bizirik jarrai dezan lortzea edota, jarraipen-bide hori eten egin bada, hizkuntz hori berriro ere belaunez be-lauun ama-hizkuntza gisa transmiti dadin segurtatzea” (Zalbide, 2003). Eta, bi-garren maila osoago batean, “... ahuldutako hizkuntza horri erabateko garapen demografiko eta soziofuntzionala eranstea. Hiritar guztiek hizkuntza hori (ere) erabil dezatela, gizarte-bizitzaren funtzio-esparru guztietan” (Zalbide, 2003).

1.3.1 Hizkuntza plangintzak

Esan dudan bezala, ordezkapenaren (eta galeraren ingurukoak) izan dira nagusi soziolinguistikan. Hala ere, literatura soziolinguistikoak ia hastapenetik landu ditu biziberritzeari buruzkoak (nahiz eta ez izan hegemoniko). Heinz Kloss-ek (Kloss, 1969), esate baterako, bi plangintza nagusi zedarritu zituen (eta, orduetik, mugarririk eta, zelanbait, kanonizatu egin dira): corpus(aren) plangintza eta estatus(aren) plangintza. Plangintza bi hauen bidez, hain zuzen ere, hizkuntzen biziberritzea xedatu nahi zuen Kloss-ek, metodo zientifikoa aplikatuz hizkuntzen galerari aurre egiteko (Lo Bianco, 2018).

Corpus(aren) plangintza honela definitzen du “Soziolinguistika eskuliburu-rua”-k: “Hizkuntza-plangintzaren osagaietako bat da, alderdi linguistikoa lantzen duena. Honen barruan lantzen dira, besteak beste, gramatikak, hiztegiak, ortografia-arauak, ... Azken helburua hizkuntza-kodea bera beharizan berrietarako prestatzea da. Helburu hori lortzeko garrantzitsua da plangintza-mota honetan hizkuntzaren estandarizazio-prozesua, hau da, hizkuntza baten aldaera estandarra zehaztu, ezarri eta lantzeko egiten den prozesu linguistiko eta soziala” (Zarraga, 2010: 372). Aurretik esan dudan legez, corpus(aren) plangintzaren inguruko ikerketak eta lan teorikoak soziolinguistika bariasionistaren aterpean kokatu ohi dira.

Estatus(aren) plangintza, ostera, honela definitzen du “Soziolinguistikaren eskuliburu-rua”-k berak: “Hizkuntza-plangintza osagaietako bat da. Hizkuntzaren alderdi soziala lantzen du; hemen sartzen dira, adibidez, estatus legala ezartzea, hizkuntzaren alde egindako kanpainak, hizkuntza-transmisioa bermatzeko egindako ekimenak, helduak alfabetatzeko ekintzak eta abar. Estatus-plangintzaren azken helburua da hizkuntza batek, edo hizkuntza-aldiera batek gizartean duen egoera aldatzea. Bi plangintza-motetan zailena da, gizartean aldaketa bat lortzea duelako helburu” (Zarraga, 2010: 373). Mikel Zalbidek ere definitu du estatus(aren) plangintza: “Hizkuntza bat edo bestea, edo biak, esparru batean edo bestean (edo guztietan, edo inon ez) erabiltzeko diseinatzen diren estrategien, hartzen

diren neurrien eta egiten diren ebaluazioen multzoa sartuko dugu hizkuntzaren estatus-plangintzan. Goitik beherako plangintza bideratu izan da, normalean, era bateko edo besteko aginte-esparruetatik. Behetik gorakoa eratu izan da, askotan, aginte-ahalmen hori gabeko edo esparru horretatik (beren gogoz edo hartaraturik) aldenduriko gizataldeetatik” (Zalbide, Joly, Gardner, 2016: 412). Estibaliz Amorrortuk ere definitu izan du estatus(aren) plangintza: “Estatusaren plangintzak erreferentzia egiten die hizkuntzak dituen funtzioak gehitzeko egiten diren berariazko esfortzuei” (Amorrortu, 2003).

Lan honek, beraz, corpusean baino estatus(aren) kokatu egiten du bere burua. Eta, are gehiago, Mikel Zalbidek iradokitzen duen bidetik abiatuta, behetik gorako estatus(aren) plangintzan, hain zuzen ere. Baina segi dezadan apur bat estatus(aren) plangintzaren hari mataza horretatik tiraka, apurka-apurka, argi gehiago egiteko asmoz.

Horretarako, baina, beste kontzeptu bati oratu nahiko nioke: hizkuntza plangintzari, hain zuzen ere. Izan ere, bai corpus zein estatus plangintzen definizioan hizkuntza plangintza aipatzen baita eta, modu batean edo bestean, plangintza mota bi hauek hizkuntza plangintzaren aterkipean agertzen baitira sarri asko. Definizio asko egon da han eta hemen Einar Haugen-ek hizkuntza plangintza terminoa sortu eta literatura soziolinguistikoan hedatu zuenetik (Haugen, 1966). Hala ere, nahiz eta ikuspegi diferentziaz eginak dauden, hurbil samar ibili ohi dira. Definizio labur (eta oro hartzaile) izan nahiko luke honako honek: “Hizkuntzak gizarte-giro batean edo bestean dituen arazoei irtenbidea bilatzen saiatzea, (talde zabal edo murriztagoan) elkar hartuz” (Zalbide, 2015). Joshua Fishman-ek ere antzeko definizioa ematen du: “Hizkuntza plangintzaren azterketa hizkuntzaren arazo sozialei konponbidea emateko antolatutako esfortzuen azterketa da” (Fishman, 1982: 209). Paul Lewis eta Gary Simons egileek ere antzera definitzen dute: “Hizkuntza plangintza agerikoa da, zuzena, eta helburu argiak ditu. Identifikatutako arazo batzuk konpontze aldera, hizkuntzaren erabilera aldatzea du helburu” (Lewis, Simons, 2016: 47).

Hona ekarri ditudan hiru definizio hauek, baina, hizkuntza plangintza orohartzaile bati baino, badirudi estatus(aren) plangintzari baino ez diotela erreferentzia egiten. Beste definizio batzuetan ere (adibidez, Kaplan, 2013) hori antzeman daiteke. Hortaz, ikerketa honetan hizkuntza plangintza inoiz agertzen bada, uler bedi estatus(aren) plangintzaren sinonimo bezala erabiltzen dela testua arintze aldera.

Estatus(aren) plangintzaren azterketara itzuliz, haren abaroan, han eta hemen, jarrerak, gaitasunak eta praktikak izan dira ikergai nagusienak; hiru horiek izan dira, oro har, estatus(aren) plangintzak izan dituen interesgune nagusienak. Emili Boix-ek, adibidez, hiru horiei “gaitasun, ideologia eta erabilera” (Boix, 2000) deitu izan die. Jose Mari Sanchez Carrion “Txepetx”-ek, berriz, hiru horiei motibazioa, ezagutza eta erabilera deitu izan die (Sanchez Carrion, 1987). Jone Miren Hernandezek, ostera, hiru horiei emozioak, gaitasunak eta praktikak deitzen die (Hernandez, 2011). Baina Jone Miren Hernandezen helburua ez da izan bakarrik Txepetxen terminologia eguneratzea eta gaurkotzea. Proposamen berri horretan garrantzia berezia du pluralaren erabilera. Esate baterako, erabilera terminoa oso termino zurruna da eta eskatzen duen erantzuna sinplea da: bai edo ez. Praktika, ordea, termino malguagoa da (plurallean beti ere) eta ez du eskatzen bai edo ez erantzungo duen galderarik. Batzuetan bai, beste batzuetan agian eta besteetan ez izan daiteke erantzuna, ezelako arazo barik.

Nik ere begi onez ikusten dut Jone Miren Hernandezen ekarpena. Hala ere, nire zalantzak ditut emozio terminoaren gainean¹³. Horregatik, nazioarteko literaturan askoz oparagoa den jarrerak terminoa erabiliko da lan honen ondorioetarako, praktikak eta gaitasunak terminoekin batera (hirurak plurallean, noski, kontzeptuen atzean egon daitezkeen eta dauden errealitateak hobeto jasotzen dutelakoan).

Aipatutako hiru interesgune horietan esku-hartzeko moduari hizkuntza politika deitu ohi zaio. Hala ere, hau ere zeharo termino nahasgarria da, txolopote hutsa, eta egile bakoitzak ia bere modura ulertzen du aterki horren azpian ez-kutatzen dena. Izan ere, Bernard Spolsky-k hizkuntza politika honela definitzen du: “Hizkuntza-praktikak, hizkuntza-sinesmenak eta hizkuntza-kudeaketa bere egiten duen hori baita hizkuntza politika” (Spolsky, 2012). Jone Goirigolzarrik ere antzeko bidetik jotzen du: “Hizkuntza politika mintzairen eta gizarte bizitzaren arteko harremanaren aurrean agertutako asmo, ideia eta erabaki multzoa da, gizarte edo gizarte talde baten egoera eta jokabide linguistikoan eragiteko helburua dauana” (Goirigolzarri, 2017: 53). Julia Sallabank-ek, ostera, honela definitzen du hizkuntza politika: “Hizkuntza-politikak hizkuntzaren erabilera eragiten duten erabaki edo ekintzak dira: ikusten direnak eta ikusten ez direnak, kontzienteak eta inkontzienteak, antolatu direnak eta antolatu ez direnak” (Sallabank, 2016). Badirudi hiru egile hauek hizkuntza politika (ez nahastu, mesedez, hizkuntza

¹³ Nazioarteko literaturan oparoak dira hizkuntza antropologiaren eta soziologiaren inguru akademikoetan praktikak eta gaitasunak terminoak erabiltzen dituzten lanak eta ikerketak. Emozioen kasuan ez da hain ohikoa, are gutxiago erreferentzia egiten badiegu hizkuntzaren inguruko kontuei. Hori dela eta, ez zait iruditzen egokia termino hori erabiltzea.

plangintzarekin¹⁴) estatus(aren) plangintzarekin parekatu egiten dutela doi-doi. Nik ere zentzu honetan erabiliko dut (erabiltzekotan) hizkuntza politika terminoa (terminoaren gaineko eztabaiden berri izateko, begiratu Fasold, 1995 edo Spolsky, 2012).

Euri dezente egin du Heinz Klossek corpus eta estatusaren arteko dikotomia ia kanoniko bihurtu zuenetik. Eta, orduetik, ñabardura eta egokitzapen batzuk etorri dira¹⁵, batez ere estatusaren alorrera. Horien artean onartuenetako bat Robert Cooper-ek egindakoa da (Cooper, 1997). Hark gaitasunak lantzeko plangintza berezitat hartu eta estatus(aren) plangintzatik atera zuen. Gaitasun horiek lantzeko plangintzari *acquisition planning*¹⁶ deitu egin zion. L1 eta L2 eskuratzeko bide informalak, formalak eta ez-formalak berriaz landu behar diren ustekoa da Cooper eta horiek, berez, hizkuntza plangintzaren adar berezitua osatzen duten ustekoa, era berean.

Izan dira ere, beste arlo batzuk estatus(aren) plangintzatik ateratzeko saiakerak han-hemenka literatura zientifikoan. Agian, saiakerarik babestuen nazioartean Joshua Fishman-ena izan da (Fishman, 1991). Hark hizkuntza biziberritzeko funtsezko eskala bat diseinatu eta proposatu zuen¹⁷. Eskala horren seigarren urratsa da funtsaren funtsa eta horrek adierazten du ondoen hizkuntza baten biziberritzea zertan den (edo zertan ez den, azken finean, ebaluaziorako tresna bat baita).

Ba, seigarren urrats horretan honako esparru nagusi hauek sartzen ditu Fishman-ek: “familia, auzo-inguruak eta gertuko komunitatea” (Fishman, 1991). Beste berba batzuekin esateko, lehen mailako erakunde sozializatzaileek erakusten dute ondoen hizkuntza komunitate baten sendotze-maila (edo ahultze-maila). Ere horietan, hain zuzen ere, ebazten da hizkuntza baten ondoengoetaraztea, eremu horietan ebazten da hizkuntza baten belauneko transmisioa. Hortik ti-

14 Hizkuntza plangintza terminoak ere arazoak dakartza definizio bakar eta onartu batera makurtzeko, lehenago ikusi dugun bezala. Are gehiago, egile batzuek parekatzen dituzte hizkuntza politika eta hizkuntza plangintza. Hala ere, ni ez nator bat horrekin, hizkuntza plangintza gehiago ikusten baitut hizkuntza politikaren aplikazio praktikoa modura. Ildo berean, Jone Goirigolzarrik honela definitzen du hizkuntza plangintza: “Hizkuntza plangintza hizkuntza politikaren alderdi bat da, erregulazio prozesu desbardinien bidez hizkuntza politikan hartutako erabakiak bideratzea xede dauana”. Hizkuntza plangintza, hortaz, izango litzateke gutxi asko hizkuntza politikaren aplikazio praktikoa (Goirigolzarri, 2017: 54). Hala ere, Rhian Hodges eta Cynog Prys-ek aipatzen duten bezala, hizkuntza plangintzaren definizio tradizionalak gobernu edo organismo nazionalak egiten duten makro mailako planifikazioari egiten diotela erreferentzia ezin da ahaztu (Hodges, Prys, 2018). Dena den, egia da azken aldion nagusitu dela LPP terminoa (euskaraz, HPP, hau da, hizkuntza plangintza eta politika). Interesgarria da, zentzu horretan, Iñaki Martínez de Lunak horren inguruan egiten duen gogoeta (Martínez de Luna, 2019).

15 Joseph Lo Bianco-k, esate baterako, sei plangintza mota ezberdintzen ditu hizkuntza politika eta plangintzaren barruan: estatus(aren) plangintza, corpus(aren) plangintza, eskuratzeko-plangintza, erabilera plangintza, prestigio-plangintza eta diskurtso-plangintza (Lo Bianco, 2018).

16 *Acquisition planning* gurean hizkuntza eskuratzeko plangintza moduan izan da itzulia (Zarraga, 2010) edo, beste barik, eskuratzeko-plangintza (Zalbide, 2015).

17 Argibide gehiagoetarako, ikusi Zalbide, 2004.

raka, Mikel Zalbidek (Zalbide, 2003) *community fostering* (euskarara ekarrita, komunitategintza¹⁸) proposatzen du estatus(aren) plangintzaren barruko atal gisara.

Eta zer da ba komunitategintza¹⁹ hori? Mikel Zalbideren arabera, “... hizkuntza ahulari belaunez belauneko iraupen-bidea bermatzea eta hiztun-elkarteari bere neurriko esparru berriak zabaltzea. Komunitate-giroa indartzea, hizkuntza ahularen mesede. Hau da, komunitate-giroa suspertu, hizkuntzaren belaunez belauneko iraupen-bidea bermatzeko, gertukoaren diren esparruetatik abiatuta: familia-auzoa-lagunartea hirukotea” (Zalbide, 2003).

Herralde txiroen garapena bultzatu nahi duten batzuek ere komunitatean oinarritutako hizkuntza garapenez egiten dute berba. Ikus dezagun zelan definitzen den delako kontzeptu hori: “Komunitatean oinarritutako hizkuntza garapenak tokiko hizkuntza komunitateak ahaldu eta garatu egiten ditu, euren garapen holistikoko helburuak identifikatzen lagunduz, kontuan hartuz nortasunak eta hizkuntzak bizitzarako ezinbestekoa den ezagutza transmititzeko duten harremana” (Lewis, Simons, 2016).

Gizarte ekintzaren arloan ere antzeko kontzeptua darabilte. Maritza Monterok, esate baterako, komunitatearen sendotzea izeneko kontzeptua dakar: “Komunitatearen sendotzea prozesua da: komunitate bateko kideek (norbanakoek zein antolatutako taldeek) elkarrekin garatzen dituzte gaitasun eta baliabideak euren bizitzaren gaineko kontrola areagotzeko. Horretarako, konpromiso, kontziente eta kritiko jardun behar dute euren ingurunea eraldatzeko euren nahi eta beharren arabera eta, era berean, euren burua ere eraldatuko dute” (Montero, 2003). Nazioarteko literaturan ere *community empowerment* kontzeptua luze-zabal erabiltzen da, antzeko edukiarekin²⁰. Gainera, “... gaur egun aldaketa sozialera bideraturiko mugimenduen egintza kolektiboek ere behin eta berriro jotzen dute komunitate proiektuak eraikitzen, egintza horiek pertsonen arteko elkartasuneko integrazioa behar izaten dutelako, leialtasuna, batasuna eta kohesio komuni-

18 Aurretiaz egindako artikulu batean *community fostering* kontzeptua euskaratzeko komunitatearen sustapena edota komunitatearen biziberritze terminoak erabili nituen (Rodriguez, 2013). Hala ere, gurago dut gaur eta hemen komunitategintza terminoa, laburragoa eta zehatzagoa delakoan. Azken aldian Gipuzkoan egin den ikerketa handi baten abaroen, gauza berari erreferentzia egiteko komunitatearen ehungintza kontzeptua erabili izan da (Ikusi Esteban, 2018).

19 Ez nahastu antzekoa den beste termino honekin: komunitatean oinarritutako hizkuntza plangintza (ingelesez nazioarteko literaturan *community-based language planning*). Teresa McCarty-k honela definitzen du: “Komunitatean oinarritutako hizkuntza plangintza izan daiteke behetik gorakoa edo goitik beherakoa. Izan daiteke mugimendu sozialek eginda ala gobernu erakundeek eginda. Komunitatean oinarritutako hizkuntza plangintzaren funtsa, ostera, beste bat da: tokiko jendeak duen agentzia hizkuntzari lotutako erabakiak hartzeko” (McCarty, 2018). Antzeko kontzeptuak dira, beraz, komunitategintza eta komunitatean oinarritutako hizkuntza plangintza. Baina funtsezko ezberdintasun bat dute biek ala biek: komunitategintzak komunitate-giroa suspertzea du helburu; komunitatean oinarritutako hizkuntza plangintzak, berriz, tokiko jendeak hizkuntzari lotutako erabakiak bere gain hartzea du helburu.

20 Gizarte ekintzan, nazioarteko garapenaren arloan eta beste hainbatetan. Maritza Monterok berak bi termino horien arteko zedarritze lan potoloa egiten du (Montero, 2003).

tarioaren bestelako bertuteak bilatzen dituztelako eta, azken batean, ideiak eta kidetza-sentimenduak partekatuko dituzten pertsonen arteko sozialitate-eredu berriak eratu nahi izaten dituztelako” (Larrinaga, 2017b).

Raquel Gutierrez eta Huascar Salazar ikertzaileek, berriz, komunitategintza baino, komunitarioari buruz egiten dute berba. “Komunitarioa da lankidetza harreman sozialak ezarri eta antolatzeke modua (loturak eta ekintza konpartitu eta koordinatuak), oreka dinamikoak sortzera jotzen dutenak (tentsio bakoak ez diren orekak) bizitza soziala erreproduzitzeko asmoarekin. Horien arabera, kolektibitate batek dauka eta bere gain hartzen du bizitza biologiko eta soziala denboran zehar iraunarazteko produkzio material eta sinbolikoari lotutako gaietan erabakitzeko gaitasun autonomoa, autodeterminatua eta autoarautua” (Gutierrez, Salazar, 2019).

Hortaz, eta apur bat soziolinguistikaren aterkipera bueltatuta, komunitategintza hori artez lotzen da Bernard Spolsky-k darabilen hizkuntza plangintzaren kontzeptuarekin (Spolsky, 2012). Izan ere, haren arabera “... edonork egin dezake hizkuntza plangintza, komunitate batek, eskola batek, familia batek edo norbanako batek. Ez da beharrezkoa batzorde bereziturik”. Julia Sallabank-ek ere antzeko bidetik jotzen du: “Hizkuntza politika eta bere kudeaketa maila guztietan gertatzen da, nazioarteko, nazioko eta eskualdeko instituzio eta ikastetxeetan, eta baita enpresetan, bertako komunitateetan, gizarte-taldeetan eta gizabanakoetan ere” (Sallabank, 2016). Jone Goirigolzarrik, oster, hizkuntza plangintzaren eragileak gehiago mugatzen ditu: “Botere publikoak (botere legegilea, botere betearazlea eta botere judiziala), gizarte zibila (botere ekonomikoa, botere mediatikoa, sindikatuak, elkarteak, GKEak, etab.) eta biztanleria” (Goirigolzarri, 2017).

Hortaz, esan genezake komunitategintzako plangintza Jone Goirigolzarrik zehaztutako gizarte zibilak garatzen duela. Hala ere, nik oraindik gehiago zehaztuko nuke. Izan ere, Jone Goirigolzarrik aipatzen dituen gizarte zibileko eragile batzuk nekez ezkontzen dira komunitategintzarekin: botere ekonomikoa eta botere mediatikoa, kasu. Hortaz, gizarte zibil antolatua da eragile nagusia, nire ustez, komunitategintzarako.

Estatus(aren) plangintzan, hala ere, beste bereizketa bat egin ohi da: *top down language planning* eta *bottom-up language planning* plangintzen arteko bereizketa, hain zuzen ere. Robert B. Kaplan eta Richard B. Baldauf izan dira bereizketa hau aipatzen lehenak "Language planning: from practice to theory" liburuan (Kaplan,

Baldauf, 1997). *Top down* plangintzak²¹ goitik behera, aginpidez egin nahi du hizkuntzaren biziberritzea. *Bottom-up* plangintzak²², berriz, behetik gora, jendearen parte hartzearen bidez egin nahi du hizkuntzaren biziberritzea.

Badirudi goitik beherako plangintza batek, bere horretan, emaitza esanguratsuak lortzeko arazoak izan ditzakeela. “Hizkuntza-legeek ez dute beren helburua lortu, hau da, hizkuntza jokaerak aldatzea. Hizkuntza-legeak eraginkorrak dira sustatu nahi den hizkuntzari atxekita dauden beste alorretako nagusitasunak ematen direnean: nagusitasun kulturala, ekonomikoa, demografikoa, e.a.” (Mackey, 1993). Gainera, hizkuntza plangintza ez da behin eta betiko egiten den kontu bakana, behin eta berriz aplikatu beharreko prozedura jarraia baizik. Beraz, goitik beherako plangintza hori, ezinbestean, behetik gorako plangintza batekin osatu beharko litzateke, arrakasta lortu nahi bada behinik behin. Izan ere, kontuan hartu behar da hizkuntza baten biziberritzearen (edo jarraipenaren edo galeraren edo ordezkapenaren) oinarrian hiztunen eta hiztun taldeen hautuak eta erabakiak daudela. Ralph Fasold-en berbetan esanda, “... norbanakoen hizkuntza-hautu eredu koherenteek epe luzera duten gizarte ondorioa da hizkuntza baten jarraipena edo ordezkapena” (Fasold, 1995: 213). Robert Cooper-ek ere antzekoa dio: “Pertsona zehatzak dira hizkuntza bat hartu, errefusatu edo bazterrean utzi egiten dutenak” (Cooper, 1997: 77). Joshua Fishman-ek ere antzekoa dio: “Gaur egun, ezezagunak dira, hein handi batean, hizkuntza biziberritzearen (edo hizkuntza plangintzaren) eta hizkuntza baten erabileraren hazkundea edo jaitsieraren artean dagoen harreman zuzena” (Fishman, 1997).

Plangintzen hedadurari dagokionez, sailkapenak ere badaude. Inazio Marko Juanikorenak lau plangintza mota bereizten ditu: mega, meso, makro eta mikro plangintzak, hain zuzen ere (Marko, 2009: 34-35). Mega mailako plangintza hauxe litzateke: “Hizkuntza-komunitatearen hedapen sozio-geografikoa bere osotasunean hartuz garatzen den hizkuntz plangintza izango da”. Meso mailakoa, ostera, honako hau: “Hizkuntzaren jardun-esparru funtzional jakinetan edota berezko izaera duten esparru geografikoetan (herri, eskualde...) garatzen diren hizkuntz plangintzak izango dira”. Makro mailakoa, berriz, honako hau: “Hizkuntzaren jardun-esparru funtzional ezberdinen baitako organizazio bakoitzean (administrazio-erakunde, irakaskuntza-zentro, zerbitzu-gune, enpresa, elkarte...) garatzen diren hizkuntz plangintzak izango dira”. Eta mikro mailakoak, azkenik, hauxe:

21 Euskaraz, oro har, goitik beherako hizkuntza plangintza esan ohi zaio (Zalbide, 2015).

22 Euskaraz, oro har, behetik gorako hizkuntza plangintza esan ohi zaio (Zalbide, 2015).

“Erakunde mailako plangintzetan bereziki taldeetan edota norbanakoetan eragiteko garatzen diren azpi-plangintzak izango dira”.

Aurretik aipatu dudan guztia kontuan hartuz, ikerketa lan honek, hizkuntza-ren biziberritzearen gaineko teoriari jarraiki, bere burua kokatzen du estatus(aren) plangintza berruz. Eta, oraindik zehatzago, komunitategintza aztertzen duen korrontean eta behetik gorako plangintza abaroen. Plangintza hedaturari dagokionez, makro mailako plangintza izan dira ikerketaren objektu eta subjektu. Hori dela eta, komunitategintza eragile nagusia gizarte zibil antolatua denez, aztertu beharko dituzte gizarte zibila antolatzeko erabili izan ohi dituen bideak. Horiek, nagusiki, hiru dira: alderdi politikoak, interes taldeak eta mugimendu sozialak.

1.4 Ekintza kolektiboa

Gizarte zibilak antolatu ohi du bere burua ekintza kolektiboa praktikan jartzeko. Jesus Casquete-ren arabera, ekintza kolektiboa da “... talde sozial baten edo batzuen eguneroko esfortzua helburu partekatutako batzuen bila” (Casquete, 2001). Izan ere, ekintza kolektiboa agertzen da ingurune orokorrean aldaketak gertatzen direnean eta norbanakoak eragin handiko beste norbanako batzuekin elkartzen direnean. Hortaz, norbanako hauek indarrak metatu egiten dituzte, eliteen, agintarien edo euren antagonista sozialen aurka jotzeko.

Donatella della Porta eta Mario Diani-ren arabera, berriz, “... ekintza kolektiboa helburu kolektiboen bila baliabideak partekatzen dituzten norbanakoen multzoa da” (della Porta, Diani, 2011). Definizio horretan argi dago helburuak direla erabakigarriak. Izan ere, bi egile hauen arabera, helburu horiek ezin ditu beretzat bakarrik hartu kolektibo horretako edozein kidek. Hau da, helburu horiek kolektiboak izan behar dira eta, gainera, pertsona oroentzat onuragarriak.

Badira ekintza kolektiboa zehatzago zedarritu dituztenak. Adibidez, Nestor García-ren arabera, “... ekintza kolektiboa interes komunak dituzten pertsonen egikaritzea dute, formalitate gradu askotako egituretan antolatzen dira eta ekintza mobilizatuak jartzen dituzte martxan” (García, 2014). Raquel Gutierrezek, berriz, honela definitzen du ekintza kolektiboa: “Afera publikoetan esku hartzeko dagoen gaitasun kolektiboa” (Gutierrez, 2017).

Ekintza kolektibo horretan parte hartzeko, mendebaldeko jendarteetan behinik behin, hiru antolakuntza forma nagusi eratu dira, lehenago esan dudan legez:

alderdi politikoak, interes taldeak eta mugimendu sozialak²³. Alderdi politikoan, interes taldeen eta mugimendu sozialen "... izaera eta funtzioak oso nabarmenak dira askoren ustez, baina haien arteko mugak maiz aldakorrak eta mugikorrak izan ohi dira, eta batzuetan kategoria horien arteko nahasmenak gertatu ohi dira" (Larrinaga, Barcena, 2004: 103).

Hortaz, Iñaki Barcenaren arabera, alderdi politikoan definizioa hauxe da: "Gizabanakoen interesak defendatzeko elkarte da, botere politikoa eskuratzeko, maneiatzeko eta bere egitarau politikoa aurrera ateratzeko barneko egitura hierarkikoa duena" (Larrinaga, Barcena, 2004: 104). Hala ere, literatura zientifikoan ez da erraza alderdi politikoan gaineko definizio zuzen edo adostua aurkitzea. Alde batetik, denboraren poderioz alderdi politikoan kontzeptuak aldatu egin dira. Eta, bestetik, tokiaren arabera (eta errejimen politikoaren arabera) alderdi politikoan kontzeptua ere aldatu egiten da.

Hala ere, kontuan hartu behar da, gaur egun, alderdi politikoak direla parte-hartze politikorako tresna nagusia. Alderdiak jendartean dauden lehia edo interesen begirale pribilegiatuak dira eta interes-taldeek eta mugimendu sozialek haien aurrera eramaten dituzte eskakizunak, alderdiek lagun diezaieten. Izan ere, alderdi politikoek bereganatzen dute erakundearen agintaritzza eta oposizioa: gobernatzen dute edo gobernuei kritikak eta kontraproposamenak egiten dizkiete. Era berean, hedabideen eta iritzi publikoaren arreta nagusiki jasotzen dute alderdiek. Neurri batean, alderdiek politikaren dinamika nagusiak markatzen dituzte eta jendarteko beste eragileak askotan haiei begira egoten dira, euren interesen araberako aukera politikoak noiz irekiko zain.

Hori guztia aintzat harturik, interes taldeak edo mugimendu sozialak zertan ezberdintzen dira alderdi politikoekiko? Badirudi ezberdintasun nagusia hauxe dela: alderdi politikoek boterera heltzeko eta boterea eskuratzeko borondatea dute eta besteek ez. Horrez gain, badira bestelako ezberdintasunak, helburuetan ez ezik, funtzioetan ere. Alde batetik, alderdiek batu eta sinplikatu egiten dituzte jendartean dauden taldeen interesak. Beste alde batetik, elite politikoak eratzen dituzte alderdiek. Alderdiek erabat bereganatu dute ordezkarietza politikoa eta alderdien galbahetik pasatu ezean, ia ezinezkoa da ordezkarietza postu batera iristea. Hirugarrenik, herritarren gogo eta beharren kanalak dira alderdiak, hau da, herri-

23 Terminoa anabasa dago euskaraz mugimendu sozialaren inguruan: gizarte mugimendua, jendarte mugimendua, herri mugimendua, ... Nik mugimendu sozialaren alde egin dut hautua. Arrazoi nagusia izan da inguruko erdaretan termino honen antzeko berbak erabiltzen direla batez ere (espainieraz, *movimiento social*, frantsesez *mouvement social*, katalanez *moviment social*, galizieraz *movemento social* eta ingelesez *social movement*). Hala ere, kasuren batean herri mugimendu berba ere erabili dut mugimendu sozialaren sinonimo Euskal Herrian tradizio handiko terminoa delako (adibidez, Esteban, 2018, Azpiazu, 2017 edo Joxemi Zumalabe Fundazioa, 2014).

tarren kezkak gobernura bideratzeko bitartekariak dira. Laugarrenik eta azkenik, sistema politikoa egonkor eta indartsu mantentzeko ezinbestekoak dira alderdiak. Jakina da alderdiek ez dituztela funtzio hauen monopolioa, baina nagusiki eurek betetzen dute jendartean paper hau (Larrinaga, Barcena, 2004).

Interes taldea, berriz, "... edozein talde da, jarrera bat -edo gehiago- partekatuz gizartearen beste taldeen aurrean errebindikazio batzuk egiten ditu, posizio komun horiek egokitzen diren portaerak finkatu, areagotu edo mantentzeko" (Larrinaga, Barcena, 2004: 120). Beraz, interes taldeak erakunde formalak dira, botere politikoaren erabakietan eragiteko mehatxu eta zigorrak erabiltzen dituztenak. Horien helburuak ez dira beti ezagunak eta publikoak, baina talde horien ezaugarriarik adierazgarriena, seguru asko, zerbitzuak, onurak, zamak eta aukerak modu partikular eta aldeko batean bana daitezen bilatzea da.

1.4.1 Mugimendu sozialak

Hiru horien artean (alderdi politiko, interes talde eta mugimendu sozial), ikerketa honen subjektu diren euskara elkarteek euren burua mugimendu sozial²⁴ bezala irudikatu dute (Topagunea, 2011). Hori dela eta, beharrezkoa da mugimendu soziala zer den jakitea. Literatura zientifikoan, jakina, hamaika definizio daude mugimendu sozialen inguruan. Ezinbestean horietako batzuei egin beharko diet erreferentzia eta nire hautu teorikoak argitzen hasi.

Esate baterako, Mario Dianik mugimendu sozialak horrela definitzen ditu: "(Mugimendu soziala) da norbanako, talde edo erakunde multzo baten arteko elkarrekintza informalen sarea, nortasun kolektibo partekatua oinarri, gatazka politiko edo kultural batean engaiatu egiten dena" (Diani, 1992). Lehen aipatu dudana Jesús Casquete-k, bestetik, honela definitzen ditu mugimendu sozialok: "Norbanako, talde eta erakundearen arteko sare interaktiboa. Sare horrek aldaketa sozialaren prozesuan parte hartzen du jarraitutasunez gizarte zibilaren eta agintarien aurrean euren eskariak plazaratuz eta parte hartzen du forma ez-konbentzionalak erabiliz" (Casquete, 1998). Joaquim Raschke-k, hirugarrenik, honela definitzen ditu mugimenduok: "Mugimendu soziala jendartean oinarritzko aldaketa bat eragin, eragotzi edo ezabatu nahi duen eragile kolektibo gisa hartzen da.

24 Topaguneak oinarriparren gaineko txostenean (euren etorkizuneko oinarri teorikoak finkatzeko egindako lanketan) "Gizarte mugimendu gara" aldarrikatzen du puntu nagusi baten izenburuan (Topagunea, 2011). Topagunea euskal herrietako hainbat euskara elkartek batuta sortutako erakunde da. 1996an sortu zuten hainbat euskara elkartek Topagunea eta, ordutik, elkarte gehiago batu dira Topagunera.

Mugimenduak integrazio sinboliko handia eta rolen zehaztasun maila txikia izan ohi du eta ekintza eta mobilizazio-modu aldakorrek erabili egiten dituzte eguneroan” (Raschke, 1994). Sidney Tarrow-ek, berriz, horrela definitzen ditu: “Helburu komunak eta elkartasuna partekatzen duten pertsonen plazaratutako erronka kolektiboak dira, elite, aurkari eta agintariekin elkarreaginean mantenduak (Tarrow, 2011). Pedro Ibarra eta Francisco Letamendiak, ostera, honela definitzen dituzte: “Agintari politiko, elite eta aurkarietako elkarrekintza jarraitu eta, gehienetan, gatazkatsu batean –eta nortasun kolektibo bera izanik– publikoki, boterearen erabilera edo banaketa interes kolektiboen alde eraldatzea eskatzen duen banakoen, taldeen edota organizazioen arteko elkarreagite informalean sare bat da” (Ibarra, Letamendia, 2000).

Badira beste definizio batzuk ere. Esate baterako, Jorge Riechman-ek eta Francisco Fernandez Buey-k mugimenduok honela definitzen dituzte: “*Mugimendu soziala eraldaketa sozialaren prozesuan* (aldaketak proposatuz edo aldaketen kontra eginez) *parte hartzen duen eragile kolektiboak da*”²⁵ (Riechman, Fernandez Buey, 1995). Manuel Delgadok ere bide beretik jotzen du: “Mugimendu soziala da pertsona eta sektore batzuen borondatearen gauzatzea, Estatuan eragiteko edo eurentzako kaltegarriak diren inguruabar zehatz batzuk zuzendu edota gainditzeko” (Delgado, 2016). Hortaz, mugimendu sozialak izan daitezke behetik gora taupada autonomoz sortutako ekintza kolektiboak edo, beste berba batzuekin esanda, arlo sozialaren auto-antolaketaren adierazpide autonomoak.

Mugimendu sozialek, beraz, parte hartzea bilatzen dute, parte hartzea politikan, hau da, parte hartzea pertsonon nahiak, gurariak eta beharrak ebatzen den tatami publikoan. Baina parte hartzeko bi bide nagusi daude (Blas, Ibarra, 2006): gonbidapen bidezko parte hartzea eta agerpen bidezko parte hartzea²⁶. Gonbidapen bidezkoa honela definitzen dute aipatutako liburuan: “Erakunde publikoek (gobernuak, udalak eta abarrek) herritarrei gonbit egiten –eskaten– diete beraiek ezarritako prozesuetan eta espazioetan parte hartzera” (Blas, Ibarra, 2006). Agerpen bidezko parte hartzean, berriz, “... herritarrak, eta maizago gizarte erakunde jakin batzuk, espazio publikoan agertzen dira, eta beren partaidetza prozesuren bidez hartutako erabakiak bere horretan onartzeko eskatzen diete administrazioari” (Blas, Ibarra, 2006). Argi dago binomio horretan non kokatzen diren mugimendu sozialak: agerpen bidezko parte hartzean, hain zuzen ere (horrek ez du esan gura

²⁵ Azpimarra originalean agertzen da, ez da nirea.

²⁶ Agerpen bidezko parte hartze esamoldearen alde egin dut. Euskaraz, gutxienez, lau modutara ikusi dituztela gaztelaniazko *participación por irrupción* delakoa: oldarte bidezko parte hartzea, parte hartze autonomoa, irrupzio bidezko parte hartzea eta agerpen bidezko parte hartzea. Nik azken honen alde egin dut.

gonbidapen bidezko parte hartze bideetan mugimendu sozialek ez dutenik parte hartzen; hala ere, mugimendu sozialen esparru nagusia hortik kanpora dago).

Oso antzekoak dira orain arte ikusitako definizioak (aldeak alde eta zehaztasunak zehaztasun), baina Jesús Casquetek emandako definizioari tiraka, interesgari iruditu zaizkit berak egindako ñabartze batzuk (Casquete, 1998). Batetik, bere berbetan “mugimendu sozialak norbanako, talde eta erakundeen sare mobilizatuak dira”. Era berean, “nortasun kolektiboa oso garatuta dute” eta bilatzen dituzten helburuek “jendarte osoarentzat eragina izango dute”. Bigarrenik, “mugimendu sozialek bitariko estrategia bati jarraitzen diote”. Alde batetik, euren arazoei irtenbideak eskatzen dizkiete agintariei, baina, beste alde batetik, “arazo bihurtzen dute jendartean presente dauden eredu kulturalak, arauak, sinesmenak, nortasunak eta erakundeak”. Mugimendu batzuek estrategia bati besteari baino garrantzi gehiago ematen badiote ere, esan daiteke mugimendu guztiak bieki eten dietela noiz edo noiz. Hirugarrenik, mugimendu sozialek beste eragile kolektiboek (alderdiek eta interes taldeek) baino egitura informalagoa, horizontalagoa izan ohi dute. Laugarrenik, ekintzen errepertorioa zabaldu egiten dute. Alderdiek eta interes taldeek erabiltzen dituzten parte-hartze moduez gain, bestelako parte-hartze modu batzuk praktikatzan dituzte (legezkoak izan ala ez). Bosgarrenik, mugimendu sozialak aldaketa sozialean esku-hartzeko saioak dira. Mugimendu gehienek agenda aurrerakoia badute ere, ezin daiteke esan mugimendu guztiak agenda hori dutenik. Seigarrenik, mugimendu sozialaz berba egin ahal izateko, “beharrezkoa da nolabaiteko jarraitutasuna egotea. Ezinezkoa da kasu guztiatarako balioko duen kronologia mugarri bat ezartzea, baina baliozko erreferentzia tenporala izan daiteke urte batzuetakoa”. Zazpigarrenik eta, azkenik, mugimendu sozialak ez dira homogeenak izaten. Haien barruan, joera eta erakunde askok hartzen dute parte eta sarritan euren artean talka egiten dute nabarmen, ideologian, estrategian, antolaketan zein beste hainbat puntutan.

Zentzu berean, Charles Tilly-k ere (Tilly, Wood, 2010) Casquetek darabil-tzan elementu horiek guztiak bildu eta hirutara ekarri ditu, labur zurrean: batetik, “... mugimendu sozialek ahalegin publiko, antolatu eta eutsia eramaten dute agintarien aurrean euren aldarrikapen kolektiboak plazaratzeko” (egileek honi kanpaina deitzen diote). Bestetik, “... ekintza politikorako honako forma bat edo beste erabiltzen dute: elkarteak edo koalizioak sortu, bilkura publikoak, prozesioak, bijiliak, mitinak, manifestazioak, eskaerak, hedabideetan adierazpenak, propaganda, ...” (egileek honi mugimendu sozialen errepertorio deitzen diote). Eta, azkenik, “... parte-hartzaileek adierazpen publiko eta adostuak egiten dituzte lau

gai hauen inguruan: balioa, batasuna, zenbakia eta konpromisoa” (egileek honi WUNC adierazpenak deitzen diote).

Jorge Riechman-ek eta Francisco Fernandez Buey-k (Riechman, Fernandez Buey, 1995), berriz, mugimendu sozialen gaineko zortzi ezaugarri nagusi hauek aipatzen dituzte:

1. Burujabetzarako eta emantzipaziorako orientazioa izatea.
2. Boterea lortzeko orientazioa izan baino, mugimendu sozialak mugimendu kulturalistak dira: euren helburua ez da boterea hartzea, oinarritik sortutako kontra-botere sareak eraikitzea baizik eguneroko bizitza aldatzearen. Existentiaren burokratizazio eta merkantilizazioari aurre egiteko autodefentsa soziala egiten dute mugimenduek.
3. Modernotasunaren aurkako orientazioa dute, zelanbait esanda.
4. Konposizio sozial heterogeneoa izan ohi dute mugimenduek.
5. Pentsatu globalki, ekin lokalki: horixe da mugimenduek jarraitu egiten duten bizitza-filosofia nagusia.
6. Antolaketa egitura ez da hierarkikoa, ez da zentralizatua. Sare modukoa da (mugimendu batzuetan, gainera, sareen sarea da); erakundetze eta profesionalizazio maila baxukoak izan ohi dira mugimenduok.
7. Eguneroko bizitzaren eta bizitza pribatuaren politizazioa dakarte: elkarbizitza, produkzio eta kontsumorako iturri alternatiboak eraiki nahi dituzte.
8. Ekintza kolektiborako modu ez-konbentzionalak darabiltzate.

Imanol Agotek (Agote, 1995) ere mugimendu sozialen inguruko ezaugarri antzekoak azpimarratzen ditu: alde batetik, “gizartean eragitea da mugimendu sozialen helburua”; beste alde batetik, “gutxieneko egonkortasuna eta iraupena izaten dituzte”; hirugarrenik, “hedatuta egoten dira lurralde batean”; eta, laugarrenik, “gizartea identifikatzeko erreferentziak dira, bai jarreretan, bai diskurtsoan, baita mundu sinbolikoan ere”.

Donatella della Porta eta Mario Dianik ere (della Porta, Diani, 2011), ostera, honako hiru ezaugarri hauek azpimarratzen dituzte: batetik, “ekintza kolektibo gatazkatsua”; bestetik, “sare informal trinkoak” eta, hirugarrenik eta azkenik, “nortasun kolektiboa”. Hiru ezaugarri horiek beharrezkoak dira mugimendu sozialari buruz berba egin ahal izateko. Pedro Ibarrek ere hiru ezaugarrietara makurtzen ditu mugimendu sozialak. “Mugimendu soziala sortzen da egiturazko tentsioak daudelako (lana edo familia edo hiri egiturazkoak), oso zehatzak diren interesak kaltetzen dituztenak, oso ikusgarriak, oso sentituak. Beraz, egiturazko gabezia edo hausturen ondorioz sortzen dira” (Ibarra, 2000). “Mugimendu soziala sortzen da gatazka hori konpontzeko dauden formek ezin dutelako heldu. Antolaketa mailako gabeziek sortzen dute” (Ibarra, 2000). “Mugimendu soziala sortzen da jendeari (edo hobe esanda pertsona batzuei) ez zaiolako gustatzen nola bizi den (nola bizi duten eurek) orokorrean eta injustizia hori nola bizi den, interes kolektiboen ukatzetik. Pertsona batzuek beste modu batera bizi nahiko lukete eta arazo kolektiboei beste konponbide bat eman” (Ibarra, 2000).

Zesar Martinezek, Beatriz Casadok eta Pedro Ibarrek ere antzeko bidetik jotzen dute: “Jendarte-mugimenduak dira gizartean dauden zapalkuntza formak eta harremanak era kritikoa lantzen dituzten eragileak; hau da, jarrera kolektibo ez-konformista eta pro-aktiboa dute behar bezala ez dabiltzan gauzekiko, gizarte-sektore batzuk gutxiagotzen eta baztertzen dituzten harremanekiko. Erantzun kritikoa eta aktiboa ematen dute, eta, berrikuntza gisa, erantzun hori gero eta osokoagoa da menpekotasun forma ugari erantzunez. Kritika eta salaketa egiteaz gain, eragile kolektibo horiek dira, euren praktika eta lan auto-eratzailaren bidez, forma berritzaileak bilatzen dituztenak harremantzeko, gizarteko elkarbizitza antolatzeko eta borroka politiko emantzipatzailea sustatzeko” (Martinez, Casado, Ibarra, 2012).

Gainera, egile hauen arabera, mugimendu sozialek ezaugarri bereizgarri batzuk badituzte. Lehenik eta behin, “edozein pertsonentzat sarbide erraza izaten dute haiekin bat egiteko”. Haien egitura ez dago oso formalizatuta, ez eta hierarkizaturata ere. “Mundua ulertzeko eta munduan egoteko modu kritiko edo ez-konformistaren baten inguruko taldeko nortasuna eta kidesuna sortzen dute. Ezarrita dauden botere-egitura jakin batzuk salatzen eta desnaturalizatzen dituzte”. Bigarrenik, interes orokorreko zenbait eskaera eta beharizan kolektibo agertzen dituzte. Hirugarrenik eta azkenik, “praktika alternatiboak eta eraikuntzan dauden proposamenak gauzatzen dituzte”; herri, giza-talde eta pertsona guztientzat aldarrikatzen dituzte menpekotasunik gabeko harreman libre, osasuntsu eta solidarioak.

Mugimendu sozialak gora eta mugimendu sozialak behera aritu izan naiz orain arte berba eta berba. Baina funtsezko gai bati oraindik ez diot heldu. Izan ere, askotan nahastu egiten den kontu bati egin nahiko nioke erreferentzia: “Mugimendu sozialak zabalagoak dira hura osatzen duten erakundeak baino” (della Porta, Diani, 2011). Hau da, mugimendu soziala (lehen ere aipatu dudan moduan) hainbat taldek, norbanakok eta erakundek osatzen dute. Ezin da barbarik egin mugimendu sozialari buruz erakunde bakar batek osatzen badu berau. Mugimendua izan ahal izateko, hainbat erakundek eta taldek osatu behar dute, ezinbestean (eta sarritan euren artean talka egiten dutenak). Bestela, ezin izango da mugimenduari buruz barbarik egin.

Hala ere, ezin da ahaztu erakundeak garrantzitsuak direla “nortasun iturri indartsu diren heinean” (della Porta, Diani, 2011: 183). Izan ere, mugimenduko ki-deek gehienetan mugimenduarekin bai, baina identitate lotura sendoagoak izan ohi dituzte mugimendua osatzen duten erakundeekin (edo, zehatzago esanda, erakunderen batekin). Kideek ez ezik, arerioek eta iritzi publikoak ere gehienetan erakundeekin identifikatzen dute mugimendua. Nortasun iturri oparoa izateaz gain, “... ekintza jarraia izan dadin ere beharrezkoak dira mugimendu sozialetako erakundeak” (della Porta, Diani, 2011: 183).

1.4.2 Mugimendu sozialak eta interes taldeen arteko elkarguneak eta aldeak

Baina itzul nadin berriro ere lehenago aipatu dudan kontu batera. Esan bezala, ekintza kolektiboan, oro har, hiru eragile nagusi daude (Ibarra, de la Peña, 2004): alderdi politikoak, interes taldeak eta mugimendu sozialak. Hala ere, praktikan batzuetan zaila da hiruren arteko mugak zehatz-mehatz zedarritzea, batez ere interes talde eta mugimendu sozialen artean. Badago literaturan batzuen eta beste ezaugarriak definitzeko hainbat lan, hainbat saiakera, hainbat tirabira, hainbat eztabaida.

Orokorrean, interes taldeak eragile konbentzionalak balira (erakundeen parametroen barruan jardun ohi duten heinean) definitu izan dira eta mugimendu sozialak, ostera, eragile ez-konbentzionaltzat (erakundeen parametroetatik kanpo egon ohi dira euren eskariak, agenda politikoak eta protesta erreperitorioak). Izan ere, mugimendu sozialek nortasun kolektiboa bilatzen eta praktikatzeko dute, salbuespenak salbuespen. Honek esan nahi du jende multzo batek elkarrekin bizi nahi duela mundua ikusi, egon eta jarduteko modu ezberdina. Mu-

gimendu sozialek identitate kolektiboa dakarte eta, era berean, eskariak egiten dituzte agintari eta eragile politiko konbentzionalek egiten ez duten eremuetan. Hortaz, erakundeetatik urrun egon daitezkeen jarduteko esparru batzuk politizatu egiten dituzte.

Interes publikoko taldeek, ostera, antolakuntza sendoa(goa) izan ohi dute. Gainera, antolakuntza hori ideologiaren zehaztasunetik gaintik egon ohi da. Hau da, interes taldeko kideak ez dira ideologiaren arabera batzen, interes zehatz eta partikular batzuen jira-biran baizik. Azkenik, erakundeekin batera egin ohi dute behar.

Pedro Ibarra eta Alberto de la Peña (Ibarra, de la Peña, 2004) egileek interes publikoko taldeen honako ezaugarri hauek nabarmentzen dituzte. Batetik, interes publikoko taldeek ez dute “etsai” bat aurkitzen, ez da boterea etsai bakarra, askoz lausoagoa da. Bestetik, interes publikoko taldeetan ekintza kolektiboa ukitzeko modukoa da, hau da, “... ekintza kolektibo hori epe labur edo ertaineko helburu zehatzak lortzera bideratu egiten dute” (Ibarra, de la Peña, 2004). Hirugarrenik, talde hauek aukeratzen dute lehentasunez erakundeekin jarduteko era konbentzionala, kalea (eta, harekin batera, protesta publikoa) erabat baztertu ez arren. Eta erakundeekin elkarlanean jarduteko estrategiak landuko dituzte (esate baterako, diru-laguntzak eskatuz). Horrek, alabaina, ez du esan nahi erakundeen papera akritikoki onartzen dutenik. Ematen du, gainera, garatzen ari dela nolabaiteko osagarritasuna interes publikoko taldeen eta erakundeen artean. Laugarrenik eta azkenik, gero eta gehiago erregistratzen dira interes publikoko taldeak elkarre modura eta, beraz, aginte-organoak-eta izan badituzte (beste berrak batzuekin esateko, nolabaiteko erakundetze formala dute, nolabaiteko egitura hierarkikoa). Eta langileak ere badituzte, batez ere, izapide administratiboak bete ahal izateko.

Pedro Ibarrak, ostera, azken urteotako mugimendu sozialen inguruko ezaugarriak aletu ditu (eta badirudi, hein batean, hibridazioa gertatzen ari dela mugimendu eta interes taldeen artean). Haren arabera, “... praktikan errebindikazio sozialaren osagarritasun estrategikora jotzen dute. Alde batetik, presioa egiten erakundeek; eta, bestetik, alderdi politiko batzuekiko babesa edo konplizitatea” (Ibarra, 2018). Horrez gain, antolaketari buruz honakoa dio: “Mugimenduek bai mantentzen dute jatorritik alderdiekiko mesfidantza eta distantzia puntu bat, eta barne antolaketa parte hartzaileagoa, irekiagoa, horizontalagoa, asanblearioagoa eta demokratikoagoa dute, oro har. Hala ere, mugimenduetan ere nabaritzen da barne burokratizaziorako prozesuetarako joera, hierarkizaziorako joera” (Ibarra,

2018). Azkenik, honako hau ere aipatzen du Pedro Ibarra: “Jatorrietan mugimenduak osatzen zituzten pertsonak ziren bidegabekeriak zuzenean jotakoak. Baina mugimenduak garatzen ari dira. Eta gero eta gehiago dira mugimenduetan zuzenean kaltetuta ez diren herritarrak” (Ibarra, 2018).

Ezaugarri horiek aintzat hartuta, badirudi euskara elkarteak interes publikoko taldetik gertuago daudela mugimendu sozialetik baino. Hori ematen du, baina, nire ustez, interes publikoko talde eta mugimendu sozialen artean continuum bat dago eta marra horretan kokatuko nituzke euskara elkarteak. Baten batek interpretatuko du interes publikoko talde direla eta beste batek, agian, mugimendu sozial.

Nire ustez, oster, euskara elkarteak mugimendu sozial dira edo, zehatzago esanda, mugimendu sozialeko erakunde (euskararen aldeko mugimendu sozialearen barruko erakunde). Batetik, interes publikoko taldeen aldean, euskara elkarteetan oraindik orain militantzia²⁷ dago, lan boluntarioa dago, lan aktibista dago. Beste alde batetik, kontuan hartu behar da nork bere buruari emandako definizioek errealitatea sorgindu eta sortzeko ahalmena²⁸ dutela. Argi dago mugimendu sozial “puru” batek izan behar dituen ezaugarri batzuk ez dituela (adibidez, erakundeekin era konbentzionalagoz jarduten dutela, egitura formalizatua dutela, aginte-organoak dituztela, langileak ere bai, osagarritasuna bilatzen dutela, eta abar).

Gainera, Pedro Ibarren arabera, “... Gobernu Kanpoko Erakunde batzuk mugimendu sozialen erakundeak dira, mugimendu/komunitate gisara ulertuak. GKE hauek interes taldeen itxura dute antolaketari dagokionez; talde formalizatua dagoak dira mugimendu sozialenak baino. Baina interes taldeekin duten ezberdintasun nagusia hau da: onuradunak zehaztugabeak izan ohi dira eta mugimenduaren sarean eta nortasun kolektiboan hartzen dute parte” (Ibarra, 2000). Analogia horri heldu (eta kontuan hartuz euskara elkarteak ez direla erabat Go-

27 Militantzia, aktibismo eta boluntariotza kontzeptuen artean, Topaguneak hasierako hausnarketa baino ez du egin. Hala ere, ez da argitu zein den kontzepturik eraginkorrena euskara elkarteetan pertsonak egiten duten ordu eta lan dedikazio boluntarioa definitzeko. Orain arte boluntario berba erabili dute batez ere, baina badirudi azken aldiari aktibista berba pisua hartzen ari dela. Adibidez, Iker Martinez de Lagosek honako hau dio: “Komunikabide, jardunaldi eta konferentziak ekintzailetzaren gaineko irudi bakar eta hegemonizatzailea zabalzten dihardute, arrakasta sozial eta ekonomikoa bilatzen duen sasi-heroiaren irudia. Ekintzaile *mainstream* horren aurrean, gurean auzolanari eta eskuzabaltasunari lotuta egon izan da ekintzailearen jarduna. Norberaren sinesmen sisteman eta amestutako gizarte eremuan ekarpena egiten duten ekintzaileak dira gizartea mobilizatu dutenak urtetan” (Martinez de Lagos, 2017). Ikerlan honetan hiru terminoak (boluntario, aktibista eta militante, baita eratorriak ere) erabili dira gauza berari erreferentzia egiteko. Bestetik, Mikel Ozaitak militantzia berbarenean gainean jaurlitzen duen hipotesia zeharo argigarria iruditzen zait: “Hipotesi gisa aipatuko nuke, Euskaltzaleen Topaguneko Mugimenduak, militantzia hitza errefusatu duela markatuegia egon delako eta Euskal Herriko gatazka testuinguruan, bi ildo abertzale nagusien, hausturaren eta erreformaren artean, hirugarren bide bat bilatu nahian bezala edo bien artean kokatu nahian bederen. Izan ere, gatazka politikoren garai latzetan, bi familia politikoko oinarri soziala biltzea izango du helburu Tokiko Euskaltzaleen Mugimenduak, hasiera-hasieratik (gaur egun Gure Esku Dago Mugimenduak egiten duen gisan)” (Ozaita, 2017).

28 Manuel Castells-ek, adibidez, honako hau dio: “Mugimendu sozialak ulertu behar dira bere terminoetan: hau da, dira eurek esan gura dutena. Euren praktikak (eta, batez ere, praktika diskurtsiboak) dira euren autodefinizioa” (Castells, 1998).

bernuz Kanpoko Erakundeak) esan daiteke euskara elkarteak talde formalizatuagoak izan arren, onuradun zehaztugabeak dituztela eta nortasun kolektiboa praktikatzen dutela, mugimendu sozialen tankera.

1.4.3 Mugimendu sozialen emaitzak

Gaur egun, gero eta argiago dago jendartea ezin dela aztertu edo ulertu mugimendu sozialen eragina kontuan hartu barik. Raul Lopez Romok honakoa dio adibidez: “Eztaba daezina da mugimendu sozialak izan direla, direla eta izango direla gure jendartea eraldatzeko aldaketa indarririk nabarmenetakoak. Izan ere, aldaketa sozialaren prozesua ez da bakarrik goitik behera gidatzen, aldaketa sozialaren prozesuan ez dira protagonista bakarrak elite politiko eta ekonomikoak” (Lopez Romo, 2011). Antzekoa dio Manuel Castells-ek ere: “Mugimendu sozialak izan dira, eta dira, aldaketa sozialaren palankak” (Castells, 2012: 209). Hortaz, beharrezkoa zaigu mugimendu sozial hauek lortu dituzten eta lortzen ari diren emaitzak behar bezala aztertzea.

Hasi aurretik, ohar bat: oso zaila da mugimendu sozial batek eragiten duen aldaketaren kantitatea eta kalitatea zein izan den neurtzea. Eta, gainera, orain arte literatura zientifikoan gutxi aztertu den fenomeno da: “Mugimendu sozialak pertsona multzoak dira. Pertsona horiek antolatu egiten dira gauzak lortzeko, elite politiko eta ekonomiko jakin batzuek euren aldeko erabakiak har ditzaten lortzeko, euren erreklamazioak aintzat har ditzaten. Eta, paradoxikoki, mugimendu sozialen gaineko azterketek ez dute ezer –edo ia ezer– esaten mugimenduek euren helburuak lortzen dituzten (edo ez) eta zergatik (edo zergatik ez) lortzen dituzten” (Ibarra, 2000). Izan ere, Pedro Ibarren iritziz, askoz samurragoa da mugimendu sozialei lotutako beste kontu batzuk neurtzea edota aztertzea: “Uste dut analisi gabezia hau zailtasun metodologiko bati lotuta dagoela. Ez da zaila, izan ere, gutxi gorabehera aztertzea polizia txostenen bidez edo prentsa artikuluen bidez zenbat pertsonak hartzen duen parte mugimendu sozial zehatz batean; eta jakin dezakegu, euren dokumentuen bidez, zeintzuk diren euren aldarrikapenak eta zelan definitzen duten inguratzen dien mundua; eta arakatu ditzakegu, era berean, elkarrizketen bidez, mugimenduko militanteen profilak, zergatik dauden taldean, non zeuden hori baino lehen eta zelan euren aurreko ekintzek bultzatu zuten taldera sartzera. Baina askoz zailagoa da jakitea zergatik gobernu batek aldatu zuen lege bat; ea egin zuen legea teknikoki zaharkituta zegoelako, edo iritzi publikoak eskatzen zuelako, edo mugimendu sozial batek praktikan hori egitera

‘behartu’ zuelako, edo gobernua zeharo jakintsu eta onbera zenez, zekielaiko zer zuzena eta ona zen lege hori aldatzea” (Ibarra, 2000).

Aldaketa sozialaren iturriak, oro har, askotarikoak dira, faktore askok hartzen du parte aldaketa sozialean. Horrek traba dakarkio aldaketa soziala aztertu gura duen zientzialari sozialari, baina, era berean, erronka eta interes handiagoa dakar. Emaitzei buruz berba egiten hasi aurretik, begiratu beharko genituzke mugimendu sozialek dituzten helburuak. Sidney Tarrow-en arabera, “... mugimendu sozialek aurkariei, etsaiei edo agintariei aldarrikapenak jartzen dizkiete mahai-gainean” (Tarrow, 2011: 38). Baina Jesus Casquetek, berriz, mugimendu sozialek bi estrategia nagusi dituztela dio: “Agintariengan eragin eta, horren bidez, berrikuntza soziala eta politikoa lortu” (Casquete, 2006) eta “jendartean eragin eta, horren bidez, nagusi diren balioei aurre egiten dieten balioak sustatu” (Casquete, 2006).

Egin eta eragin, beraz, euskara elkarleen ohiko hizkerara ekarriaz (Topagunea, 2011). Izan ere, mugimendu sozialek “... ez dute boterea hartzea bilatzen. Botere politikoari aldetak eskatzen dizkiote, berarekin harremanetan egoten dira, baina ez dute botere politiko eskuratu nahi” (Ibarra, 2000). Beste era batera esanda, “... testu honetan aipatzen ditugun eta jendarte-mugimendu askok lortu nahi dituzten eraldaketa askatzaileak ez daude lege edo politika publikoen menpe. Arreta eta borroka bizitzaren hamaika gunetan daude, ez soilik gobernuaren boterea lortzeko liskarrean” (Martinez, Casado, 2013). Beraz, “... jendarte-mugimenduek arlo politiko zabaltzen dute: dominanteak diren praktikak zalantzan jartzen eta eraldatzen, jendearen inplikazioa handitzen, baztertutako gizarte-sektoreen sentipena politikan txertatzen, eta bazterkeria sortzen duten gizarte-ereduak kritikoki berrikusten eta inklusiboagoak diren bestelako ereduak proposatzen dituzten eragileak dira” (Martinez, Casado, Ibarra, 2012).

Helburuak eta estrategiak, hortaz, bitarikoak dira. Hori dela eta, mugimendu sozialek lortzen dituzten (edo lor ditzaketan) emaitzak ere bitarikoak izango dira. Emaitza horietako batzuek “eragin” aditzarekin harremana izango dute eta beste batzuek, aitzitik, “egin” aditzarekin. Edo, beste berba batzuekin esanda, emaitza batzuk politikoak izango dira eta beste batzuk kulturalak.

Emaitza politikoek mugimendu sozialen aldarrikapenekin dute zerikusia. “Eraginaren politika” deitzen die horiei Mario Zubiagak (Zubiaga, 2008). Hori lortzeko, esan dudana legez, eragin nahi dute beste batek aldatu dezan zerbait. Dena den, kasu batzuetan, emaitza politikoak lortzea ere bada nortasun kolektiboa indartzea edo gai jakin bat agendara eramatea. Hala ere, zaila da emaitza

horiek zeintzuk diren (edo izan daitezkeen) asmatzea. “Urte askotan, mugimendu sozialen ikertzaileek adierazi dute zer gutxi ezagutzen ditugun hauen emaitzak termino politikoetan” (Tarrow, 2011: 369). Era berean, mugimenduek ere batzuetan ondasun kolektiboak sortzen dituzte eta horiek ere, jakina, emaitza politikoak dira. Eta, horrez gain, ez dira gutxi mugimenduek pertsona batzuegan eragiten dituzten aldaketa biografiko eta kulturalak (Tarrow, 2011).

Honi loturik, alternatibak eraikitzea ere bada mugimendu sozialen emaitza politikoetako bat. Izan ere, mugimendu sozialek askotan proposamen alternatiboak dakartzate eta, horiei loturik, estrategia berritzaileak. Mugimendu askok uste dute aldaketa soziala gaur eta hemen hasten dela, eguneroko praktiken bidez. Jarduteko modu alternatibo eta prefiguratibo honi literatura zientifikoaren zati batek berrikuntza soziala deitu dio. “Berrikuntza sozialak dira ideia berriak (produktuak, zerbitzuak edota prozesuak), daudenak baino modu eraginkorragoan asetzen dituztenak beharizan sozialak. Era berean, harreman edo elkarlan sozial berri eta iraunkorrak eratzen dituzte” (Espiau, 2017). Hortaz, mugimendu sozialek sormena dakarte eta, hortaz, alternatiba gauzagarriak eraiki ditzakete beren ohiko jardunean.

Baina, emaitza politikoez aparte, badira emaitza kulturalak ere. Sidney Tarrow-en arabera, hiru motatakoak izan daitezke emaitza kultural hauek (Tarrow, 2011: 394): batetik, “balio, sinesmen eta iritzien aldaketak”; bestetik, “sinboloen sarea aldatu, baita sinboloei ematen zaien esangura bera ere”; eta, hirugarrenik eta azkenik, “munduaren bisioa eta komunitatearen egoera soziala aldatu”. Emaitza kultural hauek zerikusi zuzena dute mugimenduek sortzen dituzten balio alternatiboekin, mugimenduek sortu nahi duten “mundu”berriarekin. Mugimendu sozialek, azken finean, “sortu eta manipulatu egiten baitituzte esangurak” (Tarrow, 2011: 251) eta horien baitan lortuko dute esangura berriko balio, sinbolo eta sinesmen.

Hirugarren emaitza mota bat ere aipatzen da, emaitza kultural eta politikoez gain: “Alternatiba eta espazio kontrahegemonikoen sorrera” (Verger, 2009). Honela dakar Antoni Verger-ek honen gaineko azalpena: “Horrela, mugimendu sozial batzuek edo mugimendu sozialetako fakzioetako batzuek aukeratzen dute alternatibak sortzea. Horren bidez, euren eskaerak asetzen dituzte modu zuzenean, gobernuak bere egin eta eskaerak horiek ase arte itxaron barik” (Verger, 2009). Hala ere, nik uste dut hirugarren emaitza hauek lehenengoaren barruan sartu daitezkeela. Azken finean, nire ustez, ezberdintasuna estrategian datza, eta ez horrenbeste azken helburuan. Hau da, ezberdintasuna emaitza horiek lortzeko bideetan, prozesuetan datza, ez emaitzaren beraren nolakotasunean. Hortaz, nik

alternatiba eta espazio autonomoen (edo kontrahegemonikoen) sorrerari buruzkoak emaitza politikoen barruan landuko ditut.

Emaitzei buruz berba egin dut nahiko modu orokorrean. Hala ere, kontuan hartu behar da sarritan zaila dela jakitea zehatz-mehatz zein izan den mugimendu sozial batek lortu duen emaitza. Izan ere, prozesu sozialetan hainbat aldagaik hartzen dute parte. Eta “aldagai horiek bata bestearekin harreman estua dute eta horrek zaildu egiten du zergatia eta eragina bereiztea” (della Porta, Diani, 2011: 289).

Era berean, prozesu sozialetan eragile batek baino gehiagok hartzen du parte, mugimendu sozialen baitan beti ere. Hortaz, “... hainbat eragile egoteak zailtzen du, are gehiago, estrategia zehatz bati arrakasta edo porrota egozte” (della Porta, Diani, 2011: 289). Izan ere, “mugimenduak ez dira inoiz izaten gatazka zehatz batean parte hartzen duten eragile bakarrak” (della Porta, Diani, 2011: 290). Modu beretsuan, Sidney Tarrow-ek honako hau dio: “Ez da erraza emaitza politiko jakin baten arrazoia aurkitzea, mugimenduen ekintzei gehitu behar zaizkielako interes taldeen, alderdien eta gobernuaren eraginak, beste mugimendu sozial batzuen ekarpenak ez gehitzearren” (Tarrow, 2011: 370).

Hori dela eta, “... mugimendu sozialek lortutako emaitzak (edo emaitzak lortu ez izana) azaldu ohi da ingurunearen baldintzen arabera, bereziki aukera politikoen sistemaren irekitzearen arabera eta aliatuen eskuragarritasunaren arabera” (della Porta, Diani, 2011: 290). Sidney Tarrow-ek, oraindik, gehiago zehaztu egiten du aurrekoa: “Badirudi faktore askoren nahasketaren ondorio direla mugimendu baten arrakasta azaltzen dutenak: barne faktoreak, testuinguruari dagozkion faktoreak, faktore politikoak, antolakuntzari dagozkionak, egiturazko faktoreak eta faktore estrategikoak” (Tarrow, 2011: 376).

Izan ere, mugimendu sozial batek arrakasta izateko erresonantzia behar du. Xabier Erizeren berbetan, “... kausa edo mugimendu sozial batek arrakasta lortzen du mugimenduak igortzen duen diskurtso edo markoa (balioak, ideiak, sinesmenak, ekintzak) herritarren motibo subjektiboekin (interesak, balioak, sinesmenak) lerrokatzen denean, biak norabide berean doazenean, eta bien artean erresonantzia berri bat sortzen denean, halako sintonia bat sortzen denean” (Erize, 2016). Sidney Tarrow-ek ere antzeko zerbait esaten du, ñabardurak ñabardura: “Mugimendu sozialek arrakasta izateko behar ditu talde sozialen arteko loturetarako egitura informal trinkoak” (Tarrow, 2011). Hortaz, talde sozialekiko lotura sendo horiek izango baitira herritarren interes eta balioekin bat egiteko ezinbesteko osagai.

Horrez gain, beste eragileek izan dezaketen eragina ere hartu behar da aintzat. “Sistema politikoan aliatuak izatea mugimendu sozialen aldeko emaitzak lortzeko osagai bereziki garrantzitsua da” (Tarrow, 2011: 373).

1.5 Hizkuntzen aldeko mugimendu sozialak

Orain arte hizkuntzen biziberritzeari buruz jardun dut, baita ekintza kolekti-boari buruz ere. Eta, azken horretan, fokua batez ere mugimendu sozialen gainean jarri dut. Bada sasoia horiek biak harremanetan jartzeko, bada sasoia horiek biak uztarri berera ekartzen saiatzeko.

Hizkuntza gutxituen²⁹ aldeko esfortzu kolektiboek ez dute jaso mugimendu sozialen teorikoen aldetik orain arte arreta gehiegi. Joshua Fishmanen berbetan, “... HINBE³⁰ esfortzua maiz pertsona batzuegan edo, are, pertsona bakar batean oinarrituta egon daiteke. Hala ere, ohikoena da HINBE jarduera sozial antolatuen bidez gauzatzea; beraz, soziologoek deitzen duten mugimendu sozialen tankerakoak izan ohi dira ahaleginok, baina HINBE esfortzuak oro har ez dira izan zientzialari sozialen arreta gune” (Fishman, 1991: 382). Hala ere, Joshua Fishmanek esaten du “HINBEren aldeko esfortzuak ez direla ohiko mugimendu sozialen antzekoak (manifestazioak, liskarrak eta horrelakoak egotea ez da ohikoena), baina esfortzu hauek helburu zehatzak dituzte, iraunkorrak dira, antolaketa dute eta, beste mugimendu sozial batzuen gisara, kanal ez-konbentzionalak erabiltzen dituzte (esate baterako, alderdi politikoetatik kanpo, eskola eta komunikabideetatik kanpo) eta, sarritan, erakundeei oposizioa egiten diete eta erakunde horiei kontra egiteko erakunde sozial alternatiboak eratzen dituzte” (Fishman, 1991: 382-383). Beraz, Fishmanek uste du soziologoek eta psikologo sozialek arreta gehiago jarri beharko lieketela HINBE esfortzuei, batez ere mugimendu sozialen inguruan dauden teoriaren argitara.

James Costa ere iritzi berekoa da. Izan ere, bere ustez hizkuntzen biziberritzea ezer bada, mugimendu soziala da. “Hizkuntza biziberritzea mundua edo munduaren zati bat eraldatu nahi duen ekintza kolektiboaren modu bat da. Zehatzago esa-

29 Paula Kasaresek esan bezala, euskaraz hizkuntza gutxitu erabiliko dut ingelesezko literatura soziolinguistikokoan batik bat *endangered language*, *minority language* edo *weakened language* izenez adierazten den hizkuntzari deitzeko. Hizkuntza gutxituak dira, funtsean, jendartean gutxituta edo ahulduta dauden hizkuntzak, hau da, hiztunak eta erabilera esparruak galdu dituztelako jendarte funtzio gutxiagotan erabiltzen direnak eta, gehienetan, jarraipen bideak arriskuak dituztenak (Kasares, 2014).

30 HINBE, Hizkuntzaren INdarBerritzea, Mikel Zalbidetik (Zalvide, 2004) emandako itzulpena da. Fishman-ek, originalean, RLS akronimoa erabiltzen du (*Reversing Language Shift*, hain zuzen ere). Terminoak euskaraz izan du nahikoa zabalkunde eta, horregatik, tesi honen ondorioetarako horrela erabiltzea aukeratu dut, nahiz eta nire ustez, logikoa litzateke itzulpen artezago bat erabiltzea euskaraz.

teko, hizkuntza biziberritzea mugimendu sozial baten ekintzen ondorio da (nahiz eta ekintza horiek batzuetan errealak baino amestutakoak izan)” (Costa, 2016).

Hala ere, nazioarteko literatura soziolinguistikok, hizkuntzaren aldeko aktibismoa³¹ gehiegi aipatzen ez bada ere, azken urteotan bada han-hemenka gaia landu duen egilerik: Mary Carol Combs eta Susan D. Penfield (Combs, 2012), Kai Heidermann (Heidermann, 2015 eta Heidermann, 2010), Leanne Hinton (Hinton, 2001), Bernard Spolsky (Spolsky, 2009). Dena den, lan monografiko horietan (eta aipatu barik utzitako beste batzuetan) anabasa terminologiko latza dago: aipatutako mugimendu soziala, aktibismoa eta HINBEz gain, mugimendu etnokulturala erabiltzen da (Fishman, 1974), hizkuntza leialtasunaren aldeko mugimendua (Weinreich, 1953), hizkuntza biziberritze mugimendua (Urla, 2012), biziberritze etnolinguistikoko mugimendua (Heidermann, 2010), ...

Baina, tira, izenak izen, ikus dezagun zer definizio ematen dieten egile hauek mugimendu hauei. Mary Carol Combs-ek eta Susan D. Penfield-ek honela definitzen dute aktibismoa: “Aktibismoa maiz definitu izan da norbanakoek zein taldeek praktikatzen duten ekintza berariazko, indartsu edo kementsu gisa, desiratutako helburu bat lortze aldera. Batzuen ustez, aktibismoa da teorikoki edo ideologikoki zuzendutako proiektua, aldaketa sozial edo politikoa lortzeko beharra hautematea zabaltzen saiatuko dena” (Combs, Penfield, 2012). Hortik abiatuta, hizkuntza aktibismoa honela dakarte aipatutako egile bi horiek: “Hizkuntza aktibismoa da hizkuntzaren erabileran zentratua dauden hizkuntza politikak sortu, eragin edo aldatzeko egiten den ekintza kementsua”.

Kai A. Heidermann-ek, berriz, honela definitzen du hizkuntza gutxituen aldeko aktibismoa: “Hizkuntza gutxituaren aldeko aktibismoa edo hizkuntza gutxituaren biziberritzearen kontzeptua honela definitzen da: ekintza kolektiboko forma iraunkor eta antolatuak hizkuntza gutxituaren eragileek aurrera eramanez, hizkuntza mendekotasuna gelditu eta, ahal den neurrian, mendekotasun horri buelta emateko” (Heidermann, 2015). Egileak berak beste obra batean honela definitzen ditu biziberritze etnolinguistikoko mugimenduak: “Mobilizazio forma iraunkor eta antolatuak dira, endekatze etnolinguistikoko prozesuei aurre egiteko eta biziberritze etnolinguistikoko prozesuak bizkortzeko” (Heidermann, 2010).

31 Nazioarteko literaturan, batez ere, aktibismo berba erabiltzen da hizkuntza gutxiagotuen aldeko mugimenduei erreferentzia egiteko. Lan honen ondorioetarako sinonimo bezala erabiliko ditut hizkuntzaren aldeko aktibismoa eta hizkuntzaren aldeko mugimendu soziala. Izan ere, aktibismoak ezinbestean dakar ekintza kolektiboa, ezinbestean dakar mugimendua eratu nahia, gutxienez.

Lenore Grenoble eta Lindsay Whaley-k, berriz, honela definitzen dituzte hizkuntza biziberritzearen aldeko mugimenduak: “Esfortzu antolatutako hizkuntzaren hiztun kopurua handitzeko eta hizkuntza hori erabiltzen diren esparruak zabaltzeko” (Grenoble, Whaley, 2006: 13). Jacqueline Urlak (Urla, 2012) ere hizkuntza biziberritzea mugimendu sozial gisara ikusten du. Zentzu horretan, berak Nancy Fraser ekartzen du hizpidera. “Gatazka hauek birbanatze gatazkak baino, onarpen gatazkak dira. Gauzak horrela, gatazka hauek borrokatu nahi dituzte talde baten estatusetan, nortasunean edo bizi-eredu jakin batean oinarrituta dauden bazterketa adierazpideak” (Fraser, 1997). Gatazka hauek, jakina, klase osagaia dute, baina ez dira tradizioz klase gatazka bezala irudikatuak izan. Hortaz, “mugimendu hauek bilatzen dute kultur jarrerak, balioak eta esangurak aldatzea” (Urla, 2012: 9).

Lehen aipatu dudan Joshua Fishman-ek beste izendapen bat erabiltzen du mugimendu sozial hauei erreferentzia egiteko: hizkuntza leialtasun mugimenduak³² (Fishman, 2001). Honela definitzen ditu berak: “Hizkuntzaren galera eragozteko eta haren onurak orokortzeko egiten diren esfortzu kolektiboak dira mugimendu hauek” (Fishman, 2001). Izendapenak izendapen, argi dago Fishman-ek kontzeptu bereberri egiten diela erreferentzia, nik hemen hizkuntzen aldeko mugimendu sozialak deitu ditudan horiei, hain zuzen ere.

Hizkuntzen aldeko mugimendu sozialez aritu naiz, bai, baina ez dut barbarik egin mugimendu horiek osatzen dituzten pertsonen buruz. Edo, beste berba batzuekin adierazita, ez dut barbarik egin hizkuntza aktibistei buruz³³. Hizkuntza aktibistak dira, Bernard Spolsky-ren arabera, “hizkuntza euren kezken erdigunean jartzen dituztenak” (Spolsky, 2009). Beste liburu batean, Spolsky-k berak beste honako hau ere esaten du: “Hizkuntza aktibista da hizkuntza aniztasuna babestu eta zabaltzeko ekintza kementsua egiten duen pertsona” (Spolsky, 2012). Hortaz, hizkuntza aktibistak hiru ezaugarri izan behar ditu: “praktika, konpromisoa eta kontzientzia” (Spolsky, 2012).

Ekintzara bideratutako aktibismoa dakar, ezinbestean, hizkuntza aktibistak. “Hizkuntza aktibistak askotan zaratatsuak izan behar dira euren aldarrikapenak entzun daitezen, baina benetan hizkuntza aktibismoa izan daiteke lasaia, pertsonala eta arlo intimo eta pertsonalean praktikatu” (Combs, Penfield, 2012). Izan ere, “... oinarrizko mailan lan egiten, eragin nahi dute dauden hiztunengan edo hiztun potentzialengan erabiltzen jarrai dezaten eta, era berean, gobernuak

32 *Language loyalty movement* originalean.

33 Nazioarteko literaturan luze-zabal jarduten da hizkuntza aktibistei buruz. Kasu honetan, beraz, aktibista berbaren aldeko hautua egin dut (eta ez militante edo boluntario berbaren alde).

konbentzitu nahi dituzte euren planak babestu ditzaten” (Spolsky, 2009). Zentzu horretan, “... hizkuntza aktibistak parte hartzaile esanguratsuak izan ohi dira hizkuntza plangintzan” (Spolsky, 2009). Era berean, aktibista hauek kontzientzia badute. “Mehatxatutako hizkuntza baten aldeko ideologia garbien duten norbanakoak dira” (Spolsky, 2009).

Hala ere, Spolsky-k berak aitortzen du “... hizkuntza aktibista nagusienak (norbanako zein taldeak) bestelako asmo batzuk ere izan ohi dituztela hizkuntzaz aparte” (Spolsky, 2012). Ildo horretan, Robert Cooper-ek ere esaten du “... hizkuntza plangintzaren helburu nagusiak ez dira izaten normalean hizkuntzari lotutako helburuak” (Cooper, 1997). Jacqueline Urlak, ostera, kontra egiten die baieztapen hauei: “Hizkuntza gatazkak ez daude erabat lotuak beste helburu batzuei; gatazka horiek argitzen dute hizkuntzak betetzen duen funtzioa jendartea sendotzeko ardatz modura, eta, era berean, hizkuntzak erresistentzia tresna modura eta sormenezko adierazpen kulturalen ardatz modura betetzen duen funtzioa nabarmentzen dute” (Urla, 2012).

Honaino helduta, galdera batek burrunba egiten dit buruan: zer ekarpen egiten diote mugimendu sozialek hizkuntzen biziberritzeari? Edo, zehatzago esanda, hizkuntzen aldeko mugimenduek ekarpenik egiten al diote hizkuntzen biziberritzeari?

Jacqueline Urlak, esate baterako, honako hau dio: “Hizkuntzaren berreskuratzeko ahalegin soziala eskatzen du. Ezin da delegatu erakundeetan, adituengan edo hurrengo belaunaldietan. Ezta independentzia lortu osteko egoerarako utzi ere” (Urla, 2012: 149). Hortaz, badirudi Urlaren arabera, hizkuntzaren berreskuratzeko “komunitate mailako parte hartzea” eskatzen duela, baita “erantzukizunaren zentzua” izatea ere (Urla, 2012: 153).

Kike Amonarrizek eta Iñaki Arrutik horri lotuta honako hau diote (Amonarriz, Arruti, 1998): “Edozein teoria soziolinguistikok aipatuko digu egoera minorizatuan dagoen hizkuntza normalizazio bidean jartzeko, hizkuntz komunitate horretako partaideek helburu hori bere egin behar dutela eta beraiek izan behar dutela hori betetzen saiatu behar dutenak. Hau da, hizkuntz normalizazioaren objektua eta subjektua hiztuna eta hizkuntz komunitatea bera dira. Beste hitz batzuekin adieraztearren, nahiz eta legerik onenak eta baliabiderik onenak eskueran izan (eta honek ez du zalantzan jartzen berauen ezinbestekotasuna), edozein naziotako hizkuntza ezin izango dela normalizatu baldin eta bertako herritarrek hizkuntza hori normalizatzerik nahi ez badute”. Ildo beretik, “... hizkuntza politikaren ardura du administrazioak, baina baita gizarte eragileek ere, nazioarteko

esperientziak eta ekarpen teorikoek erakutsi dutenez” (Amonarriz, Martinez de Lagos, 2017).

Jasone Mendizabalek eta Alex Vadillok apur bat nabartu eta zabaldu egiten dituzte aurreko bi baieztapen horiek: “Hizkuntza-politikak arrakasta izateko, ezinbestekoa da ikuspegi biren arteko oreka. Gobernuak, herritarren parte hartzerik gabe, zaila du bide demokratikoen bidez aldaketak eragitea eta, era berean, gizarte zibileko erakundeek zaila dute beren helburuak lortzea eta beren lorpenak iraunaraztea, adituen eta agintarien elkarlanik gabe” (Mendizabal, Vadillo, 2017).

Fernando Muniozguren eta Iñaki Arrutik ere antzeko zerbait esaten dute (kasu honetan euskararen kasuan gehiago zentratuta): “Euskararen normalizazioaren erantzukizuna, lehenik eta behin, euskal hizkuntz komunitateak berak du. Hau da, egoera minorizatuan dagoen hizkuntza bat normalizazio bidean jartzeko (helburua), hizkuntz komunitate horretako partaideek hori bere egin behar dute (beharra) eta beraiek izan behar dute, lehenik eta behin, duten behar eta helburu hori (hizkuntza normalizatzeko helburua eta beraiek hizkuntzaren bidez normalizatzeko beharra) betetzen ahaleginduko direnak (erantzukizuna). ELKARLANA, beraz, hizkuntz komunitate batek bere hizkuntza normalizatzeko duen ERANTZUNKIZUNAREN ARTIKULAZIOA DA³⁴. Hau da, hizkuntz komunitate batek bere hizkuntza normalizatzeko erabakia hartzen duenean, hizkuntz komunitate hori osatzen duten pertsonak, eta batez ere hizkuntz normalizazioaren eragile diren erakundeak, normalizazioarekiko duten erantzukizuna artikulatzea edo antolatzea da elkarlana” (Muniozguren, Arruti, 1993).

Hortaz, nahiko garbi dago hizkuntza baten biziberritzea ezinezkoa dela norbanakoen atxikimendua kontuan hartu barik. Izan ere, “... gizabanakoa eta bere kontzientzia dira abiapuntuak hizkuntza aldaketa ulertzeko unean, eta ez gizarteko makroegiturazko faktoreak, boterearen egiturak barne” (Larrinaga, 2011: 620). Hori dela eta, “lehenik eta behin, pertsona normalizatuak behar ditu euskarak. Hau da: kontzientzia, gaitasuna eta koherentzia pertsonala daukaten pertsonak” (Arexola-leiba, 1990). Aldeak alde, hiru ezaugarri horiek dira Bernard Spolsky-k aipatzen zituenak hizkuntza aktibistentzako (“praktika, konpromisoa eta kontzientzia”).

Baina, badirudi norbanako horiek helburu indartsuagoak eta sendoagoak lortzen dituztela, baldin eta euren burua antolatzen badute. Edo, Jon Sarasuaren berbetan esanda (eta euskal kasuari erreferentzia eginez) “euskaraz bizitzeko hau

34 Hizki larriak artikuluan originalean agertzen dira.

antolatua” eratzen badute (Sarasua, 2013). Hau da, norbanako kontzientziadun eta koherente izatez gain, ekintza kolektibora salto egiteko gertu daudenak dira hizkuntza gutxitua biziberritzeko gako. “Horrenbestez, hizkuntza komunitatea da, egintza kolektiboaren bitartez, hizkuntzaren egoeraren ardura hartu behar duena” (Larrinaga, 2011: 626).

Izan ere, norbanako konprometituen bizinaria da ekintza kolektiborako su nagusia. “Ez dago emantzipazioko subjektu kolektiborik, emantzipazioko kontzientzia subjektiborik edo intersubjektiborik gabe” (Martinez, Casado, 2013). Kike Amonarriz eta Iker Martinez de Lagos-ek ere antzera diote (hori bai euskararen kasuari erreferentzia eginez): “Euskaltzaleon bizi-indarra indartsu izateak soilik ematen du hizkuntza komunitate modura ditugun erronkak gainditzeko bermea” (Amonarriz, Martinez de Lagos, 2017). Era berean, norbanako horiek euren burua antolatzea bada ekintza kolektiborako ekimen interesgarrienetakoa: “Energia askatzaileak katalizatzen dituen oinarri gisa hartuta, autoantolakuntzak indarra ematen dio itxoitzen ez egoteko eta harreman eta alternatiba askatzaileak eraikitzen jarduteko ideiarri” (Martinez, Casado, 2013). Mugimendu sozialek (edo, kasu honetan agian egokiago, norbanako autoantolatuek) “lortu nahi duten emantzipazioak goitik behera eraldatu nahi ditu gutxiagotuta eta menpe hartuta dauden pertsonen harremanen eta bizitzeko baldintzen egunerokotasuna; eta norberaren eguneroko praktikatetik abiatuta eraldatu nahi ditu, ez promestutako egiturazko aldaketa osoko etorkizuna amestuz” (Martinez, Casado, 2013). Edo, beste berba batzuekin adierazita, “mugimenduetako praktika berritzaileak eguneroko bizitzako esperientzietan txertatzen dira. Hala, mugimendu sozialek bultzatu dituzten eraldaketa sozialerako proiektuek ez dute eredu sozialaren aldaketa botere politikoa hartzearekin edo gobernu politikak garatzearekin lotzen, edo ez prozesu horiek soil-soilik. Alderantziz, pertsonak eguneroko bizitzan subordinatzen dituzten praktika pertsonal nahiz kolektiboetan zentratzen da gero eta gehiago emantzipazio lana” (Larrinaga, 2017b).

Hortaz, norbanako autoantolatu hauek autoeraketari oratu diote, hau da, “zuzeneko protagonisten erabaki-ahalmenean oinarritzen den eraketari” (Sarasua, 2013). Eta, zentzu batean, hizkuntzaren aldeko aktibista horiek euren burua antolatzerakoan, honako hau izan dute gogoan: “Aldarrikatzen diren alternatiba horien eraikuntza prefiguratibora jotzea, autoantolakuntzaren bidez” (Martinez, Casado, 2013). Hau da, lortu nahi dutena orainaldiko praktikatetik abiatzea eta ez soilik etorkizunean goitik beherako egiturazko eraldaketa baten zain egon.

Autoeraketa aipatu dut, baina zer ote da? Jon Sarasuak honela deskribatzen du (lehenago aipuan baino luzexeago eta sakonxeago): “Autoeraketaren kontzeptuak bere baitan bil ditzake autodeterminazioa, autogobernua, autoantolaketa eta autokudeaketa edo autogestioa. Autonomiaz sortu eta jardutearen mailakatzeko edo une desberdinak (sortzerakoan, determinatzerakoan, antolatzerakoan eta gero egunero kudeatzerakoan) batu ditzake, multzo handiago batean” (Sarasua, 2015). Beste argitalpen batean honela definitzen dute autoeraketa Jon Sarasuak eta Ainara Udaondok: “Autoeraketaz ari garenean, pertsonen erabakimenean (erabaki ahalmenean) oinarritutako eraketa (prozesua) edota erakundea (prozesu horren emaitza eta eragile den sorkin kolektiboa) ditugu begi aurrean” (Sarasua, Udaondo, 2004).

Lehenago esan dudan legez, ez dago literatura zientifiko askorik hizkuntza gutxituen aldeko mugimendu sozialen gainean. Hala ere, badira han eta hemen mugimendu hauei zuztar zientifikoa emateko ahaleginak eta saiakerak. Nik Isidor Marí (Marí, 1993) soziolinguista katalanaren definizio eta ezaugarritzea aurkitzen dut bereziki probetxugarri lan honen helburuetarako. Haren arabera, “hainbat ekintza sozial kolektibo sar daitezke hizkuntzaren aldeko mugimenduaren definizioaren barruan, zentzu hertsian zein zabalean ulertuz gero” (Marí, 1993: 57). Hortaz, Isidor Marí-k bi mugimendu mota ideal bereizten ditu: zentzu hertsiko eta zentzu zabaleko hizkuntzaren aldeko mugimenduak, hain zuzen ere. Horretarako, sei elementuri begiratzen dio, sei elementuri bereizketa ezartzeko. Azter ditzadan banaka-banaka elementu horiek guztiak.

Lehenik eta behin, mugimendu sozial horiek zer eraldaketa soziolinguistikoko lortu nahi duten aztertzen du egileak. Hori dela eta, “zentzu zabal batean hizkuntzaren erabilera aktibatu nahi duen edozein mugimendu har dezakegu mugimendu sozial modura (nahiz eta hizkuntzaren estatusa zalantzan jarri ez)” (Marí, 1993: 57-58). Hala ere, zentzu hertsian batean, mugimenduak, Isidor Marí-ren arabera, behinik behin, “bakarrik liriteke sistema soziolinguistikokoan eraldaketa nabarmenak bilatzen dituztenak (estatusen eragin nahi dutenak, alegia)” (Marí, 1993: 57-58).

Bigarrenik, Isidor Marí-k mugimenduek lortzen duten irismena edo parte-hartze graduari begiratzen dio. Hortaz, “zentzu zabalean, presentzia publikoa duten talde guztiak har ditzakegu kontuan. Hala ere, zentzu hertsian, masa mugimenduak baino ez liriteke hizkuntzaren aldeko mugimendu sozialak, parte-hartze sozial altukoak eta lurralde mailako eragin nabarmena dutenak” (Marí, 1993: 58), bere berbetan.

Hirugarrenik, iraunkortasuna edo egonkortasunari begira, “zentzu zabalean ekintza koiuntural asko har genitzake hizkuntzaren aldeko mugimendu sozial modura, baina, zentzu hertsian batean, urte batzuetan ekimen iraunkorra eta jarraia duten erakundeak baino ez lirakeke hartu behar” (Marí, 1993: 58). Kasu honetan, zentzu hertsiko ezaugarritzea bat letorke lehenago ikusi dugun mugimendu sozialaren definizioarekin.

Laugarrenik, mugimendu hauek hizkuntzarekin duten harremanari dagokionez, “zentzu zabalean hizkuntzaren biziberritzean zuzeneko edo zeharkako eragina duten talde guztiak hartu beharko genituzke aintzat. Zentzu hertsian batean, ostera, bakarrik hartu behar ditugu kontuan hizkuntzaren berreskuratzea helburu nagusi (edo bakarra) duten talde edo erakundeak” (Marí, 1993: 58).

Bosgarrenik, “zentzu zabalean XIX. mendetik edo, are aurretik ere, hizkuntzarekin harremana izan duten mugimendu kultural, politiko zein ideologikoak hartu genitzake kontuan. Baina, zentzu hertsian, 60ko hamarkadatik aurrera, mugimendu sozial *berri*³⁵ modura izendatuak izan diren horiek baino ez lirakeke izango hizkuntzaren aldeko mugimendu sozialak” (Marí, 1993: 58).

Eta, seigarrenik, sistema politikoarekin duten harremanari begiratzeko dio egileak. “Zentzu zabalean, ekintza kolektiboko tresna guztiak har ditzakegu kontuan (alderdi politikoek edo interes publikoko taldeek bultzatu eta sustatutakoak barne). Zentzu hertsian, ordea, sistema politikoarekin zerikusia ez duten mugimenduak baino ez lirakeke hartu behar kontuan. Hau da, alderdi politikoekiko autonomia osoa duten mugimenduak” (Marí, 1993: 58).

Hau guztia aztertu ostean, argi dago zentzu hertsian eta zabalaren arteko *continuum* bat egon badagoela (Marí, 1993: 58-59). Hala ere, nire ustez, aztertzen ari garen mugimenduak zentzu hertsian askoz gertuago daude. Batez ere, lortu nahi duten aldaketari dagokienez (sistema soziolinguistikokoan aldaketa nabarmenak eragin nahi dutelako), iraunkortasunari dagokionez, helburuei dagokienez (helburu nagusi edo bakarra hizkuntza berreskuratzea duten mugimenduak) eta autonomia-ri dagokienez (alderdi politikoekiko eta, gaineratuko nuke, beste edozein botere-iturriekiko autonomoak diren mugimenduak). Izan ere, ezaugarri horiek betetzen ez dituzten mugimenduak (mugimendutzat har baitaitezke) ez dira, nire ustez, hiz-

35 Literatura zientifikokoan eztabaida handia dago mugimendu sozial “berri” eta “zahar” horien gainean. Egile batzuen arabera, langile mugimendua, mugimendu erlijioso zenbait eta mugimendu abertzaleak (edo nazionalistak) lirakeke mugimendu sozial “zaharrak” (nahiz eta XXI. mendean horiek guztiak aktibo egon eta nahiz eta batzuek, behintzat, inoizko eraginik handiena izan gaur egun). Mugimendu sozial “berriak”, ostera, 60eko hamarkadaren eztabaida sozialaren ondorioz sortutakoak baino ez lirakeke. Hau da: mugimendu feministak, ekologistak, gay eta lesbianen aldekoak, bakezaleak eta beste zenbait (begiratu Irigoien, 2015: 7-8).

kuntza gutxituen aldeko egiazko mugimenduak. Izango dira hizkuntza gutxituen aldeko esfortzu kolektiboak, bai, baina ez mugimendu sozialen tankerakoak.

Beraz, eta Isidor Mari-ren argudioak aintzat harturik, honako hau litzateke hizkuntzaren aldeko mugimenduek bete beharko lituzketen ezaugarriak: sistema soziolinguistikoa (hau da, estatusen) eraldaketa nabarmenak lortu nahi dituzte, iraunkorrak dira denboran eta lurraldean, euren helburu nagusia hizkuntza berreskuratzea da eta edozein botere-iturritatik autonomoak dira.

1.5.1 Hizkuntza gutxituen aldeko mugimendu sozialak han eta hor

Hizkuntza gutxituen aldeko mugimendu sozialak badira han eta hor, munduan zehar, kontinente guztietan barreiatuta. Hala ere, literatura zientifikoak, batez ere, Iparralde globalean dauden mugimenduei egin die jaramon (nahiz eta, lehenago ere esan dudan moduan, arreta gehiegirik jarri ez). Zeharo bakanak dira hizkuntza gutxituen aldeko mugimendu sozialei buruzko lan monografikoak Hegoalde globalean³⁶. Hortaz, ezin da ondorio unibertsalik atera literatura zientifikoaren argipean.

Horrexegatik, hain zuzen ere, bederatzi hizkuntza gutxituen alde egon diren eta dauden mugimendu sozialak aztertuko ditut labor-zurrean: hebreera, katalana, korsikera, maoriera, galesera, bretoiera, galiziera, frantsesa Quebecen eta okzitaniera. Hizkuntza gutxitu hauek hiru irizpideren arabera aukeratu egin ditut: batetik, Espainia eta Frantziako estatuaren mugen barruan diharduten hizkuntza gutxituak aukeratu dira (galiziera, katalana, bretoiera, korsikera eta okzitaniera); bestetik, mundu mailan eredu modura aipatzen diren hizkuntza gutxitu batzuk (hebreera eta frantsesa Quebecen) eta, hirugarrenik, beste ikuspegi bat eman zezaketen beste bi hizkuntza gutxituen komunitateak (galesera³⁷ eta maoriera³⁸).

Kontuan hartu behar da, gainera, hizkuntza gutxitu hauen inguruko azterketa ez dela ikerketa lan honen helburu nagusia, ezta hurrik ere. Hortaz, azterketa hauek guztiak mugatuak dira eta, ezinbestean, nahikoa azalekoak. Zertzelada nagusi batzuk eman bai, baina xehetasunetan gehiegi sakondu barik. Izan ere, mu-

36 Hori dela eta, hurrengo lerroetan agertuko diren adibide guztiak Iparralde globalari dagozkion adibideak izango dira.

37 Galesera aukeratzearen arrazoia izan da, batez ere, euskararen egoerarekin duen parekotasuna. Izan ere, Galesen, Euskal Herrian bezala, populazioaren heren batek daki, aldeak alde, bertako hizkuntza.

38 Ameriketako eta Europako adibideez gain, nahi nuen beste kontinente bateko eredu ere ekartzea mahai-gainera. Horrexegatik, hain zuzen ere, Ozeania aldeko maoriera izan da aukeratua azterketa labor honetan egoteko.

gimendu hauen zoko-moko nagusiak eta aurki-binperrak zehatz-mehatz ikuskatzeak eta gurean garatutako mugimendu sozialarekin erkatzeak erabat gainditzen dituzte ikerlan honen mugak (eta helburuak). Izan ere, erkatze lan bat egingo da kapitulu honen amaieran, baina erkatze hori izango da, batez ere, euskal kasuaren berezitasuna nabarmentzeko asmoz. Etorriko dira honen inguruko ikerketa saio landuagoak mugimendu sozial hauek harremanetan eta dialektikan jartzeko. Ea horrela den. Beraz, irakurleak aurretiazko adierazpen hauek hartu behar ditu kontuan irakurtzerakoan. Eta, noski, beharrezkoak diren prebentzio-oharrak ere martxan jarri.

Hebreerarekin hasi nahiko nuke bidaia. Izan ere, hebreeraren aldeko mugimendu boluntarioak³⁹ behetik gorako plangintza indartsua jarri zuen martxan xx. mende hasieran eta erdialdean. Plangintza horien helburu nagusiak izan ziren hiztun berriak sortzea eta funtzioak berreskuratzea. Hala ere, 1948an juduek estatua lortu zuten, Israelgo estatua, hain zuzen ere. Estatua izan ostean, ordea, boluntarioek egindako lan hori guztia estatuak hartu zuen bere gain eta, hortaz, estatua izan ostean, ezin da hebreeraren aldeko mugimendu sozialari buruz barbarik egin (Spolsky, 2009).

Herralde katalanetan, ordea, egoera ezberdina izan da. Esate baterako, Katalunian euren burua presio-taldetzat zeukaten hizkuntzaren aldeko mugimenduak izan dira (Monné, Salga, 1991): *Crida a la solidaritat* erakundea, esate baterako. Gainera, erakunde honek beste ezaugarri bereizgarri bat ere bazuen. Izan ere, euren helburuetan hizkuntzaz gain, kultura katalana sustatzea eta nazio askapena ere bazeuden. *Plataforma per la llengua*-k, berriz, katalanaren Gobernu Kanpoko Erakundea (GKE) deitzen dio bere buruari (Marco Palau, 2014). Horrez gain, “herria itzartzeko tarteka-marteka antolatzen den minoria arduratsua da Plataforma” (Marco Palau, 2014: 211). Izan ere, erakunde horrek 10.000 bazkide zituen 2014an.

Horrez gain, *Crida*-rekin alderatuta, *Plataforma per la llengua*-k irekitasuna lortu du: “Bi hamarkada hauetan zehar, *Plataforma per la llengua* saiatu da bere begirada hizkuntza kontuetan jartzen, eta lortu du. Entitateko kideak nazio proiektu bati lotuta egon dira, baina ñabardura politikoekin, eta denek jakin dute erakundeak katalan hizkuntzarekin zuela zerikusia. Hortaz, nazioaren gaineko eztabaia kontu delikatuak izan da beti, norberaren aukera eta irudi publikoaren arteko orekan. Entitatea, beraz, ez zegoen oso politizatua, ez zen alderdikoa eta nazio

39 Hango hizkuntzaren aldeko aktibistei literaturan boluntario deitu izan diete (adibidez, Spolsky, B., 2009). Ikusiko ditugun beste errealtate gehienetan, oster, aktibista berba erabili ohi da nazioarteko literaturan eta taldeen euren komunikazioetan.

katalanaren gaineko eztabaidetan neutrala. Hizkuntzaren aurrerakada eta nazio-gintza banatzeak beste batzuen eskemak apurtu ditu, eta ate asko zabaldu dizkio” (Marco Palau, 2014: 190).

Bi mugimendu/antolakunde horietaz gain, izan dira bestelako batzuk Katalunia aldean. Esate baterako, *Voluntariat per la llengua*⁴⁰. Erakunde honek antolatu nahi ditu herrialde katalanetan hizkuntzaren alde egon daitezkeen pertsona boluntarioak katalana ondo ez dakiten pertsoneri laguntza emateko, hizkuntza praktikatu ahal izateko guneak edo pertsonak izan ditzaten (Gallego, Sanz, Nadal, Sanz, 2014). 2013an 10.000 boluntariotik gora ari ziren parte hartzen (bakarrik Kataluniako printzerrian). Zerbitzu bat emateko antolatu izan dira erakunde honetako kideak, zerbitzu asistentzial bat ia-ia (Gallego, Sanz, Nadal, Sanz, 2014).

Beraz, eta apur bat laburbilduz, katalanaren aldeko mugimendu soziala nazio mailako antolakundeen bidez antolatu izan da. “Herritarren hizkuntza eskubi-deak aditzera ematen dituzten kanpainak” (Sanchez, 1991) egin (izan) dituzte, baita “hizkuntza fideltasuna bultzatzeko kanpainak” (Sanchez, 1991) ere. Presio ekimenak ere egin dizkiete administrazioei (hasieran erakunde autonomoei eta gerora, batez ere, Espainiako Estatuko erakundeei) eta enpresei (batez ere, multinazionaliei).

Mediterraneo aldean jarraituko dut, oraingoan Korsika aldean. Uharte horretan hizkuntza gutxituaren aldeko mugimendua 70eko hamarkadan jaio zen mugimendu nazionalistaren abaroan (Jaffe, 1999). 70eko hamarkada horretan hizkuntza bateratu zuten, lehen elkarteak sortu zituzten (*Lingua corsa, Scola corsa*), lehen irratiak (*Viba voce*), udako unibertsitatea, aldizkariak (*Rigiru*) eta musika taldeak (esate baterako, *Canta u populu corsu*). 80eko hamarkadan, ostera, aurreko hamarkadako ildoetatik jarraitu zuten: musika taldeak biderkatu ziren eta haien arrakasta handitu zen, irrati gehiago sortu ziren, aldizkariak, ... Era berean, baina, lan ildo berriak sortu zituzten korsikeraren aldeko aktibistek: hizkuntza eskubi-deen aldeko kanpainak, irakaskuntzan korsikera eskola publikoetan sartzeko ahalginak, telebista programak sortu zituzten, antzezlan eta film gutxi batzuk egin zituzten korsikeraz, liburu azokak sortu zituzten, ... 90eko hamarkadan, jakina, mugimenduak garatzen jarraitu zuen. Horren harira, hezkuntzan korsikera sartzeko plan sistematikoa egin zuten aktibistek (irakasleen prestakuntza pedagogikoa antolatu, hezkuntzarako testuak sortu eta abar). Telebista programak egiten

40 Kasu honetan ere, boluntario berba hartzen dute beretzat mugimendu/antolakunde honetako kideek, erakundearen izenetik hasita.

jarraitu zuten eta, 1994an, proba pilotu modura, lau eskola elebidun sortu zituzten (Jaffe, 1999).

Korsikan hurrengo hamarkadatan ildo beretik jarraitu dute, eskoletan korsikera bultzatuz, musika taldeak sortuz, irrati eta telebistetan korsikerako edukiak ehunduz, ... Mugarri nagusia, ordea, 2013an lortu zuten aktibistek, urte luzeren ahaleginen ostean. Urte horretatik aurrera korsikera frantsesarekin batera ofiziala da uhartean (Olano, 2014).

Itsasoaz beste aldera joko dut oraingoan, Aotearoara⁴¹, maorien lurraldera, hain zuzen ere. Han ere 70eko hamarkadan piztu zen euren hizkuntzaren aldeko gara. Maoriek mugimendu hari *ethnic revival movement*⁴² deitzen diote (Spolsky, 2009). Hasieratik, bi ildo nagusi izan ditu mugimenduak: *egin* eta *eragin* aditzekin laburbildu daitezkeenak. *Egin* horren barruan, adibidez, 70eko hamarkadaren akabuan, lehen *Te Kahonga Reo*-ak sortu ziren (maorierazko murgiltze ereduko eskolak), 80eko hamarkadan irrati komunitarioak eraiki zituzten eta mende berriko lehen hamarkadan maorierazko telebistak (De Bres, 2013).

Eragin aditzaren barruan, esate baterako, 1987an Zeelanda Berriko gobernuak, hainbat eta hainbat protestaren ondoren, onartu egin zuen maoriera hizkuntza ofizial modura (De Bres, 2013). Era berean, 2016an maoriera bultzatzeko lege berria onartu du gobernuak eta, horrek ere, aurrerapauso nabarmena ekarri du (UNESCO katedra, 2016).

Beraz, maoriak ere hasi ziren behetik gora hizkuntza plangintzan, oinarrietatik, *bottom-up* erako plangintzan (Hinton, 2001). Hala ere, gaur egun gero eta erakundetuago daude mugimenduok Aotearoa aldean (Spolsky, 2009).

Uharterik uharte, eta orain beste uharte batera. Hori bai, uhartea kulunkatzen duen itsasoa beste bat da oraingoan: Atlantikoa, hain zuzen ere. Galesi buruz ari-tuko naiz, galesari buruz zehatzago esanda. Galesaren aldeko mugimendua, beste batzuen aldean, sozialagoa izan da, jendarteari lotuagoa, gurago bada. Gainera, urte askoan ekintza zuzena ez-bortitzak praktikatu dituzte euren hizkuntza babesteko, batez ere *Cymdeithes yr Iaith Gymraeg* erakundeko kideek (Spolsky, 2009).

41 Aotearoa da maoriek euren bi uharteei ematen dieten izena. Kolonoek, berriz, Zeelanda Berria izena jarri zioten Pazifiko aldean dauden uharte bi hauei. Aotearoak, maorieraz, hodei luzearen herria esan gura du. Ikerketa honetan izen kolonialak erabiltzen saihestu nahi izan dut eta bertakoez euren buruei ematen dieten izen toponimikoak hobetsi ditut, euskarazko tradizio handiko izenetan izan ezik.

42 Izan ere, maorien borrokaren helburu nagusia hizkuntza bada ere, horrekin batera kosmobisioari lotutako beste hainbat alderdi ere barne hartzen ditu: kultura, ohiturak, mitoak, tatuajeak, dantzak, ... Eurek ezinbestean hizkuntzari lotuta ikusten dute beste kontzeptu bat: *maoritanga*, hain zuzen ere (kosmobisio maoria izango litzateke gutxi asko berba horren itzulpena).

Urteen poderioz, Galesen ere mugimendua erakundetzen joan da (Spolsky, 2009). Adibidez, 1993an Erresuma Batuak galesaren aldeko legea onartu zuen eta, horren ondorioz, galesera bultzatzeko agentzia sortu egin zen (Abley, 2006: 307). 2003an, berriz, Galeseko asanbleak onartu zuen Gales Elebidunerako Plan Nazionala eta 2011n hizkuntza lege berria onartu eta, horren ondorioz, hizkuntzarako komisariotza eratu egin zen.

Baina, era berean, holistikoago eta komunitarioago ere bihurtu da (Campbell, 2000). Adibidez, oso adierazgarriak dira *Menter Cwm Gwendraeth* inguruan garatu diren komunitate-plangintzak. 90eko hamarkadan jarri ziren martxan Galeseko hainbat herritan. 20 esku-hartze eremu zehaztu eta jarri zituzten martxan: etxeko transmisioa sustatzeko kanpainak, ume eta gaztetxoan aisialdiari lotutako ekintzak (eskola orduz kanpoko ekintzak, galesera irakasteko eskola ludikoak, gazte klubak, ...), kulturgintzari lotutako ekintzak (artisten zirkuituak asteburuetan, kulturgintzako tailerrak, *Gwendraeth Valley* jaialdia, gazteen antzerki konpainia, talentu berriak bilatzeko programak ...), herrien arteko lehiaketak edo olinpiadak, lan arloan eta merkataritzan galesera bultzatzeko programak, helduei galesera irakasteko programak, historiari buruzko informazio guneak sortu, ... Ikuspegi oso eta integraletik (eta komunitatea ardatz) garatu dituzte programa hauek, baina, egia esateko, behetik gora eratutakoak baino, goitik behera eratutakoak izan dira programa hauek (Campbell, 2000), gonbidapen bidezko parte hartzea izan dira (eta ez agerpen bidezkoa). Hala ere, argi dago komunitatearen parte hartze aktiboa ezinbesteko osagaia izan dela programa hauen arrakastarako (edo porroterako, parte hartzea nahikoa izan ez denean).

Aipatzekoa da ere *Cymuned*⁴³ erakundea (Abley, 2006: 312-314). 2001ean sortu zen erakundea eta euren burua presio-taldetzat du. Erakunde honen helburua da galesaren lurraldean galesa bizirik mantentzea. Horretarako, batez ere, immigrazioak eta turistaren oldeak galesa hitzunen gainean eratu duten pintza gaitzetsi eta horri konponbidea jartzeko moduak bilatzen dute erakunde honetako kideek.

Galesaren itsasoaren beste aldean, Britainia dago, nire hurrengo helmuga. Britainian (Aotearoan bezala) mugimendua ere 70eko hamarkadan isiotu zen eta, han bezala, lehen fruitu nagusia eskola propioak eratzea izan zen, murgiltze ereduiko *Diwan* izeneko eskolak, hain zuzen ere (Chauffin, 2017). Mugimenduak, eskolaz gain, bretoieraren ofizialtasuna ere aldarrikatu du (McDonald, 1989). Era berean, bestelako arlo eta esparru batzuetan ere aritu izan dira eta aritzen dira

43 Galesez komunitatea esan gura du.

bretoieraren aldeko aktibistak beharrez: komunikabideetan, kale agerraldietan (adibidez, *Ar Redadeg* korrika), helduen alfabetatzean, ...

Bretainiaz bezainbeste, Okzitanian ere eskola propioaren aldeko mugimenduak piztu zituen 70eko hamarkadan okzitanieraren aldeko aktibistak. *Calandreta* deitzen dira han okzitaniera murgiltze eredian irakasten dituzten eskolak (Spolsky, 2009). Biziki eremu zabala da okzitanierara eta horrek zailtzen du mugimendua bera, baita mugimenduaren bizitasuna bera ere. Gainera, hasiera batean intelektual eta sortzaileen bizkar egon zen hizkuntzaren biziberritzearen aldeko ahalegina eta, gerora, sortu zen mugimendu soziala (Spolsky, 2009). Hori dela eta, lerro hauetan aztertu dudak beste herrialdeetan baino mugimendu motelagoa izan da Okzitanian garatutakoa. Horri gehitu behar zaio okzitanieraren beraren aldaeren artean dagoen lehia eta bateratze eza. Horrek zaildu du mugimendu indartsuagoa sortzen.

Munduko beste ertz batera joan nahi dut oraingoan. Atlantikoaz bestaldean, hor dugu Quebec, frantsesez mintzo den Kanadako eskualdea. Quebec-en ere mugimendua 60 eta 70. hamarkadetan abiatu zen, *Iraultza Lasaiak*⁴⁴ deituriko mugimenduaren bidez. Iraultza lasaiaren hasiera, 1960. urtean datatzen dute gehienek Jean Lasage-k Quebecoko hauteskundeak irabazi ostean (Mckey, 1998). Mugimendu honek erdigunean hizkuntza bazuen ere, bestelako asmo eta helburu batzuk ere bazituen. Izan ere, euren helburu nagusia zen frankofonoek ekonomiki, linguistikoki eta sozialki jasandako diskriminazioak amaitzea. Hezkuntza, egoera ekonomikoa eta linguistikoa erabat aldatu zuen mugimenduak, baina, batez ere, gauzatzea erakundeen bidez gertatu zen. Mugimenduak sakatu bai, baina Quebec-eko erakundeek gauzatu eta garatu.

Hurrago etorri, Iberiako penintsularen ipar-mendebaldeko ertzerantz joan nahiko nuke, Galiziara, hain zuzen ere. Galizian ere 60 eta 70eko hamarkadetan berrosatu zen hizkuntzaren aldeko mugimendua (gerra zibilak eragindako etenetik⁴⁵, hain zuzen ere). Frankismoan mugimenduak batasuna izan zuen, baina batasun hori 80ko hamarkadan lehertu egin zen. Izan ere, galizieraren aldeko mugimenduak duen ezaugarriarik behinena da mugimendua bera zatitua dagoela:

44 *Maitres chez Nous* izan zen Iraultza Lasaiak gidatu zuen leloa (Nagusi gure etxean esan gura du).

45 Gerra aurretik *Rexurdimento* izeneko mugimendua piztu zen Galizia aldean, XIX. mendearen akabuko urteetan. Mugimendu horrek, gurean bezala, erabateko etena izan zuen 1936an hasi zen Espainiako gerra zibilaren ondorioz.

alde batetik, arau normatiboa⁴⁶ jarraitzen dutenak daude eta, beste alde batetik, arau *reintegracionista*⁴⁷ jarraitzen dutenak.

Galizierari ikuspegi internazionala eman nahi diotenak (hau da, *reintegracionistak*) 70eko hamarkadaren amaieran eta 80ko hamarkadaren hasieran eratu ziren mugimendu modura, nahiz eta, euren arabera, “*reintegracionismoak* erro sakonak izan *galeguismo* historikoan⁴⁸” (Flores das Seixas, 2014). Lehen erakundea AGAL⁴⁹ izan zen, 1980ean sortua eta gaur egun indarrean jarraitzen duena. Hasierako urteetan nahiko erakunde akademizista izan bazen ere, 2000. urtetik aurrera mugimendu sozialagoa bihurtu da, batez ere, Galiziako hainbat hiri eta herritan sortu diren toki mailako erakunde/elkarte *reintegracionistei* esker (lehenengoa Ferroleko *Fundação Artabria*⁵⁰ izan zen, eta indartsuena, agian, Santiagoko *Gentalha do Pichel*⁵¹).

Baina, badira beste erakunde batzuk ere galizieraren aldeko mugimenduan. Haien artean, garrantzitsuenak, *A Mesa pola normalización*. 1986an sortu zen erakundea, beste hainbat entitatek deitutako bilkura baten ostean. 4.000 bazkidetik gora du eta horrek bihurtzen omen du Galiziako kultur elkarerik handiena. Carlos Callón-en arabera, “... plataforma independentea da, anitza eta alderdietatik libre. Helburu bakarra galiziera bizitza sozialeko esparru guztietan sustatzea da. Bere egitekoa da populazioa sentiberatzea eta erabilerari esparru berriak irekitzea, baita galizieradunek jasan dezaketenez edozein eraso zein diskriminazio salatzea ere” (Callón, 2017). *A Mesa*-k 2009tik 2013ra bitartean *Queremos galego*⁵² izeneko plataforma bultzatu zuen (Callón, 2017) eta urte horietan bertako gobernuaren kontrako mobilizazio handiak egin ziren, hizkuntza politikan aldaketak eska-

46 Arau normatiboa edo RAG/LG arau bezala ezagutzen da arau hau. Galiziako hizkuntzaren akademiak eta instituzio publikoek jarraitzen duten araua da, baita irakaskuntzan erabiltzen dena ere. Arau honek galizieraren egungo egoeran du oinarri eta bertatik bertara sortu nahi izan du hizkuntza estandarra.

47 Arau *reintegracionistaren* atekipean bildu ditut galiziera portugesarri hurbildu nahi diotenen asmoa. Mugimendu sozial batzuek defendatzen duten araua da. Hala ere, euren artean ez dago batasunik ere. Batzuek zuzenean portugesarren arau guztiak aplikatzen dituzten bitartean, beste batzuek normatibotik gertuago idazten dute ortografian aldaketa batzuk sartuta (batez ere, nh eta lh formak ñ eta ll formen kaltetan). Honen gaineko informazio gehiago nahi izanez gero begiratu Flores das Seixas, 2014.

48 *Galeguismo* historikoak, kasu honetan, lehen aipatutako *Rexurdimento-ri* egiten dio erreferentzia.

49 *Associação Galega da Língua* da izen ofiziala, nahiz eta ezagunagoa den euren siglen bidez.

50 *Fundação Artabria* 1998an sortu zen eta, hasieratik zentro soziala eraiki zuen Ferrolen bertan, autogestioz. Beste elkarteentzat bera izan da erreferente eta eredu.

51 *Gentalha do Pichel* 2004an sortu zen Santiagon. Kultur elkartea da eta zentro soziala du, autogestioz eraikia eta eutsia. Bi dira elkarrekin honetara erabiltzen dituen berritasun nagusiak galizierazko kulturari: *Apalpador* figuraren berreskuratzea eta *Semente* eskolaren sorrera. *O Apalpador* ikazkina da, Gabonetako ikur bihurtu du Gentalhak Galizia osoan. Ourense aldeko mendi inguruetan tradizioa bizirik zegoen eta, gaur egun, Galiziako herri eta hirietan kalejirak antolatzen dira eta gero eta etxe gehiagoetara eramaten ditu opariak Gabon garaian. *Semente* eskolak, berriz, 2011n sortu ziren. Galizierazko murgiltze eskolak dira. Compostelan sortu baziren ere, hainbat hiritan zentroak dituzte, haur eta lehen hezkuntzan. Informazio gehiagorako begiratu hemen: Rodríguez, Palmou, 2013 eta Dayán-Fernández, 2019.

52 *Queremos galego* herri-plataforma bat da, ia 700 entitatek osatua. Galiziako gobernuak hartutako neurri batzuen kontra sortutako erantzun herritar kolektiboa izan zen.

tzeko. Mobilizazioez gain, mugimendu sozialen erreperorioetako beste hainbat tresna ere erabiltzen dituzte *A Mesa-ko* kideek: salaketa publikoak, kontzentrazioak, salaketa judizialak, nazioarteko salaketak, ekimen legegileak, ...

Galiziako azterketa labur honetan, aipamen berezia merezi dute *Semente* eskolek. Galizian ez dago murgiltze eredurik irakaskuntza publikoan. 2011ra arte galizieraren aldeko mugimendu sozialek aldarrikatu eta eskatu egiten zuten murgiltze eredia. Urte horretan, alabaina, aktibista talde batek Compostelan lehen murgiltze ereduko eskola sortu zuen. Orduetik, Vigo, Lugo, Ferrol eta beste leku batzuetan sortu dira honen tankerako murgiltze ereduko eskolak, izen berarekin. Oso goiz da oraindik eskola hauek izango duten geroa irudikatzen, baina urte gutxian lortu dutena bada aipatzeko modukoa.

Laburbilduz, Galizian ere nagusi izan da mugimendu sozialean nazio mailako erakundetzea. Hala ere, beste adibideetan ez bezala, toki mailako elkarte autonomoak sortu dira han ere (*reintegracionismoaren* abaroan, beti ere). Beste ezaugarri propio bat ere badu galizieraren aldeko mugimenduak: euren erakundeak zeharkatzen dituen ortografia zatiketak, hain zuzen ere. Eta, azkenik, beste adibide guztietan ez bezala, oso berandu lortu dituzte murgiltze ereduko eskolak (eta, momentuz, beste adibide guztietan baino dezente ahulagoak dira).

Aztertu ditudan adibide horiek guztiek funtsezko ezaugarri batzuk dituztela esango nuke⁵³. Batetik, gehienak 70eko hamarkadaren bueltan hasi (edo sendotu) egin ziren. Salbuespena hebreeraren aldeko mugimendua litzateke. Linda Tuhiwai-k honako hau dio gaiaren inguruan: “Hizkuntzen aldeko aktibismoa berpiztu egin zen beste mugimendu askorekin batera: eskubide zibilen aldeko mugimendua, emakumeen askapena, ikasleen matxinadak eta Vietnameko gerraren kontrako mugimenduarekin, besteak beste” (Tuhiwai, 2017: 213).

Bestetik, kronologikoki gehienetan lehen helburua hiztun berriak lortzea izan da, dela eskolaren bidez (kasurik gehienetan, Aotearoan, Galesen, Okzitanian edo Britainian), dela helduei irakatsiz (hebreeraren aldeko mugimenduaren lan ildo nagusienetako bat izan zen). Hirugarrenik, kronologikoki hurrengo helburua izan da hizkuntza gutxituari funtzio berriak lortzea, komunikabideetan, literaturan, administrazioan edo komunitatean bertan.

53 Johan Järlehed-ek ere hainbat antzekotasun antzeman ditu: “Euskal mugimendu sozialak ez dira fenomeno bakartua inondik ere. Sortzen diren sasoiak beste gutxiengo batzuk ere ari dira euren hizkuntza eta kultura identitateentzako aitortza gehiago eskatzen Britainia Handian, Belgikan, Galesen, Katalunian, Galizian eta Quebecen. Era berean, mugimendu hauek sasoi hartako beste mugimendu sozial batzuekin ere badituzte antzekotasun handiak, bereziki mugimendu feminista eta gay eta lesbianen askapen mugimenduarekin. Izan ere, guztientzat arazo nagusia nortasunarena da. Guzti-guztiek erantzun alternatiboa bilatzen diote nor garen galderari” (Järlehed, 2008: 150).

Laugarrenik, mugimendu guztiek argi izan dute presio funtzioa egin behar zutela (eta dutela). Presioa administrazioari, enpresei edota botere-guneei. Horrez gain, kasurik gehienetan, presioa egin bai, baina eraikitza ere jo dute mugimenduok, eskolak eraikitza, komunikabideak eraikitza edo bilbadura komunitarioa eraikitza. Hortaz, egin eta eragin paradigmak ia mugimendu guztietan presente egon dira, modu batera edo bestera.

Bosgarrenik, kasu askotan, hizkuntzaz gain, beste helburu batzuk ere izan dituzte mugimendu hauek: helburu kulturalak, helburu etnikoak, helburu politikoak, ... Seigarrenik eta azkenik, mugimendu hauetan nazio mailako erakundeak izan dira nagusi (Gales⁵⁴ eta Galizia izan daitezke nolabaiteko salbuespena). Hortaz, goitik beherako plangintzak eratu dira, nazioetatik herrietara, maila nagusietatik maila txikiagoetara. Helburuak, plangintzak, baliabideak, ... egitura nazional baten menpekoak izan dira, oro har. Hala ere, ezin da gutxietsi toki mailak izan duen garrantzia. Linda Tuhiwai-k, esate baterako, honako hau dio: “Mugimenduaren indarra toki mailako mobilizazioetan ikusten da argien. Toki mailan garatu eta elikatu dira belaunaldiz belaunaldi kultura indigenak eta erresistentziako kulturak” (Tuhiwai, 2017: 208).

1.5.2 Euskararen aldeko mugimendu sozialak

Gurera etorri behar dugu, baina. Mundu mailako adibide batzuk ikusi ditugu, baina, azken finean, euskararen aldeko mugimendu soziala du aztergai nagusi tesi honek eta, hortaz, beharrezkoa da mugimendu sozial honen nondik norakoak modu batera edo bestera aztertzea. Hori bai, mugimenduaren ertzak eta zokoak aztertu aurretik, euskalgintzaren inguruan jardungo dut.

1.5.2.1 Euskalgintza

Hizkuntzen aldeko mugimendu soziala gurean, sarritan, euskalgintzaren kontzeptuaren aterkipean aztertu egin da (Larrinaga, 2011). Behin baino gehiagotan euskalgintza hizkuntzaren aldeko mugimendu sozialaren sinonimotzat hartua izan da: “Euskalgintza herri ekimenez elikaturiko mugimendu soziokulturala dugu” (Larrinaga, 2011: 538). Era berean, Xabier Mendigurenek eta Joxe Jabier

⁵⁴ Hala ere, ezin da ahaztu Galeseko komunitate-plangintzak ere, zentzu batean, goitik behera garatu direla, parte hartzea gonbidapen bidez bideratu baita.

Iñigok honakoa esan dute: “Guk uste dugu erakunde guztiak, izan ekimen sozial zein pribatukoak (edo beste era batera esanda, publikoak eta politikoak ez badira) mugimenduaren parte⁵⁵ direla, zeinaren helburu nagusia euskararen normalizazioa lortzea den” (Mendiguren, Iñigo, 2006). Maite Indak ere ildo beretik jotzen du: “Eta euskararen zapalkuntzak aurre egin dion mugimendua izan du eta badu: euskalgintza” (Inda, 2019).

Dena den, euskalgintzaz gain, beste hainbat termino erabili dira kontzeptu berari erreferentzia egiteko. Joxe Jabier Iñigok, esate baterako, honakoa hau dio: “Gure artean izen asko erabili izan da eskuartean dugun gaiaz aritzerakoan: herri mugimendua, herri erakundeak, gizarte erakundeak, herri ekimena, inizatiba soziala, organismo herritarrak, eta guzti horien arteko beste hainbat konbinaketa posible. Egia da kontzeptu guzti horiek ez dutela, bere esanahi osoenean, gauza bera adierazten. Baina guri ez zaizkigu une honetan gehiegi axola ezberdintasun horiek. Zentzurik zabalenean, beraz, herri mugimendutzat instituzioen eraginez sortzen ez den guztia har daiteke” (Iñigo, 1992a).

Hala ere, izenak izen, oso jende gutxik hartu du euskalgintza (edo dena delakoa) zedarritzeko lanik⁵⁶. Mikel Zalbidek hartu du bere bizkar lan hori eta bi motatako euskalgintzak bereizi egiten ditu. Alde batetik, berariazko euskalgintza legoke, orain arte euskalgintza moduan ulertua izan dena (agian, zehatzago esanda euskalgintza zentzu hertsian esan beharko nuke, aurretik hizkuntzen aldeko mugimendu sozialekin egin dudan bezala⁵⁷). Hauxe da berak berariazko euskalgintzari eman dion definizio zehatza: “Soziokulturalki autorregulatzeko eta belaunez belaun transmititzeko indar faltaz euskal etnokultura (hizkuntza bera) gainbehera datorrela ikusirik, erabat galtzeko arriskua uste izanik eta halakorik nahi ez delarik, etnokultura horri bizirik eusteko giza artean deliberatuki egindako saio multzoa. Hots, euskal kulturaren on beharrez hainbat eragilek, perspektiba soziokulturaletik eta elkarlanean, eraturako ekimen sortari deitzen zaio euskalgintza” (Zalbide, 2007a: 879-880).

Baina Mikel Zalbidek beste euskalgintza mota bat dagoela dio: bide batezko euskalgintza. Honela definitzen du berak bigarren hau: “Euskal etnokultura (hiz-

55 Bi egile hauek mugimenduari honako izen hau jarri diote: euskararen normalizazioaren aldeko mugimendua (Mendiguren, Iñigo, 2006).

56 Adierazgarria da, zentzu horretan, Maite Indak egindako lanean euskalgintzako hainbat kideri egindako elkarrizketetatik ateratako ondorioa: “Elkarrizketatuetako gehienek euskalgintza definitzea zaila dela adierazi dute” (Inda, 2019: 60).

57 Hala ere, ez da nahastu behar lehen aipatu dudan hizkuntzaren aldeko mugimendu sozialaren adiera hertsiarekin. Izan ere, berariazko euskalgintzaren barruan dauden ekimen asko hizkuntzaren aldeko mugimendu sozialaren adiera hertsiki horrekin bateratu daitezkeen arren, ez dut uste erabat sinonimo gisa hartu daitezkeenik.

kuntza barne) gainbehera datorrela jakinik, baina galera hori eragozteko berariazko asmorik gabe, etnokultura horri bizirik eusteko lagungarri gertatzen diren ekintzak bideratzea” (Zalbide, 2007a: 880-881). Kasu honetan ere parekatu daiteke Isidor Mari-ren adiera zabaleko mugimenduekin, guztiz bat etorri ez arren (gogoratu, adibidez, zentzu zabaleko mugimenduen laugarren ezaugarria honako hau zela: “Zentzu zabalean hizkuntzaren biziberritzean zuzeneko edo zeharkako eragina duten talde guztiak hartu beharko genituzke aintzat”, Mari, 1993: 58).

Zalbideren definizioak, hala ere, ez du berbarik egiten mugimendu sozialei buruz: hori baino zabalagoa da bere berbetan euskalgintza (“ekimen sorta” gisa edo “giza artean deliberatuki egindako saio multzo” gisa ezaugarritzen du berak). Patxi Juaristik ere (Juaristi, 2015: 80) euskalgintza “euskal identitatearen alde modu antolatuan” egiten den lan bezala hartzen du. Izan ere, jakina da mugimendu sozialak euskalgintzaren barruan daudela, baina, horiez gain, bestelako ekimen batzuek ere euskalgintzatat dute euren burua: komunikabide batzuek, aholkularitza-enpresa batzuek, hezkuntza-zentro zenbaitek eta abarrek⁵⁸. Hala ere, Joxe Jabier Iñigok honako hauek baino ez ditu sartzen euskalgintzaren barruan: “Instituzioen eraginez sortu ez diren erakundeak” (Iñigo, 1992b: 113). Patxi Baztarrikak, aitzitik, euskalgintzaren barruan ere honako hauek sartzen ditu: “Erakunde publikoek euskararen eta euskal kulturaren alde egindako lanak” (Baztarrika, 2009: 229⁵⁹). Manex Agirrek ere antzeko definizioa darabil: “Euskalgintza bere adierarik zabalenean (teorikoenean?) erabiliko dugu, eta hala ulertu bedi: euskara indartzeko bidean lanean ari den egitura-multzoa, izan herri-mugimendu, erakunde publiko edo pribatu” (Agirre, 2015).

Mikel Ozaitak, berriz, euskalgintzaren barruan honako hau sartzen du: “Euskalgintza modu zabalean ulertuta, hortaz, euskararen alde jarduten duten (zuzenean edo zeharka, hots, berariazko edo bide batezko) edozelako antolakunde sozial edo instituzionalek osatuko lukete (berariazkoek batez ere)” (Ozaita, 2017). Euskalgintza, beraz, Mikel Zalbidek aipatutako ildotik definitzen du. Baina ekarpen nagusia geroxeago egiten du. Izan ere, euskalgintzaren barruan, mugimendu sozial direnak (badira mugimendu sozial direnak eta ez direnak bere iritziz) “mugimendu euskaltzale” gisa definitzen ditu.

58 Kontseiluaren barruan (euskararen aldeko erakunde sozialen bilgune gisa definitzen du bere burua) aholkularitza enpresek, euskara hutsezko komunikabide pribatuek, elkarte profesionalek eta bestelako elkarte mota batzuek hartzen dute parte, mugimendu sozialeko erakundetzat har ditzakegun beste kolektibo eta elkarte batzuekin batera.

59 Xabier Isasi, ordea, ez dator bat Patxi Baztarrikaren iritziekin: “Euskalgintza instituzionala oximorona da, sindikalgintza gobernatutara esatearen antzeko zerbait. Termino hori Jaurilaritzaren eta haren inguruko bulegoetatik sortu da. Erakundeek euskararen alde egiten dute, eta aukera, egia ere bada, baina instituzioak ez dira euskalgintza. Euskalgintzakoak ezin izan baitaitezke *gobernuz barruko erakundeak*” (Isasi, 2015).

Jon Sarasuak, berriz, euskalgintzari “euskal hiztun-komunitatearen geruza antolatu” deitzen dio (Sarasua, 2013: 181). Era berean, Jon Sarasuak nahiago du euskalgintza berba baino, euskararen gizarte erakundeak esamoldea erabili. “EGE⁶⁰ hauen artean irudi juridikoaren aldetik badira enpresak, elkarteak, fundazioak eta hauen baitako modalitate desberdinak, baina ez dira sortu kapitalaren bulkada lurkratibo batek bultzatuak: beren sorrera-bulkada eta izateko arrazoia euskara bizi-berritzeko arloren batean ekarpena egitea da. Horixe da EGE moduan definitzen duena” (Sarasua, 2013: 169).

Jacqueline Urlak ere dakar euskalgintzaren nolabaiteko definizioa: “Hizkuntzaren aldeko aktibistek euskalgintza berba erabiltzen dute euskaldun hizkuntzaren eta kulturgintzaren inguruan eratu den mugimenduari deitzeko” (Urla, 2012: 68). Xabier Mendigurenek eta Joxe Jabier Iñigok ere definizio zabalaren alde egiten dute: “Hizkuntzaren aldeko mugimendu honek hainbat gorputz hartzen ditu: kultura elkarteak, eskolak, fundazioak, enpresak, kooperatibak, lanbide elkarteak, baita erlijio erakundeak ere (azken hauek bakanak badira ere)” (Mendiguren, Iñigo, 2006).

Egileen artean dauden ezberdintasunak aintzat harturik, eta kontuan izanda euskalgintza terminoa nahasgarri samarra izan daitekeela, erabaki dut lan honen helburuetarako euskalgintza ez hartzea hizkuntzaren aldeko mugimendu sozialaren sinonimotzat. Izan ere, uste dut euskalgintza berbak, gaur eta hemen, esparru semantiko handiagoa betetzen duela hizkuntzaren aldeko mugimendu sozialak baino. Gainera, literatura zientifikoa gutxi landu den kontzeptua dugu euskalgintza (aurreko lerroetan azaldu ditudan salbuespen bakan horiek kenduta), eta mugimendu sozialaren kontzeptuak, ostera, tradizio handia du, gurean zein nazioartean. Beraz, hori aintzat harturik, hizkuntzaren aldeko mugimendu sozialaren inguruan mugituko dira ikerketa honetan agertzen ari diren teorizazioak, kontzeptuak eta inguruabarrak, eta ez euskalgintzaren inguruan.

Hala ere, egile batzuek beste ikuspegi bat dute gai honen inguruan. Esate baterako, Mari Luz Estebanek Euskal Herriko mugimendu feminista lau adarrek osatzen dutela esaten du: elkartegintza (nik orain arte mugimendu soziala deitu izan dudana, hain zuzen ere), arlo akademikoa (unibertsitate mailako gradu-ondokoak eta unibertsitateetan feministek egiten dituzten ikerketak), arlo teknikoa (hainbat administratziotako berdintasun teknikariak) eta erakundeetako arloa (Esteban, 2017). Euskararen aldeko mugimenduan ere lau adar horiek izan badira: elkar-

60 EGE = Euskararen Gizarte Erakundeak.

gintza, arlo akademikoa (agian, feminismoan baino bizitasun gutxiagorekin), arlo teknikoa (gainera, euskal feminismoan ez bezala, arlo teknikoan administrazio publikoetan lanean ari diren teknikariez gain, badira enpresa pribatuetan lanean ari diren teknikari mordoxka ere) eta erakundeetako arloa (toki administrazio ia guztietan euskara zinegotziak daude, Eusko Jaurlaritzan Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, Nafarroan Euskarabidea eta Ipar Euskal Herrian Euskararen Erakunde Publikoa). Dena den, nik uste dut gehiegizkoa dela sailkapen hau, nahiz eta egia den elkartegintzaren (Mari Luz Estebanen izendapena jarraitzearen) eraginez eta bultzadaz sortu direla beste hiru adarrei lotutakoak. Azken finean, Mari Luz Estebanen argudioak bat datoz euskalgintzaren adiera zabala onesten dutenen argudioekin. Topaguneak ere adiera zabal horren alde egiten du nolabait: “Gizarte mugimendu zabala da euskararen aldekoa, eta hainbat errealtate, erakunde eta azpi-mugimendu hartzen ditu bere baitan” (Topagunea, 2011).

Hortaz, tira, uste dut euskalgintza eta hizkuntzaren aldeko mugimendu sozialen arteko zedarritze teoriko zein praktikoa egiteko dagoela (Mikel Ozaitaren lana izan daiteke abiapuntu egokia, Ozaita, 2017), nahiz eta jardun horrek lan honen mugak zeharo gaintitzen dituen. Etorriko dira nire atzetik lan hori ganoraz eta tentuz egingo dituztenak.

1.5.2.2 Euskararen aldeko mugimendu sozialak

Esan bezala, ez dira asko izan euskararen aldeko mugimendu sozialaren gaineko lan monografikoak, are gutxiago mugimendu horren aldeko aktibistek eginak ez badira. Kontxesi Berri-Otxoak honela dio: “Ukaezina da benetako mugimendu soziala sortu dela azken hamarkadetan euskararen inguruan (beste mugimendu sozialek dituzten ezaugarri berberak edo antzekoak dituen). Hala ere, euskararen aldeko mugimendu sozialari buruz argitaratu diren lanen artean, oso gutxi dira idatzitako lan monografikoak eta, gainera, mugimenduaren militanteak beraiek idatzitako lanak dira gehienak, datu-bilduma eta iritzi-artikulu formakoak” (Berri-Otxoa, 1998). Imanol Agotek, zentzu berean, honakoa gaineratzen du: “Ez da beste mugimendu sozialarekiko azterketa gonbaratiborik egin, ez da hipotesi teorikorik formulatu, ez da metodologia zientifikorik erabili hipotesi horiek berretsi edo gezurtatzeko” (Agote, 1995).

Kontxesi Berri-Otxoaren eta Imanol Agoteren berbetatik hona hogeitau urte baino gehiago pasa badira ere, egoera ez da aldatu funtsean. Orduetik hona oso gutxi izan dira euskararen aldeko mugimendu sozialen inguruko lan monografikoak

eta, gainera, dauden apurrak mugimenduaren militanteek eurek idatzitakoak dira. Badirudi, beraz, joera ez dela aldatu⁶¹.

Euskararen aldeko mugimendu sozialen azterketari dagokionez, bi fase nagusi ezberdinu daitezkeela uste dut: batetik, 90eko hamarkadako urteak eta, bestetik, milurteko berriari dagozkion urteak. 90eko hamarkadan (eta euskara elkarteen loraldiarekin batera) ikerketa eta lan monografiko dezente egin ziren mugimendu hauei buruz. Milurteko berrian, ostera, askoz gutxiago izan dira argitara eman diren ikerketa-saioak.

Lehen epean, esan dudan legez, euskararen aldeko mugimenduen gaineko ikerketa asko argitara ekarri ziren. Euskara elkarteen sorrera prozesuarekin bat egin zuen sasoi honek, euskara elkarteen loraldiarekin bat egin zuen. Eta horrek eskatu zuen nolabait lan teoriko eta praktikoa aurrera eramane behar izatea. Gainera, *Adorez eta Atseginez*⁶² mintegiak ere mota honetako lanak bultzatu eta sustatu zituen, baita EHUK antolatutako Hizkuntza Plangintzari buruzko gradu-ondokoak ere. Hori gutxi balitz, Arrasateko AED elkarteak urte hauetan *Jaxten* aldizkari soziolinguistikoa plazaratu egin zuen. *Jaxten* aldizkari soziolinguistikoa, gai akademikoak baino, ekintzarako gaiak deitu ditzakedanak erabili zituen batez ere⁶³. Izan ere, aldizkariaren goiburuan bertan (“Biziko bagara, jantzi beharra daukagulako”) argi zetorren honako hau: euskararen aldeko mugimendu sozialetako kideentzat gogoeta leku eta ikasbide izan gura zuen.

Hortaz, lehen sasoi honetan oparoak dira euskararen aldeko mugimendu sozialei buruz argitara emandako artikuluak eta ikerketa-lanak. *Jaxten* aldizkari-ko hamar zenbakietan argitaratutakoez gain, Hizkuntza Plangintzari buruzko gradu-ondokoan amaierako hainbat ikerketa lan egin ziren⁶⁴ garai horretan, gai hauen bueltan.

61 Azken urteotan badira joera hori zelanbait apurtzen duten lan bi. Batetik, Mikel Ozaitak Aiaraldeari buruz egin duen lana (Ozaita, 2017) eta, bestetik, nik neuk Basauriko Euskarabila elkarteari buruz egin dudana (Rodríguez, 2016). Izan ere, bi lan hauetan euskararen aldeko aktibistek egiten dute lana, baina ez eurek parte hartzen duten elkarte edo mugimenduetan. Eta, horrek, zelanbait, apurtzen du joera.

62 *Adorez eta Atseginez* mintegia luze-zabal landuko dut aurrerago.

63 Aldizkariak argitaratu zituen zenbaki guztiak monografikoak izan ziren. Honako hauek dira zenbaki bakoitzeko gaiak:

1. Un futuro para nuestro pasado liburuaren aurkezpena
2. Irakaskuntza, hizkuntza eta gizartea
3. Zer da AED? Zer dago atzetik?
4. Gazteak eta euskara
5. Munduan, eleaniztasuna nagusi
6. V. mendeurrenean, gora nazio etnikoak, behera estatu zaharrak!
7. 10 urtez, egunez egun, Arrasate euskalduntzen
8. Herrietako euskara elkarteei buruzko jardunaldiak (I)
9. Herrietako euskara elkarteei buruzko jardunaldiak (II)
10. AED, hamar urte Arrasate egiten, Euskal Herria egiten

64 Honako hauek dira lanok:

Bat aldizkari soziolinguistikoan ere lehen sasoi honetan euskararen aldeko mugimendu sozialei oihartzuna eman egin zitzaion. Izan ere, hiru zenbaki monografiko egon ziren gai honen inguruan: *Bat* aldizkariaren 6. zenbakia (Euskararen herri-mugimendua izenekoa, 1992), *Bat* aldizkariaren 16. zenbakia (Euskararen gizarte mugimendua izenekoa, 1995) eta *Bat* aldizkariaren 31. zenbakia (Euskararen aldeko gizarte-mugimendua eta EKB izenekoa, 1999). Horrez gain, beste artikulu bakan batzuk⁶⁵ izan ziren aldizkari honetan. Horrez gain, udako ikastaroak egin ziren gaiaren gainean sasoi hauetan, urte batzuk geroago argitaratu baziren ere han aurkeztutako ponentziak (ikus Intxausti, 1998).

2000tik aurrera, berriz, bakandu egin dira euskararen aldeko mugimendu sozialei buruzko artikulu eta monografikoak. Eta, aldi berean, 2000tik aurrera inoizko aurrerapausorik sendoenak izan dira ikerketan eta literatura zientifikoan, euskararen biziberritzeari dagokionez, behinik behin. Literatura zientifikoak nahiko arreta gutxi eskaini die mugimendu hauei. Esate baterako, Hiznet graduondokoaren ikerketa biltegian (roodik gora ikerketa egitasmo batzen ditu) lau baino ez dira mugimenduaren inguruan ondutako sakontze egitasmoak: Imanol Minerrek Erreterriako Lau Haizetara elkartearen inguruan egindako ikerketa (Miner, 2002), Ainara Ibañezek Iruñeko Karrikiri elkartearen inguruan egindakoa (Ibañez, 2006), Maialen Arnedok Atxutxiamaiaka aisialdi taldeari buruzko egindakoa (Arnedo, 2014) eta Xabier Uriartek nerabeek osatutako euskara elkarte batzuen gainean egindako ikerketa (Uriarte, 2016).

Horrez gain, badira beste artikulu zientifiko batzuk: Imanol Larrañagak El-goibarko Izarra elkarteari buruz egindako atzera begirako lan biak (Larrañaga, 2003 eta 2013), Aitor Romeok Deustuko Berbaizu euskara elkarteari buruz egindakoa (Romeo, 2008), nik neuk Derioko Tximintx euskara elkarteari buruz idatzitako artikulua (Rodriguez, 2013), nik neuk Basauriko Euskarabila elkarteari

· "Bagera, eta Kitto eta Laixan euskara elkarteak bidea eginez", Jasone Bilbao, Garbiñe Garai, Marije Manterola (Bilbao, Garai, Manterola, 1993).
 · "Bilbon dinamika sozial bati ekiteko oinarriak", Amaia Andonegi (Andonegi, 1993).
 · "Euskara sustatzeko elkarten garrantzia tamaina handiko udalerrietan", Jesus Mari Amundarain (Amundarain, 1993).
 · "Azkoitian normalizaziorako eman beharreko urratsak Txepetxen teoriaren arabera", Lurdes Aranguren (Aranguren, 1993).
 · "Mintzalaguna egitasmoa", Amaia Balda (Balda, 1993).
 · "Euskararen sustatzea Barakaldon", Aitor Gorostiza (Gorostiza, 1993).
 · "Oartzun eta Erreterian herri ekinbideak eta bereziki kultur taldeek normalizazio bidean izan behar luketen eragina", Kristina Brit, Junkal Mintegia (Brit, Mintegia, 1993).
 · "Iruñean euskara taldea sortzeko proposamena", Esther Mugertza, Arantza Haranburu, Rosa Ramos (Mugertza, Haranburu, Ramos, 1993).
 · "Elorriren euskararen aldeko gizarte-ekimena osatzeko proposamena", Aitziber Mendizabal, Beronika Uribelarra, Monika Eriz (Mendizabal, Uribelarra, Eriz, 1993).

65 Hauek lirasteke artikuluko:

· Axun Aierberen "Euskarak elkarturik: Galtzaundi euskara-taldea" (Aierbe, 1991).
 · Ibon Arbuluren "Bilbo euskalduntzen" (Arbulu, 1992).
 · J. Inazio Marko Juanikorenaren "Hizkuntza plangintza herrietako elkarteetan. Azterketa konparatiboa" (Marko, 1995).

buruz egindako ikerketa lana (Rodriguez, 2016), Aztikerrek Elgoibarko Izarrari buruz egindako ikerketa (Aztiker, 2011) eta Mikel Ozaitak Aiaraldeko euskararen aldeko mugimenduari buruz ondutakoa (Ozaita, 2017).

Bat aldizkarian ere agertu dira artikulu batzuk euskararen aldeko mugimendu sozialei buruz azken urteotan (gutxi badira ere): Oskar Zapataren “Nafarroako euskara elkarteak” (Zapata, 2006), Iñaki Lasaren “Nafarroako euskalgintza, egungo egoera gainditzeko bidean” (Lasa, 2006), Elena Herrartek idatzitako “Txatxilipurdi elkartearen esperientzia” (Herrarte, 2007), Karmen Irizarren “Hizkuntza komunitateak eta kultura euskara elkarteen ikuspegitik” (Irizar, 2007) eta Jasone Mendizabalek plazaratutako “Euskaltzaleen Topaguneko esperientzia esanguratsuak: ikuspegi lokala eta nazionalaren arteko osagarritasuna” (Mendizabal, 2016).

Bestelako agerpen batzuk ere izan dira urte hauetan literatura zientifikoan. Herri mailako monografia bat dago, Agurain herriari buruzkoa, hain zuzen ere (Amestoy, 2010), herrialde mailako azterketa labur bat, Arabari buruzkoa (Agirre, 2015). Mugimenduko gai batzuen inguruan ere ondu dira monografiak, kutsu historikoarekin: adibidez, ikastolen inguruan (Euskal Herriko Ikastolak, 2010, Garat, Aire, 2004 eta Lopez Goñi, 2002) edo Udako Euskal Unibertsitateari buruzkoak (Aizpuru, 2003), edo orokorrak baina frankismoan (Anaut, 2013). Dokortza tesi bi ere egin dira mugimenduaren nondik norakoen gainean. Batetik, Kai Hiedermann-ek Ipar Euskal Herriko ikastolak aztertu ditu mugimendu sozial modura (Heidermann, 2010). Bestetik, Ane Larrinagak aztertu ditu kulturgileek euskararen aldeko mugimenduan jokatu duten paperaren gainekoak (Larrinaga, 2011). Ane Larrinagak berak euskararen aldeko mugimenduen gaineko beste artikulu batzuk ondu ditu batzuk bere kabuz (Larrinaga, 2017a, Larrinaga, 2017b) eta besteren bat lagunduta (Larrinaga, Amurrio, 2016). Horrez gain, aipatu behar da euskararen aldeko mugimenduan parte hartzen dutenen iritziak batu, osatu eta kritikatu zituen Joxe Manuel Odriozolak bere “Euskalgintzaren lekukoak” lanean (Odriozola, 2004).

Kronologikoki, beste hainbat herrialdetan ikusi bezala, 60 eta 70eko hamarkadatik aurrera hasten da gorpuzten eta sendotzen euskararen aldeko mugimendu sozial berria (edo berritua, gurago bada). Hori baino lehenago, Eusko Pizkundera izeneko mugimendu soziala izan zen (Intxausti, 1990), XIX. mende akabuan eta XX. mendearen lehen herenean, gutxi gorabehera⁶⁶. Eusko Pizkundera “herri-olde zabal baten adierazle izan da, aldi berean politikoa eta kulturala” (Iztueta, 2006: 344). Joan Mari Torrealdaik honela ezaugarritzen du mugimendu hori: “1876an euskal foruak abolitzean sortzen den mugimendu abertzale eta euskaltzalea euskal nortasuna, euskal ezaugarriak definitzen eta defendatzen arituko da. Joera foruzalea eta autonomiazalea areagotu egiten dira eta, Euskal Herriaren historia, kultura, hizkuntza berreskuratzeko behar intelektual eta politikoa sentitzen da. Horrela, euskal izaera sustatzeari ekiten dio mugimendu berri horrek. Ekimen horretan nabarmentzen den intelligentsiak baditu ezaugarri komun batzuk: laikoak dira, hiri eta hiriburuetan bizi dira, kulturaz jantziak dira, elkarteak, plataformak eta aldizkariak sortzen dituzte, eta, aspaldiko tradizioari lotuz, erdaraz gehienbat defendatzen dute Euskal Herria eta euskara” (Torrealda, 1997: 100).

Hala ere, mugimendu hori, aztertzen ari naizen mugimenduak ez bezala, mugimendu sozialaren kategoriarean sartzeko eragozpen batzuk izan baditu. Batetik, mugimendu sozial “berriak” sortu aurrekoa izan zen (orokorrean, mugimendu sozial berrien sorrera data 60ko hamarkadan paratzen dute nazioarteko literaturgile zientifikoek). Bestetik, hizkuntzaren biziberritzea helburu izanik ere, bestelako helburu batzuk ere bazituen delako mugimendu hark eta badirudi helburu horiek nagusi zirela (ikusi adibidez, Iztueta, 1996: 313-336). Izan ere, hizkuntzaren aldeko mugimendua baino, mugimendu (etno)nazionalista (edo, gurago bada, mugimendu abertzalea) deitu genezake (Ibarra, 2002).

Aintzat hartu behar da euskararen aldeko mugimenduak aldaketa eta mutazio sakonak izan dituela urteen poderioz. Ane Larrinagaren berbetan, “... denbora luzean iraun duten beste mugimendu sozial batzuen antzean, euskararen aldeko mugimenduak ere askotariko adierazpenak eta erakundeak garatu ditu sorrera unetik aurrera, iraupen horretan testuinguru sozial eta politiko aldakorretara egokitu behar izan duelako bere dinamika” (Larrinaga, 2017b).

Aguraingo euskalgintzari buruzko azterketa monografiko batek ematen du euskararen aldeko mugimendu sozialaren kronologia posible bat, beste hainbat

66 Paulo Iztuetak epekatze zehatza ematen dio Eusko Pizkunderari: 1876-1936 (Iztueta, 1996). Hasiera zalantzezkoa bada ere, amaiera datatzeko egile guztiak bat datoz: Pizkundera amaitu egin zen gerra zibilarekin batera.

herritara estrapolatu daitekeena (Amestoy, 2010). Agurainen mugimenduaren lehen isla gau-eskola izan zen (gero, 80ko hamarkadatik aurrera euskaltegia⁶⁷ deitutakoa); horren ostean, ikastola⁶⁸ etorri zen (gero, 80ko hamarkadatik aurrera eskola publikoa ere hasi zen euskarazko irakaskuntzarekin); euskara zerbitzua⁶⁹ eta euskara elkarte bateratsu sortu ziren Agurainen (“Euskara elkarteen eta euskara zerbitzuen garapena aldi berean gertatu zen”, Larrinaga, 2011: 614); eta gero etorri ziren euskara hutsez funtzionatzen hasi ziren elkarteak⁷⁰ (kantu-taldea, bertso eskola, ...) (Amestoy, 2010).

Ez nabil esaten ari Aguraingo eredu beste herri guztietan bere horretan gauzatu zenik. Baina, gutxi gorabehera, (eta herririk herri badira ezberdintasunak) horixe izan da toki mailako euskararen aldeko mugimenduak (zentzu zabalean ulertuta, berariazko eta bide batezko jardunean eta behetik gora zein goitik behe-rako jardunean) izan duen bilakaera.

Beste alde batetik, badirudi, gurean, hizkuntzaren aldeko mugimenduak beste leku batzuetan baino garrantzi eta indar gehiago izan duela. Jon Sarasuak honako hau dio: “Ez dirudi leku askotan izan denik gizarte antolatuaen pisu espezifiko maila hori hizkuntzen berreskurapenaren historia modernoan” (Sarasua, 2013). Baina, agian, euskararen aldeko mugimenduaren bereizgarri baino, Euskal Herriaren bereizgarria da hori: “Inguruko herrialdeekin konparatuta Euskal Herrikoa mugimendu-gizartea dela, hau da, gizarte bat zeinean gizarte-mugimenduen eta oro har gizarte erakundeen jokaleku aberatsagoa den eta, ondorioz, hauek bideratutako protesta-jokabideak protagonismo berezia duten. Edo beste hitz batzuetan esanda, era guztietako elkarte, mugimendu eta erakunde sozialek osatzen dute euskal gizarte sendo eta trinko bat inguruko gizarteekin konparatuta” (Casquete, 1999). Hala ere, azterketa horrek erabat gainditzen ditu lan honen helburu eta mugak. Egongo dira horri ekingo dioten zientzialari sozialak aurrerantzean.

Nahiz eta beste hainbat herrialdetan baino indar eta garrantzi gehiago izan, ez du izan euskararen aldeko mugimenduak harreman handiegirik kanpoko beste mugimenduekin. Badirudi arrazoi nagusienak egoera soziolinguistikoen arteko aldeak izan direla. Batzuek gurea baino egoera soziolinguistikoko hobe izan

67 Gau-eskola zein euskaltegia dira helduei euskara irakasteko guneak, hau da, alfabetatze eta euskalduntze guneak.

68 Euskarazko irakaskuntzarako murgiltze ereduak eskolak ematen ditu ikastolak, baita, gerora, eskola publikoak ere.

69 Euskara zerbitzua da toki administrazioek euskararen garapenerako sortutako zerbitzu publikoa. Azken finean, zerbitzu honen bidez gauzatu egiten da toki administrazio horrek erabakitako hizkuntza politika eta euskararen sustapena.

70 Malores Etxeberriak ere antzeko zerbait dio: “Euskara elkarteak duela 25 urte sortu zirenetik, agente normalizatzaile ugari sortu edo indartu dira herrietan: ikastetxeak, bertso-eskolak, aldizkariak, udaletako euskara zerbitzuak, dantza taldeak, aisialdi taldeak...” (Etxeberria, 2010).

dutelako (Israel, Flandria, Eslovenia, Estonia, ...) eta beste batzuek gurea baino egoera soziolinguistiko okerragoa izan dutelako (Okzitania, Irlanda, Britainia, ...). Hortaz, euskararen aldeko mugimendu sozialak bere bide propioa egin du, atzerriko beste mugimendu sozial batzuei gehiegi begiratu barik. “Euskararen aldeko mugimendu sozialak, beraz, bide propioak jorratu ditu eta kanpotik jaso dituen erreferentzia teoriko-praktikoak Catalunya eta Quebec-era mugatu direla eta nahiko berandu jaso direla esan genezake” (Amonarriz, Arruti, 1998). Eta ez hori bakarrik: “Mugimendu sozial horien arteko harreman egituraturik ez da inoiz egon” (Amonarriz, Arruti, 1998).

Euskararen aldeko mugimendu sozialak badu beste bereizgarri bat mundu mailako beste mugimendu batzuekin alderatuta. Gurean hizkuntza gutxituen beste mugimendu batzuetan bezala, nazio mailako erakundeak badira (batzuek izan dute tokiko adarrik⁷¹, beste batzuek ez), baita sektorialak ere (kultura arlokoak, hedabideen arlokoak eta abar). Hala ere, gurean, goeko hamarkadatik aurrera batez ere, garrantzi berezia izan dute toki mailako euskararen aldeko erakundeek, edo, beste berba batzuekin esanda, toki mailako euskara elkarteek. Eta horiek dira, hain zuzen ere, ikerketa honen berogune nagusienak. Hortaz, aurrera segi baino lehen, euskara elkarte horien definizio operatiboa egin nahiko nuke.

1.6 Euskara elkartearen definizio operatiboa

Ikerketa honen objektu (eta, hein handi batean, subjektu ere) euskara elkarteak dira. Hortaz, ikerketaren zimentarriak izango diren oinarri teorikoak aletzeaz bat, komeni da euskara elkartei buruz zer ulertzen dudan argi eta garbi adieraztea. Definizio operatiboa izango da hau, eragin teorikoak eta metodologikoak dakartzana eta aurretik landutako eragin teoriko eta metodologikoak kutsatuta dagoena, zelanbait. Honaino heltzeko aurreko aldarnio teorikoa behar-beharrezkoa izan da eta definizio operatibo honek koherentea izan behar du aurreko teoriekin.

71 Adibiderik esanguratsuen Euskal Herrian Euskaraz izan daiteke. Nazio mailako egitura den arren, herri eta auzoetan taldeak badira. Hala ere, erabakimen nagusiena (lan ildo nagusiak, kontu ideologikoak, ...) nazio mailako egitura dago. Egia da gero talde bakoitzak bere ahalen arabera, herriaren eta taldearen arabera, eta egoera soziolinguistikoaren arabera moldatu dituela ildo eta jarduerak horiek bere herrietako errealitate zehatzera. Baina ildo orokorrak ez dira zehaztu herrietako adarretan, nazio mailako egitura baino.

Zer dira euskara elkarteak⁷²? Topagunearen arabera⁷³, “... tokiko euskaltzaleen topagunea auzo, herri edo bailarako euskaldunek sortutako elkarte da. Euskaltzaleetasuna eta euskararen erabilera soziala bultzatzea xede nagusi izanik, tokian tokiko euskaldunak ahalduntzeko guneak dira: erabaki guneak, botere guneak, saretze guneak, sortze guneak, eragin guneak... , euskara garatzeko tresnak dira, iraunkorrak. Euskaraz bizi dira, euskararen egoera dute aztergai, euskarak baten ditu kideak. Tokiko euskaltzaleen komunitatea egituratzea dute xede, tokiko errealitateari itsatsita daude” (Topagunea, 2015). Oskar Zapatak ere oso antzeko bidetik jotzen du euskara elkarteak definitzeko: “Euskara elkarteek euskararen normalizazioa dute xede eta horretarako euskararen erabilera sustatzeko jarduerak burutzen dituzte, beti ere euskaldunon hizkuntz komunitatea egituratuz. Jarduera horiek erabilera askeko guneetan⁷⁴ garatzen dituzte elkarteek” (Zapata, 2006). Itakun euskara elkarteko kideek hauxe esaten zuten elkarte sortu berri-tan: “Euskararen aldeko dinamika sozial bat bideratuko duen euskaltzaleen el-karte bat sortu nahi dugu. Euskaraz biziko dena, euskaltzalez osatua, lasarte-oriar euskaldun guztiei eta euskaldun izan nahi duten guztiei irekia” (Itakun, 2001).

Ainara Ibañezek (Ibañez, 2006) honako ezaugarri hauek egotzi egiten dizkie euskara elkartei:

- Herri edo eskualde mailako esparruan aritzen dira lanean.
- Herritarrek sortutakoak izaten dira.
- Norbanako bazkideek osatuta daude, eta bazkide horiek euskaldunak dira kasu gehienetan.
- Gizartean bete gabe dagoen arlo, behar, gabezia edo aldarrikapen bati erantzuteko antolatutako jarduerak dira.

72 Aurreko lan batean ere (Rodríguez, 2016) izen horren aldeko hautua egin nuen. Hango argudioak berritu baino ez zait gelditzen. Entitate hauen sorreratik (90eko hamarkadatik) gehien erabili den izena izan da. Hala ere, 2011n egin zen kongresutik Topagunea (hau da, 90 bat euskara elkar-terren federazioa dena) ahaleginean ari da euskaltzaleen topaguneak izena erabiltzen, errealitate berari erreferentzia egiteko: adibidez, Topagunea, 2015. Dena den, entitate hauek gehienek jarraitzen dute erabiltzen euskara elkarte izena bai euren izendapenetan, zein egunerokoan (Topagunearen txosten baten arabera, %30k euskara elkarte izena dute, %23k elkarte, %20k kultur elkarea eta soilik %2k euskaltzaleen topagunea, Topagunea, 2017). Beraz, izen horren alde egin dut. Batzuetan, alabaina, euskaltzaleen topagunea izena darabilt; kasu horietan, baina, euskara elkarten sinonimo gisara ulertu beharko litzateke.

73 Topagunea da Hego Euskal Herriko tokian tokiko hainbat euskara elkarten osatutako federazioa.

74 Bonifacio Sibayan-ek hiru erabilera-esparru mota ezberdintzen ditu: esparru kontrolatu gabeak, erdi kontrolatuak eta kontrolatuak. Kontrolatu gabeak etxea eta lingua franca lirateke. Erdi kontrolatuak, berriz, erlijioa, politika eta aisialdia. Kontrolatuak, azkenik, administrazioa, hezkuntza, zientzia eta teknologia, merkataritza eta industria, hedabideak, literatura, nazioarteko harremanak (Sibayan, 1991: 69-82). Oskar Zapataren arabera erabilera askeko guneak ez datoz bat Sibayan-en proposatutako ezberdintze ia kanoniko honekin. Izan ere, elkarteek esparru erdi-kontrolatu eta kontrolatu batzuetan jardun dute (aisialdi edo hedabideen esparruetan, esate baterako).

- Publiko zabalari zerbitzua eskaintzeko helburuarekin sortutako ekintzak burutzen dituzte.
- Antolaketa egituratua eta formalizatua izaten dute.
- Ez dute irabaziak bazkideen (akziodunen) artean banatzeko asmorik izaten.
- Alderdi eta instituzioekiko independentzia politikoa mantentzen saiatzen dira.
- Bestelako eragileekin eta elkarteekin elkarlanean aritzen dira.
- Borondatezko lana eta soldatapeko lana uztartua egoten da elkarte hauetan.
- Euskarazko komunikabideak bultzatzea.

Joxe Jabier Iñigok (Iñigo, 1992a) honako bi ezaugarri nagusi erantsi egiten dizkie sortu berri ziren euskara elkartei:

- Zabaltasuna: euskararekiko atxekimenduan oinarri hartuz osatu ohi dira elkarteok. Ez dago, printzipioz, esijentzia ideologiko gehiagorik euskaltzaleatasuna baino. Elaborazio teoriko sakonagoak egin direnean ere (euskaldungoaren trinkotze prozesuaz, elkartearen egitekoez, elebakartasunaz, zabaltasunari berari buruz edo legediaz esate baterako) gehiago izan dira kidea desafioaren garrantziaz jabetarazteko, parte hartzeko aurrebaldintza gisa ezarriak izateko baino. “Txepetx”en hizkeraz, euskara elkarteak eremu sinbolikoaren osaketarako tresna direla esango genuke, nahiz eta kasu askotan beren burua ez duten horrela definitzen.
- Erabilpena: euskararen erabilpenari esparru berriak zabaltzea; eta beste era batez: euskaldunok euskaraz ihardun ala izateko aukerak areagotzea.

Aitziber Mendizabalek, Beronika Uribelarreak eta Monika Erizek (Mendizabal, Uribelarrea, Erize, 1994) honako ezaugarri nagusiak aletzen dituzte:

- Talde autonomoak dira, ez udalerriko ez nazio mailako erakundeekin loturarik gabekoak.
- Berrehun bazkide inguru dituzte. Liberatu edo dinamizatzaile bat dute.

- Udalarekin nahiko harreman onak dituzte eta udal horiek Euskara Zerbitzua dute.
- Udalerri horietako euskaldungoak biztanlego osoaren %40-50tik gora osatzen du.

Ester Mugertzak, Arantza Haranburuk eta Rosa Ramosek (Mugertza, Haranburu, Ramos, 1994) beste ezaugarri hauek, berriz:

1. Esparru geografiko mugatu batean dihardute, gehienetan, udalerrietara mugatuz.
2. Alderdikeriak alde batera utzita, zabaltasunean oinarritzen dira.
3. Autonomoak dira.
4. Udalarekiko harremanak bereziki, eta baita beste administrazio autonomikoarekin ere elkarlana da jorratu nahi dena.
5. Egitasmo nagusia erailera bultzatzearen aldekoa da:
 - Funtzionalki: esparru berriak zabalduaz
 - Geografikoki: elebitasun soziala bultzatuz, bide bezala euskal lurraldea berreskuratzeko.
 - Demolinguistikoki: urratsez urrats euskaldungoarengana iristea eta euskaraz ihardun ahal izateko aukerak areagotzea.

Galder Unzalu antropologoak, ostera, beste bide batetik jotzen du Deustuko Berbaizu euskara elkartearen definitzeko: “Berbaizu euskara elkartearen zer izan daitekeen gutxi gorabeherako definizio bat izan daiteke mikrojendarte sare bat osatzea eta, horretarako, zabaltzen dute adiera zabal baten euren kultur jardueraren bidez, bazkideak bilduz, erakunde, komertzio eta mugimendu sozialekin akordioak dinamizatuz, bere funtzio komunikatibo eta sinbolikoaren bidez. Sare horretan euskaldunen komunitatearen harremanen birtualtasuna markatzen dute euren kontzientzia linguistikoak, toki mailako zenbait hedabideren erabilerak, kultur jardueraren batean euren noizbehinkako parte hartzeak eta taldearen kide aktibo batzuk pertsonalki ezagutzeak” (Unzalu, 2004).

Aurreko guztiak aintzat hartuta, honako defnizio hau erabiliko dut hemen-dik aurrera euskara elkarteei erreferentzia egiteko: tokian tokiko jendeak eratu dituzte, tokian tokiko egoeratik abiatuta. Euskara dute erdigunean elkarte hauek, euskaldunak dituzte erdigunean elkarte hauek. Funtzioak (berr)eskuratu nahi dituzte euskaldunentzat eta euskaldunak eroso egongo diren une eta gunek sortu. Gainera, autonomoak dira (edo izan gura dute) hiru arlotan gutxienez: arlo politikoan (alderdiei eta erakunde publikoei lotuta ez), arlo nazionalean (ez dira erakunde zentral baten adar; aitzitik, nazio mailako erakundea herrietatik abiatuta sortu eta elikatu da) eta arlo ekonomikoan. Eta, elkarteak diren heinean, egitura formalizatua dute.

Esaldi bakar batera ekarrita, honako hau litzateke euskara elkarte bat (iker-keta honen ondorioetarako beti ere): tokian tokiko herritarrek sortutako elkarte egituratua eta tokian toki jarduten duena, euskaldunak ardatz eta erdigune duena, euskaldunen komunitatea egituratzea helburu duena eta autonomia dela (edo izan nahi duela) politikoki, beste erakundeetatik eta ekonomikoki.

Hortaz, euskara elkarte hauek behetik gorako hizkuntza plangintza egikaritu nahi dute (*bottom-up planning*). Gainera, euren burua mugimendu sozial izendatzen dute (nahiz eta interes taldeen ezaugarri batzuk partekatu, besteak beste, formalizazioari dagokionez). Horrez gain, berriazko euskalgintza arloan kokatuta daude. Euren helburu nagusia (eta bakarra) euskaldunak egituratzea da, euskaldunak trinkotzea da, euskaldunen biziberritzea (eta indarberritzea) dute erdigune-tzat elkarte hauek. ■

2. Galderak

Ainguratze teoriko horretatik abiatuta, ikerketa-grina piztu eta, horrekin batera, galderak, kezak, zalantzak, ikerketa oro ahalegintzen baita galdera edo keza batzuei erantzunak bilatzen, irtenbideak bilatzen. Horretarako, baina, ikerketa beraren helburuak, ikerketa gidatuko duten hipotesiak eta ikerketa egiteko aukeratutako azterbideak landuko ditut ondoko orrietan, galdera horiek, zelanbait, zehazte aldera.

2.1 Helburuak

Helburu orokorra da euskara elkarteek 1987 eta 2017 urteen artean lortu dituzten emaitzak aztertzea, beti ere erdigunea izanda elkarte horiek zer ekarpen egin dioten euskararen biziberritzeari.

Helburu orokor horri lotuta, helburu zehatzago batzuk ere izan ditu ikerketa honek. Honako hauek, hain zuzen ere:

- Euskara elkarteek zer emaitza politiko eta zer emaitza kultural lortu dituzten aztertzea.
- Euskara elkarteek zer erresonantzia lortu dute jendartean aztertzea.

- Euskara elkarteek bere helburuak lortzeko erabili dituzten praktikak, bitartekoak eta egiteko moduak aztertzea.
- Euskara elkarten inguruko deskripzio orokorra egitea.
- Euskara elkarten gaineko teorizazioan sakontzea: elkarten inguruan egon diren mugarri teoriko nagusiak identifikatzea.
- Euskara elkarten historia posible bat zirriborratzea.
- Etorkizunari begira zer bide eta helburu jorratu beharko lituzketen euskara elkarteek zirriborratzea.

2.2 Hipotesiak

Ainguratze teorikoak, helburuak ez ezik, hipotesiak ere eraikitzen lagundu dit. Hori dela eta, honako hipotesi hauek formulatu nituen ikerketari luze-zabal ekin aurretik:

- Euskara elkarten fenomeno oso tokikoa izan da eta herri bakoitzean garapen bat izan du. Hala ere, mugimendu beraren kide sentitu dira euskara elkarteak, salbuespenak salbuespen.
- Hasiera batean, euskara elkarteek lortu zuten tokian tokiko euskaldunen komunitatea trinkotzeko lehen pausoak egitea. Baina, urteen poderioz, herririk gehienetan ahuldu edo estankatu egin dira hasierako pauso horiek.
- Euskara elkarteak izan dira ekarpen teoriko bat praktikan jartzeko ahalegina, baina, gerora, jarduteko modu nagusia izan da beste elkarteek egiten zutena kopiatu eta, zelanbait, moldatu.
- Bizi-eredu aurreratzaileak praktikatu dituzte hasieratik elkarteek, hau da, hasieratik bizi izan dute euskaraz elkarteek eta elkarteetako kideek. Beste berba batzuekin esanda, performatibo jokatu dute.
- Elkarteak berritzaileak izan dira; hasieratik, berrikuntza sozialak egin dituzte eta, gainera, modu batera edo bestera, ahalegindu dira berrikuntza horiek herri batetik bestera garraiatzen.

- Euskara elkarteek lortu dute jendartean eragitea, batez ere, maila diskurtsiboan. Izan ere, euskararen erabilerarekiko kezka jendarteratzea lortu dute. Dena den, balio aldaketa eta portera aldaketa txikiak ekarri ditu horrek.
- Emaidza sustantiboek (toki komunikabideek, aisialdi elkarteek, mintzapraktika programek, ...) euskaraz bizitzeko hautua elikatzen balio izan dute, baina egindako ahaleginak ez ditu bete elkartein inguruan ibilitakoek zituzten aurreikuspenak.

2.3 Azterbideak

Baina, horrez gain, nondik nora aztertuko ditudan ere izan behar dut aipagai. Euskara elkarteak fenomeno sozialak diren heinean, hamaika eta bat ikuspuntutik aztertu daitezke eta, hortaz, komeni da zedarritzea zer azterbide erabiliko dudan euskara elkartein fenomenora hurreratzeko.

Azterbide nagusia euskara elkarteek lortu dutena izango da, hau da, euskara elkarteek zer emaitza lortu duten, euskara elkarteek zer eragin lortu duten. Baina, horrez gain, beste hiru azterbide ere izango ditut aintzat:

Filosofia (mugarri teorikoak)

Helburuak

Praktikak

Emaidzak

Hortaz, lehenengo azterbidearen arabera, filosofia edo mugarri teorikoak aztertuko ditut. Azterbide honetan, lehenik eta behin, euskara elkarteek eraiki dituzten markoak⁷⁵ izango dira aztertze-iturri. Ehunka definizio daude marko horien gainean. Nik Sidney Tarrow-ek erabiltzen duenaren alde egin dut: “Markoa da eskema interpretatiboa, kanpoan dagoen mundua sinpletu eta trinkotzen duena. Horren arabera, objektuak, egoerak, gertaerak, esperientziak eta ekintzen segidak aratu eta kodetu egiten dira” (Tarrow, 2011: 254). Marko horiek, gainera, ideologia baino malguagoak dira eta, era berean, ideologia bera baino “zehatz eta generikoagoak” (della Porta, Diani, 2011: III).

⁷⁵ Euskarazko testu batzuetan *frame* berba erabiltzen da, ingelesez (esate baterako, Martinez de Luna, 2013). Hala ere, euskarazko ordainaren alde egin dut.

Markoez gain, euskara elkarteek transmititzen edo transmititu nahi dituzten balioak ere izango ditut aztergai filosofiari dagokionez. Izan ere, ekintza soziala normalean printzipio batzuek gidatzen dute, balio batzuek hain zuzen ere. “Balioek baldintzatzen dute eragileak helburu zehatzak eta estrategia eraginkorrak eta moralki onargarriak definitzeko modua. Balioek, gainera, ematen dituzte ekintzak dakartzan kostuak jasateko beharrezkoak diren motibazioak” (della Porta, Diani, 2011: 98).

Bigarrenik, filosofia ez ezik, helburuak edo helmugak ere izango ditut azterbide. Hau da, ekintza kolektiboa gidatzen duten printzipio horiek lortzeko zer bide, estrategia edo mugari urratu behar diren. Hortaz, arazoei konponbidea bilatzeaz ari gara azterbide honetan. Xede, jomuga edo asmoak, hipotesi berriak edo helmugak. Hau da, filosofiak ezartzen duen azken helmugara heltzeko mugariak zehazteaz ari naiz bigarren azterbide honetan.

Hirugarrenik, azterbide izan ditut praktikak, hau da, helburu horiek lortzeko bideak, bitartekoak. Mugimendu sozialen adituek horiei “ekintza kolektiboaren erreperitorio” (adibidez, Tarrow, 2011 edo Tilly, Wood, 2010) deitzen diete. Tilly-k, adibidez, honela definitzen du: “Talde batek euren errebindikazioak plazara ekartzeko duen bitarteko multzoa da” (Tilly, 1986). Hau da, beste berba batzuetan esanda, euskara elkarteek zer egin duten eta zer ezaugarri izan duen egindako horrek. Baina elkarreak eta, oro har, eragileak ez daude bakarrik. Beste hainbat elkarterekin dute harremana, administrazioekin eta abarrekin. Hori aztertzen du ere praktiken inguruko azterbideak: elkarre hauek izan dituzten harremanak, baita aliantzak, aurkaritzak eta abarrak ere.

Aurreneko hiru azterbide hauek azken azterbidera garamatzate. Izan ere, tesi honen funtsa, batez ere, azken azterbide honetan datza. Hala ere, horretara heldu ahal izateko, ezinbestekoa izan da alde aurretik lehenengo hiru horiek urratzea.

Hortaz, laugarren azterbideak elkarteek lortutako emaitzak ditu jo-puntuan. Aurretik ere esan dudana bezala, ez da erraza emaitza hauen kantitatea eta kalitatea zein den neurtzea. Aldaketa sozialaren iturriak askotarikoak dira, faktore ugari hartzen du parte aldaketa sozial batean. Eta, gainera, orain arte gutxi aztertu izan da gai hau literatura zientifikoan.

Hala ere, emaitza horiek neurtzeko ahalegina egin dut. Alde batetik, egongo lirateke emaitza politikoak, hau da, elkarten aldarrikapenekin zerikusia dutenak. Emaitza politiko hauen barruan ere leudeke elkarteek sortutako ondasun kolekti-

boak (edo, beste era batera, deituta, alternatiba edo espazio kontrahegemonikoak), bai eta pertsona batzuegan eragiten dituzten aldaketa biografiko eta kulturalak (Tarrow, 2011).

Beste alde batetik, emaitza kulturalak leudeke. Horiek hiru motatakoak dira Sidney Tarrow-en arabera: batetik, “balio, sinesmen eta iritzien aldaketak”; bestetik, “sinboloen sarea aldatu, baita sinboloei ematen zaien esangura bera ere”; eta, azkenik, “munduaren bisioa eta komunitatearen egoera soziala aldatu” (Tarrow, 2011: 394).

Emaitzen barruan, euskara elkarteak behatzeko hartu dudana azken azterbide honek erresonantzia ere izan du aztertzeke gai, oihartzunak ere aztertu ditut. Erresonantziak emaitzak dira, baina jendartean edo jendartearen zati batean, bilatu barik, lortu duten soinu-kaxa efektuak dira. Xabier Erizek honela definitzen du erresonantzia: “Kausa edo mugimendu sozial batek arrakasta lortzen du mugimenduak igortzen duen diskurtso edo markoa (balioak, ideiak, sinesmenak, ekintzak) herritarren motibo subjektiboekin (interesak, balioak, sinesmenak) lerrokatzen denean, biak norabide berean doazenean, eta bien artean halako sintonia bat sortzen denean (Erize, 2016). Hortaz, “markoen lerrokatzea” (Tarrow, 2011: 255) aipatzen du Erizek definizio horretan. Lerrokatze horren bidez, elkarteek edo mugimenduek berariaz bilatzen ez zituzten helburu edo helmuga batzuk lor ditzakete, zeharka bada ere. Hortaz, horixe izango da, hain zuzen ere, azken azterbide honetan aintzat hartuko dudana. ■

3. Galderei erantzuna emateko metodologia

Galderak eta kezkek zehaztu egin ditut eta orain hurrengo urrats logikoa da galdera horiei erantzuna bilatzea. Hala ere, erantzunekin hasi aurretik, beharrezkoa da jakitea galdera horiek erantzuteko erabili dudan metodoa, erabili dudan bidea. Hori dela eta, lehenik aztertuko dut gaiari hurbiltzeko erabili dudan ikuspegi epistemologikoa; bigarrenik, galderak eta gai nagusienak mugatzeko erabili ditudan irizpideak eta, hirugarrenik eta azkenik, galdera horiei erantzuna emateko erabili ditudan ikerketa tresna nagusienak.

3.1 Ikuspegi epistemologikoa

Gizarte zientzialarioroi garaian garaiko gertaera sozialetatik sortzen ei zaizkigu galderak. Eta galdera horietatik abiatuta jotzen dugu erantzunak bilatzera. Eta hala da. Hortaz, badirudi ikerketa bat definitu eta ulertu ahal izateko, ikerketa-teknikei begiratu egin behar zaiela. Baina, nire ustez, hori bezain inportantea da lan egingo dugun ingurunera zelan hurbilduko garen hausnartzea. Izan ere, ezinezkoa da ikerlariaren neutraltasuna eta, hori dela eta, nondik hurbiltzen den, zein betaurrekoekin hurbiltzen den zehaztea garrantzitsua da ikerketaren nondik norakoak xeheago ulertu ahal izateko. “Gure ikerketen tripak konpartitu behar ditugu, prozesua kontatu behar dugu, gure kokalekua azaldu, hartzaileek guk ekoiztutako datuak eta diskurtsoak interpretatu ahal izateko” (Emagin, 2018: 120).

Izan ere, “ikerketa egitea ez da helburua, baizik eta errealitatea aldatzea” (Emagin, 2018: 88). Hortaz, mahai gainean jarri behar ditu ikertzaileak egin dituen hautuak. Eta hori egingo dut hurrengo lerrootan, “metodoaren anatomia” esplikatu, Maria Livia Algaren berbetan (Alga, 2018).

Jakintzak beti dira kokatuak, norabidetuak, errotuak eta sustraituak; jakintzak, hortaz, beti dira partzialak (Haraway, 1995). Beraz, ikuskera guztiak partzialak dira, kokatuak, nonbaitetik abiatuak, adierazi zein ez. Denok dugu errealitatearen hautemate partziala eta, horregatik, ezinbestekoa da aitortzea gauden lekuak baldintzatu egingo duela sortuko dugun ezagutza. Donna Haraway-ren arabera, “... subjektu bakoitzaren begirada alderdikieriaz blai dago, baina norberaren begirada kokatua munduari, ezagutzari irekitzen dion aukera da” (Haraway, 1995: 329). Izan ere, “... edozein azterketa, ahalik eta objektiboena izan dadin hartutako neurriak gorabehera, bere subjektibotasuna erantsiko dion norbanako baten iragazkitik pasatuko da” (Rodriguez, 2019). Hortaz, ezagutza eta jakintza hori nondik sortzen den berariaz aipatu behar da, ikerketaren fidagarritasunaren izenean, ikerlariak beti esku hartzen duelako. Ezinezkoa da zientzia egitea ikerlariaren gaitasunak, egoera, ingurunea, ametsak, ezintasunak eta bestelako kontu batzuk aintzat hartu barik. Horrek guztiak arrastoa utziko du ikerketan, ubera utziko du ikerketan, baina horrek ez dio axola, ikerketan zorrotz jokatu bada.

Izan ere, jakintza kokatua, partziala, errotua izateak ez du esan gura dena libre dela, edozer egin daitekeela (eta ikerketaz mozorrotu). Ez. Ikertzaileok erantzukizuna dugu, ardura dugu. Zorrotz jokatu behar dugu eta, ahal den neurrian, aipatu egin behar dugu zein den gure posizionamendua eta gure abiapuntua. Baina ez nork bere zilari begiratzeko, ez, “... posizionamendu horrek jakintzaren ekoizpenean nola eragiten duen” (Biglia, Curiel, Esteban, 2015) aztertzeke.

Hortaz, nondik abiatzen naiz? Zer betaurrekoekin begiratzen dut mundua eta, kasu zehatz honetan, euskararen aldeko mugimendu soziala? Eta, azkenik, zelan hurreratu gura izan dut ikerketaren objektu eta subjektu diren euskara elkarreentara?

Nik euskararen aldeko aktibistatzat dut neure burua eta, era berean, ikuspuntu ekologiko batetik munduko beste hizkuntza gutxitu guztien aldeko aktibistatzat. Euskaltzaletasunaren garra AEKn beharrean hasi nintzenean piztu zitzaidan (edo hori gogoratzen du neure buruak). Handik gutxira, lagun batzuek Tximintx euskara elkarrea sortu genuen Derion. Eta hor sartu nintzen buru-belarri hasieratik. Baina, aktibismoan trebatu ez ezik, neure burua jantzi beharra ere ikusi nuen.

Hiznet⁷⁶ gradu-ondokoa egin nuen eta horrek erabat baldintzatu zuen nire ibilbidea. Izan ere, horren ostean, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako Sailburuordetzan aritu nintzen bekadun⁷⁷. Hor zeharo garbi ikusi nuen: euskararen biziberritzea aktibismorako esparrua ez ezik, ogibide ere izan nahi nuen. Esan eta egin. Topagunean hiru urtez aritu nintzen Bizkaiko sustatzaile eta, ordutik, Emun kooperatiban nabil beharrean, hizkuntza aldaketen aholkulari, hainbat enpresatan euskararen presentzia eta erabilera areagotzeko behar teknikoan.

Hortaz, ikerketara eta jakintza teknikora aktibismotik hurreratu egin naiz. Nire esperientzia aktibistan oinarrituta, euskara elkarteetan gaineko begirada ekintzailea dut. Beraz, zelanbait esateko, “kokapen hibridoa” (Emagin, 2018: 82) dut ikerketa honetan. Hau da, hanka bat akademian dut, baina beste hanka mugimendu sozialean, euskara elkarteetan mugimendu sozialean, hain zuzen ere. Hortaz, saiatu naiz “ikerketaren onurak ikertuei ere bideratzen” (Flores, 2018: 53). Izan ere, ikerketa egin bitartean, Tximintx euskara elkartearen eraldaketa prozesu sakon batean murgildu da eta nik ere hartu dut parte gogoeta prozesu horretan, bihotzetik⁷⁸ gainera. Ikerketa bitartean eztanda sortzaile horretan “harrapatua”⁷⁹ izateak ikerketa bera aberastu du, baita prozesu hori bera aberastu ere⁸⁰. Ikerketan zehar ikusten ari nintzen “ebidentziak”⁸¹ ere aplikatzeko laborategia izan zen Tximintxeko prozesu hori berori. Hala ere, prozesu horretan, jakina, ez nuen nik bakarrik parte hartu, kolektiboa izan zen, horrek dakarren guztiarekin.

Oinarri teoriko eta aktibista makulu, mugimendu sozial honen inguruetara saiatu naiz apal, umil eta errespetuz (Tuhipai, 2017) hurbiltzen. Horretarako, ikerketa aktibistaren⁸² zenbait oinarri izan ditut bidelagun. Barbara Biglia, Jordi

76 Hizkuntza plangintzari buruzko gradu-ondokoa da Hiznet. Euskararen biziberritzerako ezagutza kualifikatua eta sistematikoa eskaini gura du. Nik 2004an amaitu nuen gradu-ondokoa eta Txorierriko merkataritza euskalduntzeko plangintzari buruzko azterketa-lana egin nuen gradu-ondokoaren amaierarako.

77 Beka horretan sei hilabete egon nintzen beharrean. Helburua izan zen Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren aplikaziorako adierazle-sorta ekoiztea. Delako plan hori herrietan aplikatzeko bidea egina zuen Eusko Jaurlaritzak (hainbat eredu definitu, ekintza-sorta potoloa eskaini, aplikazio informatikoa eratu, ...) baina aplikatutako neurriak eta ekintzak baloratzeko adierazleak falta. Horiek zelanbait definitzen aritu izan nintzen.

78 Tximintx euskara elkartearen izateko komunitate izatera pasatu egin da. Hortaz, terminologia ere aldatu egin du. Bihotza izateko Tximintxen gaur eta hemen talde eragileko kide izatea dakar. Argibide gehiagorako ikusi Tximintx, 2019.

79 Harrapatua erabili dut Maria Livia Algak erabiltzen duen esangurarekin. Izan ere, beraren iritziz, ikerketa batean “harrapatua” izateak esan gura du zure gorputza irekia dagoela beste berba eta testuinguruei (Alga, 2018).

80 Tximintxen berrasmatez prozesuaren zatirik garrantzitsuena eta sortzaileena gertatu zen 2018ko azarotik 2019ko maiatzera bitartean, ikerketan ariketa praktikoa garatzen eta aztertzen ari nintzen momentu beretsuetan.

81 Ebidentzia deitu arren, aipatu behar da eztanda sortzaile hori egin bitartean, oraindik ikerketaren produkzio fasean nengoela eta, beraz, ebidentzia askorik ez nuela oraindik. Gako batzuk bai ari ziren pilatzen nire buruan, baina besterik ez.

82 Ikerketa aktibista honela definitzen dute Barbara Biglia, Jordi Bonet eta Marc Martí-k: “Ikerketa aktibista terminoa sortu zen jarrera, praktika eta hausnarketa batzuk definitzeko. Azken finean, ikerketara hurbiltze etikoa eta konprometitua esan gura du” (Biglia, Bonet, Martí, 2006). Izan ere, ikerketa aktibistak “jendartea kritikoki eraldatzeko balio dezake, gure ikerketek aldaketak eragitea gura dugu, gatazkak ikusgai egitea gura dugu, mobilizazio soziala areagotzea gura dugu” (Biglia, Bonet, Martí, 2006).

Bonet eta Marc Martiren arabera, ikerketa aktibistak hamaika oinarri ditu. Horietako guztiak ez dira aplikatzeko modukoak ikerketa honetan, baina gehienak bai. Ikerketa hau gidatu duten printzipio orokorrak dira, beraz, hurrengo lerroetan agertuko direnak.

Batetik, ikerketa aktibistak aldaketa sozialerako joera dakar. Bi osagai ditu joe-
ra honek. Batetik, “nagusi diren diskurtsoak eta balioak zalantzan jarri behar ditu”
eta, bestetik, “irakurleei/entzuleei aurrera egiteko zer aukera dauden adierazi egin
behar dizkio” (Biglia, Bonet, Marti, 2006). Ni euskara elkarreetara hurbildu naiz
eurek lortutako emaitzak aztertzeke, baina ez da horretan geratu ikerketa honen
asmoa. Horrez gain, etorkizunean eraginkorrago jarduteko gako batzuk ematea
ere izan du helburu ikerketak. Beste kontu bat da ea gako horiek aplikatuko di-
ren ala ez, beste kontu bat da ea gako horiek probetxugarriak diren ala ez. Baina
ahalegin hori egin izan dut. Apala eta xumea izango da eraldaketa, izatekotan.
Ekarpen apala eta xumea dakar ikerketa honek, baina bere gogoia edo asmoa bai
da aldaketa sozial txiki hori eragitea.

Ikerketa aktibistak, gainera, teoria eta praktikaren arteko elkarrekiko loturak
eta interakzioak nabarmentzen ditu. “Ezin dira teoria eta praktika bere aldetik
aztertu, biak daude elkarri lotuak. Ez zaio teoria egoera praktikoko bati aplikatu
behar hura balioztatzeke. Teoria praktikarekin aldatzen da eta, era berean, prakti-
ka teoriarekin ere aldatu egiten da. Ezin zaio batari zein besteari balio handiagoa
eman behar” (Biglia, Bonet, Marti, 2006).

Ikerketa aktibistak, hirugarrenik, ikuspegi kokatua eta partziala balioesten du.
“Objektibotasunik ez dago, subjektu bakoitzak bere begirada duelako, bere begi-
rada partziala. Hala ere, ezin da era erromantikokoan aztertu zapalduen begirada,
hori ere kritikoki aztertu egin behar da” (Biglia, Bonet, Marti, 2006). Lehenago
azaldu ditut labur zurrean zein ikuspuntutik hurreratu naizen ni ikerketa-gaira.

Ikerketa aktibistak, laugarrenik, erantzukizuna eskatzen du, ardura eskatzen
du. “Batutako datuak egoki erabili behar dira, antzemandako lorpenak egoki era-
bili behar dira” (Biglia, Bonet, Marti, 2006). Izan ere, ikertzaileak hartu behar du
aintzat ikerketa norentzat egiten ari den, ikerketaren diseinuan zein dibulgazioan
zer asmo duen, zelan itzuliko dizkien parte hartzaileei ekoiztutako jakintzak, eta
abar. Eta horietan guztietan irizpide etiko zorrotzak ezarri, erabilera egokia izan
dadin. Hasieratik argi izan dut ikerketa hau ezin dela akademian bakarrik gelditu.
Hortaz, ikerketaren emaitzak eta ondorioak partekatzeko asmoa izan dut hasie-
ratik, ahalik eta erarik dibulгатiboenean.

Ikerketa aktibistak, bosgarrenik, ikerketan parte hartzen duten pertsona eta subjektibitate guztien errespetua eta balorazioa dakar ezinbestean. Hortaz, ezinbestekoa da parte hartu duten pertsona guztiei argi eta zehatz azaltzea zertan den ikerketa, zer erabilera izango duen berak guri emandako informazioa, zelan landuko dudan anonimotasunaren kontua, ... Horrez gain, eta ahal den heinean, berak (eta besteek) emandako informazioa eta jakintza zelan itzuliko dudan aipatzea ere beharrezkoa da.

Seigarrenik, ikerketa aktibistak aldaketei eta berrikuntzei so egon behar du. “Espazio eta denbora arteko ekuazioaren barruan, testuinguru partikular eta koku horretan hain zuzen ere, sortzen da dinamikak ulertzeko aukera. Horregatik, ezinbestekoa da etengabe hartzea kontuan testuingurua, ezinbestekoa da etengabe hartzea kontuan eraldaketa sozialaren koordenatuak” (Biglia, Bonet, Marti, 2006).

Zazpigarrenik eta azkenik, ikerketa aktibistak onartu behar du sortzen duen ezagutza eta jakintza kolektiboa dela. “Gure lanak ez dira pertsona batek pentsatutakoak batzeko, urteetan hainbat pertsonak sortu duten ezagutzak dira. Elkarrekin pentsatzearen ondorio dira guk sortuko ditugun ezagutzak. Hortaz, ezinbestekoa da sortuko den ezagutza ere kolektibo egitea, ezagutza hori konpartitzea, parte hartu dutenei itzultzea ezagutza hori, baita beste hainbaten eskuetan jartzeko ahalegina egitea ere” (Biglia, Bonet, Marti, 2006). Izan ere, ikerketa honetan benetan parte hartzaileek egin dute hausnarketa eta gogoeta, ni bi horien katalizatzaile aritu izan naiz batez ere.

Ikerketa aktibistaren oinarri horietaz gain, hartu behar da kontuan ikerketa honen aztergaia fenomeno soziala dela. Beraz, hori ikertzeko edozein ahalegin interpretazio lana da nahitaez. Errealitate osoa lan batean islatzea ezinezkoa da eta, hortaz, lan honek errealitatearen irudikapen bat baino ez du islatzen. Hori dela eta, horren gaineko interpretazioa zorrotza izan behar da eta oinarri zientifiko eta teoriko sendo baten gainean eraikia. Batetik, esparru teorikoak (edo arlo kontzeptualak) zutabe sendoak izan behar ditu: ikertzaile eta saiogile esanguratsuen ekarpenetan izan behar dute oinarri kontzeptu teorikoek eta egileen arteko harremanak, kontraesanak eta bateratze puntuak sakon landu behar ditu. Bestetik, esparru teorikoan ahalik eta iturri aberatsenak erabili behar dira eta haien arteko hartu-emanak izan behar dira aintzat. Eta, azkenik, oinarri teoriko zein metodologikoetan landutakoa aztertutako ingurune sozialarekin lotu egin behar da.

Baina, kontuz, kasu. Ezagutza nire betaurrekoetatik ekoitzi badut ere, horrek ez du esan gura ezagutza hori nirea dela. Ezagutza, izatekotan, sorkuntza kolek-

tiboa da, ez indibiduala. “Ezagutzaren sorkuntza edo eraikuntza oro berez da kolektiboa; batetik, ezagutza sortzen duen pertsonak babes-sare bat behar duelako, sostengurako eta zaintzarako sare bat; bestetik, elkarreraginean eta elkarlanean sortzen delako beti ezagutza” (Emagin, 2018: 43). Eta, kasu honetan, are gehiago esango nuke. Ikerketa honetatik sortu den ezagutza euskara elkarteek eta bertan jardun duten pertsonak osatua izan da hein batean, nahiz eta nire iragazkitik pasatua izan. “Nire burua kokatu ahal dut, kasurik onenean, lekuko apaltzat, hausnarketara kolektibo aberats baten transmititzaile subjektibotzat” (Azpiazu, 2017).

Eta, kasu honetan bereziki, ez da erretorika hutsa. Euskara elkarten fenomeno zeharo poliedrikoa da, herririk herri garatu dena modu batera edo bestera, nahiz eta oinarri komun batzuk izan. Hortaz, ikerketa-gai honen ahalik eta argazkirik osatuena egiteko asmoz, ezinbestekoa izan da hainbat eta hainbat ahotsen berbaroa entzutea. Ikerketaren funts nagusia ahots horiek osatzen dute, ahots horietan oinarritu da, hein handi batean, ikerketa eta ahots polifonia horretan nik hurrenkera eta logika sortzen ahalegindu naiz.

3.2 Mugatze lana

Ikerketarako aukeratu dudana kolektiboa euskara elkarteetan eta bere inguruan eta abaroen jardun zuten eta duten pertsonak osatzen dute. Hau da, euskara elkarteetan ibilitako aktibistak eta gaiaren gainean ikertu edo idatzi duten adituak⁸³. Baina, jakina, gaur eta hemen euskal herrietan 90 elkarte baino gehiago daude eta ezin denak banaka eta sakon aztertu. Eta hor ere mugatu egin behar izan dut lana, lagin bat⁸⁴ hartu behar izan dut.

Nire hipotesiak frogatu edo baztertu ahal izateko, euskara elkarteek eratu duten mugimendua eta euskararen biziberritzearekin duten harremana ikertzea erabaki dut. Horretarako, ezinbestekoa izan da euskara elkarte hauen praxia aztertzea, baita euskara elkarteek ekoitzi egin duten diskurtsoa aztertzea ere. Izan ere, diskurtso ideologikoak zehazten baitu, neurri handi batean, mugimenduaren norabidea, hor gorpuzten baitira oinarritzko printzipioak, ideiak eta helburuak. Baina ezin da ahaztu arreta nagusia euskara elkarteek garatu duten praxi sozio-politiko eta kulturala dela.

83 Ez dira ulertu behar bi kategoria baztertzailere moduan, inondik ere. Askotan aktibista aritu diren horiek bereak izan dira gaiaren gainean ikertu edo idatzi dutenak. Eta, euskara elkarten inguruan, esango nuke bereziki bi kategoria hauen arteko hibridazio oso esanguratsua dela.

84 Laginaren inguruko kontuak aurreraxeago landu ditut metodologiari buruzko atal honen barruan.

Hortaz, aztergai izan ditut euskal herri, auzo edo eskualdeetan sortutako toki mailako euskara sustatzeko elkarteak. Baina ez edozein elkarte. Arlo teorikoan aipatu dudan definizio operatibo horretaz gain, beste ezaugarri bete behar izan dute elkarte horiek: zelanbait, euskara elkarte mugimenduan bere burua islatua ikustea. Hori ebazteko hartu dudan erabakia izan da Topagunearekin duten harremana. Izan ere, ikerketa-objektu dira, batez ere, Topagunera batutako elkarteak (hala ere, hortik kanpo dauden beste elkarte batzuk ere izan ditut aintzat, kide izan ez arren, Topagunearekin harreman estua duten heinean⁸⁵).

Hori guztia taxuz egin ahal izateko, denbora koordinatu batzuk mugatu egin behar izan ditut derrigorrez. Datatze horretan honakoa izan da nire hautua: 1987tik 2017ra doazen 30 urteak. 1987. urtea abiapuntutzat hartu dut urte horretan argitara eman zelako Jose Maria Sanchez Carrion “Txepetx”-en “Un futuro para nuestro pasado” liburua. Horren aurretik, lehen euskara elkarte sortua bazen ere (Arrasateko AED elkarte), liburu hori mugarriztat jotzen dute lehen euskara elkarteetako sortzaile gehienek. Eta hala dela uste dut nik ere. Liburu horren eraginez eta liburuak zituen ekarpenen gainean eratutako *Adorez eta Atseginez* mintegiaren eraginez, goeko hamarkadan hainbat elkarte sortzen dira herririk herri (AED elkarteak garatzen duen ereduak ere badu bere eragina). Hortik aurrera, elkarte horiek imitatuz eta bakoitzaren errealitateari egokituz, beste hainbat herritan joan dira sortzen elkarte berriak (gaur egun arte). Gainera, Kepa Larreak dioen bezala, “1986tik aurrera⁸⁶ euskara ikastetik euskara erabiltzera igarotzeko beharra planteatzen hasi zen” (Larrea, 2005).

Amaiera ezartzeko urtea, oster, ez da izan hasierako urtea erabakitzea bezain erraza. Datatze hau, jakina, bestea bezala erabat subjektiboa da. Baina erabakitzearen arrazoiak aurrekoak baino ahulxeagoak dira. 30 urteko zifra borobila izatea da, batetik, erabakitzearen arrazoietako bat (biologikoki belaunaldi bat dira hiru hamarkada). Horrez gain, ikerketaren landa-lana 2018. urtean egin izan nuen batez ere. Hori dela eta, iruditu zitzaidan landa-lana egin aurreko urtean datatzea ikerketa-aldia. Izan ere, ikertu beharreko kontuei distantzia apur bat uztea erabaki nuen.

85 Ikerketa honek zehaztu duen epealditik kanpo badirudi Topaguneari bestelako harreman bat garatzen ari dela herririk herri Euskalardiaren harira sortutako batzorde eta era guztietako taldeekin. Badirudi, hortaz, “elkartetasuna” zelanbait lausotzen ari dela eta mugimendu anitz eta heterogeneoagora (antolaketa aldetik ere) hurbiltzen. Interesgarria litzateke horren gaineko ikerketak ere garatzea, taldeetasun berri horiek zelan eragin dezaketen etorkizunean aztertze, baina, ikerketa honen eraginpetik kanpo geratzen dira.

86 Kepa Larrearen doktorego-tesiak euskalduntze eta alfabetatze mugimenduak aztertzen ditu Euskal Herrian, 1956tik 1986ra. Tesi hau ez da inondik inora haren tesiaren jarraipena, baina biok ala biok denbora erreferentzia beretsuak erabiltzea kasualitatea ez dela iruditzen zait. Izan ere, 1986-87 urte horien bueltan erabileraren erdigunera ekartzeko ahalegin teoriko eta praktikoak esperimendatzen hasi ziren euskal herrien luze-zabalean.

3.3 Ikerketa tresnak

Ikerketa tresnak dira ezagutza ekoizteko bitartekariak, ikerketa-objektua erai- kitzeko bitartekariak, ikerketa eraikitzeke ni eta fenomenoaren arteko zubi-lana egingo duten lanabesak. Horregatik, garrantzitsua da lanabes-bitartekari horien tripak erakutsi, ikerketa-prozesu honen gaineko hausnarketa eta interpretazioa egokiago egin ahal izateko. Hor doaz, beraz, erabilitako bitartekari horien gaineko ohar eta azalpenak.

Ikerketa gaia aintzat hartuta, ikerketari berari ekiteko zein metodologia eta tresna erabili galdetu nion neure buruari. Fenomeno sozial bat aztertu gura izan dut eta, batez ere, fenomeno horren emaitzak sakon aztertu. Hortaz, zenbakien azpian ezkututzen den informazio zehatz eta aberatsa baino, informazio konple- xua(goa) bilatu gura izan dut: fenomeno sozial konplexu eta askotariko honek ekarri egin dituen emaitzak, hain zuzen ere. Emaitza horietako batzuk ukiga- rriak badira ere, gehien-gehienak ukiezinak dira, sinbolikoak edo kulturalak. Eta, askotan, pertzepzioetan eta hautemateetan oinarritutakoak. Hortaz, gaiari hur- biltzeko, teknika kuantitatiboak baino, teknika kualitatiboak interesgarriagoak eta eraginkorragoak suertatu zaizkit. Teknika parte-hartzaileak ere baztertu ni- tuen. Teknika hauetako batzuk interesgarriak bezain eraginkorrak izan daitezke ikerketa objektu eta subjektu diren euskara elkarteek emaitzak aztertzeke, baina elkarteek laginak asko baldintzatu dezake teknika hau. Elkarte zehatz bat edo gutxi batzuk aztertzeke, teknika parte hartzaileak oso baliotsuak dira. Hala ere, kopuru hori handitzen den heinean, zailtasunak hasten dira: denbora asko behar da, azpiegitura handia, ikertzaile bat baino gehiago eta abar. Elkarte bakoitzarekin prozesu parte hartzailea diseinatu, inplementatu eta emaitzetara ekartzeko lan handia behar da. Hortaz, nire ustez, kasu zehatz honetan ekarpena teknika kua- litatiboek egiten dute, batez ere, kontuan hartuta euskara elkarte zehatz batzuk baino, euskara elkarteek fenomenoari osotasunean heltzeko hautua egiten dudala.

Beraz, emaitza hauek aztertzeke, idatzizko eta ahozko iturrietara jo dut. Bate- tik, informazio enpirikoa (baita teorikoa ere) batzeke, euskara elkarteek ekoitzi- tako dokumentu idatzi nagusienak aztertu egin ditut. Baina, horrez gain, euskara elkarteek praxia ikertzeke ez da nahikoa izan euskara elkarteek (edo ikertzaileek gai horren bueltan) ekoiztutako dokumentu idatziak aztertzea. Hori dela eta, sa- koneko elkarrizketak egin dizkiet euskara elkarteetan jardun duten hainbat kideri. Gaian gehiago sakontzeke (eta, hein batean, kontrastea egiteke) euskara elkarteek inguruan ikertu, idatzi edo teorizatu duten hainbat adituri ere eskatu egin diet idatzizko iritzia, Delphi teknikaren bidez. Hainbat adituk erantzun dio bidalita-

ko galdetegiari. Eta, azkenik, euskara elkarte batzuek eta, batez ere, Topaguneak ekoitzitako barne-dokumentazioa (barne buletinak eta urteko gestio planak batez ere) ere aztertu dut, iturri ez-zuzenen azterketaren bidez.

Teknika horien inguruko xehetasunak aipatu aurretik baina, gustatuko litzaidake beste kontu bati oratzea. Tesiaren oinarri nagusia, lehen ere esan dudan bezala, ahotsen polifonia izan da. Eta ahotsen polifonia hori osatzeko, batez ere, protagonistengana jo dut. Horiek memoria⁸⁷ ariketa egin dute kasu askotan eta narratiba mordo bat ekarri dute ahora (edo paperera). Beraz, tesiaren mami nagusia lehen mailako iturriek osatzen dute (ahozkoak zein idatzizkoak). Hala ere, bigarren mailako iturri asko ere erabili dut azterketan zehar, nahasita. Batzuetan bigarren mailako iturri horiek lehen mailako iturrietatik esandakoa berretsi, sendotu edo zalantzan jarri izan dute. Beste batzuetan, ostera, bigarren mailako iturriek bete egin dituzte lehen mailako iturriek utzitako hutsuneak edo puntu ilunak.

3.3.1 Testuen azterketa

Euskara elkarteen mugimenduan eragin gehien izan duten testuak aztertu ditut hasteko eta bat. Izan ere, mugimendu baten praxia aztertu ahal izateko, ezinbestekoa iruditu zait mugimendu horrek ekoitzi duen ideologia eta diskurtsoa aztertzea, mugimenduaren mugari teoriko nagusienak aztertzea, hain zuzen ere. Ikerketaren helburuak, hipotesiak eta aldazio teorikoa aintzat hartuta, galdetegi bat prestatu dut testu mugari horiei zer galdetuko diegan jakiteko. Azken finean, dokumentu horiek elkarrizketatu egin ditut. Behin galderak eginda, testuak irakurri eta kategoriak kodetu ditut. Kategoriatu horiek galdetegiaren arabera zehaztu ditut. 2. eranskinean daude zehaztuta testuei egin dizkiedan galderak.

Testu hauek aztertzeke, esan dudan bezala, elkarrizketa egin nahi izan diet. Eta, edukien analisiaren bidez, interpretatu eta testu horiek diotena zelanbait iniferitu. Izan ere, edukien analisia "... irakurketan oinarritzen da informazioa batzeko bitarteko gisa. Irakurketa hori, baina, irakurketa arrunta ez bezala, metodo zientifikoa jarraituz egin behar da, hau da, izan behar da sistematikoa, objektiboa, errepikatzeke modukoa eta baliozkoa" (Andreu, 2000). Horrez gain, irakurketa hori, kasu honetan, kualitatiboa izan da. Izan ere, "... testu originalak ulertu behar dira behaketa guneak balira bezala edo elkarrizketa bateko solaskideak balira bezala" (Ruiz de Olabuenaga, 1996: 197).

87 Memoria ez da inondik ere ulertu behar zerbait finko eta estanko bezala, memoria ez da gordailua. Memoriak arian-arian berreraikitzen du iragana orainaren elementu eta mekanismoetatik abiatuta. Memoriak esangura berriak sortzen ditu, aktiboki sortu ere. Memoriaren gaien sakontzeko interesgarria da Halbwauchs, 2004.

Argi dago teknika honek abantaila eta desabantaila batzuk dituela (beste tresna guztiak bezala). Desabantailen artean, behin eta berriz aipatzen da tresna honek izan dezakeen fidagarritasun eza. Hala ere, testuok zintzo eta zorrotz aztertuz gero, beste edozein tresnak izan dezakeen fidagarritasuna izan dezake tresna honek ere. Gainera, beste teknika batzuekin alderatuta, idatzizko testuetan oinarritzen den heinean, sistematikoagoa izan daiteke azterketa (testuinguruko hainbat aldagaik ez dute garrantzi handiegirik) ahozko iturrietan baino. Izan ere, teknika honetan testuak dauden bezala aztertu egiten dira eta, horren ostean, irakurri egin ditut haieratik informazioa erazteko. Hau da, testu hori azken finean beste teknika batzuetako landa-laneko “landa” baita (Andreu, 2000).

Testu horiei lau gai nagusiri buruzko galderak egin dizkiet eta horien arabera kodetu ditut testuok. Batetik, filosofiari buruzko galderak egin dizkiet testuei, mugari teoriko nagusiei buruzko galderak, alegia. Bigarrenik, helburuei buruzko galderak egin dizkiet testuei, hau da, elkartean helburuei buruzko aipamenik zekarren galdetu diet testuei. Hirugarrenik, bitartekoei edo egiteko moduei buruzko galderak egin dizkiet testuei, hau da, elkarrekin egiten dituzten edo egin beharko lituzkeen moduei buruzko galderak. Horren barruan ere, harremanei buruz galdetu diet testuei. Hau da, ea elkarrekin besteekin izan dituzten edo izan beharko lituzkeen harremanei buruz zer esaterik duten galdetu diet testuei. Laugarrenik eta azkenik, galdetu diet testuei elkarrekin lortutako emaitzei edo eraginei buruz zer dioten. Horren barruan ere, elkarrekin lortutako erresonantzia edo oihartzunari buruz zer zuten esateko galdetu diet testuei, hau da, ea zer oihartzun lortu duten elkarrekin euren jardunarekin edo euren diskurtsoarekin (edo biekin).

Filosofia (mugarri teorikoak)

Helburuak

Praktikak (Egiteko moduak)

Emaitzak (eraginak)

Testuak aukeratzeko irizpide nagusia izan da testuok elkarrekin (eta euren jardunean edo diskurtsoan) izandako eragina. Baina zelan neurtu eragin hori ahalik eta modurik zehatzenean? Izan ere, ez dago elkarrekin eragina izan duten testuen gaineko aipamenik edo, behintzat, bat edo beste kenduta besteen gaineko aipamen gutxi dago hor eta hemen.

Hortaz, galdetu beste erremediorik ez dut izan. Eta, galdetzerakoan, hiru iturri nagusi izan ditut erreferentzia. Hortaz, hiru iturri nagusi izan ditut eragin hori

neurtzeko eta, beraz, testuak aukeratzeko. Batetik, euskara elkartearen gaineko historian behin eta berriro agertutako testuak daude. Testu horiek mugimenduaren mugari nagusienak identifikatzen dituzte, elkarteetan eta mugimenduan izandako aldaketa eta biratze nagusien berri ematen. Bestetik, sakoneko elkarrizketetan agertu diren testuak leudeke. Aipatu behar da, hala ere, sakoneko elkarrizketetan ez zaiela parte hartzaileei galdera zuzenik egin honen inguruan. Nahiago izan dut ez bideratzea erantzuna eta, hori dela eta, atera diren testuak apuntatu eta zerrendara pasa nituen. Eta, hirugarrenik eta azkenik, 2018ko otsailaren 7an Jasone Mendizabalekin⁸⁸ egindako batzarrean aipatutako testuak. Batzar horretan berriaz galdetu izan nion Jasone Mendizabali zeintzuk ziren bere ustez elkarteetan eta mugimenduan eragin gehien izan duten testuak.

Hiru iturri badira ere, esan behar da testuak aukeratzeko gutxienez bi iturrietan agertu behar zirela testuok. Bakarrean agertu izan direnak baztertu egin ditut eta, hortaz, galbahe hori pasatu ostean, 10 testu nagusi geratu dira eta horiek izan dira aztertu ditudanak⁸⁹.

Taula 1: Testu azterketan erabilitako testuen zerrenda eta aukeratzeko irizpideak:

TESTUAREN IZENA	ITURRIA 1	ITURRIA 2	ITURRIA 3
Un futuro para nuestro pasado (T1)			
Jazten aldizkaria 8 (T2)			
Jazten aldizkaria 9 (T3)			
Topagunearen eratze estatutuak (T4)			
Topagunea: oraina eta geroa (T5)			
Oinarriparrak (T6)			
Eraldabideak (T7)			
Berrikusi eta berrikasi (T8)			
Harrera gida (T9)			
Nola egin dute? + Ekitea da kontua (T10)			

Taula 1: nik egindakoa.

⁸⁸ Jasone Mendizabal zen 2018an Topagunearen zuzendari nagusia eta kargu hori 2001etik betetzen zuen. Horrez gain, Topagunean lanean denbora gehien zeraman pertsona da. Horrez gain, Topagunean lanean jardun aurretik AED elkartearen ere egin zuen lan. Zentzu horretan, euskara elkartearen mugimenduaren gaineko ezagutza handia du Jasone Mendizabalek eta testuak aukeratzeko pertsona aproposena begitandu zitzaidan.

⁸⁹ Testu bakoitzaren gaineko laburpena 1. eranskinean dator. Horrez gain, testu horien fitxan agertzen dira egileak, data, luzera eta izaera.

3.3.2 Sakoneko elkarrizketak

Lehen teknika testu azterketa izan bada, bigarrena sakoneko elkarrizketen teknika izan da. Guztira, 26 sakoneko elkarrizketa egin ditut 2018ko maiatzetik urrira⁹⁰. Baina zergatik sakoneko elkarrizketa? Zer abantaila edo hutsune ditu elkarrizketak?

Sakoneko elkarrizketa konplexutasun handiko gaietan teknika ona da, inkestak edo erantzun itxietako galdetegiak baino finagoa da. Elkarrizketen bidez, informazio sofistikatuagoa lortzen da, baina teknika esploratzailea da. Ikergai honen objektu eta subjektu diren euskara elkarten jardun konplexu eta askotarikoa aztertzeke, hortaz, teknika bikaina dela deritzot. Gomer Betancorrek eta Roberto Cillerosek honako hau diote mugimendu sozialak aztertzeke sakoneko elkarrizketak duen garrantziaz: “Sakoneko elkarrizketak berezko sekulazko garrantzia du ikertu nahi diren arlo hauek miatu eta azaltzeko. Izan ere, horietara heltzea ikerketa teknika kuantitatiboen bidez zailtasun handiak dakartza” (Betancor, Cilleros, 2013).

Izan ere, sakoneko elkarrizketa, bere izenak dioen bezala, elkarrizketa profesionala da, non elkarrizketatzaileak galderak egingo dizkion elkarrizketatuari gaiari buruzko iritzia, arrazoi, zergati, ondorio eta abarrei buruzko jakiteko. “Sakoneko elkarrizketa informazioa trukatzeko asmoz pertsona bi harremanetan jartzen dituen prozesua da. Elkarrizketagileak jakin nahia, erantzuteke motibazioa, konfiantza eta emandako datuak behar bezala erabiliko direlako bermea eskaintzen dio elkarrizketatuari. Horren guztiaren truke, elkarrizketatuak informazioa eskainiko dio elkarrizketagileari” (Juaristi, 2003: 147). Edo, beste berba batzuekin esanda, “... teknika honen bidez, norbanako batek elkarrizketatzaileari ahoz ematen dio egoeraren bere definizio pertsonala” (Ruiz de Olabuenaga, 1996: 166). Izan ere, “... sakoneko elkarrizketak elkarrizketatuaren subjektibotasuna bilatzen du” (Juaristi, 2003: 144). Elkarrizketa, beraz, bi pertsonen artekoa da eta beti gorde egin behar da elkarrizketatuaren izena (eta elkarrizketatua nor izan daitekeen antzemateko bideak ere gorde egin behar dira). Baina elkarrizketa ez da inprobisatua, gidoia du (nahiz eta malgua izan) eta gidoiak markatuko du elkarrizketa guztien erritmoa.

Elkarrizketa harreman soziala da, baina ez da berezkoa: “Prozesu artifiziala da eta, haren bidez, elkarrizketatzaileak egoera zehatza sortzen du” (Ruiz de Olabuenaga, 1996: 165). Hori dela eta, “zarata” modu asko egon daiteke elkarrizketetan.

⁹⁰ Elkarrizketetako bat epealdi horretatik kanpo egin behar izan nuen elkarrizketatuak gaixotasun larri bat izan zuelako. Hori dela eta, atzeratu eta 2019ko urtarrilean egin nuen delako elkarrizketa.

Elkarrizketatzailearen helburua hori ahal bezainbeste murriztea da. Horretarako, lehenik eta behin, elkarrizketarako baldintza egokienak bilatu behar ditu elkarrizketatzaileak. Horretarako, elkarrizketarako hitzordua zehazteko orduan, elkarrizketatu guztiei azaldu dizkiet ahalik eta zehatzen elkarrizketaren nondik norakoak. Bestetik, elkarrizketa egiteko elkarrizketatuak egokien iritzi dion eguna eta ordua zehaztu egin du. Lekua ere hein handi batean elkarrizketatuak aukeratu du, baina nik neuk adierazitako gutxieneko baldintzak betez gero. Horrez gain, elkarrizketatu bakoitzari elkarrizketa grabatzeko baimena eskatu egin diot (baita baimen hori grabatu ere).

Izan ere, sakoneko elkarrizketak lasaitasuna eta etxekotasuna eskatzen du (Juaristi, 2003: 139). Hau da, konfiantzazko harremana lortu behar da. Baina horrek ez du esan gura elkarrizketa profesionala izan behar ez denik. Horretarako, elkarrizketa “... era kontrolatuan eta ez era inprobisatuan egin behar da” (Juaristi, 2003: 140). Gainera, elkarrizketatzaileak errespetua adierazi behar dio elkarrizketatuari. Errespetua ezinbestekoa baita komunikazio ona lortzeko.

Baina sakoneko elkarrizketak ere baditu bere mugak. Ikertzailea elkarrizketatuaren menpe dago eta horrek asko baldintza dezake elkarrizketatik atera daitekeen informazioaren edo jakintzaren balioa. Horregatik, beharrezkoa da elkarrizketatuak esaten dituenak egiaztatzea. Batetik, datu eta aipamen deskribatzaileak egiaztatu egin dira beste iturri batzuk erabilita (liburuak, artikulua, beste elkarrizketatu batek emandako informazioak, ...). Bestetik, inkoherentziak, inkonsistentziak eta abar kontrolatu behar izan ditut, beste iturri batzuetatik lortutako informazioarekin alderatuta.

Horrez gain, garrantzi berezia du sakoneko elkarrizketetan elkarrizketatzaileak. Izan ere, “... elkarrizketatzailea ia-ia artisaua izan behar da, elkarrizketatzaile eta entzule fina bezain enpatikoa, eta elkarrizketa luzatu behar du eta lortu behar du aurretiaz diseinatutako galderak elkarlotzea erantzunekin eta ezagutza-landa zabal bateko edukiekin” (Betancor, Cilleros, 2013). Hortaz, ahal den neurrian, horiek guztiak izan ditut buruan eta mingainean elkarrizketak egiterako orduan.

Sakoneko elkarrizketa guztietara gidoiarekin⁹¹ joan naiz. Gidoia, baina, orientatiboa izan da eta, kasurik gehienetan, jarraitu badut ere, ahal izan dudanean neurrian ahalegindu naiz elkarrizketatuari espazioa ematen eta bera izan da, kasu batean baino gehiagotan, elkarrizketaren nondik norakoak gidatu dituen. Elkarrizketak

91 Sakoneko elkarrizketetan erabilitako gidoia 3. eranskinean dator.

egin ostean, horiek guztiak transkribatu egin ditut⁹². Transkripzioetan euskalkiei lotutako aldaketa fonetikoak euskara batuaren arauetara ekarri izan ditut, oro har. Izan ere, elkarrizketatu gehienek beren herriei lotutako berbakera erabili izan dute elkarrizketan zehar, salbuespenak salbuespen.

Elkarrizketatuak aukeratzeko hainbat irizpide izan nuen buruan. Jarraian datoz horiek zehatz-mehatz azalduta. Baina, hasi aurretik, aintzat hartu behar da elkarrizketatuak aukeratzeko irizpide horiek guztiak, ahal den heinean, gurutzatu egin ditudala eta, hortaz, elkarrizketatu bakoitzak irizpide bat baino gehiago betetzen saiatu naiz. Honako hauek dira, beraz, irizpideak:

- Elkarrizketatuen jarduera soziokulturala: hau da, elkarteetan jarduterakoan bete duen rola. Beste berba batzuekin adierazteko, elkarteetan langile⁹³ edo aktibista jardun duen.
- Genero irizpidea: emakume eta gizonen arteko oreka ahalik eta gehien lortzen ahalegindu naiz.
- Irizpide geografikoa: euskal lurralde guztietako pertsonak elkarrizketatu izan ditut. Hala ere, irizpide geografikoa ez da izan aitzakia lurralde guztiei pisu bera emateko. Izan ere, Gipuzkoak bereziki (baina baita Bizkaiak ere) pisu handiagoa izan du. Horren zergatia izan da Gipuzkoan (eta Bizkaietan) dagoela gaur eta hemen (aurreko hamarkadetan oraindik garbiago zen) euskara elkarte gehien. Guztira, 26 euskara elkarte izan ditut aztergai ikerketa honetan. Elkarte horiek guztiak euren burua euskara elkartetzat dute, izendapenak izendapen. Horieta-tik 25, gainera, Topagunera federatutako elkarteak dira. 26.a⁹⁴, ostera, ez da federatu, nahiz eta harremana izan Topagunearekin. 26 elkarte horiek aukeratzeko irizpidea hauxe izan da. Batetik, herrialde bakoitzeko bana (Ipar Euskal Herri osoa herrialde bakartzat hartu da). Bestetik, hiriburuetako elkarteak (Bilbo, Donostia, Gasteiz eta Iruñekoak). Eta, hirugarrenik, Topagunetan federatutako herrialde bakoitzeko kopuruaren arabera besteak. Hortaz, 11 elkarte aztertu dira Gipuzkoan, 7 Bizkaietan, 3 Nafarroan, 3 Araban eta bakarra⁹⁵ Ipar Euskal Herrian.

92 Elkarrizketak entzun edo transkripzioak irakurtzeko jo 5. eranskinean dagoen CDra.

93 Elkarteetako langile izan diren eta diren askok euren burua ere aktibizatzen dute, langile-aktibista izeneko rola hain zuzen ere. Ni ez naiz sartu horretan lagina egiteko orduan, nahiz eta jakitun izan eragin handia izan dezakeela egunerokoan. Hortaz, lan kontratua elkarteetan izan dutenak langiletzat hartu ditut eta lan kontraturik izan ez dutenak aktibista. Gehiago sakontzeko, begiratu Elgoibarko Izarra, 1995.

94 Ipar Euskal Herriko elkarteak da Topagunera federatuta ez dagoen elkarte bakarra. Esan bezala, federatuta ez egon arren, harreman sendoa du elkarteak Topagunearekin. Era berean, ezin da ahaztu Topagunetik ez duela izan Ipar Euskal Herriko elkarerik federatuta orain arte.

95 Ipar Euskal Herrian jardunbide jarraia eta iraunkorra duen elkarte bakarra topatu dut ikerketa egiterakoan. Hortaz, elkarte hori hartu dut kontuan bakarrik, nahiz eta nire asmoa beste elkarte bat gutxienez aintzat hartzea izan.

- Elkarteetan jardundako sasoia eta garaia: hamarkadaka banatu dut euskara elkarten historia eta, horren arabera, izan dira aukeratuak elkarrizketatuak. Egia da horietako gehienek hamarkadako epe estu horietan baino denbora tarte zabalagoetan jardun dutela euskara elkarteetan. Hala ere, hamarkada zehatz batean jardun dute besteetan baino intentsuago. Hori da izan aukeratzeko arrazoi nagusia: jardundako intentsitatearen arabera aukeraketa, hain zuzen ere. Irizpidea apur bat lausoa badirudi ere, eraginkorra den irizpidea iruditu zait. Gero, egia da elkarrizketetan hainbat sasoiak ekarpenak eta bizipenak tartekatu direla, baina antolaketa lan egoki baten ostean, sasoiak sailkapena eragingarria dela begitantzen zait.
- Elkarte handi zein txikietan jardun duen jendea: elkarten artean sekulako aldeak daude. Elkarte batzuk handiak dira (bazkide asko, langile batzuk, jarduera esparru zabala) eta beste batzuk, aldiz, txikiak (bazkide gutxi, langile gutxi edo bat bera ere ez, jarduera esparru bakarra sarritan). Hori dela eta, saiatu naiz mota bi horietako elkarteak aukeratzeko.
- Elkarten sorrera urteari dagokion aldagaia ere izan dut aintzat. Hainbat sasoiak (aurretik aipatutako hiru hamarkada horiek hain zuzen ere, 87-97, 97-07, 07-17) sortutako (eta kasuren batean birsortutako) elkarteak aztertu izan ditut, herrialderik herrialde.
- Euskara elkarten nolakotasun anitza ere aintzat hartu dut: aniztasuna funtzioari dagokionez (hainbat jardunbideri erantzuten dioten elkarteak, jardunbide bakarrari erantzuten diotenak), aniztasuna herrien tamainari dagokionez (herri handiak⁹⁶ eta ertainak⁹⁷ hartu izan ditut kontuan), aniztasuna ere eremu geografikoari dagokionez (udalerrri mailako elkarteak bai, baina baita auzoko elkarteak eta eskualde mailako elkarteak hartu ditut aintzat), aniztasuna antolaketa eta egiturari dagokionez (ia erabat profesional bezala osatutako elkarteetatik aktibista edo boluntario hutsez osatutako elkarteetara), ...Aurretik aipatutako irizpide guztiak gurutzatu egin ditut eta, ahal izan dudanean, elkarrizketatu bakoitzak irizpide bati baino gehiagori erantzutea bilatu dut. Gurutzaketa horren guztiarekin, honako matrize hau osatu dut:

96 Herri handitzat hartzen ditut 25.000 biztanletik gorakoak eta herri ertaintzat 5.000-25.000 biztanle artean daudenak.

97 Herri txiki oso gutxitan daude jardunbide jarraia eta iraunkorra duten elkarteak. Hortaz, nahiago izan dut horiek ikerketatik kanpo uztea.

Taula 2: Sakoneko elkarrizketen matrizea

Zk.a	Elkartea	Elkartearen nolakotasuna	Elkartearen jardunbideak	Herriaren tamaina	Noiz	Non	Adina	Generoa	Langile ala aktibista?	Noiz jardun du elkartean?
SE01 ⁹⁸	AED	Handia ⁹⁹	Ohikoa ¹⁰⁰	Ertaina ¹⁰¹	2019/01/24	Elorrión	61-...	Gizonezkoa	Langile	87-97
SE02	eta kitto	Handia	Ohikoa	Handia ¹⁰²	2018/09/21	Eibarren	51-60	Emakumezkoa	Aktibista	87-97
SE03	Izarra	Handia	Ohikoa	Ertaina	2018/09/07	Elgoibarren	51-60	Gizonezkoa	Langile	87-17
SE04	Jardun	Handia	Ohikoa	Ertaina	2018/10/05	Bergaran	51-60	Gizonezkoa	Aktibista	87-97
SE05	Bagera	Handia	Ohikoa	Handia	2018/07/09	Donostian	61-...	Gizonezkoa	Aktibista	87-97
SE06	Zenbat gara	Handia	Ohikoa	Handia	2018/09/26	Bilbon	51-60	Emakumezkoa	Langile	87-17
SE07	Berbaizu	Txikia	Ohikoa	Handia ¹⁰³	2018/05/26	Bilbon	51-60	Gizonezkoa	Aktibista	87-17
SE08	Karrikiri	Handia	Ohikoa	Handia	2018/09/15	Iruñean	61-...	Gizonezkoa	Langile	87-17
SE09	Bizarra lepoan	Handia	Ohikoa	Handia	2018/05/22	Getxon	31-40	Emakumezkoa	Langile	97-17
SE10	Karrikaluze	Handia	Ohikoa	Ertaina	2018/09/14	Iruñean	51-60	Gizonezkoa	Aktibista	97-07
SE11	Tximintx	Txikia	Ohikoa	Ertaina	2018/06/07	Derion	31-40	Emakumezkoa	Aktibista	97-07
SE12	Pil-pilean	Txikia	Ohikoa	Ertaina	2018/05/18	Soraluzen	31-40	Gizonezkoa	Langile	97-17
SE13	Euskarabila	Txikia	Ohikoa	Handia	2018/05/15	Basaurin	51-60	Emakumezkoa	Aktibista	97-17
SE14	Ttakun	Handia	Ohikoa	Ertaina	2018/06/19	Bilbon	41-50	Gizonezkoa	Langile	87-07
SE15	Asapala	Txikia	Ohikoa	Handia ¹⁰⁴	2018/06/06	Bilbon	41-50	Gizonezkoa	Aktibista	97-07
SE16	Goiena	Handia	Hedabidea	Handia ¹⁰⁵	2018/10/24	Arrasaten	41-50	Gizonezkoa	Langile	97-17
SE17	Blagan	Txikia	Ohikoa	Ertaina	2018/06/01	Arrasaten	31-40	Gizonezkoa	Aktibista	07-17
SE18	Geu	Handia	Ohikoa	Handia	2018/06/13	Gasteizen	31-40	Emakumezkoa	Langile	07-17
SE19	Kurkuluxetan	Handia	Ume eta gazteen aisialdia	Handia	2018/10/30	Bilbon	51-60	Gizonezkoa	Langile	97-17
SE20	Ttiki-ttaka	Txikia	Ohikoa	Ertaina ¹⁰⁶	2018/10/10	Lapuebla de Labarkan	41-50	Gizonezkoa	Aktibista	97-17
SE21	Galtzaundi	Handia	Ohikoa	Handia ¹⁰⁷	2018/09/25	Amezketan	21-30	Gizonezkoa	Langile	07-17
SE22	Berbaro	Handia	Ohikoa	Ertaina	2018/06/04	Durangon	21-30	Emakumezkoa	Langile	07-17
SE23	Aiaraldea	Handia	Hedabidea	Handia ¹⁰⁸	2018/06/20	Laudion	21-30	Emakumezkoa	Langile	07-17
SE24	Garean	Txikia	Ohikoa	Ertaina	2018/09/15	Lizarran	41-50	Emakumezkoa	Aktibista	07-17
SE25	Zabalik	Txikia	Ohikoa	Ertaina ¹⁰⁹	2018/07/14	Donapaleun	41-50	Gizonezkoa	Aktibista	07-17
SE26	Loramendi	Txikia	Ohikoa	Ertaina	2018/07/21	Arrasaten	31-40	Emakumezkoa	Aktibista	07-17

Taula 2: nik egindako taula.

98 Elkarrizketa bakoitzari zenbaki bat eman diot. Horretarako, hamarkadaz hamarkada antolatu ditut elkarrizketak eta gero hamarkada bakoitzean ausaz eman diot zenbakia elkarte bakoitzari.

99 Elkarte bat handitzat hartzeko hartu dudun irizpidea honako hau da: gutxienez, langile bi izatea lanean elkarrekin jardun osoz. Beteki-zun hori betetzen ez duten elkarrekin txikitat hartu izan ditut.

100 Jardunbide ohikotzat hartu izan dut elkarrekin ez izatea jardunbide bakarra helburutzat. Beste kontu bat litzateke zer litzatekeen ohikoa eta zer ez, elkarrekin artean dagoen aniztasuna aintzat hartuz. Hortaz, ohikoak ez diren elkarrekin dira jardunbide bakarrari oratzen diotenak, izan hedabideak edo izan ume eta gazteen aisialdia lantzen dutenak.

101 Herri ertainak dira 5.000 eta 25.000 biztanle artekoak.

3.3.3 Delphi teknika

Hirugarrenik, testuetatik zein elkarrizketetatik ondorioztatutako hainbat kontraesan edo kontrapuntu antzeman nituen. Hori dela eta, kontraesan edo kontrapuntu horien gaineko zelanbaiteko kontrastea egin nahi izan nuen. Jakina da testuetan eta, zer esanik ez, elkarrizketetan bakoitzaren hautemate eta sentsazioek agintzen dutela. Hori dela eta, irakurketa pausatuago bat egin behar zelakoan nengoen eta, horretarako, hain zuzen ere, Delphi teknikaren alde egin dut.

Arrazoi askok bultzatu naute teknika honen alde egitera. Hasteko eta behin, ikerketa-gaiari heltzeko biderik onena gizakiei galdetzea dela uste dut. Eta, kasu zehatz honetan, euskararen aldeko mugimenduaren inguruan teorizatu edo eus-kalgintzaren inguruan teorizatu duten hainbat aditu eta arituri galdetzea dela biderik onena erabaki nuen. Baina, jakina, gizakiei galdetzeko beste metodo batzuk ere badaude (sakoneko elkarrizketak, bizitza historiak edo eztabaida taldeak, besteak beste) eta, beraz, azterketa gehiago findu beharko dut Delphiren egokitasuna agerian uzteko.

Abantaila batzuk baditu Delphi teknikak beste teknika kualitatibo horiekin alderatuta (Ruiz Olabuenaga, Ispizua, 1989: 174). Batetik, denbora gutxi duten pertsonengandik informazioa lortzeko bide erraza da. Eta, sarritan, iritzi lidereko edo adituak direnek denbora gutxi izan ohi dute eta zaila da taldeko kide horiek guztiak leku eta ordu berean biltzea. Bestetik, landa-lana beste teknika kualitatibo batzuetan baino errazago prestatzen da. Horrela, dirua eta denbora aurrezteko modua dakar eta kasu zehatz honetan eragina izan du horrek ere. Hirugarrenik, ikertzaileak eragin dezakeen “zarata” ere murriztu egiten da. Izan ere,

102 Herri handiak dira 25.000 biztanletik gorakoak.

103 Bilboko Deustu inguruko auzoetan egiten du lan elkarte honek, Deustua, Ibarrekolanda, San Inazio, Elorrieta eta Arangoiti auzoetan hain zuzen ere. Elkarteak inguru horri Deustualdea deitzen dio eta Bilboko Udalaren 1. Barrutia litzateke eremu hori.

104 Bilboko Mahatserri aldean egiten du lan elkarte honek, Santutxu, Begoña, Bolueta, Uribarri, Zurbaran, Txurdinaga eta Otxarkoaga auzoetan. Mahatserri inguru honek hartzen ditu lehen Begoñako errepublikako udalerriko mugak.

105 Debagoiena eskualdean egiten du lan elkarte honek: Leintz-Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta, Aramaio, Arrasate, Oñati, Elgeta, Bergara eta Antzuolan.

106 Arabako Errioxako eskualdean (Bastida, Bilar, Ekora, Eltziego, Kripan, Guardia, Lantziego, Lapuebla de Labarca, Leza, Mañueta, Moreda, Navaridas, Oion, Samaniego eta Villabuena udalerriak) eta Vianan egiten du lan elkarte honek.

107 Tolosaldea eskualdean egiten du lan elkarte honek: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amasa-Villabona, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa eta Zizurkilen.

108 Aiaraldea eskualdean egiten du lan elkarte honek: Aiara, Amurrio, Arrankudiaga-Zollo, Artziniega, Laudio, Okondo, Orozko eta Urduñan.

109 Amikuze eskualdean egiten du lan elkarte honek: Aiziritze-Gamue-Zohazti, Amendüze-Unaso, Amorotze-Zokotze, Arberatze-Zilhekoa, Arboti-Zohota, Arrueta-Sarrikota, Behauze, Behaskane-Laphizketa, Bithiriña, Donapaleu, Gabadi, Garruze, Ilharre, Labetze-Bizkai, Larribarre-Sorhapürü, Lüküze-Altzumarta, Martxueta, Oragarre, Ostankoa eta Uhartehiri udalerrietan.

beste teknika horietan ez bezala, ikertzailearen papera nahiko txikia da eta horrek erantzunen kalitatean ere eragin dezake. Laugarrenik, teknika honek anonimatu handia eskaintzen du eta horrek gai korapilatsu samarretan (ikerketaren gaietako batzuk horrelakoak izan zitezkeela aurreikusi egin nuen) erantzun gardenagoak eta zuzenagoak eman ditzake. Eta bosgarrenik eta azkenik, parte hartzaileek beste teknika batzuetan baino denbora gehiago dute erantzunak prestatzeko eta, hortaz, parte hartzaileen erantzunek freskotasuna galdu arren, sakontasun eta sendotasun gehiago ematen dute.

Delphi teknika, hortaz, oso suposizio errazetik abiatzen da: lau begik bi begik baino gehiago ikusten dutela, alegia. Hau da, norbanako baten iritzia berdintasunez parte hartzen duten pertsona talde baten iritzia baino fidagarritasun gutxiago du. Delphik, azken finean, iritzien inguruko analisia baino ez du egiten. Baina, kasu honetarako ere, eztabaida taldeek balio ahal izango zuten talde iritzi hori lortu ahal izateko.

Hala ere, bi teknika horien artean Delphiren alde egin dut. Zer dela eta? Eztabaida taldeek berez dituzten zailtasunak direla eta. Izan ere, aditu talde baten iritzia jasotzeko eztabaida taldeek oztopo batzuei egin behar diete aurre (Juaristi, 2003: 171). Batetik, norbanako menperatzaileen eragina saihestea zail dute (gehien berba egiten duena, prestigio sozial handiena duena, nortasun indartsuagoa duena, hizkera teknikoagoa erabiltzen duena, ...). Sarritan, taldeetan norbanako hauek monopolizatu egin dezakete eztabaida. Era berean, askotan eztabaida taldeetan gai baten inguruan aritu ahal gara ezbaian, eta ikerketarako interesgarriak diren beste gai batzuk landu barik geratzea.

Bestetik, zaila da talde batean norbanakoek dituzten interesek eztabaidan eraginik ez izatea. Beste berba batzuekin esanda, zaila da zarata semantikoari ixkin egitea. Hirugarrenik, eztabaida taldeetan zaila da talde presioari aurre egitea. Hau da, mila aldiz frogatu dute ikertzaile psikologikoeek askotan norbanakoek taldearen iritzi nagusira makurtzeko duten joera. Eta, azkenik, eztabaida taldeetan askotan norbanakoek taldeetara etiketatuta etortzen dira. Taldeak berarengandik iritzi eta uste batzuk espero ditu eta askotan norbanakoak berak iritzi horietara makurtzen du bere burua.

Zailtasun hauek guztiak eztabaida taldea bazterrean uztera bultzatu naute. Ikerketa gaia aintzat hartuta, aditu/aritu horien iritzia jaso nahi nuen ahalik eta modurik gardenean. Nahi nuen ahalik eta “zarata” gutxien izatea adituen iritzien

inguruan, nahi nuen ahalik eta modurik askeenean garatzea gaiaren inguruko eztabaida (Linston, Turoff, 2002: 71-72).

Beraz, Delphi teknika berariaz diseinatu da talde eztabaida horietan egon daitezkeen zailtasunak gainditu ahal izateko. Horrela Delphiren bidez, ezabatu egiten da taldeko pertsona menperatzaileen joera, zarata semantikoa saihesten da eta norbanakoaren iritzia talde presioaren aurrean babestu egiten da. Teknikak, izan ere, hiru ezaugarri nagusi ditu (Ruiz Olabuenaga, Ispizua, 1989: 175-176):

- Anonimatua: subjektuak banaka eta anonimoki elkarrizketatu egiten dira. Horrela, beste adituek ezin dute jakin aditu bakoitzak zer iritzia duen gaiari buruz. Horrela etiketajea saihesten da, eta adituak erabateko askatasunarekin adierazteko modua izango du.
- Feedback kontrolatua: Delphik garatzen du ikerketa itzuli batzuen arabera, haietako bakoitzean adituak bere iritzia ematen du, aurretik emandako iritzien laburpena irakurri eta gero. Horrela, zarata semantikoa saihesten da, edozein momentutan eztabaida bideratu daiteke eta bakoitzak izan ditzakeen interesak gutxitu egiten dira.
- Adituak edozein momentutan daki zein punturaino hurbiltzen (edo urruntzen) den taldearen iritzia orokorrera. Eta horrek egiten du inoiz ez duela bere iritzia justifikatu behar izatea.

Gainera, Delphi teknikaren bidez posible da adituen arteko adostasunei ere leku egitea. Alde batetik, ados egon daitezkeen puntuak ondorioztatzea posible da eta, beste alde batetik, adostasunik ez izan arren, arazo nagusiak identifikatzea posible da. Hau da, ados egon ez arren, adituak bat etor daitezke arazoaren dimentsio nagusienak zeintzuk diren.

Hau guztia aintzat hartuta, hautu metodologiko egokiena Delphi dela ondorioztatu nuen. Behin teknika aukeratuta, askatu beharreko bigarren korapiloa izan da teknika horrekin norengana jo informazio eske. Lehenik eta behin, euskara elkartearen inguruan edo euskalgintzaren inguruan ikertu edo idatzi duten 40 pertsonen zerrenda egin nuen. Horretarako, hainbat iturri bibliografikoetara jo nuen. Baina, hala ere, zerrenda luzeegia zen eta, gainera, oso desorekatua zegoen genero, adin eta jatorri aldetik. Hortaz, 40 pertsonako zerrenda hori galbahetu eta 24 pertsonako bigarren zerrenda bat osatu nuen. Bigarren zerrenda honetan lehentasuna izan zuten euskara elkartearen gainean ikertu edo idatzi duten pertsonak eta,

premia horretatik abiatuta, saiatu izan nintzen adin, genero eta jatorri aldetik orekatzen, ekarpen esanguratsuak etorriko zirelakoan aniztasunetik.

Oreka zail horrek, hala ere, ez zuen errealitatearen bigarren galbahea pasatu. Izan ere, bidalitako 24 horietatik 16 pertsonak erantzun zioten galdetegiari¹¹⁰ eta, zelanbait, nik osatutako oreka zail hori zartatu zuten. Izan ere, 16 horiek ez dituzte nik egindako zerrendak adierazten zuen aniztasun bera islatzen. Hortaz, honako ezaugarri hauek dituzte galdetegia erantzun duten pertsonak:

Taula 3: Delphi galdetegian parte hartu dutenen matrizea

ADINA	JATORRIA	GENEROA	IKERTU ALA TEORIZATU?	EUSKARA ELKARTEAK ALA EUSKALGINTZA?
31-40	Gipuzkoa	Gizonezkoa	Ikertu	Euskara elkarteak
51-60	Gipuzkoa	Gizonezkoa	Ikertu	Euskara elkarteak
51-60	Bizkaia	Emakumezkoa	Teorizatu	Euskalgintza
61-...	Nafarroa	Gizonezkoa	Teorizatu	Euskalgintza
61-...	Araba	Gizonezkoa	Ikertu	Euskalgintza
51-60	Gipuzkoa	Gizonezkoa	Ikertu	Euskalgintza
41-50	Bizkaia	Gizonezkoa	Teorizatu	Euskara elkarteak
51-60	Gipuzkoa	Emakumezkoa	Teorizatu	Euskara elkarteak
61-...	Gipuzkoa	Emakumezkoa	Teorizatu	Euskalgintza
31-40	Lapurdi	Gizonezkoa	Teorizatu	Euskalgintza
51-60	Gipuzkoa	Gizonezkoa	Ikertu	Euskara elkarteak
41-50	Bizkaia	Gizonezkoa	Ikertu	Euskara elkarteak
41-50	Araba	Gizonezkoa	Ikertu	Euskalgintza
41-50	Gipuzkoa	Gizonezkoa	Teorizatu	Euskalgintza
41-50	Nafarroa	Emakumezkoa	Teorizatu	Euskara elkarteak
51-60	Gipuzkoa	Gizonezkoa	Ikertu	Euskara elkarteak

Taula 3: nik egindakoa.

3.3.4 Iturri ez-zuzenen azterketa

Lugarrenik eta azkenik, elkarteek eurek ekoiztako idatzizko materialak aztertu ditut. Sistematikoki aztertu ditut Topaguneak ekoiztako barne buletinak

¹¹⁰ 4. eranskinean dator aditu eta arituei bidalitako sarrera testua eta horri lotutako galdetegia.

(Topaberri izenekoak, hasieran paperean eta gero sarean). Horrez gain, Topaguneak urtero egiten dituen gestio-planak ere aztertu ditut, baita hainbat euskara elkarteren barne dokumentazioa ere.

Horretarako, iturri ez-zuzenen azterketa teknika baliatu dut. Patxi Juaristiren arabera, "... iturri ez-zuzenen azterketa beste pertsona edo erakunde (erakunde publiko zein pribatuak, ikerlariak, gobernuz kanpoko erakundeak...) batzuk bildu, sortu edota gorde dituzten estatistika, dokumentu, grabaketa eta material pertsonalen (biografiak, egunerokoak, memoriak, eskutitzak, argazkiak, edozein erregistro ikonografikoak edo ondasun pertsonalak...) azterketan oinarritzen den ikerketa teknika da" (Juaristi, 2003: 229). Kasu honetan, erakunde baten artxibategia erabili dut azterketa hau egiteko: Topagunearen artxibategia, hain zuzen ere.

Teknika honek, beste guztiak bezala, abantailak eta desabantailak ditu. Abantailai dagokienez, iturri ez-zuzenak aztertzeak kutsatu gabeko informaziora heltzea ahalbidetu dezake. "Iturri ez zuzenen azterketarekin, datuak sortu zein gordetzen dituenak ez daki datu horiek nola erabiliko diren etorkizunean; beraz, errealitatea hobeto islatzen duten datuak lortu daitezke. Beste hitz batzuekin esanda, ikertzaileak datuen bilketan parte hartzen ez duenez, kutsatu gabeko informazioa lortzen du" (Juaristi, 2003: 230). Horrez gain, merkea eta bizkorra da teknika honen bidez datuak eraztea.

Desabantailak ere baditu eta, horien artean, nabarmenena da informazioa gordetzean sistematikotasun eza. Patxi Juaristik honela dakar: "Gerta daitekeena da informazioa artxibatzen edo gordetzen duten pertsonak eta erakundeek ez dutela informazio guztia era sistematikoan gordetzen" (Juaristi, 2003: 231). Eta azterketa honetan ere hori berori gertatu da.

Izan ere, Topaguneak sistematikoki gorde ditu berari dagozkionak: barne-buletinak eta urteko gestio planak (beste hainbat gauza ere gorde du, baina ikerketa honetan bi horiek izan dira interesguneak). Elkarteen inguruko informazioa ere gordetzen du Topaguneak, baina kasu honetan ez da inondik ere sistematikoa. Alde batetik, hainbat elkartek ez diotelako helarazi Topaguneari informazioa eta, beste alde batetik, Topaguneak ere ez diolako gai honi garrantzi gehiegirik eman. Hortaz, elkarte batzuen inguruko informazio nahikoa dago, beste batzuen inguruan informazio apur bat eta beste batzuen inguruan, azkenik, informaziorik ez.

Beraz, sistematikoa izan da azterketa Topagunearen dokumentazioari dagokionez. Horretarako, aztertu egin ditut Topagunearen barne-buletin guztiak, To-

paberri izenekoak. Lehen buletina 1997an argitaratu zuen Topaguneak eta paperean jarraitu zuen argitaratzen 2009ra arte¹¹¹. Urte horretan azken zenbakia atera zuen, 66.a. Hala ere, orduan hasi zen onlineko buletina argitaratzen Topagunea. Aztertutako azken zenbakia 206. izan da, 2017ko azaroan argitaratua¹¹². Barne buletinak ez ezik, Topagunearen urteko gestio planak ere aztertu ditut, 2002tik 2017ra bitartean (2002an egin zuen Topaguneak lehendabiziko gestio plana).

Horrez gain, Topaguneak bere bulegoetan duen bestelako iturri batzuk ere aztertu ditut: elkarte zenbaiten sorrera-txostenak (AED, Bagera, Berbaro, Dobera edo Deustuari euskara dariola), elkarte batzuen historia batzen duen aldizkari edo agerkaririk (Ttakun edo Elgoibarko Izarra) eta bestelako dokumentu batzuk (ikerketa soziolinguistikoak, programa zehatz batzuen inguruko dokumentazioa eta abar). Hauek guztiak esan bezala, ez dira sistematikoak izan eta, hortaz, dagoena aztertu dut, baina elkarte askoren informazioa falta da eta dauden elkarten inguruko hainbat informazio ere bai. ■

111 Maiztasun finkorik gabe aritu izan da Topagunea bere paperezko buletinak argitaratzen. Batez beste, urtean 5 buletin argitaratu zituen Topaguneak 1997tik 2009ra.

112 Buletin digitalarekin Topaguneak maiztasuna azkartu zuen eta, batez beste, hilean bi buletin eman zituen argitara urte hauetan guztietan.

4. Azterketa: Galderei emandako erantzunak

Arlo kontzeptuala ainguratu ostean, euskara elkarten fenomenoari hurreratzeko erabili ditudan helburuak, hipotesiak eta azterpideak zehaztu ditut. Horren ostean, horra hurbiltzeko moduak, begiradak eta teknikak ere aipatu ditut. Hor-taz, orain fenomenotik zer eta zelan ikertu dudana aletzeko ordua heldu da.

4.1 Sarrera

Gogoratu behar da helburu nagusia dela euskara elkarteek zer lortu duten 1987 eta 2017 urteen artean. Baina, horra heltzeko, testuinguratze ahalegin berezia behar dela uste dut. Horregatik, lehenik eta behin, euskara elkarten genealogiak aztertu ditut, euskara elkarten historia, beste berba batzuekin adierazteko. Horren ostean, elkarten taxonomia aztertu dut, hau da, elkarteak zelakoak diren, zelan sortu ziren, nortzuek hartu eta hartzen duten parte eta abar. Hirugarrenik, euskara elkarten jarduna ezaugarritu duten zutabe eta aingura teoriko nagusiak aztertu ditut. Laugarrenik, elkarteek euren buruei ezarritako helburuak izan ditut aztergai. Bosgarrenik, elkarten praktikak aztertu ditut, hau da, elkarteek 30 urte hauetan herririk herri egin dituzten ekintzak eta lanak aztergai izan ditut. Hori guztia testuinguratzeko, hori guztia emaitzetara heltzeko.

Aurretiazko lan horiek guztiak, gainera, orain arte egin barik egon dira. Inork ez du hartu lana euskara elkarteen historia egiteko edo elkarteen oinarri filosofiko edo teorikoetan gertatu den garapena azaltzeko edo elkarteek urte hauetan garatutako ekintza nagusienak era holistikoa batean aztertzeko (ekintza edo ekinbide batzuk bai aztertu dituzte, batez ere, herri hedabideen kasuan, baina modu holistikoa ez). Hortaz, nire ustez, ikerketa honen muina diren emaitzetara heltzeko ezinbestekoa zen era sistematikoan horiei guztiei ekitea, emaitzak eurak ere testuinguruan kokatzeko eta elkarteen jardunarekin argazki orokor eta holistikoa izateko.

Azterketa honek, beraz, euskara elkarteen inguruko hainbat eta hainbat gairi eragiten dio. Eta, horretarako, ikerketa tekniken arteko guztiak erabili izan ditut: testuen azterketa, sakoneko elkarrizketak, delphi galdetegia eta iturri ez-zuzenen azterketa. Denak nahasian, dena ore baten moduan. Izan ere, ahotsen polifoniak (sakoneko elkarrizketetatik eta delphi galdetegitik eratorritako aipuak, hain zuzen ere) lehentasuna badu ere, bestelako tekniken bidez (eta bibliografia orokorragotik) erauzitakoak ere erabili ditut, alde batetik, ikerketan parte hartu dutenen hutsuneak estaltzeko (hau da, hainbat gairi buruz ahotsetatik etorri ez diren aipamenak, gogoetak edo emaitzak); eta, bestetik, ikerketan parte hartu dutenen ekarpenak borobiltzeko eta sendotzeko.

Testu eta iturri ez-zuzenen azterketatik ateratako informazioa testuan zehar agertuko da dagokion erreferentzia bibliografikoen arabera, bestelako marka bariarik (beste edozein erreferentzia bibliografiko agertzen den modu berean, alegia). Sakoneko elkarrizketetatik erauzitako informazioari dagokionez, berriz, elkarrizketatu bakoitzaren berbak zenbaki batekin kodetu egin ditut (01etik 26ra) eta, aurretik, SE siglak jarri. Hortaz, hortik ateratako aipuak SE05 edo SE21 kodeztearekin agertuko dira testuan zehar, adibidez. Delphi galdetegitik erauzitako informazioa, azkenik, sakoneko elkarrizketen antzera kodetu dut: batetik, inkesta bete dutenen berbak zenbaki batekin kodetu ditut (01etik 16ra) eta, aurretik, D berba jarri. Hortaz, Delphitik ateratako aipuak D04 edo D12 kodeztearekin agertuko dira testuan zehar, adibidez.

4.2 Euskara elkarteen historia

Testuinguru sozial eta politikoak markatzen du, hein batean, garai bakoitzeko ekintza kolektiboaren nolakotasuna. Une bakoitzan bizi den errealitateak baldintzatu egiten ditu mugimendu sozialen antolatze moduak, eta eragin azkarra du eraldatzeko gaitasunean, desioetan eta praktketan. Hortaz, historia edo genealo-

gia hau egiteko ezinbestean begiratu behar izan diot testuinguru politikoari, baita euskararen aldeko mugimendu sozialaren testuinguruari, beti ere fokua euskara elkartetan jarrita.

Historia kontatzen hasi aurretik, aipatu behar da hau hurbilpen bat baino ez dela. Epekatzea eta epekatzearen barruko edukiak proposamenak baino ez dira, egiteko dagoen euskararen aldeko mugimendu sozialaren historiarako txatal batzuk baino ez. Izan ere, ez dira aldi berezituak, bata besterekin gurutzatzen dira, baina nonbait eta norbaitek ezarri behar zituen mugariak. Nik egin dut, baina etorriko dira nire atzetik ikuspegi historiko hau ñabartu, osatu eta agian eraldatuko duten autore eta ikerketak.

4.2.1 Protohistoria: "Satorren garaia"¹¹³

Euskara biziberritzeko lehen saioak (behetik gorako saioak izan ere), lehenago ere aipatu dudan bezala, XIX. mendean hasi ziren Eusko Pizkundea deitutako mugimenduekin (ikus, esate baterako, Tejerina, 1992, Iztueta, 1996, Intxausti, 1990 edo Zalbide, 2007 eta 2015). Mugimendu horrek eten sakona izan zuen Espainiako 36ko gerraren ondorioz eta etenak iraun zuen frankismo betean ere. Izan ere, mugimendu hori sustengatzen zutenek gerra galdu zuten eta, gerra galtzarekin batera, oinarrian zegoen mugimendu osoa deuseztatu egin zen (Tejerina, 1992: 112).

50eko hamarkadan, oster, mugimendua berriro berpizten hasten da, loratzen hasten da, baina aurreko mugimenduekin eten nabarmena izan zuen. Izan ere, aurreko mugimenduko kide batzuk hilda zeuden, beste batzuk erbestean eta beste batzuk, azkenik, etxeko erbestean, erabat derrotaturik (Tejerina, 1992: 113). Hortaz, mugimendua berriro berpiztu zutenak gazteak izan ziren eta, zentzu batean, berreraikitzen hasi ziren guztia aurrekoek egindakoari jaramon gehiegirik egin barik (Zalbide, 2007). Kike Amonarrizek eta Iñaki Arrutik ere antzekoa diote: "Gerraondorengo mugimendu euskaltzalearen eta gerraurrekoaren arteko loturak eskasak izan dira. Mugimendu euskaltzalearen partaide gazteek oso berandu eza-gutuko dituzte gerraurreko pertsona eta mugimenduek irakaskuntza esparrutik kanpora begira luzatutako proposamenak eta bideratutako ihardunbideak (Amonarriz, Arruti, 1998).

113 Pedro Alberdik bere "Satorrak baino lurperago" liburuan frankismoaren azken urteetako euskal kulturaren giroa definitzeko erabili zuen satorraren adibidea, Alberdi, 2000. Mikel Aizpuruk ere erabiltzen du metafora bera (Aizpuru, 2003).

Euskararen aldeko mugimendu sozial berriaren datatzeari dagokionez, egileen artean kontraesanak daude. Batzuek 50. urtean paratzen dute hasiera (Iztueta, 2006); beste batzuek, ostera, 56ko belaunaldiaz¹¹⁴ egiten dute berba (Torrealdai, 2006); azkenik, besteren batek 68raino eramaten dute mugimenduaren sorrera-data euskara batuaren prozesuarekin bat eginez (Garabide, 2010). Lan honen ondorioetarako, berriz, ez du garrantzi berezirik mugimenduaren sorrera-data non jarri. Izan ere, aztertu nahi ditudan erakundeak (hau da, euskara elkarteak) 80ko hamarkadara arte ez baitziren sortu. Hala ere, merezi du, labur zurrean bada ere, frankismo beteko mugimendu honen gaineko zertzelada batzuk ematea. Izan ere, mugimendu honen magalean sortu baitziren aztergai ditudan erakundeak. Haren oinordeko eta jarraitzailetzat dute bere burua erakunde hauek.

Mugimendu honen zoko-mokoak marrazteko, hasteko eta behin, Joseba Intxaustik dakartzan berbak gogoratu nahiko nituzke, garai haietako errealitatearen zipriztinak han-hemenka barreiatu dituelako: “1960ra hurbiltzean, gerra egin gabeko gazteak datoz, euskal lantegian errelebo-indar oldartsua eskainiz. Hizkuntzaren aldeko grina, nabaria da: aldizkariak, taldeak, erakundeak, alor berriak, inbertsioak... Hizkuntza mintzatua, irakatsia, kantatua, idatzia... Astekariak, irriatiak... Kultur asteak, hamabostaldiak, bertso-txapelketak, jaialdiak... Ikastolak, alfabetatze-kanpainak, euskal Unibertsitaterako ahaleginak... Hizkuntza batasun-proiektuak... Kanta Berria, argialetxeak, liburu- eta diska-azokak... Euskal liburuaren eta kazetaritzaren goraldia...” (Intxausti, 1990: 148). Paulo Iztuetak ere horrela deskribatzen du hamarkada horietako giroa: “Kultur mugimenduaren antolatze eta sendotzea 1960ko hamarkadan gertatzen da, ETA mugimenduak maila politikoan nahiz kulturean dakarren alternatiba berriarekin. Aurreko hamarkadako kultur iharduera isolatuak orain txertatzen dira ekintza kolektiboaren gorputzean. Lehen pausoak ematen hasiberria zen euskal ezkerrentzat, hamarkada hau data-mugarria da. Gizarte-aldaketa sakonak gurutzatzen dira epealdi oso laburrean. Kulturgintzaren alorrean, hainbat ekimenek orduan dute beren loraldi betea, ideologian, kantagintzan, bertsolaritzan, euskararen berreskurapenean eta hezkuntzan, bereziki” (Iztueta, 1996: 340-341). Beraz, “... herri mugimendua hasten da azpiegitura minimo bat gorpuzten eta garatzen. Euskaltzaleak kalera irteten hasten dira, auzolanean antolatzen eta saretzen, egiteko ugariei heltzen hasteko” (Topalabea, 2015).

114 1956an sortu ziren Jakin, Euskera eta Olerti aldizkariak, Euskaltzaindiaren gerraosteko lehen bilkura egin zen Arantzazun, Parisen egin zen Mundu kongresua, Segura irratia sortu zen, Txillardegik idatzi zituen euskara batuaren aldeko lehen lanak eta abar. Ikastolak sortzearen inguruko mugimendua ere urte horren inguruan berrabiatuko da, baita Ekin erakundea jaio ere. Horrek guztiak eraman ditu batzuei 56ko belaunaldiari buruz berba egitera. Adibidez, Iztueta, 2005 edo Intxausti, 1981.

Izan ere, frankismo betean piztu zen euskararen aldeko mugimenduak bost lan-arlo nagusiri ekin zion: batetik, euskara estandarizatu bat, moderno bat sortzea, eraikitzea izan zuten helburu eta langintza, hau da, euskara batua eratze edo eraikitze prozesua abian jarri zuen (ikusi adibidez Zuazo, 2005); bigarrenik, euskal eskola proiektu bat bideratu zuen, ikastolak han eta hemen sortzen (ikusi adibidez Euskal Herriko Ikastolak, 2010, Fernandez, 1994, Lopez-Goñi, 2002 edo Larraza, 2018); hirugarrenik, helduak alfabetatzeko eta euskalduntzeko dinamika azkarra jarriko da martxan eta, harekin batera, euskaldunen komunitatean hiztun berrien¹¹⁵ fenomeno etorri zen (ikusi adibidez Basterretxea, 1997 edo, osatuago den lana, Larrea, 2005); laugarrenik, kulturgingintzaren arloan musikan, literaturan eta bestelako adierazpide batzuetan berritze eta zabaltze mugimendu biziak izan ziren urte hauetan (ikusi adibidez musikarako Aristi, 1985 edo literaturarako Sarasola, 1976 eta Artetxe, 2009); eta, bosgarrenik eta azkenik, euskara berritzeko ahalgina egin zuen jendarte moderno eta industrialaren betekizunetara ekartzeko asmoz, komunikabideetara (ikusi, esate baterako, Diaz Noci, 2009), baita soziologia, ekonomia, historia, fisikan eta abarretara, berba baten, ezagutza zientifikoaren alorrera eramateko asmoz (ikusi, adibidez, Aizpuru, 2003 eta Artetxe, 2009). Beste berba batzuekin esanda, "... euskara letra larrizko kulturarako tresna bihurtzea" (Amezaga, 2018: 34).

Antolaketari dagokionez, "... antolaketa forma guztiak populazioaren behar zehatzetatik abiatu ziren, politika ofizialetik kanpo. Mugimenduak parte hartze zuzena defendatzen du, ez delegatzea, elkartasuna, lehiakortasun eza. Laburbilduz, herri mugimendua da eta orduko jendartearen alternatiba izan nahi duen balio batzuk sustatzen ditu. Gainera, mugimenduak herri bati pertenezia argia adierazten du: Euskal Herriari pertenezia" (Järlehed, 2008: 150).

Era berean, euskal kontzientziaren berritzea¹¹⁶ gertatu zen. Nazionalismo tradizionalak egoera berrietara moldatzeko zailtasun nabarmenak zituen. Gerra galdu izanak eta gerra ondorenean hartutako bideak ez zuten lagundu egokitze horretan. Gainera, arrazismo sabindarra lekutik kanpo zirudien¹¹⁷. Hori dela eta, nazionalismoak osagai objektiboagoa bilatu zuen euskal bereizgarritasuna zurkaizteko. Eta osagai hori euskara izan zen. Batez ere, ETA erakundea izan zen

115 Hiztun berriak kontzeptuaren alde egiten dut (ikusi Ortega, Amorrortu, Goirigolzarri, Urla, 2016). Jakin badakit kalean zein akademian orain arte gehien erabilitako kontzeptua euskaldun berriaren kontzeptua dela. Baina kontzeptu horrek zentzu gutxiesgarria dauka eta, hortaz, gurago dut hiztun berria kontzeptua erabili.

116 Kepa Larreak honela dakar: "(Euskalduntze-alfabetatzea) euskal kulturaren beste agerpen batzuekin batera (dantza taldeak, ikastolak, kantagintza, literatura, euskarazko aldizkariak ...) 60ko hamarkadan abian jarri zen euskal kontzientziatze berri baten emaitza da" (Larrea, 2005: 9).

117 "Nazismoaren esperientziak arraza nazioaren kontzeptiotik erauzi zuen" (Iraola, Odriozola, 2017).

berritze ideologiko hau sustatu eta bultzatu zuena (Tejerina, 1992: 122-123). Eta berritze ideologiko horretan pertsona klabeak izan ziren Federico Krutwig¹¹⁸ eta Jose Luis Alvarez Enparantza “Txillardegí”¹¹⁹.

Onintza Odriozolaren arabera, “... Bigarren Mundu Gerraren ostean arraza Europako diskurtso politikoetatik baztertu ondoren, Ekinek¹²⁰ eta ETAk euskalduntasunean ardatzu zuten beren nazio diskurtsoa. Aldeak alde, nazioa eta euskalduntasuna baliokideak bihurtu ziren abertzaletasun berrian” (Odriozola, 2016: 138). Beste testu batean, Onintza Odriozolak berak eta Julen Zabalok honako hau diote: “50eko hamarkadako abertzaletasun iraultzailearentzat, hortaz, euskara bihurtu zen euskal nazioaren sinbolo; eta, neurri handi batean, pixkanaka, baita beste abertzale askorentzat ere. Naziokideak elkartzeko elementu lotzaile gisa ziharduen, batetik, eta, bestetik, frankismo-urteetan pairatu zuen atzerakadak bere dimentsio sinbolikoa indartu zuen euskal gizartearen” (Odriozola, Zabalo, 2014). Hortaz, “diskurtso eta praktika inklusibo, oinarri identitario ireki, demokratiko eta justizia sozialeko, moderno, anizkoi eta politiko baten aldeko aldarria” (Agirre, Eskisabel, 2017) egin zuen gerra osteko belaunaldiak, bai nazionalismo tradizionalen (EAJren inguruan eratutakoa), bai ezkerreko nazionalismoaren abaroan¹²¹. Era berean, “ekimen horiek denek bultzada dekolonizatzaile argia zuten atzean, dekolonizazio ariketa bat zela oso pentsamendu kontzientea zen” (Agirre, Eskisabel, 2019).

Gainera, euskararen aldeko mugimenduak frankismoaren aurkako beste mugimenduen sintonia berean jardun zuen. Hau da, “diktaduraren aurkako eskakizun demokratikoen aldarrian gainerako eragile askorekin bat eginik” (Larrinaga, 2017b) zeuden euskararen aldeko aldarrikapenak. Hori dela eta, “erregimenaren aurka ziharduten indar politiko guztiek zeukaten formalki berenganatuta euskararen aldeko eskabide lausoa” (Larrinaga, 2017b). Johan Järlehed-ek honela dio: “Euskararen aldeko mugimendua saiatu zen 60 eta 70eko hamarkadetan euskararen esangura aldatzen. Hizkuntza balio sozial alternatiboekin lotu zen eta egin nahi zen aldaketarekin identifikatu zen” (Järlehed, 2008: 119). Alfonso Pérez-A-

118 Eragina, batez ere, “Vasconia” izeneko liburuarekin izan zuen (Krutwig, 1963).

119 Biak ala biak izan ziren ETA erakundeko kide, erakunde horren hastapenetan. Arrasto sakona utzi zuten biek erakundearen, nahiz eta katramila eta gatazka franko eragin ere (ikus, adibidez, Txillardegiren kasurako, Rubio, 2019 eta Krutwig-en kasurako Krutwig, 2014).

120 Ekin taldea 1952an sortu zen, Bilbon, ikasleek osatuta. Taldearen helburuak hasieratik izan ziren euskal arazoetan kontzientzia sortu eta hezteak. EAJrekin harreman katramilatsuak izan zituzten. Ekimen ingurukoek 1958an ETA erakundea sortzea erabaki zuten.

121 Dena den, zenbait egilek kritikatzeko dute abertzaletasunak euskararekin izan duen jarrera eta praxia. Esate baterako, Joxe Manuel Odriozolak honako hau dio: “Abertzaletasunaren ardatza euskararen zetzala zioen euskal nazionalismo berriaren diskurtsoa, batez ere, hori izan zen, mamitu ez zen hitza, gerora praktikan mamitu ez zen ideologia abertzalea” (Odriozola, 2017).

gotek ere antzekoa dio: “(Sasoi hauetan) euskara transgresio sozialaren sinbolo bihurtzen da” (Pérez-Agote, 1984: 103).

Hortaz, ordurako “irekiera sinbolikoa” gertatua zen. “Irekiera sinbolikoa, beraz, botereak eraikitako oskol sinbolikoa apur dezakeen elementua da, baina, aldi berean, kultur mutazioak, aldaketak eta zabalkuntza alternatiboak eragin ditzakeena, gogoaren kultur errepresentazioen eta errepresentazio publikoen arteko fluxuak desbideratu eta berbideratu ditzakeena” (Larrinaga, 2016). Hortaz, ETA mugimendu horrek (Onintza Odriozolaren esamoldea da berau in Odriozola, 2016) nagusi zen oskol sinbolikoa¹²² apurtu zuen eta, arrakaletatik, bestelako mugimendu eta luiziak gertatu ziren euskal komunitatearen aparretan. “Ekin-ETAren diskurtso abertzaleak hizkuntza jarri zuen naziotasunaren ardatzean eta horrek euskararen balio sinbolikoa hazi zuen jendarteko hainbat sektoretan” (Odriozola, 2016: 279). Horren ondorioz, “desiragarri bihurtzen da euskara ikastea, garaiko izpituaren parte sentitzeko” (Topalabea, 2015).

Horretan guztian, paradoxikoa iruditu dezakeen arren, eragin nabarmena izan zuen Elizak ere. Izan ere, Elizak bazuen erregimenaren aldetik zelanbaiteko baimena. Baimen hori aprobetxatu egin zuten ekintzaile berriek eta Elizaren abaroan hainbat elkarte sortu ziren: dantza taldeak, mendi taldeak, abesbatzak, elkarte gastronomikoak, talde parrokialak, aisialdi taldeak ... (Tejerina, 1992: 120). Elkarte horiek (baita auzo elkarteek ere, ikusi adibidez Bilboko Errekalde auzoari buruz Ahedo, 2010) osatu zuten mugimendu berriaren oinarri. Gainera, elkarte hauek guztiek jendarteratzea bilatu zuten eta bizipenei oso lotuak izan ziren (seguruenik, sasoiaren ezaugarriek hartaratua).

Elkartegintzari dagokionez, aipatutako gehienek ez zuten euskararen sustapena erdigunean izan, hau da, elkarte gehienetan, euskaraz gain, bestelako helburu batzuk izan ziren (batzuetan agerian, beste batzuetan ostenduago klandestinitatea dela eta). Hala ere, izan ziren toki mailako elkarte batzuk euskararen sustapena erdigunean jarri zutenak. “Ikastola batzuen inguruetan legeztatu ziren elkarte kultural batzuk, ikastola bera laguntzeko asmoz. Bazkideak, beraz, laguntzaileak ziren” (Fernandez, 1994). Izan ere, ikastola gehienak, hasieran behinik behin, egin ziren tokian tokiko errealitatera egokituz, beste herri batzuetan egindakoa imitatzuz, baina indar bateratzailerik gabe (Fernandez, 1994)¹²³.

122 Honi buruz gehiago jakiteko, ikusi Gandara, 2015: 132-145.

123 Juan Luis Larrazak, ostera, Nafarroaren kasurako beste ikuspegi bat dakar. Han, antza, bai izan zen indar bateratzailerik (Larraz, 2018).

Euskararen sustapena zelanbait erdigunean izango duten elkarte hauek, ostera, ezberdintasun nabarmena izango dute 8oko hamarkadatik aurrera sortuko diren euskara elkarteekin. Izan ere, elkarte hauetan erdigunea euskararen sustapena izan arren, erdigunea ez dute osatzen euskaldunek (ez kasu guztietan, behinik behin). Izan ere, elkarte hauen erdigunea ikastolako gurasoek osatzen dute eta horixe da ezaugarriarik behinena elkarte horien bueltan. Horrek adierazten du, toki batzuetan, elkarte erdigunea euskara ez dakiten pertsonak osatzen dutela (adibide esanguratsu bat da Basauriko Sustraiak taldea, gehien bat guraso erdaldunek osatua). 8oko hamarkadatik aurrera, berriz, sortuko diren euskara elkarte guztietan euskaldunak izango dira berariaz elkarte horietako kide bakarrak.

Elkarte hauen artean, kasu berezia da Elgoibarko Izarra. 1963an sortu zen elkarte, herriko ikastola sortu berriari sustengua emateko. Elkarte horrek, beste batzuen aldean, ikastolaz gain, bestelako jardunbide batzuk izan zituen: dantza-taldea, txistu-taldea, gau-eskola, bertso-eskola, ... Hori bai, guztia ikastolako umeei begira egiten zuten. 1.400 bazkide izan zituen bere garairik loriatsuenetan. Gainera, gaur egun arte iraun du eta 1990ean tankera berriko euskara elkarte eitea hartu zuen (Elgoibarko Izarraren gaineko historiari buruz apur bat gehiago jakiteko ikusi Larrañaga, 2011).

Nabarmentzeko moduko beste kasu bat da Tolosako Lizardi Kultura Elkarte. 1967an sortu zen elkarte ikastolaren abaroan eta gaur egun arte iraun du. Elkarte honen bueltan sortu ziren, besteak beste, gau-eskola, Tolosaldea Birreuskalduntzeko Elkarte, bertso eskola edo Galtzaundi Euskara Elkarte. Lizardi, hortaz, bai sorreran bai horren ostean euskara eta euskal kultura sustatzeko gune izan da (Izagirre, 2017).

Horiez gain, ezin dira ahaztu euskara elkarteen protohistoria honetan, herri batzuetan eta unibertsitateetan sortutako Euskal Kultur Taldeak (unibertsitate-tako Euskal Kultur Taldeei buruz, ikusi Artetxe, 2009: 317-334). Kulturgintzari lotutako taldeak izan ziren hauek, autonomoak eta tokian toki sustraituak eta zurkaiztuak. Euren funtzio nagusienak izan ziren “Euskal Kultur Aste eta hamabostaldia antolatzea, Euskal Kulturari buruzko ikastaroak antolatzea eta era guztietako ekintzak, jaialdiak eta erakusketak antolatzea” (Amonarriz, Arruti, 1998). Talde hauek har daitezke, zelanbait, euskara elkarte aitzindari. Hala ere, euskara elkarte egitekoak eta funtzioak (eta izaera bera) kultur talde hauena baino dezente zabalagoak dira. Era berean, kultur talde hauen erdigunean euskararen sustapena bazegoen ere, horrek ez du esan gura talde horien guztien erdigunean euskaldunak zeudenik. Kultur taldeko kideei ez zitzaizkien eskatzen euskaldunak

izatea, hain zuzen ere: “Elkarteok euskara eta euskal kulturaren gaineko interesa zuten unibertsitariak biltzen zituzten, baina kide guztiek ez zuten zertan euskaldunak izan, eta beraz, bilerak erdaraz ere izan zitezkeen” (Artetxe, 2009: 317).

Talde hauen punturik gorena 1977. urtea izan zen. Orduantxe, gure lurraldeetako unibertsitateetan hamasei Euskal Kultur Talde zeuden antolatuta eta martxan. Baina krisia ere urte horretan etorri zitzaion. Izan ere, euren egiteko nagusia euskarazko klaseak antolatzea izan zen. “Beraz, beraien ordurarteko egiteko nagusia eskuz aldatu zenean, ez zuten ahalmenik izan elkarteon egitekoak garai berrietara egokitzeko. Kide eta baliabide gutxiko taldeak izanik, laster urtu ziren beste proiektu batzuetan” (Artetxe, 2009: 323).

Garai hauetako mugimenduaren ezaugarri orokorrak ederto batean laburtzen ditu Maite Indak: “Ilegalak edota alegalak, instituzio eta gune ofizialetatik kanpo autoeratuak, kontrabotere gisa; Hausnarketa eta ekintza eskutik helduta doa, sormen gaitasun ikaragarriarekin; Hala ere, ikuspegi orokorrez eta alde zurreko estrategia bateraturik gabe sortzen da mugimendua; Norbanakoen edo egituratu gabeko herritarren ekimenez abiatzen da; Han eta hemen sortzen hasten dira langai edo egiteko berdintsua duten proiektuak, koordinaziorik gabe, eta lotura organikorik gabe; Ideia sozial eta politiko eraldatzaileak muinean, gizarte berri bat eraikitze gogo handi bati erantzunez; Euskara erreprimitutako Euskal Herriaren hizkuntza nazional gisa ulertua; Euskararen aldeko borroka demokrazien aldeko borroka gisa ulertua da mugimenduaren baitan, baita kanpotik ere; Euskalgintza egituratze bidean den honetan, euskararen borroka hainbaten borroka da (herriarena, orobat, alderdi politikoak, sindikatuak, kurturgileak...); Barne gatazka eta eztabaida ugari, ziurrenik bizi zen garai nahasiaren isla; Bi familia abertzaleen bereizketaren lehen eraginak euskalgintzan” (Inda, 2019).

Laburbilduz, 60 eta 70eko hamarkadetan sustraitu eta errotu zen euskararen aldeko mugimendu sozial berria¹²⁴. Indar handia hartu zuen mugimenduak¹²⁵ eta haren eraginak gaur egun ere nabarmenak dira. Egoera politikoa dela eta, lan guztiak mugimenduak egin zituen. “Esan daiteke 1960ko hamarkadatik aurrera euskal kulturaren bilakabidea gehien ezaugarritzen duen elementua herri-mugimenduak ezartzen duen dinamika-erritmo bizia dela, kasurik gehienetan oinarritzko kultur azpiegiturak herritarren militantismoari esker burutuak izan zirelarik” (Iztueta, 1996). Gainera, mugimendu horrek garabide nagusietan lortu zuen

124 Esan dezakegu Eusko Pizkundera mugimendu soziala baino, eliteen mugimendua izan zela (ikus adibidez Larrinaga, 2011).

125 Esate baterako, Iñaki Barcenak honako hau dio: “Horrek ahalbidetzen du, 1977an, euskararen ofizialtasunaren aldeko 150.000 sinadura biltzea, 711 euskal elkartet abalaturik” (Barcena, 2002).

konbergentzia¹²⁶ (Topalabea, 2015), hau da, garabide izan zitezkeen ekintzetan batasun nahikoa¹²⁷ lortu zuen.

Dena den, mugimendu sozial horrek erakunde gutxi sortu zituen (seguruenik, klandestinitateak eta giro politikoak hartaraturik). Eta sortu ziren apur horiek toki mailakoak izan ziren. Hala ere, toki mailako elkarte apur horietako gehienek, gainera, ez zuten izan euskararen sustapena erdigunean. Eta, are gehiago, euskararen sustapena erdigunean izan zuten elkarte apur horietako batzuek ez zituzten izan euskaldunak elkartearen erdigunean (behintzat, betekizun hori ez zen eskatzen elkarteko kide izateko).

4.2.2 80ko hamarkada: Arrakalak eta hurrengo aroko lehen zantzuak

Frankismoa amaitu egin zen eta egoera soziala zein politikoa zeharo aldatu egin zen euskal herrietan. Eta horrek, jakina, ondorioak eta eraginak ekarri zituen euskararen aldeko mugimenduan.

Hego Euskal Herrian erakunde berriak sortzen dira (banatuta, hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoa, alde batetik, eta Nafarroa Garaia, beste alde batetik), alderdi politikoak legezatu egiten dira eta hauteskundera aurkezten hasi, ... Horren ondorioz, aurreko epaldian ez bezala, mugimendu sozialaz gain, erakunde publikoak ere hasten dira euskararen biziberritzean ekarpen positiboa egiten. Eta horrek, era berean, mugimendu sozialaren beraren indarra eta bultzada zelanbait murriztu egin zuen. “Hizkuntza berreskuratzearen aldeko mugimendu bereziki herrikoia bultzadak behera egiten du, erakunde berriak prozesua lideratzen hasten direlako” (Tejerina, 1992). “Instituzionalizazio autonomiko progresiboaren ondorioz, gizarte zibilaren testuinguruan lehenago ekintza kolektiboarenak soilik ziren jarduera-esparruak bereganatu zituzten apurka-apurka instituzio politikoek. Instituzio autonomikoek garatutako politikek, politika kultural eta linguistikoek,

126 Hala ere, 70eko urteen amaieran AEK sortu berriak bere lehen eszizioak izan zituen: Rikardo Arregi, Bilbo Zaharra, Zubizarri eta Gabriel Aresti euskaltegiak (Larrea, 2005).

127 Ez da iritzi berekoa, hala ere, Kepa Larrea: “Gerra egin eta galdu zuen belaunaldiaren eta gerra ezagutu ez zutenen artean oro har etendura bat agertu zen. Haustura horrek ideologia, kultura eta, eskuarki, gainerako giza baloreak bere baitan hartu zituen. 60ko urteen amaieran eta 70ekoen hasieran gertatutako hainbat istilu eta gertakari (ikastolen gatazka eta apurketa, euskara batuaren onarpena, ideologia komunisten eta talde armatuaren hedapena...) ez zitzaizkion arrotz izan etendura horri eta gertaturiko prozesu kulturalak baldintzatu zituzten” (Larrea, 2005: 11). Liburuaren beste atal batzuetan zehazten ditu liskar horiek: “Euskararen irakaskuntzari dagokionez, borroka horiek sortutako giroan uler daitezke ikastolen barruko gatazkak eta zatiketak (Deustuan, Santutxun, Iruñean...) eta euskalduntze eta alfabetatze arloan Arrasateko bilerako istiluak (1971), bertan Gipuzkoako Alfabetatze Batzordea Euskaltzainditi kano geratu baitzen” (Larrea, 2005: 31).

lekua kendu zioten geldi-geldi herri-ekimenaren ekintza kolektiboari” (Larrinaga, 2017).

Hori, gainera, ez da bakarrik euskararen aldeko mugimendu sozialaren erakusgarri. Beste mugimendu sozialetan ere antzekoak gertatu ziren sasoi hartan. Iñaki Barcenaren berbetan, “hastapeneko abiadura oldartsu haren ondoren, euskal gizarte zibilaren antolakuntza eta mobilizazio dinamikak, baita identitateari buruzkoak ere, askotarikoak eta desberdinak gertatuko ziren 80. urteetan. Dena den, bereziki sistema politikoan izandako aldaketa garrantzitsuen ondorioz, eta krisia eta ekonomiaren birmoldaketa prozesuak zirela kausa, esan daiteke euskal gizarte zibila jokaleku berri baten aurrean aurkitu zela” (Barcena, 2002).

Gainera, “eragile euskaltzaleen konbergentziarako gaitasuna arrakalatzten hasten da Franco hil ondorengo trantsizio delakoan. Aurretiaz euskalgintzan batera aritutako eragile asko banatu edota zatitu egiten dira, abertzaletasunaren baitako estrategia kontrajarrien eraginez” (Topalabea, 2015). Eragile batzuk marko instituzional berrian lan egiten hasiko dira eta beste eragile batzuek, ostera, erakundetatik kanpo, mugimendu sozialetik, kontraboteretik, eragin nahiko dute. “Hortxe hasten da abertzaletasunaren alde bakoitzak euskalgintzaren baitan hegemonia eta lehia sinbolikoa irabazteko borroka” (Topalabea, 2015). Eta arrakala horiek iraungo dute epealdi osoan eta, zelanbait, epealdi osoa zeharkatu eta baldintzatu dute (baita apur bat baretuak hurrengo epealdietan ere, geroxeago ikusiko dugun bezala). “Esan genezake, azken hamabost urteek¹²⁸, beraz, ezaugarri amankomun bat izan dutela euskalgintzan: atomizazioa. Atomizazio horren eragile nagusia, ikusi dugun modura, alderdikeriaren transbersalizazioa izan da. Hau da, euskalgintzan ziharduten indar nagusiak alderdien diskurtsoetara belaunikatu dira, edo belaunikatu ez direnean hauen eskuetan erori dira, edo eskuetan erori ez direnean ez zaie utzi jardun ez-alderdikoa garatzen” (Amonarriz, Arruti, 1998). “Desakordio eta aurka egiteak nagusi izango diren hamarkada luze bat abiatuko da, non euskararen aldeko gizarte mugimenduaren parte handi bat Pirinioren alde bietako erakunde politikoan aurrean geratuko den” (Barcena, I., 2002). “80ko hamarkadaren hasieran, hizkuntza biziberritzeko lana krisian zegoen eta gatazka handia zegoen euskararen aldeko mugimenduaren barruan, baita mugimenduaren eta euskal erakundeen artean” (Järlehed, 2008: 161). Hala ere, ez da harritzekoa. Izan ere, “mugimenduaren eragile askok sistema politiko berria etsi ikusten zuten; uste zuten euskal hizkuntza, kultura eta nazioa ez zeudela behar beste aitortuak” (Järlehed, 2008: 302).

128 Azken 15 urte horiek, egileen arabera, 1975etik 1990era bitarteko urteak dira (Amonarriz, Arruti, 1998).

Dabid Anautek honela dakar euskararen aldeko mugimenduak izan zituen arrakalei buruzkoak: “Instituzionalizatze berriaren ondoren, oro har, administrazioen eta euskararen herri mugimenduaren arteko enfrontamenduko eta gatazka ugariko urteak etorriko ziren, eta bi indar eta osagai horien osagarritasuna eta elkarlana baino gehiago konpon ezina eta bikoiztasuna etorri zen. Herri mugimenduaren eta erakundeen artean distantzia handia, etena zegoen. Administrazioek batez ere, aurrerantzean sarritan joko zuten aldez aurretik gizarte mugimenduak sortutako ekimenak edo ildoak ordezkatzera, bikoiztera, edo bikoizten saiatzera (...) Bitartean, Euskal Herriak bizi zuen gatazka politikoa oso presente egon zen urte horietan guztietan, konstante gisa” (Anaut, 2013: 669).

Mugimenduak hamarkada honetan, batez ere, euskararen ofizialtasuna, euskararen lurraldetasunaren aitortza eta euskal hiztunen eskubide politiko zein sozialak lortzea izan zuen helburu nagusi. Garai haietan, normalizazio berbak adierazten zuen helburu horien gauzatzea. Era berean, mugimenduak behin eta berriro “elebitasuna xede zuten politikak gaitzetsi zituen gehien” (Larrinaga, 2017b). Izan ere, “izaera makro-soziala zuten egiturazko faktore objektiboek esleitu zitzaizen egoeraren ardura (testuinguru juridikoaren murrizketak, hizkuntzaren ofizialtasun eza, hizkuntza politiken gabeziak eremu sozial formaletan)” (Larrinaga, 2017b).

Testuinguru horretan, 1979aren amaieran, Durangon, *Euskal Herrian Euskaraz* erakundeak bere burua aurkeztuko du. Erakunde hau izango da euskararen aldeko mugimendu sozialak izango duen lehen egituraketa sendoa, euskaltzaleen lehen bilgune egituratua izan zen. Euskararen sustapena eta euskaldunak berriaz erdigunean jarri zituen lehen erakundea izan zen EHE¹²⁹. Mugimenduaren sorrera-agiriak argi erakusten du zein izan zen hasiera batean taldearen iparra: “Gure alderdi etxekoetan edo-ta abertzaleetan euskarak ez du aurkitzen benetako defentsarik (...) Amnistiaren eta beste borroka politikoen alde sortu diren gestora delakoen antzera, euskararen aldeko talde eragileak sortu behar direla pentsatzen dugu (...) alderdi abertzaleek zoritxarrez, betekizun hori gehien batean ahaztuta dutelako” (EHE in Amonarriz, Arruti, 1998).

Talde hauek aldarrikatzaileak eta salatzaileak izango direla esaten da euren dokumentazioan, baita talde politikoekiko independenteak ere. Lehen urteetan hala jardun zuten aktibismoz blai: manifestazioak, eskaerak, itxialdiak, kanpai-

129 EHE siglekin ezagunagoa da Euskal Herrian Euskaraz taldea. Beraz, hemendik aurrera sigla horiei eutsiko diet, testua apur bat arintze aldera.

nak, errotuluak ezabatzea, ... “EHEk euskal hiztunentzako hizkuntza eskubideak eskatzeko manifestazio eta protestetan oinarritutako egintza eredu garatu zuen garai horretan, komunikazio alternatiboaren moldeak erabakita –afixa, grafiti, eranskailu eta pintaketak seinale publikoetan–” (Larrinaga, 2017b). Horrek egoera tenkatu zuen, eta EHE eta erakunde publikoen arteko talka eragin zuen eta, orduan, liskarrak nagusitu ziren. EHE, batez ere, lerratu zen euskararen marko juridikoaren salaketara eta, horrekin batera, ezker abertzalera¹³⁰ (Amonarriz, Arruti, 1998). “Legeria izan da urtetan euskararen aldeko mugimendu sozialaren eta administrazioaren arteko liskar eta enkontru gehien eragin dituen gaia” (Amonarriz, Arruti, 1998). EHE “erakundeak errebindikazioa, aktibismoa eta salaketa ditu helburu, eta elkartearen jarduera ez da mugatzen esparru tekniko eta kulturalera. Aitzitik, bere izaera politikoa aitortzeaz gain, konfrontazio estrategia iragartzen du” (Larrinaga, 2017b).

Herri batzuetan, hala ere, EHEko taldeak ez ziren sortu, baina bai haien inguruan (baina autonomo) bestelako talde batzuk sortu ziren: Tolosaldea Birreuskalduntzeko taldea¹³¹, Lasarte-Oriako berreuskaldun dezagun euskara taldea, Legazpiko Hots, Z.U.E.K. (Zumarraga-Urretxuko Euskara Kolektiboa), ... “Taldea hauek jendez murrizak izan dira, joera sozio-politiko jakinetara mugatuak¹³². Gainera, herriko bizitzan oso periferian kokatu dira eta ekintza puntualak izan dira nagusi” (Amonarriz, Arruti, 1998).

Gainera, talde hauen mugak areagotu egin ziren herrietako Euskara Zerbitzu edo Euskara Batzordeak sortzearekin batera. Talde hauek funtzioz hustu egin ziren, eurek antolatutako edo eskatutako jarduera gehienak udalen eskuetan geratu zirelako. Kontuan izanda, gainera, antolaketa aldetik nahiko ahulak zirela taldeok, horrek eragin zuen hainbat euskara taldeen desagertzea: Tolosaldea Birreuskalduntzeko taldea 1986an, Legazpiko Hots taldea 1988an, Lasarte-Oriakoa 1989an, ... Horiekin batera, herrietako EHE erakundeko talde mordoxka bat ere desagertu egin zen garai horretan bertan (Amonarriz, Arruti, 1998).

Hortaz, epealdi honen amaierarako (eta gaur egun arte) Euskal Herrian Euskaraz erakunde gero eta gehiago izango da nazio-mailako jarduerak eta kanpainak

130 Ezker abertzalea Euskal Herriko alderdi politikoa eta beste erakunde abertzale eta ezkeriarren joera soziopolitikoa da. Definizio zabal batean, Euskal Herriarentzako independentzia edo subiranotasuna, proiektu politikoa sozialista batekin batera, aldeztu duen joera litzateke; definizio hertsia baten arabera, berriz, eta jatorri historikoan oinarritua, Espainiako trantsizioan ETArekin ondoan edo haren helburuekin sortutako alderdi politikoa eta alboko erakundeen multzoa izan da, hau da, Euskal Nazio Askapenerako Mugimendua deiturikoa.

131 Talde honen bilakaerari buruz gehiago jakiteko, ikusi Amonarriz, 2017.

132 Egileek berriaz aipatzen ez badute ere, joera sozio-politiko jakin horiek ezker abertzalearen ingurukoak liratekeela ulertzen da testuan bertan apur bat arakatu gero.

sustatuko dituen taldea. Hori dela eta, EHEko taldeetako herri mailako dinamikak erabat ahulduko dira, erabat lerratuko dira nazio-mailako jarduerak egitera.

Epealdi honetan bertan, euskararen aldeko mugimendu sozialeko eragile guztiak batu eta egituratzeko lehen ahalegina egin zen. 1984an Bergaran Euskal Kulturaren Batzarrea izeneko erakundea jaio zen (Agirrebaltzategi, 1999). EKBk¹³³, baina, ez zuen erakunde berria izan nahi, koordinazio gune bat baizik. “Euskal kulturaren diharduten sail ezberdinetako talde eta elkarte herritarren topagune eta elkargunea izan nahi du EKBk” (Agirrebaltzategi, 1995). Izan ere, koordinazio gune honek talde edo elkarte bakoitzaren zereginetatik harago joan nahi izan zuen eta, beraz, ikuspegi orokorra sustatu toki mailako ikuspegiak gaintzeko asmoz.

Hala ere, ia sorreratik bertatik EKBk jardungo du lehen aipatu dudan arrakalaren gainean. “Erakunde publikoek jaiotza beretik hartuko dute EKB, ezker abertzalearen inguruko mugimendu bezala eta, beraz, beren estrategia instituzionalaren etsai modura” (Amonarriz, Arruti, 1998). Horrek eragina izan zuen erakundean bertan. “EKBren jaiotza, tentsio-testuinguru horretan eman zen, eta asmoak bestelakoak izan arren, bere partaidetzaren esparrua, erakunde nahiz pertsona-mailan esparru politiko-sozial jakin batera mugatua geratuko da, salbuespenak salbuespen” (Amonarriz, Arruti, 1998).

EKBk koordinazio funtzioa hartu zuen bere gain. Baina, hasiera batean behinik behin, koordinazio hori nazio mailan ez ezik, herrietan ere txertatu nahi izan zuten. Ideia horrek, alabaina, ez zuen behar besteko arrakastarik izan, nahiz eta herri batzuetan saiakerak egin (Baztanen, esate baterako, bai funtzionatu zuen). “Hasiera batean EKBren ideia koordinazioaren ideia herrietara transmititu eta herri mailako EKBak sortzea izan bazen ere, formulak ez zuen funtzionatu” (Amonarriz, Arruti, 1998).

Arrakalatik arrakalara, hamarkada osoa zeharkatu zuen beste arrakala batek: AEK¹³⁴ eta HABEren artekoa (ikus Zabaleta, 1993 edo Larrea, 2005¹³⁵). Bereziki, nazio mailan izan zuen hark eragina, baina herrietan ere sentitu egin ziren lurrikara haren dardarak. Izan ere, HABEren eraginez, hainbat herritan sustatu ziren

133 EKB siglekin ezagunagoa da Euskal Kulturaren Batzarrea izeneko erakundea. Beraz, hemendik aurrera sigla horiei utsiko diet, testua apur bat arintze aldera.

134 AEK (Alfabetatze eta Euskalduntze Koordinakundea) euskal herrietan zeuden euskaltegi eta gau-eskolen koordinazio gune modura jaio zen. HABE, ostera, Eusko Jaurlaritzak sortutako institutu publikoa izan zen, helduen alfabetatze eta euskalduntzeaz arduratzeko erantzukizunarekin.

135 Merezi du Kepa Larreak dioena honi buruz irakurtzea, orduko giroaz jabetzeko: “Eusko Kontseilu Nagusia 1978an sortu zen une beretik hasi ziren erakunde horren eta AEKren arteko harremanak eta negoziaketak, eta hasieratik ere alde bien arteko desadostasunak nabarmenagoak ziren adostasunak baino. Desadostasun horiek arlo guztiak hartzen zituen: antolamendua, finantzaketa, kontrol sistema, lurraldetasuna eta, nola ez, alfabetatze eta euskalduntzeari buruzko iritzi ezberdinak” (Larrea, 2005: 159).

udalek bultzatutako euskaltegi publikoak. Eta horrek, jakina, eraginik izan zuen herrietako dinamika euskaltzaleetan.

AEKk ere beste arrakala bat bizi izan zuen, oraingo honetan bere baitan. 1989an desadostasun handien ondorioz (desadostasun horiek, batez ere, antolaketari eta jarduteko moduari zegozkion), euskaltegi batzuek uzten dute koordinadora eta IKA¹³⁶ izeneko erakundea sortzen dute. Eragina batez ere Araban eta Nafarroan izan zuen banaketa honek. IKA ere koordinadora bezala egituratu egin zen eta bere funtzionatzeko modua mugimendu sozialetara hurbiltzeko asmoarekin jardun.

Sasoi honetakoak dira ere euskararen bueltako jai-egun handiak: ikastolen urteroko eta herrialdeko jaiak¹³⁷, Korrika¹³⁸, eskal eskola publikoaren jaiak, ... Euskararen sustapena eta aldarria dakarten ekitaldi kolektiboak dira eta hamarkadan zehar joango dira handitzen eta sendotzen. Eta, gainera, beste alorretan dauden arrakalak ez dira ekitaldi hauetan hain nabarmen sentitzen. Ildo beretik, aipatu beharko litzateke *Bateginik* kanpaina¹³⁹ ere. Euskaltzaletasunaren bilgune moduko bat osatuko dute, lehia alderdikoiaz gaindiko espazioa, hain zuzen ere, arrakalaz beteriko hamarkada batean.

Arrakala eta zatiketa giro honetan, ostera, beste salbuespen bat izan zen. Eta salbuespen hori Arrasaten gauzatu zen batik bat. Arrasate Euskaldun Dezagun elkarteak izan zen salbuespen eta bide erakusle, hein handi batean. 1983ko ekainaren 13an sortu zen AED¹⁴⁰, Arrasaten. Eta, hasiera-hasieratik, “alderdikeriak sortutako etena gainditu egin zuten” (Amonarriz, Arruti, 1998). “AEDren funtsezko meritua honako hau da: euskararen etorkizunarekin konprometituak sentitzen garenok elkarrekin eta norabide berean elkarlanean aritzeko dinamikan abiatu gara” (Arexolaleiba, 1990).

Baina zer izan zen AED 80ko hamarkadan? Iñaki Mendigurenek honela definitu zuen: “AED Kultur Elkarte bat da, euskara eta euskal kultura indartzea duelarik helburu nagusi. Zehazkiago esanda, Arrasaten euskararen normaliza-

136 Ilkas eta Ari du lelo koordinadora berri honek.

137 Araban Araba Euskaraz, Bizkaian Ibilaldia, Gipuzkoan Kilometroak, Ipar Euskal Herrian Herri Urrats eta Nafarroan Nafarroa Oinez.

138 Korrika, 1980. urtetik, Euskal Herri mailako erreleboz errelebo bi urterik behin egiten den lasterketa kolektiboa da, 2000 kilometro inguru eginez edizio bakoitzean. Kilometro bakoitzean lekukoa aldatzen da eskuz eta lekukoaren barruan mezua eramaten da auzoz auzo. Amaieran mezua jendaurrean irakurtzen da. Euskararen aldeko kontzientzia suspertzea eta AEK diruz laguntzea zituen eta ditu helburu.

139 Ikastolen elkarteak eta EKBk antolatu zuten kanpaina hau. Bi helburu nagusi zituen kanpainak: batetik, kontzientziazte-lana egitea eta, bestetik, Ipar Euskal Herriko eta Nafarroako ikastolentzako diru-baliabideak lortzea.

140 AED siglekin ezagunagoa da Arrasate Euskaldun Dezagun izeneko erakundea. Beraz, hemendik aurrera sigla horiei eutsiko diet, testua apur bat arintze aldera.

zioa lortu nahi du, euskara momentu eta leku guztietan hizkuntza nagusi izatea” (Mendiguren, 1990). Horretarako, batez ere, bi esparru nagusitan jardungo du AEDk. Batetik, euskaldunen artikulazioa bilatuko du eta, bestetik, funtzioak berreskuratzeke lana egingo du. “Mondragon-en barruan Arrasate osatzen goazen neurrian ondo goaz, euskaldunok euskaraz bizitzeko aukera ematen duten zereginetan bizi bagaitezke normalizazioaren bidean, funtzioak irabaziz joango gara” (Arexolaleiba, 1990). Funtzioak berreskuratzea izan zuen helburu eta lehen urteetako jardun praktikoan argi eta garbi ikusten da: kultur ekitaldiak antolatu zituen, euskara zerbitzua sor zedin presio lana egin, hiztun berrientzat espazioak bilatu, toki mailako komunikabideak sortu, sentiberatze kanpainak prestatu, lan arloan euskara sustatzeko lana egin zuten, eta abar.

Hortaz, Arrasaten sortu zen herrian bertan errotutako elkarte bat, lehen euskara elkarte bere horretan. Bertakoek bultzatu, bertakoek gidatu, bertakoek ebatzi. Gainera, elkarte zabala izan zen, zeharkakoa, “(AEDk) euskararen aldeko dinamika ez-alderdikoia eraikitzea lortu zuen eta horren oinarrian herri honi egin dion aportaziorik interesgarriena gauzatu zuen; ideologi desberdinetako euskaltzaleak euskararen alde, elkarrekin, jardun zezaketela frogatzea” (Amonarriz, Arruti, 1998). Funtzioak berreskuratzea izan zuen helburu nagusi. Eta hurrengo sasoi-tako euskara elkarteen mugimenduaren historian mugarrira ezarri zuen. Arrasatek erakutsi zuen bidea: “Zenbaitzuk ezinezkoa zela zioena egin egin zuten” (Amonarriz, Arruti, 1998).

Arrakala sakon hauek gorabehera, 80. hamarkadan mugimendu euskaltzalearen presioz edo bultzadaz, hein batean, lortu ziren euskararen erakundetzean aurrerapauso zenbait: euskararen legeak (Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroa Garaian, nahiz eta alde nabarmenak izan erkidegotik erkidegora), euskal irrati eta telebista publikoak, euskara irakaskuntza sistema publikoan txertatzea, hizkuntzaren biziberritzean lanean profesionalki arituko diren lehen teknikariak, herrietako euskara zerbitzuak sortzea, ... Horietan guztietan ere, nabaria da administrazio askoren eragiletza. Horrez gain, beste aurrerapauso batzuk ere izan ziren: ikastolen egonkortzea, euskaltegien sarea eratzea herririk herri, euskarazko komunikabide batzuen egonkortzea, kultur eskaintza oparagoa eta autonomoagoa (liburugintzan eta musikan batez ere), ...

4.2.3 1987: Mugarri teorikoa, Txepetxen lana

Arrasatek erakutsi zuen bidea, esan dudan legez (lehen urteetako AEDren historiako ikusi Arexolaleiba, 1992). Baina bide hori intuizioak gidatuta egin zuten. Oinarri teoriko borobilik ez, agian, baina egiten, sortzen paratu ziren. Hamarkadan bertan, alabaina, etorri zitzairen gura zuten ongari teoriko mardula.

Ongari teoriko hori liburu batek ezarri zuen: “Lan honek, beraz, herri-ekimena eta orohar euskalgintzaren egoera arrazionalizatu egiten du. Herri-ekimena zati garrantzitsu batek intuitiboki sentitzen zuena era logiko eta koherente baten bidez azaldua ikusten du eta beronekin identifikatu egiten da” (Amonarriz, Arruti, 1998). Lan hori, hain zuzen ere, Jose Maria Sanchez Carrionek, Txepetxek, argitaratutako *Un futuro para nuestro pasado* liburua izan zen (bere doktorego-tesia jasotzen duen liburua, alegia).

Izan ere, 1987an mugarri teoriko sendoa ezarri zuen Jose Maria Sanchez Carrion “Txepetxek” eta horrek, Arrasaten hasitako bidearekin bat egin zuenean, lurrikara txiki bat sortu zen euskalgintzan. Aitor eta Pedro Zuberogoitia anaiek honela azaltzen dute: “Ika-mika guztien gainetik pentsamolde eta tipologia desberdinetako euskaldunak batzea eta euskara beste dinamika batzuen periferiatik diskurtsoaren erdigunera ekartzea izan ziren lehen euskara elkartearen oinarrikeria sendoenak. Intuiziotik hasitako bide berri horri ekarpen teoriko garrantzitsua egin zion Sanchez Carrionek, 1987an argitaratutako *Un futuro para nuestro pasado* liburuarekin. Eguneroko praktikek eta oinarri teorikoak bat egin zuten une horretan tsunami txiki bat eratu zen euskal hirietan” (Zuberogoitia eta Zuberogoitia, 2014).

Liburu horrek, beraz, luiziak eragin zituen euskaltzale askoren burmuinetan: “1987. urtean, euskalgintza urteetako krisialdi larrian murgildurik zegoela, mugimenduaren barruan askok mugarriztat jotzen duten lan bat argitaratu zen: Jose Maria Sanchez Carrion (Txepetx) ikertzailearen *Un futuro para nuestro pasado liburua*” (Larrinaga, 2011: 604).

Liburuak eragin profetikoa izan zuen. “Txepetxek *Un futuro para nuestro pasado* liburuan, besteak beste, euskalgintzan ziharduen hainbat euskaltzaleri bere ezintasunen zergatiak azaltzeaz gain, hartu beharreko norabide berria formulatzen dio. Euskal gizarte-hizkuntzalaritzak urrats kualitatiboak emateaz gain, herri-ekimenari bere erantzukizuna, bere nolakotasuna eta bere egunerokotasuna argitzen dizkio” (Amonarriz, Arruti, 1998). “Sanchez Carrion-en proposamena, mugimendua baliabide kognitiboz hornitzen duen gogoeta intelektual hutsa bai-

no gehiago, euskararen aldeko mugimenduaren kohesioa berriz eraikitzeko erreminta bat da” (Larrinaga, 2017). “Txepetxen idatzietan aurkitzen dugu praktikara bideratu nahi genuen aldaketaren zimentarri teorikoa. Eta bat egiten dugu Txepetxekin: euskal komunitate linguistikoa eta botere politikoa komunitate horren beharrianetara egokitzea dira lehentasunak orain eta gero” (Arexolaleiba, 1993b). “Azpimarratzekoa da euskara-elkarteen sorreran eta berariaz euskara-elkartek sortzen jardun zuten pertsona sustatzaileetan izan zuen eragina” (Arruti, 2008). Esan bezala, liburuak balio izan ziren hainbat euskaltzaleri euren jarduna liseritzeko. Horrez gain, hartu beharreko norabide teorikoa ere adierazi egin ziren. “Mugimenduaren egintza kolektiboaren bitartez buruturiko esperientziak kode berrien arabera interpretatzeko oinarri teorikoak eskaini zituen” (Larrinaga, 2011: 608).

Baina, liburuaren eta Txepetxen teoriaren dibulgaziorako itzelezko garrantzia izan zuen *Adorez eta Atseginez* izena izan zuen mintegiak. Mintegi hau 1991n sortu zen Eskoriatzako Irakasle Eskolan¹⁴¹. Hiru urtez aritu ziren hainbat kide larunbat goizetan soziolinguistikaren eta hizkuntza-soziologiaren zoko-mokoe-tan euren buruak janzten. Mintegiak helburu izango du *Un futuro para nuestro pasado* liburuak jasotzen dituen edukietan sakondu eta euskalgintzara hedatzea. “Soziolinguistaren pentsamendua ezagutarazteko berariaz sortu zen lan talde bat, Adorez eta Atseginez izeneko mintegia. Zabalkunde ahaleginean, bestalde, era askotako baliabideak erabili ziren: liburu aurkezpenak, bideoak, ikastaroak, aldizkariak -Arrasateko Jazten aldizkariak egindako lana azpimarratzen da- eta beste batzuk” (Larrinaga, 2011: 611).

Mintegiko zuzendaria Julen Arexolaleiba izan zen. Bere berbetan, “mintegiki-deok elkar aberasten dugu eguneroko praktikan ikastaroekin eta, halaber, egiten dugunaren arrazionalizazio teorikoa saiatzen gara ematen ikastaro, hitzaldi eta ikerketen bidez” (Arexolaleiba, 1993a). Mintegiak emaitza ukigarri batzuk izan zituen. Batetik, Txepetxen liburua bera berrargitaratu¹⁴² zuen. Horrez gain, Jordi Solé-ren “Soziolinguistika gazteentzat” liburua itzuli zuen (Solé, 1991), baita “Giro urbanoko gazteak eta euskara liburua sustatu ere (Lezeta, San Martín, 1991). Bestetik, euskara elkarten eta mugimendu sozialen inguruan urte haietan eta hurrengoetan gertatutako ikerketa eta bibliografiaren eztanda mintegiaren emaitza ere izan zen hein handi batean. Mintegiak teorizazioa eta ikerketa bultzatu zuen eta bultzada sendoa izan zuten urte hauetan euskara elkarten gainean egindako sakontze saioek (batez ere, *Jazten* aldizkarian agertuko dira gogoeta eta ikerketa horiek).

141 Gaur egun Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultatea da hura.

142 1991an berrargitaratu zen Txepetxen lana. Ordurako, lehen edizioko ale guztiak agortuta zeuden. *Adorez eta Atseginez* mintegiak Julio Urkixo filologia mintegiaren laguntza izan zuen bigarren argitalpen hau egin ahal izateko.

Gainera, *Adorez eta Atseginez* benetako mintegia¹⁴³ izan zen. Izan ere, mintegiko kide asko izan ziren gero euren herrietan elkarteak sortzeko akuilu eta maku-lu. “Hainbat irakaslek eta ikaslek elkartzen jarraitu zuten Txepetxen teorizazioa zabaltzen jarraitzeko. Harreman hartatik, elkar babestuz eta adoretuz, mintegiko kideak burubelarri aritu ziren nor bere inguruan zeukan praktikari buruz gogoeta egiten, proiektu berriak sortzen. Adorez eta Atseginez Mintegiko partaideen bul-tzada sumatu zen herri askotako euskara-elkarteen sortze- eta ekite-prozesuetan” (Topagunea, 2011).

Baina zeintzuk izan ziren, batik bat, Txepetxen ekarpen teoriko nagusienak? Edo, agian galdera egokiago eginez, zeintzuk izan ziren Txepetxek eragin zituen teoriako aldaketarik nabarmenenak? Edo, are egokiago, zeintzuk izan ziren euskara elkarteek beso zabalik hartu zituzten oinarri eta zutabe teorikoak? Ane Larrinagaren arabera, bi oinarritzko ideiatan laburbildu daiteke Txepetxen ekarri teorikoa. Batetik, “sustapen linguistikoaren subjektua etengabe eraikuntzan dagoen hiztunen erkidegoa dela; ideia horretatik ondorioztatzen du euskararen aldeko mugimenduak hartu behar duela euskararen aldeko ekintza kolektiboaren lidergoa, ez alderdi politikok” (Larrinaga, 2017a). Bestetik, “euskararen aldeko ekintza ezin da oinarritu hizkuntzaren ezagutzan, hiztunek gauzatu beharreko erabileran baizik” (Larrinaga, 2017a).

Baina erabilera hori non gauzatzen da? Normalean eguneroko bizitzako esparruetan hezurramitu egiten da erabilera. Hortaz, “alde batera utzi ziren esparru politikoaren jardunguneak eta, aldiz, lehenetsi egin ziren eguneroko bizitzako gune sozialak mugimenduaren egintza burutzeko toki pribilegiatu gisa. Bira estrategiko horrek goitik behera aldatu zuen esparrua, bai erakundeei dagokienez, bai eragileei eta haien arteko harremanei dagokienez, baita mugimenduak aurrerantzean burutuko zuen egintzaren nolakotasunari ere dagokionez” (Larrinaga, 2011: 609). Ane Larrinagak berak honela laburbiltzen du “bira estrategiko” hori: “Hartara, hiztunaren bizileku hurbila, herria, izan zen harrezkero euskalgintzarentzat hizkuntza berreskurapenaren barrutia, mintzatzaileak bertan burutzen baitu eguneroko bizitza” (Larrinaga, 2011: 625). Hori dela eta, “mugimenduaren egitasmoa makroproiektuetatik egunerokotasunaren mikroesparruetara jaitsi zen” (Larrinaga, 2011: 626). Gainera, horrek diskurtso marko orokorra mugitu zuen: “Hiztunaren kontzientzia eta motibazioa dira euskararen aldeko mugimenduaren arreta gunea hizkuntza aldaketarako” (Larrinaga, 2017b).

143 Mintegia hazitegi edo haztegi bezala ulertuta, hain zuzen ere.

Baina barruti aldaketa ez ezik (Ane Larrinagaren esamolde bera erabiltzearen), esku-hartzeko eremuan ere ekarri zuen berritasunik Txepetxek. “Herri elkarten dinamikan islatu zen inon baino gehiago euskalgintzaren estrategia despolitizatu berria. Haren teoriaren arrakastaren itzalean, tokian tokiko erkidego euskalduna biltzera eta hari zerbitzuak eskaintzera zuzenduriko elkarteak ugaltu ziren hainbat herritan” (Larrinaga, 2011: 613).

Esan daiteke, ordutik, euskararen aldeko mugimendu sozialean bi ikuspuntu, bi eredu teoriko eta bi ekintzaitetza mota nabarmendu zirela. Dabid Anautek honela dakar: “Operatibitatearen, filosofiaren eta teoriaren ganean, euskararen gizarte mugimenduan ikuspegi desberdinak zeuden -baita eredu teoriko desberdinak ere- eta horrek praktika eta antolamendu ezberdinak ekarri zituen. Bi eredu nagusi gorpuztu ziren garai hartako euskalgintzan: batak ikuspegi soziologikoa zuen eta gehiago begiratzen zion gizarte-sistemari nahiz euskararen hedapen funtzionari (EKB eta gerora Kontseilua bera), eta besteak ikuspegi psikologikoa zeukan eta arreta eta indarrak batez ere hizkuntza komunitatearen guneari begira jartzen zuen (Txepetxek eremuan oinarritutako euskara elkarteak)” (Anaut, 2013: 670).

4.2.4 90eko hamarkada: euskara elkarten loraldia

90eko hamarkadako gehiena ere arrakala giroan pasatuko du euskalgintzak (gogoratu, adibidez, Egunkariaren inguruan mugimendu sozialen eta erakunde publikoen artean sortutako gatazka, ikusi, adibidez, Zalakain, 1993). Hala ere, hamarkada beste gertaera batek ezaugarrituko du batez ere: herririk herri sortuz joan ziren AEDren moduko euskara elkarteak.

Hamarkada hasieran, euskalgintzaren jarduteko moduak eta helburuek goia jo izanaren sentsazioa bertan jarduten zuten pertsona askorengan antzematen omen zen: “euskalgintzako hainbat jenderentzat azken hamabost urte¹⁴⁴ hauetako dinamika goia jo du” (Amonarriz, Arruti, 1998). Beraz, askoren ustez aldatzeko sasoa heldu egin zen. “Zenbait pertsonak, bizitako esperientzia arrazionalizatuz, perspektiba normalizatua lortu dute eta 1.989/90 urteen inguruan hasi eta gaurdaino, nagusiki AEDren eredu praktikoari jarraiki, herrietako euskara-elkarteak sortzen hasi dira. Labur esatearren, elkarte hauen bidez, udalerririk horietan, euskararen aldeko jardun ez-alderdikoia oinarritzat hartuz, pertsona eta erakundeak elkar-a-

144 Azken hamabost urte hauek dira 1975 eta 1990 urteen artekoak, egileen arabera.

berasgarria duten dinamika batean, elkarlanean azken finean, bideratzen ari dira” (Muniozguren, Arruti, 1993).

Arrasate bihurtu zen eredu praktiko, hortaz. “Utopian mugitzen ginela sinistetik hamar urte dela, arrasatear sortzaileen esperimntua hedagarria izatera pasa zen urte batzuetara, handik denboraldi batera saiatu beharreko bide modura ikus-tera pasa, eta gaur egun jarraitu eta hedatu beharreko eredu izatera pasa da dirudienez” (Arexolaleiba, 1993b). Beraz, Arrasaten bezala, hainbat herritan euskaltzaleak hasi ziren batzen, ezberdintasun politikoen gainetik, eta euskara elkarteak sortzen hasi ziren. “Elkarte hauen ezaugarri amankomuna bere sorrera prozesuan, ikastolen sorrera prozesutik gertatu ez den bezala, pentsakera desberdineko euskaltzaleak bildu izana da, honek, euskaldungoarengan erreakzio positibo bat (bizen garaia modukoa) eragin duelarik” (Amonarriz, Arruti, 1998). Esate baterako, Joseba Barriolak, Bagera euskara elkartearen sorrera prozesuaren harira, honako hau zioen: “Aurrera atera nahi dugun ekimena, euskaldun kontzienteen kontzientzian oinarritzen da, beraien arteko harremanak, laguntasuna, elkartasuna sustatu nahi du” (Barriola, 1992). Igor Elortzak, ostera, honela laburbiltzen du mugimendu haren oinarria: “Esan dezagun, beraz, asko laburtuz, 1980ko hamarkadaren amaieran giro politiko gatazkatsu baten erdian botere-kontra-botere logika gainditu eta euskararen alde aldarrikapenetik ekintzara pasatu zen mugimendu anitz bat” (Elortza, 2012) dela euskara elkarteena.

Eta Txepetx bihurtu zen eredu teoriko. “90eko hamarkadan hizkuntzaren aktibismo sozialak erabat aldatzen ditu teoriak zein iraganeko estrategiak, eta berriak hartzen ditu bere lekuan. Txepetxek hartzen du Txillardegiren lekua teoriarari nagusi bezala eta hark pizten du hizkuntza aktibisten imajinazioa” (Urla, 2012: 140).

Eta aldatzeko nahiak, eredu praktikoak eta eredu teorikoak bat egin zutenean, loraldi moduko bat gertatu zen euskal herrietan. Esate baterako, 1990tik 1993ra hamabost herritan¹⁴⁵ sortu ziren euskara elkarteak, baina hamarkada osoan zehar joan ziren elkarteak sortzen hainbat eta hainbat herritan¹⁴⁶. “Aurreko dinamika-rekiko aldaketa nahiak, dinamika berriak behar lituzkeen ezaugarriak ezagutzeak eta horren adibide bat izateak eragin du euskararen aldeko herri-ekimena aro berri baten atarian aurkitzea” (Amonarriz, Arruti, 1998). Hasieran, batik bat, Bizkai eta Gipuzkoan sortu ziren elkarteok, baina gerora baita Nafarroan eta Araban ere.

145 Dabid Anautek egiten du bere liburuan zenbaketa: 1990ean Durango, Ermua, Tolosa eta Oñatin, 1991n Eskoriatza, Lasarte-Oria eta Donostian, 1992an Eibar, Andoain, Urretxu-Zumarraga, Barakaldo eta Erreterian, eta 1993an Portugalete, Gasteiz eta Beasainen (Anaut, 2013: 691). Egileak berak aipatzen du hurrengo urteetan sortuko zirela elkarteak Bilbo, Hernani, Baiona, Antzuola, Malerreka, Iruñea, Baztan eta Pasaian.

146 Esate baterako, 1999ko maiatzean 49 elkarte zeuden Topagunean federatuta (Topagunea, 1999).

“Lehenengo euskara elkarteak Gipuzkoan eta Bizkaian sortu baziren ere (izen eta filosofia horrekin ezagutzen ziren lehenak), gainontzeko Hego Euskal Herriko lurraldeetara zabaldu ziren hurrengo urteetan, eskualde eta herri askotan barreiatuz” (Zapata, 2006). Adibide gisara, honako hau kontatzen zuten Geu Gasteiz elkarteak sortu zuten kideek: “Euskaltzale haietako batzuek, Arrasate Euskaldun Dezagun (AED) elkartearen berri izan zuten, eta garaitu hartan eman zuen ere Jose Maria Sanchez Carrion Txepetx hizkuntzalariak hitzaldi sorta bat Gasteizen. Hizkuntza minorizatuen gaineko hitzaldi haiek akuilua izan zituzten, eta AED eredu” (Izaga, 2017). Edo Errenteriakoek: “1992ko abenduan, ibilbide berri bati ekin zioten herriko hainbat euskaldun eta euskaltzalek eta Arrasate, Eibar, Tolosa, Donostia eta Lasarte bezalako herrietako esperientziei jarraituta Lau Haizetara euskaldunon elkarteak eratzea erabaki zuten” (Miner, 2002).

Loraldi horrek, hala ere, bere arantzak izan zituela ematen du. Eklosio momentu horretan lehertu ziren herrietako euskara elkarteak eta horrek EHE erakundeko taldeekin talkak eragin zituen. Gatazka piztu bide zen¹⁴⁷. Dena den, urte gutxiren buruan konpondu ei ziren erakunde horien arteko xextrak eta tirabirak, nahiz eta lehia ideologikoa mantendu. Dabid Anautek honela dakar: “Bi eredu horiek¹⁴⁸ ez ziren nahitaez kontraesankorrak, baina euskalgintzan tirabirak eta tentsioak izan ziren” (Anaut, 2013: 670).

Loraldi betean, herririk herri sortu ziren elkarte horiek guztiak koordinatzeko beharra sentitu zuten. Eta, horren ondorioz, eta urtebeteko prozesuaren ostean, Topagunea sortu zuten 1996an (lehen bilera 1995eko urtarrilean egin zen Gaztelun). Euren hasierako izena (2013ra artekoa) euskara elkarten federazioa izan zen. Horixe izan baitzen elkarte sortu berriaren helburu nagusia. “Topagunea, euskara elkarten federazioaren sorreran bertan herrietako dinamikak aberastea zen bere funtzioa, inolaz ere makroa elikatzea. Horrela jasotzen da estatutuetan” (Topagunea, 2011). Hortaz, nazio mailako behetik gorako erakundea izateko boka-zioarekin jaio zen. Federazioa sortzeko prozesuan 32 elkarte¹⁴⁹ hartu zuten parte.

147 Maddalen Ezkerrak eta Iñaki Fernandezek sinatzen duten artikuluko batean aurkitu dut honen gaineko erreferentzia idatzi bakarra. Honako hau diote egile biek: “EHeren ustez, garai batean EHE eta Euskara Elkarten artean sortu zen herri mailako gatazka gainditu da zoriez” (Ezkerra, Fernandez, 1995).

148 Gizarte-sisteman oinarritutako erakunde (berak EKB eta gero Kontseilua aipatzen ditu) eta hizkuntza komunitatean oinarritutako erakundeen (berak euskara elkarteak aipatzen ditu) artean, Anaut, 2013.

149 Honako hauek ziren sorreran parte hartu zuten 32 elkarteak: Geu (Gasteiz), Tiki ttaka (Arabar Errioxa), Abarrak (Arrigorriaga), Berbots (Erandio), Bizarra lepoan (Getxo), Deustuari euskara dariola (Deustua), Mungia euskaldunduz (Mungia), Sasiburur-Ostebi (Barakaldo), Berbaro (Durango), Urdulizko euskara taldea (Urduliz), Zenbat gara (Bilbo), Barriketan (Elorrio), Euskarabila (Basauri), Garraxi (Trapaga), Eusber (Bermeo), AED (Arrasate), Galtzaundi (Tolosa), Lau haizetara (Errenteria), ... eta kitto (Eibar), Bagera (Donostia), Loramendi (Aretxabaleta), Laixan (Oñati), Jardun (Bergara), Larramendi kultur bazkuna (Andoain), Hitzaro (Ordizia), Dobera (Hernani), Ttakun (Lasarte-Oria), Elgoibarko Izarra (Elgoibar) eta Txantreako euskara taldea (Txantrea). Iturria: Topagunea, 1997.

Baina zer behar ikusi zuten euskara elkarteek elkarrekin federatzeko? Iñaki Arrutiren arabera, batetik, “euskara-elkarteen mugimendua hedatzeko zailtasunak daude eta elkarte berriak sortu nahi dituztenak harremangune-finkorik gabe daude”. Bestetik, “antzeko gaien inguruko esperientziak eta ideiak ez dira trukatzen”. Hirugarrenik, “isolamenduak, besteak beste, eraginkortasun eskasagoa eta zenbait baliabide ekonomiko ez aprobetxatzea dakar”. Eta, laugarrenik, “ez dago jarrera bateraturik euskalgintzari dagozkion erakundeen aurrean eta administrazioak eta beste erakundeek ere solaskidetzarik gabeko multzoa dauka aurrean” (Arruti, 1995).

Topagunea sortu berriaren helburuak, esate baterako, hauek izan ziren (Ttakun, 2001):

- Euskara elkarte bakoitzaren eta guztien jarduera indartzea.
- Euskara elkarten arteko harremanak sendotzea, zabaltzea eta finkatzea.
- Elkarten lan eraginkorra izatea eta isolamendua gainditzea.
- Jendearen beharrak neurtu eta zerbitzuak eman hutsuneak betetzeko.
- Aholkularitza eta kontsulta: juridikoa, lan-harremanak, ...

Topagunea sortu berritan, jardungune nagusiak hauek izan zituen hamarkada honetan. Batetik, pertsona bat liberatu zuten koordinazio lanak egiteko (1998an dagoeneko hiru ziren langileak). Bestetik, Topaberri izeneko barne komunikaziorako buletina jarri zuen martxan. Eta, hirugarrenik, lan talde eta topaketa batzuk jarri zituen martxan, batez ere, hiru arlotan: kulturgintzan (Topaguneak berariaz antolatu zuen lehen ekintza kultur errota¹⁵⁰ izan zen), hedabideen arloan (lehen urteetan Topagunearen jardun nagusia hedabideen arloan garatu egin zen¹⁵¹) eta hitzarmengintzaren arloan (esate baterako, 1997an hitzarmengintzari buruzko topaketak antolatu zituen Gaztelun).

Hamarkadan zehar, aurreko hamarkadako arrakalek jarraitu zuten irekirik, baina apurka-apurka joan zen konponbidea lortzen. AEK eta HABEren artean,

150 Kultur errota hauxe da: euskara elkarten eskura jarritako kultur zirkuitu koordinatua. Horren bidez, elkarten eskura hainbat sortzaileen lanak jarri (Topaguneak kudeatzen ditu eskaerak eta elkarte eta sortzaileen arteko harremanak) eta prezio merkeagoa lortzen du (diru-laguntzen bidez finantzatua). 1998an jarri zen martxan eta, gaur egun ere, indarrean dirau, aldatetako aldateta.

151 Topagunearen barruan 1998ko abenduan 50 herri komunikabide zeuden. Hedabide bakoitzak, gainera, bere plan estrategikoa zeukan (Topaguneak bultzatuta), baita sektoreak berak ere.

adibidez, 1994an sinatu zen lehen hitzarmena eta, ordutik aurrera, gatazka baretu egin zen bi erakunderen artean. Egunkaria eta Eusko Jaurlaritzaren artean ere 1994an baretu egin zen gatazka (lehendabiziko aldiz eman zion diru-laguntza Jaurlaritzak Egunkariari). Giro horretan, EKBk erabaki zuen bere burua desegitea. Haien arabera, “EKBren helburu nagusiak erdiesten ari dira, arrakastaz gainera” (Osa, 1999). Izan ere, ordurako Kontseiluak betetzen baitzituen EKBren funtzio nagusienak.

EKBk bere burua desegin aurretik baina, euskararen inguruko erakunde guztiek hausnarketa-prozesu bati ekin zioten, Euskararen Unibertsoa¹⁵² deitutakoa. Prozesu horren ondorioz, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua sortu egin zen (Kontseilua izenarekin ezagunagoa da oro har), 1997an, zelanbait EKBren funtzioak hartu zituen erakunde berria. Lehen urteetan (hamarkada honetako urteak, hain zuzen ere) dinamika azkarra abiatu zuen Kontseiluak: Bai Euskarari akordioa, lanordu bat euskararen alde kanpaina, euskal hiriburuetakoko futbol zelaietan batera egin zen ekitaldi jendetsua eta, batez ere, ikuspuntu sozialeko euskararen plangintza orokorra (Askoren artean, 1999). Izan ere, Kontseiluaren hasierako asmoa euskararen hizkuntza komunitatea kohesionatzea¹⁵³ izan zen.

Kontseiluak bere burua honela definitu zuen: “Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua euskalgintzaren muina da neurri handian, bertara elkartu baitira euskarak garapen osoa izatea helburu duten euskararen gizarte erakundeak” (Askoren artean, 1999). Bi helburu nagusi ezarri zizkion, hortaz, bere buruari: euskararen garapen osoa lortzera bideratutako plangintza orokorra diseinatu eta inplementatzea eta euskalgintzaren indarrak trinkotzea. Edo, beste berba batzuekin esanda, euskalgintzak kanpora zein barrura begira eragiteko ahalmena handitzea.

90eko hamarkadak, beraz, aldaketa nabarmena ekarri zuen euskararen aldeko mugimendura. Erreferenteak aldatu ziren, baina baita egiteko moduak ere. Izan ere, ordutik, euskararen aldeko mugimenduaren parte handi batek lehentasuna izan du erdaren aldeko arau sozialak egunerokoan iraultzea. Edo, beste berba batzuekin adierazita, euskarazko praktikak areagotzea izan du helburu nagusi 90eko hamarkadaz geroztik euskararen aldeko mugimendu sozialaren parte nagusi batek. “Eten-

152 1a urtebete jardun zuten euskalgintzako hainbat eragilek elkarren artean hausnarrean. Gogoetaren amaiera gisa, Euskararen Unibertsoa izeneko jardunaldia egin zen 1997ko martxoan Donostian (Euskararen unibertsoa, 1997). Jardunaldia antolatzeke lanetan euskararen aldeko mugimenduaren hainbat erakunderen ordezkariak zeuden: Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Jabier Iñigo, Jon Sarasua, Hasier Etxeberria, Juan Mari Mendizabal, Iñaki Uribe, Iñigo Santxo eta Iñaki Zabaleta. Jardunaldi horren erabakirik nagusia izan zen Kontseilua sortzea. Handik hilabete batzuetara eratu zen Kontseilua, 1997ko abenduaren 6an hain zuzen ere.

153 “Euskararen hizkuntza komunitatea da euskaraz egin, berregin eta sozializatzen den gizarte. Euskara sortu duen gizateri zatiaren oinordeko eta parte; jasotako euskara bereganatuz, moldatuz eta birsortuz doana; hizkuntza komunitate bezala bizi den jarraitzeko borondatearen subjektu” (Euskararen unibertsoa, 1997).

gabe erdaren (espainieraren nahiz frantsesaren) alde egiten duen arau linguistiko dominantea azpikoz gora jartzera zuzendutako egintza mota bat izan da nagusiki euskalgintzak lehenetsikoa 90eko hamarkadaz geroztik” (Larrinaga, 2017b).

Era berean, hamarkada honetan euskararen aldeko mugimendu sozialak¹⁵⁴ aurrerapauso nabarmenak egiten jarraitu zuen: Egunkariaren sorrera, Uemaren¹⁵⁵ sorrera eta sendotzea, toki mailako hedabideen eztanda, kulturgintzaren sendotzea eta profesionalizazioa, euskara zerbitzuak han eta hemen sortu ziren, lan munduan lehen hizkuntza planak garatzen hasi ziren, ...

4.2.5 00ko hamarkada: Sendotzea, profesionalizazioa, gainbeheraren lehen zantzuak

Eta horrela zeharkatu zuen euskararen komunitateak mende eta milurteko biren arteko pasabidea. Hamarkadak hasiera itxaropentsua izan zuen arren, lehengo lepotik burua. Berritortu ziren euskalgintza eta erakunde publikoen arteko talkak (aurreko hamarkadetakoa baino leunagoak, baina talkak hala ere) eta, gainera, euskalgintza Espainiako justiziaren begiradapean jardun behar izan zuen (Egunkariaren itxiera izan zen traumatikoena, baina ez bakarria, AEK, Jakin edo ikastolen elkarteak ere izan ziren jo-puntuak) eta euskara elkarten mugimenduak izan zituen bere gorabeherak ere. Badirudi, gainera, hamarkadak aurrera egin ahala, euskararen aldeko mugimenduak, oro har, zeresana galdu duela, jendar-tean eragiteko gaitasuna txikiagoa duela. Beraz, eragin ahalmena mugatuagoa du mugimenduak, jendar-tean izan diren aldaketa tekno-ekonomikoak eta sozialen ondorioz (batez ere, komunitateen bizi-indarra ahultzearen ondorioz eta norbakoaren esparrua indartzearen ondorioz) eta mugimenduaren beraren erabaki eta estrategien ondorioz.

Euskarak urte hauetan normaltasun-kota batzuk lortu zituen. Esate baterako, EAEko eta Nafarroa erdi eta iparraldeko herri guztietan euskara zerbitzua dute modu batera edo bestera (euskara teknikarien sare sendoa sortu da). EAEko es-

154 Hamarkada amaieran Joxemi Zumalabe Fundazioak “Euskal Herriko herri mugimenduaren gida” argitaratu zuen 1999an. Lan hori egiteko herri herri ibili ziren hainbat elkarrizketazailer herri mugimenduaren argazki ahalik eta fidelena egiteko asmoz. Gida horretan 1497 elkarte edo talde “fitxatu” zituzten. Gida horretan euskararen aldeko mugimendu sozialaren argazkia agertzen zaigu. Euskara berariaz lantzen zuten talde edo elkarteak 182 izan ziren (guztien %12,2a), baina pentsatzekoa da kulturgintza arloko hainbat talde edo elkarte ere euskararen aldeko mugimenduaren parte sentitzea (299 talde, guztien %20a), baita aisiadia (%13,1), hezkuntza (%4,5) edo komunikazioari (%3,7) dagozkion batzuk ere. Informazio gehiagorako, begiratu Joxemi Zumalabe Fundazioa 1999.

155 Uema Udalerri euskaldunen mankomunitatea da. 1991an sortu zen, “soziolinguistikoki euskaldunak ziren udalerrak elkartu eta horiei beren udal administrazioan barne jardueran zein udalerriko gizarte bizitzan euskararen erabilera ahalbideratzeko eta herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko zerbitzuak eskaintzeko” (Marko, 2013: 204). 1991-1995 legegaldian 24 herrik osatzen zuten Mankomunitateak; 2018ko ekainean, ostera, 87 herrik.

kualde gehienetan badira euskara hutsezko toki-komunikabideak, euskararen irakaskuntzak zabaltzen jarraitu du han eta hemen, euskaltegiak finkatu eta sendotu egin dira, kulturgintzan ere normaltasun-kota batzuk antzematen dira (batez ere, liburugintzan eta musikagintzan), lanaren euskalduntzean ere sartu du muturra mugimenduak, eta abar. Hamarkada honetan plangintza aldia hasi zen euskararen biziberritzean. Plangintza orokorrak onartu zituzten Eusko Jaurlaritzak, baita Kontseiluak ere. Eta, era berean, hainbat eta hainbat udalerritan ere plangintza orokorrak onartu ziren hamarkada honetan.

Horrek guztiak euskalgintzaren profesionalizazioa eta zelanbaiteko espezializazioa ekarri zuen: “Euskalgintza eraldatuz joan da garaiko beharretara egokitzeko, profesionalizatuz eta espezializatuz” (Topalabea, 2015). Edo, beste berba batzuekin adierazteko, “aktibismo etnolinguistikoarekin zerikusia duten ekinbideen pitinkako profesionalizazioa” (Tejerina, 1999) gertatu zen. Ane Larrinagak ere antzeko bidetik jotzen du: “Euskararen aldeko mugimenduaren ekintza-esparrua hedatu eta dibertsifikatu egin da” (Larrinaga, 2017a). Horren adibide bat izan daiteke, esate baterako, Soziolinguistika Klusterraren¹⁵⁶ ikertegiaren sorrera bera.

Hortaz, euskalgintzaren erakundeak hamarkada honetan (nahiz eta prozesua aurrekoetan hasi) sendotzen joango dira, indartzen, profesionalizatzen. Topaguneak, esate baterako, honako panorama aurkezten zuen hamarkadaren amaieran: “Mugimendu honek¹⁵⁷ 20.000 bazkide kuotadunetik gora, 450 langile eta 1.400 boluntario ditu herriz herri, eskualdez eskualde, euskaldunon bilgune autoeratuak antolatuz eta milaka egitasmo martxan jartzen” (Topagunea, 2010). Gainera, euskara biziberritzearen aldeko mugimenduak (baita erakunde publikoetako euskara zerbitzuek ere) bere helburuei esleituko dizkie sasoi hauetatik aurrera eraginkortasun profesionaleko dimentsioak, besteak beste, plan estrategikoak¹⁵⁸, ahulgune

156 2000. urtean sortu zen Klusterra. Helburua honako hau zuen (eta du): ezagutza soziolinguistikoaren ikerketan, zabalpenean, eta aplikazioan dauden gabeziei eta beharrei dinamika berri batekin erantzuteko. Euskal Herrian hizkuntza normalizazio prozesuan inplikaturik dauden erakunde eta taldeentzat –pribatu, publiko, zein gizarte mailako– arlo zientifiko-aplikatutik datuak, metodologiak, eta bestelako materialak eskaintzeko egitasmoak lantzen ditu, jarduteko moduaren gaineko ezagutza eta, ondorioz, normalizazio ahaleginen emaitzak hobetzeko. Klusterreko bazkide dira hasieratik hainbat erakunde publiko, baina, batez ere, aholkularitza eta mugimendu sozialetako kideak (Topagunea, Kontseilua, AEK, Urtxintxa, Emun, Elhuyar, ...).

157 Euskara elkarteen mugimenduari egiten dio erreferentzia artikulua.

158 Esate baterako, Topaguneak 2001ean jarri zuen martxan bere lehen plan estrategikoa.

eta indarguneen analisiak, gestio teknikak¹⁵⁹, etengabeko prestakuntzari lotutakoak¹⁶⁰, marketin teknikak, erabateko kalitateari lotutako metodologiak¹⁶¹ ...

Baina horrek ere ajeak ekarriko ditu mugimendura. “Azken urteotan, Euskara Elkarteen eragin-indarra eta ahalmena murriztu egin direla esango nuke. Lan profesionala gailendu da eta askotan, oso esparru jakinetara mugatu da: hedabideak edo zerbitzu eskaintza, esate baterako. Aitzitik, euskararen erabileraren aldeko mobilizazio sozialerako gaitasuna murriztu egin da” (Amonarriz, 2011). “Neke sentazioa dago elkarte askotan, jende berria ilusionatzeko zailtasuna” (Topagunea, 2010). “Mugimenduak bere historian zehar metaturiko kapital emozionalean hozte erlatiboan ere ekarri du profesionalizazioak. Izan ere, erretorika teknikora eta eraginkortasunezkoa makurtu dira arian-arian mugimenduaren diskurtsoa eta egintza bera. Eta, modu paraleloan, apaldu egin da hizkuntzaren atxikimendu afektiboari lotutako jardura eredua, antolakuntzazko esparru burokratikoetan garatutako egintza profesionalizatuaren mesedetan” (Larrinaga, 2017b). “Elkarte askok badugu kezka bat bazkideen parte hartzearekin lotuta; parte hartze hori nola aktibatu eta dinamizatu dugu gogoeta-gai azkenaldian eta jabetu behar dugu eraketan arituko diren pertsonak topatzea zaila izango dela” (Zintzo Mintzo, 2008). Zentzu berean mintzo da Estepan Plazaola: “Garai bateko euskara dinamizatzaileak hizkuntza gestore bihurtuak gaudelako susmoa dut. Eta ez dut esan nahi gestore izan behar ez dugunik. Gestore onak izatea ere komeni zaigu. Baina hizkuntza normalkuntzak zerbait eskatzen badu pertsonetan, giza-taldeetan, aldatetak bideratzea eskatzen du eta horretarako ona litzaiguke giza-harremanekin lotutako gaitasunetan gehixeago trebatzea” (Plazaola, 2008). “Profesionalizazioari eta egituratzeari esker, jendarteko zenbait erakundek lortu dute instituzioen alde-tik aitorpen maila bat, baina aldi berean bistaratu dira hainbat aje: eraginkortasuna, marketina eta indar-erlazioa moduko kontzeptuak ez dira kontuan hartzen; ikuspegi mikroak indartu dira makroen kaltetan, koiunturan begirada iltzatuta bisio estrategikoa ahuldu da; zerbitzu ematea nagusitu zaio euskara jendartean sustatzeari eta espezializazioa hobetsi da sinergiak bilatu ordez” (Topalabea, 2015).

Hori dela eta, hainbat euskara elkarte helduko dira hamarkada honen amaierara krisi hotsak aditzen: “Izan ere, bazkide, langile eta boluntario sare zabala izan

159 Topaguneak 2001ean antolatu zituen lehen jardunaldiak (ordutik urtero egin ditu jardunaldiok). Eta lehen jardunaldi horietan euskara elkarteen kudeaketa landu zuten (Topagunea, 2001).

160 Kike Fernandez de Pinedok honakoa zioen Topagunearen barne buletin batean: “Garbi dagoena da edozein talde edo elkartetan lehenago edo beranduago jabetzen garela gure jardunbidea hobetzeko, zabalteko eta eraginkorragoa izateko prestakuntza ezinbesteko elementua dela” (Fernandez de Pinedo, 2004).

161 Adierazgarriak dira, zentzu horretan, Topagunearen orduko lehendakaria zen Joxemari Muxikaren berba hauek: “Euskara elkar-teek duten helburua betetzea ez da posible denborapasa bezala kudeatuz. Kudeaketa efikaza ez dago haserre ondo pasatzearekin, baina bai alferrik denbora pasatzearekin” (Muxika, 2002).

arren eta jarduera-gama zabala bideratu arren, Euskara Elkarteek beren burua krisian ikusi dute. Eta krisi hori, batez ere, bete behar duten funtzioaren eta garatu beharreko lan-ildoen inguruan identifikatu da” (Amonarriz, 2011).

Herri batzuetako elkarteetan krisi hotsak aditu bitartean, baina, beste herri, auzo eta eskualde batzuetan hamarkadan zehar joango dira sortzen euskara elkar-te berriak¹⁶². Herri horietan (besteetan aurreko hamarkadan bezala) ilusioa tonaka izango dute euskalgintzako aktibista berriek (ikusi, adibidez, Rodriguez, 2013).

Gainera, hamarkada honetan jardun eremu berrietan aritu ziren euskara elkar-teak. Seguruenik, aipagarriena mintzapraktika programen¹⁶³ ingurukoa litzateke. 2001ean bost herritan zeuden martxan, 2005ean, berriz, 1.200 lagun ari ziren 20 herritan eta 2011n, azkenik, 4.800 lagun ari ziren programa hauetan euskal herrietan. Topaguneak, gainera, programa hauen inguruko jardunaldia antolatu zuen 2005ean eta programa hauek martxan jartzeko proposamen metodologia zekarren eskuliburu-a egin zuen. 2006tik aurrera (gaur egun arte) Euskal Herri osoko mintzalagunak urtero batzen dira Mintzaegunean (urterik urte aldatzen da herri antolatzailea).

Topaguneak hamarkada honetan garapen handia izan zuen. 1998an Topaguneak hiru langile zituen eta 2005ean, ostera, hamabi langile. Nabarmena da ere funtzioetan Topaguneak urte hauetan izandako hazkundera. Batetik, gero eta zer-bitzu gehiago eskaintzen die elkartei (diru-laguntzen kudeaketari buruzkoak, administrazioari buruzkoak, ...). Bestetik, kulturgintzari lotutako zirkuitu eta programak biderkatu ziren hamarkada honetan: Laburbira¹⁶⁴, Irakurri, Gozatu eta Oparitu¹⁶⁵, Spraikada¹⁶⁶, Kameratoia¹⁶⁷, Ikusi eta ikasi¹⁶⁸, Harrapazank¹⁶⁹, Uda-goieneko Ostera¹⁷⁰, ... Baina, era berean, hedabideekiko jarduna ere hazi egin zen, baita aisialdiari eta hitzarmengintzari lotutakoa ere. Azkenik, sustapen lana ere

162 2008ean, esate baterako, Topagunearen barruan 88 elkarte egongo dira federatuta (hasiera batean 32 elkarte ziren Topagunearen barruan). (Topagunea, 2008).

163 Programa hauek guztiak funtsean berdinak dira: euskara ikasten ari diren helduei lagun euskaldun bat bilatzen zaie ikas-prozesua azkartzeko eta euskaltegitik euskal komunitatera jauzi egiten laguntzeko asmoz. Horrez gain, ekintza osagarriak ere antolatzen dira herri-rik herri: txangoak, bazkariak, tailerrak, ikastaroak, ... Hala ere, herririk herri programa hauek izen ezberdina dute: mintzalagun, solaskide, berbalagun, mintzakide, elelagun, ...

164 Euskaraz egindako film labor aukeratuekin urtero egiten da zirkuitu bat euskal herrietatik 2004tik.

165 Irakurri, Gozatu eta Oparitu programa 2007an hasi ziren egiten hainbat euskal herritan. Euskarazko irakurzaletasuna sustatzeko programa da. Liburu bat irakurri behar da, haren gaineko iruzkin bat egin eta beste liburu bat erosteko deskontu txartela jasotzen da.

166 Spraikada izan zen Topaguneak hainbat herritan antolatu zuen grafiti lehiaketa.

167 Kameratoia ikus-entzuzkoen rally-a da. Parte hartzaileek baldintza batzuk beteta, 48 ordutan ondu behar dute film labor bat. 2004tik antolatzen du Topaguneak.

168 Ikusi eta ikasi Bilboko umeentzako aisialdi eta hezkuntza lotzen duen kultur zirkuitua da. 2006tik antolatzen du Topaguneak.

169 Harrapazank Bilboko gazteentzako aisialdi zirkuitua da. 2006tik antolatzen du Topaguneak.

170 Bizkaiko herrietatik 2000 urtetik antolatzen den helduentzako euskarazko kultur zirkuitua.

egiten hasi zen hamarkada honetan Topagunea. Hau da, euskara elkarteek aurrera egin dezaten laguntza ematen hasi zen. Horretarako, sailez gain, lurraldeka ere antolatzen hasi zen Topagunea (aipatzekoa da, adibidez, Nafarroako Topaguneak hasieratik izan duen izaera berezia). Era berean, tokian tokiko errealitateak eta erritmoak ere aintzat hartzen hasi zen Topagunea.

Lehen esan dudan bezala, nahiz eta Topaguneak sekulako hazkundea izan, euskara elkartearen artean krisi hotsak aditzen dira. Giro horri, gainera, gehitu behar zaizkio Espainiako epaitegi batzuek bulkada politiko nabarmenaz euskararen aldeko mugimenduaren kontra bideratutako auziak. Horren ondorioz, Egunkaria itxi egin zuten (ikus adibidez Agirre, 2004), AEKren zuzendaritzako kideak auzipetu eta diru-kontuak miatu zituzten (nahiz eta gero, akusazioak kendu), baita Jakin¹⁷¹, Elkar¹⁷², Ikastolen Elkarteko eta bestelako erakundearen diru-kontuak eta paperak miatu ere. Horrek ez zion lagundu hamarkada honetan giroari, ez eta euskararen biziberritzearen aldeko mugimenduari ere.

Euskalgintzako erakundearen eta administrazio publikoaren artean, ostera, zahar-erakunde berri. Lehen arrakalak baziren, gatazka sakonak, orain bikoizketak deitzen zaizkie, leunagoak antza. Mugimendu sozialek sortuko dituzte tresna batzuk eta, handik urte batzuetara, administrazioek antzeko tresnak sortuko dituzte. Adibidez, Euskararen Plan Estrategiko orokorra (1998)¹⁷³ eta EBPN¹⁷⁴ (1999), Bai euskarari ziurtagiria¹⁷⁵ (2000) eta Bikain ziurtagiria¹⁷⁶ (2008), edo Behatokia¹⁷⁷ (2001) eta Elebide¹⁷⁸ (2008). Batzuek zein besteek behin eta berriro adierazi dute elkarren osagarriak izan daitezkeela tresna horiek guztiak. Hala ere, orain arte ez dira elkarren osatu. Eta giro horretan amaitu zen hamarkada.

171 Jakin euskarazko aldizkari historikoetako bat da. Frankismo betearen sortu zen Arantzazun 1956an eta bederatzirentz debekatu egin zuen gobernu frankistak. Gaur egun jarraitzen du argitaratzen, herria-kultura-hizkuntza gaietan espezializaturik.

172 Elkar euskarazko liburu eta diskoen argitaletxe nagusia da. Horrez gain, hainbat euskal herritan baditu Elkar taldeak izen bereko liburu-dendak. 1977an sortu zen.

173 Kontseiluak bultzatu zuen Plan Estrategiko Orokor hau gizarte eragile nagusien ekarpenekin osatu zen. 23 sektoretan banatu ziren eragileak eta Euskal Herriko lurralde guztietarako aplikazioa aurreikusten zuen planak. Hala ere, egia esateko, planak aplikazio oso txikia izan zuen orokorrean.

174 Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia izan zen Eusko Jaurlaritzak bere eskumeneko lurraldeetan euskararen garabidea sendotzeko taxutu zuen lehen plan orokorra.

175 Bai euskarari ziurtagiria Kontseiluak sustatutako ziurtagiria da. Horren bidez, erakunde baten euskararen presentzia neurtzen du. Hiru maila daude: gu lanean euskaraz, zerbitzua euskaraz eta zerbitzua eta lana euskaraz.

176 Bikain ziurtagiria Eusko Jaurlaritzak sustatzen duen ziurtagiria da. Esparru sozioekonomikoan euskararen presentziaren, erabileraren eta hizkuntza-kudeaketaren normalizazio-maila egiaztatzen eta aitortzen du. Hiru maila daude: oinarritzakoa, erdi mailakoa eta goi mailakoa.

177 Behatokia Kontseiluak sortu zuen. Hizkuntza eskubideen egoerari buruzko azterketa objektiboa egitea du xede erakunde independente honek. Behatokia Euskal Herriko herritarren hizkuntza-eskubideez arduratzen da eta eskubide horiek Euskal Herri osoan, arlo publikoan zein sozioekonomikoan, babestera zuzentzen du bere jardueran.

178 Elebide Eusko Jaurlaritzak sortu zuen. Hizkuntza eskubideak bermatzeko zerbitzua da Elebide. Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen artean benetako oreka lortzea du helburu.

Garai honetan (baita hurrengoetan ere) toki mailan herri askotan euskalgintzaren inguruko artikulazioa gertatzen hasten da, plataforma, foro eta abarren bidez. Plataforma horiek mila eta bat modukoak izan dira (eta dira), gehienak nahiko iraupen mugatukoak, eta gehienek ere helburu nagusia izan dute herriko hizkuntza politikan eragitea. Izan ere, hamarkada honetan (eta hurrengoan) herri askotan plangintzak jarri dira martxan eta horietan gehienetan Euskara Batzordeak eratu. Artikulazio foro eta plataforma hauek, batez ere, izan dute helburu Euskara Batzorde horietan eragitea.

4.2.6 10eko hamarkada: Topagunearen kongresuak eta berritze estrategikoa

Hamarkada hau euskararen aldeko mugimenduak lehengo lepotik hasi zuen. Hala ere, hasieratik bertatik bestelako musikak eta doinuak entzun ziren. Topaguneak, adibidez, 2010ean hasi zuen hausnarketa ibilbide sakon bat eta 2012an amaitu, bi kongresuren ostean. Beste erakunde batzuek ere antzeko bidea jorratu zuten (EHEk adibidez 2017an ekin zion barne hausnarketari, Kontseiluak 2016an aurkeztu zuen hizkuntza eskubideak bermatzeko protokoloa eta abar). Etxe gehienetan, hortaz, atzera begirako irakurketa kritikoak egin dituzte hamarkada honetan. Garikoitz Goikoetxea honela definitzen zuen giroa 2016an: “Sentsazioa da. Giroa. Nahia ere bai. Euskara biziberritzeko bidean aldatetak datozen sentsazioa. Aurrerapena egin du euskarak azken hamarkadetan. Aurrerapen handia. Baina bide luzea dago aurretik. Beste egoera bat zabaltzen ari da. Orain arteko erronkei beste batzuk eransteko garaia: ezagutzari erabilera, aldeketasunari aktibazioa, bihotzari mingaina. Giroa. Elkarlanerako bide sendagoak ere hasi dira urratzen euskalgintzako eragileak. Aldaketa politikoaren arrastoa nabari da euskararen arloan ere; akordioen bidea zabaltzen ere hasi dira han-hemen. Eta nahia. Batez ere nahia. Egoera aldatzeko nahia nabari da batean eta bestean, etsipen kutsutik aldentzekoa, egoera berriari egoki erantzutekoa, euskara irabazteko bidean jartzekoa. Sentsazioa da. Giroa. Nahia ere bai: bidea egiteko. Bidea irabazteko” (Goikoetxea, 2016).

Beraz, 2010ean Topaguneak bere historia laburreko lehen hausnarketa prozesu sakonari ekin zion. 2011n eta 2012an bi kongresu egin zituen: Oinarriarren kongresua (2011ko otsailaren 26an) eta Eraldabideen kongresua (2012ko azaroaren 17an). Lehen kongresuan oinarri teorikoak berritu zituzten eta bigarrenean, ostera, oinarri teoriko horiek praktikara eramateko irizpide zehatzak erabaki zituzten. Baina zein zen euskara elkarteen egoera hausnarketa prozesu honi ekin aurretik?

Hamarkadaren hasieran, Topagunean 95 elkarte zeuden federatuta. “Euskara elkarte guztien artean 20.000 bazkide, 400 langile, 3.000 boluntario, eta 95 elkar-teko sarea osatzen dugu” (Topagunea, 2010). Baina, hala ere, krisi hotsak gero eta ozenago entzuten ziren. Jasone Mendizabalek, Topaguneko zuzendariak, honela gogoratzen du egoera: “Nahi genuen helburutik eta izan nahi genuen mugimen-dutik urrun ikusi genuen gure burua 2010ean” (Mendizabal, 2019). Batetik, eus-kara elkarteek bete beharko lituzketen funtzioei eta egitekoei buruzko zalantzak eta kezkek bazeuden han-hemen. “Denboran zehar zerbitzugintzak, ekintzak antolatzeak, pisu gehiago hartu du eta, adibidez, euskaldun osoen bateragunea eraikitzean, hots, espazio sinbolikoaren nuklearizazioan, ez da nahi beste aurre-ratu” (Topagunea, 2011). “Elkarteen jarduerak ezagutzen dira herrietan, baina ez elkar-teak, ezta beraien helburuak ere” (Topagunea, 2010). “Sarritan kudeaketak jan egin du elkar-tearen bizitza” (Topagunea, 2011).

Era berean, elkar-teetako parte hartzea ere bazen kezka iturri: “Lan boluntarioa galtzen joan da, ez dugulako asmatu parte hartzeko aukerak eskaintzen”. Izan ere, “profesionalizatzearen eta borondatezko lanaren artean oreka lehenbiziko-a-ren aldera etorri da alor askotan. Bada halako moteltze bat borondatezko lanari dagokionean”. Gainera, “euskaldunon elkar-teen erreprodukzio-sisteman sintoma kezkarriak ageri dira. Transmisioa falta izan da, eta jakintza soziolinguistiko ahula dago elkar-teotako protagonistengan oro har” (Topagunea, 2011). Eta, hiru-garrenik, jakintza soziolinguistiko ahul horri artez lotuta, “diskurtsoz ahul ikusten da oro har euskara elkar-teen mugimendua (eta euskalgintza)” (Topagunea, 2010).

Hori dela eta, euskara elkarteek gelditu eta hausnartzeko hautua egin zuten: gogoetatzeko sasoia ireki egin zen horrela: “Gelditu, pentsatu eta berriro hasi esal-dia behin eta berriro aipatu da; euskara elkar-teetan gure buruaz birpentsatzeko, gure mugimendua berrasmatzeko, gogoia dago” (Topagunea, 2010). Eta bi urte hausnarrean pasa zuten, oinarri teorikoak eta horiek praktikara eramateko bideak eta moduak amesten eta adosten. Honela kontatzen du Jasone Mendizabalek, Topaguneko zuzendariak prozesu hori: “Hausnarketa prozesu hartan euskara el-kar-teen borondatezko lanean, zein dinamizatzaile lanetan ari ziren 300 lagun in-gururen arteko bilera asko egin genituen eskualdez eskualde, Bilboko Kongresura heldu arte” (Mendizabal, 2019).

Zer onartu zuen, bada, euskara elkar-teen mugimenduak? Zer onartu zuen To-paguneak? Oinarri teorikoei dagokienez, euskara elkar-teen egitekoa ekarri zuten plazara atzera ere. “Gure egitekoa da euskal hiztunen komunitate osasuntsu eta iraunkorra indartzea eta elikatzea. Horretarako, ezinbestekoa zaigu euskararen-

tzat, euskal hiztunen komunitatearentzat zein euskal hiztunentzat gune hegemonikoak iraunaraztea, sortzea eta elikatzea”. “Euskararen komunitatea herriz herri trinkotu eta osabidean jartzeko eragileak dira euskaldunon elkarteak”. Horretarako, hizkuntza ekologiaren paradigmari oratu zioten: “hizkuntz ekologiaren¹⁷⁹ paradigma da gure indargunea, gizarte osoari begira” (Topagunea, 2011).

Modu berean, euskara elkartearen ezaugarri nagusi batzuk berriro ekarri zituzten plazara. Batetik, alderdi politikoekiko autonomia. “Alderdi politikoen liskarretatik at kokatuko da mugimendua, ezein alderdiren monopolizaziotik ihes eginez”. Bestetik, motibazioari ostera ere garrantzia ematea hobetsi zuten: “Motibazioari orain arte baino indar gehiagorekin heldu behar zaio: euskaldunekin eta erdaldunekin ere lan egin beharko genuke”. Eta, hirugarrenik eta azkenik, “hiztun gisa, liseriketa egiteko tresnak eskaini beharko lituzke mugimenduak, hiztunari gertatzen zaiona ulertzeko” (Topagunea, 2011).

Hausnarketa prozesua, esan bezala, euskara elkartearen mugimenduak egin zuen. Baina, kontuan hartuta, euskara elkartearen eta Topagunearen arteko harremana, hausnartutakoak eta adostutakoak, batez ere, Topaguneari berari eragiten zion. Izan ere, euskara elkartearen mugimenduan nazio mailako erakundea behetik gora sortutako erakundea da. Beraz, kongresuan adostutakoarekin bat etorri arren, euskara elkarte bakoitzak du autonomia osoa (eta bere erritmoa, jakina) printzipio eta egiteko horiek bere jardunean txertatzeko (edo ez txertatzeko, egoki ikusten badu). Beste berba batzuekin esateko, euskara elkarte bakoitzak du bere metabolismo propioa eta horren arabera jardun dute gai honen inguruan.

Euskara elkarteek, beraz, aitortu zioten Topaguneari funtzio berri batzuk bere egin zitzaizkion. “Aitortzen zitzaion Topaguneari euskara elkartearen norabidea euskararen zerbitzura ahalik eta modurik egokienean egon dadin ziurtatzeko lana eta onartzen dira elkartearen atomizazioa gainditzeko premia, solaskidetza eratzearena eta baliabide eta ahalmenak optimizatzeko beharra” (Topagunea, 2011). Zentzu horretan, lau funtzio berri eman zitzaizkion Topaguneari. Lehenik, diskurtso-egile bihurtzeko ahalmena. Bigarrenik, presio-talde bihurtzeko ahalmena. Hori dela eta, Topaguneari agindu egin zitzaion erakunde publikoen aurrean euskara elkartearen “pisua eta ahotsa eraman ditzan. Izan ere, hizkuntza baten bizindarraren zati bat botere-guneetan eragiteko ahalmenean datza” (Topagunea, 2011). Hirugarrenik, erreferente sinboliko bihurtzeko ahalmena eman zioten elkarteek

179 Hizkuntza ekologia hainbat ildo teorikotatik garatzen ari den jakintza-arloa da. Ikusi, adibidez, Albert Bastardas irakaslearen honako hau: Bastardas, 2011, Klaus Zimmermann-en hau: Zimmermann, 2004 edo Teresa Mouré-ren hau, Mouré, 2019.

Topaguneari. “Euskaltzaleek badute euskararen erreferente garbi baten premia, Euskaltzaindia edo Kontseilua funtzio hori betetzetik oso urruti gelditzen direlako” (Topagunea, 2010). Eta, laugarrenik eta azkenik, laborategi moduan funtzionatzeko ahalmena. “Euskara elkarteek lantzen dituzten eta lan ditzaketen alor desberdinetan (hedabideak, kulturgingintza, jaiak, normalizazio-ekintzak...) proiektu pilotuak egitea herri zehatz batzuetan, esperientzia horietatik ikasteko” (Topagunea, 2011).

Aipatutako lan horiek garatzen hasi zen Topagunea¹⁸⁰. 2012tik 2015era euskara elkarteetan lanak partekatzeke eta elkarrekin ospatzeko topaketak¹⁸¹ egin zituen. Horrez gain, kulturgingintzaren inguruko topaketak¹⁸² ere antolatu zituen Laudion 2016an. Ikus-entzunezkoen alorrean ere jarraitu zuen beharrez Topaguneari. Benito Ansola saria¹⁸³ apailatu eta Durangoko Azokako Irudienea kultur sorkuntzaren plaza kudeatzen du. Gainera, aniztasunaren esparruan ere sartu zuen muturra Topaguneari. 2010etik aurrera hainbat herritan Auzoko¹⁸⁴ programa kudeatzen du, bertakoak eta kanpotik etorritakoak harremanetan jarritz euskararen bidez. 2016an horri lotuta, Zubideiak gune irekia antolatu zuen honako leloarekin: “Euskara desberdin bizi, erabili eta sentitzen dutenen arteko ariketa soziala”. 2018an, ostera, bigarren Zubideiak topaketa antolatu zuen Topaguneari “Bizi euskara zure erara. Zuk nola bizi duzu?” lelopean.

Kongresuetan onartutakoaren harira, Topagunea sentiberatzea lantzen ere hasi zen. Horren harira, Euskarak 365 egun kanpaina jarri zuen martxan abenduaren zetan. Herririk herri, plazara atera ziren euskaltzaleak eta euskaldunak euskararen erabilgarritasuna aldarrikatzeko eta euren konpromisoak berresteko. Horrez gain, herritarrak ahalduntzeko Zergatik ez? tailerrak abiatu zituen hainbat herritan eta erdaldunak euskarara hurbiltzeko *Compartimos* tailerrak. Arrate Illarok eta Iker Martinez de Lagosek honela laburbiltzen zuten Topaguneari funtzioa urte hauetan guztietan: “Urteetako ibilbidean ondokoak izan dira Topaguneari egiteko nagusiak: euskaltzaleen mugimendua indartu eta biziberritzea, herrietako euskalgintza aktibatzea, mugimenduaren funtzioak berraztertzea, hiztunak ahal-

180 Bide batez, izena aldatu zuen. Topagunea euskara elkartearen federazioa izena izatetik, Euskaltzaleen Topagunea izena izatera pasatu zen. Ikerketa-lan honetan, hala ere, bere horretan eman da beti izena: Topagunea.

181 2012an Gunea eguna antolatu zuen Azkoitian. Hurrengo hiru urteetan, ostera, Topa eguna antolatu zuen Soroluzen, Derion eta Lasarte-Orian. Antolaketan, Topaguneari gain, herri horietako (eta inguruetako) euskara elkarteek ere hartu zuten parte.

182 Jalgi izena izan zuten jardunaldi hauek eta Aiaraldeko euskara elkarteekin batera (eta beste hainbat eragilarekin) antolatu zuen Topaguneari. Argibide gehiagorako jo <http://jalgiika.eus/> webgunera.

183 Benito Ansola sariaren bidez gazteei euskarazko ikus-entzunezko berriak ekoitz ditzaten sustatu gura du Topaguneari.

184 Auzoko programaren bidez, euskaraz dakien herritar batek (auzotar izenekoa) euskaraz ez dakien eta kanpotik datorren beste herritar bati (auzokide izenekoa) lagundu egiten dio hizkuntza ibilbidea egiten.

duntzea, ikerketa bultzatzea, diskurtsoa berritzea eta era guztietako eragileekin elkarlan dinamikak bultzatzea” (Illaro, Martínez de Lagos, 2018).

Diskurtsoa berritu eta mugimendua elikatzeko helburuarekin Topalabea¹⁸⁵ taldea sortu zuen Topaguneak. Talde hau gogoeta-taldea da eta euren helburua da mugimenduarentzako eta euskalgintzarako¹⁸⁶ bazka ideologikoa ereitea. Ziurrenik bere ekarpenik ezagunena “Berrikusi eta berrikasi” gogoeta-dokumentua izan da. Dokumentu horretan euskaltzaletasunaren azken hamarkadetako irakurketa kritikoa egiten dute egileek etorkizuna begi berriz ikusteko helburuarekin egina (Topalabea, 2015).

Urte horietan ere, Tokikom sortu zuten herri eta eskualdeetako tokiko komunikabideek. Hasieratik, Topagunearen azpisail bat bezala antolatu dira herri komunikabideak. Hasierako urteetan, gainera, Topagunearen lan jardun gehiena hedabide hauetan zentratu egin zen. 2012an, ostera, Topaguneak berak eta 20 komunikabidek erabakitzen dute azpisail horri autonomia eta dinamika propioa ematea. Hori dela eta, izaera juridiko berezitua eman zioten komunikabideen elkarteari. Era berean, elkarlana estutu, esparru komun batzuk elkarrekin kudeatu eta batera jarduteko asmoa adierazi zuten hasiera batean. Gaur egun, Tokikom elkartearen barruan, 60 komunikabide aritzen dira (telebista, irratia, digitala eta papera).

Kongresuetatik landa, euskara elkarteek jarraitu zuten bere bidean, batzuetan kongresuetan adostutakoa euren herrian aplikatu nahian¹⁸⁷ eta, beste batzuetan, eginkizunez beste egiten. Berritasun gisa, hamarkada honetan hasi egiten dira sortzen lehen euskara elkarteak Ipar Euskal Herrian: Amikuze aldean Zabalik elkarteak (2012), Alduden Adur elkarteak (2012), Oztibarre aldean Laminosine (2013) eta Irisarrin Har eman (2013), ...

Euskararen mugimendu sozialaren beste erakundeak ere antzera ibili ziren hamarkada honen erdialdera arte, krisian edo krisi antzean: euren artean koordinazio eskasa, batzuetan lehiakide, behar besteko lankidetzak barik, ... Etsipen sententzioa zegoela esaten zuen Garikoitz Goikoetxeak ondu zuen lan kolektiboan

185 2012an sortu zen Topalabea taldea. Topalabea taldea hasiera batean honako hauek osatzen zuten: Kike Amonarriz, Julen Arexola-leiba, Xabier Erize, Mikel Irizar, Elena Laka, Iker Martínez de Lagos, Iñaki Martínez de Luna, Jasone Mendizabal eta Jon Sarasua. Hala ere, ordutik hona, aldaketak izan dira taldean. Taldera batu ziren lagunek bi ezaugarri zituzten: “Beraien ibilbideagatik soziolinguistikaren arloan zeresana zuten eta euskaltzaleen mugimenduko kide edo hurbileko pertsonak ziren” (Mendizabal, 2019).

186 Kike Amonarrizek horrela kontatzen du talde horren sorrerari buruzkoak: “Bilerei ekin orduko, ordea, Topagunearen beraren esparrua gainditu eta helburu anbiziotsuago bati heltzeko beharra eta gogoia sortu zen taldekideen artean, eta euskalgintza osoari begirako hausnarketa lehenetsi zen” (Amonarriz, 2019: 208).

187 Hainbat herritan egingo dira prozesu parte hartzaileak elkarteak egoera berrietara egokitzeko: Elgoibar, Erandio, Basauri, Ermua, Soraluze, Bergara, Hondarribia, Aretxabaleta, Gasteiz ...

(Goikoetxea, 2016). Eta, horretan zebiltzala, biratzea etorri zen 2016an¹⁸⁸. Ziklo berri baten lehen zantzuak hasi ziren ernaltzen.

Baina 2016ko biratzea ulertzeko, aurreko urtera joan behar dugu: 2015era. Urte horretako ekaina-uztailean Lutxo Egia idazle bilbotarrak *Bi-lingual: transitoak*¹⁸⁹ izeneko arte performance bat egin zuen eta, haren ondorioz, aktibazio programak izeneko lan ildo berria jarri zen martxan hainbat herritan hurrengo urteotan. Zer egin zuen Lutxo Egiak bada? 31 egun aritu zen, Bizkaiko hiriburuan, hizkuntza hegemonikoa (hau da, gaztelania) galdu izan balu bezala. Euskaraz aritu zen gehien bat (eta, beharra izatekotan, tarteka ingelesez). Helburua, izan ere, hauxe baino ez zen: “24 orduko euskaldunera hurbiltzea, alegia, 24 orduko euskaldun teorikoa eraikitzea” (Egia, 2016). Oihartzun handia izan zuen Lutxo Egiaren arte-ekintza honek eta inspirazio iturri bihurtu zen hainbat mugimendurentzako.

Lutxo Egiaren adibideak hauspotuta, Lorea Agirrek 19. Korrikaren amaieran irakurri zuen mezuak¹⁹⁰ berotuta, eta Katalunia aldean sortu arren, gureganatutako Telp tailerren¹⁹¹ eta Aldahitz¹⁹² ikerketa-ildoak jarritako alderdi teorikoak zurkaiztuta, han eta hemen sortu ziren euskaldunak aktibatzeako programak. Lehena 2016an Donostiako Egia¹⁹³ auzoan jarri zuten martxan eta, orduetik aurrera, hainbat herritan jarri dira martxan tankera honetako programak¹⁹⁴ (2016an martxan jarri ziren programen berri izateko ikusi Bagera, 2017).

Behar edo premia batetik abiatu ziren lehen ekimeneko arduradunek. Aditu bestela Aitziber Gurutzeagak esandako berbak: “Euskararen aldeko txokolate-jateak antolatzea ondo dagoela iruditzen zitzaigun, baina bazen garaia beste jauzi

188 Urte horietan euskararen aldeko mugimenduan behin baino gehiagotan erabili zen bidegurutze berba. Bidegurutzearen metafora baino, biratzearen metafora erabiltzea gurago izan dut. Estrategia aldaketa nabarmena ekarri duelako aktibazioaren ildoak.

189 Performance-aren berri emateko, Lutxo Egia idazleak bloga ireki zuen Berria egunkariaren webgunean. Honakoa da helbidea: <https://www.berria.eus/blogariak/transitoak/>

190 19. Korrikaren leloa izan zen Euskaldun. Berba joko horrekin euskaldun eta ahaldundu berbak bateratu nahi izan zituzten antolatzaileek. Korrikaren lekukoaren barruan zihonan mezua Lorea Agirrek idatzi zuen. “Bagara nor” izenburua izan zuen Lorea Agirrek idatzitako mezua (Agirre, 2015).

191 Telp tailerrek Ferran Suay eta Gemma Sangines psikologoek sortu zituzten katalan herrietan. Norberaren egoera linguistikoaren liseriketa egin ostean, egunero hizkuntza gutxituon hiztunoi gertatzen zaizkigun mila egoera arruntetara izena jarri eta horiek aldatzeko tresna batzuk ematen dituzte delako tailerrek. Euskal herrietara ere egokitu izan ditu tailerrok Emun kooperatibak. Informazio gehiagorako hemen: Sangines, (2011).

192 Aldahitz ikerketa-ildoak Soziolinguistika Klusterrak abiatu zuen 2011. urtean. Hizkuntza ohituren aldaketa du oinarri ikerketa-ildo honek. Hori baino lehen, bikoteen hizkuntza ohiturak aztertu zituzten 2009an; horren ostean, berri, lankideen arteko hizkuntza ohiturak (hori da berez Aldahitz ikerketa-ildoaren funtsa). Ikerketa-ildo izateaz aparte, ikerketa honek ere esku-hartzea proposatzen du, eusle metodologia erabiliz (informazio gehiagorako, begiratu Jauregi, Suberbiola, 2017).

193 “Egian euskaraz bizi nahi dugulako” izena izan zuen programa honek. Lehena izan zen eta, zelanbait, izena eman dio ekimenari berari. Izan ere, *Egia eredua* edo *Egia estila* bezala ezagutu izan dira komunikabideetan tankera honetako programak.

194 2016an honako herrietan jarri ziren aktibazioerako programak (programarik programa alde handi samarrak egon arren): Egia (Donostia), Añorga (Donostia), Arrigorriaga, Lasarte-Oria, Hernani, Astigarraga eta Agurainen. 2017an, ostera, beste herri hauetan ere jarri ziren martxan aktibazio programak: Deustu (Bilbo), Derio, Zuia, Baiona-Angelu-Biarritz, Aiaraldea, ...

inportante bat emateko” Aitziber Gurutzeaga, “Egian euskaraz bizi nahi dugulako” ekimeneko kidea in Irureta, (2017).

Programa hauen bidez, herrietako euskaldunak aktibatu nahi dituzte egun batzuetan euren hizkuntza ohiturak aldatu eta euskara gehiago erabiltzeko. “Euskaldun batzuek euskara hutsez bizitzeko esperientzia pertsonala haragitu dute, gorpuztu dute. Horiek lehen pertsonan bizi izan dute esperientzia. Egoera erosoetatik atera dira (armairutik ere batzuk) eta hizkuntza ohiturak erdigunera ekarri dituzte, haiek aztertu eta, ahal den neurrian, aldatzen saiatzeko” (Rodriguez, 2017). Honela definitzen du Soziolinguistika Klusterrak hizkuntza-aktibazioa: “Aktibazio hitzak mugimenduetarekin, prozesu bat martxan jartzearekin du lotura. Portaera linguistikoetan eragin nahi duen prozesua. Talde bat hizkuntza egoeraren intuizio edota irakurketa partekatu, ekintzarako antolatu eta ekimena abiatu; ekimen horrek hiztunen aktibazioa probokatu eta erraztu nahi du” (Soziolinguistika Klusterra, 2017). “Herriarren kontzientziak astindu nahi ditugu, herriarrak konturatu daitezela gure ohiturak aldatzea ez dela hain zaila; uste baino jende gehiagok dakiela edo ulertzen duela euskaraz gure inguruan; dakigunok egiten badugu, ez dakitenek errazago ikasiko dutela eta euskara erabiltzeko aukera handiagoa izango dutela” Hernani ari du in Irureta, (2017).

Eta, horretarako, pedagogia soziala¹⁹⁵ egin dute hizkuntzekin, pedagogia soziala egin dute euskararekin. “Erraztasunak eman behar zitzaizkion euskara erabili nahi zuenari. Herriak ordura arte adierazitako euskararen aldeotasuna praktikan jar zedin nahi genuen, adostasun soziala lortu nahi genuen, baina praktikan” (Lafuente, 2017). Eta, horren ondorioz, hein batean erabilera igo dute eta euskaldunak ahaldundu egin dituzte (ikus, adibidez, Pello Jauregik Lasarte-Oriako programari buruz egindako ikerketa, Jauregi, 2017). Izan ere, *Egia estiloko* esperientziak “indar sinbolikotik harantzago, aurrerapauso zehatzak proposatu dituzte (Amoñarriz, Martínez de Lagos, 2017).

2018an, ostera, euskal herri guztietan honako programak martxan jartzeko ados jarri izan ziren Topagunea eta Eusko Jaurlaritza. Erabaki hau bera hartu izana berrikuntza izan zen. Seguruenik, euskararen aldeko mugimenduen historian lehendabiziko aldia izango da mugimenduak berak eta Jaurlaritzak (eta haren ondotik Nafarroako Gobernuak eta Ipar Euskal Herriko elkargoak) batera

195 Pedagogia soziala egin esamoldea, oraingoan, bere zentzurik herrikoienean erabiltzen dut. Hortaz, pedagogia soziala, kasu honetan, uler bedi gauzak hobeto azaltzeko moduarekin, uler bedi didaktizazio hobe bat bezala. Politikariak ahotik ahotik erabiltzen dute delako esamoldea, baita eragile sozialek ere. Adibidez, esanguratsuek dira administrazio publikoek hainbat gairen inguruan egiten duten pedagogia (osasunarekin, batez ere, dela tabakoa, direla auto istripuak, dela droga, ...).

jarduteko erabakia hartzen dutela. Herri edo toki mailan gertatu izan dira (herri batzuetan gutxienez) elkarte, mugimendu eta erakundeen arteko koordinazioak. Baina eskala handian (eta euskal herrietako lurralde guztietan) lehendabiziko aldia izan zen. Horretarako, seguruenik, ETA osteko egoerak lagundu egingo zuen. Izan ere, ETA osteko panoraman elkarlan publiko eta sozialerako baldintzak ego-kiak dirudite.

4.3 Euskara elkarten taxonomia

Aurreko atalean euskara elkarten urteetako genealogiak ikusi eta landu ditut, baina ezer gutxi esan dut fenomeno horren hezurduraren gainean. Historia kartografiatu dut eta orain fenomeno sozial honen perimetroak zedarritu gura ditut: Non sortu ziren/dira elkarteak? Non ez? Nortzuk izan dira jardun horietan protagonista? Zelan sortu ziren herririk herriko elkarteak? Nortzuk dituzte bazkide? Nortzuk aktibista? Nortzuk zuzendaritzako kide? Eta abar.

Hau da, elkarten gaineko zelanbaiteko argazkia egin gura dut, erradiografia bat, topografia bat gurago bada. Hala ere, datu gutxi daude horren inguruan eta, ezinbestean, hurreratze lan bat izango da, osatu eta hobetu beharrekoa, datuak eskuratu ahala. Tokian tokiko elkarten gaineko ikerketak, sistematizazioak eta genealogiak egin ahala, datu gehiago egongo dira, datu doituak egongo dira eta osatu ahal izango da ezinbestean hurreratzea den euskara elkarten taxonomia hau.

4.3.1 Zenbat euskara elkarte egon da?

Gaur eta hemen¹⁹⁶, roodik gora dira euskal herrietan dauden euskara elkarteak. Horietatik 80 elkarte baino gehiago Topagunean federatuta daude (Topagunea, 2017), baina badira kanpoan dauden elkarte batzuk ere. Adibidez, Ipar euskal herrietako elkarteak, Bilboko, Donostiako¹⁹⁷ eta Gasteizko auzo batzuetako elkarteak (Uribarri, Errekalde, Otxarkoaga, Bilbo Zaharra, Altza, Intxaurren, Salburua, Zabalzana, Txagorritxu, ...), Bizkaiko herri batzuetako elkarteak (Orozko, Dima, Gatika, ...) eta abar (Baite elkarte Azeptian, adibidez).

¹⁹⁶ Gaur eta hemen horrek 2017 urteari egiten dio erreferentzia. Horren ostean, batez ere 2018an, hainbat herritan sortu dira Euskal-dia dinamizatze taldeak eta talde horietatik, kasu batzuetan, talde iraunkoragoetara pasatu dira herri batzuetan, baten batean elkarte sortzeraino (esate baterako, 2019an Galdakaon Bagabiz eta Beasainen Aittu euskara elkarteak sortu dira Euskalaldiko batzordeetatik abiatuta).

¹⁹⁷ Esate baterako, 2020an Donostian auzoetan 11 euskara batzorde edo talde zeuden martxan (Altza, Parte Zaharra, Bidebieta, Egia, Amara Berri, Intxaurren, Loiola, Loiolako Erribera, Aiete, Añorga eta Martutenen).


roodik gora dira gaur egun, esan dudan bezala. Eta nahiko egonkor mantendu dira herririk herri sortu diren elkarteak orokorrean eta salbuespenak salbuespen. Esate baterako, Topagunea sortu eta eratzeko prozesuan 32 elkarte hartu zuten parte, 1996an. 32 horietatik 2018an 28 elkarteak¹⁹⁸ jarraitzen dute bizirik. Ondorengo urteetan sortutako elkarte gehienek ere jarraikortasuna izan dute han eta hemen, nahiz eta horietako gutxi batzuk desagertu. Hala ere, eta kontuan hartuta elkarteetako asko boluntarioetan oinarritu izan direla ia erabat, eta toki mailako izaera izan dutela, orokorrean nahiko egonkorra izan da elkarteen fenomeno, nire ustez. Beraz, elkarte behin sortuta, lekurik gehienetan urteetako eboluzioa izan dute elkarte hauek.

roodik gora izan arren, erradiografia zehatzago egiteko bakarrik hartuko ditut kontuan Topagunera federatutako¹⁹⁹ elkarteak²⁰⁰. Izan ere, Topagunera federatuta ez dauden elkarte txiki horien datuak ezin baitira eskuratu. Esan bezala, 2017an Topaguneari 80 elkarte daude federatuta, 8 Araban (%10), 24 Bizkaian (%30), 33 Gipuzkoan (%41) eta 15 Nafarroan (%19). Hala ere, esan behar da urteen poderioz kopuruak aldatu egin direla. Topagunea sortu eta eratzeko prozesuan, 1996an, 32 elkarte hartu zuten parte. Urterik urte kopuru hori gorantza joan da 2012ra arte. Topagunea eratu eta lau urtera (2000ean, beraz) 52 ziren Topagunera federatutako elkarteak. 2005ean, ostera, 76 ziren dagoeneko federatutakoak. 2012ean, berriz, 96 elkarte ziren federatutakoak (inoiz izandako kopururik altuena). Eta, ordutik hona, kopuruak gora egin beharrean, behera egin du eta, azkenik, 2017an 80 dira federatutako elkarteak.

198 Desagertu diren lau elkarteak honako hauek dira: Garraxi (Trapaga), Urdulizko euskara taldea, Barriketan (Elorrio) eta Laixan (Oñati). Egia da, hala ere, beste bi elkarte izena aldatu dutela: Deustuari euskara dariola zena orain Berbaizu da eta Mungia euskaldunduz zena Txokolo.

199 Topagunera federatutako 80 horiek dira, gainera, euskal herriko luze-zabalean eta herririk herri eragin handiena dutenak. Izan ere, handienak diren elkarte guztiak Topaguneko parte dira (txikiak ere badiren arren), baliabide eta izen gehien dutenak, langileak dituztenak eta abar.

200 Topaguneari 2016an elkartei banatutako galdetegiaren datuak erabiliko ditut batez ere erradiografiaren atal hau osatzeko (Topagunea, 2017). Hala ere, kontuan hartu behar dira galdetegi horri 56 elkarte erantzun egin ziotela (federatutako elkarteentz %70, beraz). Dena den, kontuan hartu behar da galderaz galdera erantzun kopurua aldatzen dela (elkarte guztiak ez dizkiete galdera guztiak erantzunik eman). Gainera, herrialde herrialde erantzun kopuruak ere ezberdinak dira (Arabian elkarteentz %62, Bizkaian %58, Gipuzkoan %87 eta Nafarroan %53). Beraz, datuak hartu behar dira beharrezkoak diren prebentzio neurri guztiak.

Irudia 1: Topagunera federatutako elkarteak urtetik urtera

Irudia 1: nik egindakoa, Topagunearen Topaberri barne buletinetao datuetan oinarrituta.


4.3.2 Non errotu dira elkarteak?

Genealogietan esan izan dudan bezala, Arrasate izan zen elkarten sorreran epizentro. Arrasate, 25.000 biztanle inguruko herria, Gipuzkoan, Debagoiena eskualdean. Arrasate, kooperatibagintzak famatu eta biziki baldintzatu duen herria. Arrasatek 1981an populazioaren %39 euskalduna zuen herria (1986an %42). Kasualitatea ote? Zergatik izan zen Arrasate mugimendu honen epizentro? “Eta hau nik uste ez dela kasualitatea, Arrasate izatea nolabait honen epizentroa. Arrasaten erakundeak urruti ikusten dira. Goi egiturak urruti ikusten dira. Behetik gorako auto-eraketaren kultura hori dago aspalditik” (SE01).

Arrasateren esperientzia kooperatiboak eraginak izan ditu arlo ekonomikoan, nabarmen, baina baita arlo sozialean ere. Esate baterako, Debagoienan biztanleria aktiboaren %40 inguru kooperatibetan aritzen da eta Arrasaten %60 inguru (Altuna, 2011: 187). Dentsitate horrek kultura kooperatiboaren berezko eredu bat ekarri ei du. Eta kultura horretan auto-eraketak berebiziko garrantzia du.

Izan ere, kooperatiba esperientzia honen ideologo eta bultzatzaile nagusi izan zen Jose Maria Arizmendiarieta. Haren arabera, “gizakiek eta gizarteak autoeraketarantz egiten duten bideak gidatuko du etorkizuneko aurrerabidea. Norberarengandik hasi beharra dago, norberaren autoeraketa eta komunitatearen autoeraketa uztartuta” (Altuna, 2011: 45). Are gehiago, “pertsonak nahiz komunitateak izan behar dute beren etorkizunaren protagonista, gidari eta sortzaile; bide horretatik baino ezingo dituzte benetako askatasuna, heldutasuna eta duintasuna lortu” (Altuna, 2011: 45).

Mapa 2: inoiz euskara elkarteak izan duten herrien mapa, hedabideen alorra bakarrik landu duten elkarteak kenduta.



Mapa 2: nik egindako mapa.

Lehen mapan ikusten da euskara elkarten hedadura osoa, inoiz euskara elkar-terik izan duten herri guztiak agertzen baitira. Bigarren mapa, ostera, zehatzagoa da eta bakarrik erakusten du euskara elkarterik izan duten herriak, hedabideak bakarrik landu dituztenak kenduta. Aztertu ditzadan apur bat mapa bi horiek.

Lehen begi kolpean argi ikusten da hedapena irregularra izan dela: Bizkaiko bi gune nagusitan hutsuneak oso nabarmenak dira (Enkarterrietan eta Busturialdea eta Lea-Artibai inguruetan), Nafarroa erdialdetik behera eta ekialdean hutsunea da ia dena eta Ipar Euskal Herrian ere ia dena da hutsune. Araba eta Gipuzkoan, aldiz, hutsuneak bakanagoak dira. Hala ere, Gipuzkoan lehen mapari baino bigarrenari begiratu gero, hutsuneak nabarmenagoak dira, dudarik gabe. Honela laburbiltzen du egoera ikerketan parte hartu duen aditu bat: “Euskara elkar-teriek Gipuzkoan izan zuten bere sorreraren epizentroa eta herrialde horretan, Bizkaiko eskualde batzuetan eta Nafarroako iparraldean erakutsi dute batez ere

dinamismo gehien” (D02). Beste aditu batek, baina, orokorrago jotzen du: “Euskara elkarteak asko zabaldu diren arren, hedadura mugatua izan dute, bai Euskal Herri osoari dagokionez, eta baita tokian tokiko hedadurari dagokionez” (D01).

Ipar Euskal Herriko egoerak seguruenik irakurketa propioa ekarri behar du. Izan ere, euskara elkartearen fenomeno oso fenomeno hegoaldearra izan da orain gutxi arte. Hala ere, oso interesgarria da honen inguruan ikerketan parte hartu duen aditu batzuek egin duen diseinua: “Ipar Euskal Herrian, euskalgintza soziala bi sektoretan bana daiteke: Euskal Konfederazioaren inguruan biltzen diren elkarte/kideak eta elektro libre moduan ibiltzen diren elkarte/kideak. Euskal Konfederazioak euskararen aldeko mugimendu sozio-politikoak astintzea du helburu, erabakitzaileengan eragiteko. Hein handi batean, diru laguntzen menpe izateak Euskal Konfederazioa erabakiguneetan kokatzera eramaten du. Horren ondoren, eskala apalago batean beste elkarte/norbanako batzuek euskararen aldeko lana egiten dute (Zabalik elkarte Donapaleun, Mintzaia Hendaian, Hiriburun euskaraz Hiriburun, Banka-Urepele sektorean, Larresoro aldean, BAM hiri-eremuan ...). Haien kasuan, errango nuke politikatik urrun egiten dutela lan” (D04). Irakurketak jarraitzen du: “Ipar Euskal Herrian euskara elkartearen eraketarik ez da eta formakuntza ohiturarik ere ez, oro har. Ekintza lurralde bat da gurea, zirkuitu laburrean eta epe laburrean mobilizatzen dena. Hori dela eta, euskararen inguruko mugimendua beharren asetzera zentratu da bereziki” (D04).

Bigarren kolpean, eta salbuespenak salbuespen, euskara elkarte gehienak ez daude ez arnaguneetan ez herririk erdaldunenetan. Badirudi euskara elkartearen fenomeno oso dela izan oso indartsu egoera soziolinguistikoaren bi muturretan. Salbuespenak nabarmenak daude (Aulesti, Elgeta edo Oñati alde batean, eta Errioxa, Agoitz, Lizarra eta Balmaseda bestean, besteak beste). Dena den, badirudi egoera soziolinguistikoak ere eragina izan duela elkartearen sorreran, behinik behin. Ikerketan parte hartu duen aditu batzuek honela dakar: “Testuinguru soziolinguistikoak eta euskal hiztunen dentsitateak garrantzia handia eduki du elkartearen osaketan eta jardunean” (D02).

Baina mapa horietatik abiatuta, oraindik irakurketa xeheagoa egin daiteke. Esaterako, Bizkaiko mapa hartuta, ikus daiteke euskara elkartearen izan duten herri gehienak tamaina ertain edo handikoak direla: Barakaldo, Portugalete, Santurtzi, Getxo, Bilbo (Deustu eta Mahatserria), Erandio, Mungia, Durango, Bermeo, Galdakao, Basauri, ... Antzekoa da Gipuzkoan (Arrasate, Elgoibar, Eibar, Hernani, Tolosa, Lasarte-Oria, Urretxu-Zumarraga, Irun, Erreterria, Beasain, Donostia, ...), Araban (Laudio, Amurrio, Agurain, Gasteiz, ...) eta Nafarroan (Atarrabia,

Altsasu, Lizarra, Iruñea, ...). Badira edo izan dira elkarteak herri txikiagoetan ere (Bizkaian Derio, Sondika, Zamudio, Lezama, Larrabetzu, Iurreta, Aulesti edo Gordexola; Gipuzkoan Soraluze, Elgeta, Eskoriatza edo Mutriku; Araban Zuia, Urkabustaiz edo Trebiñu; eta Nafarroan Irurtzun edo Agoitz). Honako irakurketa hau egiten du ikerketan parte hartu duen aditueta bategi: “Elkarteak neurri ertaineko herrietan garatu dira. Horieta, sare sozialek izaera komunitarioa izan ohi dute, hau da, jendearen arteko harremanak berez nahiko trinkoak izan ohi dira. Ondorioz, errazagoa da komunitateak, bere adiera soziologikoan, eraikitzea (hor oinarritzen da arnaguneen proiektua ere)” (D02).

Esandakoak esanda, argi dago euskara elkarten fenomenoa nahiko irregularra izan dela herrien tamainari dagokionez ere. Egia da gehientsuenak herri ertain edo handietan garatu direla, baina ez herri ertain edo handi guztietan. Badira hutsune nabarmenak herrialderik herrialde (Bizkaian Durangon bai, baina Gernikan ez, Mungian bai, baina Igorren ez, edo Barakaldon bai eta Sestaon ez; Gipuzkoan Lasarte-Orian bai, baina Andoainen ez; Oñatin bai, baina Oiartzunen ez, eta abar).

Horri gehitu behar zaio denboraren fenomenoa. Izan ere, herri askotan sortu dira elkarteak eta gero desagertu. Eta hori ere hartu behar da kontuan. Esate baterako, Bizkaian desagertu dira elkarteak Trapagan, Balmasedan, Urdulizen, Gantikan, Bakion, Portugaleten, Santurtzin, Leioan, Bermeon, Durangaldeko ia herri guztietan (Berriz, Iurreta, Mallabia, Elorrio, Zaldibar), Gipuzkoan ere herri askotan desagertu dira elkarteak (Eskoriatza, Oñati, Irun edo Pasaia), baita Araban (Zuia, Trebiñu) eta Nafarroan (Agoitz) ere.

Horren guztiaren atzean, tokikotasuna dago nire ustez. Hau da, euskara elkarteak tokian toki sortu dira, tokian toki garatu eta tokian tokikoek erabaki dute elkarte eratu edo elkarte desagerrarazi erabaki dute. Erabakimena beti egon da toki mailan eta, orduan, tokiko euskaltzaleek zeuzkaten indarrak, ideiak edo dena delakoak eragin ikaragarria izan dute elkarten sorreran eta desagerpenean (baita elkarten bizitzan ere, aurreragoko ataletan ikusiko dugun bezala).

Tokiko fenomenoa izan dira elkarteak, tokiko egoerak baldintzatu ditu elkarteak. Egoera soziolinguistiko batzuetan elkarteak abantailak izan dituzte (ez oso herri euskaldunetan, ezpada hedabideak sustatzeko, ezta oso herri erdaldunduetan ere). Horrez gain, herriaren tamainak ere izan du eragina elkarten eraketan. Oso bakanak dira 1000 biztanletik beherako herrietan sortutako elkarteak (Aulesti izan daiteke salbuespenik nabarmenena) eta gutxi dira 1000-5000 biztanle arteko herrietan eratutako elkarteak (Agoitz, Zamudio, Lezama, Gordexola, Soraluze,

Sondika, Elgeta, Zuia edo Larrabetzu). Hortaz, badirudi 5000 biztanleko langak ezartzen duela euskara elkarteak sortzeko muga. Atalasea hor badago ere, 1000 biztanleko mugak dakar ia ezinezko bihurtzea tankera honetako elkarterik sortzea.

4.3.3 Zelan sortu ziren?

Esan bezala, Arrasaten sortu zen lehen euskara elkarteak, AED. Hala ere, urte batzuetan bidea bakarrik egin behar izan zuen. 1987an Jose Maria Sanchez Carrion Txepetxek mugarri teorikoa ezarri zuen eta hori bultzatuta han eta hemen sortzen hasi ziren elkarteak. Baina elkarte horiek zelanbait AEDk izan zuen zehaztapen praktikoari jarraitu egin zioten. Izan ere, AEDk finkatu zituen ostean etorriko ziren elkarten ezaugarriak: egituraketa, funtzionamendua, egiteko moduak, funtzioak, ... Eta beste herrietakoak ibili ziren AEDren eredia begiratzen: “Eta hartu genuen, modu batean, Txepetxeren mezuaren garraiatzaile izatea, eta gero, guk gure moduan, bere teorietan sakontzen jarraitzeko. (...) AED ikusi genuen haren konkretizazio bat, herri mailakoa, txukuna (...) eta esan genuen ea AED moduko bat montatu ahal genuen Donostian” (SE05). Mimesi hori elkarteak joan zen loratzen: “AEDkoekin egon nintzen, Eibarkoekin... Euskara elkarte horietan sortzen zen horren berri jaso, eta gurean zelan aplikatu. Orduan, lehenengo zeregina izan zen Elgoibarko Izar berri hori zer izan behar zen dokumentu batean jasotzea. Elkarte berri horren izaera eta egitekoa, eta pixka bat funtzionamendua ere bai. (...) Elkartearen definizio bat adostu genuenean, jendearen bila hasi ginen. (...) Deialdi publiko bat egin genuen eta jendeak izena eman zuen. Nik ere parte hartu nahi dut elkarte honetan. Ordurako lan sailak-eta erabakita geneuzkan, eta izena ematen zuen bakoitzak aukeratzen zuen bere gustuko sail hori” (SE03). “Euskaltzale haietako batzuek, Arrasate Euskaldun Dezagun (AED) elkartearen berri izan zuten, eta garaisiu hartan eman zuen ere Jose Maria Sanchez Carrion Txepetx hizkuntzalariak hitzaldi sorta bat Gasteizen. Hizkuntza minorizatuen gaineko hitzaldi haiek akuilua izan zituzten, eta AED, eredu. Gipuzkoako herri horretakoek ‘Arrasate Press’ aldizkaria sortu zuten, eta, haren inbidiaz, horrelakoxe zerbait egin behar zutela pentsatu zuten gasteiztarrek. Hartara, bilera bat deitu zuten Irakasle Eskolan” (Izaga, 2017).

Hortaz, mugarri filosofikoak praktikarekin bat egin zuenean, elkarten oinarria zelanbait finkatu zen. “Orduan hori, AED eta hori gertatu zian, orduan, bazian mugimendu hori. (...) Bazian izpiritu errebelde hori” (SE25). “Elkarteak euskalgintzaren eklosio momentu batean sortu ziren, beste hainbat erakundere-

kin batera” (D01). Hortaz, lehen euskara elkarteak 1990-1991 urteetan hasten dira sortzen, han-hemenka (Bizkai-Gipuzkoetan batez ere).

Adorez eta Atseginez izeneko mintegia ere aipatu behar da, elkarteen sorrera zelakoa izan zen xeheago ulertzeko. Mintegi hori 1991n sortu zen, Eskoriatzako Irakasle Eskolan, Julen Arexolaleiba²⁰² buru. Mintegi honen helburua zen Txepetxen teorietan sakontzea eta, ahal zen neurrian, horiek gorpuztu, haragitu eta errealitatean gauzatu. Mintegiko kide izan zen elkarrizketatzaile honek ondo adierazten du han gertatutakoa: “Txepetxek zelan esaten zigun han jasotako gutia nonbaiten praktikan jarri behar genuela. Zeozer egin behar genuela. Zer egin pentsatzen ari nintzela, Eskoriatzako amaitu eta hona etorri nintzen. Elgoibarren elkarte desagertzeaz zegoen, eta elkarteko lagun bat etorri zitzaidan esaten zeozer egin behar genuela Elgoibarko Izarrarekin berriz berrindartzeko” (SE03).

Baina izan ziren beste bide batzuk mugimendu honen sorreran eragina izan zutenak. AED elkarte 1989an *Jazten* izeneko aldizkaria argitaratzen hasi zen. Aldizkari honek zeukan azpitu-tulua deigarria da: *biziko bagara jantzi beharra daukagulako*. Aldizkari honen bidez, batetik, Txepetxen teorietan sakondu gura zuten AEDkoek eta, bestetik, euskararen biziberritzearekin lotutako gogoeta eta praktika interesgarriak bildu eta zabaldu. Aldizkariaren zuzendaria *Adorez eta Atseginez* mintegian zuzendari izan zen pertsona bera izan zen: Julen Arexolaleiba, sozilinguista eta aktibista arrasatearra.

Aldizkariak bost urteko ibilbidea egin zuen, 1989tik 1994ra. Guztira, 10 zenbaki²⁰³ argitaratu zituen, denetariko gaiei lekua eginez: Txepetxen teoriak, irakaskuntza, AEDri buruzko monografikoa, gazteak, munduko eleaniztasuna, Kolon Ameriketara heltzearen V. mendeurrenaren ingurukoak, herrietako euskara elkarteei buruzko jardunaldiak eta abar. Aldizkari dibulгатiboa izan zen *Jazten* eta herririk herri egosten ari zen mugimendua elikatzeo hautua egin zuen.

202 Julen Arexolaleiba mintegiko zuzendaria izateaz gain, AED elkarteko lehen langilea ere izan zen, Eskoriatzako Irakasle Eskolan lanean hasi aurretik. Pertsona erabakigarria izango da euskara elkarteen mugimenduan, batez ere hasierako urteetan.

203 Hauek izan ziren *Jazten* aldizkari bakoitzeko gai monografikoak:

1. “Un futuro para nuestro pasado” liburuaren aurkezpena.
2. Irakaskuntza, hizkuntza eta gizartea.
3. Zer da AED? Zer dago atzetik?
4. Gazteak eta euskara.
5. Munduan, eleaniztasuna nagusi.
6. V. Mendeurrenaren, Gora nazio etnikoak! Behera estatu zaharrak!
7. 10 urte, egunez egun, Arrasate euskalduntzen.
8. Herrietako euskara elkarteei buruzko jardunaldiak (1).
9. Herrietako euskara elkarteei buruzko jardunaldiak (2).
10. AED, hamar urte Arrasate egiten, Euskal Herria egiten.

Bereziki deigarria da, zentzu horretan, *Jazten* aldizkariaren 3. zenbakia²⁰⁴. Izan ere, zenbaki horretan hainbat artikulu argitaratu ziren AEDri buruz. Sorreraz jardun zuten, ekinbidez, barne funtzionamenduaz eta AEDren atzean zegoen hausnarketa teorikoez. Sarreran bertan aipatzen da honako hau: “Jakinean gaude Arrasaten urratzen ari garen bideak jakinmina sortarazi duela herrian bertan eta baita gure herri mugarrietatik kanpora ere. Honela, bada, bikoitza da *Jazten* 3. honen emaitza, batetik, elkartean lanean dihardugunon esperientzia papereratzten lagundu digulako, eta, bestetik, AEDren esperentziaz informazioa jaso nahi dukeena bertan aurkitu ahal izango duelako Arrasate Euskaldun Dezagun-ez oinarrizko informazioa” (AED, 1990). Hau da, “oinarriak non jarri ditugun eta zutabe nagusi zeintzuk dauzkagun jakin nahi duenari, ideiak argitzen lagunduko dio” (AED, 1990).

AEDk, gainera, beste bide batzuk ere jarri zituen herririk herri sortzen ari ziren talde eta pertsona horien lana indartzeko. Esate baterako, AEDren 10. urteurrenaren kariatara, herrietako euskara elkarten gaineko jardunaldiak egin zituen (gero han aurkeztutako ponentzia guztiak *Jazten* aldizkariako bi zenbaki monografikoetan argitaratu ziren, 8 eta 9. zenbakietan, hain zuzen ere). Interesgarria da irakurtzea Joxe Mari Muxikak (garai hartan AEDko lehendakaria) jardunaldi hauen sarreran egindako hitzak: “Arrasatetik kanpora AEDk oihartzuna lortu du. Esan behar dut euskara elkarteak errealitate bihurtzen ari direla. Hainbat herritan antzerako elkarteak osatzen dabilta eta gaur egun badira sorturik 40ren bat euskara elkarte, euskararen erabilera areagotzeko jardunean dabiltzanak urte askoan batzuk eta gutxiagotan besteak. Jardunaldi hauetan Euskal Herri zabaleko partaidetza izateak ere esku artean daramagun proiektuaren interesa nabarmentzen du” (Muxika, 1993).

Bide informalagoak ere izan ziren. Adibidez, gure elkarrizketatuetako batek honako hau kontatzen digu: “Tarte horretan ezagutu nuen liburua, *Un futuro para nuestro pasado*. Hasten nintzen irakurtzen eta niretzako sakonegi. (...) Halako batean, batek proposatu zidan asteburu bateko ikastaroa liburu horren inguruan ematen zuela Joseba Barriola “Maixuk”. (...) Ikusten nuen gauzak egiteko modu berri bat. Orain ez dizut esplikatu zer den hori-edo. Eta lotu nintzen historia horretara. (...) Horrek, ordura arte, neukan euskaragintzaren kontzeptua-edo goitik behera aldatu ninduen” (SE08).

204 Hauxe izan zen aldizkari horren aurkibidea:
 · Sarrera
 · Arrasate Euskaldun Dezagun, Iñaki Mendiguren
 · Euskal komunikabideak Arrasaten, Joxe Arantzabal
 · AEDren barne antolaketa: organigrama, Juan Luis Arexolaleiba
 · Euskararen aldeko hitzarmena, Arantzazu Loidi
 · Gure lanaren norabidearen teorizazioa, Julen Arexolaleiba
 · Mahaingurua: euskaldunen arteko elkarlana posible ote?, Arantzazu Loidi

Sorrera urte hauetan guztietan, esan dudan bezala, zelanbait zedarritu egin zen euskara elkarteek “marka²⁰⁵”. Horren ostean etorri diren elkarteak, modu batean ala bestean, sorrera urte hauetan finkatutako ildo horietatik sartu dira, bide horietatik jo dute edo ildo eta bide horietan sakondu dute, tokirik toki. Hortaz, talde bat batzen da euskararen aldeko proiektu bat sustatzeko asmoz eta aholkua eskatzen die dagoeneko martxan daudenei (eta, ostean, sarritan Topaguneari). Talde bakoitzak eskema orokorra egiten du bere eta, horrela, mugimenduko parte izateko aukera du, baina talde edo elkarte bakoitzak sartzen ditu tokiko aldaerak, ñabardura politikoak edo ñabardura subjektiboak. Horrela, mugimendu bateratu baino, mugimendu plurala osatzen dute elkarte hauek guztiak.

Beraz, euskara elkarteek 80ko hamarralditik aurrera euskal herrietako mugimendu sozialetako eredia zelanbait kopiatzen dute. Eredu hori edonork egin dezake (DIY, *do it yourself*²⁰⁶) lelopean laburbildu daiteke: “Edozein pertsona edo kolektibok, benetako borondatea baldin badu, nahi duena egin dezake edo, behinik behin, saiatu, batez ere, beste leku eta espazio batzuetan funtzionatzen ari bada” (Pascual, 2019: 45). Josu Larrinagak ere bide beretik jotzen du: “Euskal kulturaren, *Do It Yourself* filosofia errotu da” (Larrinaga, 2016: 165).

Horrez gain, kontuan hartu behar da 80ko hamarkadan adierazpide alternatibo eta berritzaile asko garatzen direla euskal herrietan, dela musikagintzan, arte plastikoetan, bideogintzan, komikigintzan edo literaturan. Baina ez hori bakarrik: hamarkada horretan herririk herri sortuko dira irrati libreak, gaztetxeak, fanzineak eta abar, guztiak ere praktika auto-eratuak. Adierazpide horietatik edan eta elikatuko dira euskara elkarteak, baita hurrengo hamarkadetan sortuko diren-tatik ere (horietako batzuk, gainera, elkarteek eurek sortuko dituzte). Eta horrek zelanbaiteko lorratz kontrakulturala eman zion euskal kulturari eta euskararen aldeko mugimendu sozialari.

Gauzatze praktikoa (AED) eta ekarpen teoriko mamitsua (Txepetx) batu ziren, hasiera batean, eta horrek ekarri zuen hasieran elkarteek oinarria sendoa izatea. “Nik uste dut sortu zirela lehenengoak helburu oso argi batzurekin. Filosofikoki ondo landuta esango nuke hasieran. Guk jaso duguna behintzat, eta nik ere hasiera ez dut ezagutu, orduan, jaso duguna...Nahiko blindatuta joan ziren hasierako gogoeta guztiak, funtzioak oso argi eta hori. Baina gero mugimendua

205 Marka berba erabiltzen dut, kasu honetan, marketinean erabiltzen den bezala (hau da, produktu, zerbitzu, enpresa edo instituzio baten izena, terminoa, sinboloa edo/eta diseinu propioa da marka, produktu, zerbitzu, enpresa edo instituzio horien ordezkaria izango dena).

206 Erabili dudan itzulpena ez dator guztiz bat originalarekin. Jakue Pascual ikertzaileak erabiltzen du horrela eta iruditu zait originalak baino hobeto jasotzen duela azpian datorren filosofia auto-eratzailera.

handitu zen neurrian, imitazioa izan zen nagusi eta orduan barruan zeuden printzipioak igual ba, kasuan kasu” (SE15). Antzeko bidetik jotzen du beste elkarrizketatu batzuek: “Ikusten dut hasieran sekulako lana egin zela, sekulako lan, gainera, teorikoa. Hor bazegoen nolabait ere corpus bat sortzearen beharra... ezagutza bat, eta gauzak serio hartzearena. Mugimendu sozial bat oinarri sendoak edukiko zituen” (SE17). “Elkartu ziren gaiaren inguruan kezka zituzten jendea, aztertu zituzten arloak ondo, eta gero hortik sortu dira mugimendu sendoak” (SE04).

Elkarteen egituraketari eta funtzionamenduari dagokionez, elkarte guztiek antzeko jokatu zuten eta dute: kultur elkartearen izaera juridikoa hartu dute elkarteek (Hego zein Ipar Euskal Herrian, bakoitzean bere ñabardura juridikoenkin), kuotadun bazkideak, aktibistek osatutako zuzendaritza batzordea, langileak (kasu guztietan ez, baina, zelanbait, joera izan da ahal izan den lekuetan langileak hartzea), diru-laguntzetara aurkezteko predisposizioa, ...

Egituraketa hori herririk herri erreplikatu zen eta da urteetan zehar, salbuespen oso-oso gutxirekin²⁰⁷.

Horrez gain, helburu, egiteko moduak eta funtzioei dagokienez, Arrasateko AEDk ere finkatu zuen, zelanbait, ostean etorriko diren elkarten jarduna ere. Hala ere, hori aurrerantzeko kapituluetan jorratuko dut luze eta zabal.

Dena den, AED eredu bihurtu zen, beste elkarteek zelanbait kopia zuten haren eredu. Baina, kasu batzuetan, badirudi ez zutela erabat AEDren marka edo eredu bere horretan kopia. “Euskara elkarte batzuek lortu dute AEDren *kopia hobetu bat* egitea. Gehienek egin dute kopia hutsa” (D11). “Nolabait azkar esanda, (Arrasatek edo dena delako tokitik) ez zuten *kopiatu* estrategia oso bat baizik eta ondorio edo emaitza bat” (D08).

4.3.4 Nortzuk izan dira elkarteetan aktibo?

Euskara elkarten anatomian, normalean, hiru figura ezberdintzen dira: bazkideak, aktibistak (edo boluntarioak) eta langileak. Figura bakoitzaren barrunbeetara txangoa egitea merezi du, ulertzeko apur bat nortzuk egon dira behar euskara elkarteetan, modu batean edo bestean.

207 Salbuespenak dira, kasu honetan, Topagunera federatuta ez dauden elkarteetako batzuk.

Lehenik, bazkideak leudeke. Bazkide hauek babeseta eta sustengua adierazten diete elkartei, kuota baten truke²⁰⁸. Kasu batzuetan, kuota horrekin bazkideek zerbitzu batzuetan deskontuak edo abantailak izan ditzakete. Bigarrenik, aktibistak (edo boluntarioak). Hauek dira elkarte gehienetan muina, funtsa. Izan ere, Spolsky-k dioena jarraituz, hizkuntza aktibistak dira hauek, hau da, “hizkuntza euren kezken erdigunean jartzen dituztenak” (Spolsky, 2009). Eta erdigune hori osatzen dute elkarte gehienetan. Langileak ere badituzte hainbat elkarte. Sol-datapeko hauek, hala ere, normalean aktibista kutsua²⁰⁹ ere badute (normalean elkarteetan lan egin dutenak baldintza nahiko kaskarretan aritu izan dira eta dira, dedikazioari edo lan-sariari dagokionez eta horrek, hein batean, berezi egin ditu elkarteetan lan-jardun profetionalean aritu direnak, berezi edo aktibismo kutsu bati esker iraun dutela elkartegintzan lanean).

Esan dudana legez, elkarte hauek guztiek bazkideak dituzte. Bazkidezari dagokionez, elkartearen artean ezberdintasunak nabarmenak dira. Baina elkarte gehienetan bazkide izateko bi baldintza baino ez dira eskatzen: batetik, euskalduna izatea (hau da, euskaraz jakitea, euskaradun aitortzea zeure burua) eta, bestetik, elkartearen kide izateko nahia (kuota ordainduz gauzatu egiten dena). Hortaz, elkartearen hauen eragina zenbatekoa izan daitekeen jakiteko, datu egokia izan daiteke jakitea zenbat bazkide dute. Topaguneak 2016an banatutako galdetegiaren arabera, euskara elkarteek 16.528²¹⁰ bazkide dituzte. Beraz, elkartearen batez beste 344 bazkide²¹¹ dituzte. Baina, kopuru hauek, herrialde herrialde aldatu egiten dira. Gipuzkoan, adibidez, 371 bazkide egongo lirake elkartearen eta, beste muturrean, Nafarroan 116 bazkide leudeke elkartearen. Bazkide horien artean, emakumeak %55 dira eta gizonak %45. Adinari dagokionez, 30 urtetik beherakoak dira bazkideen %19 (eta 31 urtetik gorakoak %81).

Bazkide horiek urteko diru sarrera egiten diote beren herriko elkarteari (kasu batzuetan diruaren orde, orduak ematen dituzte bazkide batzuek, baina kasu bakan batzuek omen dira horiek). Batez beste, bazkideek 41,40 euro urtean ordaintzen dute (elkartearen artean, kuotarik txikiena 10 eurokoa da eta handiena, berriz, 120 eurokoa). Urtero, hortaz, 684.000 euroko ekarpen ekonomikoa egiten diete bazkideek elkartei.

208 Kasu batzuetan, kuota ordaindu beharrean, bazkide batzuek ordu batzuk eskaintzen dizkiete elkartei urtean zehar.

209 Bitxia da, esate baterako, Elgoibarko Izarrak gai honi buruz 1995ean argitaratu zuen txosten monografikoa. 21 orrialdetan langileen baldintzak, kontratu motak, barne promozioak, diru-sariak, eginkizunak eta abar aletzen dira (Elgoibarko Izara, 1995).


210 Kopuru hau osatzeko, 48 elkarteren datuak hartu dira kontuan. Hortaz, logikoa da pentsatzea erantzun ez duten 32 elkarteek ere bazkideak dituztela eta, beraz, kopuruaren dezente altuagoa dela pentsa daiteke. Hala ere, daturik ezean, dagoen datu horri oratuko diot.

211 Kalkulua egiteko erantzun duten 48 elkarteak hartu dira aintzat.

Bazkideei dagokienez, interesgarria da Ttakun elkarteak 1999an egin zuen azterketa²¹² (Urruzola, 1999). Azterketa horretan, besteak beste, Ttakuneko bazkideei galdetu egiten zitzairen ea euren euskararekiko jarrerak, gaitasunak eta praktikak hobetu dituzten bazkide izatearen ondorioz. “Gai honetan, badirudi Ttakunen eragina nabaritu edo nabaritzen ari dela zenbait bazkideren artean, batez ere, euskararengana jarrerari dagokionez: %33ak jarrera hobetu omen du Ttakunen eraginez. Beste %67k, berriz, jarrera berdina duela ziurtatzen du. Bestalde, euskararen ezagutzan eta erabileran ere aldaketak ikusten dira. Nahiz eta %75ek jokaera bera izan bi ezaugarri horiekiko, %25ak aurrerapenen bat nabarmendu egiten du. Atzera pausurik ez da izan hizkuntza ibilbidearekiko; jarrerak, ezagutzak eta erabilerak ez dute okerrera egin. Ez behintzat Ttakunen eraginez” (Urruzola, 1999). Gainera “inplikazioa zenbat eta handiagoa izan, orduan eta hobekuntza gehiago daude hizkuntza faktoreetan. Ezagutzan lantaldeetan dabiltzanen %42,3ak hobetu omen du euskara. Kopuru hori %17,1era jaisten da bazkide soilak direnen artera. Erabileran gauza bera esan daiteke, lantaldeetan dabiltzanen artean %46,2ak euskara gehiago erabiltzen du. Kopuru hori %15,7ra jaisten da bazkide soilen artera” (Urruzola, 1999).

Bazkide horietako batzuk, aurreko aipuetan jasotzen den bezala, urteko diru-sarrerara egiteaz gain, jarduten dute lanean elkarteetan bertan, boluntario, aktibista. Guztira, 2.000 boluntariotik gora hartzen du parte elkarteetan (bazkideen %12 pasatxo). Boluntario horietako gehienek ekarpen puntuala egiten dute elkarteetan. Lurralde lurralde ere badira aldeak. Araban elkarteko 45 aktibista dabil beharrean eta Nafarroan, ostera, elkarteko 18 baino ez.

Irudia 2: Boluntarioen kopurua euskara elkarteetan 2017an



Irudia 2: nik egindakoa, Topagunea (2017) datuetan oinarritua.

212 Elkarteen bazkideen gainean egin den azterketa bakarra delakoan nago. Horrek, hein batean, adierazten du elkarteek bazkideei kasu gehiegi egin ez izana. Zeharo interesgarria litzateke beste elkarte batzuetan bazkideen gaineko azterketa gehiago egitea. Horrek, gainera, etorkizuneko beste ikerketa batzuetarako abiapuntu egokia jarri dezake.

Aktibisten artean, emakumeak dira nagusi. Topaguneak emandako datuen arabera, %52 dira andrazkoak eta %48, ostera, gizonezkoak. Boluntario hauen %30k, berriz, 30 urte baino gutxiago du.

Ekintza jarraia duten boluntarioek elkarreentako zuzendaritza batzordea osatu ohi dute. Eta batzorde hori zuzentzen, lehendakaria egon ohi da. Lehendakarien artean, %56 gizonak dira eta %44 emakumeak. Lehendakarien batez besteko adina 47 urtekoa da eta bi baino ez dira 30 urte baino gutxiago dutenak. Zuzendaritza Batzorde horietan 389 euskaltzalek hartzen zuten parte 2016an, elkarteko 8 kide batez beste.

Batzorde horietan emakumeak %41 dira eta 30 urtetik beherakoak %16. Hala ere, hamar elkartetan zuzendaritzako kideen %75 edo gehiago emakumezkoak dira eta hiru elkartetan, berriz, gazteak dira zuzendaritzako lau kideetatik hiru. Batzorde horiek guztiek urtean 716 bilera egiten dituzte. Elkarre gehienetan zuzendaritza batzordea hilean behin edo hamabostean behin bildu egiten da.

Esan dudan bezala, boluntario hauek, aktibista hauek osatzen dute elkarten muina. Hortaz, iruditzen zait elkarten nolakotasuna aztertzeko beharrezkoa dela datu hauez gain, bestelako kontu batzuei ere jaramon egitea. Izan ere, “pertsonek beti dute sekulako eragina eta, are handiagoa, borondatezko mugimenduetan” (D01).

Izan ere, elkarreentetan jardun eta jarduten duten pertsonak dira “... motibazio altuko jendea. Orduan ikusten ziren behar batzuk nabarmenak zirenak. Eta orduan elkartu ginen, elkartu zen talde bat motibazio maila altukoa. Gero igual denborak erakusten du motibazio horrek falta duela formaziotik, falta duela eza-gutzatik, falta duela ...” (SE06). Hortaz, badirudi motibazio altuko jendea bai, baina formazio soziolinguistikoko gutxikoa. “Gure gabeziak bat izan daitekeela hori: formazio soziolinguistikoa. Jakitea zer, zergatik, nola ... nik uste dut hor gabezia handiak daudela” (SE17). “Ez dela landua, ez dela gogoetarik, ez dela teoriarik, soziolinguistikaz ezagutzak zero! Dena da akzio-erreakzio” (SE25). “Hausnarketa eta formaziorik barik elkarreentak pobretu egin dira, taldekideen diskurtsoak aberastu ez diren neurrian, hain zuzen ere” (D13). “Uste dut, kasu askotan, elkarreentetan ez dela egon herri horretan soziolinguistikaz jantziarena eta motibatuen den jendea, eta hori akats handia izan da” (D10). Hortaz, gogoia bai, indarra bai, grina bai, baina formazio soziolinguistikokoan gabeziak ere bai. Hori dirudi, gehien bat, euskara elkarreentako aktibisten profil nagusia, itxura batean.

Mugimenduak, hala ere, ekarpen teorikoetatik edan du, genealogietan ikusi dugun bezala. “Jende teoriko potentea egon da euskara elkarteen mugimenduaren bueltan momentu desberdinetan, igual ez beti, eta ekarpen potenteak etorri dira hortik” (SE15). Dena den, “... beste hainbat mugimendutan gertatu ohi den moduan, nire iritzia da baita ere pentsamenduari eta formazioari tarte txikiegia eman diogula. Horrek eragin du mugimenduaren hasierako bultzatzaileek zuten energia (neurri handi batean zituzten intuizio eta sentimenduak pentsamendurekin bat eginda ikusteak sortutakoa) urardotzen joan dela hasierako giza talde eta momentu hura denboran zehar pertsona gehiagotara hedatzen joan den heinean” (D16).

Zentzu horretan, nabarmena izan da hainbat elkartetan pertsona zehatz batzuek izan duten eragina elkarteren jardunbidearen norantzan. “Ba, taldean baten batek zeukan iniziatiba gauza desberdinak topatzeko. Eta eskertzen da, egia esan. Nik uste dut elkartu ginenean oso ondo ez genekiela zer egin nahi genuen. (...) Pertsona horrek harrikadak botatzen ditu eta besteok airean hartzen ditugu eta, gainera, betetzen ditugu” (SE11). “Eta hona heldu zen ideia AEKko irakasle batek nonbaiten ikusi zuelako holako aldizkari bat eta pentsatu zuen jardun egozia izan ahal zela ikasleekin batera lantzeko. Eta, seguru aski, hori baino gehiago ere bai” (SE12). “Santutxun, adibidez, Roberto²¹³ klabea izan da. Ze Robertok ekarri ditu ez bakarrik egiten ari ziren gauzak, baizik eta azpian zegoen filosofia ere bai, nik uste dut nahiko ondo ekarri duela. Hori herri guztietan ez da pasatu. Ez da egon Robertorik herri guztietan” (SE15).

Kasu batzuetan, gainera, udaletako euskara zerbitzuetako kideek ere eragin nabarmena izan dute elkarteen norantzan, elkarteen jardunbidean. “Kasu batzuetan argi egon da pertsona jakin batzuek izan duten eragina elkarteen sorreran eta garapenean. Adibidez, udaletako euskara teknikari zenbaitek paper erabakigarria izan du elkarte batzuen dinamismoan” (D02).

Hala ere, nahiko iritzi orokorra da elkarteen norantza erabaki duten pertsona horiek izan direla prestatuak eta ideiak eta jarduteko gaitasuna izan dutenak. Nik baino hobeto adierazten du hau guztia Delphi galdetegia erantzun duenetako batek: “Gehienetan, jende prestatua izan da, izen ona duena, kapital kultural baten jabe dena, botere esparru batean aritzen dena eta, hartara, baliabideak eskuratzeko eta kudeatzeko gai izanik erabakimena daukana. Beste hitz batzuekin adierazita, arrazoi desberdinengatik tokiko komunitatean lidergo sozial bat eraikitzeko

213 Anonimotasuna babestearren, pertsonaren benetako izena aldatu egin dut eta beste bat jarri.

baliabideak dauzkaten pertsonak izan ohi dira” (D02) elkarteen jarduna, modu batera ala bestera, gidatu dutenak.

Aktibista ibiltzeak euskara elkarteetan, gainera, eragina izan du pertsona hauen bizitzetan. Eragin hori islatu da, hein batean, pertsona horien euskararen gaitasun, jarrera eta praktiketan. “Ni herri honetan mundu guztiak ezagutzen nau pertsona euskaldun bezala. Baina Tximintxen²¹⁴ egon aurretik eta Tximintzeko lehen karpaina atera genuenetik, jende askoz gehiagok egiten dit euskaraz lehenengo hitza lehen baino. (...) Gune trinko bat edo erreferentea bat izatea lortu dut. Jendeak lotzen zaitu euskararekin. Lehen bazekiten euskalduna nintzela. Baina orain jendeak lotzen nau euskararekin” (SE11). Antzekoa dio galdetegia bete duen adituetako batek: “Euskara elkarteen mugimenduaren emaitza naiz, bertan trebatu naiz, bertan hazi, eta bertatik eskuratu dut begirada autonomo hori, euskalgintzei eta herrigintzei osagarritasunean eta berdintasunean begiratzen ikasteraino” (D14).

Beste kasu batzuetan, elkarteak izan dira nork bere kezkek, nork bere grinak, nork bere indarrak plazaratzeko gunea. “Erreta nengoen gauza batzuekin eta, momentu batean, behar nuena zen herritik eta herriarentzako izango zen militantzia batean parte hartu, hori egiteko nezesidada sentitu nuen, eta euskara elkarteak eskaini zidan horretarako lekua. Benetan herrigintza egiteko eta herriko nezesidadeetatik abiatuta eta benetan sinisten nuen gauza bat egiteko” (SE26).

Hasieratik, gainera, elkarteek bilatu izan dute aniztasuna. Aniztasuna, batez ere, ideologia aldetik. “Oso garbi ikusten zen ideologia diferenteetako jendea elkartu behar zela. Hautsi behar zela garai horretan beti zegoen beldur hori, politikoki markatzen bazintuzten, ba batzuk bakarrik etortzen zirela” (SE14). “Jende oso anitza bildu ginen, anitza hainbat zentzutan: ideologia aldetik, adin aldetik, lanbide aldetik, ...” (SE13). Eta aniztasunaren bila horretan ere Arrasate izan zen aitzindari: “Arrasaten, kooperatibetan, badaudela kolore diferentetako jendea organotan, organoak konpartitzen eta hor erabakiak hartzen eta abar. Eta hori neurri batean trasladatu zen baita ere AEDren sorrerara” (D01). Baina baita beste aniztasun batzuei ere: “Oso-oso garbi nuen jotzen nituen pertsonak ideologia ezberdinetakoak edo... alegia, mota guztietako pentsakerak egon behar zutela sortze prozesuan. Eta euskaltzale hutsak zirenak. Gainera, hori, ofizio ezberdinetakoak. Bati entzun nion ‘Ezazu egin irakasleen talde bat!’ ... eta, horrela, jokatu nuen” (S10).

214 Tximintx da Derioko euskara elkarte.

Aniztasunak aniztasun, badirudi, hala ere, joera politiko zehatz bateko kideak izan direla nagusi euskara elkarteetan mugimenduan. “Uste dut euskara elkarteetan mugitzen diren pertsonak nagusiki ezker abertzalekoak izan direla eta direla gaur egun ere” (D03). “Nik ez ditut herri guztiak ezagutzen, ezta gutxiagorik ere, baina inguruan ezagutu dudanetik esan dezaket lanean ibili zen jende gehiena ezker abertzale horretatik gertu zegoela, jende hori zelako, hain zuzen ere, herri mugimenduetan ibiltzeko joera zeukana, herri mugimenduetan lana egiteko ohitura eta gogoia zeukana. Eta esan nezake euskara elkarteetan geroztik ibili den jende gehiena ere ez dela oso urrutikoa izan” (D12). “Esango nuke ezker abertzaleak erakutsi ohi dituela euskararekiko konpromiso eta parte-hartze handiagoak beste alderdiek baino, eta, horregatik, korronte politiko horren zaletu gehiago bildu direla elkarteetara eta horien ekimenetara” (D09). Dena den, ez dirudi elkarteetan ardura izan denik hori: “Beste kontu bat da, Euskara Elkarteetan mugimendu osoan bezala, joera sozio-politiko batzuen pisua nabarmenagoa izan dela. Baina ez dut uste, gehienetan, Euskara Elkarteetan ardura izan denik hori” (D01). “Kideen ezauzgarri pertsonal orokorrek duten eraginaz gain, kideen joera edo estilo politikoek ere eragina izan dute. Adibidez, elkarte batzuek lehentasuna trinkotzeari, elkarlanari edo lan autozentratua egiteari eman diote eta beste batzuek aldarrikatzeari (besteei kritikak egiteari, aldarrikapen politiko-linguistikoak egiteari ...) eman diote” (D08). Ñabardura zeharo adierazgarriak egiten ditu galdetegia bete duen adituetako batek: “Pertsonen autonomiari dagokionean, eta arestian esan dudana-ren haritik, motibazio extralinguistikoaren zerbitzura jarduten duten kidez daude osatuta egungo euskaltzaleon topagune gehienak, baina hori ez da berria, horrela izan da lehenago ere. Grabeena da oraindik ez ditugula mekanismoak abiatu ataka hori gainditu eta gurera gerturatzeko pausoa eman duten euskaltzaleei zerbait desberdina, autonomoa, erakargarria, kulunkagarria, gatzduna baina era berean asegarria eta freskagarria eskaintzeko” (D14).

Hein berean, ematen du euskara elkarteek ez dutela lortu erabat anitzak izatea. Hein batean bai, baina guztiz ez. “Modu batera edo bestera, euskara elkarteek pertsona batzuk erakartzea lortu dute, baina beti gelditu da zati handi bat kanpoan. Uste dut pertsonok politika bizitzeko dugun moduak areagotzen duela zatiketa hori” (D03).

Aurretik esan bezala, elkarte horietako askok, bazkideak eta aktibistak izateaz aparte, langileak ere badituzte kontratatuta. 38 dira, hain zuzen ere, langileak di-

tuzten elkarteak²¹⁵. Langile horietatik guztietatik emakumeak %68,14 dira eta 30 urtetik beherakoak, ostera, %53,79. Langileen batez besteko adina 34 urtekoa da.


Taula 4: euskara elkarten langile kopurua 2017an.

	ELKARTEAK	LANGILEAK BAI	LANGILEAK	LANGILE KOPURUA
EUSKAL HERRIA	52	38	14	441
Araba	5	1	4	5
Bizkaia	13	8	5	36
Gipuzkoa	27	22	5	263
Nafarroa	7	7	0	137

Taula 4: nik egindakoa Topagunea (2017) datuetan oinarritua.

Hortaz, elkarteetan badira bazkideak, boluntarioak (edo aktibistak), lehendakariak, zuzendaritzako kideak eta langileak. Adina eta generoari dagokionez, aldaketa nabarmenak daude kategorian horietako bakoitzean. Hurrengo taulan ikusi daitezke alde horiek:

Irudia 3: Euskara elkarteetako boluntario eta langileak 2017an, 30 urtetik beherakoak eta emakumeak



Irudia 3: nik egindakoa Topagunea (2017) datuetan oinarritua.

Gizon-emakume proportzioari dagokionez, andrazkoak nagusi dira bazkideetan, boluntarioetan eta, bereziki, langileen artean. Deigarria da elkarteetan lan egiten dutenen hamarretik ia zazpi emakumezkoak izatea. Hala ere, lehendakari eta

²¹⁵ Erantzun duten 52 elkarteren artean, jakina. Topagunera federatutako beste 28 elkarteren daturik ez dugu. Hortaz, pentsa daiteke langiledun elkarte gehiago izango dela.

zuzendaritzako kideen artean, gizonezkoak dira nagusi. Beraz, elkarteen kasuan ere ardura mailan gora egin ahala emakumeen presentzia txikiagoa izaten da²¹⁶.

Datu hauek bat datoz 2014an, generoa eta euskara gurutzatuz, egin zen ikerketa baten ondorioekin: “Asko dira euskararen sustapenean lanean diharduten emakumeak, eta asko dira, baita ere, oso feminizatutako elkarte edo eremuak. Emakume- eta gizon-kopuru bertsuaz edo emakume gehiagori buruz hitz egin dezakegun arren, kanon hegemonikoak gizonezkoek osatzen dituzte eta euskararen sustapenez, politikaz, normalizazioaz publikoki entzuten ditugun ahots gehienak gizonezkoenak dira. Hizkuntzaren eremuan egiten den lanaren erreferentzia publiko nagusia gizonezkoena da, beraz.” (Oruesagasti, Arakistain, Otaegi, 2014). Euskara elkarteen kasuan ere hala dela ematen du. Izan ere, lehendakari eta zuzendaritza kide gehienak gizonezkoak dira, nahiz eta emakume gehiago izan boluntario eta langile.

Adinari dagokionez, elkarreetako aktibisten eta bazkideen batez besteko adina nahiko altua da, batez ere lehendakari dagokionez (bi baino ez dira 30 urtetik beherakoak). Zuzendaritzako kideen artean ere batez besteko adina nahiko altua da. Beraz, esan daiteke elkarteen norabidea markatzen duten pertsonak nahiko adintsuak direla. Eta, gainera, antza adinean gora doaz. Adibidez, Zintzo-mintzo elkarrean zuzendaritzako kideen artean, “1994an batez besteko adina 33 urtekoa zen eta 2010ean 46 urtekoa” (Zintzo-mintzo, 2010).

Datu hauek bat datoz 2018an, Mari Luz Estebanek koordinatuta, Gipuzkoako hainbat mugimendu sozialen gainean egindako azterketarekin: “Gure ikerlanean ardatz nagusitzat hartu ditugun eragileei (feminismoa, migratzaileen aldekoa, euskalgintza eta ekologismoa) erreparatuta, baina harago ere, azpimarratu behar da mugimendu gehienen partaideen batez besteko adina altua izan ohi dela” (Esteban, 2018).

Dena den, boluntario eta batez ere langileen artean, batez besteko adina jaisten da eta ematen du gazteagoak direla. Langileei dagokionez, azalpena seguruenik elkarrekin oro har izan dituzten lan baldintzekin izan dezake zerikusia. Hau da, oro har elkarrekin lan baldintza ez oso egonkorak izan ohi dituzte eta horrek, hein batean, esplikatu dezake langileen batez besteko adina baxuagoa izatea. Beste alde batetik, elkarte askotan aisialdi programak eramaten dituzte aurrera eta, horretara

216 Fenomeno honi literatura soziologikoan kristalezko sabaia deitzen zaio. Honako hau da kristalezko sabaia: emakumei goi-karguetara heltzea galarazten dien oztipo ikusezina (ikus, adibidez, Burin, 1996).

rako, jendea kontratatu egiten dute elkarteek. Aisialdi alorrean lan egiten duen jendearen batez besteko adina nahiko baxua izan ohi da orokorrean²¹⁷. Gainera, aisialdi alorrak garrantzi berezia du elkartearen langile kopuruan²¹⁸.

Izan ere, elkarteetako langile gehienak ez daude lotuta elkartearen lanari, ez-pada elkartearen proiektu batzuei: izan hedabideak, izan aisialdia edo izan mintzapraktika alorreko programak. Hortaz, langileen gaineko datua elkartei zuzenean lotu beharrean, elkartearen proiektuei lotu beharko litzaieke. Hortaz, oso gutxi dira han eta hemen elkartearen erabat zentratutako langintza profesionala garatzen duten pertsonak.

Datuak datu, aski urruneko eta aski gaizki enfokatutako argazkia dugu oraindik elkarteak osatzen dituzten pertsonen buruz. Merezi du euskara elkarteak osatzen dituzten pertsonen buruzko azterketa xeheagoa egitea, merezi du, era berean, euskararen aldeko mugimenduan engaiaturiko pertsonen buruzko azterketa xehea egitea. Gutxi dakigu horiei buruz, gutxi dakigu haien motibazioei buruz eta gutxi haien formazioari buruz. Etorkizunean, euskararen aldeko mugimenduaren eraginak eta indarrak biderkatu nahi izatekotan, nortzuk osatzen duten (eta nortzuk ez) mugimendua jakitea baliagarria izan daiteke. Baita osatzen duten horien kezka, grinak, ilusioak, formazio-premiak eta abarrak ezagutzea ere. Ahaztu barik, jakina, mugimenduan ibiltzearen pertsona horiek izan dituzten aldaketak, lorpenak, kezkak eta pozak. Ikerketa-ildo zeharo indartsuak atera daitezke bidexka honetatik.

Izan ere, beltzuneak eta ilunak asko dira erradiografia honetan eta ez bakarrik elkarteak osatzen dituzten pertsonen buruzkoak. Gutxi(egi) ikertu dira elkarteak, gutxi(egi) non, zelan eta zergatik sortu diren, gutxi(egi) euren eboluzioak eta abar. Beharrezkoak dira, hortaz, puntu beltz hauek argituko dituzten lanak, argituko dituzten ikerketak eta sistematizazioak.

Taxonomiarekin amaitzeko, egin nezake euskara elkartearen tipologia orokor samar bat. Horri segika, euskara elkarte gehienak Bizkai-Gipuzkoetan daude. Batez beste 344 bazkide dituzte eta horietatik gehienak emakumezkoak dira. Ha-

217 Ez dago Euskal Herriko aisialdian lan egiten duten pertsonen gaineko azterketarik adina, genero eta abarri buruz. Izaro Susperregik 2006an egin zuen hurreratzeko saio bat: haren arabera, aisialdiko talde hezitzaileetako pertsonen adina 18-23 urte bitartekoa da (batez beste); ekipamenduetan (gazteleku eta ludoteketan) lan egiten dutenak, aldiz, 20-30 urte bitartekoak dira eta, azkenik, zerbitzu enpresetan 30 urtetik langile asko daudela esaten du (Susperregi, 2006). Hala ere, nahiko uste orokorra da aisialdi arloan lan egiten duten gehienak gazteak direla, hainbat arrazoiengatik: lanbideak duen ospe sozial eskasagatik eta prekarietateagatik. Askotan boladaka lan egin behar da aisialdian (opor garaietan batez ere) eta horrek egin du lanbide hau izatea askorentzat diru-estria bat lortzeko bide, bestelako lanbide finkoago bat izan bitartean.

218 Esate baterako, Durangoko Berbaro elkarteak 7 langile ditu kontratatuta. Horietatik bi ari dira udaleko azpi-kontrata batean. Beste bat elkartearen koordinatzailea da eta besteek (lau), berriz, aisialdi alorrerako egiten dute lan. Opor sasoiaren, aldiz, 20 eta 30 langile kontratatzen dituzte Berbarokoek (SE22 kideari egindako elkarrizketatik ateratako datuak dira hauek).

marretik bi 30 urtetik beherako gazteak dira. Horrez gain, aktibistak badituzte, elkarteko batez beste 48. Hor ere emakumeak dira nagusi eta hamarretik hiru 30 urtetik beherako bazkideak. Elkarte gehienek zuzendaritza batzordea dute, eta hor nagusi dira gizonezkoak. Langileak ere izan ohi dituzte, guztira 441. Hor emakumeak dira nagusi eta hamarretik bost 30 urtetik beherakoak.

4.4 Euskara elkarten zutabe filosofikoak

Euskara elkarten mugimenduak iturri teorikoetatik edan du, hasiera-hasieratik eta gaur egun arte. Horrek, zelanbait, elkarten zutabe filosofikoak eraiki, zurkaiztu eta hezurmamitu ditu. Hurrengo orriotan saiaturko naiz zutabe filosofiko horiek aletzen, baita urteen poderioz zutabe eta mugarri horiek izan duten eboluzioa ere. Izan ere, elkarten abaroan eta uberan "... jende teoriko potentea egon da euskara elkarten mugimenduaren bueltan momentu desberdinetan, igual ez beti, eta ekarpen potenteak etorri dira hortik" (SE15).

Esan daiteke euskara elkarteak sortu zirela ekarpen teoriko bat praktikan ezartzeko. Izan ere, euskara elkarten sorreran bertan Jose Maria Sanchez Carrion Txepetx ezinbesteko erreferentea izan zen. Eta, batez ere, bere *Un futuro para nuestro pasado* liburua. Esan daiteke, hein batean, elkarteak sortu zirela ekarpen teoriko hori praktikara eramateko.

Hala ere, ez da ahaztu behar lehen euskara elkarte (Arrasateko AED) ekarpen teoriko hau baino lehen taxutu zela. Hortaz, badirudi ekintzak (hau da, AEDren sorrerak eta garapenak) ekarri zituela eztabaida berriak eta teoria baino lehen sortu zela. Beraz, esan daiteke teoriak ibili zituela praktikaren bideak eta, era berean, teoriak berak ekarri zituela praktika berriak eta praktika berrituak.

Tira egin dezadan, beraz, Txepetxten teorien haritik, praktika eta teoria txirikordatze eta uztartze aldera. Hortaz, Txepetxek zioen bezala, "... hizkuntza minorizatu baten hiztunek alde batera utzi behar duten lehen superstizioa da Gobernuaren ekimenak (izan Estatua, autonomia erkidegoa, kantoia edo dena delakoa) berak bakarrik edo kanpotik ekarritako aditu kualifikatuaren laguntzaz konponduko dituela gaitz guztiak eta hartuko dituela neurri egokiak mehatxatutako hizkuntzari dagokion erabilera lehengoratzeko" (Sanchez Carrion, 1987: 206). Superstizioa baztertu eta hiztunek eurek hartu behar dute bere gain eta bere bizkar erabilera bizkortzeko eta suspertzeko ardura, euren komunitatea biziberritzearen ardura, alegia. "Atzerabidean den minoria bat ez da salbatuko minoriako

kide ez direnen intentzio oneko ekintzen bidez. Bakarrik salba daiteke bere kabuz: eta, orduan, bere kideek hartzen badute atzerapen hori gelditzeko borondatea, erakundeak eta beharrezkoak diren baliabideak lortzen badituzte, hartu ahal izango dituzte beharrezkoak diren neurriak” (Sanchez Carrion, 1987: 214). Borondatea du oinarri biziberritzeak, borondatea du derrigorrezko. “Oinarrizko aurrebaldintza da komunitate linguistiko gisa euren desagertzea eragozteko borondatea. Eta borondate hori eskuratu dezakete euren artean sortu, kanpotik etorri, eurekin bizi den edo/eta eurekin identifikatzen den norbanako baten edo talde profetiko baten ekintzen bidez. Euren kabuz salbatzeko borondatea eskuratu orduko, gizatasuna den modukoa izanik, eskuratu nahi izango dituzte nahitaez beharrezkoak diren neurriak hartzeko ezinbestekoak diren bitarteko instituzional eta finantzarioak” (Sanchez Carrion, 1987: 213).

Horretarako, “... lehenik eta behin, euskaldun osoak elkartu behar dira, trinkotu eta batu, liskar barreiatzaileak gaingiduz, komunitate euskalduna berregituratu eta lideratzeko. Eta hori eginda dagoenean, komunitate osoak gorputz sozial batu eta bereizi bezala eskatuko ditu dagozkien eskubide naturalak: lehenengoa eta nagusia hizkuntzaren erabilera oso eta jarraia izateko eskubidea” (Sanchez Carrion, 1987: 376). Baina ez da itxaron behar, egin behar da: “Zapaltzen edo ezezagutzen duen Estatu baten mendean dagoen komunitate linguistiko minorizatu batek ezin du itxaron gobernu edo erregimen baten aldaketa. Izan ere, bere egoera konpontzeko lehenik eta behin trinkotuta egon behar du. Komunitate linguistiko trinkotzen denean, bere buruaren gaineko kontzientzia hartzen du eta, horrekin batera, erabakitzeke boterea berreskuratzen du. Hortik, eraldatu ditzake Estatuarekiko dituen harremanak eta, ondorioz, Estatu bera. Trinkotuta dagoen komunitate linguistiko batek galarazi ditzake kaltetu edo diskriminatzen dituen Estatuaren jarduerak. Eta, era berean, aktibatu ditzake sendotzen dituzten ekintza eta jardunbideak” (Sanchez Carrion, 1987: 213). Izan ere, “... euskalduntasunak ez du oraindik eskuratu formulazio politiko independentea. Hori eraikitzea da egoera honi irtenbidea emateko erantzun gakoa. Eta, eraikitzeke, euskaldunek alde batera utzi beharko dituzte atomizatzen, deuseztatzen eta ordezkatzan dituzten ikuspegi faltsuak, eta ikuspegi berri batean batu, helburu nagusia izango duena nazio euskaldunaren berrezarpena” (Sanchez Carrion, 1987: 272).

Eta trinkotzeko lehen pausoa da “espazio sinbolikoaren trinkotzea” (Sanchez Carrion, 1987: 380). Baina zer da Txepetxentzat espazio sinbolikoa? “Espazio sinbolikoa honela definitzen dugu: bere hizkuntzari garapen osoa esleitzen dioten hiztunen nukleoa da edo, korrelatiboki, hizkuntza horretan garapen linguistiko osoa duten hiztunen nukleoa. Eurak dira hizkuntzaren bihotza eta, hortik abiatu-

ta, posible da herdoiltutako komunitate linguistiko bat biziberritzeko baldintzak sortzea. Hizkuntza baten bizitasuna ez da neurtzen horrenbeste hiztun kopuru absolutuetan, hiztun osoek kopuru absolutuekiko betetzen duten proportzioan baizik” (Sanchez Carrion, 1987: 65).

Beste berba batzuekin, antzekoa dio Txepetxek: “Baina lehen pausoa da beti hizkuntza aldetik gaituenak diren subjektuen nuklearizazioa gauzatzea (espazio sinbolikoaren bateratzea): hizkuntza baten bizitzaren momenturen batean dau den hiztun osoak. Eta hiztun hauek antzeman eta bizi dezakete euskara bere osotasunean eta eurak dira erakunde eta mekanismo sozialak sortzeko baldintzak dituztenak gainontzekoak ahalbidetzeko etorkizun batean euskara antzeman eta bizi dezaten” (Sanchez Carrion, 1987: 380).

Euskara elkarteak izango dira zelanbait Txepetxek zutabe filosofiko horiek haragitzeko eta gorpuzteko saiakera. Euskara elkarteak izango dira, beraz, mugarrari hauei erantzuteko tresnak: komunitatea trinkotu, egituratu eta bateratzeko tresnak. Eta, hori dela eta, elkarteak izango dira Txepetxek aipatzen duen espazio sinbolikoa osatzeko tresna, hau da, komunitatea trinkotzen hasteko lehen elementua, lehen mugarrria.

Hori dela eta, euskara elkarteak izango dira elkarte ez-mistoak²¹⁹, hau da, bakarrik euskaldunetz osatutako elkarteak. Bakarrik euskaldunetz osatutako elkarteak, hiztun osoz osatutako elkarteak, hain zuzen ere. “Euskaldun osoak hizkuntzaren hiru zutabeak (erabilera, ezagutza, motibazioa) garatu eta hiruren arteko komunikazioa martxan jartzen duten pertsonak dira. Eta horiek dira Elgoibarko Izarra elkarteko muina” (Elgoibarko Izarra, 1997). “Euskaldun euskaltzaleak ditugu prozesuaren benetako motorrak edo eragileak, motibazio indartsuaren jabe, euskaldun oso izanik ezagutza trebatua eskuraturik eta erabiltzeari begira jarrera beligerantearen jabe, hots, egoerak ezarri nahi dituen oztopoen gainditze etengabearen bila aritzen direnak” (EKB, 1992). “Herrian euskararen alde lan egiten duten, lan egiten zuten kolektiboak zeuden eta badaude, lan ona egiten dutenak. Hori horrela izanda, beti erdaraz bizi zuten kolektibo horiek. Alegia, kanpora begira irudi bat eman, baina euskararen alde izatetik guk egin genuena izanduzen `Gu euskaraz bizi gara eta euskaraz sortuko dugu sortzen ahal duguna. Ez

219 Ez-misto kontzeptu hau mugimendu feministaren gogoetatik hartutako kontzeptua da. Espazio (edo erakunde, edo manifestazio, edo...) ez-mistoak dira emakumeek antolatutako espazioak emakumeentzako bakarrik. Beraz, analogia erabilia, elkarte ez-mistoak dira, euskaldunek euskaldunentzako antolatutako espazioak diren heinean. Badakit kontzeptu hau ez dela erabili euskara elkarten jarduna ezaugarritzeko, baina, hala ere, iruditzen zait kontzeptu egokia izan daitekeela euskara elkarten hainbat jardun identifikatzeko.

dakigu zer den. Hori batetik, eta bestetik, ez gara lerratzen ildo politiko batekin edo bestearekin” (SE10).

Eta hiztun oso horiek, hau da, Txepetxen arabera hizkuntzan gaituenak dau- den hiztunak, batu egiten dira bere gain hartzeko euskaldunen komunitatea egi- turatzeko eta trinkotzeko eginberrara. Izan ere, elkarte hauek euskaldunen jar- duteko autonomia aldarrikatu ez ezik, praktikara eramateko ahalegin kontzientea ere izango dira. Euskara biziberritzeko ahalegin eta esfortzua euren bizkar hartze- ko prestutasuna dute euskara elkarteek, komunitatea egituratuz. “Euskararen nor- malizazioaren erantzukizuna, lehenik eta behin, euskal hizkuntz komunitateak berak du” (Arruti, Muniozguren, 1993). “Euskal hiztunongan jartzen du indarra hizkuntza-mendekotasunetik ihes egiteko: gure hizkuntzaren etorkizuna geure eskuetan dagoen neurrian, geuk egingo dugu gure bidea” (Topalabea, 2015: 14). “Euskarari dagozkion funtzioak berreskuratu barik nekez lortuko dugu inongo garapenik eta, aldi berean, funtzioak eskuratzeko ezinbestekoa dugu Deustuko euskaldunon komunitate sendoa eratzea. Beraz, komunitatea eratzea dugu gure lanaren ardatz nagusia” (Berbaizu, 2002). Elkarrizketetan ere agertu da gaia: “Mu- gimendu sozialak lortu duen hori, ikaragarria da, ardura moduan, gizarte moduan eta herritar moduan, guk hartu dugun ardura hori... Eta esatea... Ez, hor ere gure ardura dago. Gure ardura da guztiz, ez diegu laga behar hori bakarrik erakundeci. Eta inportantezia da erakundeen esku lagatzeko bakarrik” (SE02).

Horretarako, euskaltzaleek jardun behar dute elkarlanean. “Euskararen bizitza- ren ahalmena euskaltzaleok soilik eraiki, sendotu eta zabal dezakegu. Horrela izan da aurreko mendeetan eta horrela da gaur egun ere. SOILIK EUSKALTZALEOK ETA SOILIK ELKARLANEAN²²⁰” (Ttakun, 1991). “Euskarari bizitza osoago bat eman ahal izateko giltzarria euskaltzaleen elkarlana da. Euskaltzaleok baka- rrik izan gaitzake asmo honen motorra eta bultzagileak. Hori da gure beharra, eta horregatik bertako euskaltzaleen elkarlana bideratuko duen erakunde bat behar dugu” (Bagera, 1991). “Euskal herritarren giza-mogimendu bat osatu nahi dugu, euskaraz biziko dena, euskaltzalez osatua, donostiar euskaldun guztiei eta euskal- dun izan nahi duten guztiei irekia, bateratzailea beraz” (Bagera, 1991).

Printzipio hau oso barneratuta izan dute elkarteek, salbuespenak salbuespen. “Euskarari lotuta edo euskal kulturari zuzenean lotutako gaietan izan ezik, elkar- teak ez zuela iritzirik emango ez parte hartuko erabaki genuen. Eta, hori, jende askorentzat kolpe handia izan zen” (SE03). “Errebindikazio mundua erdigunean

220 Letra larriak originalean agertzen dira.

jartzen zutenak sisteman edo horretan. Edo agintari politikoetan eta hori ... Bartzuk zeuden gerra horretan. Guk ez, guk esaten genuen, horiek hor daude, baina goazen gurea eraikitzaera” (SE08). Elkarlanerako, beraz, ardatza izan behar zen euskara, eta ez alderdi politikoei lotutako aldarrikapenik: “Ez zuten sinistu nahi posible zela euskara ardatza bilakatzea, eta ez bilakatzea planteamendu politiko bat” (SE10). “Euskara elkarte mugimendua hasiera-hasieratik mugimendu transbertsaltzat hartu izan du bere burua, eta kolore guztietako euskaldunengana iritsi nahi izan du. (...) Saiakera hori egon da, filosofia hori izan dute eta esplizitatu egin dute eta lortzen saiatu” (D01).

Euskaldunak, horrela, izateko nahiaren arabera batu egin nahi dituzte elkar- teek. “Euskarak dakarkigun gutasunetik, euskararen berezko lurraldean bizi garen euskaldunok gure bizi nahia gauzatu ahal izateko elkartzen gara. Euskalduntasuna, euskaltzaletasuna, izaten jarraitzeko eta izaten hasteko gogoia ez datoz berez eta betiko sasoiotan, eraiki egin behar dira, bizi, ikasi, gozatu, irabazi... talde- sunean, jendartearen... ahalik eta normalena izan dakigun euskaraz ere bizi ahal izatea munduko paraje honetan, geure etxean, Euskal Herrian” (Topagunea, 2011). “Edozein hizkuntza normalizazio saioen oinarrian hiztunek hizkuntza horren bi- dez IZATEKO NAHIA²²¹ dago (euskaldun izateko nahia)” (Ttakun, 1991). “Teo- riaren erdigunea²²² izango litzateke euskaldunen izateko nahia garatzea, norbana- ko bezala eta kolektibo bezala” (Unzalu, 2004).

Horretarako, elkar- teak izan nahi dute autoafirmazio bizia, autoafirmazio prak- tikoia. “Euskararen baietz praktikoa nahi dugu izan, euskaldunen autoestima altxa. Guk geurea eta geurea euskararen autobaieztapen bizia” (Bagera, 1991).

Hortaz, euskara elkar- teak izango dira auto-antolaketaren adibide, mugimen- duaren berbakerekin esanda, auto-eraketaren adibide. Izan ere, euskara elkar- teek, gutxienez, bi iturritatik edaten dute euren auto-antolaketaren fenomenorako: batetik, Arrasateko eredu kooperatibistatik eta, bestetik, mugimendu autonomo-

221 Letra larriak originalean agertzen dira.

222 Txepetxen teoriei egiten die erreferentzia egileak.

tik²²³. Arrasateko eredu kooperatiboak zerikusi zuzena izan zuen AED elkartearen sorrerarekin²²⁴, baina mugimendu autonomoarena apur bat lausoagoa da.

Mugimendu autonomoak euskal herrietan bi olatu nagusi izan ditu: 1970-1985 urte bitartekoa eta 1983-1989²²⁵ urte bitartekoa²²⁶. Lehen olatuan, batez ere, lantegietako asanbladak, herrietako asanbladak eta Komando Autonomo Antikapitalistak nagusitu ziren²²⁷. Bigarren olatuan, ostera, kontrakultura adierazpen esperimentalen leherketa bat gertatu zen euskal herrietan: rock erradikala, gaztetxeak, fanzineak, irrati libreak eta abar²²⁸. Izan ere, adierazpide autonomo hauek “inork inorengan ezer delegatzearen kontra” (Arrizabalaga, Murias, 1997: 14) agertuko dira teorian eta praktikan, “autoorganizazioaren printzipioa mugimendu autonomoaren erroetan betidanik presente egon baita” (Arrizabalaga, Murias, 1997: 15). Horrez gain, Jexux Arrizabalaga eta Anjel Muriasen *Autonomoekin solasean* liburuan agertzen denez (Arrizabalaga, Murias, 1997), lehen olatuan parte hartu zuten kide askok euskararen aldeko mugimendu sozialetara jo zuten esperimentu autonomoek porrot egin ostean²²⁹. Hortaz, badirudi hariren batean edo bestean txirikordatu daitezkeela euskara elkarte mugimendua eta mugimendu autonomoa²³⁰.

Aipatutako printzipio teoriko eta praktikoa hauen arabera, lidergoa eta antolaketa euskaldunek, euskal hiztunek hartu behar dute. Hori dela eta, euskara elkarte hauek loturagabeak izan behar dira, askeak izan behar dira, independenteak. “Euskara elkarteek eta Topaguneak sorreratik eginga dute euskalgintzaren autonomiari

223 Mugimendu autonomoa zedarritzea langintza gaitza da gero. Ezkerreko korrante teoriko eta praktikoa da autonomoarena, esperimentua politikoa forma bako asko barnebiltzen duena. Marxismo-leninismoari kritika egiten dio eta, zelanbait, anarkismoaren berrikusketara teoriko-praktikoa dakar. Autonomiak ez dauka programarik, ez dauka bete beharreko kontsignarik. Ikuspegi bat dakar, gauzak egiteko modu bat dakar, prozesua dakar, oinarritzko printzipio batzuetatik tiraka (delegatzerik ez, autogestioa, behetik gorako antolaketa, borroka performatiboa eta bizitzaren alderdi oro ukitzen duena, ikus, Arrizabalaga, Murias, 1997: 18-22). Mugimendu alternatibo honek Europan izan zuen lehen garapena 60 eta 70eko hamarkadetan (Holandan, Frantzia, Espainian eta, batez ere, Italian); horren ostean, mutatu eta Hegoalde globaleko hainbat herrialdetan bizirik eta aldaturik dago gaur egun, Chiapasen, Kurdistanen, Brasilen eta hainbat mugimendu indigenetan. Esan dudanez legez, Italian izan zuen garapen teoriko eta praktikorik esanguratsuen guri dagokigun sasoiatarako (ikus, adibidez, Balestrini, Moroni, 2006).

224 Aurreko atalean luze eta zabal aipatu dugun bezala.

225 Datak gain-jartzen badira ere, bi olatutzat hartu beharko genituzke. Izan ere, belaunaldi eten sakon bat gertatu zen bien artean eta, Jtxo Estebaran-en berbetan, nahiz eta “hari ikusezin batek batzen dituen borroka biak” (Estebaran, 2011), bi olatu diferente eta, hein batean, independente lirateke euskal herrietan bi hauek, protagonistei dagokienez, baita praktikei dagokienez ere.

226 90eko hamarkadatik aurrera, ideia eta praktika autonomoek jarraitu izan dute eragina izaten euskal herrietako mugimendu sozialetan, feminismoan, okupazio mugimenduan eta ekologismoan bereziki. Hala ere, olatuak pasatu direla ematen du eta orain dagoena olatu horien aparra litzateke (Askoren artean, 2000).

227 Lehen olatu honen historian sakontzeko, ikusi Arrizabalaga, Murias, 1997.

228 Bigarren olatuaren historian sakontzeko, ikusi Estebaran, 2005 edo Pascual, 2019.

229 Adibiderik nabarmenena liburu horretan bertan elkarriketatzen duten Joxe izenekoarena da. Ikus dezagun zer dioten: “Ni betidanik euskalduna izaki, nire eta gure hizkuntza baztertua eta zokoratua ikusteak ere hori zabalteko gogoia ematen dik ... eta horretan ari gaituk. Baina garbi utzi nahi diat, AED mugimenduan ari naizela, eta, zorionez, partiduek (ez kolore batekoek, ez bestekoek) ez dutela hemen inongo eskusartzerik, eta oso esperimentua positiboa eta aberasgarria izaten ari dela, eta hor egonen nauk horrela jarraitu ahal den bitartean behintzat” (Arrizabalaga, Murias, 1997: 170).

230 Gorka Bereziartuak ere Argia aldizkariaren hariara egindako liburu batean ere ematen ditu zertzelada batzuk mugimendu autonomoa eta euskalgintzak lotzeko. Ikusi Bereziartua, 2019: 13-18.

buruzko hautua, edozein ildo politiko edo gizarte mugimendutik independentea izanik. Eta horixe da euskalgintzarako gure ereduaren bizkarrezurra” (Topagunea, 1996: 7). “Batez ere, politikari lotutako zeregina dutenetatik independentzia mantenduz, bakarrik bermatu daiteke Topagunea Euskara Elkartearen Federazioaren eta euskalgintzaren interesari lotutako jarduera autonomoa” (Topagunea, 1996: 7). “Euskal komunitateko partaide izateko ‘tasun’ bakarra euskaldun izatea da, inplizituki askotan euskaldunei eskatzen zaizkien gainerako ezaugarriak albo batean utzita. Hori da modu bakarra euskaldun guztiak eroso sentitzeko hizkuntza komunitatean eta euskaltzaleon elkartetan” (Topagunea, 2015: 14).

Alderdi politikoekiko autonomia izan da euskara elkartearen mugimenduan historikoki eta gaur egun ere mantendu duen printzipioetako bat. Adibidez, “Anbotok herritarren medioa izan behar du. Ez da ez Udalena, ez zenbait auziren (AHT eta antzekoen) kontrakoen edo aldekoena, ez euskaltzaleena bakarrik, ez ideologia batekoena. Euskaraz irakurtzeko gaitasuna daukaten, edo euskaraz irakurtzeko ahalegina egiteko prest dauden guztiena eta guztientzat da Anboto” (Anboto, 2004). “Euskararen normalizazioak behar du hiztun komunitate emantzipatu bat, euskaltzaletasuna jarriko duena bestelako interesen gaineratik; horrela eragingo luke hizkuntzaren inguruko ezberdintasunak integra daitezten eta lankidetzara indartu dadin” (Topagunea, 2015: 8). Azken urteotan, gainera, euskara elkartearen federazioak euskararentzako babesgunea eskatu du: “Euskara estrategia eta enfrentamendu politiko-elektoraletik ateratzea eta herri honen biziraupenerako eta garapenerako giltzarria den gure hizkuntzaren gaia blindatzea planteatzera gatoz. Arnasgune politikoa eskatzen dugu euskararentzat, euskara arma politiko moduan ez erabiltzea eta hizkuntza babesteko eta normalizatzeko neurriak adostea” (Topalabea, 2015). “Euskaldungoa hazten joatea eta behar bezala antolatzea da, oro har, prozesuaren eta emaitzaren zimentarri nagusia. Erantzukizun hori ezin zaie delegatu ordezkarari politikoei, zeinahi dela ere agintean dagoena” (Topagunea, 2015: 12).

Hortaz, elkarte hauek berritasun bat dakarkio euskararen aldeko mugimendu sozialari. Ordura arte, mugimendu horren eginkizun nagusia izan zen aldarrikatzea, eskubideak eskatzea, eskubide urraketak salatzea eta abar. Hau da, izaera makro-soziala zuten egiturazko faktoreetan jartzen zuen borroka-gunea euskararen aldeko mugimendu sozialak. Euskara elkarteek, berriz, egunero-ko bizitzako gune sozialak hartu zituzten borroka-gai. Beste berba batzuekin esanda, “... euskalgintzako eragileak edo kideak, beraien ezaugarrien arabera bi multzo nagusitan bana daitezke. Alde batetik, zerbitzuak ematen, hitzarmenak garatzen,... dihardutenak. Eta bestetik, beraien jarduera batez ere aldarrikapen

eta mobilizazioetan oinarritzen dutenak. Euskara elkarteak lehenengo multzoan kokatzen ditugu, euskaraz egin, berregin eta gizarteratzeko eginkizuna duten erakunde gisa” (Topagunea, 1996: 7).

Beraz, euskara elkartearen jardunean tokikotasunak garrantzia aparta hartzen du, nazio mailak duen garrantzia ahaztu barik. “Tokikotasunak garrantzia handia dauka gurean, balio erantsia dakar, egiteko modu bat, zentratuta, autonomia; beti ere osotasun baten parte gisa ulertuta, euskararen lurralde osoan nahi dugu eragin euskaltzale eta pertsona guztien onerako, tokikokerian erori gabe” (Topagunea, 2015: 11). Baina makrora mikrotik heldu nahi dute elkarteek, behetik gora, herrietatik naziora. “Euskararen berreskuratzeko-prozesua behetik gora (herrietatik naziora) eraiki behar den prozesua bezala ulertzen dugu, baina beti ere nazio mailako interesak eta beharrak ahaztu gabe. Elkartearen ustez, euskal herriek osatuko dute Euskal Herria, baina, euskal herriak lortzeko, Euskal Herria ere beharrezkoa da” (Larrañaga, 2004). “Nazio mailan euskararen normalizazioaren subjektua (komunitate linguistikoa) azaleratuko bada noizbait, herri euskaldun(du)en batuketa baten ondorioa izango da edo ez da izango” (Arexolaleiba, 1993a).

Izan ere, toki mailan garatzen ditugu pertsonok hizkuntzaren funtzio nagusi batzuk: lagunartea, familia, eskola, administrazioa, gizarte-zerbitzuak, erosketak, aisialdia, lan mundua, ... Hortaz, hizkuntzaren inguruko aldetak sorrarazteko leku pribilegiatua da herria, udalerria. Iñaki Arrutik honela dio: “Hizkuntza normalizazioa bideratzeko unitate naturala udalerria da. Alde batetik, maila sozialen zein geografikoan herritarrengandik hurbilen dagoen unitatea da. Gizarte-bizitzaren unitate garrantzitsuena da, bertan biltzen baitira sektore edo jarduera-esparru gehienak: lagunartea, familia, eskola, lan-mundua, administrazioa, gizarte-zerbitzuak, aisialdia, ... Bestetik, errealitate soziolinguistikoko zehatza ezagutzeko esparrurik garrantzitsuena da” (Arruti, 1991). Julen Arexolaleibak ere antzekoa dio: “Herrietan gauzatu egiten dira hizkuntzaren funtziorik gehientsuenak: zerbitzu ofizialak, pribatuak, kulturalak, pertsonalak, etab. Guzti hauek euskaraz garatu ahal izateko bideak eraikitzen joatea da helburua” (Arexolaleiba, 1993a). Toki mailak, beraz, bi abantaila dakartza: batetik, eguneroko funtzioetan eragiteko ahalmena eta, bestetik, errealitate soziolinguistikoko zehatzera moldatzeko ahalmena (kontuan izanda euskal herrien artean dagoen polikromia ahalmen hau ez da, inondik inora, ahuntzaren gauerdiko eztula).

Euskara elkarteek, honenbestez, berariaz egin dute esparru hauek lantzeko hautu kontzientea: “Esparru informala, erabilera askeko esparrua, bere aldaera guztietan (haur eta gazteen aisialdia, helduen aisialdia, hiztun berrientzako eremu

informalen eskaintzea, kultur eskaintza kalitatezkoa, internet...)" (Topagunea, 2015: 14). Gainera, arlo hauetan batez ere sortzera eta egitera jo dute. "Hasierako filosofian oso argi zegoen euskararentzako esparru berriak irabazi beharra dagoela eta esparru horiek sortu egin behar direla. Zailagoa da daudenak euskalduntzea eta sortu egin behar dira espazio berriak" (SE15). "Nik uste dut gure lana ez dela dagoenaren gainetik ez dakit zer hobea edo ... uste dut gehiago dela ez dagoen hori betetzen hastea" (SE03).

Txepetxen eta haren jarraitzaileen abaroan porlandu zen euskara elkartearen mugimendua, hasiera batean. "Hor bazegoen, nolabait ere, corpus bat sortzearen beharra ... ezagutza bat, eta gauzak serio hartzearena. Mugimendu sozial bat oinarri sendoak edukiko zituen" (SE17). "Gogoeta sakonetatik abiatu ziren euskara elkarte asko, edota indartsu izan direnak gerora" (D05). "Ikusten dut hasieran sekulako lana egin zela, sekulako lan, gainera, teorikoa" (SE21).

Dena den, horiek gero errealitatearen tatamira eramandakoan, ez bide zen horren erraza. "Eta gero beste gauza bat da Txepetxen liburuaren planteamendu teorikoa. Ilusio faltsua sortzen zuen nolabait, hain garbi dago, hain elegante, hain erradikal, hain argi, baina Txepetxen teorian aipatzen den euskal tipoa²³¹ ez da edozein gauza. Sortu behar dira Txepetxek aipatzen zituen euskaldun osoak, ezta? Eta ez dira sortzen guk emandako esplikazio batzuekin, hori duk bibentzia bat" (SE05). "Baina gure irakurketan zegoen espazio sinbolikoarena, ideia klabe horrena, gelditzen da urardotuta. Eta hori nola sortu, nola gorputz eman horri, ba ez da bat ere erraza" (SE04).

Zentzu horretan, Txepetxen teorien gainean gogoeta sakona egin beharra aipatu da ikerketan zehar. "Euskara elkartearen helburu nagusia euskaldunen komunitatea trinkotzea izan da. Ideia horrek suposizio batean du abiapuntua: euskal hiztunen berezko komunitatea dagoela edo, komunitatea eraiki daitekela, behinik behin. Komunitate kontzeptuak, soziologian, esanahi argia dauka: lotura afektibo sendoetan oinarritutako giza taldea da. Nire ustez, abiapuntuko planteamendu honek gogoeta handia behar du" (D02).

Zimentarri hauen gainean eraiki eta oinarritu dira urteetan zehar euskara elkarteak. Dena den, urteetan eboluzioa izan dute mugarri eta zutabe horiek. Bate-tik, euskara elkarteek, jardunbidearen ondorioz, praktikaren ondorioz, kudeaketari lotutako hainbat jakintza bereganatu zituzten (eraginkortasun profesionalari

231 Kasu honetan elkarrizketatzaileak hiztun osoaren kategoriari egiten dio erreferentzia.

lotutako kontuak batez ere). Eta, bestetik, 2010 eta 2012 urteen artean hasierako oinarri filosofikoak berritu zituen Topaguneak nolabait.

Lehenari dagokionez, euskara elkarteen mugimendua hasieratik profesionalizatu zen, langileak hartu zituen eta, era berean, militantzia “zientifikoari” ekin zion. Horretarako, kudeaketari lotutako hainbat jakintza eta irakaspen ekarri zituzten euskararen aldeko mugimendu sozialera. Esate baterako, plan estrategikoak, ahulgune eta indarguneen analisiak, gestio teknikak, etengabeko prestakuntzari lotutakoak, marketin teknikak, erabateko kalitateari lotutako metodologiak eta abar²³².

Honen adierazgarri da Topaguneak antolatu zituen lehen jardunaldiak euskara elkarteen kudeaketari buruzkoak izatea. Merezi du jardunaldi horien egitaraua ikustea, ekarpenen nondik-norakoa apur bat jasotze aldera. Lehenik eta behin, Juan Mari Otaegi aritu zen, garai haietan Euskadiko Kutxa²³³ eta MCCko lehendakaria²³⁴: enpresa kudeaketa euskara elkartetan zelan txertatu izan zuen berbagai. Horren ondoren, Elena Laka abokatuak jardun zuen lege betekizunen gainean eta, ostean, Joxemari Iraolak kudeaketa administratiboan inguruan egin zuen berba. Finantzaioaz, erakunde publikoekiko harremanaz eta babesletzaz ere jardun zuten. Jarraian, euskara elkarteek jorratzen zituzten arlorik garrantzitsuetan zelan eraman enpresa kudeaketa aztertu zen (haurrak, euskaldun berriak, kultur jarduerak, gazteak, erakunde euskalduntzea eta hedabideak). Teknologia berriak ere izan zituzten aipagai, baita prestakuntza iraunkorra eta partaidetza ere. Ikus daitekeenez, Gernikan 2001eko urtarrilaren 18an eta 19an egitarau mardul eta zabala eraman zuen aurrera Topaguneak. Sasoi hartan, Topagunearen lehendakaria zen Joxe Mari Muxikaren berbak zeharo adierazgarriak dira: “Euskara elkarteek duten helburua betetzea ez da posible denborapasa bezala kudeatuz. Kudeaketa efikaza ez dago haserre ondo pasatzearekin, baina bai alferrik denbora pasatzearekin” (Muxika, 2002).

Topaguneak antolatu zituen hirugarren jardunaldietan ere (2003ko azaroaren 28 eta 29an, Zamudioko Parke Teknologikoetan) kudeaketari lotutako gaiek ere zentraltasun handia izan zuten. Tokiko hedabideei buruzko jardunaldiak izan ziren horiek eta aurkeztutako 20 ponentzietatik 12 tokiko hedabideen kudeaketari lotutakoak izan ziren (Topagunea, 2003).

232 Ez da gutxietsi behar, inondik inora, kudeaketari lotutako kontu hauetan Arrasateko esperientzia kooperatiboak izan duen eragina. Esperientzia horrek, hein batean, eguneroko kudeaketa eta zeruertz utopikoa bateratzen iaioa izan da eta horrek ere bere zigilua eraman du euskara elkarte mugimendura.

233 Sasoi haietan Euskadiko Kutxa izena zuen; gaur egun, ostera, Laboral Kutxa izena du.

234 Garai haietan MCC izena zuen; gaur egun, ostera, Mondragon korporazioa izena du.

Ildo horretan, esate baterako, zientziak mugimenduari eman diezaiokeenari buruz ere jardun dute elkarteek. “Duela 50 urte ez bezala, gaur egun zientziaren adar ugariatatik ekar daitezke metodoak eta tresnak hizkuntza normalizaziora. Eta normalizazio prozesua zenbat eta teknikoagoa izan, orduan eta adostuagoa izan daiteke” (Topagunea, 2012: 18).

Hala ere, enpresa kudeaketaren inguruko jakintza eta kezka hauek ez zituzten euskara elkarte guztiak berdin zipriztindu: langileak zituzten euskara elkarteak bai, erabat ia-ia (beste kontu bat da ea gero praktikan zutabe teoriko horiek egikartzeko aukerarik izan duten²³⁵). Baina langile bako elkarteetara askoz motelago iritsi ziren soinu honen oihartzunak.

Bigarrenik, 2010. urtearen bueltan Topaguneak bere oinarri filosofikoak berri-tzeari ekin zion. Izan ere, bi urte luzeko epealdian (euskara elkarten mugimenduak 2010eko urtarrilean hasi zuen gogoeta-fasea²³⁶ eta amaitu 2012ko azaroan) Topaguneak bi kongresu egin zituen: Oinarriparren kongresua (2011ko otsailaren 26an) eta Eraldabideen kongresua (2012ko azaroaren 17an). Bi kongresu horietan Topaguneak zelanbait berri-tzitu iparra markatzen duten oinarriak eta horietara heltzeko bitartekoak edo bideak, hau da, Oinarriparrak eta Eraldabideak. Beraz, eta dagokigun kasurako²³⁷, Oinarriparren kongresuari oratuko diot hurrengo lerrootan.

Esan bezala, Topaguneak 2011ko otsailaren 26an kongresua egin zuen Bilbon, *XXI. mendeko euskaldunon elkarteak* izenpean. Hori bai, Oinarriparren kongresua bezala ezagunagoa da. Izan ere, helburua honako hau zuen eztabaidak eta kongresuak: “Euskara elkarteak sortu zireneko oinarripar asko XXI.mendera ekartzeko modukoak badira ere, oinarriparren birformulazioa egiten ahalegindu gara” (Topagunea, 2011). Aipatu behar da oinarripar hauek lantzeko Mondragon Unibertsitateko Sorguneak²³⁸ ikerketa taldeak parte hartu zuela, Topaguneko eta hainbat euskara elkartetako kideekin batera²³⁹. Kongresu horrek hamabi oinarripar zehaztu zituen eta ikusiko ditugu banan-banan jarraian.

235 Ez da ahaztu behar euskara elkarte asko oso egoera ekonomiko prekarioran bizi eta iraun dutela hainbat urtetan eta, jakina, bizirau-pena jokoan dagoenean, enpresa kudeaketari lotutako gaiak garrantzia bai, baina lehentasuna ez ohi dute izan.

236 2010ean Topaguneak urtero antolatzen dituen jardunaldietan eman zitzaion hasiera gogoeta-fase honi. Urte horretan jardunaldien izenburua honako hau izan zen: *XXI. mendeko euskara elkarten izaera*. Durangon egin zen jardunaldia urtarrilaren 23an eta honako hizlari hauek hartu zuten parte, besteak beste: Juan Luis Arexolaleiba, Imanol Miner, Xamar eta Rosa Ramos. Horrez gain, parte hartzaileen artean eztabaida saio parte-hartzailea izan zen euskara elkarten etorkizunari buruz.

237 Eraldabideak atal honetan baino, praktiken inguruko atalean landuko ditut luze eta zabal.

238 Sorguneak ikerketa talde horretan hurrengoek hartu zuten parte: Jon Sarasua, Julen Arexolaleiba, Iñaki Urruzola eta Nekane Goikoetxea. Azpimarratzekoa da, bereziki, Julen Arexolaleibaren presentzia. Izan ere, ikusi dugun bezala, bera pertsona gakoa izan zen euskara elkarten zutabe eta oinarri teorikoen lanketan eta zabalkundeetan, eta horiek berri-tzutakoan, berak ere hartu zuen parte prozesu kolektibo horretan.

239 Honako hauek hartu zuten parte lan-taldean: Iker Martínez de Lagos, Jasone Mendizabal, Iñaki Martínez de Luna, Rosa Ramos,

Lehen oinarriparrak hauxe dio: “Gure egitekoa: euskal hiztunen komunitate osasuntsu eta iraunkorra indartzea eta elikatzea” (Topagunea, 2011). Azken finean, eta beste berba batzuekin adierazi arren, hauxe da Txepetxek adierazitako komunitate linguistikoaren trinkotzearen bidez lortu beharrekoa. Izan ere, oinarriparrak hau xx. mendetik XXI. mendera “ekarri” zuten Topaguneko kideek. Hiztun komunitate osasuntsua eraikitzeko, beharrezkoa da “gune hegemonikoak iraunaraztea, sortzea eta elikatzea; hau da, euskararen beharra sorrarazten duten guneak izatea, euskaraz bizi ahal izateko espazioak” (Topagunea, 2011). Berbakera apur bat aldatzen den arren, azken finean, elkarteen oinarri filosofiko eta ideologikoak ez zituen ukitu lehen oinarriparrak honek.

Bigarren oinarriparrak, berriz, honako hau dio: “Euskaldunon bizinahi pertsonal eta kolektiboak batzen gaitu” (Topagunea, 2011). Oinarriparrak ere xx. mendetik datorren oinarriparrak da. Azken finean, euskara elkarrekin behin eta berriro aldarrikatu duten autonomia eta independentzia baino ez da honako hau, euskaldunak batzen dituen banatzen dituen baino garrantzitsuagoa dela, alegia. Edo beste berba batzuekin esanda: euskaltzaletasuna erdigunean ipiniko duen mugimendua dela euskara elkarrekin.

Hirugarren oinarriparrak ere lehenengo lepotik burua: “Hamarkadatan metatutako ezaugarriak geure oinarriak ditugu” (Topagunea, 2011). Oinarriparrak honetan aldarrikatzen dira euskara elkarrekin egiteko moduak, urtez urte euskara elkarrekin ezaugarri izan direnak, besteak beste, egunerokotasunean oinarritzea, proposamen positiboak eta errealistak egitea, helburu mailakatuen arabera jardutea, lankidetzeta eta adostasuna azpimarratzea eta abar. Hala ere, kasu honetan egiteko modu berri batzuk proposatzen dira horien osagarri. Esate baterako, presio soziala eta salaketa erabiltzea, euskaldun gehiago erakartzea, gainegetura politiko, ekonomiko eta sozialean eragitea, eskakizun argiak eta zehatzak egitea botere publikoei, hizkuntzaren ardura jardun politiko eta sozial guztietan txertatzea eta abar.

Laugarren oinarriparrak eleaniztasuna aipatzen du (“eleaniztasuna, bai, baina euskara lehenik”, Topagunea, 2011). Hizkuntza ekologiaren subsidiariorik printzipioari oratzen dio: “Lehenengo euskara eta gero beste hizkuntzak. Unibertsaltasuna etxetik hasten da” (Topaguneari, 2011). Oinarriparrak hau, aurreko hirurak ez bezala, berria da, euskara elkarrekin teorizazioan gutxi landu baitzen ordura arte eleaniztasuna. Ordutik hona, ahalegin batzuk egin dira (batez ere, Topagune-

tik²⁴⁰), baina, oro har, elkarteek, salbuespenak salbuespen, ez diote oratu eleaniztasunak dakarren fenomenoari.

“Egite eta eragitearen arteko oreka” (Topagunea, 2011) bilatzean datza bosgarren oinarriparra. Aldamio teorikoen alorrera ekarri badut ere, euskara elkarteen praktikari buruzko atalean jorratuko dut luze eta zabal honi dagokiona. Izan ere, oinarri teorikoak baino, egiteko moduei eta eginkizunei dagozkie honen inguruak.

“Gizarte mugimendu gara” (Topagunea, 2011) aldarrikatzen du labur zurrean seigarren oinarriparrak. Azken finean, elkarteak mugimendu sozialen ezaugarriak berriro bereganatzeaz ari dira: “Gizarte mugimenduek gutxienez bi ezaugarri hauek eduki behar dituzte: batetik, instituzio eta eragile sozialen diskurtsoak auzitan jarri behar dituzte; bestetik, gizartea ilusionatzea eta parte-hartzailea izatea lortu behar dute” (Topagunea, 2011). Hasieratik izan dute elkarteek mugimendu sozial izateko bokazioa eta, hortaz, seigarren oinarripar hau ere hasierako urteetako filosofia berreskuratzeaz ari da hein batean.

Zazpigarren oinarriparrak, ostera, “errealitatearen irakurketa zorrotz eta egoikia” egin behar dela esaten du. “XXI. mendeko gizarte eredura egokituta arituko gara” dio hain zuzen ere (Topagunea, 2011). “Nahi dugunaren eta lortu dugunaren artean zulo handiegia dago, ametsak errealitatera hurreratzeko zubiak eraiki behar dira”. Ikuspegi soziologiko eta zientifiko sendoagoa ari dira eskatzen, errealitateari itsatsiago dauden plangintzak, ekintzak eta adierazle zorrotzagoak eta abar. Hala ere, eta era berean, epe ertain eta luzerako urratsak kateatzeko gaitasuna ere ari dira eskatzen, hots, eguneroko basatzak etorkizuna eraikitzeke baliatzea.

Ekintza ez ezik, “pentsamendua eta jakintza ardatz izango duen mugimendua” (Topagunea, 2011) esaldiak ezaugarritzen du zortzigarren oinarripar hau. Mugimenduak euskara elkartearen sorrera eta garapen aroetan metatu ziren jakintzak transmititzeko arazoak izan dituela diote txostengileek. Hortaz, gogoetatu, jantzi, jakintzak sortu, hedatu, jendarteratu, ... horiek ere izan behar dira euskara elkartearen praktikak.

Bederatzigarrenik, “herri mailako dinamikak nazio mailakoekin osatuko duen mugimendua artikulatua izango da” (Topagunea, 2011) euskara elkarteena. Ordura

240 Ekimenik aipagarrienak izan daitezke Auzoko programa eta Zubideiak izeneko gogoeta-foroa. Auzoko programan, auzotar den pertsonak auzokide den pertsonaren hizkuntzarako ibilbidean laguntza ematen dio, hau da, euskaraz ez dakien pertsonari lagundu egiten dio ibilbide hori osatzen. Zubideiak, berriz, elkarriketa piztu nahi du euskararekiko bizipen askotarikoak dituzten pertsonen artean. Orain arte, bi gogoeta-foro egin dira.

arte, Topagunearen funtzioa zen “herrietako dinamikak aberastea”. Orduetik, Topaguneari aitortzen zaizkion beste funtzio batzuk, nazio mailako funtzioak, alegia: solaskidetza eratzea, baliabide eta ahalmenak optimizatzea, ... Azken finean, Topaguneari eskatzen zaio bestelako lidertza bat: zerbitzugintzatik harago joatea eta euskara elkarteek mugimendua artikulatzea eta lideratzea.

Hamargarren oinarriparrek hizkuntza ekologia dakar. Hitzez hitz honako hau dio: “Hizkuntza ekologiaren printzipioak erabiliko dira bai plano ezberdinen arteko artikulazioan bai beste eragile batzuekiko osagarritasunean” (Topagunea, 2011). Oinarripar honek badakar eraberritze teorikoa. Izan ere, ordura arte hizkuntza ekologiak berba egin bai, baina euskara elkarteek (edo Topaguneak) ez zuten berariaz besarkatzen. Merezi du, beraz, oinarripar honi sakontasun gehixeagoz oratzea.

Ekologiaren paradigmatic, “biziraupena” eta “aniztasunaren defentsa” oinarri hartzen dituzte txostengileek eta iparra bezala, “konplexutasunaren onarpena” (Topagunea, 2011). Horrez gain, hizkuntza ekologiaren barrunbeetatik, hiru printzipio nagusi ekartzen dira lehen planora: lehenik, subsidiaritate printzipioa: “jatorrizko edo berezko hizkuntza batek egin dezakeen oro ez luke egin behar hizkuntza globalago batek” (Topagunea, 2011); bigarrenik, funtzio propioen printzipioa: “funtzio eksklusiboak behar dira jatorrizko edo berezko hizkuntzarentzat” (Topagunea, 2011); eta, hirugarrenik eta azkenik, “gizarte ekintza guztietan agertzen diren eragin soziolinguistikoak neurtu behar dira” (Topagunea, 2011). Gainera, mugimenduak munduko beste hizkuntzekin engaiatuta egon behar duela ere esaten da, munduko beste hizkuntza gutxituen patuak zerikusi zuzena izan dezakeelako gurearekin.

Hala ere, ekologiaren paradigmari ebatzeak ez dakar ikaragarritzko biratze ideologikorik euskara elkarteetara. Izan ere, aurretik aldarrikatu eta teorizatutakoarekin ondo ezkontzen baita hizkuntza ekologia, haren garapen logikotzat hartzeraino ia-ia. Dena den, eta hau aplikatzeko modukoa da beste oinarriparrei ere nahiz eta kasu honi bereziki, gauza bat da Topaguneak erabakitakoa eta beste bat euskara elkarteek egunerokoan egindakoa. Izan ere, oinarripar honi dagozkion zizpritzinek oso modu leunean busti baitituzte elkarteak, eguneroko lan eta jardueri emanagoak dauden heinean, seguruenik.

Hamaikagarrenez, euskaltasunaren oinarri “hizkuntza eta kulturaren ikuspegi sistemikoa” (Topagunea, 2011) hartzen dute oinarriparrek. Honen arabera, “euskarazko kulturagintza, euskaratik eta euskaraz sortzen den produkzio artistikoa, eus-

kaldunon bizinahiak behar duen erregai sinbolikoa da” (Topagunea, 2011). Hortaz, mugimenduak poza ekarri behar du, alaia izan behar da, autokonfiantza duena, ospakuntza dakarrena, eta “jarraidura eta irekiduraren²⁴¹ arteko orekan” (Topagunea, 2011) jardungo duena.

Hamabigarrenik eta azkenik, “hiztuna ardatz” (Topagunea, 2011) hartu behar zela zehazten zuten txostengileek. Zentzu horretan, hiztunari “liseriketa egiteko tresnak eskaini beharko lizkioke mugimenduak, hiztunari gertatzen zaiona ulertzeko, gezur sozialen irakurketa kritikoa egiteko, nazio mailan oro har gutxiengo izatearen kontzientzia lantzeko, portaera asertiboak aktibatzeke” (Topagunea, 2011). Gainera, beste mugimendu sozial batzuen bideari adi egoteko aipatzen da, bereziki feminismoari, ekologiarri eta homosexualen aldeko mugimenduari.

Azken oinarripar honek, hein batean, berritasuna dakar. Ordura arte, elkarteek hiztun komunitatean eragitea zuten helburu eta eginkizun eta honek, berriz, hiztunaren planoan ere kokatzeko ahalegina eskatzen du. Oinarripar honek, gainera, beste batzuk ez bezala, garapena izan du arlo teorikoan zein praktikoan. Arlo teorikoari dagokionez, esate baterako, Topaguneak 2014an antolatu zituen urteroko jardunaldiek honako izenburua zuten: *Gure ardura pertsonal eta kolektiboen aktibatzea*.

Garapen handiagoa izan du oinarripar honek gerora ere. Batetik, aktibazio jarduerak garatu dira han eta hemen. Aktibazio jarduera hauek feminismitik edan dute, Lutxo Egiak egin zuen performance-tik edan dute. “Aktibazioa pizten denean hainbat mekanismo jartzen dira martxan. Izan ere, aktibazio hitzak mugimenduarekin, prozesu bat martxan jartzearekin, du lotura. Portaera linguistikoe-tan eragin nahi duen prozesua. Talde batek egoeraren intuizio edota irakurketa partekatu, ekintzarako antolatu eta ekimena abiatu; ekimen horrek hiztunen aktibazioa probokatu eta erraztu nahi du. Pertsona ezberdinen arteko elkarlan, antolaketa eta ekintza hori, ondo kohesionatutako eta saretutako taldeak burutzen duenean giro sozial erakargarria sortuko du. Beraien ekimenak bestelako balore eta praktiken inguruko atxikimendu praktikoa lortu nahi ditu, ordura arteko inertziaik gaingitu eta bestelako balore eta praktiken nagusitasuna” (Bagera, 2017: 142).

Aktibazioaren ildo hau, gainera, Soziolinguistika Klusterraren ikerketa batean gorpuztu da. 2015etik 2019ra Klusterrak tokian tokiko hizkuntza aktibazioa izan

241 “Aurrekoengandik jaso dugunari eutsi eta gure ondorengoei ematea izango litzateke jarraidura. Irekidura, berriz, atekal zabalik izatea, ereiten jarraitzea historiari dakartzan berrikuntzen eta aldaketan aurrean” (Topagunea, 2011). Ikusi, halaber, Jon Sarasuaren *Hiztun-polisa* liburua, hor luze eta zabal jorratzen baitira bi kontzeptu hauen zoko-mokoak (Sarasua, 2013).

du aztergai. Ikerketak bilatu du herrietan euskararen inguruko aktibazioa egiteko metodologia baten garapena. Horretarako, aztertu dituzte zeintzuk diren herrietan euskararen erabilera sustatzeko aktibazio prozesuetako gakoak. Zazpi egitasmo aztertu dituzte horren harira: Gernikako Astra kulturarako fabrika soziala, Lasarte-Oriako Ttakun euskara elkarte, Otxandioko Herri-ola herrigintza egitasmoa, Donostiako Egian euskaraz bizi nahi dugulako ekimena, Emakumeen mundu martxa eta Eibarko Akebai ekimena.

Horiek aztertu ondoren, lau gako nagusi ondorioztatu dituzte Zesar Martinezek, Amaia Baldak eta Imanol Larreak gidatutako ikerketan. Lehen gakoa honako hau da: behar sozial bati erantzutea: “Esperientzia guztiek bilatzen dute egungo hutsuneak betetzea edo egungo joerak iraultzea eta, horretarako, paradigma aldatu eta beharrezan horri erantzungo dion dinamika berria sortzea” (Martinez, Balda, Larrea, 2017). Bigarrenik, esperientzia hauek guztiek “oinarri teoriko-ideologiko landua eta sendoa” izan dute. Eta, gainera, oinarri hori osatzen joan da bideak aurrera egin ahala. “Oinarri teorikoa funtsezko izan bada ere, kasu guztietan ibilbidea bera izan da hezitzailea arlo teorikoan zein praktikoan” (Martinez, Balda, Larrea, I., 2017). Hirugarrenik, “antolaketari begira egitura irekiak eta horizontalak sortzeko borondatea” (Martinez, Balda, Larrea, 2017) izan dute ekimeneko arduradunek. “Herritarren arteko artikulazio komunitarioa protagonista izateak funtsezko ezaugarria aktibazio eta eraldaketa prozesuetan” (Martinez, Balda, Larrea, 2017). Eta, laugarrenik eta azkenik, “administrazioaren babesa, egiten uzten duelako edota babes politikoa eta laguntza ekonomikoa eskaintzen duelako” (Martinez, Balda, Larrea, 2017).

Aktibazioari buruz berba egiteak, gainera, ahalduz buruzko hausnarketak ere ekarri ditu. “Euskalgintza feminismora begira jarri den garai honetan, feminismoetan askotan erabiltzen den pertsonala politikoa da esapideak dioen moduan, prozesu indibidualek kolektiboan eragina dute eta, alderantziz. Hau da, euskaldun aktibo bakoitzaren prozesu pertsonalak indar handia du aldaketa eman nahi den testuinguruan. Adibidez: euskara ulertzen dugun guztiok lehen hitza euskaraz esango bagenu euskararen erabilera hirukoiztu egingo litzateke Donostian. Hautu pertsonalek eragin soziala dutela, finean” (Bagera, 2017: 145). “Gizarte mugimendu honek euskal komunitatea du ardatz. Izan ere, gizartearen hizkuntza eraldaketa du xede; euskararen, euskal komunitatearen zein euskal hiztunaren garabidea helburu, subordinazioa eraldatzea. Horretarako euskaldunok ahalduz da gakoa. Eragileztan oinarritzen da gizarte mugimendua. Euskaldunak prozesuaren –gizarte aldagaketa- subjektu bihurtzean, erabakitzeke ahalmena berreskuratuta” (Topagunea, 2015: 30).

Ahalduntzearen kontzeptua feminismotik²⁴² heldu da batez ere euskara elkar-teen mugimendura. Lorea Agirre eta Idurre Eskisabelen arabera, lau kontzeptu-
ren bueltan eraikitzen da agente eraldatzailea izateko bidea: jakin, jabetu, ahal-
dundu eta boteretu. Honako berba hauetan laburbiltzen dute ekarpena: “Jakin,
emakumea —edota euskal hiztuna— menpeko egoeran dagoela; jabetu, zu zarela
menpeko egoeran dagoen emakume hori —edo hiztun hori—, edo zure ondoan
dagoena, eta zure gorputzean bizi duzula sentitzea, eta zurekiko eguneroko men-
perakuntza praktika horiei izena jartzea, eta non eta noiz eta nola gertatzen diren
kontzientzia hartzea; ahaldundu, tresna teoriko-praktikoak landuz menderakun-
tza egoerei aurre egin ahal izateko. Eta boteretzeak, kolektibo edota gizarte gisa
boterearen kudeaketa eta botere harreman justuago eta berdinzaleagoen posibili-
tatea eta beharra dakar berarekin” (Agirre, Eskisabel, 2016). Definitu ostean, egile
biek kontzeptuen inguruko irakurketa egiten dute: “Kontzientziazioaren ohiko
definizioetik harago doa. Parte hartze politiko formala aberastu eta gainditu egiten
du, eta eskubide urraketak eta testuinguru politiko eta kultural orokorra aztertu,
eta norbanakoarengan eta taldearengan eraldaketan zerikusia duten eta aldaketa
bera oztopatzen duten prozesu psikologiko, politiko, kognitibo eta ekonomikoak
hartzen ditu aintzat. Legeak aldatzetik harago doa boteretzea. Proposamen poli-
tiko eraldatzaile integral bat dakar berarekin” (Agirre, Eskisabel, 2016).

Aurreko lerroetan ikusi dugun bezala, euskara elkar-teen zutabe ideologiko,
teoriko eta politiko zehatzetatik abiatu ziren, batez ere Txepetxen teorietatik era-
torritakoak. Oinarri horiek ez dituzte baztertu elkar-teen, baina egia da urteen
poderioz oinarri teoriko horiek eboluzioa izan dutela eta, batez ere, beste hainbat
iturritik eta errealtatearen irakurketatik elikatu dituztela elkar-teen euren jardun
teoriko eta praktikoak. Etengabeko berritzea izan da, etengabeko egokitze eta
moldatzea, batzuetan asmatuz eta besteetan ez horrenbeste, baina, tira, hori da-
goeneko aurrerago ikusiko dugun beste kontu bat da.

4.5 Euskara elkar-teen helburuak

Aurreko atalean aipatu dudana bezala, euskara elkar-teen helbururik nagusia
euskaldunen komunitatea egituratzea edo artikulatzea litzateke. Axun Aierbek
honela zekarren Galtzaundiri dagokionez: “Galtzaundi euskara taldea Tolosalde-
ko euskaltzale guztien bilgune da, guztion artean elkarrekin eta batera euskararen

242 Bide horretan ekarpen funtsezkoa egiten ari dira aspalditxotik Lorea Agirre eta Idurre Eskisabel. Horren ondorioz, feminismoa eta euskalgintza lotzen duen iritzi-ildo eta formazio-ildo eratu eta garatu dira hainbat euskal herritan.

erabileraren normalizazioan indar eragile eta biderkatzaile izateko helburuz sortu delarik” (Aierbe, 1991). Hala ere, helburu nagusi horrek eboluzio apur bat izan du, garapen apur bat. Hortaz, Txepetxen teoriari arabera helburu hori honela berritzen zuen Topaguneak bere oinarriarretan: “Euskal hiztunen komunitate osasuntsu eta iraunkorra indartzea eta elikatzea” (Topagunea, 2011).

Azken finean, euskaldunak elkarrengana lotzea da euskaldunen komunitatea egituratzea (edo trinkotzea). “Herri txikia, herri handia edo hiriburua izan, eta deseuskalduntze maila handiagoa edo txikiagoa izan, euskara-elkarteen egitekorik behinena euskaldunak elkarrengana lotzeko funtzioa betetzea da. Hori eginez, euskararenganako atxikimenduan sakontzeko bideak erraztu egiten dira eta, aurrerantzerako, komunitate bat autoerreproduzitzeko gaitasuna irabazi” (Aixelaleiba, 1993b). Ainara Ibañezek, berriz, honako helburu nagusi hau aitortzen dio Iruñeko Karrikiri euskara elkarteari: “Euskaldun komunitatearen egituraketa lortzea da, euskaldunen arteko hartu-emanak sendotzea bizitza euskaraz burutu ahal izateko. Izan ere Iruñean, euskaldunak sakabanaturik daude, askotan euskaldunek ez dute elkar ezagutzen eta egoera honek euskararen erabilera oztopatzen du” (Ibañez, 2006). Malores Etxeberriak ere gauza bera dio beste berba batzuekin: “Euskara Elkarteetan euskaldunak elkartu izan gara, euskaldunak trinkotzeko helburua zuen Euskara Elkarteak. Nukleo konpaktua hizkuntzaren aldetik, euskaraz jarduteko eta euskaraz pentsatzeko lekua eta nukleo indartsu horretatik kanpora irradiatzeko helburuarekin” (Etxeberria, 2010). Oskar Zapatak ere ildo beretik jotzen du: “Euskara elkarteek bilgune funtzioa dute, beren jardueren inguruan biltzen baitituzte herri edo eskualdeko euskaldunak eta, euskalgintzako beste eragileekin ere elkarlanerako gune bihurtzen baitira sarri” (Zapata, 2006). Elgoibarren eta Deustun ere antzera formulatzen zuten helburua: “Elkartearen helburu nagusia Elgoibarren euskal hizkuntza komunitatea osatzea da” (Elgoibarko Izarra, 1997); “Berbaizu Euskara Elkarte Deustualdeko Euskal Komunitatea egituratzeko asmoz sortutako elkarte da. Txepetxek azaldutako testuinguru teorikoan kokatuta, elkartearen helburua honako hau da: euskararen erabileraren bidez euskaldunon konpaktazioa lortzea” (Berbaizu, 2004).

Hala ere, komunitatea egituratu, sendotu, elikatu eta biziberritze hori praktikan eta helburu txikiagoetara eramatea ez da hain erraza, edo ez zitzaizen hain erraz gertatu elkartei. “Elkarteek zer egiten duten eta nola egiten duten zehazki esan badigute ere, askotan ez dakite zergatik egiten duten egiten dutena eta zergatik egiten ez duten egiten ez dutena” (Aierbe, 1993).

Gainera, batzuek kritiko ikusten dute helburu hau. Ikus dezagun zer dioten: “Hasierako elkarteetan trinkotzea bai zen helburu bat, baina uste dut gerora jende asko mugitzea helburu garrantzitsuagotzat hartu zela. Zergatik? Euskara elkarteekin egitekoa justifikatu egin behar zelako beti. Adibidez, diru laguntzen sistematik. Udalek ez dute diru laguntza ematen elkarte trinkotzeko. Ematen dute udalekuetara ume asko eramateko” (D11). “Pixka bat momentu batean nik ikusi nuen kantitateari ematen zitzaiola garrantzi gehiago kalitateari buruz” (SE04).

Baina komunitatea egituratu eta sendotzeko zer helburu jarri diete euren buruei euskara elkarteek? Azken finean, “euskara elkarteekin helburu nagusia herrietan euskararen normalizazioa lortzea da” (Topagunea, 2002). Eta, horretarako, beste hiru helburu dakartzate elkarteek: batetik, “euskal hiztunok behar ditugun zerbitzuak” antolatu; bigarrenik, “erabilerari toki egitea” ahalbidetu eta, hirugarrenik eta azkenik, “euskal hiztunon gunea” izan (Topagunea, 2002). Rosa Ramosek beste berba hauekin adierazten du antzeko ideia: “Euskara Elkarteak euskaraz bizi ahal izateko bidegorria osatzen ari dira, bakoitza bere herrian. Erabilera zabaldu nahi dute, euskaldunen komunitatea trinkotzeko. Izan ere, euskaldunen arteko harremanak eta identifikazioa, hau da komunikazioa, errazak badira, komunitatea sendotzen da. Euskara elkarteek ikusi dute hizkuntzaren erabilera eta hizkuntza komunitatearen osasuna elkartuta daudela” (Ramos, 2010).

Orduan, lehenik eta behin, komunitatea egituratzeko eta elikatze jardun horretan, euskara elkarteek euren buruei espazioak irabaztea edo sortzea jarri diete helburu: “Euskaraz mintzatzeko espazioak irabaztea helburutzat dute euskaltzaleen topagune guztiek” (Topagunea, 2015). Hortaz, “euskaldun gisa bizitzeko aukerak eskaini nahi dizkiogu nahi duen orori. Horretarako, dinamika eraldatzaile eta normalizatzaileak bultzatzen ditugu. Daudenak eta etorriko direnak euskalgintzan eta gizartegintzan ondo zentratzen asmatuz gero, uste baino eragin handiagoa lortu baitaiteke” (Topagunea, 2015). “Euskaraz mintzatzeko espazioak irabaztea helburutzat dute guztiek. Hurbiltasunetik abiatutako irabaztea izango dena, euskara hurbilekoa eta beharra baita hiztunarentzat” (Topalabea, 2015). Amikuze inguruko Zabalik elkarteak honela formulatzen du honako helburu hau: “Euskalguneak sortu eta bultzatuz edozein motatako ekintza eta inizatibenez” (Zabalik, 2016). Elkarriketatutako batek antzekoa zioen: “Helburua zen aukerak ematea gasteiztarrei euskaraz bizitzeko” (SE18).

“Lurralde hegemonikorik gabe ere, sare izaten jakin beharko genuke, minoria edo gutxiengoa izateraino iritsita baikaude euskararen herriaren zati handi batean. Ez badaukagu orain minoria izatearen kontzientzia gureak egin du, behar-

beharrezkoa da. Ez dugulako minoria izaten jarraitu nahi, hain justu, horrexegatik da horren garrantzitsua kontzientzia linguistikoa. Biziraupenerako, beraz, gune hegemonikoak sortu eta zabaldu behar ditugu” (Topagunea, 2011).

Jon Bujanda, Iruñeko Karrikiri elkarteko lehendakari berriak honako hau zioen 2019an: “Karrikiri tresna bat da, Iruñeko euskal hiztun komunitatea osatzeko, indartzeko eta zabaltzeko. Eskura ditugun baliabideak eskaintzen ditugu horretarako: elkartea, zerbitzuak, denda, zikloak. Modu baikor eta atsegin batean euskaraz bizi daitekeela transmititu nahi dugu, horrela sinesten dugulako. Gu geu protagonista izanez. Topagunea izaten jarraitzea gustatuko litzaidake. Garai ilunetarako babesgune; neke edo gogaituta gaudenean konpainia eta babeska eskainiko duen elkargunea. Baina egunerokoan Ametslarien Kluba izango dena: borbor dagoen ideien lapiko bat, bere buruari ‘zer egin dezakegu eta zer egin nahi dugu?’ galdetzen dion jendea biltzeko gai dena. Martxan jarriko dena, esperimentatzeko beldurrik gabe” (Bujanda, 2019).

Bigarrenik, erabilerari toki egitea izan da elkarteen helburua. Euskara elkarteak izan dira, seguruenerik, erabilera erdigunean jarri behar zela gehien aldarrikatu duten eragileak. Hala ere, hasierako urteetan erabilerari toki egin bai, baina berariaz baino, bide batez egiten zen (proiektu, programa edo ekitaldien bidez, hain zuzen ere). Hau da, erabilera bultzatu nahi zen, adibidez, kultur ekitaldiak programatuz edo sortuz, aisialdi ekintzak bultzatuz haur eta gazteentzat, mintzapraktika egiteko guneak eskainiz euskaraz hala moduz moldatzen zirenei, eta abar.

Hala ere, 2015etik aurrera, erabilera bide batez ez ezik, berariaz ere lantzeratu dira elkarteak. Hori dela eta, bigarren helburu hau doitu eta findu behar izan dute elkarteek. Hori dela eta, hizkuntza portaerak aldatzeari eman zaio garrantzia. “Ekimen hauen helburu nagusia hizkuntza portaerak eta joerak alda daitezkeela ikusaraztea da eta hori horrela izan dadin lehen pertsonan esperimentatzea da lortu nahi dena” (Bagera, 2017: 142). “Ekimenaren helburu nagusia hizkuntza ohiturak alda daitezkeen mezua zabaltzea eta hori esperimentatzeko gonbita egitea da” (Bagera, 2017: 157). “Xedea edukitzea, gizartearen aktibazioa, herritarren aktibazioa, herritarra helburu edukitzea, sentsibilizazioa” (SE02).

Hirugarrenik, elkarteak euskaldunen bilgunea izatea jarri diete euren buruei helburu. “Euskara sustatzearen aldeko pertsonen bilgunea dira euskaldunen elkarteak, baina aurrera azpimarra daiteke beste dimentsio bat: euskaraz bizitzea nahi dugunon elkarte lokalak direla. Euskaraz bizitzea hautu kontziente bat da eta izango da, hautu hori egin dugunok badugu antolatzeke beharra, saretzeko

nahia, hautu horren nondik norakoak arrakastaz bizitzeko” (Topagunea, 2015). “Euskara elkarteak, egoeraren arabera, gure hizkuntza galtze prozesutik, impasetik edo geldokeriatik ateratzeko motor soziala izan behar du” (Arexolaleiba, 1993). “Basauritik zehar barreiatuta zeuden euskaldunak ezagutzeko bideak jarri genituen. Eta hori helburu hori urteetan zehar mantendu egin da. Tailerrak, ikastaroak, ...” (SE13).

“Euskaldun gisa bizitzeko aukerak eskaini nahi dizkiogu nahi duen orori. Horretarako, dinamika eraldatzaile eta normalizatzaileak bultzatzen ditugu. Daudenak eta etorriko direnak euskalgintzan eta gizartegintzan ondo zentratzen amatuz gero, uste baino eragin handiagoa lortu baitaiteke. Orain, oro har, txikia eta zatikatua den komunitatea (euskaldunena) plazara ekartzeko ahalegina egin dugu, egiten ari gara eta egingo dugu. Komunitate hau badela, anitza eta irekia dela, bizi gogoia baduela eta antolatzeke eta sortzeke gai dena ikusarazteke eta komunikatzeko gai izango gara” (Topalabea, 2015).

“Ia hasierako fase hartan lehenengo euskara elkarteen helburua, kasu gehiengotan izan zen ba bueno, sortu ditzagun gutxienez arnagune batzuk euskaraz egiteko, eta gure artean pixka bat euskaltzaletasuna trinkotzeko eta abar. Eta orduan horretarako behar ditugu elkarte fisikoak. Gune fisiko batzuk kale erdaldunetik aparte egongo direnak, eta hor trinkotzeko aukera emango digutenak eta abar. Eta orduan, gero zen jendea nola erakarri horra eta nola...” (SE01).

Baina hiru helburu hauek ere izan dute bere eboluzioa. Lehenago ere aipatu dugun oinarriparren prozesuan, hiztunari ere balio eta garrantzia ematea aipatzen zen. Horren harira, laugarren helburu bat gehitu zioten elkarteek euren buruari: izateko nahia elikatzea. “Ezinbestekoa da nahia elikatzea, euskara aukeratzeko arrazoiak etengabe sortzea. Nahia artikulatzeko motibazioa etengabe elikatu behar da. Nolakotasuna da, beraz, garrantzitsua, euskaldun izaten jarraitzeko arrazoiak sortzea, botere kulturala artikulatzea. Euskaldun izateak jada ez du funtzionatzen kontzientziarik gabe” (Topagunea, 2011). Edo, beste berba batzuekin esanda: “Jarraitu behar dugu euskalduntasuna euskaldunaren nortasunaren erdigunean kokatzen (euskaltzaleak ez diren euskaldunak euskaltzaletzen)” (Topagunea, 2012). Edo, oraindik zehatzago: “Gure jardunbidearen lehentasunezko helburua da hartzaileen euskararekiko motibazioan eragitea” (Topagunea, 2012). Edo galdetegia bete duen batek esaten duen bezala: “Tokian tokiko euskaltzaleen topaguneen egiteko behinenak horrek behar luke: izateko nahia elikatzea hiztunengan eta komunitatean. Bizitza erdigunean jartzea, alegia” (D14).

“Eta justu oinarrigarretan zegoen hausnarketa eta zen justu kontrakoa... Bale, trinkotze lanak-eta egin ditugu, baina orain kontua da non dagoen jendea eta nola eraman euskara jendea dagoen tokitara, eta nola egin lan hori, ezta?” (SE01).

“Gakoa, motibazioa delako, izateko nahia, gogoa, zaletasuna alegia. Euskara elkarteen bueltan, eskuartean dabilkigun lehengaiaren dimentsioaz eta transzendentziaz jabetu ezean, despistatuta jarraituko dugu eta, ondorioz, gure hizkuntza-aren biziberritzeak behar duen nahikotasun maila eskuratu gabe jarraituko dugu, nahikoa garbi jokatu gabe, nahikoa ausartak izan gabe, eta gure egitekoaren garrantzian eta zentraltasunean nahikoa sinetsi gabe” (D14).

Hala ere, gauza bat da helburutzat hartzea eta beste bat da horiek praktikan zelan gauzatu diren. Hori beste upel bateko txakolina da eta hurrengo atalean jorratu dut luze eta zabal. Hau da, zelan lortu helburu horiek praktika zehatzetan islatzea eta helburuekiko koherente bihurtzea.

4.6 Euskara elkarteen praktikak

Euskara elkarteen praktikak aztertzerakoan, bi galdera-modu nagusiri erantzun beharko lioke ikerketa honek. Batetik, zelan galderari, hau da, zelan egin dituzten gauzak euskara elkarteek, zer egiteko modu erabili duten, zelan antolatu duten euren burua eta abar. Eta, bestetik, zertan galderari, hau da, zer arlotan jardun duten, zer ekintza eta jardunbide egin duten eta abar. Egia da galdera biak elkarri lotuta daudela eta elkarri eragiten diotela. Egia da, halaber, azalpenaren argi-beharrez, txukunagoa dela bi galdera horiei bakoitza bere aldetik erantzutea. Hala ere, ez ahaztu galdera bien erantzunak erabat lotuta daudela bata besteari eta ezin dela erabat ondo ulertu galdera bakoitzaren erantzuna bere kabuz.

Hasi aurretik, hartu behar da kontuan euskara elkarteak, zerbait izan badira, ari-guneak izan direla, ari eta ari aritu diren antolaketa-dispositiboak izan direla. Egin, egin eta egin, horixe izan da euskara elkarteen ezaugarri nagusienetako bat. Hortaz, praktikak aztertzeak sekulako garrantzia du euskara elkarteak zer izan diren eta zer ekarri duten jakin gura bada. Topalabea taldeak dioen bezala, “mugimendua zerbaitetan nabarmendu bada, bere izaera ekintzailean izan da” (Topalabea, 2015).

4.6.1 Zelan egin dituzte gauzak euskara elkarteek?

Euskara elkarteek komunitatea trinkotzea (edo egituratzea) izan dute xede nagusitzat, lehenago ere esan dudan bezala. Eta, horretarako, “minoría aktibo” (Moscovici, 1981) bezala jokatzeko asmoa izan dute, Topaguneak berak aitortzen duen modura: “Ez badaukagu orain minoría izatearen kontzientzia, gureak egin du, behar-beharrezkoa da” (Topagunea, 2011). Serge Moscovici-k honela definitzen ditu minoría aktiboak: “Eragina izateko asmoa eta helburua duen taldea, aktiboa dena eta existitzen dena” (Moscovici, 1981). Minoría batek eragin soziala izateko, aldaketa soziala lortzeko, hain zuzen, “arrakastarako gako nagusia portaera estiloa da, baita horiek adierazteko garapena eta intentsitatea ere”. Portaera estiloak²⁴³ aldaketa sozialean eragiteko, hiru baldintza bete behar ditu: batetik, “barruko eta kanpoko zeinuen arteko harremanen kontziente” izan behar da; bigarrenik, “zeinu horiek modu sistematikoan eta sendoan erabiltzea, jasotzaileak txarto ulertu ez dezan”; eta, hirugarrenik eta azkenik, “interakzio batean mantendu behar ditu portaera eta haien esanguren arteko harremanak”.

Hori guztia bat dator Julen Arexolaleibak aipatzen duenarekin: “Kontziente gara minoría garena eta ez dugu normalizat hartzen gure herrian bertan euskaldun modura dugun estatusa” (Arexolaleiba, 1992). Gainera, honako hau gehitzen du: “Jende nukleo batek maila nahikoa badu kontzientzian, kompetentzia linguistikoan zein koherentzia aktiboan, eta batzeko erabakia hartzen badu (eta ez autobaztertzea), sorrarazten duen dinamika soziala areagotzen da espiral modura. Imitatu beharreko ereduak sortzen dira” (Arexolaleiba, 1992).

243 Serge Moscovici-k bost portaera estilo bereizten ditu:

1. Esfortzua: norbanako edo talde batek esfortzu handia egin behar badu plan bat aurrera ateratzeko, bestek bi ondorio aterako dituzte: a) egindako hautuen gainean konfiantza handia duela eta b) autoerrefortzu gaitasun handia duela.
2. Autonomia: iritzi eta jarrera independentea izateak printzipio sendo batzuen arabera jokatzeko bidea islatzen du. Hortaz, bere iritzien jabe jokatzeko duen pertsonak ez du besteengan eragiteko asmorik eta, horrexegatik, hain zuzen ere, eragiten du. Izan ere, norbanakoek ez dute konfiantzarik izaten euren iritzia manipulatu gura dutenekin.
3. Sendotasuna: portaera sendoa izateak ziurtasun seinaleztat hartzen da, ikuspuntu zehatz bati erabat lotzeko borondate modura eta hau koherente eta zurrun baten konpromisoen isla modura. Portaera sendoa izateak hainbat portaera dakartzat: formula bat behin eta berriro errepikatzea, kontraesana duten portaerak baztertzea eta abar.
4. Zurruntasuna: portaera sendo batek zurruntasun maila bat du eta zurruntasun hori ikusten bada, eragina du. Estilo honek aldaketa dakar, baina zeharka, ez artez.
5. Ekitatea: gehiengoak eta gutxiengoak portaera estilo zurrun, monolitiko, errepikakor eta sendoa badute, aurrez aurre paratzen zer? Estilo honek sendotasuna adierazten du, maila batean. Baina, era berean, besteen iritziak ere hartzen ditu kontuan. Malgua bada ere, eragin gura badu, gutxiengoak moral baten arabera jokatu behar du, batasun hau saihestu behar du, anomia saihestu behar du.

Bost estilo hauek, jakina, ez dira erabat zurrunak, ez erabat estankokoak. Hortaz, erakunde edo minoría batek horietako bat erabiliko du momentu jakin batean eta beste bat beste batean. Gainera, batzuetan aldi berean estilo bat erabiliko du batekin eta beste bat bestearekin. Hala ere, azken kasu honetan seguruenik sendotasuna galduko luke. Moscovici-k, gainera, hauxe dio: “Taldea baten barruan, portaera bat zenbat eta zurrunago, orduan eta eragin gehiago. Taldetik kanpora, ostera, estilo ekitatiboagoak eragin gehiago izan ohi du” (Moscovici, 1981).

Hortaz, minoria aktibo jokatzeko horretan, euskara elkarteak modu performatiboan aritu dira, hau da, “eraikuntza prefiguratioa” (Martinez, Casado, 2013) egin dute. Beste berba batzuekin esanda, euskara elkarteak euren eguneroko praktiketatik abiatuta saiatu dira lortu gura zuten eta duten eraldaketa soziala lortzen. Horretarako, “bizi eredu antizipatorioak” (Joxemi Zumalabe, 2014) martxan jarri dituzte elkarteek, hau da, “amesten dugun jendarte eredu eta bizi eredu gaurdanik bizitzen hasi”, Joxemi Zumalabe Fundazioaren berbetan adierazteko. Hortaz, euskara elkarteek adibidea izan dute bide, eredu izan dute bide. “Orduan ekintzak dik gehiago finkatu norabidea ere. Performatioa izan duk ere denbora berean gure jarduna” (SE25).

Haria finago ehotzen, euskara elkarteek euskaraz funtzionatu dute. Barrura begira, euskaraz aritu dira, euskaraz batzarrak egin dituzte, euskaraz aktak, euskaraz barne-dokumentuak eta abarrak. Kanpora begira ere, euskaraz aritu dira: euskaraz kartelak egin dituzte, komunikazioak, ekitaldiak eta abar. Egia da ere kanpora begira, batzuetan eta salbuespenez, erdaretan ere aritu direla (udalekuen propagandan edo immigrazioari lotutako ekintza batzuetan). “Gu ez ginen kotatu ez folklorean, ez euskararen alde, baizik eta euskaraz bizi ginen kolektibo bat ginen” (SE09). “Egunerokotasunean koherentzia jokatu dugu beti” (SE15). “Euskarari bultzada ematen diogu euskara hutsez erabaki genuelako hasieratik eraikitzea Aiaraldea proiektu osoa” (SE23). Elgoibarko Izarra elkartekoek ondo baino hobeto laburbiltzen dute hau euren oinarri filosofikoen gaineko txostenean: “Euskararen eta euskaldunon aldeko herri-ekimena da gurea, eta euskaratik eta euskaraz jardungo dugu, nahiz eta euskara ez den beste hizkuntza batzuk ere erabili beharko ditugun geure helburuen mesedetan” (Elgoibarko Izarra, 2014: 19).

Ez hori bakarrik. Kasu batzuetan, euskara elkarteak eurak (euren ohiko funtzionamenduaren bidez) izan dira euskaraz egiteko gune pertsona askorentzat. “Urtxintxarekin aisialdiko begiraleak formatu genituen, hainbat gazte batu genuen elkartearen bueltan. Eta haiekin lan polita egin genuen, euskaldundu ziren, harremanak aldatu zituzten” (SE13). Baita eragile ere: “Esate baterako, furgoneta bat alokatzen zoazenean, ahalegintzen zara hori euskaraz egiten” (SE22).

4.6.1.1 Egiteko moduak

Egiteko moduak dira, hein batean, elkarte edo mugimendu batek ezaugarritzen duena (egiten dituen ekintzekin batera). Horregatik, garrantzitsua da, nire

ustez, euskara elkarteek erabili dituzten egiteko moduak (edo horietako batzuk behinik behin) azpimarratzea, xehetzea eta azaltzea.

Lehenik eta behin, aipatuko nuke euskara elkarteak hasieratik saiatu direla militantzia edo aktibismo eraginkorrago edo zientifikoago bat egiten. Horretarako, ohikoak izan dira elkarten jardunbideetan planak, helburu lorgarri eta mailakatuak, epeak, adierazleak eta antzeko berbak eta tresnak. “Euskararen herri elkarteetatik Haur alorrean ezer egiten hasi aurretik, beraz, hizkuntza normal-kuntzarako jorratu behar den bidea zein den aztertu beharko litzateke, metodologia egoki baten laguntzarekin (diagnostikoa, lehenetsunak markatu, helburuak zehaztu, ekintzak programatu, ebaluaketa egin, ekimena ezagutarazteko bideak landu)” (Manterola, 1993). Hasieratik izan dute presente elkarteek: “Euskalgintzan urte asko eman ditugu ezer zehatzik eta neurgarririk eskatu gabe `euskararen aldeko´ jarrera ona (sinadura, ...) eta laguntza (ekonomikoa batez ere) baizik” (Arexolaleiba, 1993). “Egitasmoak aurrera eramateko plangintza egitea lagungarria da. Plangintzetan egitasmoaren helburua, eginkizunak, bitartekoak, jarraibideak, metodologia zehazten dira, besteak beste” (Romeo, 2008). “Euskara elkarte bat sortu ondoren, edozer egitera goazela, ezertan hasi aurretik gure lanak ahalik eta ondoen programatu behar ditugu. Nondik abiatzen garen, zein den gure asmo nagusia eta zein urtez urteko helburuak, zein ekintzak aukeratzen ditugun eta nolako bitartekoak erabiliko ditugun, eta abar, eta abar” (Dobera, 1993).

Ordura arte, ez zen bat ere ohikoa euskararen aldeko mugimenduetan tankera honetako kontzeptuak aipatzea eta erabiltzea (esango nuke, datu zehatzik izan barik, gauza bera esan ahal genuela euskal herrietako mugimendu sozialetan orokorrean, baina tira). Berrikuntza ekarri zuten elkarteek, eta berrikuntza horiek apurka-apurka zabaltzen ari dira beste elkarte eta mugimenduetan.

Ordura arte ere, euskararen aldeko mugimendu sozialean oso ohikoak ziren kanpainak. Euskara elkarteek horrekin apurtu nahi izan zuten eta kanpainei ekintza eta helburu jarraituagoak eman. Adierazgarriak dira, zentzu horretan, Juan Luis Arexolaleibaren berba hauek: “Publizitate kanpainak egitea –gure animoak jasotzeko eta pozerako besterik ez badira- egitea ondo badago ere, argi eta garbi dago hauekin ez goazela inora. `Kanpainitis´aren garaiak pasatu dira eta sensibilizazio/presio-lana arloka, mailaka eta, azken batean, modu askoz pertsonalatuagoan egin beharra dago” (Arexolaleiba, 1993).

Zentzu horretan, enpresa munduko hainbat kontzeptu eta tresna ekarri dituzte euskara elkarteek euskararen aldeko mugimendu sozialera. Azken finean,

elkartek bilatzen zuten (eta dute) kudeaketa eraginkorragoa, jendartean eragin ahalik eta inpaktu gehien eragitea eta, horretarako, enpresen inguruan erabiltzen ziren hainbat tresna ekarri zuten mugimendura: plan estrategikoak, berrikuntza eta kudeaketa aurreratuari lotutako kontzeptuak, buru-mapak, ahulguneak eta indarguneak zehazteko metodologiak, ... Beste berba batzuekin esanda, planifikatzearen eta neurtzearen inguruko kultura osoa ekarri zuten mugimendura. “Markatzen ziren ildo batzuk ikasturte hasieran asteburu-pasa bat eginda (..) Ni, sartuaz batera, ikasi nuen helburu egingarriak terminoa (..) Aktak sistematikoki jasotzearena eta kronogramak egitearena ... Kultura hori oso barneratuta geneukan” (SE07). “Sorrera oso prozesu serioa izan zen. Egin genuen AMIA matrizea, ez dakit zer ... Indarguneak, ahulguneak, egoera aztertu ... (..) Gure ikuspegitik nola zegoen egoera. Zer egin zitekeen ... planteatu genituen ildo estrategikoak, izaera ...” (SE24). “Ekintza edo ekimena da gizarte-mugimenduaren funtsa, baina ekimenak arrazoitutakoa izan behar du. Jakin egin behar dugu zer eta zertarako egiten dugun, itsuan edo aldameneko herrian ere egiten dutelako jardun beharrean” (Elgoibarko Izarra, 2014: 16).

Dena den, elkarriketatu guztiak ez datoz bat afirmazio horrekin. “Nik uste dut, plan-plan-plan bat ez genuela izan, desio batzuk, auzoetan egiteko zerbait, ekintza batzuk, ikastaroak eman, baina plangintza-plangintza uste dut ez genuela izan” (SE05). Badirudi, hortaz, planak egin arren, inertziak indartsuak zirela: “Nik daukadan sententzia da zailtasunak izan genituela planifikazioa egiteko eta, orduan, elkarteak zer helburu eskaintzen dio herriko jendeari?” (SE04). Elkarrearen beraren osaerak eragina izan du elkartean egiteko moduetan ere: “Askotan aldameneko herriak egiten duen horri begira egoten gara. (..) Hor ez dago azterketa soziolinguistikorik, edo ni ez naiz akordatzeko behintzat” (S03). “Langile batek joera batzuk baditu, horrek bide bat egiten du; beste bat badago, ba beste moduren bat” (SE09). “Esango nuke ibilbide guzti honetan oraintsu arte ez dela egon hausnarketa kontziente asko. Gauzak egiten dira sumatu ahala edo jende bat etorri ahala sumatzen zuen hutsune bat nonbaiten, joaten zen betetzen eta eraikitzen bere esparrua” (SE12). “Asko funtzionatu da intuizioz eta momentuko pasio edo gogo batetik sortuta. Eta, bueno, hori ondo dago. Baina hori denboran luzatzen denean, ba hutsune batzuk zertzen ditu. Nahiz eta ikuspegi soziolinguistikotik batetik edo datuen irakurketa edo analisi zehatzago batetik ez abiatu, bueno, ba denbora batean funtzionatu dezake. Baina gero derrigorrezkoa da baloratzea zuk egiten duzun lana eta egiteko falta zaizuna, nor zaren kokatzeko eta abar urteen joanean” (SE13). Azkenean, planifikazioaz berba egin arren, ajeak ere ekarri ditu ekintzak kopiatzeak (eta ez ekintzen atzean zegoen filosofiak): “Boluntarioen eskutik ‘ekintzitisa’ nagusitu da, eta urte batean abian jartzen ziren ekimenak edo

jarduerak hurrengoan ahaztuta gelditzen ziren askotan. Ekintza bat sortzeko eta bultzatzeko ahalegin askok ez du jarraipen sistematikorik izan, ezta bere emaitzen ebaluaziorik ere” (D07).

Hortaz, esan daiteke elkarteek ahaleginak egin zituztela enpresa munduko kontzeptu horiek euren egiteko moduetan txertatzeko, nahiz eta emaitza irregularra izan. Kontzeptu horiek bere egin zituzten, aldarrikatu eta praktikan jarri, baina seguruenik elkarteen izaera eta funtzionamendua bera oztopo izan ziren (eta dira) tankera honetako kontzeptuak sakon eta betiko errotzeko tokirik toki.

Bestetik, euskara elkarteek pragmatiko jokatu dute, nahiz eta helburu gorenei (deitu biziberritzea, normalizazioa edo hizkuntza komunitate askatu eta emantzipatua) uko egin ez. Baina elkarteek gaur eta hemen egin zitekeenari eman diote garrantzia eta lehentasuna, bidea eginez urratsez urrats. Eta horretan ere igarri daitezke Arrasateko esperientzia kooperatiboaren lorratzak. Izan ere, “Arrasateko esperientzia kooperatiboak hasiera-hasieratik bere egin ditu enpresa alderdiak eta pragmatismoaren ukitu nabarmena izan du” (Azkarraga, 2005).

Hala ere, kudeaketa aurreratuaren eta militantzia “zientifikoaren” (edo “zientifikoagoaren”) aldeko apustua beste egiteko modu batzuekin ezkontzen zen eta da. Izan ere, euskara elkartearen egiteko modu nagusienetako bat “eraikitzea” (SE09) izan da. Eraikitzaile izateko zera horrek, gainera, zerikusi handia du positibo izatearekin. “Euskara elkarteek badugu lanerako estilo propioa, jarrera eraikitzailea dugu oinarri” (Irizar, Martinez de Lagos, 2006). Elgoibarko Izarra elkartearen oinarri filosofikoak jasotzen dituen txostenean honela azaltzen da: “Elgoibarko Izarra positiboa eta eraikitzailea izango da: euskaldunon aldeko dinamika ezin dugu gurutze-bide moduan ulertu. Une zailak eta gogorrak izango dira, baina gure jardunak positiboa eta eraikitzailea izan behar du. Positiboan jardungo dugu, eta eraikitzea izango da gure zeregin nagusia. Horrek ez du esan nahi behar denean salaketarik edo kritikarik egingo ez dugunik, baina gure bokazioa eraikitzea izango da” (Elgoibarko Izarra, 2014). “Egiteko modua izan da negoziazioa, ez gatazka bilatzea” (SE15). Zentzu horretan, aipatzeko modukoa da beste elkarrizketatu batek esandakoa: “Elkarteak oso politikoki zuzen jokatu du. Beti bilatu dugu adostasuna, beti bilatu dugu batzen gaituena, eta batzuetan falta izan zaigu ‘flemá pixka bat’” (SE13). Bide beretik jotzen du beste elkarrizketatu batek: “Ez gara joan dagoen zerbait apurtzera. Apurtzera zentzu onean, eh? Inertziak apurtzera edo ...” (SE04). “Batzuetan gauza erosoak egin dira eta ez dira gauza deserosoak egin. Deserosoak edo arriskutsuak igual. Deserosoak eta arriskutsuak! Gauza biak ez dira egin. Deserosoak igual egin behar ziren gehiago” (SE09).

Hirugarrenik, euskara elkarteak sorreratik bertatik ausart eta irudimentsu jokatzen saiatu dira. Hasieratik, sormenari²⁴⁴ garrantzi handia eman diote, berrikuntza sozialei garrantzi handia eman diete. Elkarteak gauza berriak sortu eta probatu dituzte, esperimentatu dituzte, tokian tokiko hedabidegintzan, aisialdian edo Kafe Antzokiak bezalako espazioak sortzearekin. Izan ere, elkarteak tokian tokikoari eta egunerokoari lotuta egon dira hasieratik bertatik. “Egunerokotasunean oinarritu nahi dugu gure jarduna. Urtean zehar etenik izango ez duena. Lineala, behetik gorakoa, txikitik handirakoa. Gora-behera handirik gabe eta urtean pare bat kolpetan kontzentratuko ez den dinamika” (Elgoibarko Izarra, 2014).

Egunerokoa eta tokian tokikoa, hortaz. Azken honek azterketa xehegoa mezezi du. Herri eta auzoetatik eta herri eta auzoetan sortutako mugimendua da euskara elkarteena. Euren balio nagusienetako bat hori izan da, gertutasuna, toki-kotasuna. “Uste dut Durangoko Berbarok eta Erandiokoak, edo ez dakit nongo, euskara elkarteak dauzkaten funtzionamenduak zeharo diferentek direla. Eta horrek ekartzen duela ere bai salbableak izatea herririk herri” (SE23). Tokiari lotuta egote horrek sustraitze eta errotze sakona ekarri die hainbat euskara elkarteei eta tokian tokiko dinamiketan zeharo txirikordatuta egotea. “Ezin duzu hartu beste euskara elkarte batek egiten duena eta zure herrian aplikatu. Egin behar dena da aztertu herria nolakoa den, zer egiten den edo zer beharizan dagoen herri horretan, eta egin” (SE11). Gainera, herririk herri indarrean dauden dinamikak ere zeharo diferentek izan daitezke. “Guk eskualdean bizi dugu dimentsio bat eta gero Euskal Herrian badago beste dimentsio bat. (...) Arrasateko euskara elkarteak gaur egun daukan fase estrategikoa ez da inondik ere gurea” (SE20).

Baina, era berean, tokikotasun horrek mugimendu izaera ere lausotu du. Hala ere, han eta hemen izan dira mugimendu hori irudikatu eta sentitu duten pertsonak eta elkarteak. Azken finean, elkarte guztiak ideia generiko baten inguruan batu egiten dira eta ideia generiko hori eboluzionatzen joan da haren inguruan biltzen den jendeak edukia eman ahala. Izan ere, elkarte guztiak ez datoz bat jardunbidean, ez datoz bat oinarri filosofikoen puntu guzti-guztietan. Eta, gainera, zeharo errealitate soziolinguistiko, sozial eta politiko ezberdinetan sortu eta garatu dira. Baina, hala ere, bada nolabaiteko errepresentazio bat, bada nolabaiteko identitate komun bat, mila ñabardura subjektibo eta tokian tokikoak dituenak. Eta errepresentazio horrek tokian tokikoa gainditzen du eta herri eta auzoz gaindikoa dinamika bat martxan jartzeko oinarriak ezartzen ditu.

244 Sormena ez da ulertu behar kasu honetan kulturgintzako sormen bezala, modu zabalago batean baizik. Hau da, sormena ulertu behar da ideia edo kontzeptu berriak sortzeko gaitasun bezala, konponbide berritzaile edo originalak sortzeko bidea bezala.

Eta, beste gauza batzuen artean, errepresentazio horrek esplikatzeko du hasieratik elkartearen artean egon den elkartasuna eta lan egiteko prestutasuna. Honakoa dio, adibidez, elkarrizketatu batek: “Betidanikoa izan da esperientzia positiboak trukatzeko joera elkartearen artean” (SE20). Horrek azaltzen du Topagunearen sorrera 1997an eta horrek azaltzen du tokian tokitik Topaguneari eman zaion indarra eta garrantzia (ez da ahaztu behar Topagunearen Zuzendaritza Batzordea elkarteetako aktibistek osatzen dutela). Garrantzia eta indarra eman arren, elkar- teek (baita Topaguneak ere) argi izan dute nazio mailako erakundea federazioa zela (2011 urtera arte behintzat). Federazioa, hau da, atxikimendu libreko elkarte eta behetik gora antolatutakoa, elkartei zerbitzua eta indarra emateko, tokian tokikoa elikatze eta ez nazio mailako makrofaktoretan katramilatze. Esan dudana bezala, 2011. urtetik aurrera, egoera zerbait aldatu da eta Topaguneari elkar- teek eman dizkiote nazio mailako funtzio batzuk. Baina, egunerokoan, elkartearen erabakitze ahalmena, elkartearen jardute ahalmena eta elkartearen norantza finkatze- ko ahalmena, jarraitzen du 2017an tokian tokiko elkarteetan egoten. Tokian tokian.

Elkar teek, beste hainbatetan esan bezala, pluralak izateko bokazioa izan dute. “Elkarte hauen ezaugarri amankomuna, pentsakera desberdineko euskaltzaleak bildu izana da” (Amonarriz, 1993). Eta, jakina, oreka horiek mantendu ahal izateko adostasuna eta zabaltasuna izan behar dute elkar teek (eta izan dute hein batean). “Alderdien politikoen liskarretik at kokatuko da mugimendua, ezein alderdiren monopolizaziotik ihes eginez. Adostasuna eta zabaltasuna ardatz izango du, beti ere bere oinarriparrei uko egin barik eta eragite dinamikari eutsiz” (Topagunea, 2011). “Euskara Elkartearen mugimenduak hasiera-hasieratik mugimendu transbertsualtzat hartu izan du bere burua, eta kolore guztietako euskaldunengana iritsi nahi izan du. Saiakera hori egon da, filosofia hori izan dute eta esplizitatu egin dute eta lortzen saiatu” (D01).

Hasieratik garbi izan dute euskara elkarte hauen bultzatzaileek elkar teak izaera ahalik eta zabalena izan behar zuela (beste gauza bat da ea gero errealtatean lortu den, baina asmoa hor dago). “Argi geneukan taldea ahalik eta zabalena eta ahalik eta anitzena izan beharko zuela, independentea” (Zeberio, 2016). “Euskaltzaleen Elkarteek²⁴⁵ sorreratik izan dute helburu modura hiztun komunitatea trinkotu eta zabaltzea, beti ere euskaltzaletasuna bestelako interesen gainetik jarritz eta tokian tokiko hizkuntza komunitatearen artikulazioa, euskara kohesiorako elementu modura erabiliz” (Amonarriz, Martinez de Lagos, 2017). Axun Aierbek, esate baterako, honako hau dio Galtzaundi euskara elkarteari buruz: “Izaerari dagokionez,

245 Euskaltzaleen elkarte, kasu honetan, euskara elkartearen sinonimoa da.

batetik, irekia eta zabala da, hala ideologikoki nola sektore sozial guztiak baitaratu, izan ere, arrakasta *irekitasunez* eta *zabaltasunez* jokatzean datza, alegia, joera politiko eta pentsakera ezberdinetako eta gizarte-esparru desberdinetako jendea elkartzean eta guztiok pixka bat amore emanez, analisi eta jokabide minimo batzutan ados jartzean, denon artean bakoitzak bere esparruan lan eginez Euskararen normalizazio-prozesua abiarazteko, izan ere, inork ez du euskararik aurrera aterako bere indarrez bakarrik. Eta, bestetik, gainerako erakunde eta elkarteetatik erabat autonomia da”²⁴⁶ (Aierbe, 1991).

Elkarteek ez ezik, Topaguneak ere argi eta garbi izan du hau: “Esango nuke Topaguneak beti nahiko garbi eduki duela, edo horretan asko saiatu dela, ez letratzen politikoki alde batera edo bestera, nahiz eta horregatik peaje dezentekoa pagatu behar izan duen seguramente. Horrek bere jarduna hainbatean kuantitatiboki ahuldu eta abar. Baina hor egon da. Eta uste dut hor egin duen bidea, poliki-poliki oso bide koherentea izan dela. Lortu duela hizkuntzan eta soziolinguistikian zentratutako pertsona batzuen arteko sare oso potentea lortzea” (SE12).

Eta, bide horretan, egiteko moduetan laugarrena elkarlanean jarduteko bokazioa²⁴⁷ litzateke. “Euskaltzaleen elkarteentzat ez da arrotza zubigintza, euskararen normalizaziorako elkarlan dinamikak sortu, sustatu, lagundu eta erraztea. Euskaltzaleen mugimenduaren oinarrietan dago topaguneak harremanetarako espazioak izatea eta sortzea. Topaguneak izatea, Euskaltzaleen Elkarteak euskararen bueltan ideologia, iritzi eta bizipen anitzeko herritarrak batzeko gune modura sortu zirelako” (Amonarriz, Martinez de Lagos, 2017). “Eskarmentuak irakatsi die elkartei elkarlana ezinbestekoa dela” (Aierbe, 1993). Baina elkarlana bai, baina norekin? Eta zelan?

Norekin horri erantzuten, elkarteek, batez ere, hiru eragile motarekin izan dituzte lankidetzak harremanak: herrietako beste elkarte edo eragileekin, euskararen aldeko mugimendu sozialeko beste eragileekin eta toki mailako administrazioarekin (bai arlo politiko zein teknikoarekin). “Mugimenduaren barruan bezala kanpora begira, lankidetzak da mugimenduaren jarrera. Lankidetzak bai euskalgintzako beste eragileekin, bai erakunde publikoekin, eta bai gizarteko beste eragileekin” (Topagunea, 2002). “Elkarteek ahalik eta bateratuen jokatzeko saiatu behar dute egokitzen jotzen duten administrazio-atalaekin (euskara-zerbitzu, batzorde, ...) euskalgintzan diharduten gainerako erakunde (ikastetxe, euskaltegi, ...) eta elkar-

246 Azpimarra testu originalean dator.

247 Elkarlana eta lankidetzak, baina, hainbat modutara uler daiteke, baita gure arloan ere. Interesgarria da, zentzu horretan, Manex Agirrek honi buruz egiten duen gogoeta: Agirre, 2019.

te zein norbanakoekin, beti ere guzti-guztien ahaleginak norabide berean eta antzeko lehenetasunetan eragin dezan” (Arexolaleiba, 1993a). Ikusiko dugu jarraian bakoitzaren nolakotasuna eta ñabardurak.

Euskara elkarteek beti izan dituzte igurtziak herrietako elkarteekin, denda, zerbitzu eta tabernekin. “Elkarlanean aritzea da helburua, baina bakoitza bere tokian” (Arexolaleiba, 1993a). Argi izan dute elkarteek elkarlanean jardutea garrantzitsua zela. “Hori izan da gure beste ildo estrategiko bat. Izan da sare bat sortzea herriarekin. Orduan, guk bolada batez izan genuen egoitza. Ez genuenez liberaturik, ez zuen zentzurik eta, gainera, dirua galtzen genuen. Orduan, egoitza falta horrek bultzatu gaitu (eta bilatu dugu ere) elkarlanean aritzera” (SE24). Haiekin batera jardun dute batzuetan, haiei eskakizunak egin dizkiete beste batzuetan. “Bai, gehiago zen gu eurengana joan proposamenekin” (SE03). Dena den, askotan harreman horiek ez dira nahi bezain sakonak, nahi bezain emankorrak. “Baina 2012tik aurrera harreman asko egin ditugu herriko beste elkarteekin. Baina ez da izan guk nahi genuen bezain sakona. Jarraitzen dute haietako elkarte asko gurekin harremanetan izaten” (SE13). “Hasieran bai ematen zuen sartu ginela ez dakit non. Nik uste dut beldurra ere bazutela. Ea etorriko ginen hemen kritikatzera, euren lana zirikatzea, edo ...” (SE11).

Hala ere, elkarteek harreman hauei garrantzia eman diete. “Euskara elkarteetako antolatzeke modua beti izan da sarean, herriko elkarteekin, ... Hori da kriston boterea! Herriko 15 elkartek zuri deitu eta bigarren egunean bilera bat emateko aukera edukitzea, gustatuko zaio edozein komertzial edo administrazioke edozein langileri holako aukera edukitzea” (SE23). “Guk bakarrik gauzak antolatzetik eta gauzak prestatzetik, 365ekin oso garbi ikusi nuen hori ez zela gure kontu bat izan behar. Aprobetxatu behar genuela ekimen hori, ideia hori, gure lokaletik irten eta herriko gainontzeko elkarte, erakunderekin lankidetzan jarduteko” (SE03). “Sentsazioa daukat euskara elkarteentziko potentziala harremanetan dagoela” (SE22). Eta harreman horietan euskara elkarteek, oro har, hurbiltasunarekin jokatu dute. “Hurbiltasuna. Tximintzek eduki duen inportanteena hori izan da. Elkarte eta jende guztiarengandik hurbil izan gara eta horiek ere hori igarri dute” (SE11).

Elkarteekin ez ezik, toki-administrazioarekin ere jardun dute elkarlanean elkarteek. Administrazioarekin, baina, batez ere, haren alderdi teknikoarekin. “Euskara zerbitzuak oso garbi izan du Takun aliatu bar dela, eta elkarrekin joan behar direla. Bakoitzak bere rolak edo ardurak izan behar ditu. Beti hor saiatu izan da hitzarmenak egiten, programak planteatzen edo zuzentzen” (SE14). “Euskara

zerbitzuko langileak ere Bizarra Lepoan-etik oso gertu ibili dira” (SE09). “Gerora euskara teknikariari esker joan da harreman hori lotzen eta, batez ere, azkeneko urte gutxian igarri da diferentzia handia ikusi dugulako gero eta garbiago batak bestearen beharra zeukala” (SE12). Administrazioaren alderdi politikoarekin (hau da, hautetsiekin) ere harremana izan dute elkarteek. “Gaur egungo euskara zinegotzia ere hasieratik gure bazkide da. Oso harreman ona egon da betidanik denon artean” (SE09).

Dena den, administrazioarekin beti ez dira izan harremanak onak edo emankor-
 rarak. Denetarik egon da, elkarterik elkarte eta herririk herri politonia handia dago
 (batzuetan, herri berean legealdirik legealdi ere diferentzia nabarmenak izan dira).
 Izan ere, ez da erraza elkarteek euren buruari jarritako helburuak betetzea. Alde
 batetik, elkarlana egitea administrazioarekin eta, beste alde batetik, haien akuilu
 aritzea. “Eskakizun argiak eta zehatzak egingo dizkie botere publikoei, beti ere
 lankidetzan aritzeko borondate irmoarekin. Izan ere, aurrera egingo badugu, nor
 bere aldetik eta elkarlanean, euskarak boterearen eta gizarte zibil autoeratuaren
 beharra izango baitu aurrerantzean ere” (Topagunea, 2011). “Gizarte mugimendu
 bati akuilu-lana ere badagokio. Ez da erraza lankidetzeta eta akuilu-lanak uztar-
 tzea. Horrek eskatzen du kontraesanak gainditzeko diskurtso sendo eta etengabe
 berritua izatea” (Topagunea, 2012). Hortaz, administrazioarekin lankidetzan eta,
 era berean, eragiletzan jardutea zaila da, zaila da bi horien arteko oreka sinesgarri
 egin, oreka hori eraginkor bihurtzea.

Izan ere, euskara elkarteek osagarritasunean sinesten dutela esaten dute. “Osa-
 garritasunean sinesten dugu gure mugimenduan, herritar antolatu gisa dena ez
 dago gure esku, ezta erakundeen esku ere. Gizarte mugimendu gisa egiteko pro-
 pioak ditugu, geuk eginda sinesgarritasun eta onarpen maila izango dituztenak.
 Gure arduraren parte geuk betetzean, bizi nahia eta duintasuna erakusten ditugu.
 Baina ardura partekatua da eta erakundeei ere badagozkie egiteko batzuk, haiek
 bete behar dituztenak” (Topalabea, 2015). Izan ere, euskara elkarteek hauxe egin
 behar dute, hauen arabera: “Herritarrak aktibatzea, antolatzea, ilusionatzea, ahal-
 duntzea, formatzea, bizi nahia erakustea. Gizartean oro har eragitea. Erakundeen
 diskurtsoak auzitan jartzea, erakundeengan eragitea, elkarlanerako espazioak
 bilatzea, euskararen aldeko hizkuntza politika eraginkorra lortzeko eragitea...”
 (Topalabea, 2015). Eta botere publikoei edo erakundeei honako hau: “Politikak
 erabakitzea, legeak onartuz, arauak zehaztuz, baliabideak eskainiz. Gizarte mu-
 gimenduen egitekoak onartuz eta babestuz. Gizartean eta botere ekonomikoan
 eragitea...” (Topalabea, 2015).

Badago, hala ere, harreman horiek gatazkatsuak izan behar direla dioenik. “Publizitate handia egiten zaio elkarlana administrazioekin, elkarlana administrazioekin, eta horrekin ni nago esanez ttek-ttek-ttek ... konfrontazioak ere behar direnean, behar dira. Aurrera konfrontazioarekin, modu hoberenean egin, baina aurrera konfrontazioarekin” (SE05). Nire ustez, elkarlana eta gatazka ezkontzea ezinezkoa dela adierazi nahi digu elkarrizketatzaile honek. Baina, hala ere, elkar- teek hori egin izan dute (zailtasunekin eta ondorioekin, jakina), edo behintzat egiten ahalegindu dira.

Euskalgintzarekin ere harremanak izan dituzte elkar teek, esan bezala. Kasu honetan ere, besteetan bezala, osagarritasuna, hurbiltasuna eta harreman eraiki- tzaileak egin nahi izan dituzte elkar teek. “Jaso izan dugu egur pila bat euskal- gintza barrutik harreman horiengatik. Uste dut euskara elkar teen mugimenduak urteetan eduki duen dinamika eta harreman mota eraikitzaile, gatazkak saihestu ez baina beti modu eraikitzailean konpontzeko moduan eta horrelako kontuak, uste dut kolpe asko jaso ditugula horregatik” (SE15). Honela dakar beste elkarriz- ketatu batek Nafarroako egora: “Euskalgintzan eragiteko indar handia jarri dugu. Diskurtso berriak ekarri ditugu eta planteamendu berriak. Hemen euskalgintza oso lotua zegoen aldarrikapen munduari, salaketari eta abarri. Baina, aldarrikapen horiek, batzuk egingarriak ziren epean eta moduan, eta beste batzuk ez ziren” (SE10).

Badirudi, gainera, elkar teek ez dutela egin, oro har, protagonismoa bereganat- zeko hauturik. Beste berba batzuekin esanda, badirudi elkar teek apal jokatu du- tela, umil, lanari garrantzia emanez eta ez horrenbeste agertzeari. “Gu ere ez gara gehiegi arduratzen gure berri eta komunikazio kanpaina bat egiten, nor garen era- kusteko. Ze, azkenean, indarra beste gauza batzuetan jartzen dugu. Nahiago dugu eraginkortasuna mantendu eta ez izena” (SE20). “Bai, jardueretan jartzen dugu logoa eta abar. Baina guk egin dugu antolatu, antolatu, antolatu, jarduerak, jar- duerak, jarduerak. Ez dugu gure izena horrela beti aurretik jarri” (SE24). “Jendeak ez du ezagutzen Geu elkar tea. Marka arazo bat dugu. (...) Jendeak bai ezagutzen ditu jarduerak, parte hartzen du egitasmo hauetan, baina ez du identifikatzen edo ez du sartzen hau guztia Geu-ren aterkiaren azpian” (SE18).

4.6.1.2 Funtzionamendua

Baina zelan antolatu dira elkarteak? Zelan auto-eratu dira? Zer bide hartu dute eguneroko antolamendurako? Zelan irudikatu dute euren burua? Galdera horiei (eta, agian, beste batzuei) erantzuna ematen saiatuko naiz.

Elkarteen antolaketa tipoa²⁴⁸ edo ohikoena honela laburtu daiteke: zuzendaritza batzordea (aktibistez osatutakoa), lan-taldeak (alorrik alor), bazkideak, boluntarioak (edo aktibistak) eta langileak. Antolaketa tipoa da hau, jakinda herririk herri ezberdintasunak zeharo nabarmenak izan direla. Esate baterako, herri batzuetan ez dago langilerik, edo ez dago lan-talderik, edo modu erdi asanblearioan funtzionatu dute (zuzendaritza argirik gabe edo zuzendaritza bakarrik paperetan izanda). Baina, tira, hauxe izan da herririk herri gehien errepikatu den funtzionamendu tipoa (edo, behintzat, elkarterik handienak izan duten funtzionamendu ohikoena).

Antolaketa tipo hau zorrotza da, estua da, eskakizun handikoa eta hainbat herritan arazoak izan dira hau osatzeko eta egonkortzeko. “Baina eredia zen, nolabait, egitura juridiko bat eta, gainera, bideratuta modu profesionalean, lan egiteko oso ona delakoz bide hori, eta oso emankorra delakoz. (...) Halako boluntario taldeak oso leku gutxitan ernatu dira eta, batez ere, egonkortu dira” (SE10).

Egitura profesionala²⁴⁹ eta boluntarioen egitura uztartu dute elkarteek, oro har. “Finean, lan profesionala eta borondatezko parte-hartzea uztartuko dituen herri-mugimendua da gurea” (Elgoibarko Izarra, 2014). Baina uztartze horrek arazoak, talkak eta abar ekarri ditu hainbat herritara. Izan ere, oso zaila izan da biren arteko oreka mantentzea. Gainera, prozesu horretan, tartean, sartu da parte hartzeko moduetan aldaketa sakona (militantziak gainbehera egin du edo, behinik behin, eraldaketa sakona izan du²⁵⁰). “Igual dago militantzia eredu baten gainbehera. Oso sakrifiziotik eginda” (SE17). Eta horrek gehiago zaildu egin du oreka hori lortzeak.

248 Max Weberren arabera ulertzen dut elkarte tipoa, hau da: “Tipo ideal bat lortzen da ikuspuntu bat edo batzuk aldebakarreko gorapatzetik eta fenomeno sigular, difuso eta diskretu askoren batzea, zati batzuetan gehiago agertzen direnak eta beste batzuetan tarte handiagorekin. Fenomeno horiek alde bakarrez aukeratutako ikuspuntuetan enkajatzten dute, lauki kontzeptual bateratu baten. Lauki hau, bere purutasunean, ez da agertzen enpirikoki errealitatean: utopia bat da eta, beraz, frogatze lan potoloa egin behar da jakiteko lauki ideal hori errealitateari zenbat hurbildu edo urruntzen zaion” (Weber, 1982).

249 Maite Indak euskalgintzaren militantzia ereduaren gainean egin duen ikerketan honako hau dakar euskalgintzaren profesionalizazioari buruz: “Erakundetze horren eskutik iritsi zen profesionalizazioa ere. Agian beste gizarte mugimenduetara baino modu esanguratsua goan, hizkuntzaren normalizazioaren esijentziak tarteko. Bereziki sistema eraldunak eskaintzen zituen zerbitzuen alternatibak eskaintzea zenean helburua: irakaskuntza, esaterako” (Inda, 2019).

250 Joxemi Zumalabe Fundazioek horren inguruko lan aparta egin dute “Dabilen harriari goroldiorik ez izeneko” liburuan. Bertan aztertzen da militantziak Euskal Herrian izan dituen eraldaketak eta aurrera begira barne dinamikak horizontalago bihurtzeko gogoetak eta praktikak (Joxemi Zumalabe Fundazioa, 2014).

Hortaz, egitura profesional sendoa duten hainbat elkartetan, horrek ekarri du askotan elkartearen bidearen gidari bihurtzea langileek. “Nik uste dut beti falta zaigula boluntarioen laguntza (...) Jende gehiago behar duzu inplikaturata beste esparru batzuetara iritsi ahal izateko, baina zaila da kanpoko jendea inplikatzeko behin joera eta ... Zelan uztartu boluntarioak, langileak, ...” (SE08). “Lehenengo borrokatxoa-edo elkartean izan zen planteamendu asanbleario batetik liberatak zeuzkan antolakuntza batera pasatzea” (SE12). “Uste dut elkarteetan zuzendaritzak osatzea eta dinamika sozial iraunkor, zabal eta eraginkorra lortzea erronka etengabea izango dela. Baita profesional-boluntarioen arteko tentsioa modu orekatuan kudeatzea ere” (D01).

Zentzu horretan, egitura profesional sendoko hainbat elkartetan boluntarioen egitura ahuldu da eta horrek arazoak ekarri dizkie elkarteei gauza batzuetan. “Jornada erdiko langile bat izatetik, egongo ginen lanean 8-9 pertsona, nahiko epe laburrean. Egia da baldintzak zirela ziren modukoak. Eta horrek ekartzen duena da askotan, borondatezko lan hori mantentzea zailagoa izatea. (...) Eta iristen da momentu bat profesionalak ari direla ateratzen berez borondatezkoei dagokien esparru bat” (SE14). “Zuzendaritzak oso funtzio sinbolikoa hartu du Berbaron. (...) Momentu honetan gure zuzendaritzak oso sinbolikoak dira (...) Berbaro moduko estruktura bat daukana elkarte baten bulegoan hartzen dira erabakiak. (...) Gero zuzendaritza ondo dago deskargu bat egiteko” (SE22). “Horren bilakaera da Ttakun-ek kriston bolumena hartu zuela eta, nire ustez, gaur egun daukala egitura oso ahula. Pentsa, elkarte baten egitura bat, eta elkarte horren egiturari eransten diozula sekulako lan bolumen bat zerbitzuetan eta horrelako istorioetan. Eta hori elkarte baten kudeaketarako kriston oztopoa bihurtzen da. (...) Orduan zaude zerbitzuak aurrera ateratzen, baina berez elkartearen egin beharrari ez diozu horrenbeste begiratzen” (SE12).

Maite Indak euskalgintzaren militantzia moduei buruz egin duen ikerketan ere antzeko kontuak ekarri ditu. “Profesionalizazioari eta erakundetzeari alde onak eta kaltegarriak ikusten zaizkio euskalgintzako kideen artean. Onen artean proiektuen egonkortasuna eta kalitatea dago. Baina txarren artean, mugimenduak behar duen malgutasuna, freskotasuna, arintasuna kamusten duela” (Inda, 2019). Are gehiago. Ikerketa horretan bertan euskalgintzako langileen inguruan ere egiten dira hausnarketak. Ikusi, adibidez, parte hartu duten bi kideek egiten dituzten ekarpenak: *“Profesionalizazioa beti existitu da. Hasiera haietan ere bai. Profesionalizazioak ez du kalterik egiten, funtzionariatzek bai. Profesional ez ideologizatu bat sartzen baduzu postu esanguratsu batean, orduan sortzen dira problemak. Baina profesionalak jakina behar direla. Eta ongi ordaindutakoak. Arazoa zein da, ongi kobratzen*

dutela, edo ez dakitela zertan ari diren? Noraezean dabiltzala, ez dagoela Ipar garbirik, ez dagoela estrategia garbirik? Gure mugimenduan egon da jende bat lan itzela egin duena ezer kobratu gabe, eta hori ordainezina da. Baina era berean ezagutu dut jendea kobratu duena, eta kobratu behar zuena hamar aldiz gehiago egin duenarekin alderatuz. Arazoa ez dago diruan”. (3. elkarrizketa, 45 urtetik gorakoa). “Euskalgintzako antolakunde batean bagaude, ez gaude lan arrunt batean bagina bezala. Ez gaude Volkswagenean bezala. Bagaude sinesten dugulako horrelako eraldaketa batean, Euskal Herri euskaldun batean, eta uste dugulako hemen gure ekarpena egiten ahal dugula. Eta horren trukean, diru zati bat jasotzen dugu, noski, bizi behar dugu. Baina beste batzuentzat, lana da, eta niretzat hau izatea lana... Kontzeptuaz ari naiz. (...). Lanerako ordu gisa soilik liberazioko orduak ulertzea da profesionalizazioak duena, zentzurik txarreanean. Baditu alde onak, jendeari egonkortasuna ekartzen ahal diolako eta jendeak errazago, hobe, erosoago, gusturago militatzen ahal duelako, baina bestetik ekartzen du ere, “ez, ez, honaino. Eske bukatu zaizkit orduak”. Oreka hori bilatu behar dugu.” (4. elkarrizketa, 45 urtetik beherakoa).

Antzeko ildo eta bideetatik ere jotzen dute “Komunitateak ehunduz herri ekimenetatik” ikerketa landu duten kideek (Esteban, 2018). Izan ere, Arrasateko euskara elkarteari erreferentzia eginez, honako aipua dakarte: “Gizarte-prozesuak dinamikoak eta aldakorrek direnez, AEDn, elkarrizketatuaren hitzak erabiliz, azken denboraldian bizi izandako `estakamentua` aipatzekoa da. Izan ere, hasiera bateko ekintzaitetasunak sekulako indarra izan zuen bezala, gero etorritako elkar-teraren erakundetzeak sendotasuna eta iraunkortasuna eman badio ere, oraingo giro sozialean eta militatzeko moduetan birkokatu beharra ikusten du elkarrizketatuak” (Esteban, 2018).

Hori dela eta, Topaguneak egindako bigarren kongresuan (Eraldabideen kongresuan) arazo honi irtenbidea bilatzeko ahalegina egin zuen: “Komenigarri izan daiteke herrietan borondatezko lana sustatzeko ekimenak gauzatzea (harrera, airtortza, elikadura, ...) eta profesionaletik harremana bereziki zaintzea” (Topagunea, 2012: 19). Baina ez dirudi hori gero errealitatean islatu denik, ez dirudi arazo honi konponbide egokia eman zaionik, asmoak asmo.

Elkarteren batek edo bestek, hala ere, egitura hau baztertu du berariaz²⁵¹. Horien artean, Hondarribiko Blagan euskara elkarteak. “Euskara elkarteak sortzeko zenean, hainbat argudiorengatik, erabaki zen ere geneuzkan baliabideen aldetik-eta

251 Tximintx komunitateak ere berariaz baztertu du eredu hau. Hala ere, iruditzen zait Tximintxeko kideen gogoeta hemen aipatzen dena baino dezente haratago doala (begiratu, Tximintx komunitatea, 2019).

ez zela izango egitura finko edo profesionala izango zuena. Ez hasieran behintzat” (SE17). Kasu honetan, beraz, elkartearen zama osoa boluntarioek daramate, aktibistek, militanteek. Eta honen moduko beste elkarte asko daude han eta hemen (hala ere, kasu horietatik askotan elkarrekin ez dute izan baliabide ekonomiko nahikorik langileak hartu ahal izateko).

Dena den, elkarte guztietan horixe izan da funtzionamendurako gakoetako bat: boluntarioen ekarpena. “Jendea da gizarte-mugimenduaren osagaia eta aliatua. Gure kasuan, bazkideak dira gure mugimenduaren arima eta akuilua” (Elgoibarko Izarra, 2014: 16). “Boluntario sare bat (...) bakoitzak gogoko duen horretan ekarpena egitea nahi edo ahal beste. Ulertzen genuelako hasieratik, eta gaur egun ere bai, gure proiektua joan-etorrikoa dela eta bizitza ere aurrera doala, aldatzen doala” (SE23).

Hala ere, urteen poderioz (eta jendartean izan diren aldaketa tekno-ekonomikoaren eraginez) militantzia eredu aldatu egin da, lausotu da hein batean. “Gipuzkoan eta Bizkaian galdu egin du militantzia freskotasuna, militantzia modu batek galdu du, agian” (SE24). Hala ere, bada oraindik ekarpena egiten duen jendea. “Nik uste dut gaur egun jendeari aukerak ematen bazaizkio, oraindik inplikatu egiten dela. Diferente planteatu behar zaizkio gauzak” (SE14). “Kostatzen zaigu boluntarioak lortzea, noski, lan egiteko. Baina jendeak badu prestutasuna” (SE24). Hori bat dator Mari Luz Estebanek gidatutako ikertzaile talde zabal batek Gipuzkoako herri mugimendu batzuen azterketatik ateratako ondorioekin: “Orain arte esan dugunaren ildo beretik, militantziaren edo aktibismoaren kontzeptua birdefinitu egiten ari dela ere aurkitu dugu, epeetan mugatuagoa, ekintzen inguruan gauzatua eta konpromiso maila desberdinetarako aukera emanez” (Esteban, 2018). Dena den, elkarrekin badute kezka oraindik jendearen ekarpenak jasotzearen inguruan. “Nola ireki edo erraztu bidea jendeak ekarpenak egin ditzan, ez?” (SE17). “Denok gara boluntarioak, ahal dugunean egiten dugu eta elkartzen gara gauza puntaletarako. Eta igual ez ditugu sortu behar egitura finkoak, gero zentzua galtzen dutenak denborarekin” (SE17).

2011tik aurrera mugimendu sozial gisara jokatzeko ahalegina egin dute elkarte batzuek. Izan ere, Oinarriarren kongresuan honela formulatu zuen Topaguneak bide berri hau: “Beharrezkoa da euskaldunon elkartearen errealitatea mugimendu moduan ulertzea (handiago baten baitako azpi-mugimendua bada ere), eta gizarte mugimendu batek gaur egun behar dituen elementu guztiak artikulatzea: eraldaketa-diskurtso propioa, berau sozializatzeko elementuak, borondatezko lanaren oinarria, euskarri profesionala, eta abar” (Topagunea, 2011: 38). Horrek isla izan du

elkarte batzuen diskurtsoan: “Herri-mugimendu moduan ekitaren aldeko apustua egingo dugu. Euskara-elkarte baten aterpean osatuko den herri-mugimendua izango da gurea. Gizarte mugimendu baten ezaugarri nagusia gizartea aldatzeko prozesuan parte hartzeko borondatea da, eta euskarak eta euskaldunok gure herrian bizi dugun egoera aldatzeko eta hobetzeko helburua dauka guk saretu nahi dugun herri-mugimenduak” (Elgoibarko Izarra, 2014).

Ez dirudi, ordea, mugimendu sozial gisa funtzionatzeak funtzionamenduan, oro har, aldaketa handirik ekarri duenik. “Elkarteek mugimendu izaten jarraitu behar zuten hainbeste instituzionalizatu gabe, beste elkarteekin igurtzi gehiago izan, euren beharrak entzun eta konponbidea elkarrekin eraikitzeko” (D04). Agian, elkarteek euren buruari jarritako helburu hori betetzeko erabaki ausart eta traumatikoak hartu behar izango zituzten eta ez dirudi hala izan denik. Hortaz, diskurtsoan izandako aldaketa horiek ez dute isla nabarmena izan eguneroko funtzionamenduan.

Elkarteek, gainera, egitura juridiko bera izan dute. Kultur elkarte modura egituratu dira, Hego zein Ipar Euskal Herrian (lege aldetik dauden diferentziak diferentzia). Dena den, kasu zehatz batzuetan, elkarte egiturak berak arazoak ekarri dizkie tokian tokiko mugimenduei. Hau da, izaera legala kasu batzuetan arazo bihurtu da. Esate baterako, honako dio elkarrizketatu batek: “Izaera legala ere arazo bihurtu zen. Hau da, gu elkarte bezala jaio ginen, irabazi asmorik gabeko elkarte. Baina, gero, autofinantzatzeko edo proiektu berriei erantzun ahal izateko, dirua behar zen, eta, orduan, kooperatibaren aldeko apustua egin genuen” (SE23).

Zentzu horretan, aspaldi egin zuen Topaguneak eskualdekako antolaketaren alde. “Euskara elkarten mugimendua indartzeko eskualdekako antolaketa sustatzen da. Herri bakoitzaren isolamendutik ateratzea da helburua, bailara/eskualdeko beste elkarteekin esperientzien elkartrukea eta elkarlana sustatuz. Eskualdea gestio gune egokia delakoan gaude Topagunean” (Topagunea, 2002). Bide horrek, ostera, ez du izan gura beste luzera. Leku batzuetan eskualdea hartu da oinarritzat, esate baterako, Ttiki-ttaka elkarteak Arabako Errioxan. “Beti eduki dugun ikuspegia izan da Errioxa eta Biana (...) Baina helburuetariko bat Ttiki-ttaka eskualdeko elkarte bat izatea eta, etorkizunean, Ttiki-ttaka edo antzeko elkarteak sortzea herririk herri” (SE20). Txorierrin ere Totoan elkarteak eskualdeko funtzionamendua izan du (berez, Txorierriko bost herriren elkarten federazioa da Totoan), baita Aiaraldea elkarteak izen bereko eskualdean. Baina hortik kanpo gutxi izan dira adibideak, eta izan direnak proiektu zehatzei lotutakoak izan dira (hedabideei edo mintzapraktika egitasmoiei batez ere).

Azken aldian, ostera, bada adibide interesgarri bat: Galtzaundi elkarte. Urteetan Tolosa izan du eragingune elkarte honek, baina orain eskualdetzeko hautua hartu du. “Gure asmoa bazen eta da, esaten dugunean Tolosatik Tolosaldera pasa garela, eskualdetu garela. Horrek esan nahi du herri bateko euskaltzale aktiboak izatetik hogeita zortzi herrietan jendea aktiboa egotea nahi dugula. Hau da, herri guztietan topatzea euskara kezkatzen duena edo euskara pasioz bizi duena eta disfrutatzen duena” (SE21). Hortaz, ari dira “hogeita zortzi herrietako euskaltzaleak bildu nahian. Nolabait esateko, nukleo trinko hori osatu nahian, eskualde mailan lehen Tolosan bazegoena-edo” (SE21).

Funtzionamenduan berebiziko garrantzia duen gai bat ez dut landu orain arte: diruari dagokiona, sosari dagokiona, finantzazioari dagokiona. Euskararen aldeko beste hainbat mugimendutan bezala, elkarteak ez dira ibili, orokorrean, diru aldetik oso fin. “Diruarekin beti oso gaizki ibili gara. Oso justu” (SE08). Hala ere, elkarteak saiatu dira lekurik leku finantzazio eredu egonkor bat lortzen, batez ere udal administrazioekin. Horretarako, sarritan hitzarmenaren aldeko apustua egin dute elkarteek (eta, kasu askotan, baita lortu ere). “Komenigarri izan daiteke hitzarmengintzara jotzea erakundeekin: haiek aitortuko lukete gure funtzio soziala, guk adostuko genuke gure ikuspegia eta egiteko haienekin, eta hori hitzarmen egonkorretan jasoko litzateke” (Topagunea, 2012: 12). Baina ez beti: “Ez da zuk dirua eman, nik nahi dudana egin dezadan. Ze hori izan da beste batzuen eredia, ezta? Baina gure eredia ez da hori. (..) Gure eredia izan da, nik ekarpena, nik lana jarriko dut, zuk dirua jarri eta elkarrekin... Orduan, ikuspegi hori, erakunde publikoetan ez da egon. Erakunde publikoetan izan da, bueno ba hau da, bale, lagundu behar den zerbait... (..) Hori perbertsio bat izan da, ze horrek azkenean lortu duena da euskara elkarteen eta Topagunearen beraren eginkizuna zerbitzugintzara bideratzea” (SE01).

Dena den, finantzazio egonkorra arazo izan da elkarte gehienentzat. “Iraganak erakusten du diru sarrera komertzialak beharrezkoak direla hainbat jarduera ‘ez komertzial’ finantzatzeko. Baina bakarrik elkarte batzuk eta federazioak izan dute nahikoa indar bide horri modu sistematikoan ekiteko” (Topagunea, 2012: 12). Esate baterako, adierazgarria da Topaguneak Eraldabideen kongresua egin zuenean finantzazioari lotutako hainbat eta hainbat ekarpen egitea. “Komenigarri izan daiteke ahalegin handia eta bateratua egitea finantzazioa egonkortzen, horren ondorioz lortu dezakegulako jardunbide askeagoa eta egitekoari lotua goa” (Topagunea, 2012: 8). Baina, hori baino 10 urte lehenago, Topaguneak berak aipatzen zuen: “Ekonomikoki autonomoago eta indartsuago izan behar dugu, besteak beste hizkuntza politikan eragiteko, mugimenduko eragileen formazioan

inbertitzeko, eta estrategikoak diren eskualde edo arloetan sustapen lana egiteko” (Topaunea, 2002).

Zentzu horretan, elkarte askok independentzia ekonomikoa aldarrikatu arren, praktikan diru-laguntzen morroi eta mirabe bihurtu dira. “Elkarkea ekonomikoki erabat dependientea da, nahiz eta gero berak sortzen dituen bestelako diru iturri batzuk” (SE26). Eta hori batzuentzat, arazo larria da: “Ez bazara autonomo, eta ez bazara independente, nolabait, botere ekonomikotik, jai daukazu” (SE19). Beste elkarrizketatu batek, ostera, harago jotzen du: “Zer gertatu da denborarekin? Ba denborarekin, subentzio asko ematen zirela eta, momentu batean, subentzio horiei esker, jende asko liberatzen zen elkarreetan. Jende askok edo elkarte askok aukera zuten hainbat gauza egiteko. Eta ematen zuen, ostras! Hau ondo doa eta gure aurrekontuaren erdia baino gehiago subentzioetatik dator ... Baina, momentu batean, klaro, zirkuluari buelta ematen hasten gara. Eta, orduan, iturri hori, txin!, itxi egiten da. Eta diru-laguntzak murrizten hasten dira. Eta, orduan, jende askok eta pertsona askok aukeratu behar izan zuten: edo desagertzen gara, edo onartzen dugu beste era batera funtzionatu behar dugula” (SE06). “Zerbitzugin-tzak eman die tamaina elkartei, baina eragitea zeinek finantzatzen du? Administrazioak zerbitzuen truke ematen du dirua eta hori areagotu egingo da datozen urteetan” (D03).

Hala ere, aditu batek egindako ekarpen batean zalantzan jartzen da euskara elkarteek independentzia ekonomikoa helburu zutenik: “Ekonomikoki autonomoak izateko helburuari dagokionez, berriz, zalantza dut helburu horrekin sortuak izan ote ziren euskara elkarteak. Oso nekeza da elkarte bat ekonomikoki autonomoa izatea eta era berean soldatapeko langileak izatea. Elkarreetan berehala kontratatu ziren langileak, eraginkortasunaren eta “profesionaltasunaren” izenean, eta hori ez da bazkideen kuotetatik soilik ordaintzen. Norik ordaintzen du? Diru-laguntzek, nagusiki, administrazioek ematen dituzten diru-laguntzek. Eta hor sartzen gara, elkarreen ibilbidean konstante bat izan den kontu batean, eta zera da, mugimendu sozialetatik sortu diren beste elkarte askok eraman duten bilakabideari jarraituz, elkarreen beraren biziraupena bihurtu dela lehen helburua. Eta hortik abiatuta, hasten dira euskara elkarteak zerbitzu-enpresa bihurtzen eta, maiz, udalen azpikontrata: udalekuak eta aisialdiko jarduerak antolatzeke, merkataritzako programak lantzeke...” (D12).

Elkarreen funtzioamenduarekin amaitzeko, badirudi elkarteek gutxi begiratu dietela euren buruei. “Zein gutxi begiratu dugun barrura!” (D04). Eta horrek isla dauka, tresna diren heinean horiek ere zaindu behar direlako nola edo hala: “Akats

handi bat izan dugu elkarteok, datu soziolinguistikoen irakurketa egin ditugu, plan estrategikoetan esparruen azterketak egiten saiatu gara, baina ez dugu inoiz gure burua aztertu. Elkarteak eraldaketara erreminta dira. Zer nola erreminta daukagu? Egoera onean dago? Zertan dago ondo eta zertan kamuts? Erreminta egokiak dira elkarteak eragin nahi dugun eraldaketarako? Zer behar dugu? Zer aldatu behar dugu? (D16). “Gizarte eraldatu nahi izatea gu edo gure funtzionatzeko erak eraldatu gabe ez da emankorra ...” (D04). Beste aditueta batek honako gogoeta hau egiten zuen gaiari buruz: “Elkarteak osatzerakoan zer egin nahi zen ondo azpimarratu zen, baita kanpora begira nola jokatu ere; baina, ez hainbeste, nolakoa izan behar zen barne funtzionamendua, jokaerak, jarrera desiragarriak eta abar” (D13).

Funtzionamenduaren alor honetan, aipamen berezia merezi du Topaguneak berak. Izan ere, adierazgarria da elkarten federazioa zena eta gaur egun mugimendu dena zer bide, urrats eta abar jarraitu duen bere burua antolatzeko. Topagunea behetik gora pentsatu zen, elkarteak sortu ziren lehenago eta, gero, euren artean harremanetan jarri eta federazioa sortzeko akordioa lortu zuten. Behetik gora eratua baina elkarteak bakarrik egin ezin zutena egiteko eta elkarten autonomia erabat mantenduta. Hori zen hasierako izpiritua. Elkarrizketatzaileetako batek honela laburbiltzen du: “Topagunea izan zen behetik gora pentsatutakoa, baina, aldi berean, goitik beherako zerbitzua emateko zena” (SE02). Topagunearen estatutuetan honela dator islatuta aipatutako izpiritu hori: “Topagunearen xedea da euskara elkarteei bultzada eta laguntza ematea. Helburua da prozesu baten barruan elkarrekin topo egin, elkarten arteko lotura edo gune bat osatu, eta hortik sinergiak irradiatzea” (Topagunea, 1996).

Horrela jarraitu zuen Topaguneak 2011ra arte. Urte horretan, oinarriparren kongresua egin zen eta hor Topaguneari funtzio berri batzuk eman zizkieten elkarteek: zelanbait, gai eta eremu zehatz batzuetan gidaritzza eta aintzindaritzza aitortzen zitzaion Topaguneari. Hala ere, elkarteek jarraitzen dute gaur egun ere autonomia izaten eta burujabe izaten bere esparruan, herri mailan, hain zuzen ere. Eta, gainera, Topaguneak bakarrik duela zentzua herrietako dinamikek indarra duten heinean uste dute kideetako batek baino gehiagok: “Demagun Topagunea indartsu eta kriston lan-taldearekin, dinamika politekin, baina horrek zertarako balio du herrietan ez badago inongo dinamizarik, edo oso dinamika txikirik?” (SE03).

Topaguneak hasieratik langileak izan ditu, profesionalak. Hortaz, modu profesionalean aritu izan da Topagunea. 2017an 30 bat lagun ari ziren Topagunean jardun profesionalean. “Hogeita hamar lagun daude lanean benetan buru-belarri. Borondatez bai, baina modu teknikoan, formazioa ematen, baliabideak ematen

...” (SE02). Baina Topaguneak, batez ere, jardun du bazkideekin, hau da, bere bazkide diren euskara elkarteekin. Haiei formazioa eman die, aholkularitza eman die, diskurtso propio bat eratzeko baliabideak ekarri ditu, nazio mailako foroetan aritu da elkarteen ordezkari, eta abar. Eta horietan guztietan bazkideekin jardun du. Topagunearen zuzendaritza beti elkarteko kideek osatu dute, elkarteko kide batzuek gidatu dute Topagunearen ibilbidea, aktibistek bideratu dute, hortaz, hein handi batean, Topagunearen jardunbidea.

Baina ez hori bakarrik. Eguneroko lanetan ere elkarteek izan dute zer esana eta parte hartzea. Hori lortzeko, Topaguneak antolatu izan du bere burua beti batzordeen bidez, elkarteko kideek osatutako batzordeen bidez. Batzorde horiek arlo zehatzen gainekoak izan dira (haurrak, gazteak, kultura, mintzapraktika, sentiberatzea, hedabideak) eta haietan parte hartzea, jakina, erabat borondatezkoa izan da (elkarte batzuek asko eta askotan parte hartu izan dute eta beste batzuek ia inon ez). Hori dela eta, sasoirik sasoi eta batzorderik batzorde, funtzionamendua oso aldakorra izan da. Dena den, batzorde hauek guztiak izan dute helburu herrietako elkarteetako kezka Topagunera helaraztea eta, era berean, elkarteen artean lan ildo komun batzuk lantzea eta sinergiak bideratzea. Azken finean, alor askotan batzorde hauek markatu dute Topagunearen ibilbidea. Topaguneak berak, bere oinarriparren eraldabideen artean, honakoa aipatzen du: “Komenigarri izan daiteke gida bateratu bat lantzea, jardun lerro guztiak zerrendatuz: harremanak (erakundeekin, euskalgintzarekin, gizarte eragileekin, ...), sustapena eta sensibilizazioa, bazkideen harrera eta elikadura, finantzazioa... Eta bakoitzean bide batzuk proposatzea, etxe barruan izandako arrakasta kasuak azalduz” (Topagunea, 2012: 9).

Azken aldian, baina, Topaguneak biratzea egin du antolatzeari dagokionez. Horren arabera, mugimendu izaerara hurreratu da. Gainera, horrekin batera, Ipar Euskal Herrira ere egin du salto eta euskararen lurralde osoan lortu du inplantazioa horrela²⁵². Ikerketan parte hartu duen batek honela dakar aldaketa hau: “Ze, orain dela hogeita hamar urte, ez genuen pentsatuko, inondik ere, euskararen lurralde osoan Topagunea ibiliko zela gizarte mugimendua antolatzen, laguntzen, sustatzen, bultzatzen, ...” (SE02). Antzeko bidetik jotzen du, ñabardurak ñabardura, ikerketan parte hartu duen beste kideetako batek: “Nazio mailako oso erreferente garbia behar du izan Topaguneak. Diskurtsoan eta egiteko moduan elikatzen dituen herritarrak, eta herritarrek erabakitzen dutena gero nola egin behar duten beren herrietan. Helburua bat da eta zuk nola egin behar duzun zuk

252 Honela dio elkarriketatuetako batek: “Orain arte euskara elkarteen mugimendua izan da Hego Euskal Herriko mugimendu bat. Eta gaur da eguna Ipar Euskal Herrian ere lanean gaudela. Kostata. Ikaragarri kostata. Ez gaudela, daudela, batera lanean ari garela” (SE15).

jakinen duzu. Topaguneak erreferentziak emango ditu eta onartuko du zure erakundetzeko modua, eta zure egiteko modua kapazak direlako haiek zu izateko eta zu haiek izateko” (SE05).

Dena den, ikerketan parte hartu duten kideetako batzuek ez dute horren argi ikusten Topagunea, ez eta haren jardunbidea ere. Esate baterako, ikerketan parte hartu duen kide batek honela dio: “Baina nik uste dut Topaguneak ez duela behar moduko lidergo bat gauzak egiteko. Asko zentratzen da helburuak ipintzen eta ez gauzak egiteko moduetan. Eta jendeak herri elkarteetan behar ditu gauzak egiteko moduak” (SE04). Beste elkarrizketatu batek, ostera, honakoa dio: “Ez dakit zenbateraino den baliagarria elkarteentzat Topaguneak egiten duena, edo soilik zerbitzu truke bat da” (SE14). Beste batek, berriz, honakoa dio: “Ideia ona Topagunearena. Praktikotasunean ez dut uste hain ona denik” (SE22). Beste elkarrizketatu batek Topagunearen funtzioa zein izan behar duen galdetzen du: “Hori da igual definitu beharreko beste zerbait: Topagunearen egiteko zein den. Baina, klaro, Topaguneari ipintzen badiozu Topagunearen egiteko dela herrietako dinamikak sustatzea, ... ba ez dakit nik” (SE03). Zentzu berean, beste elkarrizketatu batek zalantzan jartzen du Topaguneak herrietako dinamikak sustatzen duenik: “Topagunea kasu, badira federazioak baina horiek benetan erantzuten diote elkarte beharrei ala federazio baten beharrei erantzuteun diete eta elkarteak dira horretarako bide? Hemen askotan euskarari eta euskalgintzari egotzi zaio txiringitismoa” (SE23).

Badira Topagunearen jardunbideaz bestelako kontu batzuk nabarmentzen dutenak ere. Adibidez, elkarrizketatuetako batek azpimarratzen du oso mugimendu unitarioa izan dela, ez dela eszisorik egon. “Topagunea gai izan da bolondres izateko elkarteetatik refundatzeko, bolondres eta liberatuen arteko dinamikak mantentzeko, aurrera egiteko eta bizi-irauteko. Eta eszisorik ez egoteko. Elkarte bakarra izango da Euskal Herrian, dauzkan urteak edukita, banaketarik izan ez duena” (SE20). Beste ildo batetik, badira Topaguneak balio izan duela euskaltzaleak trinkotzeko herrietatik gaindi diotenak: “Topaguneak lortu du poliki-poliki herrietan sakabanatuta zegoen euskaltzaleen sare hori, ondo sustraituta egon dena herrietan, orain arte behintzat, bateratzea” (SE12). “Topagunetik nabarmenduko nuke gainerako erakundeekin, eragileekin, euskaltzaleekin lan egiteko zera hori, herritarrak elkartzeko mugimendu bihurtze hori” (SE02).

Aurretik aipatutako zerbitzu-truke hori ondo baloratzen duenik ere bada: “Aholku eske joaten zarenean beti dago laguntza. Gero gure kontuekin-eta hola beraiek laguntzen digute. Asesoria lana ere egiten digute ekonomikoki. Eta gero jardueren eskaintzan-eta horretan ere ... Beharrezkoa da. Ze, bestela, gauza ho-

riek beste nonbaiten egin beharko genituzke eta, bueno, behintzat gaude denok batera eta aseguruia, asesoria lana, kultur eskaintza, ...” (SE24).

4.6.2 Zer arlotan jardun dute euskara elkarteek?

Zelan galderari erantzunez, azaldu ditut elkartearen egiteko moduak, jarduteko moduak, funtzionamenduak eta abar. Oraingoan, berriz, modu horiek zer ekin-tzatan, zer jardunbidetan ispilatu diren ahaleginduko naiz azaltzen. Hala ere, hasi aurretik ohar garrantzitsu bat egin nahiko nuke.

Euskara elkarte bakoitza kasu berezia da, kasu bakana da. 30 urtetan 100 herritik gora sortu eta garatu dira elkarteak. Haien artean, jakina, badira hainbat elementu komun, badira hainbat esperimentu komun. Hala ere, tokian tokiko burujabetza izan dute elkarteek eta tokian tokiko egoerari zeharo itsatsita egon dira (egoera ekonomiko, politiko, sozial eta soziolinguistikoari, besteak beste). Hortaz, milaka eta milaka dira elkarteek egindako ekintzak, milaka eta haietako asko berezi-tuak eta bakanak. Ezinezkoa da, horregatik, erabat kartografiatzea 30 urte hauetan euskal herrietako euskara elkarte guztiek egindako praktika guztiak. Ezinbestean kartografiatze lan honek orokortasunera joko du eta elkarte gehienek edo multzo esanguratsu batek egindako praktikak ahaleginduko naiz ekartzen, aipatzen. Fenomenoaren dimentsio osoa antzemateko, gainera, zailtasun nabarmenak egon dai-tezke. Horretarako, beharrezkoa litzateke elkarte bakoitzak bere genealogia pro-pioa egitea, bere ibilera eta jardunbidea sistematizatzea eta, orduan, dimentsio osoa jasotzeko moduan egongo ginateke. Baina errealitatea da salbuespen direla bere ibilera modu batean edo bestean sistematizatu dituzten elkarteak. Elkarrizketatu batek, gainera, honela ekarri du gai honen inguruko iritzia: “Blokean hitz egitea oso konplikatu dela. Ze, normalean, funtzionatu du faseka. (..) Pizte fasea, indarra, igotzea, baina gero beheraldia... eta gero, batzuetan, berreskuratze zera bat. Baina ez dira izan homogeenok ez lurraldeka, ezta herrika ere ez” (SE15).

Horrez gain, elkarteetan jarduten duten batzuek ere ez dute argi zein den edo zein izan beharko litzatekeen euskara elkarte baten funtzioa. Esate baterako, “zer funtzio bete behar ditu euskara elkarte batek? Eta zein diren bestelako, aparte sortutako, enpresa edo entitateen lana? Ostras, asmoak oso lauso dira batez ere rotondak egiteko aurrekontu handia daukaten baina euskalgintzarako aurrekontu oso txikia daukaten udalen kasuan” (SE21). Edo, “badakit hor daudela, baina gero ez dakit oso ondo zein den euskara elkarte baten egitekoa, edo zer egiten duen edo zer egin dezakeen” (SE17). Antzera egiten du berba ikerketan parte hartu duen

adituetako batek: “Adostu beharko litzateke zer diren euskara elkarteak eta, herrietako euskalgintzako ze entitate diren euskara elkarteak eta zeintzuk ez” (D08).

Tokiko jarduera izan dute elkarteek, esan bezala. Hala eta guztiz ere, bada modurik elkarten praktika eta ekinbide nagusienak aipatzeko, jakinda ez direla funtzio horiek elkarte guztiei aplikatzeko modukoak. “Pertsona, talde edo mugimendu bakoitzak erabakitzen du zer eginez betetzen den bere gose-egarria, autonomiaz, helburu berera heltzeko ez baitago zertan estrategia bakarra jarraitu” (Muxika, 2003). Izan ere, Ane Larrinagak dioen bezala, “mugimendua bera laborategi sozial gisa eratu da: azken urteetan, hain zuzen ere, hiztun komunitatearen esparru txikiko jarduera guneak osatu ditu herrietako euskara elkarten bitartez, eta komunitatea trinkotzeko baliagarriak izan daitezkeen era guztietako zerbitzuak eskaini ditu” (Larrinaga, 2011: 618).

Hori dela eta, euskara elkarteek ez dute bere jarduna arlo bakar batera mugatu (euskararen aldeko beste elkarte batzuek egin bezala, adibidez, euskaltegiek, eskolek edo hedabideek). Eta ez hori bakarrik. Esparru informalean, erabilera askeko esparruan²⁵³ hain zuzen ere, sistematikoki jardun eta jarduten duen ia eragile bakarra izan da. Hortaz, “gertuko komunitateko harreman sarea trinkotzea eragina ikusirik, herri mailako harreman sare euskaldun horiek indartu, trinkotu eta sustatzeko interbentzio modu berriak bilatu eta lantzea da herri mailako hizkuntza plangintzagileen eginkizun nagusia” (Aizpurua, 1993). Izan ere, “herri elkarteek erakutsi nahi izan dute hizkuntzaren etorkizuna ez dagoela soilik instituzio politikoetan egindako plangintzetan edo hartutako erabakietan. Aitzitik, hizkuntzaren iraupena linguistikoki adierazten den egintza sozial orotan hezurramitzen dela azaldu dute” (Larrinaga, 2017b).

Hortaz, euskara elkarten jardunbide nagusienak erabilera askeko esparru horietan garatu izan dira gehien bat. “Lehenetsi egin ziren eguneroko bizitzako gune sozialak mugimenduaren egintza burutzeko toki pribilegiatu gisa” (Larrinaga, 2011: 609). Eta denetarik egin izan dute: tokiko hedabideak eratu (aldizkariak, egunkariak, irratiak, telebistak, internet bidezkoak), helduentzako mota guztietako kultur ekitaldiak programatu edo sortu (ikastaroak, kontzertuak, antzerki emanaldiak, bertso saioak, ...), haur eta gazteen aisialdiari lotutako jarduerak antolatu (ludotekak, gazte espazioak, udalekuak, ...), jendarteko sektoreak euskalduntzeko

253 Erabilera askeko esparru honetan, batetik, egongo lirateke Joshua Fishman-ek (Fishman, 1991) bere taulan seigarren mailan aipatzen dituenak (familia, auzoa, komunitate hurbila) eta, bestetik, nolabaiteko formalizazio altuagoa duten beste jarduera batzuk (haur eta gazteen aisialdia, helduen aisialdia, kultur gintza hurbila, hiztun berrientzako eremu informalek bultzatzea, internet eta sare sozialak, eta horren tankerako beste batzuk).

plangintzak²⁵⁴ inplementatu (merkataritza, aisialdi edo kirol arlokoak), hiztun berriei aukerak emateko plangintzak²⁵⁵ antolatu, hiztunei ahalduntzeko edo sentiberatzeko bazka teoriko-praktikoa eman edo euskaldunak aktibatzen plangintzak martxan jarri, besteak beste. Hartara, “hiztunaren bizileku hurbila, herria, izan zen harrezkero euskalgintzarentzat hizkuntza berreskurapenaren barrutia, mintzatzaileak bertan burutzen baititu eguneroko bizitza” (Larrinaga, 2011: 625).

Zentzu horretan, esan daiteke euskara elkarteek bete-betean jardun dutela komunitategintzan. Edo, beste berba batzuekin esanda, komunitatearen sendotzea (Montero, 2003) bilatu izan dute. Helburu hori (izan) dute euskara elkarteek, euskara ardatz. “Gizarte mugimendu honek euskal komunitatea du ardatz. Izan ere, gizartearen hizkuntza eraldaketa du xede; euskararen, euskal komunitatearen zein euskal hiztunaren garabidea helburu, subordinazioa eraldatzea. Horretarako, euskaldunok ahalduntzea da gakoa” (Topagunea, 2015). Izan ere, euskara elkarteetako kideak horrela direla dio Julen Arexolaleibak: “Hizkuntzaren bidez izateko borondatea duten pertsonak egunerokoan oinarritutako ekintza kolektiboa egiteko antolatzen direnak” (Arexolaleiba, 1992). Hizkuntza aktibistak, alegia. Karmen Irizarrek eta Iker Martinez de Lagosek honako hau zioten horri lotuta izenburu zeharo adierazgarri zuen artikuluko batean (*Euskara elkarteak sortu zituzten gizon-emakumeekiko miresmena*): “Euskararen normalkuntza ingurune hurbilenetik has ten zela aurreikusitakoa” (Irizar, Martinez de Lagos, 2006)

Laburbilduz, euskara elkarteek jardun dute erabilera askeko esparruetan, komunitategintza ipar, komunitatea egituratzea, trinkotzea ipar. Hori dela eta, ez dute jarduna alor bakarrera errenditu (elkarte batzuen kasuan, bai, baina orokorrean ez, orokorrean hainbat alorri ekin diote elkarteek). Horrez gain, behetik gorako eredu deszentralizatuan jardun dute, tokikoari zeharo loturik eta tokikoak zeharo baldintzatuta.

Arlorik arloko azterketari ekin aurretik, elkarten jardunbidearen gaineko erradiografia txiki bat egin nahiko nuke. Horretarako, Topaguneak 2017an egin dako azterketatik abiatuko naiz. Azterketa hori egiteko Topaguneak elkarteetako galdetegi bidali zien eta horretan oinarrituta²⁵⁶ jardungo dut hurrengo lehenetan.


254 Hitzarmengintza izena eman ohi diote elkarteek lan ildo honi.

255 Mintzapraktika izena eman ohi diote elkarteek lan ildo honi (eta gero tokian tokiko izena izan ohi dute, dela Berbalagun, Mintzalagun, Mintzakide, Solaskide eta abar).

256 Topaguneak 2016an elkarteetako banatutako galdetegiaren datuak erabiliko ditut (Topagunea, 2017). Hala ere, kontuan hartu behar dira galdetegi horri 56 elkarteetako erantzun egin zitotela (%70). Dena den, galderaz galdera erantzun kopurua aldatu da. Gainera, herrialdez herrialde erantzun kopuruak ez ezberdinak dira (Arabara %62, Bizkaia %58, Gipuzkoara %87 eta Nafarroara %53). Beraz, datuak hartu behar dira beharrezkoak diren prebentzio neurri guztietan.

Izan ere, erantzun horiek aintzat hartuta, elkarte bakoitzak zer jardunbideri edo lan arlori ekin dion jakin genezake. Hurrengo grafikoan agertzen dira xehe-xehe elkarten jardunbiderik nagusienak.


Irudia 4: Euskara elkarteek jorratzen dituzten lan arloak 2017an



Irudia 4: nik egindakoa Topagunea (2017) datuetan oinarritua.

Taulak erakusten du elkarten praktikak oso ezberdinak direla. Izan ere, barririk bi lan arlori ekiten diote erantzun duten elkarten erdiek baino gehiagok: kulturgintzari (4tik 3k) eta sentsibilizazioari (4tik 2k). Horrek aditzera ematen du elkarten praktikak oso ezberdinak direla. Aisialdia eta mintzapraktika jarduerak, elkarten %40ak baino gehiagok lantzen dituzte. Gazteei lotutako jarduerak, laurden batek eta hedabideei ekiten diete elkarten %20 pasak. Aipagarria da, era berean, ia elkarten %10ak bestelako jarduera batzuk praktikatzten dituztela.

Lan arlo horiei ekiteko, lan horiek egin ahal izateko beharrezkoa da dirua, beharrezkoa da sosa. Hortaz, zein da elkarte hauen egoera ekonomikoa? Erantzun duten 51 elkarteren aurrekontua, guztira, 8.673.387,92 eurokoa da. Batez beste, 170.066,43 eurokoa da aurrekontua. Alabaina, aurrekonturik txikiena 800 eurokoa da eta handiena, ostera, 2.000.000 eurokoa. Dena den, elkarte gehienek 200.000 eurotik beherako aurrekontua dute (%84tik gora).

Irudia 5: Euskara elkarteen aurrekontuak 2017an*Irudia 5: nik egindakoa Topagunea (2017) datuetan oinarritua.*

Horiek dira aurrekontuak, baina aurrekontu horiek taxutu ahal izateko, ezinbestekoa da sarrerak ere izatea. Elkarteek bazkide-tza kuotetatik batez beste 13.398,57 euro lortzen dituzte eta diru-laguntzetatik, berriz, batez beste 45.586,01 euro. Beraz, elkarteek euren aurrekontuaren %9 bazkideengandik zuzenean lortzen dute eta %25 inguru administrazio publikoek apailatutako laguntzetatik. Gainera, 2007ko kopuruekin alderatuta, diru-laguntzen ehunekoa eta zenbateko osoa asko jaitsi da (2007an diru-laguntzak ziren elkartearen aurrekontuaren %42a eta guztira 3.647.727 euro; 2017an, berriz, %24,85 eta 2.096.956,39 euro guztira).

4.6.2.1 Tokiko hedabideak

Euskara elkarteetan jardun zentrala izan da hainbat urtetan hedabidegintza. Arlo honen gainean, badira orain baino lehen azterketa xeheak eginda. Horietatik abiatuta, jardungo dut nik hurrengo lerroetan. Hala ere, hasi aurretik, aipatu nahiko nuke gai hau ez dela ikerketa-lan honen erdigunea, inondik ere. Izan ere, nire asmoa da euskara elkarteak aztertzea mugimendu sozialen argietara. Eta jardun hau izan da hasieratik erabat profesionalizatutako arloa elkarteetan. Hortaz, gaia landu bai, baina ez naiz arituko beste alor batzuk bezain sakon.

Esan dudana bezala, badira tokiko euskarazko hedabideen gaineko azterketa xeheak. Adibidez, Idoia Camachok gai honen inguruan taxutu zuen bere doktorego-tesia: “Herri aldizkarien funtzioak eta edukiak (1989-1999)” (Camacho, 2002) eta Asier Aragurenek ere gai bera erabili zuen bere tesian: “Euskarazko komunikabide lokalak Euskal Herrian” (Aranguren, 1999). Alazne Aiestaranek, berriz,

Deba Barreneko tokiko komunikabideak aztertu zituen bere doktorego tesian: “Deba Barreneko euskarazko komunikazio sistema: tokian tokiko aldizkariaren kazetaritza-genero eta gaien analisia 2000-2004 bitartean (eta Kitto, Pil-pilean, Barren, Berriketan, Kalaputxi eta Drogeteniturri)” (Aiestaran, 2007). Horrez gain, hainbat artikulu eta ponentzia idatzi dira fenomeno honen inguruan. Azken urteotan, gainera, euskarazko hedabideen behategia sortu da eta, hein batean, gai hauen inguruko ikerketak sustatzeko asmoa du.

4.6.2.1.1 Zergatik jardun dute alor honetan elkarteek?

Lehenik eta behin, erantzun beharko nioke zergatik galderari. Zergatik euskarazko elkarteek jo zuten eta dute tokiko hedabideak egitera? Zerk bultzatuta ekin diote lan arlo horri?

“Euskal hiztunak hurbileko informazioa euskaraz irakurtzen jarri nahi dituzte” (Muxika, 2003) elkarteek. Horretarako, ordura arteko euskarazko prentsan nagusi zen ikuspegia zeharo aldatu zuten. “Ordura arte euskal prentsa militantziak eragindakoa da eta betiko euskaltzaleei zuzendua zegoen. Prentsa lokalean ikuspegia aldatu egin zen eta helburua ez da betiko euskaltzaleentzako produktua egitea, baizik eta euskaraz sekula irakurri ez duten pertsonentzako prentsa egitea. Horretarako, produktua ona eta erakargarria izan behar zen” (SE04). Ainhoa Azkaratek ere antzekoa dio Elgoibarko Barren aldizkariari buruz: “Ikuspegia ere aldatu dela soma daiteke, orain arte euskal prentsa euskararen aldeko militantziak eragindakoa eta betiko euskaltzaleei zuzendutakoa izan da. Orain ikuspegi hori aldatuz doa, helburua ez da betiko euskaltzaleek irakurtzea, baizik eta sekula euskaraz irakurri ez duen jendearentzat produktu erakargarria egitea” (Azkarate, 1995).

Aitzindari, berriro ere, Arrasate, eta kasu honetan *Arrasate Press*²⁵⁷ aldizkaria. Elkarrizketatzaileetako batek honela dakar sasoi hura akordura: “Lau pertsona izan ziren Arrasate Press-en talde bultzatzailea²⁵⁸. Eta hemen esan behar da nolabaiteko gaur egun, batzorde zientifiko deitzen zen edozein erari, baina holako batzorde zientifiko bat zen. Eta, neurri batean, AEDri berari kostatu egin izan zaion zera hori, pixka bat hori zen. Batzorde zientifiko horrek zeuzkan ideia oso berritzaileak. Oso garbi zeukaten ordura artekoek ez zutela balio bere horretan.

257 Lehenagokoa da *Ttipi-ttapa* aldizkaria (1981ekoa). Gainera, behin 1989an *Arrasate Press* aldizkariaren bidea ezagutua, erabat aldatu zuten aldizkariaren egitura, funtzionamendua eta aldizkaria bera (ikus Alkorta, Zuberogoitia, 2009).

258 Lau pertsona horiek honako hauek izan ziren: Jose Maria Eraña, Jose Felix Diaz de Tuesta, Joxe Arantzabal eta Iñaki Mendiguren.

Komunikazioa zela helburu nagusia. Ez zela historia, eta ez beste horrelako gauza bat. Komunikazioa eta komunikabide lehiakorrak izan behar zuen” (SE01).

Antzekoa dio Deiane Arrietak ere: “Orduko euskarazko prentsak literatura, euskara edota zientzia bezalako gai landuak zituen hizpide, era konplexuan gainera. Eta, ondorioz, gizartearen gutxiengo bati zuzendutako aldizkariak ziren. Laukotea²⁵⁹ konturatu zen herritar orori zuzendutako euskarazko aldizkariak falta zirela. Gai landuegi, konplexu eta intelektualak alde batera utziz, egunerokotasunean oinarritutako informazioa jorratzea interesgarria iruditu zitzairen. Euren asmoa euskara sustatzea zen, eta aldizkari bat jardun horretarako baliabide egokia iruditu zitzairen. Horretarako, baina, euskal prentsa tradizionaletik urrundu beharra ikusi zuten: gai barietatea eskainiz eta testu errazak sortuz. Euskara sustatzeko tokiko prentsaren formula egokia iruditu zitzairen. Izan ere, era honetako aldizkariak hurbileko eta eguneroko gaiak lantzea ahalbidetzen zuen, era ulerterraz batean” (Arrieta, 2005).

Hedabideek jendartean eragiten dute. Baina, horrez gain, “hizkuntza komunitatearen autoirudian eta autokonfiantzan” (Sarasua, 2013: 311) eragina dute. Eta elkarteek, horregatik, jo zuten hedabideak egitera, ahaztu barik hutsune hori betetzeko zegoen premia, hau da, tokiko informazioa jasotzeko premia hartu eta euskararentzako esparru hori irabaztera jo zuten.

Paradigma aldaketa sakona zekarten, beraz, euskara elkarteek. Tokiko gaiak landuko dituzten euskarazko aldizkariak, ahalik eta masiboena izateko asmo garbiarekin. Hori zen elkarteek ekarri zuten paradigma aldaketa. Batzuen iritziz astakeria²⁶⁰ bazen ere, herriz herri eta eskualdez eskualde loratzen joan ziren hasiera batean aldizkariak eta gerora irratiak, telebistak eta interneteko agerkariak.

4.6.2.1.2 Ezaugarriak

Eta zelakoak ziren eta dira agerkari horiek guztiak? Ezaugarri komunik ba al dute? Ezaugarri batzuetara ekarri daiteke elkarten jarduna hedabideen inguruan?

Lehen ezaugarria eta agian funtsezkoena da euskara elkarteek agerkari hauen bidez hizkuntza komunitatea erdigunean jarri zutela. “Aldizkaria sortzeko zer na-

259 Aurreko aipuan agertzen diren lau pertsona horiei erreferentzia egiten die beste aipu honetan egileak.

260 “Elgoibarren astakeria? Astakeria ez, astakeria da hori!” (SE03).

gusi, erdigunean, hizkuntza zegoen” (SE12). Eta, horretarako, ezinbestekoa da oreka, ezinbestekoa da oinarria hiztunak izatea. “Hizkuntza komunitatea erdigunean ipinita, eskatzen du orekatua den editorial baten nahia eta oinarria izatea. Horiek barik, ez dago hizkuntza komunitate zabalera heltzerik” (SE16). Iñaki Mendigurenek ere antzekoa zioen: “Inorentzat higuigarri ez eta ahalik eta sektorerik gehienek gustuko produktua lortu beharko da. Beraz, arina, atsegina, irakurterraza edo ikusi eta entzuteko erosoia ...Ahalik eta gehienak kontentatzeko praktika honek euskara-elkarteek bultzaturiko komunikabideak halako neutraltasun edo aniztasun batera eraman beharko lituzke, baina ez dut uste horregatik akritiko edo amorfoak izan behar dutenik, plataforma irekiak baizik, alde bateko nahiz besteko iritziak orekaz kaleratzeko aukera emanik” (Mendiguren, 1993).

Baina horrek ez du esan gura hedabidea busti behar ez denik, ez du esan gura hedabidea zuria izan behar denik. “Ehuneko hirurogei eta hamarrak esaten du *Goiena*²⁶¹ plurala dela. (..) Erdigunean kokatzeak ez du esan nahi honen penuriak kontatu behar ez direnik eta bestearenak kontatu behar ez direnik. Ez dauka zerikusirik hedabide zuri bat egitearekin” (SE16).

Eta, horrexegatik, hain zuzen ere, hasiera-hasieratik kalitatearen alde egin zuten herririk herri sortuz joan ziren herri aldizkariak. Iñaki Mendigurenekin jarraituz: “Komunikabide hauek ez badira kalitatezkoak, kaltegarri ere gerta daitezke euskararen irudirako, nahiz eta borondate onez eginak izan. Beste borroka askoren artean euskarak gizarte-prestijioarena ere irabazi behar du. Ezin dugu txapuzarik egin euskararen inguruan, edo beste garai bateko giro eta jokaeren identifikatuz segitu” (Mendiguren, 1993).

Eta ez hori bakarrik: eduki pluralen alde egin zuten, gertukotasunaren alde, baina hainbat ikuspuntutatik eta herritarren beharrak abiapuntu. Eta herritarrak eurak protagonista. Izan ere, jende ezaguna agertzeak artikuluetan albistea irakurtzera edo entzutera bultzatzen ditu herritarrak. “Nik uste dut meategiko urre gertutasuna dela. Eta gertutasunak ematen du aukera komunitatearekin batera komunikazioa egiteko” (SE16). “Aktualitateak askorako ematen du. Sekulako mugimendua dago sozialki, kulturalki, ... Orduan guzti horri erantzuna euskaraz emateak bai ekartzen duela toki pribilegiatu batera euskara, beste hizkuntzek ez dietelako heltzen” (SE23).

261 *Goiena* da Debagoieneko herrietan dagoen multimedia taldea (irratia, telebista, astekaria eta interneteko agerkaria). Kooperatiba bat da eta kooperatiba horretan euskara elkarteek daukate gehiengoa (tokiko administrazioek eta langileek eurek ere hartzen dute kooperatibaren organigraman).

Baina helburu horiek betetzeko, agerkari horiek masiboak izan behar ziren, zabalkunde handikoak. Eta, ildo horretan, elkarrekin erabaki zuten aldizkariak doakoak izatea eta etxez etxe banatzea. Izan ere, hasierako sasoietan egon zen lelo bat: “euskaldun bat dagoen etxe bakoitzeko aldizkari bat”.

Bestetik, aldizkari hauek guztiak ez dira irabazi asmodunak. Hortaz, finantzatzeko bideak aurkitu behar izan zituzten (eta dituzte). Bi izan dira biderik nagusiak: publizitatea eta diru-laguntzak (azken urteotan, berriz, hirugarren bide bat ere ari da indarra hartzen, zerbitzuak ematea). Herri administrazioek diru-laguntzak eman dizkiete agerkari hauei eta haien aldeko apustua egin zuten. Izan ere, toki-hedabideen diru-laguntzetarako Eusko Jaurlaritzak euskaraz izatea ezarri zuen baldintzat. Baina, seguruenik, askoz bide berriagoa ireki zuen publizitateak. Izan ere, ordura arte publizitaterik jartzen ez zuen herriko denda, taberna eta zerbitzu asko herri prentsari esker hasi ziren publizitatea egiten, eta euskaraz.

Gertutasuna aipatu dut lehen ere. Baina horri loturik hedabide hauek “... produktu herrikoi, simple, zabal eta irakurteraz” (Camacho, 2002: 101) izatea nahi zuten. Eduki arin eta atseginak ziren herri hedabideek zabaldukoak. Alazne Aiestaranek bere tesian probatu zuen modura, “... Deba Barreneko sei aldizkarietan jorratzen diren gaiek, herritarren eguneroko bizitza hartzen dute kontuan eta berau da euren gaitegiaren ardatz nagusia. Politika kontuak, ostera, bigarren mailan agertzen dira tokian tokiko prentsan” (Aiestaran, 2007: 733).

Gertutasuna lortzeko bide horretan, euskara bera ere horretara ekarri behar izan zuten, erabilitako euskara bera ere tresna dela. Hortik tiraka, hedabide hauek (salbuespenak salbuespen) tokian tokiko euskalkiari ere garrantzia eta lekua eman diote. “Herri komunikabideak egokiak dira eskualde eta haranetako euskalkiak eta lekuan lekuko barietateak erabiltzeko, beti ere nazio mailako grafia errespetatuz. Are gehiago, tokian tokiko irakurlearengana iristeko, mezu-hartzaileen konfiantza eta fidagarritasuna irabazteko, bertoko euskalkia erabiltzea bezalakorik ez dago” (Camacho, 2002: 108). Zentzu horretan, zeharo adierazgarriak iruditzen zaizkit Alazne Aiestaranen berbak: “Lan honetan agertzen diren adibideetan ikusi ahal izan dugun moduan, norberaren herriko hizkerak herrikoagoa egiten du aldizkaria, nortasun propioa ematen dio, gertutasuna lortzen du irakurlearekin eta herriko hizkera bizirik mantentzen laguntzen du. Beti ere, euskalkia, modu egokian eta herri hizkera idatziaren inguruko arauak errespetatuz erabiltzen bada” (Aiestaran, 2007: 734).

4.6.2.1.3 Jardunbideak

Euskara elkarteek sortutako lehen aldizkaria eta lehen hedabidea *Arrasate Press*²⁶² izan zen 1988an. Ordutik hona, mila gauza gertatu dira euskara elkarteek bultzatu eta zuzendutako herri hedabideetan. Aldizkaritik telebistara, irratitik internetera, tirada handiztetik maiztasuna jaistera, elkarlanerako bide emankor eta antzuak, eta abar. Labur-labur jorratuko ditut horiek guztiak hemendik aurrera. Hala ere, ez da ahaztu behar etengabe eta jarraian elkarteek indarra, sendotasuna eta irudimena baliatu behar izan dutela hedabideak sortu eta mantentzeko. Imanol Esnaolak eta Asier Otxoa de Retanak honela diote: “Sorrerak eskatzen dituen adostasunak eta onespene sozialak euskaltzale eta euskalgintzak metatutako kapital soziala proiektuaren alde jartzea eskatzen du. Irauteko ere behar izaten da kapital hori bizirik dagoela erakusteko behar den moduan baliatzea” (Esnaola, Otxoa de Retana, 2017).

Arrasate Press izan zen bidegile eta eredu bat ezaugarritu zuen. Eta horrek ekarri zuen han eta hemen antzeko egitasmoak abiatzea. Adibidez, Alazne Aiestaranek egiten duen bilanean honako hau agertzen da: “1989an 11 herri-aldizkari sortu ziren; 1990ean, 10; 1991an, 5; 1992an, 5; 1993an, 7; 1994an, 4; 1995ean, 4 eta 1996an 6. Guztira 52 herri-aldizkari euskaraz” (Aiestaran, 2007: 59). Hau da, oso urte gutxitan ikaragarritzko garapena izan zuten herri aldizkariak. Eta, ordutik hona, hazi baino ez da egin hedabideen kopurua. 2017an Tokikom-en barruan 29 bazkide zeuden eta horiek 63 hedabide kudeatzen zituzten.

Baina goazen urratsez urrats. Goazen ikustera zer eboluzio izan duten euskara elkarteek sustatutako hedabideek. Sorrerari dagokionez, Arrasateko ereduak izan zuen eragin nabarmena: “*Barren* astekaria sortu zen aldameneko herriak egiten zuelako. Ikusi genuen eta esan genuen, Elgoibarren ere behar dugu aldizkaria. Iru-ditzen zitzaigun herrian eragina edukitzeko bezalako proiektua zela” (SE03). Imanol Minerrek antzekoa dio Erretereriako Lau Haizetara agerkariari dagokionez: “Sarritan mimetismoz jokatu da beste herrietako ereduak kopiatuz” (Miner, 2002).

Hutsune bat bete nahi zuten hedabide hauek. “Eskualde honetan ez zegoelako eta ez dagoelako gaur egun ere ez bestelako hedabiderik tokiko informazioari kobertura ematen zionik” (SE23). Eta, horrela, kasurik gehienetan aurre hartu zioten gaztelaniari. “Beste kasu batzuetan, horrelako aldizkariak agertzen diren

262 *Arrasate Press* zelan, zergatik eta zer ezaugarriekin sortu zen jakiteko, zeharo esanguratsua da Asier Aranguren bere doktorego-tesian egiten duen errelatua. Ikusi, beraz, Aranguren, 1999: 91-108.

herrietan gertuko informazioa banatzen duten bakarrak direla esan beharra dago eta, ondorioz, lehiakiderik gabe argitaratzen dira. Horrenbestez, garatu gabe zegoen esparru hau euskarak bete zuen eta ez erdarak, gehienetan gertatzen den bezala” (Camacho, 2002: 96). “Herri-prentsak informazio lokalaren hutsunea bete du, herrietako hutsune informatiboa hain zuzen ere. Horrek bestelako prentsan ere eragina izanik, gainerako komunikabideak behartu dituelako tokian tokiko informazioa zabalago tratatzera” (Aiestaran, 2007: 61). Eta hori bat dator euskara elkarteek zuten helburu batekin: “Autoeraketaren bidez, eremu berriak konkistatzea dute helburu, gaztelaniari eta bestelako balioak bultzatzen dituzten enpresei aurre hartuz” (Ozaita, 2017). Beraz, hutsune hori betetzea bihurtu zen hainbat euskara elkarterentzako helburu, hasierako urte haietan eta gerora etorriko zirenetan.

Hasieratik hedabide hauek profesionalak izan dira eta, elkarteetan bezala, hasieratik enpresa ikuspegiak txertatu nahi izan dira hedabideen egunerokoan. “Tokatu zitzaidan enpresa kultura eramatea hedabidearen esparruetara eta euskara elkarte baten kulturatik zetorren edo handik sortutako dinamika batek enpresa kulturatik edatea” (SE01).

Hedabide hauek hasieratik izan dute helburu lehiakorak izatea eta, ahal zen neurrian, euren lurralde esparruetan liderrak izatea. Eta, horretarako, esan dudan bezala, ezinbestekoa zen profesionalizazioa. Izan ere, profesionalizatu ezean, ez zen posible maiztasun jakin bat mantentzea, ez zen posible produktu erakargarri eta esanguratsua egitea. Eta lehiatzeko, beharrezkoa zen ezaugarri horiek izatea. Jasone Mendizabalek antzeko zioen: “Tokiko hedabideak txikiak dira (are txikiagoak euskarazkoak), baina merkatuan hedabide-kate erraldoiekin lehiatu behar dira eta horretarako ezinbestekoa izango da enpresa modura lan egitea, enpresek eskaintzen dituzten tresna guztiak baliatuta. Hori guztia profesionaltasuna eta gizarte-ekimenetik zehaztutako balioak uztartuta egin beharko da” (Mendizabal, 2005).

Horrez gain, hasieratik teknologien alde egin zuten hedabideek. Hasieran autoedizioa hautatu zuten hedabideek. “Autoedizioa, *Arrasate Press*-ek erabili zuen *Diario Vasco*-k baino hiru urte lehenago. Orduan, hortik hasi zen. Apustu bat egon zen. (..) Hor asmatu zuten. Hain zuzen ere, hori izan zelako gero bidea” (SE01). Eta, gerora, nahiko azkar interneta. Izan ere, euskarazko hedabideen artean, interneteko edizioa izan zuen lehena *Ttípi-ttapa* izan zen. Eta gogoratu behar da euskarazko lehen blog kolektiboaren edukiak *Goienak* kudeatzen zituela.

Sorreratik bertatik ia-ia, hedabide hauek sentitu zuten batzeko eta gauza batzuetan batera jarduteko beharra. 1991an egin ziren, esate baterako, prentsa lokarri buruzko lehenengo jardunaldiak. Jardunaldi horien ostean, AED saiatu zen koordinazioa egiten, *Herri-ko* izeneko agerkariarekin, baina bertan behera geratu zen handik gutxira. Aldizkarien arteko kontaktuak eta harremanak jarraitu zituzten hurrengo urteetan, herri aldizkarien elkarte osatzeko asmoz, baina 1996a arte, ez zen gauzatu. Urte horretan, hain zuzen ere, sortu zen Topagunea, euskara elkartearen federazioa (eta euskarazko herri aldizkarien elkarte, hein berean).

Topaguneak hasieratik bideratu ditu hedabideei lotutako lan-jardunak. Batetik, aholkularitza juridiko eta tekniko eman die hedabideei (adibidez, herriz gairiko diru-laguntzen kudeaketarako); bestetik, mintegi, jardunaldi eta foroak antolatu ditu kazetarienezako eta hedabideen arduradunentzako; hirugarrenik, erosketak negoziatu egin izan ditu hainbat bazkiderekin batera (informatika alorreko ekipoak, posta tarifak, plataforma edo webguneak, eta abar); eta, azkenik, elkarrekin lan egiteko bideak jorratu ditu.

Azken horri dagokionez, aipatu behar da, esate baterako, hasieran *Gune press* izeneko publizitatea agentzia sortu zuela Topaguneak, herriz gairiko publizitatera heldu ahal izateko. Porrota izan zuen beste proiektu bat *Asteon* telebista-aldizkaria izan zen. 2004an argitara eman zuen lehen zenbakia aldizkari honek. Telebista gaiak izan behar zituen berbagai aldizkari honek eta tokian tokitik nazio mailara salto egin. Horretarako, aldizkaria doan banatu behar zen herrietako aldizkarien banaketa-sareak erabilita. 75.000 aleko tirada zuen eta lau hilabete iraun zuen, 10 zenbaki ateraz. Bertan behera geratu zen, batez ere, finantzazio arazoengatik: publizitatea eta diru-laguntzak espero baino txikiagoak izan ziren eta horrek bertan behera utzi zuen proiektua.

Batera jotze horretan, beste mugarri bat Tokikom-ek jarri zuen. 2012an sortu zen elkarte berri hau, Topaguneko hedabide sailaren ekimenez. Tokiko komunikabideen dinamikari erantzuteko sortu zen Tokikom. Izan ere, Topagunearen hedabide sailak autonomia eta dinamika propioa behar zuela ebatzi zuen eta, hori dela eta, sortu zen elkarte berria. Baina zer funtzio betetzeko sortu zuten elkarte? Elkarriketatzaileetako batek honela dio: “Batu behar ditugu elementu komun batzuk. Batu behar dugu teknologia, batu behar dugu publizitatea, batu behar ditugu kudeaketa elementu batzuk ... Horrek askoz ere eraginkorrago eta lehiakorrago egiten gaituelako. Eta, aldi berean, baliabideak liberatzen dituelako bakoitza bere herrian, eta horretan gara onenak. Eta horretan gara ezinbestekoak. Bakoitzak bere herrian denbora eduki dezan ibili gabe ea nola kudeatu behar

den publizitatea, edo nola beteko den halako txostena ... Saiatu benetako herriko informazioa ezagutzen, komunitatea mugitzen, mugiarazten” (SE01). Beste batek honako hau gehitzen du: “Batera eginez gero askoz hobeak gara, eta askoz eragin-korragoak gara. Eta hori hasieratik ikusten genuen batzuk, beste batzuei gehiago kostatu zaie, eta oraindik ere bai igual batzuei kostatu egingo zaie” (SE16).

Beste elkarrizketatzaileetako batek honakoa dio: “Gure webguneetan Jaur-laritzako kanpaina bat sartzea inposible da ... Ze gu ez gara errentagarriak Jaur-laritzarentzako, Jaur-laritzak deitu behar badu banan-banan hedabidez hedabide, bakoitzaren prezioa, bakoitzak eredu bat, bakoitzean neurri bat, bakoitza mundu bat. Hori folloia da” (SE16). “Baina batuta gara euskarazko hedabiderik eragin-korrena. Batuta. Guk beste bisita inork ez dauka. Guk besteko eraginkortasunik publizitatea ipintzeko inork ez dauka” (SE21).

Tokikom elkarteak, hortaz, hiru helburu izan ditu hasieratik: batetik, tokiko komunikabideen solaskidetza bateratua izatea erakunde publiko eta pribatuen aurrean; bigarrenik, jarduera esparru komun batzuk kudeatzea (publizitatea, kudeaketa, presentzia digitala, erosketak, ...) eta, hirugarrenik, sektorearen garapena eta hedapena errazteko konbergentzia estrategiak diseinatzea. Eta bide horretan ari dira gutxika-gutxika: “Tokikom-ek lortu du estandarizatzea diseinuak ere bai” (SE16). “Tokikom sortu delako, besteak beste, badaukagu erakundeekin ahotsa eta eragiteko kapazitatea” (SE09).

Tokikom, gaur egun, hainbat hedabidek eta elkartek osatzen dute: 29 elkartek eta haiek 66 komunikabide kudeatzen dituzte, euskal herrietatik luze-zabalean.

Taula 5: Tokikom-era federatutako tokiko euskarazko hedabideak, 2017an

ELKARTEA	HEDADURA GEOGRAFIKOA	INTERNET	PAPERA	IRRATIA	TELEBISTA
28 Kanala	Tolosaldea	www.28kanala.eus			28 Kanala
Aiaraldea	Aiaraldea	www.aiaraldea.eus	Aiaraldea hamaboskaria		
Ameba Kultur Elkartea	Hego Uribe	www.geuria.eus	Geuria hilabetekaria		
Ametza Kultur Elkartea	Ultzama-Basaburua	www.amezti.eus	Pulunpe hilabetekaria	Esan-Erran irratia	
Arabako ALEA Komunikazio taldea	Araba	www.alea.eus	Arabako Alea astekaria		
BLB Kokunikazioa Kooperatiba Elkartea	Bilboaldea	www.uriola.eus	Prest hilabetekaria (Deustualdea)		
Baleike Kultur Elkartea	Zumaia	www.baleike.eus	Baleike hilabetekaria		
Busturialdeko Irrati-Telebista SL	Busturialdea, Lea-Artibai	www.oizmendi.eus			Oizmendi Telebista
Dobera Euskara Elkartea	Urumealdea	www.kronika.eus	Urumeako Kronika (astekaria), Hernaniko Kronika (egunero), Astigarragako Kronika (astekaria)		
Elgoibarko Izarra Kultur Elkartea	Elgoibar, Mendaro	www.barren.eus	Barren astekaria		
Ero Telebista	Urola-Kosta	www.erotelebista.eus			Ero TB
Euskalerria Irratia	Iruñerria	www.euskalerrirratia.eus		Euskalerria Irratia	
Gertuko Kooperatiba Elkartea Txikia	Durangaldea	www.anboto.org	Anboto astekaria		
Goiena Komunikazio Taldea	Debagoiena	www.goiena.eus	Goiena astekaria, Puntua astekaria	Arrasate Irratia	Goiena TB
Goierri Irrati Telebista	Goierri	www.gitb.eus		Goierri Irratia	Goierri Telebista
Guaixe Fundazioa	Sakana	www.guaixe.eus	Guaixe astekaria	Beleixe Irratia	
Hiruka Kooperatiba Elkartea	Uribe-Kosta	www.hiruka.eus	Hiruka hilabetekaria		
Karkara Taldea Kultur Elkartea	Orio, Aia	www.karkara.eus	Karkara hilabetekaria		
Mailope Kultur Elkartea	Araitz-Betelu, Larraun, Lekunberri	www.issuu.com/mailopealdizkaria	Mailope hilabetekaria		

ELKARTEA	HEDADURA GEOGRAFIKOA	INTERNET	PAPERA	IRRATIA	TELEBISTA
Manuel Larramendi Kultur Bazkuna	Beterrri-Aitzondo-Buruntza	www.aiurri.eus	Aiurri astekaria (Beterrri-Buruntza) Aiurri hamaboskaria (Beterrri-Aitzondo)		
Maxixatzen Euskara Elkartea	Azkoitia	www.maxixatzen.eus	Maxixatzen hilabetekaria		
Noaua Kultur Elkartea	Usurbil	www.noaua.eus	Noaua astekaria		
Pausu Media ONG Elkartea	Bidasoaldea	www.antxetamedia.info		Antxeta Irratia	
Pil-Pilean Kultur Elkartea	Soraluze	www.plaentxia.eus	Pil-Pilean hilabetekaria		
Totoan Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa	Txorierrri	www.aikor.eus	Aikor! hilabetekaria		
Ttakun Kultur Elkartea	Lasarte-Oria	www.txintxarri.eus	Txintxarri astekaria (astelehen eta ostiraletan)		
Ttipi-Ttapa Fundazioa	Baztan, Bortziriak, Malerreka	www.erran.eus/prentsa	Ttipi-Ttapa hamaboskaria		
Uztartzen Euskara Elkartea	Azpeitia	www.uztarria.eus	Uztarria hilabetekaria		
Xorroxin Irratia	Baztan, Bortziriak, Malerreka	www.erran.eus/irratia		Xorroxin Irratia	

Taula 5: nik egindakoa Tokikom-eko (2017) datuetan oinarrituta

Tokikom-en, hortaz, hainbat hedabide daude, baina euskal herrietan zehar badeute askotariko zabalpena. Araban eta Gipuzkoan ia eskualde guztiak daude ordezkatuta; Bizkaian eta Nafarroan, ostera, hutsune nabarmenak daude. Iruñeritik behera eta ekialdera ez dago hedabiderik, eta Bilbotik ezkeralderako guneeetan ere ez dago hedabiderik. Ipar Euskal Herrian, azkenik, hutsunea erabatekoa da. Ez dago Tokikom-en barruan hedabiderik.

Hedabideen garapen eta eboluzioan, bada aipatzeko moduko beste fenomeno bat: herritik eskualderako saltoa. Hasierako urteetan herrietako hedabideak ziren nagusi. 2000. urtetik aurrera, berriz, gero eta gehiago dira eskualdeko egitasmoak. Aitzindari, ostera ere, Arrasate eta inguruak izan ziren. 2000. urtetik hasita, eskualdean zeuden hedabideek konbergentziarako bidea hartu zuten eta, horren ondorioz, sortu zen *Goiena* multimedia taldea.

Merezi du Goienaren ereduari arreta apur bat jartzea. Horretarako, Goio Aranak eta Aitor Zuberogoitiak (Arana, Zuberogoitia, 2012) *Uztaro* aldizkarian argitaratutako artikuluan oinarrituko naiz. Goienan “... bildu ziren, alde batetik, Debagoieneko euskarazko tokiko hedabide ia guztiak eta horiek sostengatzen zituzten euskara-elkarteak (Idolaz, Antzuolan; Txirritola, Aramaion; AED, Arrasaten; Loramendi, Aretxabaletan; Jardun, Bergaran; Goibeko, Elgetan; Axtroki, Eskoriatzan; Laixan, Oñatin eta Gurel gurasoen elkartea, Leintz Gatzagan), eta, bestetik, ibarreko udalak” (Arana, Zuberogoitia, 2012). Bi helburu nagusirekin bildu ere: “Batetik, batzeko eta modu eraginkorragoan kudeatzeko Debagoieneko bederatzi herrietako euskarazko tokiko hedabideak (komunikabideak eurak, baina baita erredakzio-taldeak, baliabideak eta egoitzak ere); eta, bestetik, egituratzeko erakunde indartsu bat, gauza izango zena aurre egiteko ibarreko komunikazio-erreak berriek” (Arana, Zuberogoitia, 2012).

Urte eta erdi iraun zuen bateratze prozesuak. Berritasun bat izan zen, kasu honetan, bateratze prozesua gidatzeko pertsona bat kontratatu izana. Horrek, hein batean, prozesua azkartu zuen. Elkarriketatuetako batek honela kontatzen ditu Goienaren sortze-prozesuan erabakigarriak izan ziren gakoak: “Bata izan zen asko hitz egin, baina idatziaren gainean. Zuk planteamendua baldin badaukazu, idatzi. Eta besteak kontraplanteamendua baldin badaudaka, idatzi. (...) Bigarrena izan zen denbora ematea (...) Eta hirugarrena zen, kontsentsua da helburua. Hau da, denok ados jartzea. Baina azkenari ez zaio itxoingo” (SE04).

Goienak, gainera, figura juridiko berezia du. Izan ere, bitariko kooperatiba da. Ikus dezagun zelan eta zergatik hartu zen horren aldeko erabakia: “Teorian, bitariko kooperatiba kooperatiben kooperatibak egiteko formula da. Guk hori hartu genuen, baina gero bihurtu genuen eta masiatu genuen gupidarik gabe. Nahi genuelako euskara elkarrekin izatea bazkide, eta bazkide nagusia, baina nahi genuen ere udalak izatea bazkide. Eta, orduan, hori nahi genuen, gaur egun lankidetzaren publiko-soziala deitzen den hori, eta nahi genuen langileak ere bazkideak izatea” (SE04). Bertako kide batek honela egiten du berba kudeatzeko figura horri: “Gure kooperatiba da publiko-privatu edo, behintzat, ko-kudeaketa deitzen diogu (...) Ko-kudeaketak ematen du mamu asko kentzeko aukera. Eta hori izan zen gakoetako bat. Beste bat izan zen lehenengotik argi edukitzea gure proiektuaren muina hizkuntza komunitatea izango zela” (SE16).

Goienaren ostean, beste hainbat tokitan eskualderako saltoa egin zen. Adibidez, Durangoko *Eraz* aldizkariak eskualdetu eta *Anboto* izena hartu zuen edo Getxoko *Bizarra Lepoan* Uribeko Kostako *UK* bihurtu zen (gerora, *Hiruka* izena

hartu du). Baina ez hori bakarrik: ordutik sortu diren hainbat hedabide proiektu, zuzenean, eskualde mailakoak izan dira: *Aikor* Txorierrin, *Geuria* Hego Uriben edo *Aiaraldea* izen bereko eskualdean, ahaztu barik Araba mailako *Alea*. Zentzu berean, egin dira ahaleginak beste eskualde batzuetan (kasurik garrantzitsuenak, seguruenik, Deba Barrena izan da, nahiz eta porrota izan) hedabideak bateratzeko. Hala ere, aipatu behar da *Arrasate Press* ez bezala, *Goiena*-k ez duela lortu prototipo bihurtzea, ez duela lortu eredu esportagarria izaten.

Azken urteotan, gainera, internetak ekarri duen iraultzarekin, tokiko hedabide hauek saiatu izan dira komunitatea bizkortzen, herrietako komunitateak hedabideen partaide bihurtzen. Arrakasta ezberdina izan badu ere, leku zenbaitetan dinamizazio lan polita ekarri omen die hedabideei. *Goienan*, adibidez, komunitateak garrantzia du. “Bada bide bat polita, ze, egiten duten horiek, horiek eurek zabalitzen dute eta eurek kontsumitzen dute. Eta biderkatzailea da. (...) Audientzietan eragina edukitzeko, argi daukagu, sortzailea bera sartzan dugunean ekuazioan, horrek eragiten duela eraginkortasun soziala handixeagoa edukitzea” (SE16). Antzekoa diote Ane Urkolak eta Eneko Bidegainek egindako artikuluko batean: “Hedabide gehienek komunitate atal oso handia daukate: hedabide gehienek bere eskualde edo herriko hainbat eragilerekin harremanak dituzte, eta beren inguruko informazioa zabaltzen laguntzen diete hedabideei, webguneko komunitate atalera igotzen dituzte beren edukiak. Azpimarratu behar da, gainera, laguntzaile sare horrek borondatezko lana egiten dutela gehienetan, militantziaz, bere inguruan euskara bultzatzeko” (Urkola, Bidegain, 2016).

4.6.2.1.4 Beste hedabide batzuk

Elkartek, alabaina, beste hedabide batzuk eraiki dituzte, beste aldzkari eta interneteko gune batzuk, alegia. Haien artean izan dira pentsamendua, zelanbait, elikatzeko aldzkariak. Besteak beste, lehenago ere aipatu dugun *Jazten* aldzkaria (AED, 1989-1994, 10 zenbaki), Bilboko *Zenbat gara* aldzkaria (*Zenbat Gara*, 1998-2002, 6 zenbaki) edo Iruñeko *Karrika* aldzkaria (Karrikiri, 1997-..., 237 zenbaki²⁶³).

Zenbat gara aldzkaria²⁶⁴ Bilbon argitaratu zen 1998tik 2002ra arte, Bilboko *Zenbat gara* euskara elkartearen eskutik. Zelanbait, *Jazten* aldzkariari erreleboa hartu zion eta euskara elkartearen inguruko gai mamitsuak ekarri zituen orriotara.

263 2019ko irailera arte. Aldizkariak jarraitzen du hilero-hilero bere zenbakiak argitaratzen eta internet bidez hedatzen.

264 Aldizkariaren azpi-izenburua deigarria da behinik behin: *hizkuntza eta bizitza*.

Gutzira, 6 zenbaki argitaratu zituen eta denetariko gaiak²⁶⁵ landu: hizkuntza gutxituei buruzko erreportaiak (gaskoiera, erromintxela, Ipar Kaukasoa, flandriera, ...), euskalgintzari loturiko gaiak (plan orokorreko buruzko artikulua, hizkuntza politikari buruzkoak, motibazioari buruzkoak, ...) eta kultur gintzari buruzko gaiak (bertsolaritza, musikagintza eta abarrei buruzkoak). Honela definitzen zuen Teo Etxaburuk aldizkaria bera: “Analisi sakona, eztabaida eta beste herri zein hizkuntza-komunitate gutxitu batzuen lekukotasuna sei hilean behin” (Etxaburu, 2000).

Ibilbide luzeagoa du egina Iruñeko *Karrika* aldizkariak (Karririkiri elkartearen aldizkaria). 1997tik aurrera argitara eman da aldizkaria (azken urteotan paperean barik, digitala da argitalpena) eta dagoeneko 200dik gora zenbaki argitaratu ditu. Egia esateko, aldizkari hau *Jazten* eta *Zenbat Gara* aldizkariak baino dezente xumeagoa da. Xumeagoa edukiz batez ere, baina tirada handiagokoa (bere sasoiaren 2.500 ale banatzen zituen doan). *Karrika* aldizkariak Iruñerriko euskarazko kultur agenda ekartzen du orrietara, euskarazko kultur produktuen gaineko informazioa eta, azkenik, euskalgintzari buruzko artikulua bat. Honela dakartza aldizkari horien ingurukoak Ainara Ibañezek: “Karririkiri hastapenetatik garbi izan zuen tresna bat beharrezkoa zuela euskal komunitatera iristeko eta era horretan elkartearen barneko kontuen berri emateko. Tresna hori ez zuen izan behar beste herrietan egiten ziren herri aldizkariaren antzeko, elkartearen hedabide baizik” (Ibañez, 2006). Elkarrizketatu dudak Karririkiri elkartearen kide batek honela azaltzen du: “Nahi genuen sozializatu euskaragintzako formazio hauek. (..) Ez genuen aldizkari normal bat egin nahi (..) Beti sartu nahi genuen artikulua bat euskaragintzan pilak kargatzeko” (SE08).

Hortaz, *Karrika* aldizkaria barne buletin tankerako aldizkaria izan da eta horrek, hein batean, pentsamendua elikatze baliore izan dio, baita elkarteak egiten zituenei hauspoa emateko ere. Ez da barne buletina izan duen elkarte bakarra, beste hainbatek ere izan dute barne buletina: hasieran paperean eta gero, kasurik

265 Hauek dira Zenbat gara aldizkariaren argitaratutako zenbaki guztietako artikulua:

1. zenb (1998):

- Teo Etxaburu: “Euskal Herri... «justu, libre eta euskalduna?»”.
- Jon Sarasuari elkarrizketa Txepetxekin eginiko Bizitzaren hizkuntzaz liburuaren dela eta.
- Mikel Aldasoro eta Jabier Lauzurika: “Amorabelen seme-alaba kuttunak: Ijitoen erromintxela hizkuntza”.
- Luigi Anselmiri elkarrizketa itzulpen gintzaz.

2. zenb (1998):

- Imanol Miner: “Llengues vives: Butlleti d’actualitat lingüística del sud-oest europeu”
- Frederic Parés: “Hizkuntza bakoitza mundua ikusteko modu desberdin bat da”
- Fermin Etxegoien et alia: “Hiria: Ba ote benetazkorik Euskal Herrian?”
- Jose Joakin Gallastegi: “Hamabost mila bezero gehiago”
- Jabier Lauzurika: “Euskal Herriko irratia libreen sarea”
- Jose Angel Irigarai eta Aitor Zuberogoitia: “Bide berriak urratzeak gailur berriak ikustarazten dizkigu”. Iñaki Larrañagari elkarrizketa).
- Noel Elorga, Mikel Asurmendi eta Fermin Etxegoien: “Gaskoiera”
- Jabier Lauzurika: “Kartzelako gaia Joxe Miel Larrañagari elkarrizketa”

gehienetan, digitalki. Buletin hauek oso maiztasun aldakorra izan dute, elkarterik elkarte eta sasoirik sasoi. Interesgarria da Imanol Minerrek Errenteriako Lau Hai-zetara elkartearen *Haizeberri* barne buletinari buruz zioena berreskuratzea: “Mundu-duko herrien berdintasun eta osagarritasun ikuspegia transmititu behar du, balore ekologikoak (ingurumenarenak bezala hizkuntza eta kulturenak) barneratu eta gi-zarteratu behar ditu. Euskaldunok lepozurreraino sartuak ditugun gutxiagotasun konplexuak gainditzeko eta zentralitatearen ideia berreskuratzekeo baliaigarri izan behar du” (Miner, 2002). Hala ere, gaur egun iraultza digitalak ekarri du barne buletin hauen guztien gainbehera eta ia ez da elkarterik horrelakorik lantzen duenik.

Aipatzekoa da, barne buletinen artean, Topaguneak argitara emandako *Topa-berri* buletina. Topagunea eratu eta 2009ra arte paperean argitaratu zen eta 2009tik 2017ra, berriz, digitalki. Hainbat sasoi eta eduki izan du buletinak, baina, orokor-rean, Topagunearen eta euskara elkarten berri eman du, baita elkar-teentzako interesgarriak izan zitezkeen edukiak ere. Hala ere, elkar-teetako barne buletinekin gertatu bezala, gaur egun desagertu da eta beste bide batzuk dira Topaguneak era-biltzen dituenak bere bazkideekin komunikatzeko eta harremanak izateko.

3. zenb (1999):

- Patxi Juaristi: “Ipar Kaukasoa: Hiltzen ari den aniztasuna”
- Fermin Etxegoien: “Guk bagenuen etsai bat; gizartea. Egun, gazteek haien artean lehiatu behar dute. Eta hori ari dira salatzen eszenatokitik”. (Josu Zabala Ajuriagerrari eginiko elkarriketa).
- Jon Sarasua: “Euskalginen kontuak”
- Iñaki Larrañaga: “Euskararen egoerari buruzko ikerketak: Euforia-giroa ala konfusio-zeremonia?”
- Jose Mari Larrea: “Lili baten errautsa”
- Joseba Barriola: “Urratsak euskararen ahalmena garatze bidean”
- Joseba Barriola: “Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaz”
- Aitor Zuberogoitia: “Belgika: Bateragarriak ote dira puzzlearen atalak?”

4. zenb (1999):

- Juan Carlos Etxegoien Xamar: “E eredu”
- Teo Etxaburu: “2000. urterako pedagogia (eta atzera begirako gogoeta batzuk)”
- Koldo Ortiz De Ginea: “Euskara erabiltzeko: Barneko motibazioa eta subjektibitatea”
- Aitor Zuberogoitia: “Abiapuntuak ez du kuantitatiboa izan behar, kualitatiboa baizik”. (Jose Maria Sanchez Carrion Txepetxi elkarriketa)
- Karlos Enrike Hernández: “Quebec: Erreferenduma begi-bistan?”
- Fermin Etxegoien: “Bilbo Hiria, irratia dependientea”

5. zenb (2001):

- Patxi Juaristi: “India: Eleaniztasuna bidegurutzean”
- Teo Etxaburu: “Kontzentrazio esparrua apurto nahi dugu”
- Iñaki Larrañaga: “Gabriel Aresti Euskaltegiko ikasleek ikasketa-prozesuari eta tailerren esperientziari buruz eginko ebaluaketa eta balorazioaren azalpena”
- Jabier Erize: “EHNE: Guk ez dugu konpetitibo izan nahi”
- Jose Maria Sanchez Carrion Txepetx: “Sierra Leona, 2000. urteko ekainaren 11”
- Nidia Arrobo: “Abya Yala-ko oihartzuna Bilbon”
- Juan Carlos Etxegoien Xamar: “Herriaren erakustean”
- Jose Angel Irigarai: “Linguae Navarrorum eta politika: Zenbait gogoeta”

6. zenb (2002ko otsaila):

- Juan Carlos Etxegoien Xamar: “Orekan: Herri eta hizkuntzen ekologiaz, ikerketa eta dibulgazioaren beharraz”
- Beatriz Diaz: “Salam aleikum, nanga def? Aupa Mohal! Hitz egin, elkar ulertu, San Frantziskon bizi”.
- Fermin Etxegoien: “Bilbo Hiria Irratia 2001”
- Josu Larrinaga: “Irailak 11: Kulturen arteko talka edo zibilizazioaren agortzen-minak?”
- Patxi Juaristi: “Yucatan penintsula eta maien zibilizazioa”
- Luigi Anselmi: “Kanpo zor egiazkoa: Buruzagi indio baten gutuna Europako gobernuei”

Agerkari tematiko batzuk ere jarri dituzte martxan elkarteek. Haien artean, seguruenik, ezagunena eta biderik luzeena izan duena *Gazteuzulo*²⁶⁶ izan da (Bagera elkarte, 1999- ...). Gazteentzako agerkaria da hau, hasiera batean aldizkaria zena (hilabetekaria) eta, gaur egun, hilabetekaria izateaz gain, komunikazio proiektu osoa izan nahi du (sarean eta paperean). Agerkari honek gazteentzako euskarazko edukiak gehitzeko lana egin zuen hasieratik. Izan ere, sorrera garaian oso gutxi ziren gazteentzako edukiak prentsan. Hasiera batean, Donostia izan zuen eremu agerkariak, baina 2000. urtetik aurrera, euskal herri osoetako gazteengana iristeko ahalegina egin dute. Aipatzeko modukoa da Lasarte-Orian gazteentzako egingako aldizkaria: *Irakutrezin* izenekoa. 1996an sortu zen aldizkaria eta urtean hiru zenbaki ateratzen dituzte. 2012an, gainera, aldizkari honek sarerako saltoa eman zuen eta, orduetik, sarean ere argitaratzen dira aldizkari honen edukiak.

Tokikom sortu ostean, izan dira agerkari berri batzuk. Batetik, gurean.eus interneteko agerkaria dago. Agerkari honek batzen ditu Tokikom-eko bazkideen albiste guztiak eta interneteko agerkari batera ekartzen ditu. 2017an sortu zuen agerkaria Tokikom-ek. Zelanbait esateko, euskal herrietako tokiko albistegia da agerkari hau. Bestetik, plazanbazan.eus interneteko agerkaria legoke. Hau ere Tokikom-ek sortu du haur eta gaztetxoei begirako edukiak sortu eta plazaratzeko: jolasak, denbora-pasak, ...

Aipamen berezia merezi du *Ttap* aldizkariak²⁶⁷. Aldizkari digitala da *Ttap*, gurean egiten den lehena eta euskaraz. Anboto, Baleike, Goiena, Tokikom eta Kata-luniako Esguard-en artean sortu dute aldizkaria, bereiziki gailu mugikorretarako egokitua. Testuekin batera, audioak, bideoak eta grafiko interaktiboak dakartza eta hiru edizio: Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako edizioak, hain zuzen ere.

4.6.2.2 Kulturgintza

Ia euskara elkarte guztiek landu dute hala edo nola kulturgintza. Landu ere hainbat sasoitan eta hainbat modutara. Landu ere hainbat formatutan eta hainbat esparrutan. Landu ere hainbat diziplina eta hainbat sortzailerekin. Seguruenik, praktiken artean askotarikoenak izango ziren kulturgintzarenak. Ez nuke nahi emanaldien zerrenda bat egiterik, ez nuke nahi izen-abizenekin atala osatu. Gu-

266 2007 urtera arte aldizkari horrek *Gaztetxulo* izena zuen. Urte horretan izena aldatu zioten eta aldagaita izenetik harago joan zen. Diseinu modernoagoa egin zuen eta, era berean, hartzaileen adin-tartea zabaltzeko saiakera egin zuen orduetik aurrera.

267 2018an sortu zen, beraz, ikerketa honen epeetatik kanpora. Hala ere, ekartzea erabaki dut, batez ere, Tokikom-eko baturatik sortu den heinean.

rako nuke, aldiz, orokor aipatzea jardundakoa, ahal den neurrian. Gurako nuke euskara elkarteek kulturgintzan jardundakoan izan dituzten modu eta erak aipatzea (baldin baleude).

Hasi aurretik, baina, kulturgintza definitu beharko nuke eta, horretarako, Jon Sarasua *Hiztunpolis*a liburuan darabilena iruditu zait aproposa euskara elkarten praktikak ezaugarritzeko: “Entretanimendu, gogoeta eta sentsazio estetikorako berariazko produktuen ekoizpen eta hedapena” (Sarasua, 2013: 251). Beraz, hortik abiatuta osatuko ditut hurrengo lerro eta orriak.

4.6.2.2.1 Zergatik jardun dute alor honetan elkarteek?

Zergatik aukeratu dute euskara elkarteek kulturgintzan jardutea? Zergatik landu dute ia elkarte guztiek alor hau? Zergatik egin dituzte elkarteetako askok euren lehenengo ekinbideak alor honetan?

Euskara elkarteek ikusi dute euskal kultura²⁶⁸ euskaltasunaren zutoin bezala, euskaltasunaren zutabe. “Euskara eta euskal kultura biak dira euskaltasunaren oinarri” (Elgoibarko Izarra, 2014). Izan ere, elkarteentzat kulturgintzak “... hiztun komunitatearen bizinahia elikatzen du. Euskal kulturgintzak eragin handiko egitekoa du gure herrigintzan: beharrezkoa da euskara bezalako hizkuntza minorizatu batean bizitzeko bizinahia birsortzeko, hiztun komunitatearen iruditeria eta ametsa elikatzeko” (Sarasua, 2013: 252). Edo Julen Arexolaleibaren berbetan: “Euskal kulturgintza da euskal identitatearen funtsezko osagaia, eta hizkuntza elikatzeko, motibatzeko eta gaurkotzeko gune sinboliko eta funtzionala” (Arexolaleiba, 2012).

Nekane Goikoetxeak eta Amaia Zinkunegik, ostera, kulturgintzak boterearekin eta hegemoniarekin duen harremana nabarmentzen dute: “Kulturaren eragin soziolinguistikoak nabarmen geratzen dira kulturak hegemonia kontzeptuarekin, boterearekin duen harremanari erreparatzen badiogu. Kultura gizartea egituratzeko tresna ere bada, dimentsio politiko handia duena eta, ondorioz, hizkuntza errealitate bat naturalizatzen duena” (Goikoetxea, Zinkunegi, 2012). Gainera, egile bi hauek diotenez, “... minorizatutako hizkuntza duenak, herri minorizatutako hiztunak, baditu min batzuk. Kulturak ekar diezaioke poza, indarra, ezagutza, sor-

268 Ez naiz sartuko euskal kulturaren definizioetan, askotxo daude-eta. Dena den, testuan zehar euskal kultura agertzen denean, uler bedi euskarazko kultura bezala. Gaiari buruzko eztabaidan sakontzeko, ikusi Iztueta, 2015.

mena. Horrek merezi du. Esperientzia horiek kristalizatzen dute izateko gogoia” (Goikoetxea, Zinkunegi, 2012). Azken finean, “... kultura izan liteke emozionalitate hitzuntzarekin fusionatzeko bidea” (Goikoetxea, Zinkunegi, 2012).

Horrez gain, badira, nire ustez, arrazoi prosaikoago batzuk. Batetik, herri askotan elkarteak sortu zirenean baziren hutsune nabarmenak euskarazko kultur gintzarentzat: kontzertu gutxi, hitzaldi gutxi, antzezlan gutxi eta abar. Eta, zentzu horretan, euskara elkarteek ikusi zuten hutsune hori betetzeko ahalegina egin zezaketela. “Herri oso erdaldunetan jarduten zuten elkarteek beharra sentitu dute euskarazko kultur ekintzak antolatzeke, herriko gainerako kultur eragileek ez zutelako euskara erdigunean” (D12). Beste alde batetik, kultur gintzan aritzeak ere ikusgarritasuna ematen zien elkartei eurei eta erraza zen eta da kultur gintza programatzea, behinik behin. “Herri euskaldunagoetan ere beste elkarte eta eragileetan eragin beharrean, euskara elkarte bera bihurtu zen kultur ekintzen programatzaile, nire ustez, euskararen normalizazioan eragitea baino errezagoa delako kultur jarduerak antolatzea: bertso afariak, euskarazko emanaldiak, antzerkiak, kantaldiak, ...” (D12).

Hortaz, hurbileko ehun eta harietan garatu dute euskara elkarteek kultur gintza. Jarraituko dugu Jon Sarasuaren berbak erabilia: “Euskaltasunaren etorkizuna neurri handi batean gertuko gizarte ehunean jokatzeko dela esaten jardun dugu. Gertuko gizarte-ehun horrek duen bizi-indar maila determinatzailea izango da euskal kultur gintzarentzat. Ez da kasu bera ingelesarena edo gaztelararena. Gizarte mediatizatu edo anomia-maila handiko batean hizkuntza handi horiek biziko dira, are gehiago, bere hegemonia aski ziurtatua dute. Euskararen zoria, aldiz, gertuko igurtziari eta ehunari lotuta dago neurri batean” (Sarasua, 2013: 265).

4.6.2.2.2 Jardunbidea

Bi aditzetan laburtu daiteke euskara elkarten jarduna kultur gintzan: programatu (kontsumitu ere izan zitekeen aditza) eta sortu (edo ekoiztu). Programatu, antolatu, kontsumitu. Orain arte hori izan da nagusi euskara elkarteetan, nahiz eta hasieratik sortzeari ere garrantzia eman. “Kultur arloari dagokionez, zeregin nagusia produkzio gintzan aritzea da. Gure lana lehendik norbaitek sortua duen produkzioa gurera ekartzea da, eta ez horrenbeste, eta oraingoz behinik behin, sorkuntzan buru belarri ibiltzea” (Aierbe, 1993).

Baina zer programatu dute euskara elkarteek? Denetarik, jakina. Antzerkia, musika, bertsoa, hitzaldiak, magia, ipuin kontalariak, txotxongiloak, literatura emanaldiak, diaporamak eta horien arteko hibridoak, eta ikuskizun bereziak. Denetarik, eta denetariko publikoarentzako: haur, gazte edo helduak.

Eta, gainera, ez da ahaztu behar jarduera honek, programatzeak, sekulako garrantzia izan duela euskara elkarteentzako. “Ez dago euskara-elkarerik kultur jarduerarik garatzen ez duenik. Jaso ditugun datuen arabera, batzuentzat oinarritzko lehentasuna edo lehen helburua da, beste batzuentzat lehentasunetako edo ardatzetako bat da, beste kasu batzuetan ez du inolako lehentasunik eta mota guztietako jardueren osagarri da” (Aierbe, 1993). Hortaz, ez da harritzekoa Topaguneak berriaz antolatu zuen lehen ekimena Kultur Errota izatea (eta, gaur egun, oraindik ere martxan ari dena).

Eta zer da Kultur Errota²⁶⁹? Kultur Errota da Topaguneak euskara elkarten esku uzten duen kultura jardueren zirkuitua, formatu txikiko emanaldiek osatua. Izan ere, helburu nagusia du euskaraz sortzen den kultura hedatu eta erakustea. Horren bidez, Topaguneak elkarten eskura jartzen ditu hainbat sortzaileen lanak (Topaguneak kudeatzen ditu eskaerak eta elkarten eta sortzaileen arteko harremanak) eta prezio merkeagoa lortzen du (diru-laguntzen bidez finantzatua den heinean). 1998an jarri zen martxan eta, gaur egun ere, indarrean dirau, aldaketak aldaketa.

Urteen poderioz, eta Kultur Errotak izan duen arrakastan oinarrituta, Topaguneak bestelako zirkuitu batzuk jarri ditu elkarten eskura: Laburbira eta Irakurri, gozatu eta oparitu lirateke nagusienak. Lehenak, 2004tik aurrera, urteko film laburren aukeraketa bat jartzen du elkarten eskura. Bigarrenak, berriz, irakurzaletasuna sustatzea du helburu. Horretarako, euskarazko liburu bat irakurri behar da (herriko liburutegian) eta ondoren iruzkin bat egin liburuari buruz. Horren truke, euskarazko beste liburu bat erosteko deskontu-txartela jasotzen du parte hartzaileak. 2007tik aurrera dago indarrean programa hau. Aipatu behar da azken programa honek sorburua izan zuela Ordiziako Hitzaro eta Basauriko Euskarabila elkarteek martxan jarritako programa banatan. Horiek hartu, moldatu eta beste elkarte guztiei eskaini zien Topaguneak.

Topaguneak ere jardun du zuzenean eta berriaz programaziogintzan. Batetik, haur eta gazteentzako kultur zirkuituak eratu ditu Bilboko udalerako (Ikusi eta

269 Adierazgarria da Kultur Errotak hasieran izan zuen leloa: *Biraka ari den harria, sorkuntzan ari den herria*.

ikasi, eta Harrapazank, hurrenez hurren). Bestetik, helduentzako kultur zirkuituak prestatu ditu Bizkaian eta Nafarroan, Udagoieneko ostera eta batbirulau, hurrenez hurren. Eta, azkenik, Durangoko Azokaren bueltan, Irudienea (ikus-entzunezkoen plaza) kudeatzen du.

Diskurtso mailan, elkarteek programatzeari baino, sorkuntzari eman diote garrantzia. “Kulturgintza parte-hartzailea sustatu nahi dugu, bazkideak eta herritarrek protagonista izango dituen” (Elgoibarko Izarra, 2014). “Orduan, gelditzen zaigun bide bakarra da ekoiztea. Eta, bueno, ez da txarra. Ez da txarra, ze horrela ere bai burua eta burmuina mugitzen dira, eta neuronak” (SE19). “Elkarteak izan behar du, beste gauza batzuen artean, sormenerako disposizio ikaragarri bat, sormenerako, edozein arlotan, ...” (SE05).

Esan dudan bezala, askoz gehiago programatu dute elkarteek sortu baino. Hala ere, elkarteek garrantzia kualitatiboa eman diote sortzeari eta horrek, nire ustez, eskatzen du azterketa xeheagoa. Izan ere, zer sortu dute elkarteek? Zertarako? Zelan? Ahaleginduko naiz galdera horiei erantzuten ... Hala ere, hasi aurretik, Jon Sarasuaren berba batzuk ekarri nahiko nituzke hona, euskarazko kulturgintzan sortzeak duen garrantzia ulertzeko. “Kontsumitzeko ona denaren uholde horretan euskaraz sortutakoak ez du lehiatzeko abantaila handirik. Hor lehiatzea ere beharrezkoa da, baina horrekin batera, komunitatearen sorkuntza-bideak dira guzua bezalako kulturen potentziala. Kulturgintzaren ehun herritarra, antzerki taldeena, musika eskolena, bertso eskolena, ikastetxeetako ekimenena, abesbatzena, gaztetxeena, dantza taldeena sustatzea. (...) Kulturgintza-eredu parte hartzailea, giza-sarea, igurtzi sozialaren dentsitatea, gizarte-ekimeneko erakundeen presentzia, ospakuntza komunitarioa ... oinarritzko elementuak izango direla dirudi euskaltasunaren biziberritzea, iraganean izan diren moduan, beste era batera, bai etorkizunean ere” (Sarasua, 2013: 265).

Batetik, elkarteek sortu dituzte zaletuen txokoak, hau da, gai baten inguruan egon daitezkeen zaleak batzeko eta trinkotzeko guneak. Gune edo txoko horiek, batez ere, bi arlo nagusitan izan dute eragina. Batetik, literaturaren inguruan sortutako irakurle klubak (euskara elkarteen abaroen sortu dira Getxo, Basauri, Santutxu, Gasteiz, Meatzaldea, Lizarra, Larrabetzu eta Deustuko irakurle klubak, besteak beste²⁷⁰). Eta, bestetik, kantuzaletasunaren inguruan sortutako kantuz tal-

270 Elkarteen abaroen sortu badira ere, kasu batzuetan talde hauek, gaur egun, funtzionamendu autonomoa dute.

deak (elkarteen abaroan sortu dira Deustu, Donostia, Iruñea, Gasteiz, Erandio eta Zamudioko taldeak, besteak beste²⁷¹).

Euskara elkarteek ere sustatu dituzte sormen eskolak. Esate baterako, euskara elkarteek hainbat herritan eratu eta sustatu dituzte bertso eskolak (Elgoibar, Arrasate, Deustu, Lasarte-Oria edo Urretxu-Zumarragan, adibidez). Bertso eskolez gain, antzerki eskolak ere eratu eta sustatu dituzte (Bilboko Kurkuluxetan²⁷² edo Derioko Kukuke antzerki eskolak). Azken urte hauetan, gainera, hainbat diziplinako sormen eskolak ari dira sustatzen euskara elkarteak (haien artean sendoena izan daiteke Gasteizko Geu elkarteak sustatzen duen Gazte sortegiak²⁷³).

Lehiaketak, bekak eta antzekoak ere paratu dituzte elkarteek. Adibidez, Arrasateko AED elkarteak urteetan bultzatu eta sustatu du Jokin Zaitegi itzulpengintza beka. Beka horren bidez, urtero literaturaren Nobel saria irabazten duen egilearen obra bat ekarri izan da euskarara. Basauriko Euskarabila elkarteak, berriz, urteetan antolatu du euskarazko literatura erotikoaren lehiaketa eta Txalaparta argitaletxeak argitara eman ditu sarituak izan diren lanak. Literaturarekin jarraituta, aipatzeko modukoa da Andoaingo Manuel Larramendi elkarteak antolatzen duen III Akademia²⁷⁴. Batez ere, nabarmentzeko modua da Akademia horrek urtero ematen duen saria. Sari horren bidez, irakurleek bozkatzten dute euskaraz urtean argitaratutako libururik onenak. Bozka gehien jasotzen duen liburuak saria jasotzen du. Bergarako Jardun elkarteak ere hasiera-hasieratik amodiozko gutun eta esaldien lehiaketa jarri zuen martxan (eta gaur egun jarraitzen du martxan). Elgoibarko Izarrak ere literatur lehiaketak jarri zituen martxan eta horiekin *Laiotz* izeneko aldizkaria argitaratu zuen urte batzuetan.

Musika arloan ere aritu dira elkarteak sustapen lanetan. Esate baterako, Tolosa eta inguruetak herrietako Galtzaundi elkarteak urteetan antolatu du Martxaundi programa. Programa horren bidez, 90eko urteetan eskualdeko talde eta musikari hasiberriei laguntzen zieten, musika grabatuz eta kontzertuak han eta hemen

271 Kulturgintzako zaletuen txoko hauen antzera, bestelako txoko batzuk sortu eta garatu dituzte elkarteek. Adibidez, mendizaletasunari lotutako taldeak (Gasteiz, Bilboko Alde Zahar eta Santutxu auzoetan, Hondarribian edo Txorierrin esate baterako).

272 Kurkuluxetan antzerki eskola izateaz gain, beste diziplina batzuk ere lantzen ditu: musika eta zirkua, nahiz eta jarduera nagusia antzerkigintzari lotua egon.

273 Gazte sortegiak programak lau sormen laborategi jartzen ditu martxan urtero: bertsolaritza, musika, antzerkia eta ikus-entzuzkoen laborategiak. Gasteizen antolatzen da 2016tik, Geu elkarteak sustatuta (beste hainbat elkarte ere hartzen du parte sormen programa honetan).

274 Euskal Herriko literaturazaleen bilgunea da 111 Akademia. Ia 200 irakurlek parte hartzen dute egitasmoan: liburuak irakurri, iruzkinak bidali eta urtero 111 Akademiaren Saria ematen dute. Horrez gain, akademiak berak euskarazko literaturaren gaineko webgune aberatsa kudeatzen du, euskarazko liburuen gaineko albiste eta iruzkinekin.

lortuz. Galtzaundi elkarteak, gainera, euskarazko komiki lehiaketa antolatu du urtero (Galtzakomik izenekoa), 2007. urtetik aurrera.

Aipatzekoa da, era berean, Durangon urte batzuetan Zilarrezkoak izenpean garatutako askotariko ekintzak, beti ere sorkuntzara zuzenduak. Igor Elortzaren berbetan, honako hauek osatzen dute ildo hori: “Kantuaren Kantoia (kantari eta zaleen arteko berbaldi-musikatu zikloa, kazetari bat gidari), Berbertan (kultur, gizarte zein politikari buruzko elkarrizketa zikloa, zeresan handiko elkarrizketa-etu eta elkarrizketatzaileekin), DF bertsoZALE eskola (bertsozaleei zuzenduriko dibulgazio saioak bertsolari, gai-jartzaile, epaile eta abarrekin), Kantulagun (jendea kanturako batzeko gunea, abeslari batek gidatuta), AIKO erromeria (jendea dantzarako batzeko gunea, Aikoko lagunek gidatuta) eta Zilar Astea (Durangoko deneriko guneeetan eta hainbat adierazpide artistikoren bidez garatzen den aste tematikoa)” (Elortza, 2012).

Jaia eta ospakuntzarekin lotutako ekitaldi bereziak ere eratu eta sustatu dituzte elkarteek. Izan ere, “... sormenak eta ospakuntzak dakarte berrikuntza, autokonfiantza, poza” (Topagunea, 2011). “Gure jardunak plazerak igurtzi behar du. Jendea erakarri behar dugu, baina ez euskararen alde dihardugulako bakarrik, egiten dugunak bizipoza ematen digulako baizik. Bete egiten gaituelako. Euskaldun egiten gaituelako” (Elgoibarko Izarra, 2014).

Zentzu horretan, aipatzekoak dira, adibidez, Amikuze aldeko Zabalik elkarteak antolatzen dituen Libertimenduak²⁷⁵: “Uste diat gazte jendearentzat, orain Libertimenduan pasatuak direnak-eta bizitzen dutenak gauza hori, eskuara hutszekoa, arnagune ixtorio hori eta denbora berean, zeren eta libertimenduaren egiteko bat da libertimenduen jarraitzaile bilakatzea” (SE25). Derioko Tximintx euskara elkarteak ere urte batzuetan antolatu zituen Herria Martxan Martxa Herrian izeneko ekitaldiak: “Taldea kultural askok parte hartu zuten eta gurekin egin zuten euskaraz horrelako ekitaldi bat jaietan eta oso erantzun ona eduki genuen” (SE11). Edo Elgoibarko Izarrak antolatzen duen Euskarak 365 egun ekitaldia: “Guk bakarrik gauzak antolatzen eta gauzak prestatzen, 365ekin oso garbi ikusi genuen hori ez zela gure kontu bat izan behar. Aprobetxatu behar genuela ekimen hori, ideia hori, gure lokaletik irten eta herriko gainontzeko elkarte, erakundeekin lankidetzan jarduteko” (SE04).

275 Dantza, antzerkia eta bertsoa biltzen dituen inauteri edo aratuste garaiko sorkuntza moldea da Libertimendua.

Jaia eta ospakizunei lotutako ekitaldi hauetan guztietan, bi kontu nabarmenduko nituzke. Batetik, kasu guztietan parte hartzeak duela garrantzia, parte hartzeak, prozesuak. Eta, bestetik, elkarlanean egiten dituztela hauek guztiak elkarrekin: elkarlanean beste hainbat elkarrekin, mugimendu, artista eta abarrekin. Gainera, hau guztia bat dator 2012an euskara elkarrekin onartutako eraldabideren batekin: “Hormarik gabeko egitura behar dugu: plaza; hotz eta bero handiagoa pasatu arren, batzuetan busti arren. Plazan egiten duguna herri osoak ikusiko du eta herriko bizitzan bertatik bertara eragitea errazagoa izanen dugu. Errazago egokituko gara XXI. mendeko gizarte eredura” (Topagunea, 2012: 5).

Topaguneak ere programatu aditza gehiagotan jokatu du sortu aditza baino. Hala ere, sormena bultzatzeko ekimenik eta programarik egin du Topaguneak. Esate baterako, urte batzuetan antolatu zuen Spraikada izeneko grafiti lehiaketa (zehazki, 2003tik 2012ra) edo Kameratoia izeneko film laburren lehiaketa²⁷⁶. Horrez gain, azken urteotan sustatu duen Benito Ansola saria (2010etik). Sari horren bidez, ikus-entzunezkoen ekoizle gazteei laguntza ematen die Topaguneak, bi urterik behin, Lekeitioko Euskal Zine Bilerarekin elkarlanean.

Teorikoki ere landu du Topaguneak kulturagintza. Horren adibide da 2015eko urtarrilean antolatutako jardunaldia. “Kultur komunitate bizia: zein da eragile euskaltzaleon egitekoa?” lelopean, hainbat gairen inguruan jardun zuten hara bertaratutakoek²⁷⁷: kulturagintzaren funtzioa hizkuntza komunitatearen garapenean, euskara elkarrekin kulturagintzan duten egitekoa, elkarrekin kulturagintzako ekin-tzen ezaugarriak eta esperientzia zehatzen inguruan jardun zuten.

276 Zehazki, ikus-entzunezkoen rally-a da. Parte hartzaileek 48 orduan eta gai baten bueltan ondu behar dute film labur bat.

277 Hauxe izan zen Topaldiaren egitarau osoa:

I.- Zer garrantzia eta zer funtzio du kulturagintzak euskararen eta euskaldunon komunitatearen garapenean?

Hizkuntza, kultura, elikadura eta sormena Lorea Agirre
Guk gEURE kulturaz Gotzon Barandiaran
Mahaingurua Alberto Barandiaranek gidatua

II.- Zer egiteko dute tokian tokio eragile euskaltzaleek kulturagintzan?

Komunitate-atea: Igor Elortza
Euskara, euskara eta kultura Zumaian Xabier Azkue
Azpeitiko Kultur Mahaia Kepa Urbieta
Astra kulturarako fabrika soziala Gernikan Andrea Aiape eta Ariane Ensunza

III.- Nolako izan behar du eragile euskaltzaleen kultur jarduerak? Ezaugarriak eta kultur jarduera komunitarioen adibideak

Djak, Lukuren libertimendua eta kulturagintzaren aktore sorta Eneko Barberena
“Kooltur ostegunak” ekimena Arrasaten Iker Barandiaran
“Kultura sareten” Lasarte-Orian Mari Karmen Ormazabal, Ttakun euskara elkarrekin
Bertsolaritzaren transmisioa Lapurdin. (Taldea) identitate eraikiz euskaratik eta euskaraz Miren Artetxe

Horrez gain, handik urtebetera Jalgi izeneko jardunaldiak antolatu zituen Topaguneak, Laudion. Oraingo honetan kulturaren plaza deitu zioten ekitaldiari eta, jardun teorikoaz gain, egun osoko kultur egitarau oparoa²⁷⁸ antolatu zuten Laudioko hainbat oholtzatan. Alderdi teorikoari gagozkiolarik, bi gai nagusi landu zuten: batetik, euskarazko kultur lanak hedatzeko eta zabaltzeko zailtasunen gainean aritu ziren eta, bestetik, kultur sorkuntzaren transmisioa hobetzeko bideen gainean aritu ziren.

4.6.2.3 Haur eta gazteak

Haur eta gazteei begirako ekintzak²⁷⁹ egin dituzte elkarteek, hasieran, tartean, baita gaur egun ere. Ekintza horiek, batez ere, aisialdiari lotutako alorrean garatu dituzte, garatu ere. Jarduera jarraiak izan dituzte, aisiari lotuta, batez ere elkarteek. Bestelako jarduerak, puntualagoak ere garatu dituzte eta, gainera, kasu batzuetan gazteen auto-eraketa ere bultzatu eta sustatu dute. Alor honetan ere, praktikak askotarikoak izan dira han eta hemen, askotarikoak eta ugariak.

4.6.2.3.1 Zergatik jardun dute alor honetan elkarteek?

Haur eta gazteen aisialdia funtsezko jardungune bilakatu da euskararen aldeko mugimenduarentzat eta, bereziki, euskara elkarteentzat. Zergatik? Zergatik eman zaio horrenbesteko garrantzia alor honi? Zertan oinarritu dira euskara elkarteak gai honi zentraltasuna emateko?

Teoria soziolinguistiko itxi eta oso bat baino, badirudi bestelako intuizio edo kezketatik abiatuta hasi dituztela lanketak elkarteek: “Euskal soziolinguistika maila teorikoan maila aplikatuaren gibeletik joan da eta euskara-teknikariek, hizkuntza-dinamizatzaileek nahiz haurren euskararen erabileraren sustapenean diharduen eragile orok bi hamarkada luze daramatzate hizkuntza-transmisioaren alorrean lanean teoria soziolinguistiko egoki baten itzalik gabe” (Kasares, 2017). Hala ere, horrek ez du esan gura, nire ustez, oinarri teoriko barik jardun dutenik. Osoagoa behar zuela oinarriak, bai, baina oinarri barik jardun dutela esateraino, nire ustez ez.

278 Antzerkia, arte plastikoak, musika, literatura, dantza, bertsolaritza eta ikus-entzunezkoak izan ziren Laudion 2016ko maiatzean.

279 Topaguneak eta hainbat euskara elkarteek aisialdi programak esamoldea erabiltzen dute haur eta gazteei begirako jarduerak izendatzeko. Hala ere, haur eta gazteei begirako jarduerak erabiltzea nahiago izan dut. Izan ere, elkarte askotako jarduna deitzeko programa berba larregizkoa dela begitantzen zait.

Izan ere, aisialdiak duen garrantzia behin eta berriro azpimarratu dute elkar-
teek. Azken finean, haur eta gazteak dira etorkizuneko hiztun helduak eta ho-
rrek berebiziko garrantzia du hizkuntza baten bizitzaren eboluzioan. Parte batez,
hiztun komunitate baten etorkizuna haur eta gazte horiek hizkuntzarekin duten
harreman, sinesmen, praktika eta portaerekin lotuta dagoela ulertu dute elkar-
teek (eta, horren arabera, jokatu).

Eta, gainera, aisialdiak aukera hobeak dauzka eragiteko eskolak baino. Aritu,
bestela, *Etorkizuna aurreikusten* ikerketaren arduradunek ziotena: “Ezbairik gabe,
gure gizartean denbora libre garrantzi handiko denbora da gazteentzat. Izan ere,
ikasketekin edo bestelako betebeharrekin okupatuta ez dagoen denbora izanik,
aukera ematen die gazte-garaian oso premiazkoa den beharrizan bati erantzuteko:
norberaren subjektibitatea garatzea eta modu librean adieraztea. Horrela, eskole-
tatik eta gainontzeko eginbeharretatik kanpo gelditzen zaien denbora libre be-
zala definituta aisialdia, aisialdiko denbora horretan bere harremanak, zaletasunak
eta bete nahiak lantzeko aukera dute. Seguru asko, aisialdi momentu horiek euren
barneko nahi, balio eta desioak adierazteko aukera bezala ikusten dituzte; auke-
ra gauzatua edo frustratua izango dena, inguruan topatzen edo sortzen dituzten
harreman, jarduera eta eskaintzen arabera” (Berrio-Otxoa, Martinez, Hernandez,
2003). Elena Herrartek ere antzekoa dio: “Hizkuntzaren ikuspegitik, ordea, egun
jakina da hainbat hizkuntza ohitura aisialdi momentuetan gauzatzen direla. Ai-
sialdian egoten baikara erosoan gure bizitzako edozein erabaki hartzeko; azken
batean, nahi duguna egiteko ditugun momentuak dira aisialdikoak” (Herrarte,
2007).

Aukera hobe horiek gehiago zehazten ditu Estepan Plazaolak: “Esparru egi-
turatua da eta horrek eragiteko aukera oso egokiak zabaltzen ditu. Harremanaren
edukia nahiko indartsua da, jarduera ludikoa (gustagarria) izan ohi da gehienetan.
Haurren arteko harremanak eskolan baino libreagoak dira” (Plazaola, 2007).

4.6.2.3.2 Jardunbidea

Premisa horietatik abiatuta, zer lan egin dute elkar-
teek haur eta gazteekin? Zer praktika? Zer esperientzia? Horiei guztiei erantzuna ematen saiatuko naiz
hurrengo lerrootan.

Oraingoan ere Arrasate izan zen bidegile. 1988an hasi zen AED elkar-
tea aisial-
dia lantzen. Elena Herrartek kontatzen duenez, “... 1988. urtean lehen liberatua

izan zuen egun Txatxilipurdi izenarekin ezagutzen dugun proiektuak AEDren baitan. Uztaileko udaleku irekiak izan ziren antolatu zen lehen ekintza, herrian B ereduko neska-mutilek eskola orduetatik kanpo euskara erabil zezaten bilgune edo espazioak sortzeko helburuaz” (Herrarte, 2007).

Arrasate bidegile izan zen eta, hein batean, ostean etorriko zenaren eredu ere. Izan ere, Arrasatek markatu zuen bidea: aisialdi une eta gune profesionalak sortzea eta eratzea. Eta, horren ondorioz, euskara elkarteek kudeatu dituzte aisialdi programak (udaleku irekiak, aisialdi eskaintzak larunbatetan, hizkuntza errefortzuak, ...), baina baita aisialdi espazioak ere (udalekuak, ludotekak eta gaztelekuak, batez ere), Arrasateko Txatxilipurdi elkarteak²⁸⁰ irekitako bidean. Maialen Arnedok honela laburbiltzen du Elgoibarko Atxutxiamaika taldearen ibilbidea (beste hainbat elkartetara ere estrapolatu daitekeena): “Atxutxiamaika aisialdi taldeak aisialdirako eskaintza proiektuak eramaten ditu aurrera esku hartze euskalduna oinarri izanik eta modu honetan, euskararen erabilera sustatzeko prozesuak martxan jarririk” (Arnedo, 2014).

Hortaz, elkarteek aisialdi arloan jorratutako bide gehiena zerbitzugintzari lotua izan da, zerbitzugintza profesionalizatuta, gainera. Eta horrek zaildu du hainbat elkartek bide hau hartzea. Marije Manterolak honela dio: “Haur eta gazte eremua ez da, oro har, elkarteek lehen momentutik duten lehentasuna. Udalak gai honekiko duen jarrerak ikaragarri baldintzatzen du elkartearen jarrera” (Manterola, 1993). Horrek, gainera, aje eta arrisku batzuk ekarri ditu berekin, nagusiena, agian, udalen azpi-kontrata merkea bihurtzearena. “Batuetan udalak aprobetxatu egin dira eta euskara elkarteak azpi-kontrata merke bezala tratatu dituzte. Eta horrek, jakina, ajeak eta menpekotasunak dakartza” (SE04). “Udalak beti kontatu du gurekin zerbitzu bat moduan. Baina ez eragile bat moduan iritzia galdetzeko. Eta beti izan da, interesatzen zaigu hornitzaile bezala zuekin harreman izatea” (SE19).

Gainera, profesional ez ezik, osotasunean eragiten ere saiatu dira elkarteak. Marije Manterolak dioenez, “... gehiegitan ekintza soilak bideratzen dira. Lehen-dabiziko erabakiak azterketa eta ezagutza nahikorik gabe hartzen dira. Behin-behineko ekintzak izateaz gain, normalkuntzarako alor bakarra ikuitzen badugu, errenka dihardugu. Haur alorrean lan egiterakoan, berebiziko garrantzia du osotasunezko eragina ardatz bihurtzeak. Ez da nahikoa haurrentzako ekintza puntualak eta partzialak antolatzea” (Manterola, 1993). Hasierako urteetan, antza, ekintza

280 Txatxilipurdi elkartea 1994an AED elkartetik autonomo bihurtu zen. AEDk momentu batean erabaki zuen bere azpi-sailak autonomo bihurtzea eta horrela sortu ziren ARKO (hedabideei lotua, gero *Goiena* bihurtu zena beste hainbat hedabiderekina batera), Txatxilipurdi eta Ekin (emakumeak eragiten duen arloetan lan egiten duena).

soilak bideratzen ziren, baina gerora alor hau osotasunean lantzeko hautua egin zuten elkarte gehienek.

Profesional jardun dutela esan badut ere, aintzat hartu behar da aisialdiaren sektorea oso sektore ahula da. Ahula, batez ere, prekarietatea oso handia delako. Ikus dezagun elkarrizketatu batek dioena horren inguruan: “Pixka bat, aisialdian guk hori bizi izan dugu. Badago desbirtuazio potente bat. Eta gainera euskaraz. Eta gainera hezitzaile asko emakumeak dira. Eta gainera ez dauzkagu azpiegitura patxadazkoak. Eta gainera, merkea, eta...” (SE22).

Izan dira beste aje batzuk honi lotuta, esate baterako, bazkide eta bezero kontzeptuen arteko nahasketa. Honela azaltzen du egoera hau labor eta zehatz elkarri-riketatu nuen batek: “Nik bi seme-alaba baldin badauzkat eta apuntatu behar baditut udalekuetan, esaten dut egingo naiz bazkide ze horrela merkeago aterako zait. Orduan, sortzen duzuna da klientelismmo moduko bat. Hori ez da bazkide bat, hori da bezero bat fidelizatzen duzuna horrelako gauza baten bidez. Zerbitzu hori behar ez duenean, baja emango du” (SE14).

Zerbitzu profesional eta osatu hauekin batera, bestelako egitasmo puntuala-goak eratu dituzte elkarteek eta, batez ere, Topaguneak. Haien artean, aipagarriena izan daiteke talentu lehiaketena. Donostian edo Arrasaten elkarteek eratu dituzte mota hauetako lehiaketak, Izarrak plazara izenarekin Donostian. Arratian, Txorierrin, Bilbon edo Erandion ere tankera honetako lehiaketak antolatu izan ditu Topaguneak.

Euskara elkarteek, baina, zerbitzuetan aritu arren, beti izan dute helburu euskararen erabilera suspertzea euren programetan parte hartzen zuten haur eta gazteekin. Eta, bide horretan, trabak eta oztopoak aurkitu dituzte. Izan ere, ez da horren erraza helburu hori lortzea. “Aisiako ekintzetan eta kiroletako jardueretan, adibidez, maiz jartzen da helburu moduan euskararen erabilera bultzatzea, baina sarri askotan begiraleek eta entrenatzaileek ez dute jakiten nola landu” (Ttakun, 2007a). Traba eta oztopo horiek gainditzeko, elkarteek ekarpenak egin dituzte eta haien artean, batez ere, Lasarte-Oriako Ttakun elkarteak. Elkarte horrek argitara ekarri ditu ekarpen horiek bi arlotan: *Hezitzaileek asko egin dezakete* (Ttakun, 2007b) eta *Begiraleek asko egin dezakete* (Ttakun, 2007a). Nire ustez, merezi du apur bat ekarpen horietan labor-labor sakontzea.

Bi lan hauen helburua da euskararen erabilera sustatzeko tresnak hezitzaile edo begiraleen esku jartzea. Begiraleen kasuan, 12 urte bitarteko haurrentzat

eta, hezitzaileen kasuan, 12tik 18 urtera arteko gaztetxoentzat. Kasu bietan, esku hartu beharreko taldearen hizkuntzazko diagnosia egiten da, erabilera-urrats batzuk adostu edo erabakitzen dira eta, azkenik, urrats horiek aurrera eramateko interbentzioak egiten dira. Horrez gain, hainbat egoera kudeatzeko, tresnak eta praktikak eskaintzen dituzte liburu biek. Hortaz, praktika hauen bidez, zer gertatzen den ulertzeko gakoak ematen dizkiete begirale zein hezitzaileei eta gertatzen dena eraldatzeko tresna posible batzuk eman.

Horrez gain, Lasarte-Oriako Ttakun elkarteak bestelako egitasmo batzuk landu ditu ume eta gazteen artean euskararen erabilera sustatzeko. Batetik, motibazio saio batzuk landu dituzte, Maita nazazu gutxiago eta goza nazazu gehiago izenpean. Beste alde batetik, Kuadrillategi egitasmoa²⁸¹ ere jarri zuten martxan (beste herri batzuetan ere bai: Elgoibarren, Bergaran edo Pasaian, esaterako, elkarteek martxan jarritakoak aipatzearren).

Zerbitzuetan aritu dira euskara elkarteak eta zerbitzu horietan saiatu izan dira beti balio batzuk transmititzen euskararekin batera: “bizikidetzeta, parte hartzea, aniztasuna, inklusioa” (SE22). Azken finean, elkartearen jarduna ez da ezberdindu gehiegi besteen eskaintzatik, hizkuntzagatik ez bada ere (eta zenbait lekutan ezta hori ere). Dena den, urteekin euskara elkarte batzuek eta Topaguneak beste bide bat hartu eta herri hezitzaileen²⁸² filosofiara hurreratu dira, beste eragile batzuekin batera. Eta zertan datza, labur, paradigma aldaketa hau? “Haurren hezkuntza eta aisia beste modu batean zitezkeela” (Herri hezitzailea, 2015) pentsatu zuten eta horri ekin. Horretarako, honela formulatu zuten euren lan-eremua eta helburua: “Jolasa eta sormena ikasteko eta garatzeko berariazko tresnatzat dituen haurren kultura aitortzea; hori oinarri hartuta, haurrei benetan parte hartzeko eta erabakitzeko ahalmena ematea; eurek eraikitako aisia hezitzaile eta euskaldunaren bitartez, aniztasunean berdin eta parekide izanez eta ingurumen naturala eta kulturala zainduz, komunitate-sarea eta auzolana indartzea, eta pertsonen arteko harreman osasuntsu, justu eta asegarriak jostea” (Herri hezitzailea, 2015).

Zentzu horretan, Topagunea ere saiatu da ekarpen teoriko eta praktikoa egiten haur eta gazteen aisialdian. Bide horretan bi urtetan antolatu du gai honen gaineko jardunaldiak Topaguneak: batetik, 2006an *Aisia euskaraz bizi*²⁸³ izeneko

281 Kuadrillategi egitasmoa zertan den gehiago jakiteko, Kuadrillategi ikerketa eta aholkularitza elkarteak ateratako liburuxka bat begiratu beharko litzateke, adibidez (Kuadrillategi, 2004).

282 Francesco Tonucci ikertzailearen teoriari jarraituta sortu da delako filosofia hori. “Haurren hiria” (Tonucci, 2013) liburuan jasotzen dira bereziki teoria horien oinarriak. Euskal herrietan izan duen bilakaera eta sakonera ezagutzeko, ikusi Hik Hasi, 2013.

283 Jardunaldi hauetan Topaguneak aurkeztu zuen “Abian gidaliburua” (Topagunea, 2006). Liburu honetan haur eta gazteen aisialdi programak antolatzeko oinarritzko laguntza eta marko teorikoa eskaini nahi zien alor horretan jardun gura zuten elkarteek.

jardunaldiak eta, bestetik, 2012an *Jolasa baino gehiago*²⁸⁴ izenekoak. Bi jardunaldi hauetan Topaguneak, batez ere, eredu praktikoak eta gertukoak eskaini nahi izan dizkie elkartei, ahaztu barik ekarpen teorikoa.

Orain arte haur eta gazteen arloa batera landu dut, baina, egia esan, badira bien artean berezitasun txiki batzuk. Edo, hobeto esanda, gaiak zenbait kasutan ezberdin landu dituzte elkarteek. Hortaz, hurrengo lerroetan haur eta gazteen arloan egon diren ezaugarri bereziak aletuko ditut.

Haurrei dagokienez, kasu batzuetan gurasoekin ere egin dute lan euskara elkarteek. Adibidez, Getxon Sendi proiektua izan du martxan Bizarra Lepoan elkarteak. “Parkeetan jolasteko saiokin hasi ginen eta hasi ginen euskaraz hitz egiten zuten gurasoekin bakarrik lanean, asteburu pasak egiten euskaraz berba egiten duten familientzat. Nolabait, lau hilabetetik behin edukiko duzu inmertsio asteburu bat kirolarekin lotuta, nolabait indarra, energia, gasolina emango dizuna etxean ere euskaraz egiten jarraitzeko” (SE09). Honen tankerako beste ekimen batzuk egin dira, Basaurin (Familian euskaraz izenarekin), Gasteizen edo Iruñean, baina, egia esateko, elkarteek gutxi esploratutako bidea izan da hau. Arrasateko Txatxilipurdik ere gurasoak izan ditu helburu. Eta, zentzu horretan, aipagarria da guraso.eus webgunea. 2008an sortu zuen elkarteak eta helburu du gurasoen premiak asetzea euskara hutsezko webgune baten bidez. Hainbat gairen inguruko informazioa dakar webguneak, gurasotasunarekin harremanetan beti ere.

Gazteei dagokienez, berezitasunak gehiago eta sakonagoak izan dira. Alde batetik, euskara elkarte batzuek gazteen taldeak sortu dituzte (adibidez, Bizkaian Basauri, Durango, Deustu edo Erandion, eta Gipuzkoan Elgoibar, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza edo Bergaran). Jabier Ozaetak honakoa zioen gazte talde hauen inguruan: “Gure elkarteetako gazteei tresnak eman behar dizkiegu beraiek protagonismoa eta inizatiba hartu dezaten, ardurak banatu eta beraien gustuko ekintzak burutu ditzaten. Gazteek eurek, inork baino hobeto dakite zer egin beraien aisialdiko egonezina kontsolatzeko eta bide batez euren helburu bat aurrera ateratzeko nola uztartu energia hori” (Ozaeta, 1993). Horri lotuta, honako hau ere aipatzen du Jabier Ozaetak: “Elkarte batentzat orokorrean eta Gazte Sail baten-tzat zehazki, garrantzitsuagoa da pertsonen estruktura iraunkorra osatzea, ekintzak egitea baino, zeren inprobisatutako ekintzek nahiz jende asko parte hartzera

284 Jardunaldi hau Gasteizen egin zen eta bertan bost euskara elkarte aurkeztu zuten euren aisialdi arloko jarduna: Arrasateko Txatxilipurdi, Atarrabiako Karrikaluz, Getxoko Bizarra Lepoan, Durangoko Berbaro eta Gasteizko Geu euskara elkarteak, hain zuzen ere.

mogitu, hilkorrek dira eta ez dute giza estruktura edo antolakuntzarik sortzen. Alderantziz, ordea, giza estruktura batek ekintzak sortzen ditu” (Ozaeta, 1993).

Xabier Uriartek aztertu zituen horietako hiru talde 2016an (Uriarte, 2016). Ikusiko ditugu labor Xabier Uriartek ateratako ondorioak. Xabier Uriartek Arrasateko *Ttak*, Bergarako *Txikupleittuak* eta Eskoriatzako *Ixotu* taldeak aztertu zituen. Talde hauek, diferentziak diferentzia, euskararen erabilera areagotu gura dute nerabe hauen artean. Horretarako, autonomo funtzionatzen dute interesa duten gazteek, baina dinamizatzailer baten laguntzarekin. Azken finean, helburua da gazte hauek euren inguruneetan eredu bihurtzea eta euskararen aldeko akuilu lana egitea. Talde hauek, hala ere, zailtasun nabarmenak izan dituzte. Batetik, jarraitkortasuna. Oso zaila da adin batetik aurrera talde hauetan parte hartzen duten gazteek jarraitzea (etena, antza, batez ere unibertsitateak dakar). Eta, bestetik, askotan lagun-talde baten inguruan eratzen dira taldeak eta beste gazte batzuk ez dira ezta hurbiltzen ere.

Talde hauek, gainera, bat datoz euskara elkarteetan zenbait balio edo printzipioekin: ardurakidetasuna, autonomia, auto-eratzeta eta abar. “Ikusten genuen gazteek beraiek ez bazuten antolatzen, kanpotik guk ezin genuela deus egin” (SE24). Honi lotuta, aipatu daiteke euskara elkarteek eta Topaguneak urteetan Euskal Herria Zuzenean²⁸⁵ musika-jaialdiarekin izan duten harremana. Urte askoan joan dira euskara elkarteko kideak jaialdira elkarrekin eta parranda eta lana uztartu dute jaialdiak irauten zuen egunetan.

Talde horiez gain, bi elkartetan gutxienez ikasleen euskara batzordeak eratu dituzte, 16-18 urte bitarteko gazteekin (Deustun eta Gasteizen). Ikasle batzorde horien helburuak dira gazte taldeen antzekoak, alegia, partaide diren kideen artean euskararen erabilera indartzea eta finkatzea, inguruko gazteengan eragitea eta gazteagoentzat erreferente eta eredu bilakatzea.

Urte batzuetan, gainera, Topaguneak antolatuta hainbat herritan egin dira gazteentzako ikastaroak. Kultur errotaren antzeko funtzionamendua zuten ikastaro hauek. Hau da, Topaguneak emaleak bilatu eta euskara elkarteetan eskuetan jartzen zuen ikastaro eskaintza, merkatu prezioetik behera, Topaguneak jasotzen zituen diru-laguntzen ondorioz.

285 Euskal Herria Zuzenean Ipar Euskal Herrian 1996tik antolatzen den musika-jaialdia da. Jaialdi militantea da eta balio batzuen inguruan antolatzen da: euskara eta euskal kultura, antikapitalismoa eta altermundialismoa, ekologia eta garapen iraunkorra.

Atal honekin amaitu aurretik, aipatu behar dut euskara elkarteek haur eta gazteen artean euskararen erabilera sustatzea zutela helburu, baina ez hori bakarrik. Izan ere, elkarteek ere bilatzen zuten aisialdi programa hauetan parte hartzen zuten begirale eta hezitzaileengan eragitea. Eragitea eurak ere bilakatzeko euskararen arloan erreferente. “Umeekin lan egiteko hezitzaile mordo bat hartzen genuen. Hezitzaile horiekin sortzen zen konplizitatea, hezitzaile horiek elkartearekin lortzen zuten lotura-eta oso-oso inportantea da. Ez zen kontua bakarrik umeekin zer egiten genuen, baizik eta hezitzaile horiengan zer lortzen genuen” (SE03). “Guk begirale ikastaroak antolatzen genituen eskualdean euskaldunak gehitzeko helburuarekin. Euskaldun kontzientek, ez euskara dakitenak bakarrik” (SE20).

Hari horretatik tiraka, elkarrizketatu dudak batek honakoa gehitzen zuen: “Kuadrillategin engaiatu ziren lehendabiziko gazte horiek engaiatu ziren gurekin pentsatuz beraien lana haurrekin zela, euskaraz aritzea eta abar. Gerora konturatu ziren gure helburua ez zela hori. Gure helburua zen haiei aitzakia ematea euskaraz bizi zitezen. Eta, orduan, hasi ginen lehendabiziko sarea sortzen gazteei ardurak ematen eta ardurak uzten, eta autonomia osoa. Aizue, zuek asumitu. Gu hemen gaude, baina zuek zarete” (SE10). Izan ere, elkarteek ere izan dute asmoa begirale eta hezitzaile hauek etorkizunean euskara elkartearen mugimenduko kide bihurtzea. “Eta, ahal bada, ondoko belaunaldian prestatu jende zenbait, bederen, bide horretan sarzeko” (SE25). “Gure asmoa litzateke, nolabait, noizbait trasposoa egitea jende gazteari eta hola” (SE23).

4.6.2.4 Erabilera programak

Elkarteek beti izan dute erdigunean erabilera, baina hasierako urteetan, zelanbait esanda, zeharka lantzen aritu ziren. Gerora erabilera zuzenean sustatzera ere pasatu dira elkarteak, batez ere, bi ekintza-motekin: mintzapraktika programak eta aktibazio programak (aktibazio indibiduala zein kolektiboa).

4.6.2.4.1 Zergatik jardun dute alor honetan elkarteek?

Elkarteek beti izan dute argi, hasiera-hasieratik, erabilerak erakusten duela ondoen hizkuntza baten bizitasuna. Eta, gainera, elkarteek hasieratik ere izan dute erreferente Txepetxen teoria, eta hark hizkuntzen ikaskuntzan zehazten zituen hiru faktoreak: motibazioa, ezagutza eta erabilera. Gainera, Oskar Zapatak dioen bezala, “... erabilera askeko guneak euskalduntzea lehentasunezko gaia da,

batetik neurri handi batean hizkuntzaren transmisioa (familia, lagunartea, ...) horietan gertatzen delako, eta bestetik hizkuntza komunitatearen konpaktaziorako bidea bertatik hasten delako (familia, lagunartea, auzokoak, elkarteetako lagunak, ...)" (Zapata, 2007).

Erabilera programa hauek, gainera, gune askean gertatzen dira eta izaera ez-formala dute eta hori bat dator Pello Jauregik plazaratutako gogoeta batekin: "Gure irudikoz, euskarazko erabilerak ez du aurrerapen nabarmenik ezagutuko, baldin eta gizarte multzo handiek, eskolaz gain, ez badute euskarazko esperientzia luze eta sakonik talde informalen batean, dela talde hori familia den, dela sare horizontaleko talderen bat den. Berezko talde informal horietan garatzen baitira benetan hizkuntzazko erraztasuna, atxikimendua eta ohitura" (Jauregi, 2003).

Erabilera sustatzea, gainera, norbanakotik hasten da (nahiz eta izari sozial eta kolektiboa izan helburu). Idurre Eskisabelek dioen modura, "... norbanako bakoitzaren borondatean, erabakimenean, burujabetzan hasten da erabakitze eskubide kolektiboa" (Eskisabel, 2018).

4.6.2.4.2 Jardunbidea

4.6.2.4.2.1 Mintzapraktika programak

Zer dira programa hauek? Topaguneak 2005ean ateratako gidaliburu batean horrela definitzen dituzte programa hauek: "Erabilera programek lagun euskaldunak eskaintzen dizkiete euskara ikasten ari direnei, ikasi dutenei edota hitz egiteko aukera gutxi dutenei" (Topagunea, 2005). Iñaki Martinez de Lunak, berriz, beste definizio hau ematen du: "Mintzapraktika programaren oinarria da euskaraz hitz egiteko zailtasuna zein ohiturarik eza duten edo solaskide egokirik ez duten pertsonak modu antolatu eta sistematikoan elkartzea euskaraz aktiboak diren hiztunekin" (Martinez de Luna, 2016). Herririk herri programa hauek izen ezberdinak hartu dituzte: mintzalagun, berbalagun, mintzakide, solaskide, solas-gune, elekide, tertuliak eta abar.

Abian jarritako lehen programa Donostiako Bagera elkarteak jarri zuen martxan 1993an. Programa hauen metodologia "Tandem estiloko hizkuntzen elkar-trukerako bikoteen ideiatik abiatu" (Fiz, 2007) zen. Horren ondoren, Arrasate, Lasarte-Oria eta Getxon sortu ziren programak. 2000ean, berriz, bulkada indartsua jaso zuten programa hauek. Izan ere, urte horretan Berbabarri programa martxan

jarri zuten Bizkaian Topaguneak, AEK-k, Uztarri euskaltegiak eta Bizkaiko Foru Aldundiak. Horrek bizkortzea ekarri zien programa hauei.

2005ean, berriz, Topaguneak argitara eman zuen programa hauek martxan jartzeko eskuliburua eta urte berean AEK-k, IKA-k eta Topaguneak elkarrekin antolatu zituzten jardunaldi batzuk, “Mintzapraktika egitasmoak: erabileran eragiteko tresna eraginkorrak” izenarekin. Handik urtebetera, Topaguneak Eusko Jaurlaritzarekin hitzarmena sinatu zuen programa hauek garatzeko (Bidaide plana izena izan zuen). Orduetik, programa horiek egonkortu egin ziren eta 2017an, esate baterako, 6.000 pertsona inguru aritu ziren programa hauetan parte hartzen hainbat eta hainbat euskal herritan.

Zeharo interesgarria da galdetegia bete duen aditu batek honen inguruan dioena: “Gogoan dut mintzalagunaren sorreran kuadrillategi²⁸⁶ edo mintzalagunaren alde egiteko egon ginela. Adituen ikuspegitik, zalantza barik, kuadrillategik askoz helburu egokiagoak zituen jarrera eta erabilerari zegokionez. Hizkuntza ohiturak aldatzea zekarren, ingurune hurbilean gainera. Helburu egokiagorik ezin. Guk mintzalagunaren alde egin genuen hutsuneak zituen egitasmoa izan arren, askoz errazagoa, arinagoa eta kolektibo handi bati hobeto erantzuten ziolakoan. Begira batek egin duen ibilbidea, eta besteak zein (Donostian 400 lagun urtero). Mintzalagunak lortu du nolabaiteko trinkotzea (ez da hurbiltzen inondik inora kuadrillategiren bidez lortuko zen horretara) eta oso baliagarri izan zaie asko eta askori” (D03).

Baina zertan datza zehatz programa hauen funtsa? Bi motatako parte hartzaileak daude. Batetik, esan dudan bezala, euskaraz bizitzeko ohiturarik ez dutenak: egunerokoan beren inguruan hitz egiteko aukerarik ez daukatena, euskara ikasten ari direnak, aspalditik euskaraz hitz egin ez eta jariotasuna berreskuratu nahi dutenak... (Topaguneak proposatutako terminologian, hauek lirateke bidelari). Eta, bestetik, euskaraz aritzeko ohitura dutenak, zailtasunak dituzten euskaldun horiei lagundu nahi dietenak (Topaguneak proposatutako terminologian, hauek lirateke bidelagun). Eta zer egiten dute? Mintzapraktika egitasmoak aisialdiko jarduerak dira. Mintzalagunak bospasei laguneko taldeetan biltzen dira, astean ordubetez, kafetegian zein parkean. Elkartu eta euskaraz aritzen dira, eurek nahi duten gaiaren inguruan. Azken finean, lagunartean aritzen dira, giro atsegin,

286 Kuadrillategi egitasmoa hainbat herritan jarri da martxan, hala ere. Hauxe da programa hauen funtsa bi berbatan: gazteentzako aisialdi programa berezi bat da, baldintza bakarra duena: jarduera guztiak euskara hutsez egingo dira eta gazteen artean diren hartu-eman guztiak ere euskaraz izan behar dira derrigorrez. Sakonago ikusteko programa hauen funtsa eta marko teorikoa, jo Egizabal, Huegun, Jauregi, 2004.

hurbil eta parte hartzailean. Horrez gain, ekintza osagarriak antolatzen dituzte programa hauetako arduradunek, tarteka: adibidez, afari edo bazkariak, irteerak, hitzaldiak, bisitak, mendi bueltak eta abar.

Izan ere, programa hauen bidez, euskararen inguruko kezka bati eman nahi diote konponbidea elkarteek: “Azken urteetan euskaraz dakitenen kopuruak gora egin du, baina euskaraz egiten dutenen kopurua ez da hainbeste igo eta horrek mugatu egiten du euskararen erabilera. Mintzapraktika-ekimenaren bitartez, euskararen erabileran gehien eragiten duten faktoreetan eragin nahi da: hiztunaren euskaraz hitz egiteko gaitasun erlatiboan, harreman-sareko euskaldunen dentsitatean eta hizkuntzarekiko atxikimenduan” (Zarraga, 2010: 282).

Aztiker aholkularitzak 2010ean programa hauen gaineko azterketa egin zuen (Aztiker, 2010). Horren arabera, parte hartzaileen %80a bidelaria da eta %20a bidelagun. Taldeen batez besteko tamaina, oster, 5,1 pertsonakoa da. Gainera, kide gehienek talde bakar batean hartzen dute parte (%92a, hain zuzen ere). Herrialdeei dagokienez, Bizkaian ari ziren %46,9, Gipuzkoan %28,8, Araban %13,8 eta Nafarroan %10,5. Bestetik, parte hartzaileen %60 inguru ziren emakumezkoak eta %40 baino apur bat gutxiago gizonezkoak. Adinari dagokionez, batez besteko adina 42 urtekoa zen 2010ean²⁸⁷.

Enbor nagusi honi, hala ere, urteekin joan zaizkio adar batzuk sortzen, hau da, programa nagusi hauen aldaera batzuk sortzen joan dira. Batetik, gurasolagunak leudeke. Kasu honetan, alaba- seme txikiak dituzten gurasoei zuzendutako aldaera da. Normalean ikastetxeko gurasoak biltzen ditu eta, haurrak direla-eta, euren ordutegi edo zaintza beharretara egokituta dago. Etxeko hizkuntza ohitura eta transmisioan eragiteko aldaera da, guraso euskaldunak harremanetan jarrita eta hurrekin jolasteko tresnak eskainiz. Gurasoak mintzalagun taldean dauden bitartean umeen zaintza bermatua egoten da, eta askotan ume eta gurasoen arteko ekintzak ere antolatzen dira. Bestetik, hikalagun edo euskalkilagun. Kasu honetan, herriko euskalkian edo hitanoz hitz egiteko mintzalagunaren aldaera da. Euskara ikasleak, ikastolan ikasitako gazteak edo herrira beste nonbaitetik etorritako mintzalagunak biltzen dira bereziki talde hauetan. Hirugarrenik, mintzakuadrillak leudeke. 18 eta 24 urte bitarteko gazteak batzen dira, gazte giroko ekintzak eginenez. Laugarrenik eta azkenik, mintzanet legoke. Etxetik mintzapraktika lantzeko programaren online bidezko aldaera da. Diasporan dauden euskaldunekin hitz

287 Aztikerren ikerketa horretan beste hainbeste datu daude eskuragarri: parte hartzaileek zelan izan duten programa hauen berri, parte hartzaileek zergatik eta zertarako eman duten izena honen tankerako programetan eta abar. Horiek lan honen mugak gainditzen dituzte, baina interesa duenak badu hor informazio interesgarria, Aztiker, 2010.

egiteko aukera ematen du, skype bidez. Telefono edo bideo konferentzia moduan erabili daiteke, eta aurrez aurreko taldeetan batzeko arazoak dituzten laguntzat aukera egokia da. Donostiako Maramara zerbitzu taldeak koordinatzen du Mintzernet egitasmoa.

Badira, gainera, herrietan antolatutako mintzodromoak edo berbodromoak. Azken urteotan, herri askotan antolatu dituzte honen modukoak. Euskararen egunaren bueltan zein herriko jai egun berezietan antolatzen dira, eta ordu batzuetako iraupena izaten dute. Euskara kalera ateratzea eta euskararen erabilera indartzea dira berbodromoen helburuak. Egitasmo honek euskaldunak mahai txikien bueltan elkartzen ditu. Talde bakoitzean lau bat lagun egoten dira, berriketa lasaian kafea hartuz eta interes orokorreko gaii buruz hitz eginez. Gai baten eta bestearen artean, parte-hartzaileak mahaiz mugitzen dira mintzakidez ere aldatuz.

Horrez gain, urtean behin Topaguneak antolatuta, Mintza eguna egiten da euskal herri batean, urtero txandakatur. Lehendabiziko aldiz 2006an egin zen, Iruñean²⁸⁸. Egun osoko egitaraua du egun honek, bisita, bazkari eta abarrekin. Egun honek helburu du euren herritik kanpo berbalagunean edo mintzapraktikan dabilzan pertsonak ere daudela ezagutaraztea eta berbalagun hauei euren euskara praktikatzeko beste aukera ludiko bat eskaintzea.

4.6.2.4.2.2 Aktibazio programak

2011n Topagunea biratze bati ekiten hasi zen, bere bi kongresuren harira. Eta biratze ideologiko horren ondorioz, hiztunari garrantzi handiagoa eman behar zitzaiola ebatzi zen, beste hainbat eta hainbat gauzen artean. Eta hiztuna erdigunean jartze horretan, hiztuna ahalduntzeko eta boteretzeko dinamikekin hasi zen Topagunea. Hasiera batean, ahalduntze indibidualari ekinez eta, geroxeago, ahalduntze kolektiboari ekinez. “Euskara elkarteak sortu ziren euskaltzaleak aktibatze, trinkotzeko eta aktibatze, ahaldundu eta gizartean eragiteko” (SE04).

Ahalduntze indibidual horren baitan, nabarmendu behar da Topaguneak (eta berarekin batera hainbat elkartek) garatu dituen *Zergatik ez?* tailerrak. Tailer hauek 2012an jarri zituzten martxan, hainbat herritan. Kataluniako *Taller per la llengua* taldearen laguntza izan zuen Topaguneak tailerrok gertatzeko. Euskara-

288 2006tik hasita, ondoko herrietan antolatu dira Mintza egunak: Iruñea (2006), Donostia (2007), Getxo (2008), Gasteiz (2009), Arrasate (2010), Elizondo (2011), Santurtzi (2012), Elgoibar (2013), Murgia (2014), Bera (2015), Atarrabia (2016) eta Derio (2017).

ren erabilera soziala bultzatzeko tailerrak dira hauek. Bilatzen dute hizkuntzaren aldeko argudioak eskaintzea, aurrez aurreko elkarrizketetan hizkuntzari eusteko teknikak eta hausnarketarako arrazoiak eta gakoak jorratzea. Eta, bide batez, parte hartzaileen jarrerak eta motibazioak indartzea.

Baina tankera honetako ahalduntzea ez zela nahikoa argi zuten elkarteek. “2016az geroztik, Euskal Herriko hainbat txokotan aspaldidanik zegoen gogo bati ekin diote zenbaitek. Ekintza solteak egitetik aktibazio kolektibo antolatuan murgildu dira batzuk. Euskaraz bizitzeko nahiari erantzuteko aktibazio ekimenak jarri dira martxan. Inoren zain egon gabe iniziatiba hartu eta martxa hartu dute hainbat tokitan esperientzia anitzak piztuz. Izan ere, egin diren ekimenak ez dira kanpaina moduan ulertu behar, ez dira suziriak bailiran zarata pixka bat egin ondoren airean desagertuko diren zerbituak. Kontrara, lan ildo oso baten barruan ulertu behar dira, estrategia baten parte baitira” (Bagera, 2017: 4).

Hori dela eta, aktibazio kolektiboa izan dute helburu elkarteek, beti ere hizkuntza ohiturak astintzeko, hizkuntza portaera berriak probatu eta esperimintatzeko (eta errotzeko). Azken finean, “... hizkuntza-praktika berri horiek gorpuzten dituzten hiztunen zilegitasun soziala indartzea da helburua, hiztunak ahalduntzea” (Martinez, Balda, Larrea, 2017). Urretxu-Zumarragako Zintzo-Mintzo elkarteak honela formulatzen zuen 2010ean elkarte horren zereginik nagusia: “Non dago gurea bezalako elkarten ekarpenaren koska? Guk euskaldun moduan bizi ahal izatea; jarrera aktibo hori sustatzeko moduak aktibatu behar ditugu” (Zintzo-mintzo, 2010).

Hortaz, 2016tik hasita, hainbat herritan hasi ziren martxan jartzen aktibazio kolektiborako programak. Lehena Donostiako Egia auzoan jarri zuen martxan Bagerak, 2016an. Horren ostean, eta urte berean, tankera honetako programak jarri ziren martxan Añorgan, Arrigorriagan, Lasarte-Orian, Hernanin, Astigarriagan eta Agurainen. 2017an, ostera, beste hainbat herritan jarri ziren tankera honetako programak martxan: Deustun, Derion, Zuian, Baiona-Angelu-Miarritzen, Aiaraldean. Azkenik, nahiz eta azterketa honen datetik kanpo egon, 2018an 212 euskal herritan jarri ziren tankera honetako programak martxan, Euskaraldiaren izenpean. Bi urterik behin antolatuko den ekimena izango da Euskaraldia eta hurrengo, beraz, 2020an izango da.

Eta zer ezaugarri izan dute programa hauek? Bagera elkarteak aktibazio programa hauetako asko aztertuz, esku-liburua argitaratu zuen eta, bertan, hainbat gako aztertzen dira: “Ekimen hauek egiteko ezinbesteko baldintza izan da babes

soziala izatea, horrek eskaintzen baitu, finean, zilegitasun soziala eta, hala ohikoak diren hizkuntza ohituretatik aldendu eta aldaketa probokatzeko aukera berriak sortzen dira” (Bagera, 2017). Horrez gain, “... ekimena martxan jarriko dugun tes-tuingurua ezagutu behar da” (Bagera, 2017). “Egoera aldatzeko gogo eta ilusioa duen talde trinkoa egon da esperientzia guztietan” (Bagera, 2017) eta “... ekime-naren funtsa ondo transmititzea eta ekimena zertarako egiten den ondo azaltzea nahitaezkoa da” (Bagera, 2017).

Izan ere, programa hauetan parte-hartzaileei hizkuntza ohitura batzuk aldatzeko edo errazteko eskatu izan zaie (ohitura horiek ahozkoari lotutakoak izan dira eta, normalean, giro informaletako ahozkoari lotutakoak). Gainera, konpromiso hori publiko egiteko ere eskatu zaio parte hartzaile bakoitzari eta, normalean, txapa baten bidez adierazi egin da konpromisoa. Azkenik, konpromiso hori egun batzuetarako eskatu zaie parte hartzaileei. Hori izan da programa hauen funtsa eta mamia, baina, horri lotuta, ohitura horiek aldatzeko pistak eta trukuak ere eman zaizkie parte hartzaileei eta, orokorrean, hizkuntza ohituren inguruko pedagogia soziala ere egin da jendarte osoan eragiteko (eta zilegitasun soziala bilatzeko).

4.6.2.5 (G)uneak

Euskara elkarteek herririk herri euskaraz funtzionatzen duten guneak eratu dituzte, espazioak antolatu eta kudeatu dituzte. Horietako batzuk lehenago landu ditugu (ludotekak edo gaztelekuak, adibidez), baina badira beste batzuk eta horiek izango dira hurrengo lerroetan jorratuko ditudanak.

4.6.2.5.1 Zergatik jardun dute alor honetan elkarteek?

Elkarteek betidanik izan dute helburu euskaldunontzako euskaraz antolatutako guneak hezurmamitzea. Gune horiek euskararen erabilera eta motibazioa handitzeko gune gisa antolatu dituzte elkarteek. “Bide horretan aurrera egiteko sormena da tresna nagusia: ausartu, sortu, erabaki. Hizkuntzak eta hiztunok hiztun gisa bizitzeko behar ditugun guneak, sareak, mekanismoak, esparruak sortu eta egonkortzen ditu euskara elkarteak, beti eremuak irabazteko ildoarekin, beti bide berritzaileak saiatzeko borondatearekin” (Topagunea, 2015: 14). Euskara elkarteek bilatu dute hasieratik eremu berriak konkistatzea. Izan ere, euskara elkarteena “euskararen autobaieztapen praktikoa” (Ttakun, 2001) baino ez da. Hau

da, “euskaraz bizitzea nahi dugunon elkarte lokalak dira euskaldunon elkarteak” (Topagunea, 2011).

Azken finean, “... espazio batzuetan dentsitate serio bat sortu ezean ez da ekoizten ez hizkuntza-gaitasunik, ez nahimenik, ez erabilerarik. Hizkuntza bat bizi bada, nonbaiten (katakunbetan bada ere) dentsitate-guneak izan dituen seinale da” (Sarasua, 2013: 100). Hortaz, espazio hauek eraiki dituzte elkarteek hizkuntzari, euskarari, gune berriak eskaintzeko asmoarekin, euskara hegemonikoa izango den guneak izateko.

Eta gune horiek, gainera, euskaldunen sarea handitzeko eta trinkotzeko euskarria ematen dutelakoan daude elkarteak. “Nahi genuen euskaldunen sarea handitzea. Elkar ezagutza handitzea nahi genuen (...) Elkar ezagutzea euskaraz izatea eta gero indartzea mentalki beraien garunak euskararekiko” (SE08).

4.6.2.5.2 Jardunbidea

Zer espazio edo gune eratu dituzte elkarteek? Zer motatakoak? Non? Zer eboluzio izan dute espazioek? Galdera horiek eta beste batzuk erantzuten saiatuko naiz hurrengo lerrootan.

Elkarteek eratu dituzten espazio gehienek taberna egitura izan dute. Horien artean, eta denetan aitzindaria, Bilboko Kafe Antzokia. Gune honek, Jacqueline Urlak dioen modura, “... euskararen unibertso kulturala zabaldu eta jendea erakarri” (Urla, 2003) nahi izan zuen. Izan ere, “... euskaldun guztien topagune eta erdaldunek euskararekin topo egiteko gune” (Etxaburu, 1995) izan nahi zuen Kafe Antzokiak.

Bilboko Kafe Antzokia 1995ean sortu zen, Bilbo erdigunean, San Vicente zinema aretoa zegoen lekuan. Zinemako aulkiak kendu eta erabilera anitzeko areto zabala bihurtu zuten Zenbat Gara elkarteko kideek. Izan ere, euren helburua zen Bilbon aisialdia eta harreman naturalak eskainiko zituen gunea eratzea, euskaraz noski²⁸⁹. Hau da, sakabanatuta zeuden Bilboko euskaldunei erreferentzia eman, non

289 Honako hauek ziren Kafe Antzokiaren helburuak, Todor Etxabururen arabera (Etxaburu, 1999):

- a) Bilboko euskaldunok geure mundu kultural, artistiko, ludiko, gastronomiko eta abarraz bertatik bertara gozatu ahal izatea.
- b) Bilboko euskaldun askok geneukan gutxiagotasun-komplexua behingoz gainditzen hastea.
- c) Bilbon euskara ikasten zebiltzanei (edo ibili izandakoei) mintza-praktika egiteko aukera ematea.
- d) Bilbon euskara jakin ez arren haren aldeko jarrera zeukatenei zera erakustea: gure proiektuan euskaratik abiatuta beraiengana eta munduko bazter guztietako beste kulturengana zabaltzeko gai ginel.
- e) Azkenez, momentu hartan euskararen aurkako joera zutenei egunez egun sendoago geundela erakustea.

eta erdigunean bertan²⁹⁰. Proiektua bideragarri izan zedin, ostalaritza-proiektua ere jarri zuen martxan Antzokiak²⁹¹. Ordutik, ehunka eta ehunka dira gune horretan eratu diren kontzertu, emanaldi, berbaldi eta abar. “Kafe Antzokia erreferente bat da, zentro aldean dagoena, hiri barnean, ez periferian. Eta euskararen inguruan antolatutako kontu bat da, irekia, baina ongi sendotuta sustraietan. Eta euskaldunak beti izango du harrera normalizatu bat eskaintzen duen tokia” (SE06).

Bilboko Kafe Antzokiaren abaroan sortu ziren beste hainbat proiektu (Bilbo Hiria irratia, Erroa argialetxea, Kurkuluxetan²⁹², Gazte-ola²⁹³ eta abar). Eta, gainera, Zenbat Garako lagunek beste kafe antzoki bat muntatu zuten Bilbotik kanpo: Ondarroan, hain zuzen ere. Proiektua 2002an sortu zen eta urte batzuetan martxan egon zen, baina atek itxi behar izan zituen azkenean 2013an.

Baina, horrez gain, beste hainbat herritan jarri dira martxan kafe antzokiaren tankerako proiektuak. “Ze, funtsean, Bilboko Kafe Antzokia eredu izan da hainbat ekimen sortzeko” (SE06). Esate baterako, Durangoko Berbaro elkarteak ia sorreratik paratu zuen Durangoko Alde Zaharrean taberna bat, kultur emanaldiak antolatzeko eta elkarte bera finantzatzeko. Urte batzuk geroago, antzokira salto egin zuen eta Plateruena Kafe Antzokia paratu (2004an sortu zen Plateruena). Elgetan ere 2004an sortu zen Espaloia izeneko kulturagune eta kafe antzokia. Azkenik, Derion 2016an Txorierriko euskara elkarteek sustatuta, Baserri Antzokia sortu zen. Gasteizen ere euskara elkarte aspalditik ari da kafe antzokia eratzekeo prozesuan. Badira beste kafe antzoki batzuk euskal herrietan, nahiz eta haien sorreran eta kudeaketan euskara elkarterik egon ez: Bermeokoa edo Donostikoa, kasurako.

Eta zer dira, ba, funtsean kafe antzoki hauek? Taberna eta jatetxe proiektua duten kultur guneak dira, non euskara eta euskal kultura eroso sentitzen den. Hau da, langile guztiak euskaldunak dira eta euskaraz aritzen dira. Eta, gainera, euskal kulturak badu zelanbait zentraltasun bat (tokirik toki nabardurak dauden arren). Ekitaldi handiak egiteko guneak dira, baita txikiagoak egiteko ere. Musikak izan du areto hauetan lehentasun eta indar berezia.

290 Hasierako urteetan, Jose Maria Sanchez Carrion “Txepetx” aritu zen Zenbat Gara elkartearen aholkulari. Haserre batzuk direla medio, bertan behera utzi zuen proiektua Txepetxek.

291 Bilboko Kafe Antzokiaren sorrerari buruz gehiago jakiteko, aipagarria da Zuberogoitia anaiek egiten duten laburpena, ikusi Zuberogoitia eta Zuberogoitia, 2008: 294-301.

292 Haur eta gazteei antzerkigintza, musikagintza eta bestelako adierazpide artistikoak helarazteko asmoa duen elkarte da.

293 Gazte-ola gazteekin egiten du lan, batez ere, bi arlotan: alor akademikoan euskararen inguruko formazio gehigarria ematen eta kirolari lotutako ekintzak antolatzen.

Ostalaritza eta kultura bateratzen dituzten proiektu xumeagoak ere abiatu dituzte elkarteek (formatu txikiko emanaldietarako): lehen aipatu dudan Durangoko Berbaro taberna, Lasarte-Oriako Jalgi taberna edo porrot egin zuen Elgoibarko Toletxe taberna²⁹⁴. Badira, halaber, bestelako kultur-gune batzuk ostalaritza proiektu barik (edo, behinik behin, ostalaritza proiektu jarraitua barik): Mullerenea Deustun edo Azebarri Algortan.

Azken multzo honetan sartu daiteke, hein batean, Gasteizeko Oihaneder euskararen etxea. Merezi du proiektu honetan apur bat sakontzea. 2014an sortu zen Gasteizen, Alde Zaharraren bihotzean. Ostalaritza proiekturik ez du eta kultur ekitaldien programazioa-eta egiten badu ere, baditu beste ezaugarri batzuk, besteetan ageri ez direnak. Izan ere, Oihanederrek garrantzi berezia eman dio hasieratik euskararen inguruko diskurtso eta praktiketan janzteari. Horren adibide dira, kasurako, hizkuntza minorizatuen gainean eratutako hitzaldi zikloak (Hitz adina mintzo izena duena) edo soziolinguistikaren inguruan antolatutako ikastaro, berbaldi eta mintegiak. Alderdi ludikoak alde batera utzi barik, beste espazioetan ez bezala, jakintzaren sorkuntzan eta transmisioan engaiatu da hasieratik proiektua, herrietan sortutako emakumeen etxeen uleran.

Beste kasu berezi bat, espazioei dagokienez, Iruñekoa da. Besteetan ez bezala, kultur ekitaldiei eta ostalaritzari lotua ez dagoen espazioa da Karrikirik eratu duena: euskarazko liburuen eta produktuen denda eratu zuten iruñearrek. 2002an ireki zuten denda Iruñeko Alde Zaharrean eta, gaur egun, denda fisikoaz gain, denda birtuala ere badu Karrikirik. Gainera, urtean zehar hainbat ekitalditara joaten dira Karrikiriko kideak bere denda mugikorrarekin.

Iruñeko Karrikiri elkarteak ere eratu ditu beste bi (g)une, horren fisikoak ez direnak. Berez programa bi dira, baina bi horien helburua bai izan da gune fisikoak eratzea. Batetik, pisukide programa. Programa horren bidez, pisua elkarrekin alokatu nahi duten pertsonen beste euskaldun batzuekin harremanetan jartzen zaie. Bestetik, lan poltsa programa. Langile euskaldunak behar dituztenak eta lan bila ari diren euskaldunak harremanetan jartzen ditu programa honek. Antzeko egitasmoa jarri du martxan Getxoko Bizarra Lepoan elkarteak ere: Beharsarean izenarekin, hain zuzen ere. Euskaldunen lan poltsa bezala funtzionatzen du programa honek ere.

294 2019an, beraz, azterketa honetatik kanpo, sortu zen Ibarra Galtzaundi taberna izen bereko elkarteak sustatuta. Ostalaritza eta kultur ekitaldi txikiak uztartzeko leku izan nahi du taberna honek ere.

4.6.2.6 Eragite lanak

Elkarte guztiek eragin dute, bere jarduerarekin, nola edo hala. Egitearen bidez eragiten den neurrian, behinik behin. Hala ere, bide batezko eragin bide hauez gain, elkarteek berariaz eta zuzen eragitea bilatu dute, hainbat elkarterengan eta erakunderengan. Horiek dira azpi-atal honetan jorratuko ditudanak.

4.6.2.6.1 Zergatik jardun dute alor honetan elkarteek?

Hasieratik, argi izan dute elkarteek euren lana egitea ez ezik, eragitea ere bazela, berariaz, zuzen eta artez eragitea, alegia. Hau da, sentsibilizazioa edo presioa egitea beste elkarte, enpresa, administrazio, pertsona edo mugimenduetan euskararen erabilera eta presentzia bermatzeko eta sendotzeko. Izan ere, baliatu nahi izan dute euren lana "... erakundeengan eragiteko eta aldaketaren kontra daudenen erresistentziak gainditzeko" (Topalabea, 2015). Elgoibarko Izarrako kideek 1997an honela definitzen zuten elkartearen funtzioa: "Guk egin behar dugu gure esku dagoena eta, gainera, besteei eragin behar diegu eurek ere egin eta eragin dezaten" (Elgoibarko Izarra, 1997).

Egin eta eragitearen arteko sokatiran aritu dira elkarteak, hasieratik. "Zenbat eta komunitatea handiago eta trinkoagoa osatu, orduan eta gehiago eta errazago egin eta eragingo dugu" (Elgoibarko Izarra, 2014).

4.6.2.6.2 Jardunbidea

Non eragin dute elkarteek? Ba, bereziki hiru gunetan: herrietako denda, taberna eta elkarteetan, batetik; toki mailako administrazioetan, bigarrenik; eta euskalgintzan, hirugarrenik. Bakoitzarekin intentsitate eta metodo bereziekin, jakina, eta, horregatik, merezi du hirurak banaka aztertzea.

Elkarte, denda eta tabernetan eragiten indar handia jarri dute elkarteek (behintzat, lan-ildo honi ekin diotenak). Hainbeste indar non horietan berariaz eragiteko metodologia bat asmatu duten: hitzarmengintza izeneko metodologia. Baina hitzarmengintza zer den eta zertan den aipatzen hasi aurretik, genealogia apur bat egitea beharrezkoa dela uste dut.

Beste behin ere, Arrasate izan zen bidegile. 1990. urtean hasi ziren han hitzarmengintza lantzen eta gero tantaka-tantaka beste elkarte batzuk hasi ziren: "Tolosako Galtzaundin 1992an, Pasaiaiko Abaraska eta Arnasa, Lasarteko Ttakun,

Eibarreko Eta kitto...! 1993an, Aretxabaletako Loramendi 1994an” (Topagunea, 2010b). Geroztik, hainbat herritan garatu dira hitzarmengintzari lotutako proiektuak, batzuk xumeak eta beste batzuk indartsuagoak, herririk herri. Udal askok ere ekin dio hitzarmengintzari han eta hemen (baina hori beste genealogia bat da).

Hortaz, hitzarmengintza zer da ba? “Konpromisoan oinarritutako metodologia da” (Topagunea, 2003b). Itziar Larrazabalek, baina, modu poetikoagoan definitzen du: “Hitzarmengintza bidaia bat da, bi elkartek adostasunean, eskutik helduta, elkarlanean egiten dutena. Bidaideetako bat herri elkarte izaten da, euskararen aldeko apustua bere egin duena eta bestea, berriz, euskara elkarte, lehenari bidea erakutsi eta patarretan gora bultzada emango diona” (Topagunea, 2010b). Juan Luis Arexolaleibak, berriz, artezago jotzen du: “Hitz gutxitan esatearren, hau da Hitzarmena: herriko ahalik eta entitate gehien, euren artean, euskarekiko hainbat konpromiso eurenganatzea publikoki” (Arexolaleiba, 1993).

Beraz, hitzarmena metodologia bat da, bi elkarteren artean egiten dena. Akordio horren bidez, “... erakunde batek euskararekiko konpromiso zehatzak hartzen ditu, eta beste erakundeak konpromiso hori gauzatzeko laguntza eskaintzen dio” (Topagunea, 2003b). Azken finean, “... euskal mikrokomunitate normalizatuak eraikitzea da helburua” (Topagunea, 2003b). Hortaz, akordio hau, hitzarmen hau, tresna bat baino ez da, helburu hori lortzeko tresna. Eta bilatzen du entitateetan euskararen erabilera suspertzea, bai ahoz zein idatziz, bai entitate barrura zein kanpora begira. Izan ere, esparru hauetan (elkartek, dendak, tabernak) legeriak ia ez du eraginik eta, beraz, borondatea da aurrera egiteko helduleku bakarra. Beraz, aurrera egiteko helduleku bakarra entitateak autoinplikatzean datza.

Elkartek hitzarmengintza lantzerakoan normalean sektoreka jardun dute: merkataritza, ostalaritza, haur eta gazteekin lan egiten duten elkartek, kultur elkartek, kirol elkartek eta abar. Izan ere, errazagoa da sektoreka jardutea, denekin batera jardutea baino. Hala ere, izan da sektore guztietan eragin duen elkarterik.

Dena den, elkarte askok ez diote lan ildo honi ekin. Lana dakar ildo honek, dirua behar da, egitura minimo bat behar da elkarteetan eragiteko. Lan profesionala behar da, alegia. “Eragiteko azpiegitura bat behar da (tekniko-ekonomikoa), eta askotan lankidetzeta-esparrua udalarekin. Elkarte ahulen kasua errazagoa da noizbehinka ekintza solte batzuk antolatzea, eragiteko egitasmo zabal eta iraunkorra planteatzea baino” (D01). Elkarrizketatu batek honela ebaluatzen du euren ekina: “Nire ustez, joan ginen azkarregi jendearengana. Etxeko lanak egin gabe, jakin gabe zertarako ari garen, jakin gabe zer eskatu orokorkerietatik aparte, dis-

kurtso bat konpartitu gabe” (SE17). Gainera, “kontuan izan behar da errazagoa dela egitea eragitea baino, eragiteak ondorioak izatea baino, behintzat” (D16). “Karrikaluzek ez du ulertu bere lana eragitea dela beste elkarteengan gero eta euskaldunagoak izan daitezen” (SE10).

Entitateak euskalduntzeari lotutako batzordea aritu da Topagunean, ia-ia hasieratik. Batzorde horretan lan horretan zebiltzan teknikariak batzen ziren euren kezkak eta formazio premiak partekatzeko. Batzorde horren fruitu da, adibidez, Topaguneak 2003an argitaratutako eskuliburua, baita 2010ean horren garapena den beste eskuliburua ere. Azken honek merezi du arreta apur bat. Izan ere, Topaguneak planteamendu aldaketa bat proposatzen du liburuxkan. Ordura arte, entitateak euskalduntzean aritu izan ziren elkarteak. Eta, ordutik aurrera, euskaldundu ez ezik, euskararen erabileran eragile ere bihurtu nahi zuten elkarte hauek. Ez dirudi, hala ere, bide honi herri askotan ekin diotenik (aisialdi elkarte batzuekin izan ezik).

Izan dira, hala ere, ildo honi modu batean edo bestean ekin dioten elkarteak, diru-baliabide gutxiarekin (edo barik). Adibidez, Iruñeko Karrikiri elkarteak Iruñea eta Iruñerriko denda eta taberna euskaldunen gida atera izan du urteetan, oso diru gutxiarekin. Derioko Tximintx elkarteak, ostera, herrian euskaraz egiteko aukerak jasotzen dituen mapa egin zuen 2017an, dirurik erabili barik, ekintzaileen lanarekin bakar-bakarrik.

Bada, halaber, beste programa bat honekin zelanbaiteko lotura duena. Deustun urteetan unibertsoa izeneko bilgunea antolatu eta dinamizatu du bertako euskara elkarteak. Bilgune horretan Deustun dauden ikastetxe guztiek hartzen dute parte eta, urtean zehar, elkarrekin egiten dituzte ekintza batzuk ikasleengan eta gurasoengan eragiteko.

Esan dudan bezala, lehen eragin-gunea herriko elkarteak eta establezimenduak izan dira. Eta, bigarrena, berriz, administrazioak (tokikoak beti ere). Pozak beste negarrak ekarri ditu lan ildo honek, gatazkak, tirabirak eta tentsioak ekarri ditu. Baina goazen apur bat arakatzera zer eta zertan aritu diren elkarteak honi dagokionez.

Elkarteek administrazioarengan eragitea izan dute helburu. Baina, beste elkarte edo mugimendu batzuk ez bezala, aritu direnean beste modu batera aritu dira. Gutxi erabili dute salaketa publikoa, gutxi erabili dituzte presio-modu zuzenak. Nahiago izan dute isilago jardun, sukalde lanetan, zelanbait esateko. “Gakoa ez

datza hainbat entitate, erakunde edo pertsona salatzean, jendea irabaztean baizik. Honetarako, lan ixilaren garrantzia handia da” (Arexolaleiba, 1993). “Galtzaundik ez du publikoki bere burua gehiegi oldarkor xamar-edo azaldu behar. Baina sukaldeko lanak ondo egin behar ditu” (SE23). Adierazgarria da Lau Haizetara euskara elkarteak kide batek “Komunitateak ehunduz herri ekimenetatik” ikerketan egin duen aipu hau: “Karo, zuk ondo geratu nahi baduzu denekin, arazoak izango ditugu. Ze hemen ez gera ondo egongo denekin. Hemen zirikatzeke, soka tenkatzera etorri gera. Ez dugu eten nahi soka. Ez dugu etena bilatzen eta etena ez da helburua. Helburua da tenkatzea, helburua da deserosotasun puntu bat sortzea. Tentsio hori ba kudeatzeko. Aldaketa kudeatzeko. Aktibazio hori nahi dugu eraldaketarako. Eta hori nahi dugu” (Esteban, 2019). Hala ere, kasu guztietan ez da horren argi izan: “Gogoratzen naiz ni hasieretan joan izan ginenean udalera edo alkatearekin berbetan-edo, oso ikuspegi edo mentalitate desberdinetako jendea sumatzen zen bai alde batean zein bestean, oso kontrabotere ikusten gintuzten, eta beti zen etengabeko liskar moduko bat” (SE12).

Elkartek, batez ere, saiatu dira udalen hizkuntza politiketan eragiten. Hasiera batean, herri askotan euskara teknikariak eta euskara zerbitzuak sortzea aldarrikatu zuten elkarteetako askok (baita lortu ere). “Euskara zerbitzua jarri zuten beste elkarte batzuekin batera kanpaina egin genuelako, ez borondatea zutelako” (D09). Geroxeago, Euskara Batzorde irekiak egin daitezten eta egiten den herrietan, batzorde horietan proposamenak-eta eramaten. Esate baterako, “... azken urteetan nahiko kaña sartu diogu udalari euskara batzordea aktibatzeke. Izan da organo bat lotan egon dena” (SE17). “Baita ere hartzen dugu parte eskualdeko euskararen aholku batzordean, teknikariarekin batera. Aurre-lanketa egiten dugu, ildo nagusi batzuk markatzen ditugu eta gure asmoa da teknikariari laguntzea” (SE20).

Dena den, elkarteetako kide askok sentazioa du epel samar jokatu dutela. “Guk askotan ez dugu presio gehiegirik egin. Euskarari lotutako gai polemikoak-edo ateratzen direnean edo euskarari diru-laguntzak murrizten zaizkionean, askotan ez dugu presio hori egin elkarte bezala. Nahiko neutro mantendu gara” (SE18). “Egoera politiko zakarrenean sortu ziren euskara elkarteak eta alderdikieratik aldentzea derrigorrezkoa zuten. Zabarkeriatik aldentzeko beti ere. Baina udalak euskara babestu duen edo, politika da. Alderdiek erabakitzen dute politika. Eta euskara elkarteek ez dituzte politikariak bultzatu edo derrigortu euskara babestera” (D09). Hortaz, badirudi elkarteek lan honi ez diotela behar beste ekin. “Eginez eragitearen aldeko apustua nagusitu zen, errazagoa zelako beharbada, gatazka saihesteko, bestelako gatazkek tentsionatutako ingurumarian” (D13). Topaguneak

berak onartzen zuen azken hau: “Gaur egun bizi dugun giro tenkatuak gizarte lana zailtzen du” (Topagunea, 2002).

Zeharo kritiko aritu dira batzuk: “Erreibindikazioak ez dauka zertan izanik alderdikeriaren sinonimo. Erreibindikazioa behar-beharrezkoa da borroka sozial guztietan, eta euskararena ere borroka sozial bat da. Hain zuzen ere, horixe da mugimendu sozial baten muina, iparra markatzea eta ipar horretara iristeko planak eta programak prestatu eta gauzatzeaz gain, erreibindikatzeko, eta salatu behar denean zerbait, salatzea. Erreibindikazioa ezinbesteko aldarria da. Eta, nire ustez, hori falta izan zaie maiz euskara elkarteei” (D12).

Gainera, elkarteek jakin izan dute eragiteko eurak indartsu egon behar zirela lehenago. “Sinesten dut euskara ofizial garrantzizkoa dela Nafarroan. Konforme gaude horrekin. Baina guk ez dugu hor indar bat gastatu. Gizartearengana, jendearengana joan pilak-eta kargatzera eta zenbat eta indartsuago izan, orduan indar horrekin logikoa edo normala da bestea lortzea” (SE08).

Esan dudan bezala, arazoak eta trabak ere dezente izan dira eragite lan honetan. “Funtzionarioak askotan frontoi lana egiten du. Guk botatzen dugu pilota eta bueltan etortzen zaigu. Ez digu lagundu euskara elkarte moduan udala euskalduntzen edo udalean eragiten gurako genukeen moduan” (SE20). Hala ere, lan hau beharrezkoa ikusten dute elkarteek: “Udalak erabakiren bat hartzen duen momentutik, ikusita leku batzuetatik zer fundamentu edo zer funtzionatzeko modu motelak dauzkaten, uste dut herri presio barik gauza batzuk ez zirela egingo” (SE04). Eragiteak tentsioak eta gatazkak eragin ditu administrazioarekin: “Zenbait udalekiko harremanak konplexuak izan dira, eta horrek tentsio politikoak eragin ditu” (D01). “(Elkarteek) izan dituzte aldarrikatzeko edo kexarako uneak ere bai (administrazioaren euskalduntzearen erabaki epelen kontra, aldarrikapen edo kexak euskara ez erabiltzeagatik, baliabide eskasiagatik, eskaerak merkataritza eta herritarrei, ea.). Eta honek sortu ditu talkak edo gatazkak” (D03).

Administrazioetan eragite horretan, elkarteek kanpaina zehatzak ere antolatu dituzte. Adibidez, alkate eta zinegotzietan zuzendutakoak. Kasu horretan, eskatzen zitzaizkien alderdi politikoei euren zerrendatan joango zirenen hautagaiak euskaldunak izatea. Tankera honetako kanpainak Elgoibarren, Arrasaten edo Lasarte-Orian egin ziren. Beste batzuetan, berriz, herritarrak udalekin euskaraz aritzera bultzatzen zitzaizkien. Zentzu horretan, aipagarria da Dobera elkarteak ateratako libu-

ruxka²⁹⁵ (Dobera, 1998) edo Elgoibarko Izarrak euskaldunon eskubideen gainean egindako kanpaina 1995ean. Azkenik, beste euskara elkarte batzuek antolatu izan dituzte herriko hautagaien arteko eztabaidak hauteskunde kanpainetan euskarari buruzko euren iritziak eta ekarpenak jasotzeko (adibidez, Derioko Tximintx elkarteak eztabaida antolatu zuen 2011 eta 2015eko hauteskunde kanpainetan).

Topagunea ere aritu da administrazioak eragiten eta, hein batean, elkarteek hautatutako egiteko moduekin (sukalde-lanetan, hain zuzen ere). Batez ere, lan horri sistematikoki ekin dio Topaguneak 2011 eta 2012 urteetatik aurrera, kongresuetan onartutakoaren harira. Izan ere, Topaguneari, besteak beste, eskatzen zitzaion erakundeekin solaskidetzatza eratzea eta elkarrekin lan egiteko bideak topatzea. Seguruenik, bide horretan fruiturik nagusia 2017tik aurrera Eusko Jaurlaritzak eta Topaguneak egindako akordioa litzateke. Horren harira, herrietako aktibazio programak sistematizatu, bateratu eta euskal herri guztietan batera martxan jartzeko bideak adostu zituzten eta badirudi beste bide berri bati ekin diotela ordutik (oraindik goiz bada ere horrelako afirmazioak egiteko).

Hirugarren eragite bidea izan dute elkarteek euskalgintzetan (baita Topaguneak ere). Bide horretan, hainbat elkarte bultzatu eta sustatu dituzte euskalgintzaren bilgune zabalak euren herrietan (adibidez, Durangon Guka bilgunea, Deustuko unibertsoa, Eibarren Akebai edo Arrasateko euskalgintza). Kasu horietan, elkarteak saiatu dira bilgune horiek dinamizatzen eta kaleari eta administrazioari begira sentiberatze eta presio lanak egiten. Bilgune hauen ibilbidea irregularra izan da herririk herri, euskalgintzaren indarren baitakoa eta euskalgintzako indar horien arteko harremanen gorabeheren arabera.

Honen tankerako beste adibide bat da Getxoko Sarea Josten ekimena. “Getxon PPK mugimendu batzuk egin zituen eta jendea zegoen oso haserre. Gure artean elkarri begiratu eta oso oldakor nabaritu genituen. Hortik etorri zen Sarea Josten bezalako gauza bat. Nolabait esateko, hemen gaude, elkarrekin gaude eta honek batzen gaitu” (SE11). Eta zer izan zen? “Sarea Josten izan zen bi urtetan zehar testu polit baten azpian nolabait euskarak batzen gintuela adierazi eta euskarazko jarduera batzuk antolatu herriko 25 bat, 30 bat eragileren artean” (SE11).

Topagunea ere aritu izan da euskalgintzetan eragin guran. Sorreratik bertatik izan da Kontseiluko kide Topagunea eta zenbait sasoi zuzendaritzako kide ere

295 Liburuxkaren izenburua honako hau zen: “Hamaika arrazoi udaletxeari euskaraz egiteko” (Dobera, 1998). Izenburuak dioen bezala, herritarrei 11 arrazoi ematen zitzaizkien udalarekin jarduna euskaraz izan zezaten.

izan da. Eragiten saiatu da hasieratik Kontseiluan Topagunea, nahiz eta emaitzak irregularrak izan. Esan daiteke urteetan egon dela bi erakunderen arteko zelanbaiteko lehia euskalgintza sozialaren lema nork eramango ebazteko. Eragite bide horretan Topagunea saiatu da bere egiteko moduak eta abarrak Kontseilura eramaten, nahiz eta arrakasta txikia izan.

Aipamen berezia merezi du Nafarroako kasuak. Izan ere, Nafarroako Topagunea urteetan saiatu izan da Nafarroako euskalgintzan inpaktatzen. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoan ez bezala, salaketa eta kale-mobilizazioak izan dira eragiteko bideak (beti ere, deialdi zabal eta zehatzekin). Aipagarriak dira, esate baterako, euskararen legea aldatzeko egindako mobilizazioak edo ofizialtasuna eskatzeko egindako presio-lanak eta kanpainak. Baita gobernu eta abarren erabakiak salatzen egindako prentsa-oharrak eta abarrak ere (hau da, mugimendu sozialaren ekintza kolektiboaren erreperatorioko ekintza eta jardunbiderik nagusienak, zelanbait esateko).

4.6.2.7 Jakintza eta diskurtsoaren sozializazioa

4.6.2.7.1 Zergatik jardun dute alor honetan elkarteek?

Mugimendu sozialek, oro har, narratiba berriak eraiki nahi dituzte, erregistro kultural berriak, azalpen eta irtenbide berriak. Eta, horretarako, ekintzen bidez ez ezik, diskurtsoaren bidez ere zabaldu nahi dituzte jendartearen ideia berri edo berritu hauek. Beraz, mugimendu sozial gehienek berebiziko garrantzia aitortu diote diskurtsoaren sozializazioari, jakintzaren sozializazioari. Beste kontu bat da ea benetan errealitatean garrantzi hori islatuta egon den. Baina, tira. Galdetegia bete duen batek ondo baino hobeto adierazten du honako hau: “Gaur egungo mugimenduek, modernitate garatuaren garaian, errealitate sozialaren ezagutza sakona izan behar dute, errealitatearen diagnostiko zehatza egiteko, errealitate horren aldaketa-egitasmoak diseinatzeko eta ekintza horretara bideratu ahal izateko ahalik eta eraginkortasun handienarekin. Ezagutza horrek zientifikoa izan behar du ezinbestean” (D02).

Euskara elkarteek ere garrantzi berezia aitortu diote jakintza eta diskurtsoari lotutako lan ildo honi. Garrantzia behintzat diskurtsiboki, praktikan gauzak ez dira izan horren errazak. Azken finean, elkarteek nahi izan dute jendea irabazi, jendea erakarri, jendea bere ideietara hurbildu eta konbentzitu, hein batean. Eta, era berean, euren ideietatik horren hurbil ez zegoen jendea oldarkor ez bihurtzea

ere bilatu dute, euren diskurtsoak jendartean bide zabalagoa egin zezan. Beraz, euskara elkarteak saiatu dira euren aldeko marko kognitibo, sozial eta politikoak elikatzen eta indartzen.

Era berean, elkarteek ere aitortu diote garrantzi berezia (diskurtsiboki berriro ere) euren kideen jakintza handitzeari. Izan ere, ekintzaile gaitu eta ahaldunduez osatutako elkarte edo mugimenduak jendartean eragiteko gaitasun handiagoa du. Eta hori jakin dute elkarteek eta saiatu dira, euren baliabide eskasekin, erantzun bat ematen.

Izan ere, "... mugimenduetan lan intelektuala egin behar da, eta lan horrekin uztartu behar da ekintza. Bestela, ekintza itsu-itsuan gauzatzen da. Lan intelektualaren premiak beste inplikazio batzuk dauzka: unibertsitateekin lan-kidetza bultzatu behar da, elite intelektualen eta ekintzaileen arteko harreman gatazkatsuak bideratu behar dira, teoriaren eta praktikaren aldeko kontraesanak kudeatu..." (D02).

4.6.2.7.2 Jardunbidea

Elkarteek sorreran zutabe filosofiko sakonak zituzten eta barrura begira asko landu ziren oinarri horiek (herririk herri ezberdintasun nabarmenak dauden arren). "Orduan hasi zen armatze ideologikoa. Nolabait nik Rosa Ramosengandik eta Karrikiriren prozesuan sartuak zeudenengandik jasotzen nuen informazioa, Txepetxen teorietatik eta ... Ekartzen nituen bileretara. Gaur honi buruzko txapa. Urtebete kasik eman genuen bileraz bilera eta zortzikote, bederatzikote, hamar bat lagunaren artean armatze ideologiko bat jakiteko batzuk etortzen zirenean hau eskatzera, nola funtzionatuko genuen. Zergatik euskara ardatz eta ez bestelako kontzeptu politikoak. Eta hori egin genuen lehen urtean, urtebete osoa" (SE14).

Hori dela eta, hasierako urteetan, euskara elkarteek garrantzi handia eman nahi izan zioten lan ildo honi, barrura begira bai, baina baita kanpora begira ere. Lehenago ere aipatu dudanez, *Adorez eta Atseginez* mintegiak euskara elkarten sorreran garrantzi handia izan zuen. Mintegi horrek lan teoriko eta praktikoa egin zuen, hazitegi bezala funtzionatu zuen, barrura begira, oinarri teoriko sendo horiek hezuramaitzen eta barneratzen, zelanbait. Baina baita kanpora irradiatzen ere (argitalpen, jardunaldi eta abarrak antolatu zituen mintegiak). *Jazten* aldizkaria ere sasoi honetakoa da eta, lehenago esan dudana bezala, gai akademikoak baino, ekintzarako gaiak plazaratu zituen bere orrialdeetan ("pentsamendu organikoa", Jon Sarasuaren berbetan, Sarasua, 2013). Mugimenduko kide zirenei (edo

izan gura zutenei) formazio teoriko-praktikoa eman gura zien aldizkariak (“Bizi-ko bagara jantzi beharra daukagulako” lelopeko aldizkaria zen *Jazten* hau).

Hasierako sen horrek beste adierazpide batzuk ere izan zituen. Hainbat herri-tan egin ziren azterketa soziolinguistikoak elkarteek sustatuta (edo elkarteek eurek eginda). Jardunaldiak eta topaketak ere egin ziren hasierako urte hauetan: adibidez, Hernanin Dobaketa izeneko topaketak bultzatu zituen bertako Dobera elkarteak (1993an). Komikiak, esku-orriak, liburuxkak eta abar ere argitaratu eta zabaldu zituzten elkarteek, beti ere, berria zen euren diskurtsoa jendarteratzeko asmoz.

Baina, gutxika-gutxika, eta seguruenik ekintzak eta kudeaketak janda, elkarteak ildo honi garrantzi gero eta gutxiago ematen hasi ziren. “Errealitate bat da euskara elkartearen sorreran izan zen jakintza transmisioak eten handiak izan dituela. Bifurkazio moduko bat egon zen aspektu teoriko, kualitatibo eta muinekoak gehiago zaintzearen eta mugimenduaren aspektu tekniko, zerbitzuzko, aseptikoa-goei garrantzi handiagoa ematearen aldekoen artean” (Topagunea, 2011). Imanol Minerrek ere antzekoa dio Errenteriako Lau Haizetara elkartearen hizpide: “Sortu berriak ziren beste euskara elkartearen kasuan bezala, Txepetxeren teoriak erreferente garrantzitsu bat suposatu zuen elkartearen lehenengo urteetan ere: AEDra bisitak, soziolinguistika ikastaroak, etab. Elkartearen sortu zela urtebete ere ez zen izango Iñaki Alberdi hil zenean, berak izan behar zuen nonbait elkartearen sortu berriaren diskurtsoa markatzen zuena eta Txepetxeren ekarpenak gureratu zituen, izan ere berak ia osorik euskeratuta utzi zuen *Un Futuro Para Nuestro Pasado*. Elkartearen sorreratik elkartearen diskurtsoa, ideologia, politika erakundeekiko ekidistantzia eta gisako kontzeptuak egon dira elkartearen zuzendu dutenen ahotan baina hastapeneko urteak igarota eta Iñakiren ausentziaren eraginez ziur aski, nolabaiteko oinarritzko printzipioek gidatu dute elkartearen kideen jarduna: ‘Gu ez gara inorenak’, ‘gu ez gara inorekin ezkontzen’, ‘guk ez diegu besteei euren esparruan zer egin behar duten esaten beraz besteek gurekiko berdin jokatzeko eskatzen dugu’ eta gisakoekin urteetan funtzionatu da. Baina une jakinetan aurrera egiteko berriazko diskurtso bat barneratu eta haren arabera jarduteko premia begibistan agertu izan da” (Miner, 2002).

Badira langintza horretan salbuespen izan diren elkarte batzuk. Izan ere, euskara elkarte horietan jakintza eta diskurtsoaren sozializazioa berriaz landu izan da ia-ia hasieratik. Adibidez, Elgoibarko Izarra elkarteak asko landu du gai hau eta, horren adibide, da urtero-urtero antolatuta izan dituen jardunaldiak (*Euskara ala ezkara* izenarekin). Bertako kide batek honako hau zioen egindako elkarrizketan: “Guk asko landu dugu kontzientziaren kontua. Jende asko ekarri dugu dis-

kurtsoa eta pentsamendua-eta lantzen. Neuk asko irabazi dut, eta pentsatu nahi dut nirekin batera ibili den jende horrek ere irabaziko zuela, eta beste konfiantza bat daukagula garen eta egiten dugun horretan” (SE04). Iruñeko Karrikiri elkar-teak ere landu du dezente alor hau: “Adibidez, *Karrika* berripapera edo formakun-tza horiek, zutabe nagusiak ziren guretzat gizarteari zegoen mentalitate berri bat, errebindikazio ez zena eta sormena zena, jendea hurbiltzeko sormenera. Erdigu-nea sentitzeko euskaragintzan, eta ez periferian” (SE09).

Dena den, elkarte batzuk diskurtsoa sozializatzeko zailtasunak ere aipatu di-tuzte. Eta horrek, agian, zerikusia du ildo hau behar bezala ez lantzearekin. “Nik uste dut oso gaitza izan dela aukeratzea mezu bat herri honetan emateko. Egon den egoera politikoarengatik eta dagoenagatik, oso gaitza da ematea mezu bat eta ez egotea munduaren erdiak pentsatzen ez duela ezertarako balio. Edo zurekin haserretzeko” (SE23). Gainera, diskurtso berria zen eta sasoi haietan (enfrenta-mendu eta tirabira askoko sasoiak dira horiek, abertzaletasunaren bi familia na-gusien artean, behinik behin) korrontetik kanpo eta ez-ohikoa zen. “Diskurtsoa berria zen, motibazioaren diskurtsoa berria zen. Enfrentamendurik gabeko dis-kurtso bat. Euskararen inguruan, denbora guztian, errebindikazio eta errudun bila berbetan ibili barik, gauza oso berria zen. Orduan, momentu horretan, diskurtso aglutinatzaile bat, enfrentamendurik gabekoa, orain esaten den bezala, inklusiboa” (SE02). Eta horrek, jakina, diskurtsoa zabaltzeko zailtasunak ekarri zituen.

Izan ere, batzuen ustez, elkarteek orokorrean ez dute lortu ahots propioa iza-tea: “Askotan alderdikierietatik urrun kokatzea bilatu da gehiago ahots propioa izatea baino” (D01). “Uste dut euskara elkarteak jarrera alderdikieritan ez direla erori. Ahots propioa izatearena beste kontu bat da, gutxi batzuk lortu dute” (D08). Eta, ahots propioa izan barik, zeharo gaitza da diskurtso oso bat jendarteratzea. “Elkarteek ahopeka hitz egin dute, salbuespenak salbuespen, ez dute gizarte za-balean oihartzunik izan. Teorian ez, baina praktikan gehiago jokatu dute txoko edo elkarte gastronomiko-kulturalen modura (ingurune hurbileko lagun eta eza-gunekin ekimenak burutzen eta harremanak izaten), herri/hiri bateko biztanleria (edo biztanleria euskalduna) jomuga duen eragile baten modura baino. Alegia, ez dute beren ahotsa gizarte osora hedatzerik lortu. Praktikan, militantzia handi-ko sektore batzuetara mugatu dituzte beraien jarduna eta eragina. Hortaz, ahots propioa bai, baina oso eremu txikikoa” (D09). “Intuitiboki eta ekintzen bidez ere bai, alderdikierietatik aparte aritu direla pentsatu arren, beste kontu bat diskurtso jantzi eta oso bat edukitzea, edozein gai eta egoeraren aurrean, herri guztietan, eta denboran zehar” (D16).

Bada, hala ere, ahots propioa izan dutela dioenik. “Euskararen aldeko erakunde sozialek jardun eta ahots propioa izan dute, oso handia. Alderdi politikoen eragina jaso dutela ukazina da, baina dinamika propioa izan dutela baita ere. Bartzuetan, esan liteke euskararen erakunde sozialak alderdien gainetik egon direla, edo egon nahi izan dutela, eta euskarari buruzko programa, agenda eta lanildoak markatu dizkietela, edo, gutxienez, markatu nahi izan dizkietela, euskararen beharren gordailua euskararen erakundeak beraiek direlakoan. Kontuan izan behar da, gainera, normalean espezialistak euskararen alorreko kideak izaten direla, politikoez ezagutza orokorra duten bitartean” (D06). Bestelako ñabardura batzuk eransten ditu galdetegia bete duen beste aditueta batek: “Esango nuke euskara elkarteetan egon dela ahalegin kontzientea alderdikierietatik ihes egin eta ahots propioak eraikitzeko. Hori esanda, nik ezagutzen dudana mailan lortu ere, lortu da neurri handi batean. Hala ere, euskara elkarteetan lana gehien tratatu, zaildu eta tentsionatu duen gaietako bat hau izan dela uste dut. Ahots propioa gisa onartuak izan arte (oraindik ere onartu gabea dena esango nuke, behintzat erabat), bide malkartsua alderdikierietatik ihes egitea eta ihes eginda ere, politikoki inongo mugimendu/alderdiren menpeko ez zarela onartua izatearena” (D07).

Diskurtsoa sozializatzea alde batetik, eta elkarteko kideen formazioa, beste alde batetik. Ildo hori landu nahi izan dute elkarteek ere, eta honetan ere nahiko herren ibili direla ematen du, nahiko orokorra baita elkarteko kideek formazio falta dutela orokorrean. “Gure gabezieta bat izan daiteke hori: formazio soziolinguistikoa. Jakitea zer, zergatik, nola, ... nik uste dut hor gabezia handiak ditugula” (SE17). “Indarra badago, gogoia badago, baina ez zaigu gustatzen pentsatzea. Ekintzak gustatzen zaizkigu. Gogoia hori ez zaigu hainbeste gustatzen” (SE23). “Ez da landua, ez da gogoitarik, ez da teoriarik, soziolinguistikan ezagutza zero! Dena da akzio-erreakzio” (SE25). Elgoibarko Izarrako kideek honela adierazten zuten honi lotutako helburua: “Gizarte-mugimenduak garaipenak lortzeko daude. Errealitatea aldatzeko dira eta, horretarako, mugimenduko kideak jantzi egin behar ditugu, formazioa sustatuz, ilusioa sortuz, eta norbanako kementsuak sortuz, besteak beste” (Elgoibarko Izarra, 2014: 16). Xehetasun jakingarriak ematen ditu galdetegia bete duen aditueta batek: “Euskara elkarteetan kasuan eta, oro har, euskalgintzan, funtsezkotzat jotzen ditut soziologia, psikologia eta hizkuntzalarizatik datozen ezagutzak. Eta uste dut prestakuntza falta handia dela. Ez soilik elkarteetako kideei dagokienez. Pentsatzen dut euskalgintzako quadro teknikotzat har litezkeen taldeek ere gabezia handia dutela. Ondorioz, oinarri zientifikoa duen teorizazio falta handia dago. Eta, beraz, ez da harrizteko tokiko elkarteetan formazio eskasa egotea” (D02).

Egitea lehenetsi da, eta ez prestatzea: “Prestakuntza sakon gutxi egon da elkar-teetan eta haiek osatzen dituzten aktibisten artean (ez beti). Hala gertatzen de-nean, ondorioa izan ohi da ideia orokorrak beste nonbaitetik eta bigarren eskutik hartzea (zenbait intelektualek edo adituk hedatutako ideietatik, ...), maiz akriti-koki eta klitxe moduan, eta jarduna edo pentsamendu ildoak beste batzuek sor-tutako klitxeetan, egiazkotzat jotzen diren baieztapen borobiletan edo dogmetan oinarritzea (ez beti, horrek dituen arazoekin)” (D06). Pentsamendua, formazioa eta zuzter teorikoei baino, praktika eta ekintzari eman omen zaio lehentasuna: “Ekintzaren eta formazioaren, estrategiaren eta pentsamenduaren artean, uste dut oro har ekintzaren aldeko apustua egin dela gehiago eta ez dela benetako apustua egin ekintzaile aktualen eta etorkizuneko belaunaldien formazio soziolinguistikoa aktibatzeke” (D10). Antzekoa dio galdetegia bete duen beste adituetako batek: “Beste hainbat mugimendutan gertatu ohi den moduan, nire iritzia da baita ere pentsamenduari eta formazioari tarte txikiegia eman diogula. Horrek eragin du mugimenduaren hasierako bultzatzaileek zuten energia (neurri handi batean zi-tuzten intuizio eta sentimenduak pentsamenduarekin bat eginda ikusteak sor-tutakoa) urardotzen joan dela hasierako giza talde eta momentu hura denboran zehar pertsona gehiagotara hedatzen joan den heinean” (D16).

Hala ere, bada honekin guztiz bat ez datorrenik. “Elkar-teen hastapenetan dena deskubritzeko edo sortzeko zegoen eta jakinmina itzela zen. Gaur egun, formazioa jasotzen dute (askok hasierakoek baino formazio gehiago jaso dute), baina apaldu dena jakinmina da. Edo hobeto esanda, hasieran soziolinguistikan jantzen ziren eta herria eraldatzeko ilusio handia zuten. Gaur egun, ondo dakigu aldaketarako hormak zein diren (eta etorkizunean etorriko direnak), eta begira-da lausotzen digun ‘etsipena’ transmititzen dugu askotan. Ekintza asko eta asko martxan jarri dira elkar-teetan, ekimen asko landu dira, baina aldaketak, sarritan, txikiak izan dira. Zaharren esperientzia metatuta daukagu, gauza asko abiatu dira erabileran eta jarreretan ezer gutxi aldatzeko. Horrek ez du gogoa elikatzen, hustu egiten du eta ‘ohiko eta betiko’ gauzak egitera eramaten gaitu. Formazio sozio-linguistikoz gain, ilusio berrituak, ausardia eta txoro haize apur bat behar du eus-karak. Eta bigarren horretan ikusten ditut ahul elkar-teak. Eraldaketa sakonaren beharrean daude (gaude) horretan. Instituzionalizatu gara, formaldu gara, inoiz baino gehiago dakigu, baina erakarmena eta mugimendua eragiteko gaitasuna apaldu zaigu” (D03).

Topaguneak, baina, hasieratik izan du funtzioen artean jakintza honen sorre-ran eta zabalkundean aritzea. Egia da 2011 urtera arte lan hau, batez ere, barrura begira egin zuela. Izan ere, Topaguneak urte hauetan hainbat eskuliburu argitara

eman zituen (mintzapraktika egitasmoei buruz, hitzarmengintzari buruz edo aisialdiko programei buruz). Baita hainbat formazio jarduera antolatu ere (hedabideetako kazetariei, programetako teknikariei, boluntario eta aktibistei begira).

Horien artean, bereziki, garrantzia du 2002tik urtero-urtero antolatu izan dituen jardunaldiak²⁹⁶ (azken urteotan, Topaldia izena hartu dutenak). Jardunaldi horiek irekiak izan badira ere, euskara elkarteetako aktibista eta langileek izan dituzte izena emateko erraztasunak (prezio merkeago, lehentasuna besteen aurretik eta abar). Jardunaldi hauetan Jasone Mendizabalek, Topaguneko zuzendariak bi fase bereizten ditu: “Lehen etapan mugimenduan jorratzen ziren lan arloei buruzko gogoetak landu izan dira gehienbat, egiten genuenari buruzkoak: herri komunikabideak, aisialdia, kulturgintza, mintzapraktika ... 2010ean mugimenduaren barne diagnosiari eskaini zitzaion jardunaldien espazioa. Hortik aurrera, beste jite bat hartu zuten Topaldiko aztergaiek. Egiteari buruzko gogoetatik, eragiteari buruzko gogoetara pasa ziren: motibazioaz, aktibazioaz, zubigintzaz, euskaltzaleen mugimenduaz ...” (Mendizabal, 2019).

2011n, baina, Oinarrigarren kongresuaren ostean, Topagunek barrura begira ez ezik, kanpora begira ere ekarpena egiten hasi zen. Horrela jasotzen zuten oinarrigarretan: “Euskaldunon elkarteek metatutako know-howaren kudeaketa plangintza batera ekarri beharko litzateke. Adorez eta Atseginez mintegiaren ereduari jarraituta, gertuko eredu on imitagarrien lanketan oinarrituko litzateke” (Topagunea, 2011).

Horren haritik, hurrengo urteetan Topagunek eta tokian tokiko euskara elkarteek antolatu zituzten Topagunak Azkoitian²⁹⁷, Soraluzen, Derion²⁹⁸ eta La-

296 Hauek izan dira Topagunek urterik urte antolatu dituen jardunaldiak:

2002: Euskara elkarten kudeaketa
 2002: Euskarazko publikitate eta herri komunikabideak
 2003: Tokiko hedabideek euskararen normalizazioan duten eragina
 2004: Euskararen erabilera, hizkuntzaren iraupenerako gako
 2005: Mintzapraktika egitasmoak
 2006: Aisia euskaraz bizi!
 2008: Euskara elkarteak ibilian
 2009: Esku-era
 2010: XXI. mendeko euskara elkarten izaera
 2011: Euskara aniztasunean
 2012: Jolasa baino gehiago
 2014: Geure ardura pertsonal eta kolektiboen aktibazioa
 2015: Kultur komunitate bizia: zein da eragile euskaltzaleen egitekoa?
 2016: Euskaltzaleen aktibazioa XXI. mendean: autoeraketa, ahalduntzea eta performatibitatea
 2017: Euskararen herria: zubiak eta palankak

297 Azkoitiko Gunea eguna izan zuen eta, zelanbat esateko, 0 zenbakiko jardunaldia izan zen. Besteetan landuko zenaren esperimentua izan zen.

298 Adibide gisa, Derioko Topa egunaren egitaraua honako hau izan zen:
 10:30: Harrera. Berbak erein
 11:00: Esperientzien trukegunea. Euskaltzale gazteen topaldia. Umegunea.

sarte-Orian, 2012tik 2015era. Egun hauetan goizetan elkarteen arteko esperientziak trukatzeko topaketak antolatu ziren eta gero, eguerditik aurrera, jarduera ludikoagoak (herri-bazkaria, erromeria, dantzaldiak, kontzertuak eta abar).

2011tik aurrera, bada aipatzeko moduko beste ekimen bat: Topalabea. Topagunearen barruan eratutako taldea da Topalabea eta bere funtzioa da jakintza eta gogoeta mailakoa. Soziolinguistikan ibilbide luzeko jarduna duten kideez eratu zen taldea 2013an. Bere ekarpenik publikoena izan zen 2015ean argitara emandako “Berrikusi eta berrikasi” (Topalabea, 2015) dokumentua²⁹⁹. Dokumentu horretan euskararen garapenaren azken mendi erdiaren errepaso egin zuten, batez ere irakurketa horretatik etorkizuneko ildoak edo bideak ondorioztatzeko. “Dokumentu hau da euskaltzaletasunaren azken hamarkaden irakurketa kritiko bat, etorkizuna begi berriz ikusteko helburuarekin egina. Eztabaida zintzoa suspertu nahi luke egin dugunaz, eskarmentu horrekin hobeto ekin diezaiozun egiteko dugunari” (Topalabea, 2015). Dokumentua argitaratzeaz gain, herririk herri ibili ziren Topalabeko kide batzuk aurkezten eta eztabaidatzen delako dokumentua. Taldea martxan dago gaur egun ere, eta lanean. Baina egindako ekarpenak ez dituzte publiko egin, nahiz eta ari diren ekarpen horiek egiten. “Azken urte hauetan, esango nuke Topaguneak berak bere pentsamendu-ildoak lantzeko ahalegin berezia egin duela” (D01).

Dena den, bada hau ere kritikatzeko duena: “Egin eta egin aritu gara, baina falta izan zaigu gogoeta egitea. Hasieran bai egin genuen, baina gero ekintzak antolatzeko makinak bihurtu ditugu elkarreak eta ez dugu gogoetarik egin apenas. Topaguneak bai egin du gogoeta, baina oso goitik. Hau da, goitik egin nahi izan dute gogoeta eta hortik sustraietara heldu. Baina oso zaila zen. Elkarte gehienetara ez da inondik ere heldu, eta heldu den elkarteetara, jakin nahiko nuke horietatik zenbaitetara heldu den” (SE13).

Herrietara ere jaitsi zen dinamika berri hau. Adibidez, esanguratsua da Durangon abiatutako Euskarak 365 egun kanpaina euskararen egunaren harira.

11:30: Kale-animazioa.
 12:00: Txango gidatua kanposantutik.
 12:30: Aztarnak feminisमतik ikasten. Kantujireia.
 13:00: Batukadea + Kilikiliak. Txakolina dastatzea.
 14:00: Larrain-dantzea.
 14:30: Bazkaria.
 16:30: Bazkalosteko kultur gindak. Irrien lagunak.
 18:00: Ekitaldia. Puzgarriak.
 18:30: Erromeria: Fango. Elektrotxarangea.
 20:00: Zizka-mizkak eta Gibelurdinek kontzertua.

299 Sasoi hartan honako pertsona hauek osatzen zuten Topalabea: Kike Amonarriz, Julen Arexolaiba, Xabier Erize, Mikel Irizar, Elena Laka, Iker Martinez de Lagos, Iñaki Martinez de Luna, Jasone Mendizabal eta Jon Sarasua. Orduetik hona taldean aldatetarik izan dira, baina ez dut lortu jakiterik zeintzuk osatzen duten taldea gaur egun.

Kanpaina honek euskara egunerokotasunean txertatua izateko beharraz jendea jabetzea zuen helburu. Lelo horrekin kartelak egin ziren, talde-argazkiak egin, pegatinak, kontzentrazioak, bideoak grabatu eta abar. Azken finean, herritarrak sentiberatzeko lan ideologiko eta diskurtsiboa egin.

Gerora, kanpaina hau Durangotik mundura zabaldu zuen Topaguneak. Lehen-dabiziko aldiz 2013an (orduko hartan 32 herrik hartu zuten parte) eta, azkenengoz, 2017an (ordutik aurrera, kanpaina mutatu eta Euskaraldia bihurtu zen, baina hori dagoeneko beste historia bat da). Euskararen egunaren harira, herririk herri eta deszentralizaturik hainbat ekintza egin ziren urte hauetan: mosaikoak, lip-dub-ak, elkarretaratzekak eta abar. Herri bakoitzak bere ekintzak pentsatu, diseinatu eta gauzatu egiten zituen. Leloa herri guztietan berdina zen eta premisa bakarra zen plazara atera behar zela diskurtsioa, plazara atera behar zela ekintza, kalera.

Beste elkarte batzuek ere ekin diote lan irlo honi. Esanguratsuen, agian, Donostiako Bagera elkarteak. Izan ere, azken urteotan hilean behin soziolinguistikari buruzko gogoetak antolatu izan ditu elkarteak (Sentitu, pentsatu, egin lelopean). Horrez gain, Alde edo alde komiki-tirak ere argitaratu ditu, euskararen inguruan dauden diskurtsioen gaineko gogoeta sustatzeko. Amaitzeko, Atzean zuloa izeneko bideoak ere ekoitzi ditu, ironia eta umorea lagun, euskaldunok ditugun kontraesanetan arakatzeko asmoz.

4.6.2.8 Bestelakoak

Bestelako hainbat eta hainbat jarduera egin dituzte elkarteek. Ekintzaileak izan dira, batez ere, eta horri lotutako hainbat jarduera antolatu dituzte. Mosaiko ederra osatu daiteke bestelakoen zaku honetan, baina, nolabait sailkatzeko, hiru arlo nagusitara ekarri ditut elkarteek egindakoak: erdaldunei begirakoak (batez ere, etorri berriei begirakoak), ohitura eta abarrak berreskuratzearekin lotutakoak eta jaietan parte hartzeari lotutakoak. Aletuko ditut hirurak banaka-banaka.

Elkarteek hasieratik izan dute erdigunea euskaldunengan. Horrek, hein batean, erdaldunak, baztertu ditu elkarteen jomuga nagusitik. Izan ere, elkarteen asmoa hasieratik izan da euskaldunen komunitatea trinkotzea, egituratzea. Hor-taz, erabat logikoa da erdaldunak bere jomuga nagusitik kanpo izatea. Hori dela eta, 2011ra arte oso-oso bakanak izan dira erdaldunekin landutako ekintzak edo jarduerak. Hala ere, urte horretatik aurrera izan dira ekintza batzuk, nahiz eta oso

irregularrak izan diren zabalkundeari dagokionez. Ekintzarik garrantzitsuenek etorri berriak izan dute helburu.

Haien artean, aipatu behar da Topaguneak bultzatutako Auzoko programa. Hainbat herritan jarri da martxan delako programa. Programa honek helburu du etorri berriei harrera egitea euskaraz. Horretarako, mintzapraktika-programen tankerako funtzionamendua du. Izan ere, euskaldun batek egiten dio etorri berri bati harrera, euskaraz zentratuz. Tandem metodologia, hortaz, kasu honetan ere. Horri lotuta, Zubideiak elkarrizketa foroa ere antolatu du Topaguneak, etorri berriak, erdaldunak eta euskaldunak elkar-eraginean sartuz, euskara gaitzat hartuta.

Beste alde batetik, erdaldunentzako *¿Compartimos?* tailerrak ere paratu ditu Topaguneak eta hainbat herritan garatu dira. Tailer hauek euskaldunentzako *Zergatik ez?* tailerren moldaera bat dira, erdaldunei begirakoak. Aipagarria da ere Aiaraldea astekariak 2014ko euskararen egunaren harira gaztelaniaz eta beste hainbat hizkuntzatan argitara emandako zenbakia. Euskara gai hartuta, eskualdean berba egiten diren hizkuntzak ekarri zituzten aldizkarira.

Ohitura zaharren berreskuratzean ere aritu dira elkarteak. Jai eta ospakizunen berreskuratzean eta zaharberritzean aritu dira: adibidez, Santa Eskean Otxarkoagan edo Elgoibarren, Kanpomartxo Derion edo Erandion, Gaztainerre Ermuan, Eibarren edo Elgoibarren. Herrietako azterketa dialektikoak ere sustatu dituzte elkarteek (Derio, Mungia, Zamudio, Lezama, Amikuze, Bilbo, Eibar, ...). Bestelako lan batzuk ere sustatu dituzte. Adibidez, Gasteizeko Geu elkarteak “Arabako euskal hotsak” (Briñas, Otsoa de Alda, 2002) liburua argitaratu zuen, Azkoitiko Maxixatzen-ek “Azkoitiko gaitzizenak” liburua (Elortza, Mujika, 2004) edo Usurbilgo Noaua-k argitaratutako “Usurbilgo baserriak eta baserritarrak” (Tellabide, 2004) liburua. Getxon, baina, ikertu ez ezik, zabalkundea ere egin dute. Horretarako, urtero egiten dituzte toponimia ibilbideak toponimia txikia berreskuratzeke eta sozializatzeko asmoz.

Tokian tokiko jaietan ere hartu dute parte elkarteek. Parte hartze honek osagai ekonomikoa izan badu ere, elkarteak ere zeharo inplikaturik egon dira hainbat herritan jai batzordeetan (adibidez, Deustu, Durango, Santutxu edo Lezaman). Gasteiz, Bilbo eta Donostian elkarteek ere hartu dute parte jaietan, modu batera edo bestera. Bilbon, adibidez, Zenbat Gara elkarteak Algara konpartsa eratu du. Donostian ere bada kofradia bat Bagerari lotua eta Gasteizen Geu elkarteak ere txosna jartzen du urtero-urtero.

4.7 Euskara elkarteen emaitzak

Euskara elkarteek, oinarri teoriko eta filosofiko batzuetan oinarrituta, helburu zehatz eta orokor batzuk markatu zituzten. Eta horiek lortzeko, ekintzak egin dituzte, jarduerak, praktikak, aurreko ataletan ikusi dugun bezala. Baina lortu al dute elkarteek bilatzen zutena? Zer puntura arte lortu dute bilatzen zutena? Edo, beste era batez galdetuta, zer emaitza lortu dituzte? Zer lortu dute? Zer ez dute lortu? Zeri ezin izan diote heldu?

Hau guztia, gainera, aztertu behar da mugimendu sozialen emaitzen betaurrekoak jarrita. Hortaz, begirada jarri behar dugu, alde batetik, emaitza politikoetan, hau da, elkarteek lortu dituzten alternatibetan eta pertsonengan eragin dituzten aldaketetan. Eta, beste alde batetik, begirada emaitza kulturaletan ere jarri behar dugu. Beraz, begiratu behar ditugu elkarteek lortu dituzten balio, sinesmen eta iritzien aldaketak, begiratu behar ditugu sinboloei eman dizkien esangura berriak eta, azkenik, komunitatearen egoera sozialean gertatutako aldaketak. Analisiaren markoa hau izango da aurrerantzean, baina kontuan hartu behar da sarritan plano horiek guztiak elkarri lotuta daudela, elkarri eragiten ari direla etengabe eta espiralean, barrutik kanpora eta kanpotik barrura. Hortaz, marko orokor horretatik abiatuta, ulertu behar da zeharo zaila dela emaitza zehatz bat aurretik aipatutako zer arlo edo esparrutan kokatu beharko litzatekeen. Eta, gainera, hori ez da inondik ere helburua. Helburua, azken finean, emaitzen kontaketa egitea da, emaitzen gaineko irakurketa egitea, irakurketa kolektiboa beti ere eta ez, horrenbeste, zer kaxatan sartu beharko litzatekeen emaitza edo eragin bakoitza erabakitzea.

Orokorretik abiatuko naiz emaitzak aztertzeko, euskara elkarteen mugimendu honek azken 30 urteotan lortu dituenak eta lortu ez dituenak aletuz. Ildo orokor hori murtxikatu ostean, hiru arlo nagusitako emaitzak xeheago aztertuko ditut: batetik, hizkuntza komunitatea trinkotzeari buruzkoak; bestetik, erabilerari buruzkoak (eta arloz arlo lotutakoari buruzkoak); eta, azkenik, zer oihartzun edo erresonantzia ekarri duten elkarteek, hots, berariaz bilatzen ez zituzten emaitzak.

Dena den, elkarteen emaitzak aztertzeko, hartu behar da kontuan zein izan den elkarte hauek jokatu duten tatamiaren nolakotasuna edo, modu prosaikoagoan esateko, zein izan den elkarte hauen eta euskal jendartearen testuingurua. Izan ere, elkarteek egin dute, baina egite horren emaitza guztiak ez dira egon euren esku. Esan gura dut ez dela erabat komunizatzeke modukoa ekintza bat eta harekin lortutako emaitza. Faktore askok hartzen dute parte eta horiek guztiak aintzat hartu behar dira, balorazio egoki eta zuzen bat egin ahal izateko. Hau

guztia ederto azaltzen du galdetegia bete duen adituetako batek: “Truditzen zait mugimendua bere testuinguruan ere aztertu behar dela. Alegia, mugimenduak barrutik egin duena edo egiteari utzi dionaz gain, mugimendu hori urte (mordoxka) horietan zehar Euskal Herrian eta oro har munduan egon ziren, aldatu ziren eta dauden (eta aldatzen ari diren) ezaugarriek eta errealitateak baldintzatu dutela mugimendua, zentzu batean edota bestean, eta mugimenduak barrutik egin duena adina edota igual gehiago ...” (D16).

Hasi aurretik, berriro ere ohar bat egin behar dut. Ahalegindu naiz emaitza hauek ahalik eta orokorrenak egiten, eta horrek ekartzen du emaitza hauek ezin estrapolatzea herririk herri. Hau da, emaitza batzuk lortu dituzte (edo ez dituzte lortu) elkarteek edo elkarteetako batzuek eta, hortaz, horiek ekarriko ditut le-rootara. Horrek ez du esan gura emaitza bera lortu dutenik elkarte guztiek, ez elkarten elkarteak ere (Topaguneak kasu honetan). Mugimenduak (mugimendu deitzerik badago) lortu dituen emaitzak izango dira aletuko ditudanak. Izan ere, praktiketan ere nabarmen geratu den bezala, abiadura ezberdineko elkarteak daude eta, hortaz, abiadura eta sendotasun ezberdineko emaitzak lortu dituzte elkarte horiek ere. Galdetegia bidali zaion adituetako batek honela dakar: “Ekarpena ez da unibertuala; hau da, ezberdina da herriaren eta dinamikaren arabera. Ekarpena oso anitza da” (D08).

Gainera, bada beste arazo bat emaitzen balorazioan hartu behar dena aintzat. Orain arte oso gutxi izan dira euskara elkarteek lortutako emaitzei buruz egindako azterketa xeheak, oso-oso bakanak izan dira. Elkarteek eurek lortutakoei buruz gutxi egin dute berba oro har, gutxi idatzi dute, gutxi hedatu dute³⁰⁰. Beraz, panorama horrekin zaila da jakitea benetan elkarteek zer lortu duten. Jakiteko zer lortu duten parte hartzaileei eta adituei galdetzea iruditu zait biderik emankorrena eta horrekin osatu ditut hurrengo orrialdeak.

4.7.1 Balorazio orokorra

Zer lortu dute elkarteek? Zer ez dute lortu? Norengana heldu dira? Zertara heldu dira? Horiek (eta antzekoak diren beste batzuk) dira balorazio orokor ho-

300 Erreferentzia gutxi horien artean, adibidez, aipatzeko modukoa da nik neuk Tximintx euskara elkarteak lortu dituen emaitzei buruz egindako laburbiltze-lana, nahiz eta emaitzak baino ekintzak aipatu (hau oso ohikoa delako ekarri dut nik hona): “Hamar urtetan, Aikor izena duen eskualdeko hilabetekaria dinamizatu dugu, Berbalagun izeneko boluntarioritza linguistikoko programa antolatu dugu, non urte hauetan 100 pertsonatik gora aritu diren, Derioko haur eta gazteentzako antzerki eskola martxan jarri dugu, hainbat eta hainbat kultur ekitaldi antolatu ditugu, Derioko adineko askoren bizipenak jaso izan ditugu bidez, parte hartu izan dugu jaietan, kultur ohiturak sortu ditugu herriak (gaur egun, adibidez, Derion inork ez du ezer antolatzen adin txikikoentzat gaztelaniaz), ...” (Rodriguez, 2013).

netan erantzun gura ditudan galderak, beti ere elkarriketatzailleek eta abarrek esandakoan oinarrituta.

Hasi orduko, Karrikaluze elkarteak bere hogeigarren urteurrena dela eta argitaratu zuen aldizkariko berbak ekarri nahiko nituzke, iruditzen zaidalako joera orokorra labur eta zehatz marrazten duelako: “Agian ez dira bete elkarteak sortu zuten haien amets guztiak; baina ez dago zalantzarik euskaraz bizitzeko espazioak sortu direla, eta eragin handia izan duela Atarrabia euskaldunago bihurtzeko prozesuan” (Karrikaluze, 2018). Izan ere, esaldi bi horietan laburbiltzen dira balorazio orokorreko hainbat elementu: ez da lortu amesten zena, baina zerbait bai lortu da eta herri hau euskaldunago bihurtzeko prozesuan ekarpena egin dute elkarteek.

Amets handiak zituzten elkarteek hasieran. “Guk orain dela hogeitabost urte pentsatzen genuen prozesu hau azkarragoa izango zela (...). Ez da nahikoa gihar egon” (SE02). Baina amets horiek ez dira bete hasierako ilusio-saso horietan uste zen bezala. “Egur asko jarri zen sutan, garai batean, pentsaturik emaitzak tangibleak izango zirela eta uste dut badagoela sentsaziotxo bat (...) hori ez dela tangiblea izan. Hori konplikatuagoa dela. (...) Hasiera batean, oso potentea zen ilusioa pentsatuz emaitzak loratuko zirela, baina ez dira loratu. Orduan, etsipena sortzen da, noski. Normala den bezala. Hala ere, egunerokoan segitzen dugu” (SE06). “Bageraren kasuan, sortu genuen desio batekin izateko euskaldun peto-peto diren guztien konfluentzia, baina bihurtu zen gauza bat gehiago, eta hori ez zen, behintzat nire buruan, zegoena” (SE05). Antzekoa dio beste elkarriketatu batek: “Beste elkarte bat herrian izatea niretzat akats handia da. Oso gutxi da. Hori eta askoz gehiago egiteko sortu genuen eta behar da ausardia. Behar da burua” (SE10). Nābardura interesgarriak gehitu arren, antzekoa dio beste elkarriketatu batek: “Jendarteak aldatu da eta euskara elkartearen filosofia, lan egiteko modua ez da aldatu. Ondorioz geratu dira atzean, blokeatuta. Nire inguruan ikusten dudana gatik, eh? Uste dut badirela euskara elkarte asko oso ondo funtzionatzen dutenak, eta kriston inbidiaz begiratzaren diet. Baina hori ez da orokorra, nire inguruan behintzat” (SE23).

Horri lotuta, badirudi gutxi izan direla garapen oso edo esanguratsu bat, behinik behin, izan duten elkarteak. “Nik uste dut 30 urtean benetan garatu, zenbat euskara elkarte egin dituk? (...) Zenbat euskara elkarte desagertu dira? Zenbat ez dira desagertzen ez desagertzearren” (SE04). Antzekoa dio beste elkarriketatu batek: “Nik ez dut irudikatzen gure herria elkarerik gabe. Horiek lan handia egin dute, haur eta gazte arloan, berbalagunetan eta abarretan. Hala ere, iruditzen zait oso elkarte gutxi lortu dutela eragin hori, ezinbestekoak bihurtzearena. Elkarte gehienak hor ibili dira, ahal izan dutena egiten, baina eragin gehiegirik

gabe” (SE13). Beste elkarrizketatu batek ere honela zioen: “Sinisten genuen bete-betean, pentsatzen genuen izango zela akumulatiboa, proiektu gehiago etorriko zirela atzetik, elkartuko ginela beste erakunde, beste jende, beste ez dakit zer ...” (SE06). Are gehiago. Elkarrizketatu batek zuzenean lotzen zituen garatutako elkarteak eta emaitzak. Hau da, garatu diren elkarteek lortu dituzte emaitzarik esanguratsuenak bere ustez. “Nik uste dut leku batzuetan asmatu dutela edo asmatu zutela primeran eta beste lekuetan halamoduz. Eta funtzionatu duten herrietan erreferente izan direlako asmatu dute, erreferente beste elkartei begira, ikastetxei begira, udalarekin harremanean, ... Erdigune xamarrean egoten lortu duten elkarteek asmatu dute, eta besteek ba ez horrenbeste” (SE14).

Sorrerako garai eta sasoi horietan elkarteek ekarri zuten ilusioa, ekarri zuten berritasuna, ekarri zuten freskotasuna. “Nik uste dut, hasieran, iniziatiba berrituak zirela eta ilusioa sortu zutela, ekimena sortu zutela eta jendearen partaidetza jaso zutela” (SE02). “Herri askotan beste eragile garrantzitsu bat izan dira. Hasieran ekarpen handia egin zuten: ilusioa, ideia berriak, aldarrikapen ideologikoak, erabilera dinamiken sortzaile, eta abar” (D03).

Gerora, badirudi, ezaugarri horiek kamustu egin zaizkiela elkartei, modu batean edo bestean. “Gaur egun ez ditugu berritzaile ikusten, mugimendu izaera apaldu egin zaie, ohiko dinamikak janda. Ezinean ere bai, eta batzuk frustazio apur batekin herritarrek erabileran ez dutelako pauso nabarmenik ematen. Zama sumatzen zaie, iniziatiba gehiegi gabe” (D03). “Orain dela 30 urte, hasi ginenean, igual bidea hura zen. Bideak edo egiteko moduak edo ... Eta gero ez dugu asmatu ... bidea hor dago, baina trena bezalakoa da? Ezin da aldatu ala? Ez dago ausardiarik bide berri, egiteko berriak arakatzeko” (SE04). “Balorazio positiboa egiten dut, baina aldaketa handi baten beharrean ikusten ditut, behar berriei erantzuteko eta ilusioak berritzeko” (D05). “Orain arte egin dugunarekin mugimendu honek ez badu eduki 25 edo 30 urteek eskatzen duten edo berez eduki beharko lukeen garapena, eta garatu baino gehiago mugimenduak, orokorrean hartuta ze sabuespenek ez dute balio, orokorrean hartuta behera egin badu, igual baten batek esan behar du: kongresu bat ez da nahikoa. Beste zeozer da behar duena mugimendu honek” (SE03). “Gauza ilusionagarri gutxi ikusten ditut euskara elkarteetatik” (SE17). “Egindakoak eragin mugatua izan du, dudarik ez. Baina ez Elkarteek egindakoa bakarrik” (D01). Gogorrago aritu den aditurik ere izan da bazterrotan: “Euskara elkarteak ez du inor emozionatzen. Grisa da. Tristea” (D11).

Hori horrela izanda ere, askok azpimarratu dute, hala ere, elkarten lana mezezi izan duela. Eta, era berean, elkarteak egongo ez balira, gaur egungo egoera

oraindik okerragoa zitekeela. “Iguale emaitzak ez dira hain begi bistakoak, baina ez baleude talde horiek-eta ... Orduan bai sumatuko litzateke. Ze funtsean, nik uste, eutsi egiten diogu elkarteok herri honen mamiari, muinari” (SE06). “Euskara elkarteak ez baleude, egoera eskasagoa izango litzateke zalantzarik gabe” (D03). “Egongo ez bagina zer? Eta duda gutxi daukat askoz asimilatuago egongo ginatekeela. Oro har, lan handia egin da. Olatuaren onena pasatu eta gero, ba esklerosia geratu da han eta hemen” (SE08). “Ez pentsatu horrenbeste zer egin den, baizik eta ez balitz, zer gertatuko zen” (SE14). “Euskara elkarteek mahai gainean jarri zituzten lanketa batzuk ordura arte ez zeudenak. Gogoeta batzuk eta, gainera, praktikara eramateko saiakera bat egon da mugimenduaren bitartez” (SE15). “Euskararen gaia agendan jartze hutsa ikaragarria da” (SE21).

Apur bat orokorrigo jotzen du galdetegia bete duen aditu batek: “Euskara elkarteek, ez dago dudarik, beren aportazioa egin dutela. Euskaltzaleen belaunaldi bat izan da, testuinguru jakin batean euskara elkarten bidea hartu zuena eta bere lana ahalik eta ondoen egiten saiatu dena. Hor ez dago zalantzarik. Baina historia idazten hasita, autokritika gehixeago behar genukeela uste dut, baldin eta aurrera egin nahi badugu, behintzat” (D12).

Ikuspegi osatuago batetik ekin dio beste aditu batek. Honakoa da bere balorazioa orokorrean: “Nik uste dut hobetzeko tarte handia dutela euskara elkarteek, baina horrek ez du esan nahi azken urteotan ekarpenik egin ez dutenik. Nik uste dut ekarpen handia egin dutela, sortu dutela euskararen garapena bultzatzeko beste modu bat, transbertsalagoa, integrazioa helburu duena, trinkotzea helburu duena, administrazioekin elkarlanean jardungo duena, bazkide pila bat lortu dituen hainbat herritan, eta gero egin du” (D10).

Elkarrizketatu batek ere honela borobiltzen eta kiribiltzen du bere balorazio orokorra: “Orduan, uste dut balorazioa positiboa izan daitekeela. Zeuden beharrei erantzuteko sortu ziren elkarteak. Beraien bidea egin zuten. Baina honaino eman du. Eta hori dena bezala. Zapora gabeko txikle batek, segi murtzikatzen, baina ez dauka mamirik. Eta uste dut euskara elkarteek Euskal Herrian asko daukatela emateko, asko eman dutela, asko isilpean geratu dela. Eta elkarteek asmatu dute tresna eta akuilu izaten jendearen bistara, eta ez borrokarako ildo soila” (SE23). Bide malkartsu horretik ere jotzen du beste batek: “Uste dut transmisioan huts handia egin dutela. Bestela indartsuago egongo liriateke. Egindako lana eta beharra presente egongo balitz, uste dut ez litzatekeela egongo kolokan euskara elkarterik. Eta nahiko nuke pentsatu ez dela egoera, baina uste dut badela” (SE04).

Zentzu horretan, galdetegia bete duen beste adituetako batek honakoa dio: “Argi dago emaitzak lekutan daudela euskararen normalkuntzak eta biziraupenak behar dutena lortzetik, baina egokia izan daiteke galdera hori iraultzea: Nolakoa litzateke euskal komunitatearen egoera elkarteak existitu izan ez balira” (D09). “Uste dut elkarteak izan zitezkeenetik urruti samar geratu direla” (D10), dakarkigu beste adituetako batek. Juan Luis Arexolaleibak dioenarekin amaitu nahiko nuke balorazio orokor hau: “Argi dago edozein herritan euskara elkartearen jardunak euskararekiko sentsibilizazioa areagotu eta bultzatu egiten duela” (Arexolaleiba, 1993). Hori bai, zer neurritan eta zer punturaino, hori dagoeneko beste kontu bat da.

Ildo horretatik bada balorazio orokor positiborik egiten duen aditurik. “Kultura modernoaren emaitza dira euskara elkarteak. Hizkuntzarenganako pertzepzioa modernizatzen eta eguneratzen sekulako lana egin dute elkarteek, hitzarmena, tokiko hedabidea, aisialdia, mintzalaguna, eta abar” (D14).

Beste alde batetik, ikerketan parte hartu dutenetako batzuek esan dute elkarteek ez dutela jakin izan eurek egiten zuten lana behar bezala komunikatzen. “Guk ez dugu oso ondo jakin saltzen egiten den lana” (SE08). Bide beretik jotzen du AED elkarteari buruz “Komunitateak ehunduz herri ekimenetatik” ikerketan parte hartu duen kideak: “Komunikazio-estrategia landuaren falta sumatzen du, batez ere kanpora begira” (Esteban, 2018).

Elkartei buruz egin dut berba orain arte. Eta, nire ustez, merezi du balorazio orokor honetan elkartearen elkarteari, Topaguneari, buruzko aipamen labur batzuk egitea. Izan ere, hein batean Topaguneak, sorreratik bertatik, elkarteetan eragina izan du eta, hori dela eta, horri buruz berba egitea merezi du, labur bada ere. Ikerketan parte hartu duten kideetako batek honakoa dio: “Uste dut, momentu honetan, euskalgintzari eta euskararen mugimenduari dagokionez, Topaguneak zentralitatea ezarri duela euskal gizartean” (SE02). Ildo beretik ere jotzen du beste parte hartzaileetako batek: “Eta gero uste dut nazio mailako hainbat forotan-eta eragin positiboa edukitzen ari dela Topagunea” (SE03). Dena den, ikerketan parte hartu duen beste pertsona batek ez du horren garbi ikusten: “Nik esango nuke zentralitatea baino, bizirik segitzeko aukera bat eman diote Topaguneari. Eta hori dena helburuak errebajatzaren truke eta erreibindikazio handirik ez egitekotan. Eta zergatik diot helburuak errebajatzaren truke? Euskara elkarteek, mugimendu sozial diren heinean, aurretik joan behar dutelako iparra markatuz, eta ez, alderdiek beren jarduna zurrizko darabilten diskurtso epela haizatuz eta haiei lidergoa emanaz” (D12).

Topaguneak lan zintzoa egin duela dioenik ere bada. “Topaguneak lan zintzoa egin du. Eta benetan bere burua kolokan jarri zuen. Gure burua ere astindu egin behar dugu” (S24). Lana zintzo egin arren, benetako ordezkariarik ez duela lortu eta bere buruari eusten lan gehiago egin duela esaten du ikerketan parte hartu duen kide batek: “Ez dut ikusten Topaguneak lortu duenik izatea gu denon ordezkari benetako bat. Iruditzen zait lan asko egiten duela bere burua sostengatzeko. Behar du, logikoa da. Guri ere, elkarteoi, pasatzen zaigu” (SE22).

4.7.2 Euskaldunon komunitatea trinkotu

Hauxe izan da euskara elkarteen helbururik behinena: euskaldunon komunitatea trinkotzea, egituratzea, indartzea, sustatzea, sendotzea, azkartzea. Zer puntura arte lortu dute elkarteek trinkotze hau? Zertan gauzatu da trinkotzea? Zertan geratu da hanka motz trinkotze edo egituratze hori?

Komunitatearen trinkotzea neurtzeko orduan, aurkitzen dugun lehen zailtasuna izan daiteke horren atzean zer ezkutatzen den argiegi ez egotea. Izan ere, zer ulertzen da trinkotzeaz? Zertan datza trinkotzea? Adituetako batek adierazi bezala, “... trinkotzea esaten dugunean zer esan nahi dugun eta zer irudikatzen dugun zehaztu beharko genuke” (D01). Beste adituetako batek honela definitzen du gutxi gorabehera trinkotzea: “Trinkotzea nabarmentzen da herriko pertsonarik euskaltzaleen hizkuntza-politika egitean norberaren pentsaera politikoaren aurretik hizkuntza komunitatearen beharrak jartzen dituztenean. Horrek, horrela gertatzen denean, eta beste osagai hainbat ere batzen direnean (persona horien aniztasuna, sinesgarritasuna ... / abian jartzen diren jardueren interesa, erakargarritasuna, sendotasuna ... / eta beste hainbat zirkunstantzia), efektu erakargarri bat ekarri izan du hizkuntza-komunitateko kide gehienengan (ikastolek beraiek sortu izan zuten bezala)” (D16).

Hala ere, trinkotzea ez dela izan uste bezain sendoa ematen du. Honakoa zioen Topaguneak bere oinarriparrei buruzko txostenean: “Egitearen eta izatearen arteko oreka bilatu beharko genuke aurrerantzean. Euskara elkartein sorreran orekatsua izan zen bien arteko osagarritasuna, baina denboran zehar zerbitzugintzak, ekintzak antolatzeak pisu gehiago hartu du eta, adibidez, euskaldun osoen bateragunea eraikitzean, hots, espazio sinbolikoaren nuklearizazioan, ez da nahi beste aurreratu” (Topagunea, 2011: 15). Bide horretan, Topalabea taldeak 2015ean egindako txostenak honako kontuak aipatzen zituzten trinkotzearekin zerikusia zuten balantzean (Topalabea, 2015: 26):

- “Botere vs. kontra-botere aroan, euskaltzaleen topaguneek³⁰¹ ekarri zuten hizkuntza-komunitatearen kontzeptua aintzat hartzearena.
- Euskaldunak elkarren lehian aritu izan diren sasoietan, zubiak eraikitzearen alde jokatu izan dute.
- Unean-unean eta tokian-tokian egingarri zenak gidatu du beren egunerokotasuna.
- Komunitate zentzua elikatzeko, euskaldunon hizkuntza-komunitateak tokian-tokian ikusgarriago egin dituzte.
- Euskarazko harreman-sareak ehuntzen aritu dira, praktikan, etengabe.
- Kolore guztietako euskaldunak eroso sentitzeko moduko espazioak eraiki dituzte”.

Hainbat arlotan jardun dute elkarteek trinkotzen, hori izan da iparra eta jomuga. Izan ere, mugimendu euskaltzalean elkarteak izan ziren nabarmenen aldarrikapenetik komunitatea eratzera pasatu ziren eragileak. Trinkotzearen bide edo prozesu horretan, baina, funtsezkoak izan dira hiru ezaugarri: batetik, autoeratze prozesu bat; bigarrenik, praktika performatiboa izatea eta, hirugarrenik eta azkenik, diskurtso propioa eta burujabea.

Autoeratzeari dagokionez, euskaldun osoek eratu dute elkarteen muina. Eta, zentzu horretan, euskaldun horiek erabaki, sortu, landu eta ebaluatu dituzte egin beharrekoak. “Batetik, erabaki-gune bat. Euskaldunok sortu dugu. Hau da, euskararen gaiaren inguruan azterketak egiteko, proposamenak lantzeko eta erabakiak hartzeko gune bat eraiki dugu. Erabiltzen dugu. Euskaldun guztiak bizi ginen bestelako erakundeetan edo elkarteetan, eta han egiten genuen bizitza soziala” (SE10). “Gabezia bat ikusi zen. Gabezia horri buelta emateko edo erantzuteko gune edo tresna bat sortzeko beharra ikusi zen” (SE22). Izan ere, euskara elkarteek ez dute itxaron; besteek egiten ez badute, eurek egin behar dutela esan eta egin dute. Zentzu horretan, aipagarriak dira Zamudioko Lagatzu elkarteak txosten batean esandako berba hauek: “Iraganari buruz pentsatzen ari ginen, etorkizuna irudikatzen. Triste jarri ginen, beldurtu ginen, amorratu ginen, mina borborka genuen. Protesta egin genuen, kalera atera ginen. Aldarrikatu genuen, eskatu genuen. Itxaron genuen. Eta ezer ez. Ondoren etorri ziren galderak, jendea, haserrea,

301 Euskaltzaleen topaguneak euskara elkartei deitzeko Topaguneak aukeratutako forma da. Dena den, oso elkarte gutxiak egin dute horren aldeko hautua eta gehienek jarraitzen dute euren buruari euskara elkarte deitzen.

amets bat, ideia bat, beste amets bat, haserrea borborka, ideia gehiago, esperantza apur bat. Goazen!! Eta joan ginen. Itxaroteari utzi eta bakarrik abiatu ginen, inori baimena eskatu barik. Eta errealtate gara, txikia baina sendoa, larria baina esperantzaz betea” (Lagatzu, 2007).

Zentzu honetan, azpimarratzeko moduko ekarpena egin du galdetegia bete duen adituetako batek: “Elkarteak, nire ustetan, urte askotan Euskal Herrian garatu den herrigintzaren adierazpen argia dira. Adierazpen bat gehiago. Hartara, jendearen ekimenetik eta partaidetzatik sortutako eraikuntza sozial bat egin dute. Ez goitik beherakoa (hau da, instituzio politikoetatik bultzatutakoa), gizarte zibiletik baizik. Eta hori hala da elkarteen proiektuak guztiz gauzatu ez badira ere. Horrela, jendearen ekimenez herrietarako proiektuak diseinatu dituzte, errealtate soziala ulertzeko eta interpretatzeko marko bat sortu dute eta horretara bideratu dute ekintza kolektiboa *bottom-up* perspektiban. Aldaketa sozialerako eta berrikuntza sozialerako indar izan dira. Eta tokiko gizarte zibila aberasteko eta herri-tarrak ahalduntzeko gune garrantzitsu bilakatu dira dudarik gabe” (D02).

Eta autoeratze bide horretan, elkarteak hainbat herritan sorkuntzarako dispositiboak izan dira. Zentzu horretan, jarduteko guneak eta tresnak eman dizkiete hala nahi izan duten euskaldunei. “Herri askotan saretzen eta antolatzen asmatu dute elkarteek. Espazio bat ematen zeozer egiteko gogoia daukan jendeari” (SE22). “Batzuentzat, behintzat, parte hartzeko, mugitzeko eta gauzak sortzeko aukera eman duten nukleo moduko batzuk edo zera batzuk osatu diren herrietan eta ibili diren lekuetan” (SE09). “Gu erreferente gara, euskara hutsezko erreferente. Eta, batzuetan, jendea proposamenekin etortzen da” (SE24). “Elkarteak badu izen bat eta badu toki bat. Eta, horrekin batera, euskarazko ekintzei eman die toki bat eta onartuta dago” (SE04).

Autoeratu ez ezik, praktikan ere performatibo jokatu dute elkarteek. Alegia, euskaraz ia erabat bizi izan dira elkarteak (baita elkartearen muina osatu duten pertsonak ere): euskaraz egin dituzte batzarrak, euskaraz eztabaidatu, euskaraz amestu eta euskaraz lan egin dute. Eta, gainera, koherente jokatu dute. “Elkartea oso koherentea izan da bere jardunean” (SE12). Oso adierazgarria iruditzen zait, honi lotuta, elkarrizketatu baten honako aipu hau: “Inkomodoak gara. Inkomodoak gara ze jartzen dugu erdian zein da gakoa. Gakoa da edo euskaraz egiten dugu edo gaztelaniaz egiten dugu. Eta zu oso euskaltzalea zara, baina beti behartzen nauzu euskaraz ez egitera” (SE10).

Hirugarren hanka ere izan du trinkotzeko ahaleginak: diskurtsoa, diskurtso propio eta burujabea. Kasu honetan, aurreko bietan ez bezala, ez dago adostasunik ikerketan parte hartu dutenen artean. Izan ere, batzuen ustez, elkarrekin eratu dute diskurtso propio eta burujabea. Esate baterako honako hau dio elkarriketatu batek: “Ba niretzat, eta ekarpen funtsezkoa iruditzen zait, da hiztun komunitatea jartzea erdigunean. Euskara oso uztartuta zegoen orduko helburu eta balio guztiekin, dena zegoen bideratuta gizartearen emantzipaziora. Eta euskara zegoen horrekin oso lotuta. Baina gero aldatu zen eta ondo egiten dena, niri esker egiten da eta euskararen ajeak beste batzuenak dira. Nik uste dut euskara elkarrekin ekarpenik handiena izan zen hori, hiztun komunitatea erdigunean, eta nolabait antidoto bat izan zen” (SE01). Beste batek, berriz, honakoa dio: “Hizkuntzaren inguruan zegoen frentismoari beste aurpegi bat ematea, niretzako hori lorpen handia izan da” (SE02). Eta beste batek ere antzekoa dio: “Bereziki diskurtso aldetik asmatu da. Ze, funtsean, hemen diskurtso sendo bat dago” (SE06). Iritzi berekoa da beste elkarriketatu bat: “Nik uste dut diskurtso mailan asmatu zela, euskararen diskurtso berri bat, euskara erdigunean izango duena, baina irekia” (SE14).

Badira esaten dutenak diskurtso hori ez dela izan behar bezain sendoa. “Lan ideologikoa ziurrenik ez dugu egin forma planifikatuan. Oso sustraituta dago askoren buruan euskara rolo bat dela, euskara dela baserriarren kontua, batua rolo bat, ... Oraindik aurreiritzien errota hori martxan dago topera. Eta, klaro, horri aurre egiteko plangintza bat behar da” (SE08). “Ez dugu lortu, asmatu baino, ahots propio sendoa izaten” (SE04). “Ideologikoki armatuak sortu ginen eta gaur egun desarmatuak gaude. Armatuak gaude produktu eta zerbitzuetan. Desarmatuta gaude bestean” (SE19).

Eta badira diskurtso hori eratzea oso zaila izan dela dioenik. “Gero nik azpimarratuko nuke ikuspegi autonomo hori eraikitzea poliki-poliki. Hori ez da bat ere erraza izan. Politikoki oso nahasiak ziren garaietan atzera begiratuta, eta gaurtik begiratuta oso erraza da ikustea, baina bertan momentuan ez” (SE12). Topaguneak berak aitortzen zuen hau bere oinarriparren inguruko txostenean: “Euskara elkarrekin asmatu dute gehienetan alderdikeriaren ez erortzen, baina bere lekua topatze horretan kritikotasuna kamusten joan da” (Topagunea, 2011).

Diskurtsoa sendoa izan ala ez izan, ikerketan parte hartu duten gehienek bai ikusten dituzte gabeziak diskurtso hori jendarteratzean eta hedatzean. Adibidez, elkarriketatu batek honakoa zioen: “Batzuetan Topagunea galdu egin da adituen zera horretan, sekulako gogoetak eta abar. Baina gero kalera zelan dator gogoeta

hori?” (SE08). Beste batek honakoa dio: “Diskurtsoa komunikatzen ez dugu jakin eta batzuetan ez dugu jo arazozen erroetara, seguruenik beldurragatik” (SE23). “Ni ez nauzu konbentzitu behar, nik badakit. Iritsi behar zara urrunagoko geruza horietara. Eta, horretarako, besteen ikuspegian jarri behar gara eta euren errealitateetik begiratu gure proiektua. Eta hori ez dugu egin” (SE04). Beste batek honakoa zioen: “Ez dugu gure diskurtsoa azaldu, ezta gure komunikabideetan ere” (SE13). “Ez gara gai izan euskaldun askorengana iristeko. Oso ezezagunak gara gure artean” (SE18).

Hiru hanka horietan oinarritu da euskara elkarteen trinkotzea. Baina zer iritzi dute ikerketan parte hartu duten pertsonak lortu den edo ez den trinkotzeari buruz? Kasu honetan ere, iritzi kontrajarriak daude, baina orokorrean gehienek aitortzen dute ez dela lortu uste zena bezainbeste. “Euskaltzaleok elkarren berri gero eta gehiago daukagu. 28 urtean lortu da nahiko genukeen beste? Ba erantzuna ez izango da seguruenik” (SE03). Baina iritziek ñabardura gehiago dituzte eta merezi du ñabardura horietan apur bat sakontzea.

Izan ere, batzuen ustez, eragin mugatukoa izan da trinkotzea, ez da igarri haren eragina. “Nik uste dut oso mugatua izan dela, trinkotze aldetik oso mugatua. Tanta bat itsaso batean ez da nabaritzen. Egin dute gauza bat edo beste bat arrakasta duena, baina ez dut ikusten, trinkotze aldetik, aurrerapauso nabarmenik egin denik” (SE05). “Elkarte gehienek ez dute jakin bere inguruan euskaldunon komunitate politiko minimo bat eratzen, eta proiektuei lotuta bizi izan dira” (D13). Bada, hala ere, trinkotze hori bai gertatu dela esaten duenik, oso pertsona gutxiengan lortu bada ere: “Gurean, euskara gutxiengo baten esku izanki ere, sentitzen da ariketa bikoitzaren beharra: bateratu eta boteretu, inpaktatu eta konpaktatu. Euskara elkarteek / mugimendu euskaltzaleek ez dute zabal eragiterik lortu. Beti euskaldun kontzientziatu gutxi batzuen afera izan da” (D04).

Dena den, badirudi sorrerako urteetan trinkotzea bai izan zela nabarmenagoa. “Uste dut gure mugimenduan lehendabiziko trinkotze garai horretan oso ongi asmatu genuela. Esango nuke nahiko orokorra izan zela” (SE10). Baina gero, behin lehen trinkotzea gertatuta, zabaltze lanak egiten ez da asmatu, iritzigile beraren ustez. “Hau hauspoaren mugimendua da: trinkotu, zabaldu, trinkotu, zabaldu. Eta nik sentitzen dut ez dugula zabaldu. Trinkotzen dugu eta noiz zabaltzen dugu gehiago izateko eta gure konfort zonetatik ateratzeko eta benetan izateko gero eta komunitate handiagoa?” (SE10). Antzeko bidetik jotzen du ikerketan parte hartu duen adituetak batek: “Hasieran bai, baina estankatu egin dira. Ez dute gehiagora jo. Ez dute argi eduki oinarritzko helburuetako bat: euskaldunen komunitatea

egituratzea. Lehen idatzi dut, baina egituratu dugu megainplikatuaren komunitatea eta besteari ez diogu kasurik ere egin” (D11). Eta, azkenik, antzekoa dio beste adituetakoa batek: “Ez dira gauza izan euskararekin konpromiso aktibo sendorik sentitzen/bizitzen ez zuen euskaldunengana ailegatzeko” (D09).

Beste batzuek, ostera, uste dute trinkotze maila nahikoa izan dela. “Gure birtartez hainbat eta hainbat pertsonak jakin izan dute ondokoa euskalduna zela. Eta hori Basauriko egoerarako asko da” (SE13). “Balio izan du euskaltzale batzuek trinkotze aldera” (SE15). “Elkarteak dauden herri gehienetan lortu dute euskaldunen gune aktibo bat trinkotzea beraien inguruan” (D01). “Euskara elkarteek garai eta modu ezberdinetan lortu dute euskarara hurbiltzen ari zirenak modu erosoan egitea, modu atseginean, politikaren zama gainetik kendu eta kultura batera hurbiltzeko modu erakargarrian” (D05).

Badira, hala ere, elkarteek trinkotu dutela uste dutenak, baina ñabardura jakin garri batzuekin. “Nire ustez, euskara-elkarteak izan dira, ikastolen ondoren, zeregin horretan gehien eragin duten erakundeak. Hori guztia, hamarkada oso politizatu batzuetan (trinkotzea asko zaildu zuena) eta gizarte izaerako eta euskalgintza instituzionalaren artean egon den dinamika ere oso gutxi lagundu duen garaian” (D16).

Trinkotze maila herririk herri eta sasoirik sasoi ezberdina izan da, jakina. Bada maila hori neurtzeko elkarten antolaketari eta bestelako kontu batzuei lotzen dionik: “Elkarten egitura, indar eta hedadura-mailaren arabera izan da, neurri handi batean, lortutako trinkotze-maila” (D01). “Beste kontu bat da trinkotzea etengabe elikatze eta etengabe nabarmena izateko zein baldintza bete beharko lirakeen. Eta uste dut horrek zerikusi gehiago duela antolamenduzko kontuekin (ekonomikoki gaitasun bat izatea, udalarekin lankidetzaren hitzarmenara iristea, ekintza solteak egite ordez jarduerak iraunkorrak eraikitzea iristea, ...)” (D16).

Trinkotzea oso helburu zorrotza zela uste duenik ere bada: “Gure gizartean oso zail ikusten dut ekintza jakin batzuetatik harago komunitatea trinkotzea. Feminismoak lortu du jende multzo handia biltzea ekintza jakin batzuetan estrategia egokia eraman duelako. Fokua emakumeak bereizten dituen horretan jarri ordez, komunean duten horretan jarri dute fokua, ez dute batasun eza azpimarratu, batasun irudia ematen saiatzen ari dira (Emakumeen mundu martxan, adibidez), nahiz eta denok dakigun feminismoa bizitzeko modu asko daudela eta desadostasunak egon. Errespetu handiagoz jokatzeko dutela iruditzen zait, gaia erabat politikoa izan arren” (D03). Hortaz, “uste dut ekintza jakin batzuetan eta une batzuetan

lortu dugula trinkotzea. Trinkotze iraunkorra oso gutxi, aldizkakoa eta arlo jakinetan gehiago. Eta hori izan da, nire ustez, elkarteen indargune nagusia” (D05).

Are gehiago. Galdetegia erantzun duen aditu baten ustez, trinkotzea ez dago elkarteen esku. “Trinkotzea euskal hizkuntza komunitatea trinkotzea bezala ulertzen dut (motibazioa, gaitasuna eta erabilera maila altuetara eramatea euskal hizkuntza komunitatean), eta hori gertaera soziala da, gizartean edo komunitatean gertatzen den (edo gertatzen ez den) fenomeno bat da, eta hori ez dago zuzenean aktibisten esku, gizartearen esku baizik” (D06). Antzekoa dio beste aditueta batek: “Trinkotzea lortu da, euskara elkarteetan gaudenon/egon garenon artean. Hots, trinkotzea gauzatu da. Dispersaturik zeuden euskaldunak lotu ditu. Kopuruak elkarte eta herriaren arabera. Ez duena lortu da euskaldungo osoaren trinkotzea, baina esango nuke ere euskara elkarteon zabalkunde eta egiturekin hau gerta zitekeela pentsatzea ere ilusio hutsa baino ez zela. Sakonagora joz, herri mugimendu batek trinkotze bat lortu dezake bere kide, aldeko eta inguru hurbiletan. Hizkuntza komunitate oso bat, gaur eguneko European, gizarte kapitalista hiperteknologizatu batean, esango nuke ezinezkoa dela eta helburutzat markatzea ere oker joatea dela. Inoiz ez baita gertatuko. Lortuko da hizkuntza komunitate horretan erdigune sendo eta trinkotu baten zutarriak ezartzea, eta hortik politikan eragitea eta hizkuntzaren garapenean eragin eta baldintzatzea, berreskurapenaren bidea bermatuz” (D07).

Trinkotzeak, gainera, zerikusia du kantitatearekin, baina batez ere kalitatearekin. Izan ere, elkarteek hasiera batean trinkotze sendoa galdegiten zuten: euskaldun osoen trinkotzea, hain zuzen ere. Hortaz, kalitateari ematen zioten garrantzia. Hala ere, badirudi laster batean beste kontu batzuei garrantzia ematen ere hasi zirela elkarteak. “Pixka bat momentu batean nik ikusi nuen kantitateari ematen zitzaiola garrantzi gehiago kalitateari baino” (SE05). Galdetegia bete duen aditueta batek honakoa dio: “Hasierako elkarteetan trinkotzea bai zen helburu bat, baina uste dut gerora jende asko mugitzea helburu garrantzitsuagotzat hartu zela. Zergatik? Euskara elkarteon egitekoa justifikatu egin behar zelako beti. Adibidez, diru laguntzen sistemagatik. Udalek ez dute diru laguntza ematen elkarte trinkotzeko. Ematen dute udalekuetara ume asko eramateagatik” (D11). Zentzu berean, lehen aipatutako elkarrizketatuak hainbat elkartek edo mugimenduk lortu duten trinkotzea euskara elkarteek lortutakoarekin erkatzen du: “Jakinek egin du bere historia guztian konpaktazio lan bat ikaragarria, ederra, polita eta sakona. Bertsolariak ere egin dute kriston konpaktazio lan bat inpresionante, eta ikastolek ere egin dute konpaktazio lan bat inpresionante. Edo feminismoan ere ari dira

ematen. Euskara taldeek, ostera, kasu gutxi batzuetan bai (mintzalagunean adibidez) eta gehienetan saiatu bai, baina lortu ez” (SE05).

4.7.3 Euskararen erabilera sustatu

Trinkotzea izan da, modu batean edo bestean, euskara elkarteetan helbururik behinena, esan dudana bezala. Baina, era berean, elkarteetan lanak zerbait ezaugarritu badu, hori, duda barik, erabilera izan da, erabilerari eman dioten garrantzia³⁰². Elkarrekin hasiera-hasieratik erabilera jarri dute zentroan, erabilera izan da haien zatitza hizkuntza komunitatearen osasun egoeraren aldagaririk garrantzitsuenak. Txepetxeak aipatutako hiru faktoreen artean erabilera hartu dute elkarrekin zentrotzat, eta ez ezagutza edo motibazioa. “Nik uste dut hauek³⁰³ nahiko bisionarioak izan zirela. Erabilera ekarri, jarri mahai gainean” (SE15). Hori dela eta, elkarrekin han eta hemen saiatu dira euskarazko praktikak areagotzen, bultzatzen, sustatzen, hezurramaitzen, hizkuntza komunitatearen osasuna hobetze aldera. Izan ere, elkarrekin erabileran eragiteko sortu ziren eta horretan zentratu dira. Erabilerarako praktika eraginkorrak sortzeko asmoa izan dute eginkizunik behinena.

Praktika horiek sustatzeko, mila eta bat estrategia eta ekintza jarri dituzte martxan elkarrekin, aurreko puntuan ikusi dugun bezala: hedabideak, uneak eta guneak, haur eta gazteentzako ekintzak, kulturagintzari lotutako jardunbideak, erabilera programak eta abar. Den-denak euskarazko praktikak biderkatzeko helburuarekin. Eta, hortaz, analisiaren atal honetan praktika horiek euren helburua zer neurritan arte bete duten aztertzea dagokit. Baina banaka (edo taldeka) aztertu aurretik, nahiago dut balorazio orokorretik hasi eta gero apurka-apurka xehetasunetara eta nabarduretara jaitsi.

Beraz, orokorretik hasiko naiz. Zer diote ikerketan parte hartu dutenek? Elkarrekin egiteko batek honako gogoeta orokorra egiten du: “Hainbeste lan, hainbeste diru, hainbeste ordu, hainbeste ekimen, hainbeste proiektu, hainbeste ez dakit zer ... eta lanetik etxera zoaz, etxetik kiroldegira joaten, edo kalera irteten zarenean ... buaaa, oso desesperantea duk. Eta egin dugun dena egingo ez bagenu? Egin behar dena egiten ari gara edo egiten ari gara hau beti horrela jardun dugulako, eta errutinaz eta beste ezer egiten ez dakigulako?” (SE04). Beste batek antzeko gogoeta egiten du, nabardurak nabardura: “Nire ustez, ez da egiten behar beste erabi-

302 Elkarrekin egiteko batek esan duen bezala, euskara elkarteetako kideei euskarazko beste eragile batzuek “erabileraren astunak” deitu izan diete (SE15).

303 Hauek adierazmoldearen bidez elkarrekin egiteko euskarazko elkarteetan sortzaileei egiten die erreferentzia.

lerari buruzko galdera hori. Batzuetan ematen du pasatzen garela hanka puntetan asuntotik. Erabileran eragin apaltxoa izan dugula esango nuke. Hau da, lortuko bagenu makina bat neurtzeko, aurten zenbat hizkuntza ohitura aldatu dira? Hori izango litzateke benetan itzela. Ze, beste guztia nik ikusten dut sukaldea prestatzea hastea bezala, ez? Goazen hurbiltzera gatz potoa. Goazen jartzera zartagina sutan. Arrautzak ere ekarri honantz ... Baina zenbat tortilla egin ditugu? Ah, ez dakit, baina ekarri dugu gatza honaino, eta piztu dugu sua ... Oso ondo! Hori guztia oso ondo, baina kontua da zenbat tortilla egin dugun jakitea” (SE06).

Galdetegia bete duen adituetao batek ere antzeko bidetik jotzen du erabilerara sustatzeko ahaleginaren gainean: “Erabilerara izan da elkartearen ardatz nagusi, eta aldaketa nabarmenik ez bada lortu, hori ez da izan ahalegin faltagatik izan. Euskara elkarteak ez baleude, egoera eskasagoa izango litzateke zalantzarik gabe” (D03). Ildo beretik jotzen du galdetegia bete duen beste adituetao batek: “Erabileran zer eragin izan duten elkarteek? Eta ikastolek eragin dute gehiago erabiltzea? Eta D ereduko beste ikastetxeek? Eta euskaltegiek? Eta ... Beraz, horrelako galderen inguruan, igual, elkarteek egin dutenak ea erabileran eragin zuzena izan duen galdetzeaz gain, ez legoke gaizki galdetzea ea erabilerara zuzenean nork eta nola eragingo ote lukeen elkarteak existitu ez balira, adibidez” (D16). Antzeko bidetik jotzen du beste adituetao batek, ñabardurak ñabardura: “Euskara elkarteek egin dute egin ahal zutena: erabileraren diskurtsoa praktikara eramane jardueraren bidez. Erakutsi posible dela. Aurrekariak sortu. Jorratu beharreko bideak ireki eta markatu. Nire ustez, aldarria gaintzen du guzti honek. Beste kontu bat da ez dela gizartean nagusi bihurtu, ez duela euskaldungoaren baitan ere nagusitasuna irabazi, ez duela praktika sozial nagusia bilakatzea erdietsi” (D07).

Iritziak iritzi, bada joera orokor bati erantzuten diola dioenik. Hau da, jendar-tearen joera orokorra izan dela erabileran eragitearen ezina eta, hortaz, elkarteek ezer gutxi egin ahal izan dutela erabilerara hori goratzen. “Nire iritzirako, egon da motibazioaren beherakada bat, eta gero etortzen da ezagutzaren ahultasuna, esaten dena gure euskarak egunerokotasunerako ez daukala ez dakit zer, eta erabileraren ezina, ezin handia” (SE05). Gainera, erabileraren kontuan faktore askok eragiten dute. “Erabilerara gehitzea kontu multifaktorialagoa dela uste dut eta oso zaila dela ekintzei kausa-efektu zuzena eskatzea. Are gehiago, askotan kanpo faktoreek (makrosozialek ...) eragin handiagoa eduki dezaketenean, norberak langai jartzen dituen horiek baino” (D16). Eta, hortaz, gaitza dirudi elkartearen ekintzek erabilerarekin zuzen eta artez lotzea, zuzen eta artez harremanetan jartzea.

Erabilera orokorrean eragin txikia izan dute elkarteek, iritzi guztien arabera. Hala ere, bestelako eremu batzuetan praktikak sustatu eta bultzatu dituzte elkarteek, antza: “Talde txikitik euskarazko harremanak sortu edota suspertu dituzte elkarteek, nahiz eta horrek erabilera orokorrean (kale neurketan, inkesta soziolinguistikoa) ez izan islarik. Baina euskararen komunitatea (edo ingurune ez oso euskaldunetan proto-komunitatea) bultzatu eta elikatu dute; alegia, euskaldunen arteko harremanak ehuntzen lagundu dute. Azken buruan, erabileran eragin dute” (D08). Beste aditu batek aipatzen du elkarteak zuzenean saiatu direla erabilera bultzatzen, baina ez zeharka. Baina irakurri ditzagun bere berbak: “Erabilerarako uneak eta guneak sortzea bai, baina erabilera zeharka, ez propio erabilera bultzatzeko berariaz” (D05).

Izan ere, iritzi orokorra da, erabileran eragin bai, baina horrek ez duela ekarri aldaketa esanguratsu edo nabarmenik han eta hemen. “Euskalgintzako diskurtsoak asko azpimarratzen zuen garai batean ezagutza eta esan dezagun ezagutzaren ratioak-edo, portzentajeak zirela helburu nagusi, eta, berriz, azken hamarkadetan erabileraren garrantzira pasatu da diskurtsoa. Baina nik uste argi dugula, aspalditik ari gara denok esaten, ezagutza eta erabilera ez direla orekatzen, motibazioaren arloa, arlo emozionala, eta pentsamenduzkoa, eta beste hainbat arlo ere landu gabe. Eta, zentzu horretan, pixka bat uste dut motibazioa eta erabilera lantzerakoan hankamotz gelditu direla oro har elkarteak. Ez dut esango, hala ere, erabat huts egin denik” (D10). “Erabileran eragin positiboa lortu dutela ukalezina da: batzuetan zuzenean erabilera bera goruntz eramaten, eta beste batzuetan erabileraren aldeko giroa sortzen” (D06).

Dena den, erabilera orokorraz gain, euskarazko praktika zehatzak lantzen eta sustatzen aritu dira elkarteak. Eta, jakina, merezi du horretan ere arreta paratzea. Merezi du praktikaz praktika elkarteek zer emaitza lortu duten (edo ez duten lortu) aztertzea eta merezi du bakoitzean egon daitezkeen xehetasunak edo ñabardurak fin-fin ehotzea.

4.7.3.1 Tokiko hedabideak

Hedabideen arloarekin hasi nahiko nuke. Praktiken azterketan esan dudan bezala, hau izan da elkarteek jorratutako gaien artean aztertuena eta, hortaz, kasu honetan emaitzei dagokienez, bibliografiarik sendoena duena. Aztertuena izateak ez du esan gura, baina, beste alorretan emaitzarik lortu ez denik. Kontua da elkarten jardunik profesionalena eta, seguruenik, ikusgarriena izan dela hedabideei

lotutakoa eta horrek ekarri du, nire ustez, hauen gaineko azterketa xeheak eta zehatzak egitea³⁰⁴, besterik ez.

Tokiko hedabideek, hortaz, lortu dute hainbat eta hainbat herri eta eskualdetan liderrak izatea, gehien irakurtzen diren produktuak izatea. Ikus dezagun, adibidiez, Idoia Camachok dioena honi buruz: “Euskarazko herri aldizkariak beste hedabide handiagoek eskaintzen ez dutena zabaltzen dute: tokian tokiko informazio luze eta zabala eta, gainera, euskaraz. Alde horretatik, prentsa lokalaren mailan liderrak dira, herri aldizkari askok beren esparruan gehien irakurtzen den produktua izatea lortu baitute. Beste kasu batzuetan horrelako aldizkariak agertzen diren herrietan gertuko informazioa banatzen duten bakarrak direla esan beharra dago eta, ondorioz, lehiakiderik gabe argitaratzen dira. Horrenbestez, garatu gabe zegoen esparru hau euskarak bete zuen eta ez erdarak, gehienetan gertatzen den bezalaxe” (Camacho, 2002:97). Idoia Camachok ederto laburbiltzen du, nire ustez, herri hedabideek lortu duten horren zergatia zein den: liderrak dira tokiko informazioa lantzen dutelako eta, gainera, lehenak izan zirelako (bakarrak ez direnean). Izan ere, Imanol Azkuek antzekoa dio Zumaiako *Baleike* hedabideari buruz: “Ezikutuan, gordeta eta debekatuta egotetik espazioak eta funtzioak irabaztera pasa zen euskara” (Azkue, 2018). Aitor Zuberogoitiak dioen modura, “... tokiko kazeten agerraldi hori garrantzitsua izan zela esan berri dut, besteak beste benetako iraultza kuantitatiboa ekarri zuelako: kazeta horien sustatzaileek, beraien formula berriarekin (doakotasuna, tokiko gai arinen aldeko hautua, lerratzte ideologikoak saihesten zituen ildo editorial zabala eta euskara erraza), ordura arte euskarazko prentsara inolaz ere hurreratzen ez zen jende asko erakarri zuten” (Zuberogoitia, 2015).

Ikerketan parte hartu dutenek ere antzeko bidetik jotzen dute. “Nik esaten dut, *Arrasate Press*-ek utzi zuen gauza on bat, gauza oso on bat, eta mugarri dena euskararen normalizazioaren prozesuan. Eta da urrezko domina. Hau da, lehia irekian irabazteko gaitasuna. Hori euskaratik oso gutxitan sentitu izan dugu. Eta, euskaraz eginda, beste edozein hizkuntzatan egindakoa baino hobe izan gaitzkeela, hori oso gutxitan pasatu zaigu” (SE01). “*Goienak* lortu du komunikazio liderra izatea, espainolezko hedabideen aurretik” (SE16). “Zure udaletxean pasatzen diren gauzei buruz irakurtzeko modu bakarra euskaraz da. Gauza batzuk irakurtzeko, *Goiena* irakurri behar da” (SE16).

304 Aztiker aholkularitza etxeak hamaika ikerketa egin ditu hamaika hedabideren inguruan: 2008an *Aikor* aldizkaria aztertu zuten, 2009an *Aldaize*, *Barren* eta *Karkara*, 2010ean *Anboto*, *Begitu* eta *Otamotz*, 2011n *Baleike*, *Guaixe-Beleixe* eta *Pulunpe*, eta 2012an *Goiena*.

Zentzu horretan, ikerketan parte hartu duten askok aitortzen dute hedabideen arloa izan dela euskara elkarteetan azierto handienetako bat. “Hedabideena nik uste dut oso azierto polita izan dela” (SE03). “Uste dut komunikabideen arloa oinarritzkoa izan dela eta herrietan erreferente direla” (SE09). “Uste dut komunikabideen arloan oraindik ere aitortzen ez den oso lan inportante bat egin dela. Tokiko komunikabideak sortzen eta sare bat sortzen. Azkeneko urteetan, gainera, dezentte aurreratu dena eta euskarazko komunikabideen puntan egotea lortzen diharduena poliki-poliki, nahiz eta asko esatea den. Baina badihardu. Numeroek hori erakusten dute, bai audientzia aldetik, bai produkzio aldetik, eta abar. Hori lortu du” (SE12). “Eibarko etxe guztietan Eibarko aldizkari bat irakurri ahal izatea, hori momentu horretan sekulako urratsa izan zen” (SE02). “Aldizkaria jasotzen duzu etxean, eta primeran! Eta izan zen kriston lorpena! Euskaraz zero izatetik, astero herriko notiziak euskaraz ematen zituena. Gainera, erdaraz ez zegoen gauza bat. Erdaldunentzat ere erakargarria zena. Hori izugarritzko lorpena izan zen” (SE14).

Eta bide horretan, euskara elkarteek sustatutako tokian tokiko hedabideek lortu dute hegemonikoak izatea, baina baita eredu bihurtzea ere. “*Arrasate Press*-ek denarekin arrasatu zuen. Ez elebitasunik, ez zerarik, komunikazioa, eta komunikazioa euskaraz. Eta laurogeita hamarrek hamarkada izan zen, kasik kasik, monopolio egoera. *Arrasate Press* eredia nagusitu zen leku guztietan. Hor irabazi egin zen” (SE01). Eta horrek, zelanbait esateko, normalitate kota bat ekarri du euskararen komunitatera (eta hau, egoerak egoera, asko da, nire ustez): “Nire hogeituro urteko semak pentsatzea komunikabide hauek guztiak euskaraz egotea gauza normala dela asko da. Eta niri mirari bat iruditzen zait, eta nire aitari ez dizut esango ...” (SE02).

Alazne Aiestaranek ikerketa aipagarria egin zuen 2010ean bost aldizkariren gaineko azterketatik abiatuta³⁰⁵ (Aiestaran, 2010). Seguruenera, ezin dira erabat estrapolatu datuak tokiko hedabide guztietara, baina, tira, aipatu ditzagun Aiestaranek bere ikerketan ondorioztatu zituen datu batzuk. Lehena da biztanleen %80ak ezagutzen duela aldizkaria bere esparruan (tokian tokiko esparruan, hain zuzen ere). Horrez gain, kasu eta lurralde guztietan euskaldunen %70etik gorak irakurtzen du aldizkaria. Beste alde batetik, etxeen %80an aldizkari hau da euskaraz irakurtzen den bakarra. Datu horiek, nire ustez, frogatzen dute aldizkari eta hedabide hauen indarra, sendotasuna eta garrantzia, irismenari eta euskararen sustapenari dagokionez.

305 Honako hauek izan ziren Alazne Aiestaranek aztertutako bost aldizkariak: Txorierriko *Aikor*, Eibarko ...*eta kitto!*, Elgoibarko *Barren*, Orio eta Aiako *Karkara* eta Idiazabalgo *Aldaize*.

Lehenagoko aipu batean, erdaldunentzat hedabideak erakargarriak zirela esan du ikerketan parte hartu duen batek. Eta ez da bakarra. Aldizkariaren gainean egin diren audientzia ikerketetan³⁰⁶ (ikusitako adibidez *Aikor* aldizkariari buruzkoa³⁰⁷, *Aztiker*, 2008 edo *eta kittori* buruzkoa³⁰⁸, *Aztiker*, 2018) erdaldunek ere kontsumitzen dutela (heinean batean, jakina) ondorioztatu da. Ikerketan parte hartu duen beste batek ere honela dio: “Erdaldunak ulertzen du zerbait galtzen duela euskaraz ez jakiteagatik egunkaria ikusten duen aldiro” (SE23). Beste elkarrizketatu batek gai hau lantzen du zehatzago: “Erdaldunek ere irakurri egiten dute *Goiena* (...) Eta hori bakarrik egin dezakete tokiko hedabideek. Ezin du beste inork egin. Ze norberaren familiakoak ikusteko periodikoan, ba oso zaila da, ez da ia inoiz pasatzen” (SE16).

Eta hori guztia badirudi lortu duela, heinean batean, euskarari prestigio bat ematea. Ikus dezagun, esate baterako, Nafarroako herri euskaldunei buruz elkarrizketatu batek esandakoa aipu luzetxo batean: “Uste dut benetan eragin handia izan duela batetik euskaldunak nolabait euskaraz bizi diren eremuetan egin den bidea. Oso bide naturala. Komunikabideak behar zituzten. Normalean herrietan euskaraz bizi ziren eta behar zituzten komunikabideak, sarea, harremanak eta harrotasunak eta diskurtsoak-eta lantzeko. Hori egin dute oso ongi. Nire ustez, lan ederra egin dute eta egiten dute. Gainera, lortu dute era oso profesional batean lana egitea eta, horren ondorioz, izugarri prestigiatzea euskaraz egiten den lan hori” (SE10).

Beste alde batetik, tokiko hedabideek lortu dituzte bestelako gauza batzuk. Adibidez, lortu dute euskarazko jardunari agerikotasun handiagoa ematea. “Doan banatzearen apustua egin genuen. Banatzen da eskola guztietan, euskaltegi guztietan, toki publiko guztietan, garraio publikoan ere banatzen dugu eskura. Horrek ekartzen du irismena sekulakoa izatea” (SE23). Lortu dute ere “ohikoa izatea euskaraz publizitatea egitea” (SE16). Eta, azkenik, “ipini dugu jende pila bat idazten. Normalean, ez lukeena idatziko ia ezer ez” (SE16). Gauza bera dio Imanol Azkuek Zumaiako Baleike hedabidearen inguruan: “Webguneak aukera ematen dio edonori, bakarka edo taldean, Zumaiako euskarazko komunitateko kide aktibo izateko, albisteak komentatzeko edo sortzeko” (Azkue, 2018).

306 Hainbat eta hainbat ikerketa egin ditu *Aztiker* ikerketa enpresak. Nik horietatik bi baino ez dut ekarri adibide modura, baina hedabide gehientsuenek egin dituzte euren audientzien gaineko azterketak, aldiari-aldiari, normalean *Aztiker*ekin. Ikusi, adibidez, Alazne Aiestaranek bost ikerketa horien inguruan ondu zuen artikulua, Aiestaran, 2010.

307 Azterketa horren arabera, *Aikor* aldizkaria irakurtzen zuten Txorierriko erdaldunen %16k eta elebidun-hartzaileen %48,1ek (*Aztiker*, 2008).

308 Azterketa horren arabera, 2008an eta *kitto!* irakurtzen zuten Eibar inguruko erdaldunen %28k eta 2018an, ostera, %57,5ek. Era berean, euskara ulertu baina berba egiten ez dutenen artean, Eibar inguruko %54,6k irakurtzen zuen aldizkaria 2008an eta %65,5k 2018an (*Aztiker*, 2018).

Komunitatea ehuntzen ere lagundu ei du tokiko hedabideen jardunak, elkarriketatuek eta adituek esaten dutenaren arabera. Idoia Camachoren berbetan, "... esan daiteke herri aldizkariak faktore kohesionatzaile eta integrazioarako tresna direla; bizitza soziala estimulatu, lagundu eta suspertzeko bitartekari. Tokian tokiko hedabideek gizabanakoaren inguruan dauden kolektiboen arteko gizar-te-kohesioa indartzeko funtzioa betetzen dute. Toki-elkarte horiek osatzen duten kideen integrazio linguistikoa lagungarri izan daitezke eta jarrera itxiak eta oztopo linguistikoak gainditzen lagundu ahal dute" (Camacho, 2002: 102). Ainhoa Lodosok ere antzekoa dio Elgoibarko *Barren* aldizkariaren inguruan: "Barrenek herrixaren kohesioa ekarri zaban. Herrixaren eta herritarren arteko loturak eta hartu-emanak sendotu ditu. Herri-identitatea sendotu dabalakoan nago" (Larrañaga, 2004). Ildo beretik, elkarriketatu batek honakoa dio: "Guk bultzatzen dugu bertako komertzioa inork ez moduan" (SE16).

Hortaz, batzuen iritziz tokiko hedabideen jardunak, hein batean bada ere, komunitatea ehundu du, egituratu du, trinkotu du, beraz. Eta horrek bat egiten du aurretik ikusi dugun helburu nagusiarekin, hau da, euskaldunon komunitatea trinkotzearekin. Tokiko hedabideek horretan lagundu dute, horretan ekarpena egin dute, trinkotze horri zelanbaiteko bultzada eman diote, erabilera sustatzeaz gain, erabilera-esparru bat irabazteaz gain, zelanbait.

4.7.3.2 Kulturgintza

Kulturgintzako praktikei buruz berba egin dudanean, bi aditz nagusi jokatu ditut: programatu eta sortu. Emaizten inguruan berba egiterakoan ere, ezinbestean deklinatu behar ditut ostera ere bi aditz horiek, aipatu behar ditut derrigorrez. Hortaz, banaka hasiko naiz aditz bakoitzaren atzean egon daitezkeen emaitzak aipatzen.

Programatu aditzari dagokionez, elkarrekin, lehenago ere esan dudana bezala, denetarik programatu dute, gehien bat formatu txikiko emanaldiak. Hortaz, hein batean, euskara elkarrekin bere jarduerarekin kulturgileei plazak eta aukerak eman dizkiete, euskara ardatz, jakina. Horrek, noski, bizitasuna eman die kulturgileei, plaza berriak lortzen eta sortzen lagunduz. Eta, era berean, kulturgile hauen proposamenak helarazi dizkiete hainbat eta hainbat euskalduni. "Guk ez daukagu barrita magikoa, baina gozatzeko hamaika aukera eman diogu milaka laguni" (SE07).

Parentesi bat ireki nahiko nuke hemen. Sarritan aipatu dut euskara elkarteak toki mailakoak izan direla eta tokikotasun horrek itzelezko eragina izan duela, filosofian, praktikan eta abarretan. Jakina, eragin duten faktoreen artean herri edo eskualde bakoitzeko egoera soziolinguistikoa dago. Galdetegian parte hartu duen adituetakoa batek honakoa dio: “Nire ustez, elkarteen izaera eta jarduna baldintzatu duen faktoreetako bat tokiko edo eskualdeko egoera soziolinguistikoa izan da” (D03). Kulturgintzaren arloan nabarmena da herri euskaldunagoetan edo erdaldunagoetan dinamika ezberdina izan dutela elkarteek. Lehenengoetan, gutxi(ago) programatu dute eta, bigarrenagoetan, gehiago.

Eta herri erdaldunagoetan eragin nabarmenagoa lortu dute euskara eta euskal kultura programatzen. Bi eskualde erdaldunuetatik datozen hurrengo bi elkarrizketatuek horrela adierazi dute: “Lortu egin dute batzea indar guztiak eta laguntza handia ematea, eta eskaintza kultural potente bat egitea” (SE24). “Euskaraz egiten diren adierazpen kulturalak gauza normalak izatea eskualdean, hein batean” (SE20). Beraz, badirudi herri erdaldunagoetan elkarteen jardunak bai ekarri duela zelanbaiteko ohitura euskal kulturari dagokionez.

Izan ere, kulturgintzaren erreprodukziorako badirudi elkarteek ekarpena egin dutela (ez eurek bakarrik, noski, baina elkarteek ere bai). Jon Sarasuaren berbetan, “... gertuko gizarte-ehunak duen bizi-indar maila determinatzailea izango da euskal kulturgintzarentzat” (Sarasua, 2013: 265). Tokian tokiko ekarpena, beti ere. Izan ere, elkarrizketatu batek zioen bezala, “makroan hitz eginda, ez dut uste kultur dinamika orokorretan aldaketa gehiegirik sortu dugunik” (SE15). Txikigintzan aritu dira elkarteak, tokian toki, eta, hortik abiatuta, oso zaila da dinamika makro eta orokorretan eragitea. Eta, gainera, uste dut hori ez dutela elkarteek helburu izan eta, horrela, oraindik zailagoa da horretan emaitzarik lortzea.

Gainera, Topagunea herrietara formatu txikiko eta, hein batean, berritzaileak ziren gauzak (esate baterako, film laburrak edo Kultur Errotako hainbat emankizun) ahalegindu da eramaten. Eta horrek talka egiten du masibotasunarekin. He-dabideen kasuan, elkarteek masibotasunaren alde egin zuten, baina kulturarenean ez. Eta hori kontuan hartuta, kulturgintza arloan masibotasunak ere duen garrantziaz. “Baina auzia ez da bakarrik ekoiztea; sortu den hori jendartera helarazi eta ezagutarazi behar da, bozgorailu mediatikoak eta erakusleihoak eman behar zaizkio, sozialki prestigiatu eta lehenetsuneko tratua eman” (Amonarriz, 2019: 282).

Erreprodukzio txiki horretan, gainera, elkarteek euskara eta euskal kultura sustatu dute bai, baina ez hori bakarrik. Horri lotuta, balio jakin batzuk ere trans-

mititzeko hautua egin dutela dirudi: “Uste dut egiten dela mundu eraikuntza bat kalitatezko euskal kulturatik, baina balore jakin batzuetatik” (SE22).

Programatu ez ezik, sortu ere sortu dute euskara elkarteek. Praktiken arloan esan dudan bezala, elkarteek gehiago deklinatu dute programatu aditza sortu aditza baino, baina, hala ere, elkarteek garrantzi diskurtsibo handia eman diote sortzeari. Hortaz, jakingarria litzateke sortu honen pean zer emaitza edo eragin lortu duten elkarteek.

Zaila da, baina, alor honi lotutako emaitza ukigarriak izatea, zaila da eta, gainera, zeharo gainditzen du horrek tesi honen jarduna eta eragingunea. Izan ere, aztertu beharko liriateke kasurik kasu eta, seguruenik, ikuspegi antropologiko batetik, elkarteek martxan jarritako sormen-dispositiboak eta horrek epe ertain edo luzean izan duten eragina.

Jakina da kasurik gehienetan sorkuntzan aritzeak bizipen positiboak ekarri dizkiela horretan aritutakoei. Eta bizipen horiek euskaraz izateak badu bere garrantzia gurea moduko hizkuntza komunitate baterako. Antton Lukuk ere antzekoa dio: “Euskarak nola iraun du orain arte, nola iraunarazi dute zaharrek ez baitira izan iragan denborak xamurragoak. (...) Euskaldun egoteko nola egin dute? Kulturaren bidez. Espazio hau atxiki baitute euskararen gotor leku. Maskaradak muntatuz eta libertituz. Libertitzeari lotu baitute euskara, heziketa eta jendartean integratzea” (Luku, 2014: 479). Hau da, kultura euskaraz sortuz eta kolektiboki. Bizipen horiek inarrosirik, hain zuzen ere.

Horrez gain, ez da ahaztu behar euskaraz sortzeko hautua hautu kontzientea dela. Kike Amonarrizek dioenaren arabera, “euskal kulturaren aldeko hautua, hautu kontzientea izango da. Euskara erabili eta euskaraz sortzea, euskal kulturaren ekosistemaren parte izatea edo euskal kultura kontsumitzea, gehienetan, hautu kontziente baten ondorio izango dira” (Amonarriz, 2019: 285).

4.7.3.3 Haur eta gazteak

Askotariko praktikak gauzatu dituzte elkarteek haur eta gazteen alorrean, aurretik ikusi dugun bezala. Baina praktika horiek zer emaitza ekarri dituzte? Zertan asmatu dute elkarteek eta zertan ez?

Haur eta gazteen eremuetan elkarteek eratu dituzte uneak eta guneak, momentuak eta espazioak. Une eta gune horiei esker, hainbat umek eta gaztek elkar ezagutu dute euskaraz. “Aisialdi taldeari esker, ehunka umek ezagutu dute euskaraz. Hori, berez, asko da” (SE06). Hortaz, elkarteek bermatu dute lehen harreman hori euskaraz izatea. Baina, badirudi, oro har, elkarteen asmoa harago joatea zela. “Gero guk ez daukagu barita magikoa euskararen erabilerarako. Gaur egun hizkuntzen artean dagoen indar korrelazioarekin badakizu zer gertatzen den. Gozatzeko hamaika aukera eman diogu hainbat laguni, baina aukera horiek aprobetxatu behar dira” (SE06).

Une eta gune horiek, alabaina, bizipen positiboz bete nahi izan dute elkarteek, pentsatuz bizipen positibo horiek euskararen aldera lerratuko zituztela umeak eta gazteak. “Nik uste dut, batez ere, kontrako jarrerarik gabe datorrenak aukera handiak dituela bizipen positibo, polit, eroso eta jator batzuek bizitzeko, eta horien ostean, sortzen ditu bere pentsamoldeak” (SE09). Horrek, gainera, gurasoen aldeko atxikimendua ekarri die hainbat elkarteri. “Erreferentzia gune bat bilakatu gara euskararen inguruan. Eta erreferentzia gune bat bilakatu da hamaika gurasoengana, badutelako haur eta gaztetxoak nora bidali konfiantza osoz” (SE10).

Baina ez hori bakarrik. Euskara elkarteek hasiera-hasieratik izan dute helburu euskararen erabilera sustatzea haur eta gazteen artean. Horretarako, aukerak ematez gain, berariazko esku-hartzeak ere egin dituzte aisialdiak ematen dituen tresnak erabiliz. Horien artean, aipatu behar da bereziki Takun elkarteak asmatutako metodologia: Hezitzazileek/Begiraleek asko egin dezakete izenekoa, hain zuzen ere. Ekimenak ekimen, ez da inondik ere erraza neurtzea programa hauek izan duten (edo izan ez duten) eragina. Ikerketa nahikotxo badago ere haur eta gazteen erabilerari dagokionez, gutxi dira aisialdiko programa euskaldun hauek duten eragina neurtu dutenak. Haien artean, aipagarriena litzateke Maialen Arnedok El-goibarko Izarra elkartearen aisialdi taldearen eraginaz egindakoa (Arnedo, 2014).

Azterketa horretan, Maialen Arnedok aisialdi taldeko haur, hezitzaile eta gurasoei inkestak pasatu zizkien. Atxutxiamaikea aisialdi taldean, batez beste, 300 bat haur ibiltzen dira urte osoan zehar (2013ra arteko datuak dira). Azterketa horren arabera, aisialdi taldean dauden bitartean umeen %70ak euskaraz egiten du eta beste %30ak euskaraz eta gaztelaniaz. Hezitzazileekin aritzean, berriz, denek euskaraz egiten dute hezitzazileekin. Aisialdi taldean hasi zirenetik ea euskara gehiago erabiltzen duten galdetu zien ikertzaileak. Emaitzen arabera, %37k gehiago egiten du eta besteek, ostera, berdin. Gurasoei dagokienez, haietako gehienek uste dute aisialdi taldean aritzeak eragina duela haurren euskararen erabileran (%70k eragin

oso handia eta %30k eragina handia dela diote). Hezitzaileei dagokienez, haietako gehienek (erantzunen %91k) uste dute aisialdi taldean aritzeak on egiten diola haurren euskararen erabilerari.

Badirudi, beraz, eta askoz azterketa gehiagoren beharra dagoela argi izanda, emaitza positiboak izan dituztela elkarteek euskararen erabilerari dagokionez (Maialen Arnedoren emaitza hauek estrapolatzeko modukoak balira). Eta emaitza hauek elkarteko kideek aitortzen duten minimotik gora daudela (umeez eta gazteek euskaraz elkar ezagutzearena). Baina iruditzen zait Elgoibarko azterketa honi beste hainbat herritako azterketak batu behar zaizkiola benetako eraginak alderik alde eta egoerarik egoera alderatu ahal izateko.

Beste alde batetik, elkarteek, oro har, haur eta gazte programa hauekin, haiengan ez ezik, gurasoengan eta hezitzaileengan eragitea ere bilatzen dute. Kasu honetan ere, ebidentzia gutxi daude emaitza hauek erabat fidagarriak diren aitortu ahal izateko. Hala ere, badira datu eta pertzepzio batzuk eta horiek ekarri nahiko nituzke.

Batetik, Maialen Arnedok honako ondorio hau atera zuen lehen ere aipatu dudana azterketan: “Gurasoen euskararen erabileran ere eragina dauka Atxutxia-maikak. Nahiz eta haurrengan bezain besteko eraginik ez izan, gurasoek aitortzen dute hezitzaile ia guztiak euskaraz zuzentzen zaizkiela beti eta horrek, beraiek ere erabiltzera bultzatzen dituela” (Arnedo, 2014). Izan ere, Maialen Arnedok galdetu zien gurasoei ea euren ustez aisialdi taldeak eragina zuen etxeko hizkuntzaren erabileran. Ietik jeko eskala batean (1 ezer ez eta 5 asko izanik) gurasoen %20ak 4 eta 5 bitartean erantzun zuen eta %53k 3. Beste alde batetik, elkarrizketatu batzuek ere aipatu dute familiengan eragina izan dutela. “Familia batzuen artean ikusten dituzu harremanak mantentzen direla edo bertan ezagutzen diren familien arteko harreman horiek ba zelan mantentzen diren” (SE09).

Hezitzaileengan eragitea ere izan dute helburu elkarteek (nahiz eta askotan edo gehienetan esplizitatu gabeko helburua izan). Maialen Arnedoren azterketaren arabera, “... hezitzaileengan ere badu eraginik aisialdi taldeak” (Arnedo, 2014). Eta hori berresteko datuak ere ematen ditu. Hezitzaileen ustez, aisialdi taldean aritzeak eragina du euren eguneroko bizitzetan kasurik gehienetan (1etik jeko eskalan, 5 aipatu du erantzun dutenen %14k, 4 erantzun dutenen %31k eta 3 erantzun dutenen %43k).

Horrez gain, elkarteetako askok hezitzaileak ikusi dituzte elkartearen errelebo naturala. Kasu askotan ez dute lortu hezitzaile horietako batzuek pausoa egitea.

Inoiz bai lortu da. Adibidez, “... uste dut asmatu genuela bere garaian gazteengan ardurak uzten eta sortu dute aisialdi talde potenteak eta klubak eta” (SE10).

Balioak landu dituzte elkarteek ere aisialdi programa hauen bidez (eta, batez ere, azken urteotan gai honek zentralitate handia hartu du³⁰⁹). Kasu honetan ere, zaila da neurtzea balio horiek zer puntutaraino txertatu diren haur eta gazteen egunerokoan (azterketa xehe eta zehatzak egin beharko lirateke horien eragina neurtzeko, ikuspegi antropologiko batetik seguruenik). Baina, hala ere, elkarteek berariaz landu dutela hau bai da aipagarria: “Aisialdian egin dena, baloreetan, izugarria da. Nik uste hor oso ongi asmatu dutela. Oso lan ona egin dute Karrikaluzen ibili diren begiraleek, begiraleen arduradunak, proiektuen sortzaileek, eta abar. Baloreetan benetan eskaintza oso aberats bat. Oso ekitatiboa eta oso zabala egiten. Eta nik uste dut hori inork ez duela egin herrian eta hori, berez, balore izugarria da. Beraientzako ikustean .. aisialdian dauden vasco hauek ari dira baloreetan inor baino hobeki” (SE10).

Horrez gain, badirudi, herri batzuetan gutxienez, elkarteen jardunbidea eredu bihurtu dela. Honela dakar ikerketan parte hartu duen elkarrizketatuetako batek: “Aisialdi eskaintzan nolabait estandar edo gutxienerako bat markatu dugu, udalak sortu dituen udal udalekuak daude nolabait gure molde honen oso gertu. Udalak nolabait kopiatu zuen eredu hori” (SE09).

4.7.3.4 Erabilera programak

Erabilera programei erreparatzean, bi arlo nagusiri egin diet erreferentzia praktketan: mintzapraktika programei eta aktibazio programei (izan indibidualak edo izan kolektiboak). Eragin eta emaitzei dagokien ere, bi arlo hauek landuko ditut, baina bakoitza bere aldetik. Hala ere, erabilera programa guztiak batera baloratu duenik izan da. Galdetegia bete duen adituetako batek honako ohar garrantzitsua egiten zuen: “Iruditzen zait Mintzalaguna proiektuak (harreman-sare berrien kasuan) eta are gehiago Euskaraldiak (bereziki alde aurreko harreman-sareetan) bereziki asmatu dutela harreman interperpersonalen gaian zuzenean hizkuntza-ohiturak astintzea. Agian munduan hizkuntza gutxituen kasuan ia inon egin ez den eran. Eta, kasu horietan, elkarteak egon dira egitasmo horien sorreraren muinean” (D16).

309 Praktiken atalean aipatu dudan Herri hezitzaileen inguruko gogoeta eta jardueren ondorioz.

Tira. Nik, esan bezala, banaka lantzea nahiago dut, programen ezaugarriek hartaratu. Mintzapraktika programak aztertzen hasi aurretik, baina, programa hauen helburuak gogoratu nahi ditut, Iñaki Martinez de Lunaren eskutik. “Programa mota honek, beraz, euskaraz nahikotasun maila eskuratu dutenen gaitasuna areagotzea eta komunikazio-gaitasun nahiko baterako falta zaizkien dimentsio sozialeko trebeziak garatzea bilatzen ditu; aurretik euskaldundu direnak hiztun oso izatera iristen laguntzea” (Martinez de Luna, 2016).

Hortik abiatuta, hasi gaitezke programa hauen eraginkortasuna neurtzen. Kasu honetan ere, gutxi dira egindako ikerketak eta, beraz, gutxi izango dira aurkeztu ahal izango ditudan ebidentziak. Dena den, mintzapraktikari dagokionez, aipatu behar da Aztiker aholkularitzak 2010ean egindako ikerketa, Eusko Jaurlaritzaren enkarguz (Aztiker, 2010). Ikerketa horretan sigi-saga ibiliko naiz hurrengo lerroetan, programa hauen gaineko eragina haztatu nahian.

Ikerketa horren arabera, parte hartzaileek “mintzapraktika egitasmoaren inguruan bizipen baikorrak izan dituzte nagusiki: esperientzia polit, interesgarria eta aberasgarritzat jo dute mintzapraktika” (Aztiker, 2010: 52). Hortik tiraka, bidelagun³¹⁰ gehienei (%76,1i) asko balio izan die ikasten ari direnei laguntzeko, eta %19,6ri zerbait; eta %68,5i asko balio izan dio euskararen aldeko ekarpena egiteko, eta %29,4ri zerbait. Bidelariei dagokienez, %84,6ri asko balio izan dio euskaraz gehiago egiteko, eta %13,4ri zerbait; %77,2ri asko balio izan dio ikasitakoa mantentzeko, eta %19,7ri zerbait; %73,5i asko balio izan dio euskara maila hobetzeko, eta %22,5i zerbait; eta, azkenik, %61,5i asko balio izan dio euskaraz bizitzeko nahia handitzeko, eta %30,1i zerbait.

Kideen balorazio horiek aintzat hartuta, badirudi programa hauek eragin positiboak izan dituztela parte hartzaileentzako. Ildo horretatik jarraituta, parte hartzaileen %36,1k hobetu du asko euskara eta %58,9k zerbait hobetu du euskara maila. Beraz, badirudi euskara gaitasunak hobetzeko balio dutela programa hauek. Horrez gain, parte hartzaileen %22,9k euskaldun asko ezagutu ditu programa hauei esker eta %65,5k euskaldun batzuk ezagutu ditu. Beraz, badirudi programa hauek balio dutela kideen euskarazko sareak handitzeko. Motibazioei edo jarrerai dagokienez, parte hartzaileen %55,1k aitortzen du asko handitu zaiola motibazioa eta %44,1k zerbait handitu zaiola. Beraz, badirudi euskara jarrerak hobetzeko ere balio dutela programa hauek. Azkenik, parte hartzaileen %26,7k zerbait gehia-

310 Bidelagunak dira, zelanbait, euskaraz egiteko ohitura duten pertsonak eta bidelariei laguntzen dietenak euren euskara praktikak areagotzen.

go erabiltzen du euskara eta %22,8k askoz gehiago (fami­liarekin, betiko lagun euskaldunekin, lankideekin eta ikaskideekin, hain zuzen ere). Beraz, eta azkenik, badirudi programa hauek ere balio dutela kideen ordura arteko sareetan euskara gehiago erabiltzeko.

Hori guztia aintzat hartuta, Iñaki Martínez de Lunak honako balorazioa egi­ten du mintzapraktika egitasmoen inguruan: “Mintzapraktika programa sozia­lizazioan erdibidean gelditu diren herritarrentzat osagarri ezin hobea izan daiteke. Izan ere, sozializazioaren hiru prozesuak (kognitibo, identitario eta afektiboa) eta, nola ez, hiztun osoak sortzen ez ezik, hizkuntza-komunitatearen sare berriak ehuntzen ere ekarpen handia egiten du programa horrek. Bete-bete­an bigarren sozia­lizazioan kokatzen den programa izanagatik, ez da bideratzen eduki forma­lak osatzera eta lehen hizkuntza-sozializazioan ohikoa den eremu pertsonaleraino iristen da. Ausardia bada ere, esango genuke haurtzaroan familiak duen antzeko rola dela mintzapraktika programak helduaroan betetzen duena: ahozko hizkun­tzan trebatzeaz gain, euskarazko harreman-sare hurbil eta afektiboak ehuntzea, hain zuzen” (Martínez de Luna, 2016). Eta honela jarraitzen du: “Mintzapraktika programetako partaideen gogobetetze maila oso altua izanik, euskaraz dituzten bizipen atseginak ere asko lagunduko die hizkuntza horrekiko atxikimendua piz­ten edota areagotzen; hiztun oso batek duen hizkuntza-kontzientzia elikatzen, alegia. Ahaztu gabe, partaide batzuei norbanako mailan egiten dion ekarpen prag­matikoa, lanpostu baterako ziurtagiria lortzea erraztuz” (Martínez de Luna, 2016).

Mintzapraktikan ez ezik, aktibazioan ere jardun dute elkarteek eta, aktiba­zio programei dagokienez, praktikan aktibazio indibidualak zein kolektiboak ezberdindu egin nituen. Aktibazio indibidualei dagokienez (pertsonen ahaldun­tzeari dagokionez, alegia), ez dago ikerketarik honen inguruan. Ez dago aktiba­zio indibiduala eta elkarten lana harremanetan jartzen duen ezelako ikerketarik. Hortaz, aurrera egiteko bide bakarra da ikerketa honetan parte hartu dutenek esandakoa aintzat hartzea.

Horri dagokionez, bi iritzi nagusi daude ikerketan parte hartu dutenen artean. Ahalduntzean ezer gutxi egin dutela diotenak, alde batetik, eta ahalduntzean gu­txi(egi) egin dutela diotenak. Esate baterako, elkarriketatu batek honakoa dio: “Euskaldunak enpoderatzen ere ezer gutxi egin dugu. Egia da nabilela kontatzen azkeneko urteetako kontuak. Aurretik igual bai, baina ez dut bizi izan nik hain­beste ... igual hori eskapatu egiten zait. Nik uste dut geundela hain kezkatuta gazteen eta umeen hizkuntza ohituretan eta, orduan, ba ezer gutxi egin edo lortu dugu” (SE26). Antzekoa dio, kasurako, aditu­etako batek: “Aurrerapausorik eman

gabe, koherentziaz husten joan dira elkarteak” (D11). Eta, azkenik, beste adituetako batek honakoa dio: “Urteek aurrera egin ahala, elkarteak eta elkartekideak indartzeko, ahalduntzeko jarduera horiek bertan behera utzi ziren” (D03).

Ikerketan parte hartu duen beste batek, ostera, beste ikuspegi bat dakar: “Bai uste dut ahalduntzeko bide horretan beti konfiantzatik, gertutasunetik eta animotik beti bidelagun izan gaituela aldameneko horrek euskaraz gehiago hitz egiteko indartsu sentitu dadin. Baina, seguruenik, ez dugu bide hori berariaz landu, natural-edo etorri da” (SE23). Adituetako batek antzekoa dio: “Euskara eta euskaldunentzat oasiak edo arnaguneak sortu ditugu, baina ahalduntzea ez dugu landu. Izan ere, gune hauek zer dira oasiak ala ghettoak?” (D08). Hartara, badirudi 2011n Topaguneak eta elkarteek diskurtsiboki hiztunen ahalduntzea aldarrikatu, praktikan gutxi aurreratu dutela bide honetan, ikerketan parte hartu dutenen arabera, behinik behin.

Aktibazio kolektiboa, ostera, azken urteetako jarduera izan da. Eta, horren gainean, badira azterketa gutxi batzuk. Nik, batez ere, Pello Jauregik egindakoari jarraituko diot³¹¹ (Jauregi, 2017). Berak 2016an Lasarte-Orian egindako *Irten hizkuntzaren armairutik* ekimena ikertu zuen. Eta hainbat datu eta ondorio ekarri zituen. Ikusiko ditugu horietako adierazgarrienak lan honen kariatarako.

Aktibazio ekimen horretan bi figura nagusik³¹² hartu zuen parte: ahobiziaz³¹³ eta belarriprestak³¹⁴. Ahobizien artean, emakumezkoak izan ziren nagusi Lasarte-Orian (%66,3). Ia ahobizi guztiak ondo ulertzen dute euskara (%96,2) eta gehien-gehienek ondo berba egiten dutela uste dute (%86,5). Erabilerari dagokionez, pertsona jakin batzuekin ekimena hasi aurretik erabilera orokorra %62,4koa izan zen, ekimena amaitu eta astebetara %83,8, eta handik hiru hilabeteetara %81,3. Beraz, hasi eta hiru hilabeteetara ahobizien erabilera aitortuak 18 puntu egin zuen gora.

Belarriprestei dagokionez, kasu honetan ere emakumezkoak izan ziren nabarmen nagusi Lasarte-Orian (%69). Gaitasunari gagozkiolarik, %86,4k onartzen du euskara ondo ulertzen duela eta %77,2k ondo egiten duela berba. Erabilerari

311 Badago aktibazio hauen inguruko azterketa osoago bat. Hala ere, ez dut aintzat hartuko tesi honen denbora mugetatik harago garatu izan delako. Delako azterketa horrek Euskaraldiak (aktibazio programa hauen garapena izan den ekimena) aztertzen du xehe-xehe. Argibide gehiagorako, jo Jauregi, Anduaga, 2019.

312 Bi figura hauek izan ziren gero Euskaraldian erabilitako figura berberak.

313 Ahobiziek hizkuntzari dagokion konpromiso zehatz batzuk hartu zituzten. Konpromiso horien arabera, euskara ulertzen zuten guztiak euskaraz ahoz aritzeko hautua egiten zuten ahobiziek, baita ezezagunei lehen berba euskaraz egiteko hautua egin ere.

314 Belarriprestak, aldiz, euskara ulertu behar zuten derrigorrez eta euskaraz aritu nahi direnei gonbitea egin behar zieten, euren konpromisoaren arabera. Gero eurek bazuten askatasuna erantzuna emateko, euskaraz edo gaztelaniz, baina ezin zieten besteei gaztelaniz aritzeko eskatu.

dagokionez, kasu honetan neurtu da besteek haiei euskaraz egin dieten edo ez. Pello Jauregik dioenez, “erronka aurreko egoerarekin alderatuta era ikusgarrian handitu da Belarriprestei erronkan zehar euskaraz hitz egiten zien jendearen kopurua. Aurrerapen hori eremu guztietan eman da (lagunartean, etxean, lanean eta bestelakoetan) eta kasu gehienetan gainera (tarteoa %64,9tik %77,4ra). Beraz, badirudi Belarriprest txaparen identifikazioak deia-efektua argia izan duela, eta harroaldi handi samarra gertatu dela. Ordea, badirudi harroaldia nabarmen apaldu dela bigarren neurketan (esku hartzea bukatu eta handik hiru hilera eginda-koan)” (Jauregi, 2017).

Hortaz, badirudi aktibazio programa hauek (nahiz eta oraindik garapen handia izan dezaketen) balio dutela pertsonen arteko euskararen ahozko erabilera suspertzeko, badirudi balio dutela hizkuntza ohiturak modu batera edo bestera astintzeko. Iñaki Arrutiren berbetan adierazteko, “euskaldun asko dago praktika soziolinguistiko berrira jauzi egiteko prest eta gogoaz, baldintza egokiak eskaintzen zaizkionean” (Arruti, 2018). Ez hori bakarrik. Badirudi belarriprest figurak, bereziki, balio duela sektore sozial berrietara heltzeko. Ea zer dioten Iñaki Arrutik horren inguruan: “Belarripresten figurak ordezkatzeko duen sektore sozial handia urrutitu sentitu da orain arte euskalgintzaren zereginetatik, bereziki euskaraz ulertu arren hitz egiteko zailtasunak dituzten horiek” (Arruti, 2018).

Kualitatiboki ere badirudi aktibazio programa hauek aldaketa nabarmenak ekarri dizkiela elkartei eurei. “Euskaraldiak suposatuko duen berrikuntza eta jauzia ez zen posible izango Topagunearen eta Euskara Elkarten ekarpenik gabe” (D01). Izan ere, badirudi Topagunearen kongresuetan abiatutako bideak zehaztapen praktikoa eta ukigarria lortu duela programa hauekin. Jon Sarasuaren berbetan adierazteko, “... euskara elkarten egitekoa da aktibazioa egitea mugimendu gisa, ametsa barreiatzea (...) Euskara elkarten erronka nagusia da nola lortzen duten mugimendu sozial izatea” (Sarasua, 2019).

4.7.3.5 (G)uneak

Elkarteek han eta hemen gune eta une batzuk eraiki, sortu, eratu dituzte, praktiken atalean ikusi dugun bezala. Orain gune eta une horiek zer eragin, zer emaitza izan duten aztertzeko momentua da.

Ikusi dugun bezala, gune nagusienak ostalaritza eta kultura nahasten duten guneak izan dira, izan formatu handiko edo izan formatu txikiko kultur-ema-

naldietarako. Eta, horietan, printzipalena eta zelanbait eredu bihurtu dena, Bilboko Kafe Antzokia izan da. Aitor eta Pedro Zuberogoitia anaiek argitaratutako “Bertan Bilbo” (Zuberogoitia eta Zuberogoitia, 2008) liburuan Txus Arrieta elkarrizketatzen dute. Honela laburbiltzen du berak Kafe Antzoki horrek ekarri zuena: “Bere garaian Antzokiak klixe asko apurtzen lagundu zuen. Klixe horiek bi multzotan banatuko nituzke: batetik, erdaldunek gutaz zituztenak, eurak ia konturatu barik zerekin lotzen zuten euskara eta euskaldunak; bestetik, geuk geure buruarekiko genituenak. Zenbat Gara erruki barik sartu zen aurreiritziz beteriko eremuan eta bere bidea egin zuen: enpresa izaera sendoa eta euskara bateragarriak zirela erakutsi zuen, pop eta rock musika (hasi funketik eta segi azpiestilo guztietan zehar post-punkeraino) eta euskara estuki uztartu zituen; berba batean, hirian bizitzeko eta mugitzeko estilo berria erakutsi zuen. Estilo hori berori ere denboraren poderioz klixe edo estereotipo bihurtu da neurri batean, baina une hartan tipologia berri bat osatzen zuen euskara ikaslea hurbilarazi zuen euskaltzegira. Kontzertuei dagokienez, berriz, zer esan! Ikaragarri luzea da Antzokitik pasatu diren bertoko eta atzerriko taldeen zerrenda. Zalantza barik, erreferentzia bihurtu da bai taldeentzat bai kontzertuzaleentzat” (Zuberogoitia eta Zuberogoitia, 2008: 300).

Aipu luze bezain esanguratsua da Txus Arrietaren hau. Musika eta kultur plaza bihurtu da orduz geroztik Antzokia, espazioak zabaldu eta sortu ditu egitura horren bidez Zenbat Gara elkarteak. Eta, era berean, eragin du euskaldunengan eta erdaldunengan, Txus Arrieta dioen moduan. Antzekoa dio Jacqueline Urla antropologoak ere: “Euskaraz bizitzeko lekua da, ez ghetto ba: garapen kulturala, emanaldiak, umorea duen tokia. Guztiei irekia: euskaldunak, erdi hiztunak, mundu honetara hurbildu nahi duten pertsonak, ... guztiak. Hona etortzen den jendeak badaki euskararen tenplu moduko batera heltzen dela, baina ez dela itxia. Errespetua izaten hasten dira. Hemen bizitza badela ikusten dute - gauza interesgarriak gertatzen dira hemen. Eta jarrera berria izaten hasten dira” (Urla, 2003).

Eta horrek, zelanbait, normaltasuna ekarri du. Ikus dezagun zer dioen horri buruz ikerketan parte hartu duen aditueta bategi: “Euskara Elkarteek lortu dute, leku batzuetan, euskarari normaltasuna ematen. Espazio batzuk euskara hutsez dabiltzala bistaratzen. Euskaltzaleak jende normala dela ikusarazten” (D11).

Esandakoa, hein batean, Bilboko Kafe Antzokiari aplikatu dakioke bakarrik. Baina, neurri batean, hor lortutako gauza batzuk elkarteek sortutako guneei ere estrapolatu dakioke. Izan ere, herri askotan gune hauek izan dira, zelanbait, euskaldunak natural antzean ibili eta ibiltzen dituzten guneak, euskal kultura eta

kanpoko kulturak gozaten, aisialdi librea euskaraz bizitzeko aukerak aprobetxatzen eta abar. Gainera, gune hauek kultur plaza garrantzitsua bihurtu dira herririk herri, batzuetan formatu handiko emanaldietarako eta bestetuetan formatu txiki-koetarako. Plaza interesgarria izan dira eta dira sortzaileentzako, hasi berrientzako, kezkak dituzten pertsonentzako adierazteko moduko guneak bihurtu dira. Baita kultur kezkak dituzten zaleentzako ere.

4.7.3.6 Eragite lanak

Elkarteek gauza asko, ekintza asko, jarduera asko egin dute, baina baita eragin ere. Hainbat elkarte, talde edo administrazioetan eragiten ahalegindu dira eta, hor-taz, jakingarria litzateke eragin horiek zer neurritakoak izan diren, zertan gauzatu eta hezurramitu diren eragin-bide horiek eta, bide batez edo zeharka, zer lortu duten elkarteek.

Eragiteari dagozkion praktikak azaldutakoan, baina, hiru eragin-bide nagusi ezberdinu nituen, azalpena ulergarriago egitearren: herriko denda, taberna eta elkarteekin egin dituztenak, batetik; toki mailako administrazioarekin eginda-koak, bestetik; eta euskalgintzarekin egindakoak, hirugarrenik eta azkenik. Eta emaitzak aztertzerakoan ere, hiru bide horiek ezberdinduko ditut, azalpena uler-garriagoa izan dadin.

Hala ere, hasi aurretik, aditueta batek egiten duen gogoeta jaso nahiko nuke, egoera orokorra zelanbait marrazten duelako: “Elkartea ez badago jende formatuz osatua, ez badu nolabait harrobia sortzen, ez badu gazteen formazio soziopoliti-ko-soziolinguistikoa lantzen eta ez badago diskurtso ilusionante bat, eragiletza ere makalago geratzen da” (D10).

Herriko denda, taberna eta elkarteetan eragin dute elkarteek, hainbat herritan eta hainbat modutan. Saiatu dira eragiten une edo gune horietan euskara bizibe-rrituko duten mikrokomunitateak osatzeko. Zentzu horretan, elkarteak eginaraz-ten ahalegindu dira eta, modu batean edo bestean, herriko akuilu izaten ahalegin-du dira. Adibidez, ikerketa parte hartu duen elkarrizketatu batek honakoa zioen: “Komertzioetan lan handia egin zen bere garaian euskaldunak identifikatzeko eta bistaratzeko. Alde horretatik elkarteak bazuen sasoi horretan dagoeneko zilegita-sun puntu bat” (SE10).

Artez eragin barik, ikerketan parte hartu duen adituetako batek osmosia aipatzen du eragin-bide bezala herriko bizitza sozialean. “Nik uste euskara elkarteek eragin dutela, zeharka. Hots, aktiboak izan diren herrietan lortu dute osmosis bidez edo posizionamenduak ekarrita, alboan izan dituzten mugimendu eta taldeak kutsatzea” (D07). Antzekoa dio elkarrizketatuetako batek ere: “Tximintx egon arte inori ez zitzaion bururatzen ekitaldi bat, adibidez, edozein elkartek euskaraz ez dakiena, edo euskaldunak ez direnak, aurkezpena edo zeozer euskaraz izan behar duela. Adibidez, hori lehen ez zen pasatzen eta gaur egun nik uste dut gauza horiek errespetatzen direla. Gauza gehiago antolatzen dira euskaraz udal-letik. Tximintx sortu zenean, ez genuen espero edo ez genuen imajinatu gauza horiek aldatu ahal zitezkeenik. Guk esaten genuen, guk egingo ditugu ekintzak eta jendeak parte hartuko du. Gune euskaldunak sortuko ditugu, baina guk egiten ditugunak. Eragile moduan ez genuen pentsatzen horretara helduko ginenik” (SE11). Baita beste elkarrizketatu batek ere: “Nik uste dut batzuetan ia maila inkontzientean eragina izan duela jende askorengan” (SE07). Zentzu horretan, beste elkarrizketatuetako batek honako gogoeta egin zuen: “Lehen euskara batzuen gauza zen, orain, gero eta gehiago, denon gauza bilakatzen ari da” (SE20). Horri tiraka, elkarrizketatu berak honako hau dio: “Batez ere, azken urteetako mezua izan da elkartetik, normalizazioa eta horretan, denon inplikazioa. Normalizazioa ez da bakarrik euskaltegien, ikastolen edo elkar-tearen lana. Eta horretan bai lortu dugula jendeak txip hori aldatzea” (SE20).

Ikerketan parte hartu duen adituetako batek honi buruz berba egiterakoan honakoa dio: “Atzera begiratuta, uste dut elkarteek gauza asko egin eta lortu dituzela. Gauza asko, gainera, ikusezinak edo inmaterialak. Euskarak ez zituen espazioak betetzea lortu du herri askotan” (D03). Bide beretik jotzen du beste adituetako batek: “Euskara elkarteek lortu dute hainbat eremutan euskarari prestigioa ematea, herriko entitate ugari erabilera konpromisoak hartzea eta betetzea ...” (D08).

Gauza bera dio, beste berba batzuekin, elkarrizketatua izan den pertsona batek: “Ordian, azken bi urteetan ikastolan haur kopurua goratzen ari duk. Ordian, gela berri bat behar die egin, bungalow bat ezarriko die heldu den sartzean. Fenomenoa Zabalikena dea, ala orokorra da eta Zabalikek lagundu du, edo? Pentsatzen diat baietz. Nola erran? Burrasoak ere konplexak gaindituak zitian, eta orain ikastolan adibidez, eskuaraz egiten ditie biltzar nagusiak. Eta baduk jendea kexatu dena eta ez zela berriz etorriko eskuaraz baldin bazen. Bainan debatea hor duk, ez duk pedagogia debatea” (SE25).

Dena den, batzuek uste dute gai honi ez zaiola behar besteko garrantzirik eman eta, beraz, ez dela asmatu. Urretxu-Zumarragako euskara elkarteek honako gogoeta egin zuten 2010ean: “Zertan ez dugu asmatu? Beste batzuek antolatutako ekintzak izan daitezten eragin. Gure egitekoa zaintza izan behar du; adibidez, gazte lokalak funtzionatzen du, bai, baina zer hizkuntzatan? Hori kontrolatzea eta erabilera bultzatzea izan beharko litzateke gure lana” (Zintzo-min-tzo, 2010).

Zentzu horretan adierazgarria da ikerketan parte hartu duen aditu baten iritzia. Haren ustez, elkarteek egitura eta funtzionamendua (militantzia eta abar) oztupoak dira eragin-bide eraginkorrakoak eraikitzeko. “Elkarteek egitura ahulak ez dira egokiak luze-zabal handiko proiektuetan murgiltzeko eta, hortaz, ezta beste gizarte eragileengan aldaketarik eragiteko ere. Izan ere, ingeniarietza sozialari ekiteko, baliabideak, prestakuntza eta estrategia egokiak behar dira” (D09).

Bigarren eragin-bidea administrazioari zuzendutakoa izan da. Iritzi nahiko kontrajariak daude ikerketan parte hartu dutenen artean. Batzuen ustez, elkarteek eragina izan dute administrazioen hizkuntza politiketan eta, beste batzuen ustez, elkarteek eragina txikia eta mugatua izan da. Dena den, bai dirudi elkarteek administrazioarekin elkarlanean aritzea ekarri zutela. Honela dio adituetako batek: “Administrazioarekin elkarlana normaldu zuten elkarteek” (D11).

Eragina izan dutela uste dutenen artean, lehen aipu bat ekarri gurako nuke orriotara: “Hizkuntza politiketan uste dut guk uste duguna baino eragin gehiago eduki dugula. Ez dugu apropos edo esplizituki ekarpen gehiegi egin, baina eragin dugu” (SE15). Ildo beretik jotzen du beste elkarrizketatu batek: “Udalean ere eragin dugu, nahiz eta eurek aitortu ez. Gu izan gara Euskararen Aholku Batzordera joan eta txostenak irakurri ditugun bakarrak, proposameak egin ditugun bakarrak. Egia da, ez zigutela kasurik egiten, baina, hara, handik urte batzuetara guk proposatutakoak egiten ziren. Ez diot dena gure eraginagatik zela, baina zerbait egingo genuke guk, ezta?” (SE13).

Beste batzuek, oster, uste dute eraginik ez dutela izan edo, izan bada ere, oso txikia eta mugatua izan dela eragin hori. Esate baterako, elkarrizketatuetako batek honakoa dio: “Ez naiz gai esateko Aretxabaletako udalak berak zer politika daukan hizkuntzari dagokionean. Kasu horretan elkarteak eragitea zeharo zaila da” (SE26). Beste batzuek ere bide beretik jotzen dute: “Hizkuntza politiketan zer eragin? Apenas esango nizuke, euren erabilera planetan-eta, apenas, ez” (SE03). “Ezinean ibili gara azterketa serio bat egiteko udalaren hizkuntza politikaren in-

guruan” (SE07). Eta, adierazgarria da nire ustez, elkarrizketatutako kide batek egiten duen autokritika: “Nik uste dut administrazioa gehiago interpelatu behar izan dugula. Beti joan gara lasai, onbera, baina batzuetan kalera irten behar izan ginen eta ez gara atera” (SE13).

Erdiko bidetik jo duenik ere izan bada. Atarrabiako euskara elkarteko kide batek honakoa dio: “Hizkuntza politikari dagokionez, esan dezagun alde legalari dagokionez, Karrikaluzek ez du lan berezirik egin. Bai eskatu zaigu batzuo lan-ketak egitea, eta abar, gogoeta pertsonalak Karrikaluzeren izenean egiteko. Baina bai lortu du, baliabideei dagokienez, zilegi egitea aurrekontuan inoiz pentsatzen ez genuen partidak ahalbidetu behar zutela euskararentzako. Eta, gainera, demostratzea onak zirela herriaren bizitzarako edota herritarren bizitzarako bai? (...) Baina ez da izan goazen eragitera udal politikan. Hori ez da izan hautua. Hautua izan da goazen egitera. Goazen konplizeak bilatzera. Eta goazen esatera: Hau egin behar duzue, baina zuek egin behar duzue” (SE10).

Hirugarren eragin-bideak euskalgintza izan du helburu eta jomuga. Ildo horretatik tiraka, elkarteak ahalegindu dira euskalgintzan euren diskurtso, egiteko modu eta praktikak nagusitzen edo, behinik behin, prestigiatzen. Zentzu horretan, parte hartu duen aditueta batek honakoa dio: “Euskara Elkarrekin euskalgintza osoaren norabidean ekarpen garrantzitsua egin dute azken urteotan, elkarlanari eta aktibazioari begira” (D01). Antzeko bidetik jotzen du elkarrizketatutako batek: “Kriston lana egin dugu euskalgintzaren eta erakundeen arteko zubiak erakitze aldera” (SE15).

Ildo horri bultzaka, aditueta batek honakoa dio: “Euskararen sustapenean, oro har, eragin handia izan dute elkarteek. Eta euskararen aldeko estiloen artean, lehentasuna trinkotzean, elkarlanean edo lan autozentratuan jartzen duen estiloa hedatzea euskara elkartearen ekarpena izan da” (D06). Antzeko zerbait, ñabardurak ñabardura, dio elkarrizketatutako batek: “Konfiantza gehiago jartzen da erakunde handietan, edo proiektu handietan, edo zeretan. Gero denboraren joanak, batzuetan, eramaten ditu proiektu edo erakunde horiek espero ez zen toki batera eta, momentu horretan, ordura arte txikia izan dena, ahula, bazterrean egon dena-edo, derrepente konturatzen zara txiki horrek urte hauetan lan handia egin duela eta dagoela puntu batean, momentu horretan, bai jakintza soziolinguistikoz, esperientziaz jardunarekin lotuta, eta bai ikuspegi eta balore eta abarrez, oso zentratuta. Eta gauza dena bisagra lan bat egiteko momentu klabe baten edo gidaritzan lan bat eramateko inkluso” (S12).

Bada beste kontu bat, aditu bik aipatu dutena. Zerikusia dauka euskalgintzan eragitearekin, baina, era berean, zerikusia dauka beste kontu batzuekin ere, elkarteek herrietan bete behar duten funtzioekin, hain zuzen ere. Baina, kasu honetan, nire ustez hobe da adituek esan dutena lerrootara ekartzea, balorazioetan gehiago sartu barik. “Euskara elkarteak herriko euskalgintzaren abangoardia dira edo izan behar dute. Uneoro errekursoak (pertsonek boluntario eta profesionalak, ekonomikoak, ...) maximizatu eta adostutako lehentasunen arabera, modu planifikatuan lan egin behar dute” (D08). “Uste dut euskara elkarteek ez dutela, oro har, bere funtzioa ondo bete azken hamarraldietan. Hasierako kolpe batean bai, izan ziren nolabait estrategiak, ikusi zituzten hutsuneak eta, oro har, jarri zituzten martxan estrategia batzuk, ba adibidez, hedabidegintza lokala martxan jartzeko, hitzarmengintza, hainbat gauza, baina uste dut ez direla izan herri batean edo udalerrri batean edo eskualde batean euskararen hurrengo pausoei begira alor guztiak zaintzen ari den nukleo zabal hori” (D10).

4.7.3.7 Jakintza eta diskurtsoaren sozializazioa

Jakintza eta diskurtsoa jendarteratzeko lan berariazkoa egin dute elkarteek eta, horretarako, hainbat praktika eta tresna erabili dituzte (ikastaroak, aldizkariak, gogoeta-saioak eta abar). Praktiken arloan izango dugu horren berri. Baina egia da ere elkarteek euren eguneroko jardunetan zabaldu dutela jakintza eta diskurtso hori: ekintzen bidez, antolatzearen bidez, baita egiteko moduen bidez ere. Horrek guztiak zelanbaiteko posoa utzi du eta horixe da, hain zuzen ere, hurrengo lerrootan modu batera edo bestera hona ekarriko dudana.

Elkarteek han eta hemen zabaldu duten diskurtsoak (eta hari lotutako praktikak, ñabardurak ñabardura) ezaugarri batzuk izan ditu: batetik, hizkuntza komunitatea zentroan jartzea alderdikeriaren gainetik; bestetik, nork bere erantzukizuna bere bizkar hartzea; eta hirugarrenik eta azkenik, eta aurreko biek erabat lotuta, adostasunak bilatzea desadostasunen gainetik. Honela dakarte Kike Amonarrirek eta Iker Martinez de Lagosek: “Euskaltzaleen Elkarteentzat ez da arrotza zubigintza, euskararen normalizaziorako elkarlan dinamikak sortu, sustatu, lagundu eta erraztea. Euskaltzaleen mugimenduaren oinarrietan dago topaguneak, harremanetarako espazioak izatea eta sortzea. Topaguneak izatea, Euskaltzaleen Elkarteak euskararen bueltan ideologia, iritzi eta bizipen anitzeko herritarrak batzeko gune modura sortu zirelako” (Amonarri, Martinez de Lagos, 2017).

Eta diskurtso hori pasatu da euskatzaileen artean nagusi izatera. Elkarrizketatu batek honelaxe aipatzen du: “Jarraitu behar dugu zenbait gauza aldarrikatzen, eta jarraitu behar dugu eskubideetaz hitz egiten. (...) Baina hori pasatu da diskurtso nagusia izatetik, pasatu da elementu osagarri batzuk izatera (...) Hartara, ikuspegi horrek ilusionatzeko gaitasuna dauka askoz ere handiagoa besteak baino. Eta, gainera, irismen askoz ere handiagoa dauka” (SE01).

Izan ere, diskurtso hori, bere sasoian, diskurtso berria zen, baina gaur egun gailendu da, antza. Elkarrizketatuetako batek honela aipatzen ditu sasoi bateko kontu horiek: “Diskurtsoa berria zen, motibazioaren diskurtsoa berria zen. Enfrentamendurik gabeko diskurtso bat. (...) Euskararen inguruan, denbora guztian, erreibindikazio eta errudun bila berbetan ibili barik, gauza oso berria zen. Orduan, momentu horretan, diskurtso aglutinatzaile bat, enfrentamendurik gabekoa, orain esaten den bezala, inklusiboa (...) Diskurtso hori, gainera, gizartearen gailendu dela uste dut” (SE02). Motibazioaren diskurtsoa aipatzen dute ere Elgoibarko Izarrra-kokideek: “Euskalduntasuna sustatzea da gure zeregina. Motibazioari lotutako lan-eremua dugu hau; bihotzak ukitu nahi dituen. Euslara eta euskalduntasunarekiko sentimendua landu dugu” (Elgoibarko Izarra, 2014).

Diskurtsora aniztasuna ekarri dute elkarrekin eta aniztasun hori ere, hein batean, gorpuztu eta haragitu dute. “Herrigintzari gune zabal, anitza eta integraztailea eskaini diete elkarrekin, sektore desberdinei” (D01). “Herriari aniztasunez (politikoa, profesionala, ideologikoa, adin mailakoa) eraikitako ereduak eskaini dizkie nagusiki. Eta erakutsi dute egin daitekeela, egiten dugulako” (D07).

Eta, gainera, diskurtso eta praktika anitz horrek bizikidetzan eragin positiboa izan omen du, ikerketan parte hartu duten kide batzuen iritziz. “Nik uste dut bizikidetzan eragin duela. Bizikidetzan pauso ikaragarria izan zen. Esango nuke izan duela eragina. Eragina ez da elkarrekin sortu eta, ordutik aurrera, denak lagunak garelako, ez. Baina jendeak indarra egiteko orduan, solaskidetzan topatzeko momentuan, elkarrekin lana egiteko momentuan, ... Horrek guztiak eduki zuen bere zera” (S02). “Nire ustez, elkarbizitzarako eredu baikorra izan dira Euskal Herrian. Ezberdinen arteko elkarbizitzarako gune, eztabaidarako gune, elkarrizketarako gune, laguntasunerako gune ... horiek guztiak diferenteen artean eskas zirenean. Eta hau, berean, ez da gutxi, inondik inora ere” (D07).

4.7.4 Beste eragin batzuk

Sarritan bilatu barik ere lortzen dira emaitzak, lortzen dira eraginak. Elkarrekin berriaz bilatutako eragin batzuk izan dituzte, baina baita berriaz ez bilatutako eraginak ere. Gainera, kasu batzuetan, euskara elkarrekin bueltan dabilzan aktibitatek ere argi dute hori: “Sinistuta nago, gu hemen euskalgintzan egitera goazen hau, ez dela euskalgintzarako bakarrik” (SE21). Elkarrekin bilatu gabe lortu dituzten eragintxo haien artean, bi dira nagusiki aipatu direnak: autoeraketa esperientzia luze-zabal bat eta euskararen sustapenaren ingurumarian eratu duten humusa (eta gero hortik loratu eta ernaldu diren bestelako esperientzia batzuk elkarrekin egiteko moduetan eta praktikan oinarrituta). Izan badira bestelako eragintxo batzuk eta horiek ere ekarriko ditut hizpidera.

Euskara elkarrekin autoeraketan oinarritutako egiteko modu bat ekarri dute Euskal Herrian. Ez dira lehenak izan, ez dira azkenak ere izan, eta, seguruenara, ez dira izan berritzaileak, baina seguruenara bai izan dira autoeraketaren eredu gogor samar hau herri gehienetan erreplikatu dutenak. Elkarrekin batzeko batek honela dio: “Autoeraketa ikuspegitik, dinamika sozialen ikuspegitik eta ... beste oso esparru gutxitan lortu da. (...) Ze, klaro, ez gara ari Euskaraldiko batzorde bat sortu da eta kito. Ari gara elkarrekin bat, estatutuak, zuzendaritza batzorde bat, kuotak, ... Ari gara oso-oso zera antolatu batetaz. (...) Euskara elkarrekin erakutsi dutena izan da, edo egin dutena izan da, autoeraketa eredu bat hedatu Euskal Herri osoan. Autoeraketa eredu exigente bat hedatu Euskal Herri osoan. (...) Autoeraketa egonkor bat, iraunkor bat, eta nolabait erreproduzio sistema potente bat daukana eta irauteko helburuarekin egiten den zera bat, hori oso garrantzitsua da euskararentzat, beste dinamika guztientzat (...) Kontua da AEDren eredu nola bait ehun herritan erreproduzitu dela” (SE01). Beste elkarrekin batzeko batek ekartzen du hizpidera autoeraketa eredu gotorraren ideia: “Baina eredu zen, nolabait, egitura juridiko bat eta, gainera, bideratuta modu profesionalean lan egiteko oso ona delakoz bide hori, eta oso emankorra delakoz. (...) Halako boluntario taldeak oso leku gutxitan ernatu dira eta, batez ere, egonkortu dira” (SE09).

Ikerketan parte hartu duen aditu batek ere antzekoa dio: “Antolaketa eredu serio bat ekarri zuten euskara elkarrekin. Sasoi haietan ez ziren horrela antolatzen herrietan. Liberatuen inkorporazioa, adibidez, ez da bereziki euskara elkarrekin, baina herrietara beraiek jaitsi zutela esango nuke. Gerora, liberatuen demasatasun eztabaidagarria ere ekarri zuten. Antolaketa eredu serio horrekin erlazionatuta, enpresa eredu antolamenduak ere ekarri zituzten mugimendura” (D11). Ildo horretan gehiago sakontzen du elkarrekin batzeko batek: “Gauzak

egiteko era bat. Lehen aipatu dizudan helburu egingarriak, aktak jaso, eta abar. Gero, hemendik atera denez jendea leku askotara ..., neurri batean, ze gero inertzia oso indartsua da, baina, neurri batean, eraman dituzte ohitura horiek. Orduan, herri mugimenduetan egoteko eta jarduteko estilo bat. (...) Gauzei heltzeko beste modu bat” (SE06).

Irakurketa orokorrigo eta xeheago egiten du ikerketan parte hartu duen beste aditueta bateg: “Elkarteak, nire ustetan, urte asotan Euskal Herrian garatu den herrigintzaren adierazpen argia dira. Adierazpen bat gehiago. Hartara, jendearen ekimenetik eta partaidetzatik sortutako eraikuntza sozial bat egin dute. Ez goitik behera (hau da, instituzio politikoetatik bultzatutakoa), gizarte zibiletik baidzik. Eta hori hala da elkarteen proiektuak guztiz gauzatu ez badira ere. Horrela, jendearen ekimenez herrietarako proiektuak diseinatu dituzte, errealitate soziala ulertzeko eta interpretatzeko marko bat sortu dute eta horretara bideratu dute ekintza kolektiboa *bottom-up* perspektiban. Aldaketa sozialerako eta berrikuntza sozialerako indar izan dira. Eta tokiko gizarte zibila aberasteko eta herritarrak ahalduetzeko gune garrantzitsu bilakatu dira dudarik gabe” (D02). Ildo horretatik, beste aditueta bateg honakoa dio: “Herrigintzari ekarpen izugarria egin diotela esango nuke, autoeraketa eta autonomia mailan, tokian tokiko irakurketa eta praktika mailan” (D05).

Batetik, autoeraketa eta, bestetik, humusa. Hots, euskara elkarteen ondorioz edo imitazioz gauza asko sortu omen dira, humusa eratu dute elkarteek eta humus horretatik hainbat hazi sortu, ernaldu, loratu eta garatu dira. Honela dio elkarrizketatu bateg: “Uste dut elkarteei esker sortu direla gero beste gauza asko. Askotan baloratzen dugu euskara elkarte denagatik, baina ez da dena. Da zer sortu dugun bidean eta, horri esker, zenbat gauza sortu diren” (SE22).

Orokorretik zehatzagora joanda, elkarrizketatueta batzuek euren herrietan euskara elkarteen inguruan edo imitazioan sortutako ekintza eta ekimen zehatz batzuek ekarri dituzte. Esate baterako, Lasarte-Oriako Ttakun elkarteko elkarrizketatuak honela dio: “Sortu dira geroztik Kukuka antzerki eta dantza eskola, daukana kriston bolumena eta erabat euskaraz funtzionatzen duena. (...) Sortu zen batukada taldea euskaraz erabat funtzionatzen duena. (...) Beste koro bat Xumela-edo izena duena, erabat euskaraz funtzionatzen duena. (...) Ttakun-en bide horretatik jarraituz euskara hutsean funtzionatzen hasi direnak eta, gainera, ideologikoki nahita horrela funtzionatzen dutenak” (SE14). Eibarko ...eta kitto! elkarteko ordezkariak ere antzekoa zioen elkarrizketan: “...eta kitto! sortu izan ez balitz, eibar.org ez zen

sortuko. Hazi bat izan zen, gero beste elkarte batzuk sortu ahal izateko, sortu dute humus bat gainerako elkarte horiek ere sortu zitezten” (SE04).

Autoeraketa eta humusaz gain, errealitate fisiko, geografiko edo humanoak trinkotzen ere eragina izan dute elkarteek (edo haietako batzuek, behinik behin). Horrela aipatzen dute elkarrizketatu bik, eta esaten dute euren hedabideek eragin handia izan dutela eskualdea zelanbait eratu eta egituratzerako orduan. Esate baterako, “Aiaraldea, berez, kontzeptu asmatua da. (...) Orduan, guk Aiaraldea deitzen genion edo deitzen diogu eta, gainera, gero asko sozializatu da kontzeptua. Eta hor ohartzen zara zelako eragina daukan proiektu bat trinkotzeak” (SE23). Besteak ere antzerakoa dio: “Debagoiena bada ya sujetua. Eta debagoiendar hitza erabili egiten da” (SE16).

4.8 Aurrera begirako ekarpenak

Orain arte ibili naiz iragana eta oraina txirikordatzen, iraganaren oraina eta orainaren gaurkoa, hain zuzen ere. Hala ere, ikerketan parte hartu duten elkarrizketatu eta aditu gehienek etorkizunari begira ere jardun dute. Ez da hau, inondik ere, tesi honen enborrik nagusiena. Adar bat baino ez da, berariaz bilatzen ez nuen adarra, gainera. Dena den, iruditzen zait ikerketaren hobe beharrez, adar honi ere oratu behar diodala, iruditzen zait ikerketaren zintzotasunaren izenean ezin nituela baztertu ikerketan parte hartu dutenek etorkizunari begira esandako guztiak. Labur joango da etorkizunari begirakoa, besteetan baino labur, bilatua izan ez den heinean. Labur joateak, baina, ez du esan gura azaletik joango denik. Sakon aritu dira ikerketan parte hartu dutenak honetan ere, eta horrek bere isla izango du hurrengo orrietan.

Etorkizunari begira ikerketako parte hartzaileek esandakoak lau multzo nagusitara ekarri ditut: funtzionamendua (edo antolaketa), egiteko moduak, diskurtsoa eta jardunbidea. Banaka aztertuko dut gai bakoitzaren inguruan ikerketan parte hartu dutenek esandakoa.

4.8.1 Funtzionamendua

Funtzionamendu edo antolaketari dagokionez, ikerketan parte hartu dutenek adierazi dute etorkizunari begira euskara elkarteek funtzionamendua eta antolaketan malgutu behar dutela, lausotu zelanbait. Erabaki eta hautatu funtzionamendu

modu berriak, elastikoagoak antza. Elkarrizketatu batek honela dio: “Elkarteek birpentsatu behar dute bere burua erabat (..) Lortu dugu, denon artean, egoera iraultzea eta nolabait haizea gure interesen aldeago jartzea. Eta orain errekuperatu behar da, pentsatu behar da, haize horretan, haize hori ondoen baliatzeko zer ontzi klase behar den... eta bela nola ipini behar den... (..) Iruditzen zait eskualdeak oso egitura funtzionalak direla (..) Konbibentzia herrietan, auzoetan, egin behar da. Baina funtzionamenduan, batzuetan, nahastu egiten ditugu bi planoak. Plano funtzionala eta plano konbibentziala. (..) Zerbitzu bateratu batzuk sortu ba funtzionatzeko, eskualdean eta, gero, denbora eduki dezala bakoitzak bere herrian, bere inguruan aktibazio lana tokatzen diren zerak egiteko. (..) Eta gero ekintzak behar du behean. Eta jendeari eman tresnak, ekintza hori erraz samar egin dezan (SE01).

Antzeko bidetik jotzen du elkarrizketetan parte hartu duen pertsona batek. Haren iritziz, “orain arte euskara elkarteak ikusi ditugu herri bateko espazio... gune geografiko bati lotutako elkarte bat. Antolakuntza mota konkretu bat daukana: zuzendaritza batzordea, elkarte, ... Ez. Euskaltzaleen mugimendua hori baino zabalagoa izan behar da” (SE15). Hortaz, badirudi egituraketa juridikoak eta antolaketa egituraketak malguagoak izan behar direla, bihurritu behar dira egituraketak eta egoera berrietara moldatu, egoera berrietara ekarri³¹⁵. “Gaur egun edo gaur arte asko landu da bazkideen zera horretan, bazkideen zabaltzea, elkarteak eta. Eta uste dut ulertu behar dugula euskaltzaleak prest daudela biltzeko zerbait ilusionagarriaren bueltan eta gu izan behar garela beraientzako erreferentia. Behar duten hori eskaintzen edo laguntzen hori aurrera eramaten, eta ahaztu erakunde juridiko nolakoa den eta abar” (SE10). Antzeko bidetik jotzen du beste elkarrizketatu batek: “Ez dut zertan ikusten zergatik egon behar du euskaltzale pertsona bat lotuta bere herriko edo bere auzoko elkarteari Euskaltzaleen Topaguneko kide izateko (...) Askoz gehiago irudikatzen dut Euskaltzaleen Topagunea nazio mailan gero gauzatzen dena herriz herri berdin dela zer egitura den. Euskara elkarte badago, ondo, hedabide bat baldin badago, batzorde bat baldin badago ...” (SE04).

Bada beste kezkarik antolaketa eta funtzionamenduari dagokionez. Jendea, boluntarioak, aktibistak edo militanteak. Eta horiek elkarteetara (edo egituraketa berrietara, aurreko lerroetan ikusi bezala) erakarri eta zaintzeko beharra. Aditu zer dioen elkarrizketatuetako batek: “Nik ikusten dut etorkizunean oso gutxi izan-go direla euskararen inguruan euren militantzia egituratuko dutenak. Eta horiek

315 Kezka ez da bakarrik elkarrizketatuena. Adierazgarria da, zentzu horretan, Topagunak 2020ko Topaldia (urtero egiten duen gogoe-tarako jardunaldia) gai horren bueltan antolatuta izana, honako izenburuarekin: “Euskaltzaleen antolakuntza erreduez berpentsatzen”.

behar-beharrezkoak zaizkigu, ezinbestekoak. Ez dakit zelan, baina jende hori lortzen asmatu behar dugu, bestela jai egingo du honek. Bestela, ez dago aurre-
ra egiterik” (SE13). Ildo horri jarraituz, Maite Indak euskalgintzaren militantzia moduei buruz egindako ikerketatik ondorio bat atera du: “Eta marraztu du eus-
kalgintzak mundu desberdin eta hobe bat lortzearen ikuspegitik zenbait gazteri
egin diezaiekeen ekarpena” (Inda, 2019).

4.8.2 Egiteko moduak

Egiteko moduei buruz, kezka nagusienetako batek (gainera, antolaketa eta funtzionamenduari ere zerikusi handia duena) mugimendu izaerarekin du lotura. Adituetakoa batek, adibidez, honako hau dio: “Aldaketa handi baten behar-
rean ikusten ditut, behar berriei erantzuteko eta ilusioak berritzeko. Mugimendu
bihurtu beharra daukate, gainerako elkarrekin gehiago fusionatuz eta elkar era-
ginak handituz” (D03). Horri lotuta elkarrizketatuetako batek honako gogoeta
ekarri du mahai gainera: “Orduan euskara suspertzeko torloju bati bueltak ematea
jun-jun nahikoa izango balitz, egongo ginatke ba bueltak ematen torloju horri.
Baina horrek ezertako balio ez duenez, pentsatzen dugu beste zerbaitek erakar-
garriagoa eta eragin handiagokoa dela” (SE19). Beste aditu batek oso antzeko
bidetik ekiten dio kontu honi: “Eraldaketa sakonaren beharrea daude (gaude)
horretan. Instituzionalizatu gara, formaldu gara, inoiz baino gehiago dakigu, bai-
na erakarmena eta mugimendua eragiteko gaitasuna apaldu zaigu” (D05).

Kezka hau, gainera, bat dator Maite Indak egindako ikerketaren ondorioekin. Hark euskalgintzako militantzia erduz egindako ikerketan mugimendu izaera sendotzea dakar ondorioetan, aurrera begirako pausoak indartsuagoak egiteko asmoz. “Bestalde, sentsazioa daukat krisi egoera honen aurrean formula berriekin erroetara jotzeko joera bat-edo dagoela, jatorrietara bueltatze bat. Eta aldi be-
rean, garai berrietan funtzionatzen ez duten zaharkitutako moldeak gaitzitze-
ko premia dagoela eta zenbaitetan asmatu ezinean gabiltzala. Hori, euskalgintza
gaitzitzen duen errealitatea dela esango nuke, herri mugimenduetan bizi dugun
errealitate bat. Besteetan nola ari diren ez dut ezagutzen, baina uste dut orain arte
euskalgintzak ez duela bere burua herri mugimendu gisa zaintzeko eta lantzeko
planteamendu sendorik egin. Euskara gordetzeko eta ondoren normalizatzeko
ahaleginean buru belarri sartuta egon da sorreratik bertatik, horrekin aski lan ala-
jaina! Eta milaka eta milaka lagun indarrak ekarri gaitu honaino. Baina ustea
dut iritsi zaiola euskalgintzari herri mugimendu gisa bere burua zaintzeko eta
elikatzeko momentua, kinka honetatik arrakastaz aterako bada” (Inda, 2019).

Egiturak malgutu, bihurritu bai, baina, era berean, tokiko maila eta maila nazionala ahalik eta orekatuen mantenduz. Egituraketa irekitzearen bide horretan, maila nazionala eta maila sektoriala ere kontuan hartu behar direla dioenik ere bada: “Tokian toki eragitea oso ongi dago, baina maila sektorialean lurralde edo nazio mailan artikulatu eta eragiteak potentzialtasun handia izan dezake” (D05). Zentzu beretik jotzen du beste aditueta batek: “Bilakaera horretan Topagunea da gakoetako bat. Elkarteen egituratze maila hori funtsezkoa izan da elkarteen helburuetarako, eta aurrerantzean ere jarraituko du izaten. Izan ere, elkarteen ahulezia estrukturalak (baliabidetan, formazioan, profesionaltasunean, estrategian eta abarretan) bilgune profesionalizatuagoa den Topagunerekin bideratzen da, neurri batean” (D09).

Horrez gain, prozesuetan eta egiteko moduetan koherentzia behar dela dio aipatu dudan Maite Indaren ikerketan parte hartu duen pertsonetako batek. Honela dio berak: *“Ideologikoki iruditzen zait gizarte mailan izugarritzko aldaketa baten aurrean gaudela, eta horrelako gauzek gero eta garrantzi txikiagoa dutela, eta garrantzitsuagoa dela bere ingurunean ongi txertatua dagoen ekimen bat, prozesua nola egin den, hasieratik ongi kudeatu bada komunikazioa, ekimen hau zertarako izango den adostasunean hasieratik, prozesuaren urrats guztiak jende guztiak ongi ezagutzea, eta ez egotea zati ilunak bidean. Askotan ongi komunikatzea oso zaila da. Denbora eta inbertsio handia eskatzen du ongi komunikatzeak. Eta egitura handia bada, denbora joaten zaizu horretan.”* (2. Elkarrizketa, 45 urtetik gorakoa).

Mugimendu izaera hori indartzeko, gainera, ekonomia sozial eraldatzailea mugimenduan txertatzeko ahalegina aipatu du elkarrizketatu batek. Maite Indak ere bide horretatik jotzen du: “Azken urteetan enpresetako jarduera optimizatzeari begira, gurean naturalak ziren elementu horiek indartzeko bideak ari direla lantzen enpresetatik: berrikuntza sozialaren transfondoari erreparatuz, ez al dago horretatik zerbait?” (Inda, 2019).

Bada ere oraingo egiteko moduetan jarraitu behar dutela dioenik: “Ze iruditzen zait guk badugula planteamendu oso eder bat, oso eraikitzaile bat. Herria egin nahi dugu. Ez diegu gure ardurei kale egiten. Ez dugu planteatzen eskatu eta aldarrikatu! Hori ere bai. Baina planteatzen dugu, goazen egitera herria! Ahaztuta erakundeak eta...” (SE10).

Presio talde modura funtzionatzea ere aipatu du ikerketan parte hartu duen ki-deetako batek. “Pentsatzea nahi nuke arduradun politikoen aldetik ere poliki-poliki elkarlanerako aukerak zabaltzen diharduen heinean, lortuko dela poliki-poliki

eragina ere gero eta handiagoa izatea-edo. Alegia, euskaltzaleen mugimenduan, beste alor askotan esaten den moduan, lobby eragina handitzeko aukera egongo dela pentsatzea nahi dut” (SE12).

4.8.3 Diskurtsoa

Diskurtsoari dagokionez, zelanbait zaharberritu behar dela aipatu dute ikerketan parte hartu duten kideetako batzuk. Zentzu horretan, adierazgarria da adituetao batek egindako ekarpena: “Ametsa bersortu behar da aldiari-aldiari” (D05). Amets edo diskurtso horrek izan behar dituen osagaiak ekarri ditu hizpidera elkarrizketatuetao batek: “Asmatzen bada estrategia bateratu bat poliki-poliki gorpuzten jakintza soziolinguistikoa, lotuta ondo sustraituetao mugimenduekin eta irudikatzen, hizkuntzaren ahalegin hori bere horretan, ba lortuko da” (SE12).

Diskurtsoak, baina, beste osagai batzuk ere izan behar dituela uste du batek baino gehiagok. Esate baterako, jakintza kontuez gain, emozioekin zerikusi handiagoa dutenak ere hartu behar dira aintzat: “Ostras hemen, esango nuke, momentuz enpoderatzen ari garela jendea arrazionalki. Baina oraindik ere hor, beste motor horietara... ezta? Emozioetara edo benetan inpultso bidez jokatzeko oraindik ere jendea ez dugula hor modu horretan ahaldundu. Jendeak oraindik ere beldur emozionalak badauzka, hizkuntza emozio negatiboekin lotzen du... Orduan, bai arrazionalki, nik pentsatzen dut nire eskubideak baditudala, baina gero ez duzu benetan hala sentitzen, edo ez duzu hala jokatzeko” (SE21).

Horrez gain, diskurtso hori etorkizunera jaurtikitzeko lengoia, mezu eta kode berrietara moldatu, egokitu behar dela dio adituetao batek: “Bada kontserbazioan arreta jartzeak nolabait hizkuntza iraganarekin lotzen duelako. Eta etorkizunera ‘jaurtiki’ nahi badugu, lengoia, mezu eta kode berrietara egokitu behar dugulako jasotakoa, galduko ez bada, eta horrekin hizkuntza etorkizunarekin lotu” (D07).

Eta beste kontu bat litzateke diskurtso hori zelan zabaldu, zelan komunikatu. Argi dago badirela molde berriak gaur egun, egiteko modu berriak eta komunikatzeko eta informazioa helarazteko bide berriak. Eta pieza klabea da hor komunikazioa: zelan bideratu zure diskurtsoak jendartean. Horren harira, honako ondorio hau ateratu du Maite Indak berak egindako ikerketan: “Garai berrietan desberdin borrokatzen dela, molde berriak behar direla zalantza gutxi, eta horretan komunikazioa pieza klabea dela seinalatzen da. Baina euskalgintza ezinean ikusten da estrategia falta delako” (Inda, 2019).

4.8.4 Jardunbidea

Elkarteen jardunbideak, etorkizunean, dinamika soziala ehuntzen, dinamika soziala egituratzen, dinamika soziala sendotzen ibili behar du, antza. Edo hori diote, gehien bat, ikerketan parte hartu dutenek (eta, gainera, koherentea da mugimenduago izateko bide horrekin): “Hau da, instituzionalizatzea, egonkortzea, finkatzea eta egiturak, oso ondo... Baina dinamika soziala ez baldin badago, eremu soziala ezin da ehundu” (SE01). Dena den, ez dirudi dinamika sozial hori indartzeko bidea erabat argia denik, egiten eta hanka sartzen joango diren heinean, argituko den bidea izango dela dirudi: “Nik uste dut badakigula nondik tiratu nahi dugun. Ez dakit modua, guztiz ez daukagu borobilduta. Baina joango da forma hartzen” (SE15). “Eguneroko ekintza txikien bidez nik uste dut pixkanaka joan gaitezkeela bideak zabaltzen” (SE23).

Eguneroko ekintza horiek erabilera eta aktibazioa izan behar dute helburu, parte hartu dutenen iritziz. “Ahalik eta gehien aktibatu, ahalik eta jende gehien urrats praktikoak egitera eramán, aldekotasun dinamiketatik urrats praktikoak egitera eramán. Ulertu ere bai euskaraz bizitzea dekretuz egin ezin daitekeen kontu bat dela, eta onartu behar dugula maila desberdinetako atxikimenduak egongo direla” (SE15). “Orduan, ez dakit zer den euskara elkarteek egin behar dutena eta herrian eragin edukiko dutenak euskararen erabileraren mesedetan. Ez dakit zein diren lan arrasto horiek. Edo ez dakit zer den egin behar duguna” (SE03). Aktibazioa ere aipatzen du Maite Indak euskalgintzaren militantzia ereduari buruz egindako ikerketan parte hartu duen kideetako batek: *“Aktibazioak garrantzi erabatekoa du mugimenduentzat. Akzioa gara, edo ez gara. Akzioa da eragitea, akzioa da komunikazioa, akzioa da trinkotzeko bidea, akzioa da egituratzeko bidea, akzioa da dena. Herri mugimendu akziorik gabea da gorputz odol gabea. Irabazi nahi dugu: ez da irabazten nekerik gabe, ez da irabazten akziorik gabe, eta irabazi behar duzu jendea ongi zainduz, batuz... Akzioa ez da Korrika bakarrik. Akzioa da zure egunerokotasunean inguruan duzun jendea elikatzea, zaintzea, formatzea... Ez soilik formakuntza tekniko. Irtenbide asko komunikazio klabeen ikusten ditut.”* (3. elkarrizketa, 45 urte-tik gorakoa). Aktibazioarekin lotuta, honako hau dio ikerketa honetan parte hartu duen elkarrizketatuetako batek: “Gustatuko litzaidake horrelako proiektu eta dinamika gehiago egotea jendea motibatuzeko, ilusionatzeko, aktibatuzeko, sartzeko. Euskara elkarteek berriro protagonismoa hartzeko” (SE23).

Hala ere, aktibazioa gaitz guztien sendagai ez dela izango ere esan du ikerketan parte hartu duen kideetako batek. “Ematen du orain urtebetean, derrepente, euskaldunen problema guztiak soluzionatuko direla... Ez. Hemen izango da...

Garai polita da. Esan nahi dut, bidegurutzetik behingoz bide bat hartu dugulako. Baina bide honek ez gaitu helmugara eramango” (SE21).

Horrez gain, jardunbidea elkarlanak ere ezaugarritu behar dela uste dute ikerketan parte hartu duten askok. Elkarlanak edo, behinik behin, mugimenduen arteko artikulazioak. “Baina uste dut ariketa garrantzitsu bat falta dela egiteko eta da zelan elkar lagundu daitezkeen euskara elkarteak ere beraien artean. Zer sare daude komunean euskararen ildotik. Laudion arazoa dena eta Oreretan edo ez dakit non... igual pila bat baliabide egongo dira komunean jarri ahal izango direnak. Aberasteko eta ikasteko modua egongo da. Baina ez dakigunez... bakoitza geratzen da bere blokeo momentuan mirari baten zain. Eta mirariak ez dira existitzen” (SE23). Beste ñabardura batzuk gehitzen ditu beste elkarrizketatu batek: “Euskararen biziberritzean euskara taldeek bere lana izan dezakete, baina ez dira beraiek bakarrik, instituzioak ere bai, eskolak ere bai, euskaltegiak ... baina gero mugimendu sozialetan egon daitekeen bultzada ere oso garrantzitsua izan daitekeela iruditzen zait. Ze, gainera, euskararen etorkizuna jokatzeko da barrura begira, euskaldungoari begira, baina baita kanpora begira ere bai” (SE05).

Gogoeta horrek, gainera, bat egiten du erabat Maite Indak egindako ikerketaren ondorioekin. Haren arabera, “... berrikuntza soziala, interseksionalitatea eta gobernantza eredu berriak. Nahi ala nahi ez, han eta hemen agertzen zaizkigun kontzeptuak. Joera berriak hortik datoz. Horiek guztiek, esango nuke, ezaugarri komunak dituztela: saretzea, botere irradiazioa, planteamendu sistemikoa, konexioak, desberdinen arteko sinergiak...” (Inda, 2019). Hortaz, badirudi euskara hainbat eremutara eramane behar dutela elkarteek. “Nik uste dut euskara eremu desberdinetara eramatea. Euskara ez dut uste denik kultura bakarrik. Euskara ez dut uste denik hezkuntza bakarrik. Euskara ez dut uste denik, ez denik kirola, eta kirola ere bada. Ez sozioekonomia. Uste dut beti mugatu dela edo lotu dela asko kulturari, folkloeari... hezkuntzari pixka bat. Baina jendartean hori baino askoz gehiago da. Saihestu egin direla bide batzuk, politika kasu, txiki sentituagatik edo arazo gehiago ekarriko dituenaren beldurra izateagatik. Eta uste dut horri heldu beharko litzaiokeela. Euskara ez da hizkuntza bat bakarrik. Euskara politika ere badela eta politika dela guztia” (SE23).

Mugimendu eta elkarteen arteko artikulazioak ez ezik, bestelako bide batzuk ere urratu behar direla esaten dute batzuek. Eta bide horiek erabaki politikoekin zerikusia dutela esaten dute. “Erabaki handiak hartu behar dira eta ez dira hartzen. Ez dago interes handirik erabaki horiek hartzeko. Borondateetik gauza asko egin daitezke, ez? Baina benetan nabarmenak izateko, ikusgarriak izateko, eta se-

rioak izateko, azken finean, erabaki politikoak behar dira” (SE06). Eragite-lanak zabaldu behar direla dio ere ikerketan parte hartu duen kideetako batek: “Orain herritarrengan intziditu nahi horretan gaude, baina enpresetara, erakundeetara, eta gizarteko geruza guztietara zabaldu nahi dugu” (SE02).

Azkenik, euskararen komunitatetik urrun daudenak erakartzeko lana egin behar dela dioenik ere bada. “Nola egin euskaratik hurbil ez dagoen komunitatearekin enpatia ariketa bat, beti ere bizitzako eremu normaletan sortu daitezkeen egoeretan euskararen erabilera areagotzeko” (SE26). ■

5. Ondorioak

Orain arte txirikordatu ditut euskara elkarteen inguruko hainbat eta hainbat kontu. Geometria neurtu dut, perimetria, kartografiak, mapak eta abar, puntu ilunak eta puntu argiak, denbora-lerroetan gertaturiko etenak, mutazioak eta haus-tura-lerroak, egindakoak eta egin barik utzitakoak, lortutakoak eta abar. Espe-rienzien artxibategia eratu dut eta bada sasoia zelanbait horri guztiari errematea emateko, ondorioztatzen hasteko. Eta, berriro ere, hasi aurretik, oharra: hemen azaldutakoa joera nagusien azalpen gisa ulertu behar da; orokortzerakoan, beti, egoera eta ezaugarri bereziak bazterrean geratzen baitira.

Ondorioak, ezinbestean, harremanetan eta elkarrizketan jarri behar ditut hipotesiekin, baita arlo kontzeptualean azaldutakoarekin ere. Horrez gain, ikerketan, orain arte gertatu bezala, harilkatu dira iragana, oraina eta golea eta, ondorioetan ere, hiru horien arteko dialektika agertuko da modu batera edo bestera.

5.1 Fenomeno poliedrikoa

Ikerketa abiatu nuenean, honako hau izan zen formulatu nuen lehen hipotesia:

Euskara elkarteen fenomenoa oso tokikoa izan da eta herri bakoitzean garapen bat izan du. Hala ere, mugimendu beraren kide sentitu dira euskara elkarteak, salbuespenak salbuespen.

Hortaz, euskara elkarteen fenomenoa zerbaitek ezaugarritu badu, hori tokikotasuna izan da. Euskara elkarteen taxonomia tokian tokiko berezitasunekin azaldu daiteke, salbuespenak salbuespen. Euskara elkarteak toki mailan sortu, garatu, eboluzionatu eta, kasu batzuetan, hil egin dira, beti erabakitzeko eskubide osoa toki mailan izanda. Tokikotasun horrek euskararen egoeraren mila eta bat ñabardurei itsatsiago egotea ekarri du, lekurik leku. Errealitateari erabat atxikirik ibili dira elkarteak, tokian tokiko fenomeno, gatazka, arazo, indargune eta gertakariei zeharo loturik. Eta, jakina, errealitatearen izari horrek ere zerikusia izan du elkartearen jardunbidean. Hau da, errealitateari lotuta egoteak ekarri die helburu eta egiteko zehatzago eta doituagoak izatea, baina, era berean, errealitateak berak ere eragin die elkarteei euren jardunbidean, logikoa den bezala. Izan ere, ez du gauza bera egin Arrasate bezalako herri bateko elkarteak, edo Azkoitiakoak edo Lizarrakoak. Bakoitzaren eta besteren arteko errealitateak zeharo diferenteak diren heinean (soziolinguistikoki, sozialki, kulturalki, ...).

Batera jotzeko ahaleginak ere egin dituzte elkarteek (Topagunearen bidez batez ere, baina eskualde batzuetan ere egon dira ahaleginak eta hedabideen kasuan aipamen berezia behar du Tokikom erakundeak), baina, hala ere, ahalegin horietan guztietan jarduteko burujabetza, erabakitzeko burujabetza eta irten edo sartzeko burujabetza beti tokiko egiturak izan du. Topagunea, gainera, behetik gora egituratutako erakundea izan da eta bertan bazkideek izan dute gidarritza eta zuzendaritza. Batetik, Topaguneak izan duen zuzendaritza beti elkarteetako kideek osatu dute eta zuzendaritza izan da Topagunearen ibilbidea zehaztu duena. Eta, bestetik, urte luzez Topagunea batzordeetan egon da antolaturik, arloetako batzordeetan hain zuzen ere. Eta, batzorde horietan, Topaguneko langileez gain, beti hartu dute parte elkarteetako kideek (kasu honetan, gehientsuenak ere izan dira elkarteetako langileak).

Tokikotasun horrek fenomeno poliedrikoa izatea ekarri du. Hainbat forma hartu dute elkarteek, hainbat bide edo lan-ildo, hainbat egiteko modu. Hori guztia egia izanda ere, fenomenoak izan ditu hainbat ezaugarri komun eta, hortaz, euskararen aldeko jardunbide eta jokabide zehatz batzuen inguruan berba egin genezake euskara elkarteei buruz ari garenean. Lerro batzuk marraztu dituzte elkarteek eta, tokiko ezberdintasunak ezberdintasun, batera aztertu daitekeen fenomeno poliedrikoa osatu dute. Izan ere, ideiak eta egiteko moduak pirateatu

dituzte elkarteek, eta Topaguneak ere ekarpena egin du bide honetan. Han eta heringo esperientziak trukatzeko ahaleginak eta saiakerak egin dira, gogoetak eta hausnarketak partekatu eta probokatu, eta abar. Hari ikusezin batek zeharkatzen ditu, beraz, elkarteen jardunbideak. Baina horiek guztiak aurreragoko ondorioetan ikusi egin beharko ditugu, banaka-banaka.

Beste alde batetik, fenomeno poliedrikoa izateak dakar, hein batean, ikerketa hau hurbilpena izatea. Ahalegindu naiz izaera orokorra ematen, ahalegindu naiz ezaugarri nagusienak aletzen, baina, nire ustez, sistematikoagoa izan beharko litzateke esfortzua. Horretarako, noski, aldeztu aurretik lan batzuk egin beharko lirateke. Zelanbait esanda, euskara elkarte bakoitzaren (edo askoren behinik behin) ibilbidearen eta lorpenen sistematizazio saioak egin beharko lirateke han eta hemen, eta beste elkarteetako kideekin eta, oro har, euskaltzaleekin partekatu. Lan hori egin barik, ikerketa lan honek fenomeno poliedriko hori antzemateko zailtasun nabarmenak izan dituela begitnantzen zait.

5.2 Komunitategintza eginkizun

Gertuko sareetan, gertuko ehunetan jardun dute, batik bat, elkarteek. Eta, hein batean, gertuko sare eta ehun horietan euskara txertatzen aritu dira, modu batera edo bestera. Lehen ere esan dut tokikotasuna izan dela elkarteen ezaugarri nabarmenena. Baina tokikotasunean aritzean elkarteak ibili dira tokiko eragileekin lanean, tokiko elkarte eta abarrekin txirikordatzen, eragiten eta, hein batean, sustatzen ere.

Tokiko hedabideen bidez elikatu dituzte sare eta ehun horiek (aipatzeko modukoa da kasu honetan hainbat hedabidek komunitatea bera sortzen, izendatzen, eratzen egin duten lana, kasurako *Goiena* edo *Aiaraldea*). Tokiko hedabide hauek ahotsa eman diete tokian tokiko jendeari, elkarteei, dendei eta abarrei. Gainera, askotan sustatu dituzte bertako komertzioak eta bertako ostatuak. Era berean, hedabide hauek askok ekarpen handia egin dute herrietako historia eta istorioak berreskuratzen. Bozgorailu lan handia egin dute hedabideen bidez elkarteek eta, horrela, hainbat elkarte, mugimendu, denda eta abarrentzako euren informazioa zabaltzeko erreferente bihurtu dira. Pentsatu behar da tokiko ehunetan mugitzen diren elkarte, denda txiki eta taberna askorentzat hedabide hauek izan direla euren informazioak-eta zabaltzeko izan duten ia bide bakarra.

Kulturgintzaren bidez ere jardun dute komunitategintzan elkarteek. Batetik, kulturgileentzako plazak eta aukerak sortu dituzte elkarteek (ez da ahaztu behar euskarazko kulturgintzak indargunerik badu, gertuko edo hurbileko sare eta harrietan duela): haietako asko eta asko, gainera, plaza eta aukera berriak izan dira. Eta, bestetik, gutxiago egin badute ere, sormena landu dute eta sormena lantze horretan askotan jo dute kulturgintza parte-hartzailea bultzatzen eta sustatzen. Eta, horretarako, oinarritu egin dira herrietako ehun eta sareetan, eta bilatu dute herrietako hainbat eta hainbat eragileren parte hartzea.

Haur eta gazteen programetan ere jardun dute hurbileko sareetan eragiten. Zerbitzugintzan aritu badira ere, horren bidez herri askotan egituratu dute haur eta gazteen aisialdi antolatua behinik behin. Ludotekak eta gaztelekuak kudeatu dituzte eta, gehien bat, bertako langilerekin hornitu eta bertakotasuna txertatuz, horrek dakarrenarekin. Gainera, azken urteotan, horri lotuta, beste aurrerapauso nabarmena egin dute zenbait euskara elkarteek (beste hainbeste eragilerekin batera) eta herri hezitzaileen filosofiara eta praktiketara hurreratu dira. Horrekin komunitateko ehunak eta sareak eraikitzeke lana egiten dute, herri osoa (eta, beraz, herrietako ehun eta sare guztiak) espazio hezitzaile bihurtzeko asmoarekin.

Hitzarmengintzaren bidez, herrietako denda, taberna eta elkarteak euskaraz blaitu dituzte. Horrek euskara elkarteei hartu-eman asko ahalbidetu die, igurtzi askotxo herriko beste eragile edo mugimendurekin. Eta horrek ere, bere xumean, herrietako ehunak eta sareak elikatzeke balio izan du.

Guneak eta espazioak ere sortu dituzte elkarteek, ostalaritzari eta kulturgintzari lotuak, gehien bat. Gune eta espazio horiek ere bere xumean balio izan dute komunitatea txirikordatzeko eta erreproduzitzeko: balio izan dute harreman berriak egiteko, balio izan dute herrietako elkarte eta taldeek ere emanaldiak eta bestelako ekimenak antolatzeke espazioa izan dezaten, balio izan dute proiektu eta istorio berriak asmatzeko. Bere xumean, baina horretarako ere balio izan dute.

Bestela ere, eta orokorrean, elkarteak aritu dira komunitategintzan, komunitate giroa suspertzen. Aritu dira hainbat elkarterekin elkarlanean, udalekin elkarlanean, proiektu zehaztarako eta beste hainbat eginkizunetarako. Elkarteen jardun osoa ulertu daiteke komunitategintza ariketa bat bezala, hasi eta amaitu. Jarduteko moduetatik hasita, jarduteko bideetatik jarraituta eta emaitzetan amaituta. Komunitategintza lantzen ibili dira elkarteak hasi eta amaitu.

5.3 Komunitatea trinkotu

Argi daukat elkarteak komunitegintzan aritu direla, komunitatea ehuntzen, egituratzen, erreproduzitzen eta txirikordatzen. Baina, elkarten helburua ez zen hori, hortik harago zihoan. Elkarten helburua euskaldunon komunitatea trinkotzea zen (eta da, apur bat aldatu badute ere definizioa³¹⁶). Hortaz, elkarteek euskaldunon komunitatea trinkotu dute? Bai? Ez?

Galdera horiek artez lotzen dira ikerketa abiatu aurretik formulatu nuen bigarren hipotesiarekin. Honela zioen:

Hasiera batean, euskara elkarteek lortu zuten tokian tokiko euskaldunen komunitatea trinkotzeko lehen pausoak egitea. Baina, urteen poderioz, herririk gehienetan ahuldu edo estankatu egin dira hasierako pauso horiek.

Hasi aurretik, baina, trinkotzea zer den edo trinkotzeaz zer ulertzen den zedarritu beharko litzateke. Mila bider aipatu dute elkarteek eta ingurukoek, baina horren inguruko definizio zehatzik eta konpartiturik ez dut nik ezagutzen. Kontzeptua, hortaz, lausoa da, bakoitzak bere modura ulertzen du eta horrek errealitate antzekoen aurrean sekulako erantzun ezberdinak egotea dakar, nire ustez. Inork ez du trinkotzea zer den zehatz-mehatz zedarritzeko lanik hartu eta, horrela, hainbat itauni erantzutea zaildu da.

Erantzun lauso batzuk egon dira han eta hemen: euskaldunen arteko hartu-emanak biderkatzea (eta euskaraz izatea), ezagutzen ez ziren euskaldunen arteko hartu-emanak sustatzea, euskara zentroan jartzea eta ezberdintzen gaituenari jaramon gutxiago egitea, eta abar. Baina ez da definizio zehatzik adostu, ez da trinkotze hori neurtzeko modurik asmatu, ez da trinkotzea bultzatzeko ekimen espezifikorik egin (lausoak bai, baina hedabide baten bidez trinkotzen al da komunitatea? Edo aisialdia euskaldunduz?). Eta, horrela, oso-oso zaila da elkarten helburu nagusia bete den edo ez jakitea.

Dena den, trinkotzea definitu aurretik, agian komeni litzateke komunitatea bera definitzea edo, hobeto esanda, komunitatea zer definizioaren arabera ulertzen dugun esatea. Izan ere, soziologian komunitateari buruz mila eta ehun definizio daude, bakoitzak bere betaurrekoekin ikusten duelako komunitatea. Hizkuntza

³¹⁶ Komunitate osasuntsua egituratzea aipatu zuten helburu gisa euskara elkarteek Oinarrigarren kongresuaren ostean (Topagunea, 2011).

komunitatea nortzuek osatzen dute? Nortzuek ez? Zer interes, balio, ohitura, mundu ikuskera eta abar partekatzen dugu euskaldunok, partekatzen badugu? Benetan osatzen al dugu hizkuntza komunitatea? Ala bestelako kontu batzuek batzen (eta banatzen) gaituzte gehiago hizkuntzak baino? Uste dut galdera horiek ere erantzun beharko genituzkeela elkarteek euskaldunon komunitatea trinkotu duten ala ez jakiteko.

Baina, tira, galdera horiei erantzun barik, ondorio batzuk atera daitezke, apalak eta kakotx artean hartu beharrekoak badira ere. Badirudi, hasiera batean, euskara elkarteek lortu zutela artikulazio maila polita, lortu zutela zelanbait komunitatea trinkotzeko lehen pausoak ematea. Hala ere, urteen poderioz, egunerokoan kemen hori ahuldu egin dela dirudi, estankatu egin dela dirudi, ez dela izan trinkotzea uste bezain sendoa. Trinkotze maila bat lortu da bai, baina eragin mugatukoa izan da trinkotze hori.

Honi lotuta, kontraesan moduko batekin egin dut topo ikerketan zehar. Behin baino gehiagotan aipatu dute elkarteek eta elkarteetako kideek erdaldunekin lan gutxi egin dutela, erdaldunei ez dietela egin behar beste jaramon. Ahalegin gutxi egin dituztela gauza jakina da, baina elkarteek helbururik nagusia euskaldunon komunitatea trinkotzea bazen, zentzu batean erabat logikoa dirudi erdaldunekin ahalegin gutxi egitea. Osterantzean, ahalegin horiek egin izan balituzte, zelan ezkonduko litzateke jardunbide hori euskaldunon komunitatea trinkotzearekin?

5.4 Ekarpn teoriko bat praktikan

Azterketari ekin aurretik formulatu nuen hirugarren hipotesiak honela zioen:

Euskara elkarteak izan dira ekarpn teoriko bat praktikan jartzeko ahalegina, baina, gerora, jarduteko modu nagusia izan da beste elkarteek eginen zutena kopia eta, zelanbait, moldatu.

Esan daiteke euskara elkarteak, modu batera edo bestera, ekarpn teoriko bat praktikan jartzeko ahaleginak izan direla, hasiera batean behinik behin. Jose Maria Sanchez Carrion “Txepetx” da ekarpn teoriko hori ondu zuena, “Un futuro para nuestro pasado” liburuaren bidez, batez ere. Liburu horren ekarpnak aztertzeko *Adorez eta Atseginez* mintegia eratu zen eta benetako mintegia, benetako hazitegia izan zen eta, horren ondorioz, hainbat herritan jarri ziren martxan euskara elkarteak osatzeko prozesuak, han eta hemen, goko hamarkadaren hasieran.

Baina, gero, egia da errealitatearen tatamian zailtasunak izan dituztela elkarteek ekarpen teoriko hori bere purutasunean aplikatzeko, zaila baita ekarpen teoriko bat bere horretan errealitatearen mila eta bat ñabardura eta xehetasunera ekartzea. Hala ere, aipatu behar da elkarteek bere jardunarekin ekarpen teoriko horren hainbat puntu erreal bihurtu dituztela eta, gainera, jardun horren poderioz, lortu dutela zelanbait euskara elkarteen inguruko teorizazio (praktikoa) egitea.

Atalez atal aztertuta, lehendabizi aipatuko nuke elkarteen bizitzan euskaldun osoek izan duten eragina. Euskaldun osoak izan dira euskara elkarteen mugimenduaren gidari, aktore eta eragile. Seguruenik, euskararen biziberritzearen mugimenduan lehendabiziko aldia izan zen elkarteekin hori gertatzen zena, behintzat horren sendo eta arrakala barik. Herririk herri elkarteak sortu, eratu, bizi eta garatu dituztenak euskaldun osoak izan dira.

Bigarrenik, autoantolaketa aipatuko nuke (elkarteen mugimenduaren hiztegiaren autoeratzeko kontzeptua erabili da honi lotua). Txepetxek euskaldunei dei egiten zien bere teorizazioan erantzukizuna bere gain hartzera. Hau da, euskaldunak izan behar zirela, euskaldun osoak, bere askapen prozesuko protagonista, protagonista bakar eta nagusi. Erantzukizun hori artikulatzea izan da, nire ustez, elkarteek egindako ekarpenik nabarmenetako bat.

Hirugarrenik, aipatuko nuke erantzukizuna artikulatu nahi izan zuten euskaldun oso horiek izateko nahiak bultzatuta elkartu zirela. Izateko nahiak eta ez ordura arte horren ohikoa zen atxikimendu ideologikoak. Elkarteak euren denbora-lerroetan, euren bizitza-proiektuetan, saiatu dira politikoki ez lerratzen, ahalegindu dira alderdikieretan ez erortzen. Anitzak izateko bokazioa izan dute, hasi eta amaitu. Elkartearen kromosometan atxikirik izan da lotura bakoak izatea, libre izatea, euskal herriak zeharkatzen zituzten gatazketatik salbuetsiz euskara³¹⁷.

Horri lotuta eta laugarrenik, elkarteek bilatu dute (aurkitu duten beste kontu bat da) elkarlanean aritzea. Elkarlanean aritzea herriko elkarte, denda eta tabernek, administrazioarekin (tokikoekin batez ere, nahiz eta Topaguneak beste administrazio batzuekin ere aritu) eta euskalgintzarekin. Horretarako, ahalegindu dira elkarteak proposamen eraikitzaileak egiten, ahalegindu dira helburu mailakatuak bilatzen. Eta ez hori bakarrik: jardunbide horretan, modu batera edo bestera, bilatu dute osagarritasuna. Beste berba batzuekin esanda, bilatu dute elkarlan ho-

317 Zentzu horretan, adierazgarria da elkarteek askotan erabili duten perpaus hau: "Batzen gaituena banatzen gaituena baino gehiago delako".

rretan elkarteek funtzio batzuk betetzen eta besteek beste funtzio batzuk. Ahalgin horretan, batez ere, nabarmendu behar da administrazioekin bilatu duten osagarritasuna.

Aurretik aipatu dut elkarteak sortu zirela ekarpen teoriko bat praktikan ezartzeko. Eta hala izan zen, batez ere sorreran. Geroago sortuko diren euskara elkarte askotan humus filosofikoa kopiatu eta moldatu beharrean, badirudi beste elkarteek egiten zutena kopiatu dutela, askotan atzetik zetorren filosofiari kasu larregirik egin barik. Horrek ekarri du, batetik, ekintzak kopiatzea (eta ez ekintza horiek gidatzen zituzten printzipioak edo gogoetak) eta, bestetik, ekintza, praktika edo diskurtso berriak sortzeko zailtasuna.

5.5 Performatibo jokatu dute

Formulatu nuen laugarren hipotesiak honela xedatzen zuen:

Bizi-eredu aurreratzailerak praktikatu dituzte hasieratik elkarteek, hau da, hasieratik bizi izan dute euskaraz elkarteek eta elkarteetako kideek. Beste berba batzuekin esanda, performatibo jokatu dute.

Elkarteek performatu dute, hau da, predikatzen dutenaren praktika koherentearen gainean eraiki dira, batez ere, euskarari eta erabilerari emandako garrantzi teoriko zein praktikoan. Eta horrek egin ditu, nire ustez, sinesgarri eta, hein batean, erakargarri.

Euskara elkartearen funtzionamenduan bizi-eredu aurreratzailerak martxan jartzeko ahalegina egon da hasieratik. Heinean, eredu izan dira. Eta, horri lotuta, euskara elkartearen barne eta kanpo funtzionamendua ia erabat euskaraz izan da, denik eta herririk erdaldunenetan ere. Euskaraz egin dituzte batzarrak, euskaraz idatzi dituzte aktak, euskaraz agerraldiak eta, gainera, elkarteek behar izan dituzten kontuetarako (azpiegiturezkoak, banku edo telefonia zerbitzuak, eta abar) euskaraz kontuan hartzen duten eragile eta enprekin aritu izan dira, kasu askotan proaktibo. Kanpora begira ere, ia dena euskaraz egin dute elkarteek, kartelak, blogak, sare sozialak, idatziak, aldizkariak eta abar. Egia da, tarteka, erdarak ere erabili dituztela (batez ere, ume eta gazteen ekitaldietan, gurasoei begira), baina nahiko anekdotikoak izan dira praktika horiek.

Hala ere, hipotesia formulatu nuenean ez nuen aurreikusten euskara elkarteek beste hainbat modutara ere jokatu dutela performatibo, beste hainbat modutara ere praktikatu dituzte bizi-eredu aurreratzaileak, eta ez bakarrik euskararen erabilerari eta sustapenari begira. Zentzu horretan, badirudi mugimendu sozialen eta ekintza kolektiboaren barruko alternatibak eraikitze bide horretan kokatu daitezkeela euskara elkarten hainbat jardunbide eta egiteko modu (edo jokabide).

Lehenik eta behin, euskara elkarteak izan dira enpresa-kulturaren hainbat osagai militantziara, mugimendu sozialetara, ekarri duten lehenak (euskal herrietan, behinik behin). Lehenak diodanean ez nabil aitzindaritzaz bakarrik. Baliteke euren aurretik beste elkarte edo mugimendurik horrelakoak lantzea, baina argi dago, modu sistematikoan, euskara elkarteak izan zirela lehenak enpresa-kulturako hainbat osagai eguneroko militantziara ekartzen. Euskara elkarteek bilatu dute eraginkortasuna, bilatu dute “militantzia zientifikoa” zelanbait. Eta, horretarako, plangintzen inguruko hainbat osagai bere egin dituzte hasieratik bertatik: helburu mailakatuak, arduradunak, epeak, adierazleak, ebaluazioak, indarguneak eta ahulguneak, marketin teknikak eta abar. Gainera, hori guztia modu sistematikoan egin dute eta, esan daiteke, gaur egun askoz ohikoagoa dela mugimendu sozialek plangintzak egitea, helburu mailakatuak ezartzea, kronogramak eta kudeaketa-oriak betetzea, eta modu batera edo bestera, praktika horiek euskara elkarteek ezagutarazi dituzte gurean, behinik behin.

Gainera, euskara elkarteek egitura profesionala eta militantzia uztartu dute. Baieztapen borobil honek ñabardurak behar ditu. Izan ere, elkarte gehienetan ez da egon egitura profesionalik (kasu askotan ez da egon langilerik eta beste batzuetan, langilerik egon arren, ordu gutxitako dedikazioarekin eta bat edo bi gehienez, egitura deitzeko gehiegi). Eta, horrez gain, azken urteotan gertatzen ari da egitura profesional sendoa duten elkarte batzuetan militantzia hustu egin dela (edo zuzenean desagertu). Baina, tira, elkarterik handienek egitura profesionala eta militantzia uztartu dute, modu batera edo bestera. Horrek orekak eta gatazkak ekarri ditu, modu dialektiko batean, elkarri eragiten eta elkarri indarka. Eta tirabirak, liskarrak eta ezinikusiak ere ekarri ditu behin baino gehiagotan.

Militantzia eraginkorrago bihurtze lan horretan 2011n agortze zantzu batzuk sumatu zituzten elkarteek. Seguruenera, mutur horretara gehiegi hurbiltzearen ondorioz, bazterregi utzi ziren mugimendu sozialen ezaugarri batzuk. 2011tik hasita, euskara elkarteak ahalegindu dira ezaugarri horiek bereganatzen. Eta, horretarako, aktibazioa eta ahalduntzea ekarri dute hizpidera eta langaietara, pentsamendua eta jakintzari garrantzi handiagoa eman diote. Hala ere, kasu honetan,

badirudi elkarteei kostatzen ari zaiela hitzetatik ekintzetara pasatzea. Ahaleginak ahalegin, oraindik mugimendu sozialen egiteko moduetara³¹⁸ hurreratzeko bidea geratzen zaiela iruditzen zait niri. Iruditzen zait, era berean, elkarteek modu batera edo bestera horizontaltasun gehiagoren bila jo behar dutela.

Bigarrenik, badirudi euskara elkarteek ez dietela larregi begiratu euren buruei. Hortaz, badirudi indar gehienak jarri dituztela jendartea eraldatzen eta ez horrenbeste euren buruak jagoten. Barne dinamikari garrantzi gutxi eman diote elkarteek, salbuespenak salbuespen, eta indarrak kanpo begiradan eta proiektzioan jarri dituzte batez ere. Horri lotuta, badirudi elkarteak ez direla protagonismoaren bila joan. Kasu askotan, sukalde-lana gailendu da. Era berean, tokikotasunak ere elkarteak bigarren plano batean kokatu ditu eta zaila izan da batzuetan nazio mailako proiektzioa bistaratzea. Baina, toki mailan ere, salbuespenak salbuespen, elkarteek gehiago bilatu duten euren helburuak betetzea eta ez horrenbeste paparra ateratzea.

Horrek guztiak, nire ustez, estilo berri bat ekarri du euskalgintzara, estilo berria ekarri du euskararen aldeko mugimendu sozialera. Eta, gainera, urteekin estilo hori gailendu da, nagusi bihurtu da, ez erabat, baina bai nabarmen nagusi. Lehengo estiloarekin alderatuta, honek gehiago bilatzen du elkarlana, bilatzen du eraginkortasuna, bilatzen ditu erantzunak azterketa eta analisi soziolinguistikoetan, bilatzen ditu erantzunak ere beste mugimendu sozialetako ekinbideetan, performatibitatea praktikatzen du, eta abar.

5.6 Berrikuntza soziala

Azterketarekin hasi aurretik, formulatu nuen bosgarren hipotesiak honela ekarri nuen lerrootara:

Elkarteak berritzaileak izan dira; hasieratik, berrikuntza sozialak egin dituzte eta, gainera, modu batera edo bestera, ahalegindu dira berrikuntza horiek herri batetik bestera garraiatzen.

Esan dudan bezala, estilo berria ekarri zuten elkarteek euskararen aldeko mugimendu sozialera. Baina euskara elkarteek ere edan zuten euskararen aldeko mugimendu sozialetik eta, beraz, mugimendu horren beste ezaugarri batzuk ere bere-

318 Arlo kontzeptualean egiteko modu horiei buruz eta abarri buruz luze eta zabal aritu naiz.

ganatu zituzten elkarteek, hain artean berrikuntza sozialak egitearena. Euskararen aldeko mugimendu sozialaren ezaugarrietako bat izan da beti berritzea, jendartea aldatzeko bide horretan esperimentatzea eta bide berriak saiatzea, sormena eta alternatibak eraikitzea ipar. Eta euskara elkarteak, kasu honetan, ez dira inondik ere salbuespena izan: berrikuntza sozial askotxo ekarri dute eguneroko praktikara.

Lehen berrikuntza nagusia tokiko hedabideekin ezarri zuten euskara elkarteek. Berrikuntza nabarmena zekarten hedabide hauek: batetik, tokikoak izatea, horrek dakarrenarekin. Hau da, gertutasuna, komunitatea txirikordatzeko aukera eta abar; bestetik, masiboak izateko hautuarekin. Hedabide hauen funtsa (salbuespenak salbuespen mantendu dena denboran zehar) zen euskaldun bat zegoen etxe guztietara heltzea. Masiboak izateko hautu horri loturik, hedabideak doakoak izatea izan zen erabaki nagusienetako bat. Baina, bigarrena eta agian apur bat oharkabean pasatu dena, izan zen hedabide hauek ez zirela militanteei edo euskaltzaleei zuzendutako hedabideak. Euskaldun guztiengana heltzeko bokazioa zuten eta bokazio hori praktikara eramaten ahalegindu ziren (eta dira). Horretarako, hautu politikorik gabeko hedabideak izan dira hauek (eduki pluralak landu dituzte, orekak oreka) eta herritarren gertuko gaiak landu dituzte (eta, hein batean, herritarren gertuko hizkeran landu ere landu dituzte). Gainera, horren ondorioz, lortu dute ia euskarazko beste ezein hedabidek lortu ez duena: produktua, hein batean gutxienez, erdaldunentzako ere erakargarria izatea (argazkiak begiratzeko baino ez bada). Hirugarrenik, hedabideek jende asko jarri dute euskaraz irakurtzen eta jende asko euskaraz idazten (eta denda, taberna eta enpresa asko euskaraz publizitatea egiten). Hedabideen inguruan egindako azterketetan ondorioztatzen da etxe askotan sartzen den euskarazko hedabide bakarra tokiko hedabidea dela (eta inkesta gehienetan eurak dira lider euren lurralde eremuan). Gainera, azken urteotan hedabide batzuek komunitatea lantzeko hautua egin dute, batez ere sareetan. Emaitzak emaitza, tokiko hedabideez aparte, gutxi dira esparru hau landu dutenak. Laugarrenik, hedabide hauek beti ibili dira berrikuntzei adi. Adibidez, hasiera batean eurak izan ziren autoedizioarekin euskal herrietan argitaratu ziren lehenak. Interneterako saltoa eman zuen lehen hedabidea ere tokiko hedabide bat izan zen (Bortziriak eta Baztan aldeko *Ttipi ttapa* hain zuzen ere), eta euskarazko lehen blog kolektiboaren atzean ere (sustatu.com) euskara elkarteek sortutako *Goiena* hedabidea bazebilen (beste batzuekin batera). Beste adibide bat litzateke *Ttap* hedabidea (euskal herrietan gailu mugikorretarako egindako lehen aldizkari digital multimedia). Horren sorreran ere hainbat tokiko hedabidek hartu dute parte (*Anboto*, *Baleike*, *Goiena* eta *Tokikom*). Bosgarrenik eta azkenik, tokiko hedabide hauek hasieratik tokiko maila transzenditzeko bokazioa izan dute. Hori dela eta, hedabide batzuek eskualderako saltoa egin zuten (adibidez, Uribe Kostan UK

edo gaur egun *Hiruka*, Durangaldean *Anboto*, Debagoienan *Goiena* edo Tolosaldean *Ataria*). Eta hor daude elkarrekin lan egiteko ahaleginak (haietako batzuk porrot egindakoak *Gune press* publizitate agentzia edo *Asteon* telebista-astekaria, kasu), batez ere, azken urteotan Tokikom-en bidez artikulatu direnak.

Bigarren berrikuntza nagusia hitzarmenak izan ziren, hitzarmengintza gurago bada. Elkarrekin “asmatu” zuten metodologia hau herrietako dendak, elkarteak eta tabernak euskalduntzeko. Konpromisoan oinarritutako metodologia sistematikoa jarri zuten martxan hainbat euskara elkarteek: erakunde batek konpromiso batzuk hartzen zituzten eta euskara elkarteek horri jarraipena egiten zieten (aholkuak emateaz gain). Metodologia hau, gainera, hainbat udalek ere besarkatu zuten eta euren plangintzetan aplikatzen hasi ere. Eta ez hori bakarrik. Azken finean, euskal herrietan lan arloa euskalduntzeko plangintzak metodologia honen garapena baino ez dira. Erabilera plan horien atzean dagoen metodologia (garapen itzela eduki duena azken 20 urteotan) konpromisoan oinarritzen da eta, nire ustez, hitzarmengintzatik edaten du nabarmen. Azken finean, hitzarmenetan esperimintatutakoa erakunde handiago eta konplexuetara eraman egin zuten lan arloa euskalduntzen hasi ziren horiek.

Hirugarren berrikuntza nagusia Kafe Antzokia izan zen. Bilbon eduki zuen epizentroa berrikuntza honek, baina gero erreplikak beste hainbat herritara hedatu dira: Durango, Elgeta, Ondarroa, Derio eta Gasteiz, besteak beste. Kafe Antzokiak, izan ere, berrikuntza nabarmenak ekarri zituen. Batetik, euskararen ardatz-tutako proiektua izan arren, beste hizkuntzei ere irekia zen proiektua. Gainera, ordura arte ez bezala, euskararen ardatz-tutako proiektu batean ez zen ohikoa koka-pena non eta Bilboko erdigunean izatea, ez zen ohikoa aldarrikapenez betetako kartelik ez egotea, ez zen ohikoa txukuntasuna, garbitasuna eta abar. Bestetik, ostalaritza zerbitzua egon arren, zentroa ez zen ostalaritza, zentroa kultur eskaintza zen (berezi, musika emanaldien kultur eskaintza). Eta hori ere berritasuna zen: euskaldunak eroso egongo diren taberna bat izateaz gain, Kafe Antzokiak kultur emanaldien zentro garrantzitsu bihurtu dira (esate baterako, urteetan Bilbon egon den kontzertu-aretorik garrantzitsuena Kafe Antzokia izan da).

Laugarren berrikuntza mintzapraktika programak izan dira. Euskara elkarte batek hartu zuen tandem metodologia³¹⁹ eta gurea egokitu eta moldatu zuen. Bagera euskara elkarteak urratutako bidera hainbat euskara elkarte batu ziren

319 Tandem metodologia da hizkuntzak ikasteko metodologia, non bi pertsonak hartzen duten parte eta kide bakoitzak besteari hizkuntza bat irakasten dio eguneroko elkarrekin bidez. Tandem metodologiari buruzko informazio gehiagora jo Canga, 2012. Euskal Herrira Jürgen Wolff-ek ekarri zuen, berak 1994an Tandem fundazioa sortu baitzuen Donostian.

(baita beste eragile batzuk ere, seguruenik nagusiena AEK) eta mintzapraktika programak hedatu zituzten euskal herrietan. Horrez gain, hasierako metodologia ere garatu zuten eta elkar ezagutzeko ekintza osagarriari sekulako garrantzia aitortu zieten. Izan ere, metodologia honek balio izan du euskara ikasten ari ziren batzuei edo euskara kamustuta zuten batzuei ikaskuntza horretan bultzada emateko eta, hein batean, euskaldunon komunitatera proiektatzeko. Eguneroko sozializazioan pertsona askori eman zaie aukera euskarazko harreman informalak eratzeko, eman zaie aukera hizkuntza ohitura berri batzuk eratzeko.

Bosgarren berrikuntza aktibazio programak izan dira. Iturri askotatik edan zuten Donostiako Egia auzoko eragileek lehen programa martxan jartzeko: feminismotik eta ahalduntze/boteretze kontzeptutik, Lutxo Egiak Bilbon egindako performancetik, hizkuntza ohiturak aldatzeko egin diren ikerketatik (Aldahitz ikerketa-ildotik bereziki), Kataluniatik inportatutako TELP tailerretatik, ... Baina, berriro ere, osagai horiek kokteleran sartu eta egitasmo berria “asmatu” zuten donostiarrek. Gerora, garapena izan zuen eta Lasarte-Oriako Ttakun elkarteak gehitu zien bi figura programa hauei: Ahobizi eta Belarriprest figurak, hain zuzen ere. Eta, azkenik, Topaguneak eta Eusko Jaurlaritzak programak hartu, eta Euskaraldia izeneko markapean euskal herrietara hedatu zituzten. Eta, seguruenara, urte batzuk barru, mundu osoko biziberritze-ikertzaileek eta biziberritze-ekintzaileek aztertuko dute eta ahaleginduko dira programa hauek euren herrietara zabaltzen³²⁰.

Orain arte aipatu dudan bezala, berrikuntza guztiak esperimentatu dira herri batean edo bestean eta gero ahalegina egin da esperimentu horiek beste herri batzuetara hedatzeko. Bide informalak egon dira kasu guztietan, elkarrekin ki-deen arteko komunikazioen bidez. Baina, bide informalez gain, bide formalagoak ere izan dira edo, hobeto esanda, antolatu dira. Batetik, aipatuko nuke Topaguneko sustatzaileek egindako trankzio-lana. Hau da, herririk herri ibili dira behin baino gehiagotan proiektu arrakastatsuen berri ematen. Eta, bestetik, aipatuko nuke berriazko ahalegina egin dela horiek hedatzeko. Adibidez, hitzarmengintza, mintzapraktika eta aktibazio programei buruzko esku-liburuak argitaratu ditu Topaguneak berak (programa horiek dinamizatzen dituzten elkarrekin ki-deekin batera). Hedabideen kasuan ere, asko izan dira antolatutako jardunaldi eta topaketak. Hortaz, zeharkakoa izan da berrikuntza sozial hauek esperimentatu ostean, hedatzeko eta zabaltzeko egin den lana.

320 Lehen “kopiatzea” gertatu da dagoeneko. Galiziako ikastetxe batean Nel Vidal irakasleak martxan jarri du 2019an honi lotutako lehen programa: *Hoxe falo galego*. Horren inguruko informazio gehiagorako, ikusi Irureta, 2019.

5.7 Erresonantzia jendartean

Seigarren hipotesia honela ekarri nuen azterketari ekin baino lehenago:

Euskara elkarteek lortu dute jendartean eragitea, batez ere, maila diskurtsiboan. Izan ere, euskararen erabilerarekiko kezka jendarteratzea lortu dute. Dena den, balio aldaketa eta portera aldaketa txikiak ekarri ditu horrek.

Elkarteek jendartean erresonantzia izan dute, oihartzuna izan dute. Hipotesian esaten nuen bezala, oihartzun hori, batez ere, maila diskurtsiboan islatu da. Euskara elkarteak izan ziren erdigunean erabilera (edo praktikak) jarri zuten lehenak. Beraz, elkarteak izan dira gaur egun nagusi den erabileraren diskurtsoa lehen planora ekarri zutenak. Elkarteek eguneroko hizkuntza interakzioei sekulako garrantzia aitortu diete hasiera-hasieratik eta, gaur egun ere, horretan dihardute.

Gaur egun, erabileraren garrantzia besarkatzen dute bai euskararen aldeko mugimendu sozialak zein administrazioak³²¹. Horixe da lelo nagusia: erabili. Eta diskurtso horren hedapenean eta finkapenean itzelezko eragina izan dute elkarteek (eta elkarteen jardunak).

Dena den, elkarteen jardunak oihartzuna lortu arren jendartean, badirudi oihartzun hori txikia izan dela eta ez duela lortu portaera aldaketa sakonak eragitea. Kontuan hartu behar da elkarteak orokorrean oso tokikoak izan direla. Eta horrek eragotzi du, hein batean, eskalatzea, horrek eragotzi du toki mailatik kanpora elkarteen proiektzioa. Beraz, seguruenik horrexegatik, elkarteen eragina mugatua izan da.

Hala ere, badirudi azken urteotan hizkuntza ohiturak aldatzeko martxan jarri dituzten programek (erabilera-programak deitu ditudan nik ikerketan zehar) lortu dutela oihartzun handiagoa jendartean. Goizegi da, agian, programa horien eraginaren luze-zabala aztertzeko eta ondorioztatzeko, baina bide eraginkorragoa izan daitekeela ematen du.

Bestelako erresonantzia batzuk hedatu dituzte elkarteek. Alde batetik, autoeraketa eredu zorrotza jarri dute martxan 100 bat herri, auzo edo eskualdetan. Eta, aurretik aipatu dudan bezala, militantzia egiteko modu bat esportatu dute han eta hemen.

321 Asier Larrinagak honela dakar: "Denborarekin, gainera, normalizazio-eragile batzuen zein besteen ahaleginek emaitzak izan ahala, helburuak egokitu, edo berriak ezarri behar izan dira. Hala, euskararen ezagutza zabaltzeari utzi barik ere, azken urteetako normalizazio-plangintzetan, ardurarik handiena euskararen erabilera suspertzea da" (Larrinaga, 2019: 11).

Hala ere, gehiago interesatzen zait euskara elkarteetan uberan sortutako beste esperientzia eta ekimen batzuk, euskararen biziberritzearekin zerikusi zuzena duten esperientzia eta ekimen batzuk, hain zuzen ere. Elkarteen uberan edo elkar-teek eratutako humusetik hainbat inizatiba sortu eta loratu dira. Lehen ere esan dudan bezala, lan arloa euskalduntzeko plangintzen oinarrian euskara elkarteetan metodologia dago, baina, seguruenik, horrez gain, enpresak eta entitateak euskalduntzen ari diren aholkularitza horietako batzuk ezingo ziren ulertu euskara elkarteetan mugimenduaren ekarpenak aintzat hartu gabe. Haien metodoez ez ezik, haien filosofiaz ere elikatu dira aholkularitza horietako batzuk behinik behin. Bestelako ekimen batzuk ere loratu dira elkarteetan ertzetan (aipatuko nuke, datu larregirik izan barik, interneten euskarak duen osasun onaren zati bat elkarteetan lanari dagokiola, zeharka bada ere).

Erresonantzia batzuk izan diren arren, ekimen edo jardunbide batzuk euskara elkarteetan praktikan oinarritu arren, gutxitxo izan dira mugimenduak herririk herri izan duen hedadurarako. Seguruenik, berriro ere honek zerikusia du zerikusia elkarteetan tokikotasunarekin. Eta horrek eragin du, hein batean behintzat, elkarteetan ertzetan proiektu, proposamen eta esperientzia gehiago ez ernaltzea.

5.8 Azken ondorioa: amets guztiak ez dira bete, baina ...

Azterketaren muinean murgildu aurretik formulatu nuen zazpigarren eta azken hipotesiak honela zioen:

Eraitza sustantiboek (toki komunikabideek, aisialdi elkar-teek, mintzapraktika programek, ...) euskaraz bizitzeko hautua elikatzen balio izan dute, baina egindako ahaleginak ez ditu bete elkarteetan inguruan ibilitakoek zituzten aurreikuspenak.

Euskara elkar-teak sortu zituztenek zituzten amets guztiak ez dira bete. Ez dute lortu, gainera, elkar-teek aldaketa esanguratsuegirik, ez dute lortu euskaldunon komunitatea inflexio puntura eramatea. Gainera, garapen osoa³²² izan duten elkar-teak gutxi izan dira. Hala ere ...

322 Garapen osotzat hartzen dut hainbat funtziotan eragitera heltzea: hedabideetan, aisialdian, helduen aisialdian, kultura gintzan, mintzapraktikan, hitzarmengintzan, espazioak irabaztean eta abarretan.

Hasieran elkarteek ilusioa ekarri zuten, freskotasuna, aire berri bat eman zioten euskalgintzari, aire berria euskararen aldeko mugimenduari. Baina gero, urteen poderioz, ezaugarri horiek kamusten joan dira, egonkortu dira elkarteak eta galdu dute hasierako inozentzia eta bulkada, galdu dute inpaktatzeko indarra. Hala ere, egia da elkarteek estilo berria ekarri zutela euskalgintzara (eta, gaur egun, modu batera edo bestera, nagusi dela estilo hori).

Dena den, moteldu dezadan apur bat jarduna. Izan ere, hipotesian aipatzen dira emaitza sustantiboak eta horiek, modu batera edo bestera, ekarri beharko nituzke ondorioetara. Are gehiago, kontuan hartuta elkarten praxis nagusia horren inguruan edo abaroen gertatu dela.

Izan ere, elkarten praktika funtzioak berreskuratzean oinarritu da. Ordura arte, eta salbuespenak salbuespen, euskalgintzan nagusi (eta ohikoena) zen aldarrikapena, protestak egitea eta salaketak. Elkarten jardunean bigarren maila batean egon da hasieratik aldarrikapena, elkarten jardunean askoz pisu gehiago izan du funtzioak berreskuratzeke lana egiteak.

Funtzioak berreskuratzea erdigunean jartzeak funtzio informaletan aritzea ekarri die elkartei. Funtzio informal horiek dira egunerokoak, funtzio informal horietan ere jokatzeko da hein batean hizkuntza komunitate baten biziraupena (elkarten ustez, beti ere). Horretarako, elkarteek jardun dute batez ere espazioak sortzen edo espazioak irabazten, kasuan kasu.

Funtzio informal horietan zentratzeak ekarri du erdigunera erabilera. Hortaz, esan daiteke elkarten ahalegin nagusia izan dela euskarazko praktikak areagotzea hainbat eta hainbat arlotan (aisialdian, hedabideen bidez, kultur kontsumoan eta kultur sorkuntzan, euskara ikasten ari direnekin edo gutxi egiten dutenekin, eta abar).

Praktikak areagotzeko ahalegin eskerga egin badute ere, erabilera orokorrean isla gutxi izan du elkarten jardunak³²³. Gauzak horrela, nire ustez, elkarteek gehiago galdetu beharko liekete euren buruei egiten dituzten ekintzekin erabileran zer eragin izan dezaketean. Izan ere, erabileraren diskurtsoa nagusi bada ere, inork gutxik galdetzen du jardunbide batek edo ekintza batek zer-nolako eraginak izango dituen erabileran (edo, gurago bada, hizkuntza ohituren aldaketetan).

323 Badakit ezin direla harremanetan jarri euskararen erabilera orokorrari buruzko datuak (kale erabilerakoak zein inkesta soziolinguistikoak) eta euskara elkarten jarduna (edo, orokorrago hartuta, euskararen aldeko mugimendu sozial eta administrazioen jarduna). Baina egia da, ahaleginak ahalegin, erabilera estankatu edo jaitsi egin dela.

Itzul nadin azken ondorio honen ubera nagusira, baina. Zer dela eta ez dute elkarteek hasieran zituzten ametsak, asmoak eta ilusioak ase?

Nire iritziz, zerikusi nabarmena du horrek elkarteek izan dituzten arazo edo zailtasunekin. Izan ere, elkarteek hasieratik aldarrikatu dute ahots propioa, diskurtso propioa, baina, hasierako sasoietan eta orain dela gutxi arte, oso zaila izan da diskurtso propio hori eratzea eta, batez ere, hedatzea. Gatazka beteko urteetan sortu eta garatu dira elkarteak eta euren diskurtso burujabeak (burujabea, ez zelako ezkontzen abertzaletasunaren ez adar batekin ez bestearekin) oso aukera gutxi zuen jendartean benetako inpaktua izateko. Gainera, tokikotasunak eragozten zien elkartei ere maila handiagoko espazioetan eragitea.

Horri gehitu behar zaio elkarteek jakintzaren sozializazioari eman dioten garrantzi eskasa, nire ustez. Ibili dira ezagutza sortzen elkarteak, ibili dira ezagutza hori partekatzen, baina organikoegia izan da ezagutza hori, esku-liburuen bidez hedatu dituzte jakintzak batez ere. Ez dute egin lan ideologiko sakonik (ezpada Oinarriparrak eta Eraldabideak kongresuetan, baina horiek ere, nire iritziz, nahiko organikoak ere izan dira). Eta, gainera, oso berandura arte ez dute antolatu berariaz lan ideologikoa egingo zuen talderik (Topalabea izenekoa). Makulu teoriko berritua beharko lukete elkarteek, makulu teoriko-praktikoa, nondik jo eta norantza jo hobeto ebazteko, beti ere.

Kideen formazioa landu du Topaguneak eta, horretarako, hainbat eta hainbat ikastaro antolatu ditu elkarteek kideentzat. Horrez gain, urtero egiten ditu jardunaldiak Topaguneak eta urteko gai esanguratsuen (edo pil-pilean zeuden gaien) jarraipena egin daiteke jardunaldien gaiak ikusita. Hala ere, formazio hauetan guztietan elkarteetako langileak izan ditu, batez ere, jomugan Topaguneak: aukeratutako gaiengatik eta, batez ere, aukeratutako egun, ordutegi eta formatuengatik. Nire ustez, hor akatsa egin du mugimenduak. Izan ere, ekintzaileak eta aktibistak, boluntarioak eta militanteak ez ditu formatu, ez ditu hezi eta, horrela, zail samarra da kideen biziberritzea, kideen ahalduntzea eta kideen indarra eskuratzea (eta epe luzera proiektatzea).

Elkarteek, gainera, zailtasunak izan dituzte jende berria elkarteetara erakartzeko, batez ere gazteak. Begirale eta hezitzaileak elkarteratzeko ahaleginak egin badituzte ere, horrek, salbuespenak salbuespen, ez ditu eman elkarteek nahi zituzten fruituak. Horrez gain, elkarteek indar gutxiegi jarri izan dute harrobi-lana egiteko, bestelako kontu batzuek janda, ez diote behar beste garrantzirik eman ondorengoak formatu eta lortzeari. Eta ez hori bakarrik. 90eko hamarkadan as-

matutako militantzia molde batzuk ia-ia bere horretan ekarri dituzte XXI. mendera. Horrek ere arazoak ekarri dizkie elkarteei, militantziaren eredu berrietara moldatzeko eta egokitzeko izan dituzte zailtasunak elkarteek.

Horrez gain, elkarteek euskaraz bizitzeko hautua elikatu dute modu batera edo bestera, baina gehienetan zeharka eta oso gutxitan hiztunaren planora jaitzita, hiztunaren ahalduntzera jaitzita, nahiago bada. Hiztun burujabeak sortzeko ahalegin txikia egin dute elkarteek, hiztunen bizipenak, penak, traumak eta pozak ulertzeko eta, beharrezkoa bada, borrokatzeko ahalegin txikia egin dute. Eta, aktibazioa bilatu dutenean, gehienetan aktibazio kolektiboa bilatu dute eta ez indibiduala. Izateko nahia ez dute, horrela, behar beste elikatu eta horrek azaltzen du hein batean elkarteek jende berria erakartzeko izan duten zailtasuna.

Bestetik, elkarteek izan dituzte arazoak finantzazioan. Autonomia ekonomikoa aldarrikatu badute ere, benetan administrazioen diru-laguntzen menpeko aritu dira elkarteak. Eta horrek, batzuetan, mugitzeko espazioa gutxitu die elkarteei, berariaz ala zeharka. Hainbat elkarteek hitzarmenaren bidez jo dute finantzazioa osatzeko, baina beste zenbait elkarteek ez dute izan aukerarik finantzazio egonkorrago horri oratzeko. Diru urria izan dute elkarteek oro har (eta salbuespenak salbuespen) eta, horrela, zaila da ezarritako ametsak gauzatzea erabat.

Horri lotuta, elkarteek helburu izan dute udaletan eragitea, udaletako hizkuntza politiketan eta hizkuntza plangintzetan eragitea. Baina, noski, menpekotasun ekonomikoa izanda, askoz zailagoa da eragite hori, askoz mugatuagoa da eragite hori. Eta hori, jakina, batzuetan frustrazio-iturri izan da elkarteko kideentzat. Era berean, horrek ekarri du beste kontu batzuetan katramilatzea eta apur bat baztertzea eragite lan hori, mugitzeko tarte gutxiegia izan dutelako.

Hortaz, elkarteek emaitza sustantibo batzuk izan dituzte eta, horien bidez, ahaleginu dira euskararen erabilera eta euskaraz bizitzeko hautua elikatzen: aisialdiaren bidez, tokiko hedabideen bidez, mintzapraktika edo aktibazio programen bidez, eta abar. Hala ere, ez dute lortu erabileraren “lege” orokorretan eragiterik, ez dute lortu joera orokorrei bueltarik eman. Horrexegatik, hein batean, zalantzan jar daiteke ea horietan guztietan (aurretik aipatutako emaitza sustantibo horietan guztietan) egindako inbertsioak (dirutan baina, batez ere, indarrean edo esfortzuan) merezi izan duen.

Ez dirudi esfortzua eta emaitza bat datozenik. Hala ere, bada galdera bat, behin baino gehiagotan atera dena ikerketan: eta elkarteak existitu izan ez balira,

zer? Iruditzen zait oso galdera pertinentea dela, iruditzen zait hein batean arrazoia dutela galdera egiten dutenek. Elkarrekin lan asko eta askotarikoak egin dituzte eta, existituko ez balira, posible da pentsatzea gaur egungo egoera txarragoa izan zitekeela. Jakina. Baina horrek ez du estaltzen, nire ustez, elkarrekin egindako esfortzu eskergek ez dutela eman pentsa zitezkeen ondorioak. ■

6. Etorkizunari begirako proposamen praktikoak

Ikerketa-lan hau aurreko atalean amaitu nezakeen, lasai asko. Baina ez. Ikerketa aktibistaren printzipioek gidatu naute ikerketa-lanean eta horrek erantzukizuna dakarkit. Izan ere, ikertutako guztia antzeman ostean, ikertutako gaietan sakondu ostean, aurrera begirako proposamenak egin nahiko nituzke. Ni ere banaiz mugimendu honetan aktibista, ni ere banaiz mugimenduan militante eta iruditzen zait amaiera gisa aurrera begirako ekarpen batzuk egitea tokatzen zaidala.

Hasi aurretik, ohartxo bat egin gurako nuke. Hemendik aurrera botako ditudanak nire berbak dira, nik ikusi, sentitu eta plazaratutakoak. Hau da, ikertzaile batek kanpotik eta, era berean, barrutik egindako ekarpenak dira. Izan ere, saiatu naiz distantzia apur bat hartzen proposamen hauek egiterakoan.

Era berean, saiatuko naiz kategorikoa ez izaten, proposamen xumeak diren heinean. Neure proposamenak ez dira inondik ere jarraitu beharrekoak: proposamenak baino ez dira. Gainera, erraza da proposamen hauek egitea jakinda nik ez dudala modurik proposamen horiek egunerokoan txertatzeko. Beraz, hartu itzazue proposamenak kontu handiarekin, mesedez. Ez nuke nahi inor mespretxatzea, ez nuke nahi inoren lana kakaztea. Nahiko nuke, oster, proposamen ireki

eta freskoak egin, euskara elkarteen mugimenduak behar duen zaharberritzea eta hostoberritzea ganoraz eta indar handiagoz egiteko.

Gainera, iruditzen zait euskara elkarteen mugimenduak, orain arte ere, erakutsi duela nahikoa heldutasun beren baitatik proposamen hauetara (edo beste batzuetara) heltzeko. Azterketan zehar ikusi ahal izan dudanez, asko izan dira mugimenduak egindako gogoetak, asko izan dira mugimenduak bere buruari egindako kritikak, asko izan dira ekarpen teorikoak eta asko izan dira ekarpen organikoagoak³²⁴.

Hurrengo orrietako aurrera begirako proposamenak hiru arlo nagusitan banatuko ditut: norbera, taldea eta proiektua izeneko arloetan hain zuzen ere (Joxemi Zumalabe Fundazioa, 2016). Norberari buruzko arloan elkarteen barruan pertsona bakoitzak betetzen duen paperari erreferentzia egin gurako nioke, hau da, horren bidez aktibista eta boluntarioen lana aipatu gurako nuke. Taldeari buruzko arloak, berriz, elkarte osatzen duten kideek osatzen duten espazioari egiten dio erreferentzia, hau da, elkarteari berari. Proiektuak, azkenik, taldeak aurrera eraman gura duen egitasmoari kasu egiten dio, hau da, elkarteek lortu gura duten hartzigarri sozialari eta emaitza ukigarri egiten die kasu proiektuari lotutako atalak.

Dena den, ez nuke gura inork hiru eremu horiek bakartutzat hartzea. Batak bestean eragiten duela begi bistakoa da. Hiru eremu horien artean orekak bilatu eta topatu behar dira. Eta oreka bilatze hori etengabeko ariketa izan behar da. Bidaia, prozesuari garrantzia eman behar zaio zelan edo halan, baina ahaztu barik norabidea eta helmuga.

Proposamen zehatzekin hasi aurretik, baina, Yayo Herreroren berba batzuk ekarri nahiko nituzke orriotara. Izan ere, iruditzen zait berba horietan laburbiltzen direla euskara elkarteek aurrera begira aintzat hartu beharko lituzkeen gako nagusienak. “Esperientzia komunitarioetan, ekonomia sozial eta solidarioan, emakumeengan, jatorrizko herrietan, agroekologian pilatutako jakintzak, azken finean sistemaren ertzetan sortutako ezagutza konplexuak, bihurtzen ari dira eraldaketa sozialak argizatzen duten faroak” (Herrero, 2017). Hau da, ertzetako borroka eta askapen prozesuetatik ikasi behar dute elkarteek eta, ahalko balitz, haiekin batera partekatu bidearen zati bat, aurrera begira aliantzak beharko dituztelako elkarteek (ere). Antzekoa ere diote Lorea Agirre eta Idurre Eskisabelek: “Zuraren sendo-

324 Organiko berba ulertu dadila Jon Sarasuak bere *Hiztunpolisa* liburuan erabiltzen duen bezala: organo zehatzei begira egindako proposamenak, hain zuzen ere (Sarasua, 2013: 10).

tasuna eta malgutasuna uztartuko dituen komunitategintzan, hizkuntzagintzan, herrigintzan, asmatzea da, beraz, gakoa. Eta horretarako feminismoa eta haren ikuspegi intersektionala lanabes ezinbestekoak dira gure ustez” (Agirre, Eskisabel, 2019). Azken finean, esperimentatu, sortu eta ausartzera jo behar dute elkarteek ere. Eneko Gorriren berbetan adierazteko, “... sortu, asmatu, esperimentatu, menturatu” (Gorri, 2018).

6.1 Norberari dagozkionak

Norberaren arloari dagokionez, nire ustez elkarteek arreta gehiago jarri behar dute euren kideen zaintzan. Hein batean, zaindu beharko lituzkete elkarteek hizkuntzaren zaindari direnak. Horretarako, hartu-emanak izateko modu zaindua eduki beharko lukete, hau da, “... bilerak egiteko metodologia eta dinamizazio zaindua, mintzatzeko txanda orekatuak, hitz egiteko eta entzuteko modu irekia solasaldi formaletan zein informaletan, bestearen tokian jartzea eta bere baldintzapenak ulertzea, umorea eta irribarrea” (Martinez, Balda, Larrea, 2017). Horri lotuta, kontuan hartu beharko lituzkete elkarteek orain dauden militanteak (edo ekintzaileak edo boluntarioak): bakoitzaren iritzi eta gustuak kontuan hartu lanen banaketan bizipozari eta ondo pasatzeari, ahal den neurrian, garrantzia emanez. Seguruenik, elkarteek lan egin beharko lukete herri mugimenduen militantzia modu berriak ganoraz eta txukun lantzen ari den Joxemi Zumalabe Fundazioarekin (eta hark antolatzen dituen formazio eta dinamizazioa saioekin).

Ildo horretan, elkarteek bertako aktibisten interesak ez ezik, gaitasunak ere hartu beharko lituzkete aintzat. Horri loturik, bakoitzaren beharrizan bitalak eta emozioak (eta sentimenduak) ere kontuan hartuko beharko lituzkete elkarteek. Ahaztu barik nor bere burua zaintzea ere zilegi eta beharrezkoa dela. Azken finean, helburua izan beharko litzateke, Frederic Laloux-ek esaten duenaren ildotik, “... gizakien potentziala adierazteko maila gorena duten erakundeak sortzea” (Laloux, 2015).

Beste alde batetik, elkarteek parte hartzen duten kideen prestakuntza eta formazioari ere eman beharko liokete garrantzia. Formazio hori, gainera, hainbat norabidetakoa izan beharko litzateke (eta ez dauka zertan formazio “formala” izan). Izan ere, Brasilgo MSTko kideek dioten bezala, “... ezein erakundek ez du etorkizunik ez baditu bere kideak formatzen” (MST, 2002). Hortaz, nire ustez, gutxienez lau norabide nagusi hartu beharko lituzke elkarteek kideen balizko formazioak: hizkuntzen biziberritzea buruzkoa (edo soziolinguistikaren oinarri

buruzkoa), taldeen dinamizazioari buruzkoa, kudeaketari buruzkoa (helburuak eta plangintzak egokiago egikaritzeko eta abar) eta barne eta kanpo komunikazioari buruzkoa. Horretarako, bideak eta bitartekoak antolatu beharko lituzkete elkar- teek (ahal dela elkarrekin) eta gero bakoitzaren ezaugarrietara egokitu. Eta, gai- nera, kasu batzuetan orain arte egindakoa modu batera deseraiki, berreraikitzeko.

Zentzu horretan, elkarteko kide berriei ondo etorria modu formalean antola- tzeko saioak hartu beharko lituzkete bere gain elkar teek, nire ustez. Hau da, elkar- teko kide berriei harrera egiteko dokumentua eta praktika litzateke ondo etorria: elkar tea zer den, zer egiten duen, zergatik egiten duen egiten duena, zeintzuk diren helburuak, baliabideak, zeintzuk diren lan ildoak, zeintzuk arduradunak, ... Horrela, elkartetako kide berriei agurra modu formalean egingo litzaike. Era berean, ariketa bera egiteak ekar diezaieke onurarik elkar teei. Askotan jakintzat ematen diren kontu asko papereratzeak begi aurrean dagoen errealitatea beste begi batzuekin ikustea ekar baitezake.

Bazkideak ere zaindu beharko lituzkete elkar teek. Zaintza horrek, batetik, bilatu behar du bazkideak informatuak egotea; bestetik, bazkideei elkar tearen helburuak eta filosofia azaldu behar zaie, pedagogia lana egiten eta zirimiru mo- duan (blaitu arte). Horri lotuta, elkar teek euren buruei galdetu beharko liekete ea bazkideak formatu behar dituzten. Bazkideak formatzeaz ari naizenean, oina- rrizko soziolinguistika pilulez ari naiz, soziolinguistika domestikoaz³²⁵ hain zuzen ere. Hirugarrenik, proiektuaren parte senti daitezzen lana egiten jarraitu beharko lukete elkar teek. Horretarako, adibidez, elkar tean parte hartzeko bideen mapa egin dezakete elkar teko kideek: non parte hartu dezakeen bakoitzak, zertan, zer intentsitatearekin, ... Horrek, gainera, ireki lezake bazkideen parte hartzeko mo- duen erreperitorioa³²⁶. Laugarrenik eta azkenik, elkar teek barne-komunikazioa ere landu beharko lukete, bazkideekin batez ere.

325 Soziolinguistika domestikoa honela definitu daiteke: "Egunerokoan hizkuntza dela eta ez dela sortzen zaizkigun mila arazoren au- rrean konponbideak bilatzen dituen zientzia-adarra dugu (edo ez da zientzia-adarra, baina berdin zaigu). Begirada mikroa darabil, gertutik ikusteko betaurrekoak. Eta praktikoa da, erabat praktikoa. Eta, beraz, egoera bakoitzean egon daitezkeen faktoretxo guztiak aintzat hartu behar ditugula orotarazten digu" (Rodríguez, 2015).

326 Zentzu horretan, aipagarria iruditzen zait Zesar Martinez, Amaia Balda eta Imanol Larreak gidatutako aktibazio jardueri buruzko ikerketan ateratako ondorio hau: "Egitura horren baitan konpromiso eta dedikazio maila ezberdinak egon daitezke, parte hartze zirkulu ezberdinak. Zenbait esperientzian gaketat jotzen da diferentzia horiek negatiboki ez ikustea (presiorik eta kulpabilizaziorik ez sortzeko), ekarpen txikien garrantziaz jabetu eta horiek ere eskertu, ospatu eta indartzera animatzeko. Zeregin eta arduren ikuspegitik, garrantzizkoa da denbora edo epe jakin baterako bakoitza zein parte hartze espaziotan eta arduratan kokatzen den agertzea eta gainerakoen aurrean konpromiso hori hartzea, betiere libreki erabakita, baina kontuan hartuta norberak, taldeak eta prozesuak dituen beharrak" (Martinez, Balda, Larrea, 2017).

6.2 Taldeari dagozkionak

Euskara elkarteek, seguruenik, josturak askatu beharko lituzkete eta antolaketaren eredu malguetara trantsizioa egin. Ez dugu ahaztu behar elkarteak eraikuntza artifizialak direla eta, beraz, artifizialak diren heinean, egokitu, moldatu eta eraldatu daitezkeela euren helburuak eta ekintzak hobeto egin ahal izateko. Bide horretan, elkarteek antolaketaren eredu horizontalagoa³²⁷ izan beharko lukete eta, horrela, errazago askatu lirateke elkarteetako kideen sormena (eta deszentralizazioa). Izan ere, "... herritarrak aktibatzea helburua izanik, beraz, funtsezkoa da herritarrek beraiek gidaturiko ekimen auto-eratu izatea" (Martinez, Balda, Larrea, 2017). Badirudi, hortaz, behetik gorako ereduak herritarren ekimenak sendotzeko dutela arrakasta gehiago.

Ildo horretan, elkarteek parte hartzea sustatzeko barne komunikazioa hobetu beharko lukete, militanten arteko espezializazioa saihestu eta taldea hobeto funtzionatzeko formazioa hartu. Taldeek plastizitate handiagoa beharko lukete. Azken finean, egitura malguagoak sortuz egitura horiek egoera eta beharrezkoak hobeto egokitzeko parada dute.

Azken finean, eta Andoni Mujikaren berbak jarraituta, "... animaliek bezala erakundeek ere, sortu berriak direnean, berezko indarra soberan daukate. Bide bat egin eta gero, aldiz, puntxa galtzen dute maiz, eta errutina apatikoa batean sartzen dira. Lege naturala dirudi, jaioberritan saltoka eta heldutasunean mantso" (Mujika, 2018). Hortaz, erakundeak biziberritu eta hostoberritu beharko lirateke eta, gure kasuan, euskara elkarteak biziberritu beharko lirateke, horizontaltasuna eta beste bide batzuetatik. Ideia bera dakar Kike Amonarrizek: "Erakunde horiek sortu zireneko eta oraingo egoera soziolinguistikoa eta soziopolitikoa guztiz desberdinak dira, eta kasu gehienetan, aldaketak egin badituzte ere, erakunde gehienek gehiago erantzungo diote oraindik duela hiru hamarkadetako egoerei, gaur egungoari baino. Inertziaren indarra sekulakoa baita! Esan genezake erakunde horiek guztiak beren lehen bizi-ziklo luzea osatzen ari direla. Horregatik, inertziak astintzeko, egiturak birpentsatzeko eta behar diren egokitzapenak egiteko unea da, egoera soziolinguistiko berriak eskatzen dituen erronkei modu egokiagoan erantzuteko eta jauzi kuantitatiboak eta kualitiboak emateko" (Amonarriz, 2019: 96).

327 Marina Sitrin-ek horizontaltasuna horrela definitzen du: "Horizontaltasuna da hartu-eman soziala eta, bere izenak iradokitzen duen bezala, komunikatzeko azalera laua dakar. Horizontaltasunak, nahitaez, demokrazia zuzena dakar eta kontsentsuak lortzeko esfortzua, jende guztia entzuteko prozesua dakar. Horizontaltasuna hartu-emanak izateko modu berria da, politika afektiboan oinarritua, eta ismo guztien kontra ibiliko dena. Hartu-eman sozial dinamikoa da. Ez da ideologia bat edo programa politikoa ezinbestean bete behar dena ideia edo jendarte berri bat sortzeko. Apurketa bat da, hartu-emanak izateko eta antolatze modu bertikalekin, eta apurketa den heinean, irekidura ere bada" (Sitrin, 2015).

Beraz, taldea eraginkorrago egin beharko lukete elkarteek. Horretarako, narratiba komun bat eraiki beharko lukete, helburu eta balioei dagokienez. Sormenerako gaitasuna ere landu beharko lukete eta gertutasuna eta konfiantza sustatu. Horrez gain, etengabeko ebaluazioa egin beharko lukete elkarteek (barnera begira ere). Horri lotuta, elkarteek ere (modu batera edo bestera) euren burua ikertu beharko lukete. Horretarako, tresna egokia izan daiteke esperientzien sistematizazioarena³²⁸. Azken finean, tresna honek "... bilatzen du dinamikaren barrunbeetan sartzea" (Jara, 2013) eta, horrela, praktikari buruzko jakintza eta ezagutza sortu, baita partaideak ahalduntzea ere³²⁹. Era berean, "... sistematizatzean imajinazio sortzailea sendotu egiten da" (Jara, 2013). Nire ustez, beraz, praktikari galderak egin behar dizkiogu, erantzun berriak topatzeko asmoz.

Taldeek ere beste bi arazo nagusiri egin beharko liokete aurre, berandu baino lehen: finantzazioari eta langile eta militanteen arteko orekari. Izan ere, nire ustez, euskara elkarteek ez dituzte orain arte troinu bi horiek behar bezala askatu, salbuespenak salbuespen.

Finantzazioari dagokionez, diru-laguntzen menpekotasunetik askatzeko bideak jorratu beharko lituzkete elkarteek. Mari Luz Estebanek honakoa dio euskal herrietako mugimendu feministari buruz (eta, nire ustez, erabat egokitu dakiok euskara elkarten mugimenduari): "Diru-laguntza kultura batean bizi gara, eta elkarteek askoz lehenago pentsatu behar dute zer antolatu nahi duten epe ertainean. Gainera, instituzioek zehazten dute zer eta zertarako eska dezakegun finantzazioa, helburu nagusiak eta printzipio ideologiko zein kontzeptualak xedatuz, eta ez dugu ondo aztertuta zenbaterainoko eragina duen horrek mugimendu autonomoan" (Esteban, 2017: 58). Nire ustez, euskara elkarten mugimenduak ez du aztertu (ezin izan du aztertu?) diru-laguntzen kulturak zer nolako eraginak izan dituen bere jardunbidean. Hortaz, muina aztertu, ikertu, arakatu eta, horren arabera, bestelako finantzazio bide autonomoagoak bilatu beharko lituzkete elkarteek. Izan ere, horiek bilatu ezean, oso zaila baita elkarteek behin eta berriz aldarrikatu eta praktikan jarritako autonomia politikoa egikaritzea (autonomia ekonomikorik gabe zeharo zaila da benetako autonomia politikoa izatea). Izan

328 Oscar Jararen arabera, hauxe da sistematizazioa: "Hausnarketa prozesu indibidual eta kolektiboa da, egindako edo bizitako esperientzia baten gainean. Bertan gertatutakoaren inguruan ordenatutako berreraikuntza egiten du eta esperientziaren gaineko begirada kritikoa dakar. Izan ere, azken finean, helburua da ezagutza berriak sorraraztea. Esperientziak berak sortzen ditu ezagutzak, baina esperientzia bera gainditzeko. Sistematizazioak gertatutakoa berreskuratzen du, historikoki berreraikiz, baina interpretatzeko eta jakintza berriak ondorioztatzeko. Gainera, balioa ematen die esperientzien subjektu izan diren pertsoneri eta proiektu eta prozesuaren arteko tentsioak identifikatzen laguntzen du. Azkenik, esperientziak dokumentatzen laguntzen du, baita erakundeen lanerako baliagarriak izan daitezkeen material eta produktuak egiten ere" (Jara, 2013).

329 Oscar Jararen berbeekin jarraitzeko, "... sistematizazio prozesuak ezinbestez parte hartzaileak izan behar dira, bai definizioetan, bai egiteko moduetan, bai eta zertarako sistematizatzen den ere" (Jara, 2013).

ere, Mari Luz Estebanen berbei jarraituta, euskalgintzak “tutelatutako aktibismoa” (Esteban, 2018) bihurtzeko arriskua du.

Eta finantzazioari zeharo loturik, langileen afera ere aipatzea nahiko nuke. Oreka behar da, profesionalen eta ez profesionalen artean. Mari Luz Estebanek honako hau dio feminismoari erreferentzia eginez: “Soldata baten truke militatzeko prest daudenen eta ezer jaso gabe jarduten dutenen oreka deskonpentsatzen ari da” (Esteban, 2017). Esango nuke euskara elkarteetan mugimenduan berdina esan daitekeela. Izan ere, langileek eta aktibistek, sarritan, erritmo, jarduera eta aukera ezberdinak dituzte. Eta horiek orekatzera jo beharko lituzkete elkarteek.

Seguruenera, gainera, zenbait kasutan aldatu beharko litzateke elkarteko langileen rola. Batzuetan, proiektu zehatz bati lotuta egon beharko dira ezinbestean. Baina, beste kasu batzuetan, nire ustez, elkarteetako langileek lortu behar dutena da militante eta boluntarioen parte hartzea areagotzea, hauentzako makulu lanak egiten. Izan ere, kanpo bultzada hori barik, elkarteak mikroenpresa bihurtzen dira eta, horretarako, elkarte bako formula juridiko egokiagoak daude (kooperatibak, sozietateak eta abar).

Euskara elkarteak, taldeak, ere aldatu beharko luke rola. Ikerketan parte hartu duen adituetakoa batek honela dakar nik gai honen inguruan esan nahiko nukeena: “Euskara elkarteak herriko euskalgintzaren abangoardia dira/izan behar dute. Uneoro errekurtsioak (pertsonek boluntario eta profesionalak, ekonomikoak, ...) maximizatu eta adostutako lehentasunen arabera, modu planifikatuan lan egin behar dute” (D08). Beste modu batera ere antzekoa dio aditu berak: “Euskara elkarteak normalizazio prozesuan lidergo/aitzindari rola jokatu behar du herrian” (D08). Beste aditu batek ere antzekoa dio: “Herri horretan euskararen biziberri-tzearen, euskararen garapenaren estrategia pentsatu, hedatu eta barrutik kanpora zabalduko duen gunea izan” (D10) behar du euskara elkarteak.

Azkenik, aztertu beharko litzateke euskara elkarteetan (tokiko elkarteetan) eta Topagunearen arteko hartu-emanak. Orain arte nahiko harreman harmoniatsua izan dela esango nuke, baina horrek ez luke estali behar horrelakoetan beti egoten diren tentsioak eta talkatxoak. Izan ere, Topaguneak batzuetan ere egokitu beharko lituzke erritmoak tokiko elkarteetan erritmoetara. Jakina baita euskara elkarteek metabolismo propioa dutela, normalean (bere egitura eta antolatze moduengatik) Topagunearena baino motelagoa.

6.3 Proiektuari dagozkionak

Epe laburreko betaurrekoak kendu eta epe ertain eta luzeagoetara begiratzen hasi beharko lukete elkarteek. Jon Sarasuak horrela dio: “Kudeaketak irensten ditu energiak, beste alor askotan bezala, eta politikarako tartea estutu egiten da. Politikak esan nahi du arlokako ametsak produzitzea, horietara hurbiltzeko estrategia zabalak eztabaidatzea, eta hor helburu-kateak kokatzea” (Sarasua, 2013). Zentzu horretan, agian bada momentua elkarteen misioa edo helburu nagusia argitzeko, zehazteko, komunitatearen trinkotzeaz zer ulertzen duten plazaratzeko: helburu argi, zehatz eta erakargarria izateko.

Modu berean, euskara elkarteen mugimenduak berak ibilbide hezitzailea (adibidearen pedagogiaren bidetik, azken finean, eslogan gehienei praktika falta zaie-lako) egin beharko luke, bai egiteko moduetan, bai funtzionamenduan. Horrek, hein berean, ibilbide teoriko eta praktikoa ere indartuko luke, modu batera edo bestera. Desiratzen duten jendarte gaurtik bizitzen hasi, hori da hain zuzen ere, alternatibak eraiki eta eragiteko biderik eraginkorrenetako bat. Praktikak indar eraikitzaile handia du eta, modu berean, ekimen ahalduntzailea da.

Izan ere, elkarteak ohartu behar dira politikan eragin behar dutela. Politikan diodanean ez nabil alderdiei buruz, hortik harago doa politika nire ustez. Politika da, nire ustez, jendarte aldatzeko, irauarazteko edo gobernatzeko egiten den oro. Hortaz, horretan eragin behar dutela argi izan behar dute. Eragin berbak ere azalpena behar du: eragin diodanean ez nabil presioaz berbetan bakarrik, ez nabil mobilizazioez edo borroka ideologikoez bakarrik. Eragin adiera zabalean ulertu beharko litzateke, horiek guztiak bere barne hartzen dituenak (baita alternatibak eraikitzea ere). Eta ez diot nik bakarrik, ikerketan parte hartu duen aditu etako batek ere antzekoa adierazi du: “Euskararen auzia ez da soilik metodologikoa, batez ere politikoa da. Eta gu 2. horretan hankamotz gabiltza” (D03).

Eta politikan eragiteko hartu behar dira kontuan beste zientzia eta mugimendu batzuetan egiten ari den lana. Gerizatu eta aterpetu beharko litzukete hango kontzeptuak, hango borroka-moldeak eta hango egiteko moduak, euskaldunon komunitatearen eta euskal herrien ezaugarrietara egokituz, jakina. Hori egin dute euskara elkarteek orain arte eta, batez ere, feminismotik hartu dituzte mailegu teorikoak (ikus, esate baterako, Miner, 2018). Baina hori sistematizatu behar dute elkarteek eta kanpoaldean gertatzen denari adi egon behar dute eta gurera moldatu eta egokitu. Ezpal askotako egurrak beharko dituzte elkarteek aurrera begira ere. Era berean, munduko beste hainbat hizkuntza komunitate zertan ari den ere

jakin beharko lukete elkarteek eta han egiten diren praktika onak ere gureru ekarri (eta praktika ez hain onak ere aintzat hartu, akats bera ez egiteko).

Bide horretan, euskararen aldeko mugimenduak dezente begiratu dio feminismoari orain arte, esan dudan bezala. Hortaz, aintzat hartu beharko lirateke Mari Luz Estebanen berba hauek: “Politika baten arrakasta bermatzen duten ahalmen edo faktoreak? Hauek datozkit niri burura: arazo sozialen teorizazioa eta errealitatearen diagnostiko konplexuak eta txukunak egitea; testuinguru/k ondo ezagutzea eta testuinguru horietara teoriak zedarriztatzea; galdera berriak egitea; aldaketarako eta disidentziarako estrategiak bururatzea eta aurrera eramatea; he- rri-elkarteak indartzea eta gizartea astintzea; feministak ez diren emakumeekin nola aritu jakitea; ordezkari politikoeekin negoziatzen edo haiek presionatzen asmatzea ...” (Esteban, 2017). Lerrokada horretan laburbiltzen da, nire ustez, euskara elkarteek landu behar dituzten estrategiak eta aurrera begirako lanak.

Horretan guztian, nire ustez, elkarteek narratiba komunak eraiki beharko lituzkete, norabide, helburu eta balio batzuk txertatuz narratibetan. Narratiba horiek zilegitasun sozial berria bilatu beharko lukete, non jendarteak elkarten helburuak onartu eta onetsiko dituzten. Paradigma berriak eraiki beharko dituzte elkarteek, proposamen berriak edo berrituak³³⁰, behinik behin. Horretarako, modu batean jarraitu beharko dute trinkotzen komunitatea, jarraitu beharko dute trinkotzen euskaldungoa. Seguruenik, horretarako, mistika bezalako ekintzak egiten hasi beharko dituzte elkarteek. Baina zer da mistika? Mistikaren kontzeptua Brasilgo lurrik gabeko nekazarien mugimendutik mailegatzen dut. Haien ustez, “... mistika da indar emozionala, erresistentzia eta borroka izpiritua identifikatu eta sendotzen duena. Liturgia batean adierazi egiten da, berbak eta ekintzak lotuz. Eta liturgia horietan honako osagaiak daude: opariak, ospakizunak, irudiak, kantuak, ...” (Aznarez, Arjona, 2002). Horrelakoak ere indartu eta sendotu beharko lituzkete elkarteek.

Horri lotuta, elkarteak ahalegindu beharko lirateke “erotikoagoak” izaten. Erotiko baina, uler bedi Audre Lorderen adieran: “Horrela ba, nire ustez, erotikoa da emakumeen indar bitalaren afirmazioa; energia sortzaile eta sendoarena, hizkeran erreklamatzeko ari garen ezagutza eta erabilerarena, gure historia, kultura, dantza, maitasuna, lana eta bizitzena” (Lorde, 1984). Hau da, erotikoa da indar erakarga-

330 Esate baterako, euskara elkarteek erabilera izan dute ardatz, erabilera izan dute aurrera egiteko motorra. Baina, agian, bada momentua erabileratik aldentzeko eta, horren ordez, hizkuntza ohituren aldaketa besarkatzeko. Nire ustez, bigarren narratiba horrek interpelazioa dakar, bigarren narratiba horrek helburu zehatzagoak ezartzeko aukera ematen du, bigarren narratiba horrek hiztuna erdirago jartzen du eta abar. Baina, tira, hau adibide bat baino ez da.

rria izatea, atzokoa, gaurko eta biharkoa lotuko duen hari mehe eta sendoeekin erakargarri izatea. Ilusioa, alaitasuna eta indarra, giro erakargarria lortzeko, hain zuzen ere. Hori guztia, desira ereiteko, euskaraz bizitzaren aldeko desira jendarteratzeko, euskaldun kontziente eta koherente izateko desira han eta hemen zabaltzeko.

Izan ere, elkarteek duten arazo nagusienetakoak lekuko aldaketarekin du zerikusia. “Euskaltzaleen elkarteetan oso gazte gutxi daude eta esan genezake belaunaldien arteko lekuko-aldaketa ez dagoela bermatuta, nahiz eta horretan Bertsozale Elkarteak salbuespena izan” (Esteban, 2019). Eta horri aurre egiteko, mugimenduak erotikoagoa izan beharko luke, nire ustez. Dena den, bide horretan, Eneko Gorriek esaten dituenak ere hartu beharko lituzkete aintzat: “Aitzineko belaunaldiek sortu dituzten tresnak kudeatzera ez dira mugatu behar gaurko ekin-tzaileak. Sortu, asmatu, esperimentatu, menturatu. Lagun batek dioen moduan, ‘indio gehiago eta jefe gutxiago’ behar ditu gure herriak; ‘kudeatzaile gutxiago eta sortzaile gehiago’ gehituko nuke. Ez gaitezen erreproduktzio mugatu, ez eta aldaketaño kosmetikoekin konformatu. Utz diezaiozun gazteriarri espresio modu urratzaile berriak bilatzen. Jendea asaldatu, inarrosi eta kontzientziatuko dituen gertakaria. Aitzinekoek transmititu dieguna izorratzeko eta porrot egiteko esku-bide osoa dutela onar dezagun” (Gorri, 2018).

Hortaz, elkarteek jarraitu behar dute deszentralizazioarekin, tokiko izaera eta jitearekin, hor elikatzen baita sormena gehien (baita desira ere). Eta, era berean, jarraitu behar dute esperimentazioarekin, laborategi izaerarekin, ikertzen eta proba pilotuak egiten han eta hemen. Ausartu behar dira elkarteak eta XXI. mendera egokitutako praktika berriak (edo berrituak) proposatzen. Gainera, deszentralizazioak ere laguntzen du artikulazio komunitarioan. Eta horretan jarraitu behar dute elkarteek gertuko eta hurreko lana egiten, orain arte bezala geroan ere. Hari finez josten jarraitu beharko lukete elkarteek, ahaztu barik batzuetan hari potoloetz jostea ere beharrezkoa dela. Hau da, tokiko egoeretara moldatzen jarraitu behar dute elkarteek, hor dutelako potentzialitaterik handiena. Baina, era berean, ezin da bazterrean utzi egitura makrogoek (tokiko maila gainditzen dutenek) ere eragina dutela eguneroko bizitzan eta tokiko bizitzan, zer esanik ez euskararen biziberritzean.

Elkarlana edo lankidetzak izan dute buruhauste elkarteek orain arte. Aurrerantzean ere izango dute, gauzak ondo bidean. Horien artean, lankidetzak publiko-pribatua sarritan aipatu dute elkarteek azken aldion eta hurrengo urteetan bide bere-tik joko dutela aurreikusteko modukoa da. Eta hor formula berriak esperimentatu

beharko dituzte elkarteek. Adibidez, formula egokia izan daiteke hainbat euskal herritan ahalduntze³³¹ eskolek³³² abiatu dutena edo Hekimen-en bidez euskarazko hedabideak kontzertaziorako egin diren pausoak. Dena den, nire ustez, elkar-teek oro har aintzat beharko lituzkete kontu batzuk, Medeak talde feministak dioen bezala: “Uste dugu instituzioak bai ala ez afera oso konplexua dela. Gauza interesgarriak egin daitezke instituzioekin. Gainera, justizia eta etika feministari dagokion zerbait da errekurtso publikoak banatzea. Ez dugu arazorik halakoetan parte hartzeko. Baina hori ezin liteke izan dena, ezin liteke izan azken helburua. Gure instituzioetako parte-hartzea puntuala da, eta betiere gure taldeko interesak kontuan hartuz eta aliantza feministetatik lan eginez. Arriskutsua iruditzen zaigu talde feminista baten praktika politikoak instituzioetan sistematizatzea” (Medeak, 2013). Hau da, elkarteek lankidetzak praktikatu bai, baina dentsitate kritikoa galdu barik, edo ahalik eta gutxiena galtzen, behinik behin.

Lankidetzaz edo elkarlanaz aritzean, ostera, gutxitan aipatu dituzte beste el-karte edo mugimendurekin aliantzak egitearena. Mari Luz Estebanek honela deskribatzen du egoera: “Salbuespenak albuespen, esango nuke euskaltzaleen mugimendua nahiko autobildua dagoela, beste gune edo mugimenduetan euskararen alde egiten ari diren jardueri edo saiakerei begiratu gabe, edo ez modu sistematikoan” (Esteban, 2019). Nire ustez, hurrengo urteetan euskara elkarteek ere oratu beharko diote aliantzen kontuari. Elkar ukitzeko eta elkar aberasteko espazioak sortu beharko lituzkete elkarteek eta, besteekin batera, lan ildo eta jar-dunbide batzuk martxan jarri, gurutzaketak egiten.

Beste alde batetik, hiztuna orain baino gehiago hartu beharko lukete elkarteek ardatz: hiztunak ahalduntzea edo boteretzea izan beharko luke elkarten helbururik garrantzitsuenetako bat. Horretarako, ostera ere, feminismoari eta haren praktikari begiratu beharko liokete gehiago elkarteek. Esate baterako, lehen aipatu ditudan ahalduntze edo boteretze eskolei. “Espazio hauetan Boteretze-Eskolek estrategia pedagogiko feministak aplikatzen dituzte emakumeen ahalduntzea hobetzeko orokorrean: eztabaida eta gogoeta kritikoa sortzean datza, esperientzia eta bizipenetatik abiatuta, ikasketa horizontal, arazotzaile eta askatzailea lortuz; edukiak landuz betaurreko moreekin; historian eta eragin-guneetan emakumeen papera bistaratu eta, azkenik, talde autonomoak eratuz oztupo egiturazkoak,

331 Ahalduntze eta boteretze kontzeptuak erabiliko ditut hemendik aurrera ingelesezko *empowerment* kontzeptua itzultzeko. Nik boteretzearen alde egingo nuke hautua, baina egia da zabalduago dagoela ahalduntzea. Uler bitez biak hurrengo lerroetan sinonimo bezala.

332 Honela definitzen ditu ahalduntze eskolak Maitane Pikazak: “Eskola da formaziorako bitartekoa, ikasketa prozesua jarraia delako bizitzan zehar eta ikasketa baldintza delako boteretze indibidual eta kolektiboa lortzeko. Gogoeta eta elkarrekin ikasteko espazio honetan, emakumeak elikatzen dira jakintzak eta esperientziak partekatzen. Eskolak boteretzeko dira, ze ez dute boteretzen, tresnak erraztu baizik” (Pikaza, 2017: 162).

sozialak eta harremanezkoak gaindituz” (Pikaza, 2017). Hortaz, agian euskara elkarteak hasi daitezke horrelako ikasketekin esperimentatzen eta euskaldunon egunerokora egokitzen. Azken finean, ahalduntzea edo boteretzea lortuko bada, euskaldunon bizipen, desira, beldur eta nahiekin konektatu behar dute elkarteek, ez bakarrik buru-ariketa batzuen bidez, sentimendu eta bihotzarekin ere bai.

Ahalduntze edo boteretze prozesu horretan elkarteek euren bizi-filosofia, praktika eta lorpenak gehiago eta gehiagorekin komunikatu beharko lukete. Euren diskurtsoa plazara atera, jakintza berriak sortu eta horiek jendarteratu beharko lituzkete elkarteek. Izan ere, errealitatea mila puskatan banatuta dago eta etengabekoa da aldaketa, eta horietara guztietara egokitu beharko lituzkete elkarteek eta aurrera begirako proposamenak eta ekintzak taxutu. Elkarteek gura duten mundu berria elikatu beharko lukete zelulosarekin edo digitalki, edo ahoz, edo, hobeto, bide guztiak erabilita, gogoeta etengabekoa egiten praktika bazter batera utzi barik, jakina. Euren proiektua jendarteratu berben bidez eta ekintzen bidez (ekintzek ere berba egiten dutelako eta normalean berbak baino argiago).

Horretarako, behar-beharrezkoa da akademia eta aktibismoaren arteko ezagutza fluxuak antolatzea. Mikel Ozaitak dioen modura, “... euskararen indarberritze prozesuan aktibismoaren eta zientziaren arteko zubiak indartzea premiazkoztat jotzen dugu, bien arteko ezagutza transferentzia indargarriak baitira” (Ozaita, 2019). Baina ikerketek loturik joan beharko lukete euskara elkarteen esperientziekin, loturik joan beharko lukete hizkuntza praktika berriekin eta biziberritze prozesuetan egin beharreko pausoekin. Eta ikerketa horiek toki mailan antolatuta daude jendearen kezkekin eta oztupoekin lotu beharko lituzkete akademiako kideek. Eragileek borondatea eta parte hartzea izan ezean, ez dute euren balio osoa lortzen ikerketek eta akademiako ekarpenek. ■

7. Azken berbak

Elkarteek proposatzen eta egin nahi dituzten aldaketa guztiak zeharo konplexuak dira, errealitateak eta euskaldunon komunitateak milaka ñabardura eta xehe-tasun dituztelako. Gainera, konplexuak izateaz gain, motelak dira. Horrez gain, kontuan hartu behar da euskaldunok oro har ez ditugula gure esku beharrezkoak lirakeen botere eta eragin bide guztiak (besteak beste, jarraitzen dugulako minoria izaten gure euskal herrietan). Hortaz, faktore asko hartu behar dira aintzat aurrera begira, eta ahal duguntxotik abiatu, norabide eta zeruertz utopikoak ahaztu barik. Dena egin beharko dute ondo elkarteek, dena egin beharko dute ahalik eta ondoen, dena ahalik eta txukunen, eta, hala ere, seguruenik, arrakasta beste milaka faktoreren batuketak ekarriko du eta ez horrenbeste elkarteen jardunak. Elkarteen jardunak bultzatu dezake txalupa norabide on batean, baina, azkenean, itsasoaren egoerak indar gehiago izango du txalupako arraunlarien ahaleginak baino. Berba lauagoz esanda, jendartearen tatamian jokatzeko da euskaldunon etorkizuna eta hor elkarteen jardunak eragina izan dezake, jendartea mugiarazi dezakeelako, baina beti eragin txikiegia izanda (elkarteko kideek gura dutenerako, noski).

Horrez gain, elkarteek ikuspegi holistikoagoa hartu beharko lukete. Izan ere, hizkuntza gurekin dago itzartu eta oheratzen garen bitartean, beti, gure ondoan, gure barruan, pentsamenduetan, begietan, aho-ezpainetan edo eskuetan, baina beti gurekin. Hortaz, elkarteen lana holistikoagoa izan beharko litzateke eta hizkuntzarekin harremana daukaten hainbat alorretan eragiteko hautua eta konpromisoa hartu beharko lukete elkarteek. Bulkada berriak behar dituzte elkarteek eta bulkada horiek ekintzen errepertorioa irekitzetik ere etor daitezke. Edo ez. Baina hori dagoeneko beste txakolindegi bateko upela da, idatzi barik dagoen historia eta ibilbidea da. Elkarteek egin beharko dutena, hanka sartuz eta asmatuz. Mihi-gintza ehuntzen jarraituko dute elkarteek, duda barik, ehuntze horretan baitatza, hein batean eta aldeez edo moldez, hizkuntza komunitatearen beraren geroa. ■

8. Bibliografia

ABLEY, M. (2006) *Aquí se habla: un recorrido por las lenguas amenazadas*, Bartzelona: RBA libros.

AED (1990) *Sarrera*, Jazten aldizkaria 3, Arrasate: AED.

AGIRRE, L. (2004) *Gezurra ari du. Egunkariaren itxieraren kronika*, Donostia: Alberdania.

— (2015) *Bagara nor* in *Berria* egunkaria, 2015-03-30

AGIRRE, L., ESKISABEL, I. (2016) *Euskalgintza eta feminismoa: Identitateak berreraiki, demokrazia sendotu, boteretzeko kolektiboa bultzatu eta subalternitate eraldatzaile unibertsalak eraikitzeke proposamen bat*, Bat aldizkaria 98, Andoain: Soziolinguistika Klusterra.

— (2017) *Gorputzen elkargunea, bizi dugun lurraldea*, Jakin aldizkaria 221-222, Donostia: Jakin.

— (2019) *Trikua esnatu da: euskaratik feminismoa eta feminismitik euskara*, Zarautz: Susa.

- AGIRRE, M.** (2015) *Arabako euskalgintza: kapital publikotik hiztun komunitaterantz*, Jakin aldizkaria 206, Donostia: Jakin.
- (2019) *Euskara zerbitzuak: lankidetzaren hitza esanabiz nola bete?*, Bat aldizkaria 112, Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
- AGIRREBALTZATEGI, P.** (1995) *Euskararen gizarte mugimendua: zeregina eta artikulazioa*, Bat aldizkaria 16, Andoain: EKB.
- (1999) *Euskararen aldeko gizarte-mugimenduaren 25 urteok, EKBren ekarpena*, Bat aldizkaria 31, Andoain: SEI.
- AGOTE, I.** (1995), *Euskararen aldeko mugimendu sozialak*, Bat aldizkaria 16, Andoain: EKB.
- AHEDO, I.** (2010) *Acción colectiva vecinal en el tardofranquismo: el caso de Rekalde*, Historia y política aldizkaria 23, Madril: Centro de estudios políticos y constitucionales.
- AIERBE, A.** (1991) *Galtzaundi euskara taldean euskaldunok elkarturik euskararen normalizaziorantz*, Bat aldizkaria 5, Andoain: EKB.
- (1993) *Euskal kulturaren zabalpena*, Jazten aldizkaria 8, Arrasate: AED.
- AIESTARAN, A.** (2007) *Deba Barreneko euskarazko komunikazio sistema: tokian tokiko aldizkariaren kazetaritza-genero eta gaien analisisa 2000-2004 bitartean (eta Kitto, Pil-pilean, Barren, Berriketari, Kalaputxi eta Drogeteniturrari)*, doktorego-tesia, Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- (2010) *Euskarazko herri-prentsaren irakurleen profila aztergai*, Uztaro aldizkaria 74, Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- AIZPURU, M.** (2003) *Udako euskal unibertsitatea euskal kulturagintzan: hasierako urteak 1973-1984*, Bilbo: Udako euskal unibertsitatea.
- AIZPURUA, X.** (1993) *Euskararen erabileraren diagnostika eta herrietako elkarten ekarpenak*, Jazten aldizkaria 8, Arrasate: AED.
- ALBERDI, P.** (2000) *Satorrak baino lurperago*, Donostia: Erein.

- ALGA, M. L. (2018) *Etnografía “terrona” de sujetos excéntricos*, Bartzelona: Bellaterra.
- ALKORTA, L., ZUBEROGOITIA, A. (2009) *Masa-komunikaziotik informazioaren gizartera: euskararen bideetan barrena*, Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- ALTUNA, L. (2011) *Arrasateko esperientzia kooperatiboa: sintesi orokorra*, Eskoriatza: Lanki ikertegia.
- AMEZAGA, A. (2018) *Inor ez delako profeta bere mendean*, Donostia: Erein.
- AMESTOY, I. (2010) *Euskararen bidea Agurainen: Aguraingo euskalgintza*, Gasteiz: Arabera.
- AMONARRIZ, K. (1993) *Euskararen aldeko mugimendu sozialak gaur egun*, Jazten aldizkaria 8, Arrasate: AED.
- (2011) *Topa! Gunea mugimenduan!*, Topaberri aldizkaria 64, Abadiño: Topagunea.
- (2017) *Tolosaldea Birreuskalduntzeko Elkartea*, in 50 Lizardi 1967-2017: garaiaren lekuko, Antton Izagirre, Tolosa: Lizardi Kultura Elkartea.
- (2019) *Euskararen bidegurutzetik*, Donostia: Elkar.
- AMONARRIZ, K., ARRUTI, I. (1998) *Euskararen aldeko mugimendu sozialak gaur egun* in Hizkuntzen aldeko mugimendu sozialak, Joseba Intxausti (editorea), Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- AMONARRIZ, K., MARTINEZ DE LAGOS, I. (2017) *Bidegurutzetik ateratzeko palankak*, Bat aldizkaria 103, Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
- AMORRORTU, E. (2003) *Basque sociolinguistics: language, society and culture*, Reno: University of Nevada.
- AMUNDARAIN, J. M. (1993) *Euskara sustatzeko elkarten garrantzia tamaina handiko udalerrietan*, argitaratu gabeko txostena, Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- ANAUT, D. (2013) *Euskararen kate hautsiak: hizkuntza zapalkuntzaren memoria*, Donostia: Euskal Memoria Fundazioa.

- ANBOTO** (2004) *Anbotoren printzipioak eta ildo editoriala*, argitaratu gabeko txostena, Durango: Barbaro.
- ANDERSON, B.** (1983) *Imagined communities: reflections on the origin and spread of nationalism*, Londres: Verso.
- ANDONEGI, A.** (1993) *Bilbon dinamika sozial bati ekiteko oinarriak*, argitaratu gabeko txostena, Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- ANDREU, J.** (2000) *Las técnicas de análisis de contenido: una revisión actualizada*, Fundación de estudios andaluces vol. 10.2, Granada: Universidad de Granada.
- ARACIL, LL.** (1965) *Conflit linguistique et normalisation linguistique dans l'Europe nouvelle*, Nancy: Centre Européen Universitaire.
- ARANA, G., ZUBEROGOITIA, A.** (2012) *Goiena komunikazio taldea: tokiko talde multimedia baten kasu-azterketa*, Uztaro aldizkaria 83, Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- ARANGUREN, A.** (1999) *Euskarazko komunikabide lokalak Euskal Herrian*, doktorego-tesia, Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- ARANGUREN, L.** (1993) *Azkoitian normalizaziorako eman beharreko urratsak Txepetxen teoriaren arabera*, argitaratu gabeko txostena, Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- ARBULU, I.** (1992) *Bilbo euskalduntzen*, Bat aldizkaria 7-8, Donostia: EKB.
- AREXOLALEIBA, J. L.** (1992) *Arrasate Euskaldun Dezagun*, in I. Jardunaldiak soziolinguistikaz, Bilbo: Bilboko udala.
- (1993) *Sentsibilizazio arloa*, Jazten aldizkaria 8, Arrasate: AED.
- AREXOLALEIBA, J.** (1990) *Gure lanaren norabidearen teorizazioa*, Jazten aldizkaria 3, Arrasate: AED.
- (1992) *Dinámica popular de normalización lingüística: la experiencia de Arrasate Euskaldun Dezagun*, in III Congreso internacional da língua galego-portuguesa na Galiza, Coruña: AGAL.

- (1993a) *Euskalgintzan bai, eta adorez eta atseginez*, Jazten aldizkaria 6, Arrasate: AED.
- (1993b) *Hamar urte hauetako historia txikia*, Jazten aldizkaria 7, Arrasate: AED.
- (2012) *Euskal Kulturgintzaren Transmisioaren aditu-titulua*, Bat aldizkaria 83, Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
- ARISTI, P.** (1985) *Euskal Kantagintza berria*, Donostia: Erein.
- ARNEDO, M.** (2014) *Atxutxiamaika aisialdi taldeak haur, guraso eta hezitzaileen euskararen erabileran duen eragina aztertuz*, lan argitaratu gabea, Elgoibar: Hiznet.
- ARRIETA, D.** (2005) *Arrasate Press: hamasei urteko tokiko prentsaren aitzindaritzan*, in Kazetaritza euskaraz: oraina eta geroa, Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- ARRIZABALAGA, J., MURIAS, A.** (1997) *Autonomoekin solasean*, Tafalla: Txalaparta.
- ARRUTI, I.** (1991) *Udalerrria eta hizkuntz politika Katalunian*, Bat aldizkaria 3-4, Donostia: EKB.
- (1995) *Euskara elkarteak: jatorria eta norabidea*, Bat aldizkaria 16, Donostia: EKB.
- (2008) *Bidegileak: Fernando Muniozguren Urkiola*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- (2018) *Abobizi, belarriprest eta hizkuntzaren armairutik elkarrekin ateratzeko esperientzia bat*, Bat aldizkaria 107, Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
- ARRUTI, I., MUNIOZGUREN F.** (1993) *Euskararen normalizaziorako entitateen arteko elkarlana*, Jazten 9, Arrasate: AED.
- ARTETXE, K.** (2009) *Komunitate zientifiko euskalduna: azterketa historikoa eta bibliometrikoa*, Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- ASKOREN ARTEAN** (1999) *Zer da Kontseilua?*, Jakin aldizkaria 112, Donostia: Jakin.

- ASKOREN ARTEAN** (2000) *El hilo negro de los noventa. Encuentros con la autonomía*, Bilbo: Likiniano elkarte.
- AZKARATE, A.** (1995) *Barren aſtekaria. Azterketa soziologikoa 1995*, Elgoibar: Elgoibarko Izarra.
- AZKARRAGA, J.** (2005) *Diruak behar luke bihotzik*, Iruñea: Pamiela.
- AZKUE, I.** (2018) *Euskara gara Zumaian?*, Bat aldizkaria 108, Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
- AZNAREZ, C., ARJONA, J.** (2002) *Rebeldes sin tierra. Historia del MST de Brasil*, Tafalla: Txalaparta.
- AZPIAZU, J.** (2017) *Masculinidades y feminismo*, Bartzelona: Virus.
- AZTIKER** (2008) *Aikor! aldizkariaren gaineko txostena: irakurleak eta iritziak*, Andoain: Aztiker.
- (2010) *Mintzapraktika egitasmoaren eraginkortasuna neurtzen, 2010*. Emaitzen txosten nagusia, Gasteiz: Eusko Jaurlaritz.
- (2011) *Elgoibarko Izarra elgoibartarrek irudikatua: hausnarketa partekaturako tailerrak 2011*, Andoain: Aztiker.
- (2018) *eta kitto! hedabideari buruzko txostena*, Andoain: Aztiker.
- BALDA, A.** (1993) *Mintzalaguna egitasmoa*, argitaratu gabeko txostena, Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- BAGERA** (1991) *Donostiako euskaltzaleen elkarlanaren bideak*, argitaratu gabeko txostena, Donostia: Bagera.
- (2017) *Nola egin dute? Hizkuntza obituretan eragiteko esperientzien bilduma*, Donostia: Bagera.
- BALESTRINI, N., MORONI, P.** (2006) *La horda de oro (1968-1977): la gran ola revolucionaria y creativa, política y existencial*, Madril: Traficantes de sueños.

- BARCENA, I.** (2002) *Euskal gizarte zibilaren bilakaera historikoa* in xv Congreso de Estudios Vascos: Euskal zientzia eta kultura, eta sare telematikoak, Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- BARRIOLA, J.** (1992) *Bagera - Donostia euskalduna elkartea*, in I. Jardunaldiak soziolinguistikaz, Bilbo: Bilboko udala.
- BASTARDAS A.** (1996) *Política y planificación lingüísticas*, in Elementos de lingüística, Bartzelona: Octaedro.
- (2011) *Ekologiatik hizkuntza iraunkortasunera: marko teorikotik proposamen praktikoetara*, Bat aldizkaria 81, Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
- BASTERRETXE, I.** (1997) *Euskal alfabetatzearen historia zenbait sortzailereren ahotan: (1960-1990)*, Bilbo: Labayru ikastegia.
- BAZTARRIKA, P.** (2009), *Babeli gorazarre*, Donostia: Alberdania.
- BERBAIZU** (2002) *Berbaizuren izaera*, argitaratu gabeko txostena, Deustu: Berbaizu.
- (2004) *Berbaizu: nortzuk gara*, argitaratu gabeko txostena, Deustu: Berbaizu.
- BEREZIARTUA, G.** (2019) *Ez gara neutralak. Argiaren kazetaritza zenbait historia, ideia eta praktikaren bidez azaldua*, Lasarte-Oria: Argia.
- BERRIO-OTXOA, K.** (1998) *Euskararen gizarte-mugimendua eta erabateko kalitatearen filosofia*, IV. Euskal Soziologia Kongresua, Bilbo: Euskal soziologia eta zientzia politikoen elkartea.
- BERRIO-OTXOA, K., MARTINEZ, Z., HERNANDEZ, J. M.** (2003) *Gaztetxoak eta Aisialdia. Etorrizuna aurreikušten (2001-2002)*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- BETANCOR, G., CILLEROS, R.** (2013) *La potencialidad de las entrevistas en profundidad en contextos complejos: investigando movimientos sociales*, Inguruak 55-56, Bilbo: Euskal soziologia eta zientzia politikoen elkartea.

- BIGLIA, B., BONET, J., MARTI, M.** (2006) *Experiencia y reflexiones de investigación* in *Experiències de col·laboració entre ciutadania i recerca universitària*, María Angeles Alio (ed.), Bartzelona: Universitat de Barcelona.
- BIGLIA, B., CUIEL, O., ESTEBAN, M. L.** (2015) *Ikerkuntza feministarako epistemologiari eta metodologiari buruzko gogoetak*, Hegoaren lan-koadernoak 67, Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- BILBAO, J., GARAI, G., MANTEROLA, M.** (1993) *Bagera, eta kitto eta Laixan euskara elkarreak bidea eginez*, argitaratu gabeko txostena, Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- BLAS, A., IBARRA, P.** (2006) *La participación: el estado de la cuestión*, Hegoaren lan-koadernoak 39, Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- BOIX, E.** (2000) *Soziolingüística: eremuaren ikuspegi orokorra*, Bat aldizkaria 37, Andoain: SEI.
- BOYER, H.** (1996): *Éléments de sociolinguistique. Langue, communication et société*. Paris: Dunod.
- BRIÑAS, E., OTSOA DE ALDA, J.** (2002) *Arabako euskal hotsak*, Gasteiz: Geu euskara elkarte.
- BRIT, K., MINTEGIA, J.** (1993) *Oiartzun eta Errenterian herri ekinbideak ea bereziki kultur taldeek normalizazio bidean izan behar luketen eragina*, argitaratu gabeko txostena, Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- BUJANDA, J.** (2019) *Karrikiriko lehendakari berriari elkarrizketa*, Karrika aldizkaria 236, Iruñea: Karrikiri.
- BURIN, M.** (1996) *Una hipótesis de género: el techo de cristal en la carrera laboral*, in *Género, psicoanálisis y subjetividad*, Bartzelona: Paidós.
- CALLÓN, C.** (2017) *Galegalantes e galegofalantes*, Vigo: Xerais.
- CAMACHO, I.** (2002) *Herri aldizkariaren funtzioak eta edukiak (1989-1999)*, doktorego-tesia, Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea.

- CAMPBELL, C. (2000) *Menter Cwm Gwendraeth: a case-study in community language planning* in Language revitalization policy and planning in Wales, edited by Colin H. Williams, Cardiff: University of Wales press.
- CAMPION, A. (1911) *El euskera en Sarazaitzu*. Euskal-Esnalea I.
- CANGA, A. (2012) *La pareja tándem como método para el aprendizaje de una lengua extranjera*, Escuela abierta 15, Sevilla: Revista de investigación educativa del centro de estudios universitarios Cardenal Spinola Ceu.
- CASQUETE, J. (1998), *Política, cultura y movimientos sociales*, Bilbo: Bakeaz.
- (1999) *Gizarte erakundeen erronka*, Uztaro aldizkaria 30, Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- (2001) *Acción colectiva y sociedad de movimientos. El movimiento antimilitarista contemporáneo en el País Vasco-Navarro*, Gasteiz: Soziologiako euskal koadernoak, Eusko Jaurlaritza.
- (2006) *El poder de la calle. Ensayos sobre acción colectiva*, Madrid: Centro de Estudios Políticos y constitucionales.
- CASTELLS, M. (1998) *La era de la información: economía, sociedad y cultura*, Vol. 2 El poder de la identidad, Madrid: Alianza.
- (2012) *Redes de indignación y esperanza*, Madrid: Alianza.
- CHAUFFIN, F. (2017) *Diwan, pédagogie et créativité : les écoles immersives en langue bretonne : quarante ans d'actions*, Fouesnant: Yoran embanner.
- COMBS, M. C., PENFIELD, S. D. (2012) *Language activism and language policy* in Spolsky, B. (2012) *Cambridge handbook of language policy*, Cambridge: Cambridge university press.
- COSTA, J. (2016) *Revitalising language in Provence: a critical approach*, West Sussex: Blackwell publishing.
- COOPER, R. (1997) *La planificación lingüística y el cambio social*, Cambridge: Cambridge university press.

- DAYÁN-FERNÁNDEZ, A.** (2019) *Sharpening our indigenous memory: how grassroots activism is revitalizing galician language*, Folklife magazine, Washington D.C.: Smithsonian.
- DE BRES, J.** (2013) *Plannig for tolerability*, Wellington: Victoria University of Wellington.
- DELGADO, M.** (2016) *¿Qué son los movimientos sociales?*, hemen ikusia: <http://manueldelgadoruiz.blogspot.com.es/2016/11/que-son-los-movimientos-sociales.html> [2020ko urtarrilaren 31a]
- DELLA PORTA, D., DIANI, M.** (2011) *Los movimientos sociales*, Madril: CIS.
- DIANI, M.** (1992), *The concept of social movement*, The sociological review 40-1, Londres
- DIAZ NOCI, J.** (2009) *Euskal kazetaritza* in Diaz Noci, Javier (koord.) *Kazetaritza hizkuntza minorizatueta*: Espainiako kasua, Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- DOBERA** (1993) *Dobera Euskara Elkartearen 1. Dobaketak: Euskara Hernanin*, Hernani: Dobera Euskara Elkartea.
- (1998) *Hamaika arrazoi udaletxeari euskaraz egiteko*, Hernani: Dobera Euskara Elkartea.
- DURANTI, A.** (1997), *Linguistic anthropology*, Cambridge: Cambridge university press.
- EGIA, L.** (2016) *Transitoak hiri atopikoan*, argitaratu gabeko ponentzia, Durango: Topagunea.
- EGIZABAL, D., HUEGUN, A., JAUREGI, P.** (2004) *Kuadrillategi egitasmoa*, Bat aldizkaria 53, Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
- EKB** (1992) *III. Biltzar Nazionala: Ahaleginak bilduz, etorkizuna lantzen*, argitaratu gabeko txostena, Donostia: EKB.

- ELGOIBARKO IZARRA** (1995) *Langileei buruzko filosofia*, argitaratu gabeko txostena, Elgoibar: Elgoibarko Izarra.
- (1997) *Elgoibarko Izarraren nortasun agiria*, argitaratu gabeko txostena, Elgoibar: Elgoibarko Izarra.
- ELORTZA, H., MUJICA, L.** (2004) *Azkoitiko gaitzizenak*, Azkoitia: Maxixatzen euskara elkarte.
- ELORTZA, I.** (2012) *Auzolana euskarazko kulturgintzaren ardatz*, Bat aldizkaria 83, Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
- EMAGIN** (2018) *Ezagutzaren matazak*, Zarautz: Susa.
- ERIZE, X.** (1997) *Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa (1863-1936). Soziolinguistika historikoa eta hizkuntza gutxituen bizitza*, Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- (2016) *Euskal herritarren portaera soziolinguistikoen motibo subjektiboen bilakaera (1991-2015), eta aurrera begirako bideak*, Bat aldizkaria 99, Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
- ESKISABEL, I.** (2017) *Euskaraz bizitzeko diskurtsoak eta bizipenak*, Bat aldizkaria 107, Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
- ESNAOLA, I., OTXOA DE RETANA, A.** (2017) *Tokiko hedabideen ingurumari sozioekonomikoa, egoera eta balizko bilakaera* in Euskal Hedabideen urtekaria, Andoain: Hekimen.
- ESPIAU, G.** (2017) *Nuevas tendencias de la innovación social*, Revista española del tercer sector 36, Valentzia: Fundación Luis Vives.
- ESTEBAN, M. L.** (2017) *Feminismoa eta politikaren eraldaketak*, Zarautz: Susa.
- (2018) *Komunitateak ehunduz herri ekimenetatik: ikerketaren txostena*, Donostia: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- (2019) *Herri-mugimenduen arteko elkar hizketak (euskaltzaleen mugimendu berriturako bidean)*, Bat aldizkaria 112, Andoain: Soziolinguistika Klusterra.

- ESTEBARANZ, J.** (2005) *Tropicales y radicales: experiencias alternativas y luchas autónomas en Euskal Herriak (1985-1990)*, Bilbo: Likiniano elkarte.
- (2011) *Breve historia del anarquismo vasco: desde sus orígenes al siglo XXI*, Donostia: Txertoa.
- ETXEBARRIA, M.** (2010) *Euskara elkarteak aurrera begira*, Topaberri aldizkaria 63, Abadiño: Topagunea.
- ETXABURU, T.** (1995) *Zenbat Gara Kultur Elkarte*, Bat aldizkaria 16, Donostia: EKB.
- (1999) *2000. urterako pedagogia (eta atzera begirako gogoeta batzuk)*, Zenbat Gara aldizkaria 4, Bilbo: Zenbat Gara.
- EUSKAL HERRIKO IKASTOLAK** (2010) *Ikaštola mugimendua: dabilen herria. Ikaštola eredu 1960-2010*, Bilbo: Euskaltzaindia.
- EUSKARAREN UNIBERTSOA** (1997) *Euskararen unibertsoa jardunaldiak*, argitaratu gabeko txostena, Donostia: Euskararen unibertsoa.
- EZKERRA, M., FERNANDEZ, I.** (1995) *Euskararen gizarte mugimendua eta euskararen normalkuntza*, Bat aldizkaria 16, Donostia: EKB.
- FASOLD, R.** (1993) *The sociolinguistics of language*, Oxford: Blacwell publishers.
- (1995) *The sociolinguistics of society*, Oxford: Blackwell publishers.
- FERNANDEZ, I.** (1994) *Oroimenaren hitza: ikaštolen historia (1960-1975)*, Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- FERNANDEZ DE PINEDO, K.** (2004) *Nolako zura (izaera) halako espala (preštakuntza)*, Topaberri aldizkaria 35, Abadiño: Topagunea.
- FISHMAN, J.** (1974), *Advances in language planning*, Haga: Mouton publishers.
- (1982) *Sociología del lenguaje*, Madril: Cátedra.
- (1991) *Reversing language shift*, Cambridge: Multilingual Matters.

- (1997) *O mantemento e o cambio de lingua coma campo de investigación*, Valentzia: Centro de estudios sobre comunicación interlingüística e intercultural.
- (2001) *Llengua i identitat*, Alzira: Bromera.
- FIZ, B.** (2007) *Ikasgelatik plazara: hizkuntzaren normalizazioari helduen euskalduntzetik heldu nahian*, Bat aldizkaria 62, Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
- FLORES, J. A.** (2011) *Desarrollando buenas prácticas en revitalización lingüística* in Antología de textos para la revitalización lingüística, Mexiko: INALI.
- (2018) *Lengua y poder: aspectos teóricos, metodológicos y empíricos de la revitalización lingüística*, Veracruz: Universidad Veracruzana.
- FLORES DAS SEIXAS, J. M.** (2014) *Ques e porques do reintegracionismo*, Santiago de Compostela: A través.
- FRASER, N.** (1997) *Justice Interruptus: critical reflections on the “postsocialist” condition*, London eta New York: Routledge.
- GALLEGO, A., SANZ, V., NADAL, M., SANZ, S.** (2014) *Voluntariat per la llengua: una història que va començar fa deu anys*, Llengua i us aldizkariaren 54. zenbakia, Bartzelona: Kataluniako Gobernu.
- GANDARA, A.** (2015) *Euskal ondare kulturalaren moldatzea (1960-1990), egungo kultur sistemen oinarri*, doktorego-tesia, Gasteiz: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- GARABIDE** (2010) *Euskararen berreskuratzea: hizkuntzak biziberritzeko gako batzuk*, Eskoriatza: Garabide.
- GARAT, M., AIRE, X.** (2004) *Seaska, 40 urte euskararen alde*, Donostia: Elkar.
- GARCIA, N.** (2013) *Aproximación teórica al estudio de la acción colectiva de protesta y los movimientos sociales*, Madril: Red Cimas.
- GOIKOETXEA, G.** (2016) *Euskara irabazteko bidean*, Donostia: Elkar eta Jakin.

- GOIKOETXEA, N., ZINKUNEGI, A.** (2012) *Euskal kulturaren tokia hizkuntza politiketan: Debako kultur bizitzaren azterketa*, Bat aldizkaria 83, Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
- GOIRIGOLZARRI, J.** (2017) *Hizkuntzak eta alderdi politikoak: diskurtso linguistikoak Euskal Autonomia Erkidegoan*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- GOROSTIZA, A.** (1993) *Euskararen sustatzea Barakaldon*, argitaratu gabeko txostena, Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- GORRI, E.** (2018) *Birsortzeko aroa*, Argia aldizkaria 2616, Lasarte-Oria: Argia.
- GRENOBLE, L., WHALEY, L.** (2006) *Saving languages: An introduction to language revitalization*, Cambridge: Cambridge University Press.
- GUTIERREZ, R.** (2017) *Horizontes comunitario-populares*, Madril: Traficantes de sueños.
- GUTIERREZ, R., SALAZAR, H.** (2019) *Reproducción comunitaria de la vida. Pensando la transformación social en el presente* in El Aplante, Producir lo común, Madril: Traficantes de sueños.
- HALBWACHS, M.** (2004) *Los marcos sociales de la memoria*, Bartzelona: Anthropos.
- HAUGEN, E.** (1966) *Language conflict and language planning: the case of modern norwegian*, Cambridge: Harvard university press.
- HARAWAY, D.** (1995) *Ciencia, cyborgs y mujeres: la reinención de la naturaleza*, Madril: Cátedra.
- HEIDERMAN, K.** (2010) *Giving voice to language: basque language activism and the politics of education reform in France, 1969-1994*, Pittsburg: University of Pittsburg.
- (2015) *Theorizing school-based language activism in the Basque Country and beyond: a social movement approach*, Rotterdam: Sense publishers.

- HERNANDEZ, J. M.** (2011) *Eta bizkuntza kare-morteroa izango balitz? Euskara eta identitatearen inguruko hainbat hausnarketa*, argitaratu gabeko ponentzia, Lasarte-Oria: Udaltop.
- HERRARTE, E.** (2007) *Txatxilipurdi elkartearen esperientzia*, Bat aldizkaria 63, Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
- HERRERO, M.** (2015) *A normalização lingüística: uma ilusão necessária*, Santiago de Compostela: A través.
- HERRERO, Y.** (2017) *Cooperar y cuidar de lo común para sobrevivir*, in *Rebeldías en común*, Madril: Comunaria, Libros en acción.
- HERRI HEZITZAILEA** (2015) *Haurren aisialdi parte-hartzailea, euskalduna, hezitzailea eta herritarra garatzen*, Donostia: Herri hezitzailela.
- HIK HASI** (2013) *Herri hezitzailea, eskola herritarra*, 27. monografikoa, Donostia: Hik Hasi.
- HINTON, L.** (2001) *The green book of language revitalization in practice*, New York: Academic Press.
- HODGES, R., PRYS, C.** (2018), *The community as a language planning crossroads: macro and micro language planning in communities in Wales*, *Current Issues in Language Planning* 19:2, Londres: Routledge.
- HUSS, L.** (2008) *Researching language loss and revitalization*, in K. A. King eta N. H. Hornberger, *Encyclopedia of language and education*, Clevedon: Multilingual matters.
- IBAÑEZ, A.** (2006) *Karrikiri. Iruñeko euskaldunon elkarte*, lan argitaratu gabea, Iruñea: Hiznet.
- IBARRA, P.** (2000) *¿Qué son los movimientos sociales?*, in *Anuario de Movimientos sociales. Una mirada sobre la red*. Elena Grau y Pedro Ibarra (coord.), Bartzelona: Icaria eta Betiko Fundazioa.
- (2002) *Movimientos nacionalistas. El nacionalismo radical vasco* in *Anuario de Movimientos sociales*, Bartzelona: Icaria eta Betiko fundazioa.

- (2018) *Hacia nuevas formas de acción colectiva social* in Nuevos movimientos sociales: de la calle a los ayuntamientos, Bartzelona: Icaria.
- IBARRA, P., DE LA PEÑA, A.** (2004), *De la confrontación militante a la cooperación pragmática*, Madril: Los libros de la catarata.
- IBARRA, P., LETAMENDIA, F.** (2000) *Los movimientos sociales*, in M. Caminal, Manual de Ciencia Política, Madril: Tecnos.
- ILLARO, A., MARTINEZ DE LAGOS, I.** (2018) *Euskaraldia, obiturak aldatzeko aktibazio ariketa*, Bat aldizkaria 107, Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
- INDA, M.** (2019) *Euskalgintzaren bilakaera eta kultura aktibista: begirada bat Nafarroatik*, lan argitaratu gabea, Iruñea: Hiznet.
- INTXAUSTI, J.** (1981) *JAKIN-en historiaurrea: abertzaletasuna eta euskara*, Jakin aldizkaria 21, Donostia: Jakin.
- (1990) *Euskara, euskaldunon hizkuntza*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- (1998) *Hizkuntzen aldeko mugimendu sozialak*, Leioa: Euskal Herriko unibertsitatea.
- IÑIGO, J. J.** (1992a) *Euskararen gizarte mugimenduaren bilakaera: herrietako euskara elkarteen kasua* in Jardunaldiak soziolinguistikaz I, Bilbo: Bilboko udala.
- (1992b), *Helduen euskalduntze alfabetatzearen herri mugimendua*, Bat aldizkaria 7-8, Donostia: EKB.
- IRAOLA, I., ODRIOZOLA, O.** (2017) *Lengua e inmigración en la definición de la nación*, Spagna contemporanea 51, Modena: Istituto Salvemini.
- IRIGARAI, J. A.** (1973) *Euskara eta Nafarroa*, Iruñea: Aranzadi.
- IRIGARAY, A.** (1974) *Una geografía diacrónica del euskera en Navarra*, Iruñea: Ediciones y libros.
- IRIGOIEN, M.** (2015), *Gizarte mugimenduak, mapa berri baterako lehen orriak*, Gradu Amaierako Lana, Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea.

- IRIZAR, K. (2007) *Hizkuntza komunitateak eta kultura euskara elkarteetan ikuspegitik*, Bat aldizkaria 65, Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
- IRIZAR, K., MARTINEZ DE LAGOS, I. (2006) *Euskara elkarteak sortu zituzten gizon-emakumeekiko miresmena*, Topaberri aldizkaria 60, Abadiño: Topagunea.
- IRURETA, O. (2017) *Egia estiloaren arrakasta eta hedapena* in Aktualitatearen gakoak, Lasarte-Oria: Argia.
- (2019) *Ikasle gaztelania-hiztunak 48 orduz galegoz*, Argia aldizkaria 2651. zenbakia, Lasarte-Oria: Argia.
- ISASI, X. (2015), *Zorua versus unibertsoa*,
 <<http://www.unibertsitatea.net/blogak/isasi/2015/12/03/zorua-versus-unibertsoa/>>
 [2020ko urtarrilaren 31a]
- IZAGA, X. (2017) *Hogeita boset urte bete ditu Gaiteizko Geu elkarteak, beti bezain gogotsu eta eraginkor*, Gaur 8 aldizkaria, Donostia: Gara.
- IZAGIRRE, A. (2017) *50 Lizardi 1967-2017: garaiaren lekuko*, Tolosa: Lizardi Kultura Elkartea.
- IZTUETA, I. (2015) *Cultura vasca vs. euskal kultura*, Donostia: Utriusque Vasconiae.
- IZTUETA, P. (1996) *Intelligentsia kimatuaren orbelak*, Irun: Kutxaren gizarte ekintza.
- (2005) *Euskal idazleen belaunaldiez*, Donostia: Utriusque Vasconiae.
- JAFFE, A. (1999) *Ideologies in action. Language politics on Corsica*, London: De Gruyter Mouton.
- JARA, O. (2013) *La sistematización de experiencias. Práctica y teoría para otros mundos posibles*, Guadalajara: Instituto Mexicano para el Desarrollo Comunitario.
- JÄRLEHED, J. (2008) *Euskara: lengua e identidad en los textos multimodales de promoción del euskera, 1970-2001*, Göteborg: University of Gothenburg.
- JAUREGI, P. (2003) *Euskara eta gazteak Lasarte-Orian (II): hizkuntzazko jokaerak*, Lasarte-Oria: Lasarte-Oriako udala.

- (2017) *Baietz 40 egun euskaraz! Ikerketa-ekintzaren emaitzak*, argitaratu gabeko ponentzia, Lasarte-Oria: Udaltop.
- JAUREGI, P., ANDUAGA, U.** (2019) *Euskaraldia I. Emaitzen azterketa. Euskararen eremu osoa 2018-2019*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- JAUREGI, P., SUBERBIOLA, P.** (2017) *Aldabitz ikerketa: Eusle metodologia. Esperientziaren emaitzak 2013-2016*, Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
- JIMENO JURIO, J. M.** (1997) *Navarra. Historia del euskera*, Tafalla: Txalaparta.
- JOAN, B.** (2012) *Autocentramiento y política lingüística: normalización y actitudes*, argitaratu gabeko ponentzia, Lasarte-Oria: Udaltop.
- JOXEMI ZUMALABE FUNDAZIOA** (1999) *Euskal Herriko herri mugimenduaren gida, 1999*, Gasteiz: Arabera.
- (2014) *Dabilen harriari goroldiorik ez. Militantzia eta horizontaltasunez hausnartzen*, Donostia: autoedizioa.
- (2016) *Parte hartzea xxi. mendean. Aktibismoa: militantzia vs. Boluntariotzaren alternatiba gisa?*, argitaratu gabeko ponentzia, Durango: Topagunea.
- JUARISTI, P.** (2003) *Gizarte ikerketarako teknikak. Teoria eta adibideak*, Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- (2013) *Ikergaien arabera hamazazpi ikerlerro euskal soziolinguistikan*, Bat aldizkaria 87-88, Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
- (2015), *Egunkaria: gizarte zibil euskaltzalearen arrakasta*, Jakin aldizkaria 210, Donostia: Jakin.
- KAPLAN, R. B., BALDAUF, R. B.** (1997) *Language planning: from practice to theory*, Clevedon: Multilingual Matters.
- KAPLAN, R. B.** (2013) *Language planning in Applied research on english language: 2 (1)*, Isfahan: University of Isfahan.
- KARRIKALUZE** (2018) *Karrikaluzek 20 urte, eta gehiago*, Atarrabia: Karrikaluze.

- KASARES, P.** (2014) *Euskaldun hazi Nafarroan: euskararen belaunex belauneko jarraipena eta hizkuntza sozializazioa familia euskaldunetan*, Bilbo: Euskaltzaindia.
- (2017) *Euskararen transmisioa: berrikuspena hizkuntza-sozializazioaren paradigmatik* in *Euskararen biziberritzea: marko, diskurtso eta praktika berriak birpentsatzen*, Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- KLOSS, H.** (1969) *Research possibilities on group bilingualism: a report*, Quebec: Université Laval, Centre International de Recherches sur le Bilinguisme.
- KRUTWIG, F.** (1963) *Vasconia: estudio dialéctico de una nacionalidad*, Buenos Aires: Norbait.
- (2014) *Años de peregrinación y lucha*, Tafalla: Txalaparta.
- KUADRILLATEGI** (2004) *Koadriletan euskararen erabilera suspertzeko egitasmoaren emaitzak*, Donostia: Euskadiko Kutxa.
- LAFUENTE, A.** (2017) *Agurainen, egunerokoan, 75 ordu euskaraz: hizkuntza portaeretan eragitea helburu, argitaratu gabeko ponentzia*, Lasarte-Oria: Udaltop.
- LAGATZU** (2007) *Kalea maisu: aisialdiko elkarteetan eragiteko proposamena*, Zamudio: Lagatzu euskara elkarte.
- LALOUX, F.** (2015) *Reinventar las organizaciones*, Bartzelona: Arpa editores.
- LARRAÑAGA, I.** (2004) *Izarren hautsa 40 urtean*, Elgoibar: Elgoibarko Izarra.
- (2011) *Atzera begira aurrera egiteko 1990-2010*, Elgoibarko Izarra, argitaratu gabeko txostena, Elgoibar: Elgoibarko Izarra.
- LARRAZA, J. L.** (2018) *Bidea eginez. Nafarroako ikaštolak 1961etik 1991ra arte*, Iruñea: autoedizioa.
- LARREA, K.** (2005) *Euskalduntzearen atakan*, Donostia: Erein.
- LARREA, J. M.** (1994) *Euskaldungoa erroizturik*, Iruñea: Pamiela.

- LARRINAGA, A.** (2011) *Kulturgintza esparruko eragileen tradizio intelektualak: kulturgileak gizarte mugimenduetan*, Gasteiz: Tesiker.
- (2017a) *Emozioak ekintza kolektiboan. Emoziozko testuinguruaren bilakaera euskararen aldeko mugimenduan*, Gogoia aldizkaria 16, Gasteiz: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- (2017b) *Euskararen aldeko mugimenduaren bilakaera. Interpretaziorako proposamen bat*, Anuario de Eusko Folklore 51, Ataun: Jose Miguel Barandiaran fundazioa.
- LARRINAGA, A., AMURRIO, M.** (2016) *The ethno-linguistic movement and linguistic self-determination in euskara*, in Basque nationhood, towards a democratic scenario, Ibarra, P., Kolas, A. (eds), Oxford: Peter Lang.
- LARRINAGA, A., BARCENA, I.** (2004), *Politika eta gizartea*, Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- LARRINAGA, A.** (2019) *Euskararen normalizazioa: ikuspegi orokorra eta Euskal Telebistaren kasu partikularra*, Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea eta Euskal Herriko Unibertsitatea.
- LARRINAGA, J.** (2016) *Euskal Musika Kosmikoak*, Mungia: Baga biga.
- LASA, I.** (2006) *Nafarroako euskalgintza, egungo egoera gainditzeko bidean*, Bat aldizkaria 58, Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
- (2012) *Euskal Herriko udalen hizkuntza-politikaren ezaugarri nagusiak 2006-2009*, argitaratu gabeko ponentzia, Lasarte-Oria: Udaltop.
- LEZETA, M., SAN MARTIN, E.** (1991) *Giro urbanoko gazteak eta euskara*, Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- LEWIS, P., SIMONS, G.** (2016) *Sustaining language use: perspectives on community-based language development*, Dallas: SIL international publications.
- LINSTON, H., TUROFF, M.** (2002), *The Delphi method, techniques and applications*, Portland: Addison wesley publishing.

- LO BIANCO, J.** (2018) *Reinvigorating Language Planning and Policy for intergenerational language revitalization* in *The Routledge handbook of language revitalization*, Leanne Hinton, Leena Huss, Gerald Roche (eds.), New York: Routledge.
- LOPEZ GOÑI, I.** (2002) *Nafarroa Garaiko ikaštolen historia (1963-1982)*, Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- LOPEZ ROMO, R.** (2011) *Años en claroscuro. Nuevos movimientos sociales y democratización en Euskadi (1975-1980)*, Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- LORDE, A.** (1984) *Sister outsider: Essays and Speeches*, Berkeley: Crossing press.
- LUKU, A.** (2014) *Libertitzeaz*, Iruñea: Pamiela.
- MANTEROLA, M.** (1993) *Hurrekiko ekintzak*, Jazten aldizkaria 8, Arrasate: AED.
- MARCO PALAU, F.** (2014) *Plataforma per la llengua: 20 anys defensant el catalá*, Bartzelona: Base editorial.
- MARÍ, I.** (1993) *Los movimientos sociales en favor del catalán* in *Hizkuntzen aldeko mugimendu sozialak*, Joseba Intxausti (editorea), Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- MARKO JUANIKORENA, J. I.** (1995) *Hizkuntza plangintza herrietako elkarteetan. Azterketa konparatiboa*, Bat aldizkaria 15, Donostia: EKB.
- (2009) *Hizkuntza-eraldaketa organizazioetan: esperientzia eta modelizazioa*, Donostia: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- (2013) *Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea. Hogei urteko ibilbidearen azterketa*, Bat aldizkaria 88-89, Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
- MARTINEZ DE LAGOS, I.** (2017) *Euskarak 365 egun: inertziak apurtzeko ekintzailletza*, Euskonews aldizkaria 725, Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- MARTINEZ DE LUNA, I.** (2013) *Euskarak duen framing berri baten premia asetzeko proposamena*, Bat aldizkaria 86, Andoain: Soziolinguistika Klusterra.

- (2016) *Euskararen transmisioa eta gaitasuna eta aurrera begirako erronkak*, Bat aldizkaria 99, Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
- (2019) *Euskalgintzaren nondik norakoak: gogoeta bat*, Bat aldizkaria 112, Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
- MARTINEZ, Z., BALDA, A., LARREA, I.** (2017) *Tokian tokiko hizkuntza aktibazioa: hainbat gako*, Bat aldizkaria 107, Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
- MARTINEZ, Z., CASADO, B., IBARRA, P.** (2012) *Jendarte-mugimenduak eta prozesu askatzaileak*, Hegoaren lan-koadernoak 57, Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- MARTINEZ, Z., CASADO, B.** (2013), *Zapalkuntzaz, borroka eta erresistentziaz: jendarte mugimenduak eta prozesu askatzaileak*, Hegoaren lan-koadernoak 60, Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- MCCARTY, T.** (2018) *Community-based language planning: perspectives from indigenous language revitalization* in *The Routledge handbook of language revitalization*, Leanne Hinton, Leena Huss, Gerald Roche (eds.), New York: Routledge.
- MCDONALD, M.** (1989) *“We are not French!” : language, culture and identity in Brittany*, London: Routledge.
- McKEY, W.** (1993) *Hizkuntza-jokaera aldaketa legeen bidez*, Bat aldizkaria 9, Donostia: EKB.
- (1998) *Hizkuntz politika konparatua* in *Hizkuntzen aldeko mugimendu sozialak*, Joseba Intxausti (editorea), Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- MEDEAK** (2013) *Gorputz intsumisoen uluak II*, in *Genero-ariketak: feminismoaren subjektuak*, hainbat egile, Donostia: Edo argitaletxea.
- MENDIGUREN, I.** (1990) *Arrasate Euskaldun Dezagun*, Jazten aldizkaria 3, Arrasate: AED.
- (1993) *Euskarazko komunikabideak*, Jazten aldizkaria 8, Arrasate: AED.

- MENDIGUREN, X., IÑIGO, J.J.** (2006) *The social movement in favour of the normalisation of the basque language*, in *The case of the basque: past, present and future*, Azurmendi, M-J., Martinez de Luna, I. (ed), Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
- MENDIZABAL, A., URIBELARREA, B., ERIZ, M.** (1994) *Elorrion euskararen aldeko gizarte-ekimena osatzeko proposamena*, argitaratu gabeko txostena, Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- MENDIZABAL, J.** (2005) *Tokian tokiko prentsa eta informazioaren gizarte in* Kazetaritza euskaraz: oraina eta geroa, Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- (2016) *Euskaltzaleen Topaguneko esperientzia esanguratsuak: ikuspegi lokala eta nazionalaren arteko osagarritasuna*, Bat aldizkaria 98, Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
- (2019) *Euskaltzaleen mugimendu berritura bidean: Topagunearen irakurketa*, Bat aldizkaria 112, Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
- MENDIZABAL, J., VADILLO, A.** (2017) *Udalak eta euskaltzaleen elkarteak: funtzio banaketak eta lankidetzarako aukerak*, Bat aldizkaria 103, Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
- MINER, I.** (2002) *Lau Haizetara elkarte: etorkizunerako urratsak*, lan argitaratu gabea, Erreterria: Hiznet.
- (2018) *Euskalgintzatik feminismora. Zubigintza baten genealogiak*, master amaierako lana, Donostia: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- MITXELENA, K.** (1964) *Sobre el pasado de la lengua vasca*, Donostia: Auñamendi.
- MOLLÁ, T.** (2002) *Manual de sociolingüística*, Alzira: Bromera.
- MONNÉ, E., SALGA, LL.** (1991) *Historia de la crida a la solidaritat*, Bartzelona: Edicions de la Campana.
- MONTERO, M.** (2003) *Teoría y práctica de la psicología comunitaria: la tensión entre comunidad y sociedad*, Buenos Aires: Paidós.

- MOSCOVICI, S.** (1981) *Psicología de las minorías activas*, Madril: Morata.
- MOURE, T.** (2019) *Lingüística eco-: o estudo das línguas no Antropoceno*, Santiago de Compostela: A través.
- MST** (2002) *Brava gente. El MST y la lucha por la tierra en el Brasil*, Bartzelona: Virus.
- MUGERTZA, E., HARANBURU, A., RAMOS, R.** (1994) *Iruñean euskara taldea sortzeko proposamena*, argitaratu gabeko txostena, Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- MUJKA, A.** (2018) *Nola biziberritu erakundeak*, Argia aldizkaria 2610, Lasarte-Oria: Argia.
- MUNIOZGUREN, F., ARRUTI, I.** (1993) *Euskararen normalizaziorako entitateen ateko elkarlana*, Jazten aldizkaria 9, Arrasate: AED.
- MUXIKA, J. M.** (1993) *Sarrera*, Jazten 8, Arrasate: AED.
- (2002) *Topagunea euskara elkartearen federazioa norabidea finkatzen*, Topaberri aldizkaria 18, Abadiño: Topagunea.
- (2003a) *Euskal hiztunok babesa izateko, bildu eta antolatu*, Topaberri aldizkaria 30, Abadiño: Topagunea.
- (2003b) *Euskarazko prentsa: tokiko hedabideen estrategia posiblea*, in Tokiko hedabideak etorkizunera begira, Abadiño: Topagunea.
- ODRIOZOLA, J. M.** (2004) *Euskalgintzaren lekukoak*, Donostia: Elkarlanean.
- (2017) *Nora goaz euskalduntasun honekin?*, Donostia: Elkar.
- ODRIOZOLA, O.** (2017) *Erakunde bat baino gehiago: ETA herri mugimendu gisa (1958-1968)*, doktorego-tesia, Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- ODRIOZOLA, O., ZABALO, J.** (2014) *Euskararen garrantzia diskurtso abertzalean: ardatz ala osagarri?*, Uztaro aldizkaria 91, Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.

- O' LAIRE, M.** (2008) *Indigenous language revitalization*, Te Kaharoa aldizkaria 1, Auckland: Te Ara Poutama.
- OLANO, J.** (2014) *Hizkuntza gaztetu nabian*, Berria egunkaria, 2014-07-10.
- ORTEGA, A., AMORROTU, E., GOIRIGOLZARRI, J., URLA, J.** (2016) *Euskal hiztun berriak: esperientziak, jarrerak eta identitateak*, Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.
- ORUESAGASTI, G., ARAKISTAIN, J., OTAEGI, A.** (2014) *Nola txertatu genero-ikuspegia hizkuntza-politikan? Lanerako marko baten proposamena*, Bat aldizkaria 92-93, Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
- OSA, O.** (1999) *EKBren desegitea*, Bat aldizkaria 30, Andoain: SEI.
- OZAETA, J.** (1993) *Gazteekiko ekintzak*, Jazten aldizkaria 8, Arrasate: AED.
- OZAITA, M.** (2017) *Euskararen aldeko aktibismoaren etnografia bat: Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluaren azterketa partaideen eta taldetasunaren ikuspegitik*, Master amaierako lana, Donostia: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- (2019) *Hitzaurre gisa*, Bat aldizkaria 112, Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
- PASCUAL, J.** (2019) *Movimiento de resistencia: años 80 en Euskal Herria. Radios libres, fanzines y okupaciones*, Tafalla: Txalaparta.
- PIKAZA, M.** (2017) *Espacios propios para las mujeres y procesos de empoderamiento: la red de escuelas de empoderamiento de Bizkaia*, Gasteiz: Emakunde.
- PLAZAOLA, E.** (2007) *Eskolaz kanpoko jarduerak eta hizkuntza normalkuntza, Bergararik begiratuta*, Bat aldizkaria 63, Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
- (2008) *Coachinga: -rekin egitea?*, Topaberri aldizkaria 60, Abadiño: Topagunea.
- PÉREZ-AGOTE, A.** (1984) *La reproducción social del nacionalismo. El caso vasco*, Madril: Centro de Investigaciones Sociológicas.
- RAMOS, R.** (2010) *Egindakoaren mapa*, argitaratu gabeko ponentzia, Durango: Topagunea.

- RASCHKE, J.** (1994), *Sobre el concepto de movimiento social*, Zona Abierta 69, Madril: Fundación Pablo Iglesias.
- RIECHMAN, J., FERNANDEZ BUEY, F.** (1995) *Redes que dan libertad. Introducción a los movimientos sociales*, Bartzelona: Paidós.
- RODRIGUEZ, E.** (2019) *Idazleen gorputzak. Egiletasuna ezbaian literaturaren joko-zelaian*, Zarautz: Susa.
- RODRIGUEZ, T.** (2013) *Tximintx, 10 anos traballando en community fostering*, A letra miuda aldizkaria 4, Santiago de Compostela: Coordinadora Galega de Equipos de Normalización e Dinamización Lingüística.
- (2015) *Zer da soziolinguistikoa domestikoa?*,
 <<https://www.argia.eus/blogak/txerra-rodriquez/2015/07/27/zer-da-soziolinguistika-domestikoa/>> [2020ko urtarrilaren 31a]
- (2016) *Mihigintza ehuntzen Basaurin: Euskarabila elkartearen gaineko azterketa*, Master amaierako lana, Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- (2017) *Argazki finkoak*, Jakin aldizkaria 221-222, Andoain: Jakin.
- RODRIGUEZ, T., PALMOU, E.** (2013) *Naturari lotua, asanblearioa, eta galizieraz*, Argia aldizkaria 2374, Lasarte-Oria: Komunikazio biziagoa.
- ROMEO, A.** (2008) *Berbaizu euskara elkarte: ginena, garena, izango garena*, argitaratu gabeko master amaierako lana, Eskoriatza: Mondragon unibertsitatea.
- RUBIO, M.** (2019) *Txillardegia: batasunaren pentsalaria*, Donostia: Jakin, Euskal Herriko unibertsitatea, AEK.
- RUIZ DE OLABUENAGA, J. I., ISPIZUA, M. A.** (1989) *La descodificación de la vida cotidiana, Métodos de investigación cualitativa*, Bilbo: Deustuko unibertsitatea.
- RUIZ DE OLABUENAGA, J. I.** (1996) *Metodología de la investigación cualitativa*, Bilbo: Deustuko unibertsitatea.
- SALLABANK, J.** (2010) *Language documentation and language policy*, Language documentation and description 7, Londres: SOAS.

- (2016) *Hizkuntzaren biziberritzerako politika eraginkorra: nolakoa izan liteke?*, Bat aldizkaria 98, Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
- SANCHEZ, J. (1991) *Herri partaidetza eta katalaneraren normalizazioa*, Bat aldizkaria 5, Donostia: EKB.
- SANCHEZ CARRION, J. M. (1972) *El estado actual del vascuence en la provincia de Navarra (1970). Factores de regresión. Relaciones de bilingüismo*. Iruñea: Nafarroako Foru Diputazioa.
- (1987) *Un futuro para nuestro pasado. Claves para la recuperación del euskera y teoría social de las lenguas*, Lizarra: autoedizioa.
- SANGINES, G. (2011) *Taller d'espai lingüístic personal*, in Unha outra guía para a intervención lingüística, Sanmartin, G., Lema, P., Coruña: Universidade da Coruña.
- SARASOLA, I. (1976) *Historia social de la literatura vasca*, Madril: Akal.
- SARASUA, J. (2013) *Hiztunpolisa: euskaltasunaren norabideaz apunteak*, Iruñea: Pamiela.
- (2015) *Bošt truke: Andeetako, Kurdištaneko eta Serbiako jasokinak*, Iruñea: Pamiela.
- (2019) *Euskaraldia ederki, baina ondo al goaz?*, Berria egunkarian Garikoitz Goikoetxeak egindako elkarrizketa, 2019ko martxoaren 3an.
- SARASUA, J., UDAONDO, A. (2004) *Autoeraketa kokatzen* in Ekonomia sozialaren erronkak kapitalismo globalean, Mendizabal, A., Errasti, A. M. (koord.), Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- SIBAYAN, B. (1991) *The intellectualization of Filipino*, International Journal of the sociology of language 88, New York: De Griyter Mouton.
- SITRIN, M. (2015) *Horizontalidad y territorio*, <<https://horizontal.mx/horizontalidad-y-territorio-sitrin/>> [2020ko urtarrilaren 31a]
- SOLÉ, J. (1991) *Soziolinguística gazteentzat*, Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.

- SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA** (2017) *Tokian tokiko hizkuntza aktibazioa. Kasuen azterketa*, argitaratu gabeko txostena, Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
- SPOLSKY, B.** (2009) *Language management*, Cambridge: Cambridge university press.
- (2012) *Cambridge handbook of language policy*, Cambridge: Cambridge university press.
- SUSPERREGI, I.** (2006) *Euskal aisiaren azterketa*, Hizkunea aldizkaria, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- TARROW, S.** (2011) *El poder en movimiento. Los movimientos sociales, la acción colectiva y la política*, Madril: Alianza.
- TEJERINA, B.** (1992) *Nacionalismo y lengua. Los procesos de cambio lingüístico en el País Vasco*, Madril: Siglo XXI.
- (1999) *El poder de los símbolos: identidad colectiva y movimiento etnolingüístico en el País Vasco*, Revista española de investigaciones sociológicas 88, Madril: CIS.
- (2006) *Los procesos de cambio lingüístico y sus agentes. Un balance de la política lingüística de promoción del euskera de la Comunidad Autónoma Vasca*, in *Las lenguas de España*, Castillo, M., Kabatek, J., Madril: Iberoamericana.
- TELLABIDE, J.** (2004) *Usurbilgo baserriak eta baserritarrak*, Usurbil: Noaua euskara elkarte.
- TILLY, C.** (1986) *The contentious french*, Cambridge: Harvard university press.
- TILLY, C., WOOD, L.** (2010), *Los movimientos sociales: 1768–2008, Desde sus orígenes a facebook*, Bartzelona: Crítica.
- TOKIKOM** (2017) *Tokikom-eko bazkideak, argitaratu gabeko txostena*, Durango: Topagunea.
- TONUCCI, F.** (2013) *Haurren hiria*, Arrasate: Txatxilipurdi.

- TOPAGUNEA (1996) *Topagunearen sortze prozesua*, argitaratu gabeko txostena, Donostia: Topagunea.
- (1997) *Topaberri aldizkaria 0*, Donostia: Topagunea.
- (1999) *Topaberri aldizkaria 9*, Durango: Topagunea.
- (2001) *I. jardunaldiak: euskara elkarteen kudeaketa*, Abadiño: Topagunea.
- (2002) *Topagunea Euskara Elkartearen Federazioaren oraina eta geroa*, argitaratu gabeko txostena, Abadiño: Topagunea.
- (2003a) *Tokiko hedabideak etorkizunera begira: irratia, prentsa, teknologia berriak, telebista*, Abadiño: Topagunea.
- (2003b) *Hitzarmengintza: entitateak euskalduntzeko metodologia. Eskuliburua*, Abadiño: Topagunea.
- (2005) *Euskaldun berrien erabilera programak: eskuliburua*, Abadiño: Topagunea.
- (2006) *Abian gidaliburua*, Abadiño: Topagunea.
- (2008) *Topaberri aldizkaria 61*, Abadiño: Topagunea.
- (2010a) *Euskaldunon elkarteen mugimenduaren kongresurantz*, Topaberri aldizkaria 63, Abadiño: Topagunea.
- (2010b) *Entitateak euskalduntzeko metodologiaren garapena: elkarreetan eragiten hitzarmengintzaren bidez*, Abadiño: Topagunea.
- (2011) *Oinarriparrak*, Abadiño: Euskaltzaleen Topagunea.
- (2012) *Eraldabideak: federaziotik mugimendura*, Abadiño: Euskaltzaleen Topagunea.
- (2015) *Harrera gida: euskaltzaleen topaguneak zertarako eta nola?*, Durango: Euskaltzaleen Topagunea.

- (2017) *Euskaltzaleen Topaguneko bazkideei galdetegia*, 2016, argitaratu gabeko txostena, Durango: Euskaltzaleen Topagunea.
- TOPALABEA** (2015) *Berrikasi eta berrikusi*, Topaberri aldizkaria 66, Durango: Euskaltzaleen Topagunea.
- TORREALDAI, J. M.** (1997) *Euskal kultura gaur*, Donostia: Jakin.
- (2006) *Politikaren munduak gutxiegi ezagutzen du kulturaren mundua*, elkarrizketa Argia aldizkaria 2057, Lasarte-Oria: Komunikazio biziagoa.
- TRUDGILL, P.** (1992) *Introducing Language and Society*. Londres: Penguin.
- TTAKUN** (1991) *Euskaraz bizi txostena*, argitaratu gabeko txostena, Lasarte-Oria: Ttakun.
- (2001) *Ttakun kultura elkarte 10 urte (1991-2001)*, Lasarte-Oria: Ttakun.
- (2007a) *Begiraleek asko egin dezakete haurren artean euskararen erabilera sustatzeko*, Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- (2007b) *Hezitzaileek asko egin dezakete eskola orduz kanpoko jardueretan nerabeen artean euskararen erabilera sustatzeko*, Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- TUHIWAI, L.** (2017) *A descolonizar las metodologías: investigación y pueblos indígenas*, Tafalla: Txalaparta.
- TXIMINTX KOMUNITATEA** (2019) *Elkarte izatetik komunitatea osatzera*, Derio: Tximintx.
- UNESCO KATEDRA** (2016) *Zeelanda Berrian maoriera babesteko lege berria onartu dute in Azkue fundazioa*, <<http://www.azkuefundazioa.eus/euskararen-etxea/berriak-hizkuntza-gutxituak/zeelanda-berrian-maoriera-babesteko-lege-berria-onartu-dute>> [2020ko urtarrilaren 31a]
- UNZALU, G.** (2004) *Berbaiztu euskara elkarte o el intento de estructurización de la población euskaldun en la antigua anteiglesia de Deusto*, lan argitaratu gabea, Donostia: Euskal Herriko unibertsitatea.

- URIARTE, X. (2016) *Nerabeak euskalgintzan. Ttak, Txikupleittuak eta Ixotu taldeen esperientzia*, lan argitaratu gabea, Arrasate: Hiznet.
- URKOLA, A., BIDEGAIN, E. (2016) *Euskarazko toki komunikabideen egoerari begirada bat* in Euskal Hedabideen Urtekaria, Andoain: Hekimen.
- URLA, J. (2003) *Kafe Antzokia: the global meets the local in basque cultural politics*, Papeles del CEIC aldizkaria 10, Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- (2012), *Reclaiming basque: language, nation and cultural activism*, Reno: University of Nevada press.
- URRUZOLA, J. (1999) *Bazkidetzaren inguruko azterketa-proiektuaren txostena*, Lasarte-Oria: Ttakun kultur elkarte.
- URTEAGA, E. (2007) *Soziolinguistika Frantzian*, Bat aldizkaria 63, Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
- VERGER, A. (2009) *¿Por qué tienen éxito (o fracasan) los movimientos sociales? Ejemplos de las campañas en defensa de la educación pública* in Educación, globalización y sindicalismo, Palma: Escola de Formació en Mitjans Didàctics.
- VILA I MORENO, X. (2013) *Ikuspegi zabaleko ikerkuntza soziolinguistikaren hainbat oinarri*, Bat aldizkaria 87-88, Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
- WEBER, M. (1982) *Ensayos sobre metodología sociológica*. Buenos Aires: Amorrortu Editores.
- WEINREICH, U. (1963), *Language in contact: findings and problems*, Haga: Mouton publishers.
- ZABALETA, I. (1993) *Helduen alfabetatze-euskalduntzea: erakundetze polarizatua (1981-1990)*, Uztaro aldizkaria 9, Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- ZABALIK (2016) *hEskuara Amikuzen*, Donapaleu: Zabalik elkarte.
- ZALAKAIN, J. M. (1993) *Joxemiren uzta, euskal prentsa herri proiektua da*, Tafalla: Txalaparta.

- ZALBIDE, M.** (2003) *Abuldutako Hizkuntza Indarberritzea: teoriak zer dio?* in erabili.eus. Azpeitiko Euskara Patronatua. Hemen: <http://www.erabili.eus/zer_berri/muinetik/1056974834> [2020ko urtarrilaren 31a]
- (2004) *Joshua A. Fishman-en RLS edo HINBE* in erabili.eus. Azpeitiko Euskara Patronatua. Hemen: <http://www.erabili.eus/zer_berri/muinetik/1086087086> [2020ko urtarrilaren 31a]
- (2007a) *Iparraldeko euskalgintza, xix. mendearen bigarren erdian: Zaldubi eta bere garaia*, Euskaltzaindia aldizkaria 52. zenbakia, Bilbo: Euskaltzaindia.
- (2007b) *Sprachpolitik und gesellschaftliche alphabetisierung, Jakin-iturri eta bide-erakusle*, Euskera aldizkaria 52.2, Bilbo: Euskaltzaindia.
- (2007c) *Pedagogoa Batzar Nagusietan, hizkuntzen azterbideak Iturriagaren argitan*, Euskera aldizkaria 52.1, Bilbo: Euskaltzaindia.
- (2015), *XX. mendeko hizkuntza plangintza, Sabino Aranaren 1901eko saioaren argitan*, Hermes aldizkaria 50. zenbakia, Bilbo: Sabino Arana Elkargoa.
- ZALBIDE, M., JOLY, L., GARDNER, N.** (2016) *Euskararen historia soziala lantzeko eredu metodologikoa*, Bilbo: Euskaltzaindia.
- ZAPATA, O.** (2006) *Nafarroako euskara elkarteak*, Bat aldizkaria 58, Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
- (2007) *Mintzapraktika programak*, Bat aldizkaria 62, Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
- ZARRAGA, A. [ET AL.]** (2010) *Soziolinguistika eskuliburua*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- ZEBERIO, M.** (2016) *Autoeraketa XXI. mendean: Hondarribiko Blagan euskara elkartearen sorrera prozesua*, argitaratu gabeko ponentzia, Durango: Topagunea.
- ZIMMERMANN, K.** (2004) *Ecología lingüística y planificación lingüística* in *Lenguas vivas en América Latina*, Lluís i Vidal-Folch A., Palacios A. (ed.), Madrid: Universidad Autónoma de Madrid.

- ZINTZO-MINTZO** (2008) *Jardunaldien balorazioa*, Topaberri aldizkaria 60, Abadiño: Topagunea.
- (2010) *Zintzo-mintzo: gogoeta prozesua*, Urretxu-Zumarraga: Zintzo-mintzo elkarte.
- ZUAZO, K.** (2005) *Euskara batua ezina ekinez egina*, Donostia: Elkarlanean.
- ZUBEROGOITIA, A.** (2015) *Atzerako ispiluan ageri dena*, Jakin aldizkaria 210, Donostia: Jakin.
- ZUBEROGOITIA, A. ETA P.** (2008) *Bertan Bilbo. Bizkaiko hiriburua eta euskara: XX. mendeko historia*, Bilbo: Bilboko udala.
- (2014), *Euskara hirian: indar gidari bila*, Euskera aldizkaria 59,2, Bilbo: Euskaltzaindia.
- ZUBIAGA, M.** (2008) *Gizarte mugimenduen jarrera demokratizatzaileaz* in Poder político y participación, Martínez, Z. eta Blas, A. (ed.), Gasteiz: Cimas, Eusko Jaurlaritza.

9. Eranskinak

9.1 Eduki-azterketan erabilitako liburuen gaineko fitxa (egileak, data, luzera, izaera eta laburpena).

Un futuro para nuestro pasado: claves de la recuperación del euskara y teoría social de las lenguas

Egilea(k): Jose María Sanchez Carrion "Txepetx"

Data: 1987 (lehen edizioa, bigarren edizioa 1991an argitaratu zen).

Luzera: 467 orrialde

Izaera: egilearen doktore tesia da. Liburu formatua du.

Laburpena: Liburu honetan hizkuntzak ikasteko oinarrizko printzipioak aletzen ditu egileak. Horrez gain, hizkuntzak berreskuratzeko (eta, batez ere, euskara) gako sozialak ematen ditu eta hizkuntzen inguruko teoria soziala egin nahi izan du.

Jazten aldizkaria 8: herrietako euskara elkarteei buruzko jardunaldiak (1)

Egilea(k): Joxe Mari Mujika, Kike Amonarriz, Axun Aierbe, Iñaki Mendiguren, Marije Manterola, Jabier Ozaeta, Juan Luis Arexolaleiba, Xabier Aizpurua, Julen Arexolaleiba, Euskal Herrian Euskaraz

Data: 1993

Luzera: 79 orrialde

Izaera: AED elkarteak argitaratzen zuen aldizkaria, biziko bagara jantzi beharra daukagulako, azpitoluarekin. Zenbaki monografiko honek AED elkartearen 10. urteurreneko ekitaldien artean, herrietako euskara elkarteei buruz egin ziren jardunaldien ponentziak jasotzen ditu.

Laburpena:

Aurkibidea:

- Joxe Mari Mujika: Sarrera.
- Kike Amonarriz: Euskararen aldeko mugimendu sozialak gaur egun.
- Axun Aierbe: Euskal kulturaren zabalpena.
- Iñaki Mendiguren: Euskarazko komunikabideak.
- Marije Manterola: Hurrekiko ekintzak.
- Jabier Ozaeta: Gazteekiko ekintzak.
- Juan Luis Arexolaleiba: Sentsibilizazio arloa.
- Xabier Aizpurua: Euskararen erabileraren diagnosis eta herrietako elkarteen ekarpenak.
- Julen Arexolaleiba: Euskalgintzan, bai, eta adorez eta atseginez!
- Euskal Herrian Euskaraz: Euskal Herrian Euskaraz (EHE) erakundearen filosofia normalkuntzaren inguruan.

Jazten aldizkaria 9: herrietako euskara elkarteei buruzko jardunaldiak (2)

Egilea(k): Erramun Baxok, Imanol Agote, Iñaki Arruti, Fernando Muniozguren, Joxe Angel Mikeo.

Data: 1993

Luzera: 36 orrialde

Izaera: AED elkarteak argitaratzen zuen aldizkaria, biziko bagara jantzi beharra daukagulako, azpitoluarekin. Zenbaki monografiko honek AED elkartearen 10. urteurreneko ekitaldien artean, herrietako euskara elkarteei buruz egin ziren jardunaldien ponentziak jasotzen ditu.

Laburpena:

Aurkibidea:

- Erramun Baxok: Euskara eta euskal kultura gizarte-integraziorako bide.
- Imanol Agote: Erderaren erabileratik euskararen erabilera.
- Iñaki Arruti eta Fernando Muniozguren: Euskararen normalizaziorako entitateen arteko elkarlana.
- Joxe Angel Mikeo: Herrietako euskara elkarteen antolakuntza.

Topagunearen eratze txostena

Egilea(k): Topagunea, euskara elkarteen federazioa

Data: 1997

Luzera: 31 orrialde

Izaera: Topagunearen eratze prozesuan parte hartu zuten 32 elkartek eztabaidatu eta adostu zuten txostena da hau.

Laburpena: Txosten honetan erakunde sortu berriaren oinarriak jartzen dira eta, horrekin batera, baita herrietako elkarteen ibilbide eta norabideak ere.

Topagunea: oraina eta geroa

Egilea(k): Topagunea euskara elkarteen federazioa

Data: 2002

Luzera: 18 orrialde

Izaera: Topaguneak barne hausnarketa egin zuen eta horren fruitu da barne-txosten hau.

Topagunea: oraina eta geroa

Laburpena: Hurrengo urteetan landu beharrekoak, hartu beharreko norabideak eta bitartekoak zehazten ditu, bai Topagunerako bai eta herrietako elkarteetarako ere.

XXI. mendeko Euskaldunon elkarteetako Oinarriparak

Egilea(k): Topagunea

Data: 2011

Luzera: 53 orrialde

Izaera: Topaguneak barne hausnarketa egin zuen eta, horren ondoren, euskara elkarteen lehen kongresua egin zuen. Kongresu horretan onartu egin zen txosten hau.

Laburpena: Oinarriparak markatu nahi izan zituen hartu beharreko bideak, jarraitu beharreko printzipioak eta abarrak.

Eraldabideak: federaziotik mugimendura

Egilea(k): Topagunea

Data: 2012

Luzera: 26 orrialde

Izaera: Lehen kongresuan printzipio orokorrak zehaztu ostean, horiek martxan jartzeko bideak hausnartu eta bigarren kongresua egin zuen. Kongresu horretan onartutako txostena da hau.

Laburpena: Eraldabideek oinarriparak martxan jartzeko jarraitu beharreko pausoak zehaztu nahi izan zuten.

Berrikasi eta berrikusi: euskaltzaleok batzen gaituena garrantzitsuagoa delako

Egilea(k): Topalabea taldea (Kike Amonarriz, Elena Laka, Mikel Irizar, Julen Arexolaleiba, Xabier Erize, Iker Martinez de Lagos, Iñaki Martinez de Luna, Jasone Mendizabal, Jon Sarasua)

Data: 2015

Luzera: 20 orrialde

Izaera: Topagunearen barne buletinaren (Topaberri izeneko) zenbaki berezia izan zen dokumentua.

Laburpena: Hainbat herritan egin zituzten dokumentua eztabaidatu eta aurkezteko berbaldiak egileetako batzuek.

Harrera gida: Euskaltzaleen Topaguneak, zertarako eta nola**Egilea(k):** Oskar Zapata**Data:** 2015**Luzera:** 52 orrialde**Izaera:** liburuxka bat da**Laburpena:** Euskara elkarteen mugimendura hurbildu gura duen ororentzat bide orria izan gura du: dela elkarteetako aktibista, dela langile edo jakinmina duen edonorentzat.**Nola egin dute? + Ekitea da kontua****Egilea(k):** Idoia Trenor Zulaika (Bagera euskaltzaleen elkarte)**Data:** 2017**Luzera:** 177 orrialde**Izaera:** liburuxka bat da, bi zatitan banatuta, Nola egin dute? esperientzien bilduma eta Ekitea da kontua gida-liburua.**Laburpena:** Hainbat herritan egindako aktibazio plangintzen inguruan aritzen da liburua lehen zatian. Bigarren zatian, ostera, aktibazio plangintza bat martxan jarri nahi dutenentzako aholkuak ematen dituzte.

9.2 Eduki-azterketaren fitxa orokorra

Testua

Egilea(k):

Data:

Luzera:

Izaera:

Bestelakoak:

Galderak:

- Zeintzuk dira/izan beharko lirateke elkarteen mugarri teorikoak? Zein da/izan beharko litzateke praktika gidatuko duen “filosofia”?
- Zeintzuk dira/izan beharko lirateke elkarteen helburuak?

- Zeintzuk dira elkarten egiteko moduak (edo bitartekoak)? Edo zeintzuk izan beharko lukete modu hauek?
- Zer harreman izan dituzte elkarteek erakunde, mugimendu eta beste elkarteekin? Zer harreman izan beharko lukete elkarteek?
- Zer emaitzak lortu dituzte elkarteek? Zer emaitza lortu beharko lukete?
- Zer oihartzun dute/izan beharko lukete elkarteek jendartean? Noraino iristen dira edo iritsi beharko lirateke? Zer hedadura izan beharko lukete elkarteek?

Kategoriak:

Filosofia (mugarri teorikoak)
Helburuak
Bitartekoak (egiteko moduak)
Emaitzak

9.3 Sakoneko elkarrizketetan erabilitako gidoia

SARRERA:

- Neure burua aurkeztu
 - Ikerketa aurkeztu
 - Bakoitza aukeratzearen arrazoiak azaldu
 - Grabatzeko baimena eskatu
 - Elkarrizketak iraungo duen denbora azaldu
1. Zure herriko euskara elkartean sartu zinenean zein zen garai hartako giroa eta egoera herri horretan? (10 minutu)
 - Euskararen egoera
 - Herrigintzaren egoera: mugimendu sozialak, ...
 - Egoera politikoa / ekonomikoa
 2. Zure herriko euskara elkartearen gaineko kontuak (40 minutu)
 - Zer eratako jendea bildu zineten?
 - Zeintzuk izan ziren/dira hasieran euskara elkartearen ekintza nagusienak? (komunikabideak, aisialdia, mintzapraktika, kulturgintza, sentiberatzea, hitzarmengintza, ...)

- Ekintzak aukeratzeko irizpideak/moduak zeintzuk izan dira? Zergatik ekintza horiek eta ez beste batzuk?
 - Zer arazo / korapilo izan zituen hasiera batean elkarteak?
 - Zer harreman izan zituen/dituen herriko beste elkarte/mugimenduekin eta euskalgintzako beste erakundeekin?
 - Zeintzuk izan dira elkarteak erabilitako moduak/bitartekoak?
 - Euskaldunak aktibatzeke zer egin du elkarteak?
3. Zer emaitza/eragin lortu ditu elkarteak? (20 minutu)
- Bilakaera, aldaketak, moldaketak, ...
 - Eraginik izan al du erabileretan? Eraginik izan al du kulturgintzan? Tokiko hizkuntza politiketan?
 - Eraginik izan al du euskaldunak ahalduntzen? Eraginik izan al du euskaldunak trinkotzen?
 - Eraginik izan al du beste zerbaitetan?
 - Herriko euskaldun arruntek elkartearen gainean zer iritzi dutela uste duzu? Eta erdaldunek? Eta euskaltzaleek?
4. Balorazio orokorra (40 minutu)
- Elkartearen lanaz orokorrean zer iritzi?
 - Ondo egindakoak eta txarto eginak
 - Egin behar zirenak (eta egin ez direnak)
 - Gaur egungo egoera zelan ikusten duzu?
5. Laburpena (10 minutu)
- Gehitzeko beste ezer?

9.4 Delphi galdetegirako bidalitako testua

Txerra Rodriguez Gomez dut izena. Doktore-tesia egiten ari naiz EHUUn eta nire asmoa da ikertzea euskara elkarteek zer lortu duten 1987-2017 urteetan. Horretarako, orain arte elkarteetan ibilitako 26 pertsona elkarrizketatu ditut, bibliografia eta abarrak irakurri ostean, jakina.

Hausnarketarako bide gisa gidoi bat duzu ondo lerrootan. Gidoi honek informazio kualitatiboa biltzea du helburu. Beraz, zure iritzia jaso nahiko nuke. Galderak irekiak dira eta horrek nahi duzuna erantzuteko aukera ematen dizu. Gauza bat baino ez dizut eskatzen: kritiko eta autokritiko izan zaitez.

Hasieran, hiru orrialdetan elkarrizketa eta bibliografiatik abiatuta, nire galbahetik saiatu naiz elkarteen lorpen horiek marrazten. Amaieran, berriz, galdera batzuk datoz. Baina, tira, ez duzu zertan galdera horiek erantzun. Kontakizunean agertzen denaren gaineko irakurketa orokorra zein partziala ere egiterik baduzu. Izan ere, galderek balio dute orientazio gisa eta, azkenean, elkarteetako kideek marraztutako kontakizun honen gaineko **zure iritzia jakitea da nik bilatzen dudana, modu batera edo bestera.**

Esan dudana bezala, honen helburua da aztertzea euskara elkarteek zer lortu duten. Baina horrekin hasi aurretik, euskara elkartetzat zer ulertzen dudana azaldu beharko nuke. Labor adierazita haxe da ikerketa honen ondorioetarako euskara elkarteak: tokian tokiko herritarrek sortutako elkarte egituratuak eta tokian toki jarduten duena, euskaldunak ardatz eta erdigune duena, euskaldunen komunitatea egituratzea helburu duena eta autonomia dela (edo izan nahi duela) politikoki, ekonomikoki eta beste elkarteetatik.

Euskara elkarteek zer lortu dute azken 30 urteotan? Aurretik aipatutako iturrietatik (elkarteetan ibiliko 26 pertsonekin egindako elkarrizketak eta bibliografiatik) hainbat ondorio atera dut, baina nahiko nuke zurekin (eta beste aditu/aritu batzuekin) kontrastatu.

Baina euskara elkarteak ez dira ezer eurak osatzen dituzten pertsonak barik. Eta nortzuk osatu dituzte euskara elkarteak? Ez dago analisi handiegirik honen inguruan. Topaguneak 2017an egindako azterketa baten arabera, elkarteetan 2.000 pertsona dabilta boluntario (ez zioten elkarte guztiek erantzun galdera horri). Horietatik 600 pertsona dira 30 urtetik beherakoak eta %52a emakumezkoak. Elkarte bakoitzak boluntario horietatik bat du lehendakari. Kasu honetan lehendakarien batez besteko adina 47 urtekoa da eta 2 bakarrik dira 30 urtetik beherakoak. Gainera, lehendakarien %56a gizonezkoa da.

Elkarrizketatuek, ostera, beste ikuspuntu bat dakarte. Batetik, euren ustez, elkarteak gazteek sortu zituzten (salbuespenak albuespen) eta gazte horiek zahartzen joan dira elkarteekin batera (hemen ere albuespenak albuespen). Bestetik, ikerketa horretan agertzen ez diren beste elementu batzuk ere dakartzate elkarrizketek: elkarteetan aritu direnen artean, hainbat eta hainbat lanbidetako pertsonak egon direla eta daudela.

Esan bezala, euskara elkarteak sortu ziren euskaldunek euren burua antolatzeko tresna gisa. Hortaz, hasieratik lan egin dute toki mailako artikulazio gradu

bat lortzeko tokia tokiko euskaldunen artean. Ez osoa, ez betea, ezta herririk herri berdina ere. Ezta hasiera batean espero zena ere. Hala ere euskaldunak bistaratu, euren arteko harremanak ugaltu, batzeko eta egituratzeko aukerak eman dituzte elkarteek.

Hori lortzeko, euskaldunentzako uneak eta guneak sortu dituzte urteak joan urteak etorri. Askotariko une eta guneak: euskaldunen arteko afari edo bazkariak, kultur ekitaldiak, bertso emanaldiak, kontzertuak, hitzaldiak, film emanaldiak, ... Baina, horiekin batera, gune iraunkorragoak ere eratu dituzte elkarteek: antzokiak (edo tabernak, edo txokoak), literatura klubak, tokiko komunikabideak, kontsumo taldeak, kultur zirkuituak, ... Era berean, elkarteek sormen guneak sortu edo elikatu dituzte (bertso eskolak, antzerki eskolak, ...). Azken finean, elkarteek bilatu dituzte euskaldunak trinko egongo diren une eta guneak. Arnasgune funtzional batzuk, alegia.

Une eta gune horiek herri batzuetan sendoak izan dira; beste batzuetan, os-tera, ahula(goa)k. Hala ere, eta salbuespenak salbuespen, une eta gune horiek ez dute euskaldunak trinkotzeko balio izan (hein batean bai, baina orokorrean ez). Euskaldun batzuegana heldu dira zelanbait, baina ez herrietako euskaldun gehienengana. Espazioak sortu dituzte, uneak eta guneak sortu dituzte, baina ezin daiteke esan une eta gune horiek behar beste aprobeixatu dituzte herri horietako euskaldunek.

Elkarte hauek erdigunean jarri dute hiztun komunitatea, alderdikarien gainetik. Ardura hartzea sustatu dute, errebindikazio eta errudun bila ibili barik. El-karte gehienetan partaideak pluralak izan dira, ideologiari dagokionez eta adin, lanbide eta abarrei dagokienez ere. Hala ere, ez dute lortu politikak erabat baldintzatzen zituen urte nahasi horietan bere espazio propioa izaten. Ez dira lerratu alde batera edo bestera, kasurik gehienetan, baina ez dute lortu posizio propioa izaten. Seguruenik, oso zaila zelako horren panorama polarizatuan bestelako egi-teko modu edo estiloek lekua izatea. Hala ere, badirudi horrek, gerora begira, bai izan duela eragin bat, nazio mailan bada ere. Izan ere, azken urteotan badirudi Topaguneak (herrietako elkarte gehienek bilgunea) espazio gero eta zentralagoa duela euskalgintzaren baitan.

Diskurtsoan eguneroko praktikak ekarri dituzte zentrorra elkarteak. Elkarte hauek eguneroko praktikak (ahozko erabilera batez ere, baina, horrez gain, kulturzaletasuna, irakurzaletasuna eta abar) zentroan jarri dituzte. Elkarteak saiatu dira euskararentzako funtzioen berreskurapena praktikara eramaten. Hortaz, el-

karte hauek zentroan jarri dituzte eguneroko praktikak euskaltasunaren funtsa eta biziberritzearen adierazle eta berme gisa. Gaur egun, inork gutxi jartzen du zalantzan erabileraren garrantzia euskararen biziberritzean eta hor garrantzi berezia izan dute elkarte hauek erabili dituzten diskurtsoak eta praktikak. Izan ere, elkarteek performatibo jokatu dute, koherente jokatu dute eta euskara izan dute helburu bai, baina batez ere tresna.

Hala ere, zentroan erabilera jarri arren, horrek ez du ekarri erabileraren igoera nabarmenik. Zentzu horretan, zentroan jarri bai, euskalgintzak diskurtso hori bersarkatu bai, baina badirudi erabilera bera sustatzeko ahalegin eta lanek ez dutela eman espero zena. Agian, salbuespen izan dira mintzapraktika programak. Herri-rik herri (eta beste eragile batzuekin batera) sare indartsua sortu dute euskara halamoduz dakitenak dakitenekin batzeko. Hala ere, euskal komunitaterako sarbide izan den arren, ez dirudi horrek erabileran eragin handiegirik ekarri duen.

Beste salbuespen bat izan daitezke aktibazio programak edo ahobizi-belarriprest dinamikak. Donostiako Egia auzoak jarri zuen lehen mugarrria 2016an. Euskaldunak zeuden tokietara joan ziren Egiakoak eta euskaldunei egunerokoan konpromiso batzuk hartzera deitu zituzten. Horren ostean hainbat herritara hedatu ziren programa hauek (Lasarte-Oria, Agurain, Arrigorriaga, Derio edo BAM eskualdea). Hedatu ez ezik, findu eta tokian tokira aldatu. Eta 2018an 400 herritan eta 220.000 pertsona aktibatu dituzte euskara elkarteek bultzatutako programetan, ahobizi edo belarriprest.

Hortaz, badirudi erabilera zentroan jartzetik erabilera zuzenean sustatzera pasatu direla elkarteak. Azken aldian ekin diote artez erabilera programa hauei. Badirudi emaitza txukunak ari direla lortzen han eta hemen, baina goiz da oraindik jakiteko zer eragina lortuko duen epe ertainean (erabilera eta hizkuntza ohituren aldaketen afera epe ertainean jokatzen dela ematen du, ez epe laburrean).

Elkarteek, batez ere, egin dute. Baina egin ez ezik, elkarteek ere eragin dute (maila apalago batean bada ere). Batetik, aitzindariak izan ziren (euskara zerbitzu batzuekin batera) hitzarmengintza lantzen. Honen bidez, entitateak euskalduntzeko metodologia bat jarri zuten martxan konpromisoetan oinarrituta. Batez ere, aisialdiko elkarteekin eta merkataritza establezimenduekin landu zuten elkarteek. Hala ere, emaitzak ez dira izan espero zitezkeenak, hitzarmengintzak batez ere jarraipen egokia behar duelako eta elkarteek, dituzten ezaugarriengatik (egitura ahula, profesional gutxi eta txarto ordainduak eta horrek errotazio handia zekarren), oso zail izan dute jarraipena txukun eta ganoraz egiten. Jarraipen barik,

hitzarmengintzako proiektu hauek kanpaina bihurtu ziren batik bat (kanpaina eta ez programa jarraia, eragin sakonekoa eta iraunkorra).

Bestetik, beste eragite bide batzuk ere landu dituzte elkarteek: euskarazko hedabideen alde, euskarazko irakaskuntzaren alde (D eredu, Korrika, ...), zinegotzi euskaldunen alde, ... Eragite hauek zer emaitza lortu dituzten ikuskizun dago, zaila da neurtzen, kontzientziazioan eragitera jo duten heinean.

Gainera, euskara elkarten praktikak eta diskurtsoak humus egokia ekarri zuten eta humus horretatik sortu dira hainbat ekimen, erakunde eta abar. Adibidez, sustatu.eus euskarazko lehen bloga izan zen eta hori sortzeko bi eragilek bat egin zuten: Goiena hedabidea (Debagoienako euskara elkarteek sortutako hedabidea) eta Codesyntax enpresa. Beste interneteko aintzindari bat (eibar.org blog komunitatea) ere euskara elkarten humusetik loratu zen. Beste adibide bat izan daiteke Emun. Kooperatiba hau, hein batean, Arrasateko AED euskara elkarteak bultzatutako Euskalan egitasmoaren inpultsuz sortu zen. Edo ahotsak.eus programa, edo Ebete aholkularitza, eta beste hainbat.

Hizkuntza biziberritzean ez ezik, elkarteek beste arlo batzuetan ere eraginak izan dituzte. Ez da ahaztu behar elkarteek Arrasaten izan zutela sorrera (eta epizentroa). Arrasateko AEDk ezarri zuen autoeraketa eredu hori gero beste 100 bat herri, auzo eta eskualdetan erreplikatu egin zen, kopiatu alegia. Hortaz, elkarte guztiek antzeko egitura izan dute. Lege aldetik, kultura elkarte modura eratuta daude, beren estatutuekin. Horrez gain, elkarte guztietan zuzendaritza batzordea eratu da (funtzionamenduari dagokionez, herririk herri alde nabarmenak dauden arren), bazkideak egon dira (urtero diru-ekarpena egin diotenak elkarteari). Elkarte askotan (horretarako diru aukera izan dutenak), boluntarioez gain, soldatapeko langileak ere egon dira eta bilatu da bi figuren arteko korrespondentzia (herririk herri sekulako aldeak eta tentsioak egon diren arren). Hortaz, Arrasate-tik esportatu da hainbat herritara antolakuntza eredu zorrotz eta estu bat. Azken finean, antolaketa eredu honek euskaldunak ardura hartzea zuen helburu, euren burua antolatzeko formula batekin. Eta hori guztia egin dute elkarteak bihurtu dutelako sormenerako dispositibo. Elkarteak izan dira lana egiteko makinaria, euskararen inguruan azterketak egin, proposamenak landu eta erabakiak hartzeko guneak. Elkarteak, batez ere, ekintzaileak izan dira, ez horrenbeste pentsamendura emanak.

Hortaz, Arrasate-tik beste hainbat herritara esportatu da autoeraketa eredu bat, bere argi eta ilunekin. Eredu horrek, antolaketaz gain, jarduteko estilo bat ere ba-

zekarren berekin (kritikoa bai, baina eraikitzailea; euskara zentroan jartzen zuena ideologiak ideologia; tokiko erabakimenean oinarritutako jarduera; eta abar) eta estilo hori ere, aldeak alde eta moldaketak moldaketa, esportatu da. Eta horrek, hein batean, eragina izan du beste mugimendu batzuetan, zeharka bada ere.

Galderak:

- Politikak, edo zehatzago esanda, alderdien dinamikak baldintzatu dute euskalgintza sozialaren jarduna eta, jakina, euskara elkarreana ere. Baina lortu al dute elkarteek alderdikieratik gain jardun eta ahots propioa izatea? Bai? Ez? Zergatik? Baiezkoa bada, zer ezaugarri izan ditu jardun horrek zure ustez? Ezezkoa bada, zertan egiten dute huts elkarteek?
- Ekintzara emanak izan dira elkarteak. Pentsamendua eta kideen formazioa ez dute gehiegi landu. Bat zatoz baieztapen horrekin? Hala bada, zure ustez, horrek zertan eragin du elkarteetan ibilbidean? Zer ondorio izan du horrek? Zer hutsune ikusarazi du horrek?
- Elkarteek erabilera jarri dute zentroan eta saiatu dira erabilera sustatzeko ekintzak egiten. Baina, azken finean, aldarrikapen mailan geratu da hein batean erabilerarena. Zure ustez, hala da? Ez balitz, zer lortu dute elkarteek erabilera sustatzen?
- Trinkotzea izan zen, batez ere, hasieran elkarteetan helburu nagusia. Hein batean lortu zen (herri batzuetan), baina orokorrean ez. Zure ustez hala da? Ezezkoa bada, zertan nabarmentzen da trinkotzea? Baiezkoa bada, zergatik uste duzu ez dela lortu? Zer gako egon ziren/dira trinkotze horretan ez sakontzeko?
- Elkarteek egin dute batez ere (aurretik aipatu dut ekintzara emanak izan direla elkarteak). Eragin dute ere, baina badirudi bigarren maila batean geratu dela eragitearena. Bat al zatoz baieztapen horrekin? Zergatik geratu da eragitearena bigarren plano batean? Zer zailtasun izan dituzte elkarteek eragiteko?
- Folklore eta abangoardiaren arteko sokatiran aritu dira elkarteak. Herri batzuetan, antza, folklorera jo dute eta beste batzuetan, oster, abangoardiara. Zure iritziz zer aldetara jo dute gehien elkarteek? Zergatik? Horrek zer ondorio ekarri du zure ustez?

- Elkarteen osaerak (hau da, elkartea osatzen duten pertsonak) eraginik izan al du elkarteen jardunean? Bai? Ez? Zer zentzutan? Zer norabidetan?
- Ekarpelik egin al diete elkarteek herrigintzari? Bai? Ez? Baiezkoa bada, zer ekarpen mota? Zer neurritan?
- Zure ustez, laburpen horretan aipatzen ez den eraginik edo emaitzarik izan al dute euskara elkarteek? Zeintzuk? Zer arlotan?

9.5 Sakoneko elkarrizketak eta transkripzioak